

ARRIETAKO HIZTEGIA

1. GIZA-GORPUTZA

Atal honetan giza gorputzari dagokion lexikoa biltzen dugu. Informazioa hobeto emateko atal hau ondoko era honetara banatuta aurkezten dugu: burua, ahoa, begia, belarria, sudurra, ilea, gorputza, besoak, hankak, errainak, azala, gurariak eta loa.

1.1. BURUA

arpidxe, arpegidxe: aurpegia

"Ak arpidxe gogor itxitxe seuen, ulerte su? gogortute aragidxe" - (Hark aurpegia gogor uzten zuen, ulertzen duzu? gogortuta haragia)

bekokidxe: bekokia, kopeta

bigotie: bibotea

bixarra, bixerra: bizarra

burue: burua

"Ori burue esta ondo, ori esta burue ondo eukitxie" - (Buru hori ez da ondo, hori ez da burua ondo edukitzea)

kokota: kokota, garondoa

"Kokota busti itxe san" - (Kokota busti egiten zen)

matralle: matraila, masaila

"Matralle esaten dxako oneri, papue badau, baya matralle esaten dxako oneri" - (Matraila esaten zaio honi, papua badago, baina matraila esaten zaio honi)

okotza: okotza

okotzaspidxe: okozpea, okotzazpia

papue: aurpegi-masaila

sama bueltie: sama ingurua

samie: sama

sena: sena

sentidue, sentzune: zentzuna

1.2. AHOA

adurre: adurra, lerdea

agiñe: hortzak eta haginak

"Agiñeko miñentzako, ona esateuden, koñakaas sertu, ill orregas" - (Hagineko minarentzat, ona esaten zuten, koinakagaz zertu, hil horregaz)

"Talleture bota, a agiñe talleture bota, urten didxon barridxe" - (Teilatura bota,

hagin hura teilatura bota, irten diezaion berriak)

"Talleture botate san agiñe" - (Teilatura botatzen zen hagina)

agoa: ahoa

babie: adurra, lerdea

barre faltzoa: barre faltsoa, behartuta, gogo barik egiten den barrea

barre karkaxadie: barre zantzoa, barre algara

barre santzoa: barre zantzoa, barre algara

barrie: barrea

bosa: boza, ahotsa

esneko agiñe: esnetako hagina, umetan lehenengoz irteten duten hortz-haginak

espana: ezpaina

eurreko palak: aurreko palak, aurreko hortz handiak

gustue: gustua, zaporea

"Lapikoa perak beste gustu be teko" - (Lapikoak berak beste gustu bat dauka)

irribarrie: irribarrea

juisidxo agiñe, jusidxoko agiñe: juizioko hagina, azkenengoz irteten duten haginak

karkaxadie: zantzoa, irrintzi, algara

kirriskadie, kirriskarie: kirriskada, haginetao zarata, haginak kauskitzean sentitzen den kirriskada

"Kirriskara bat euki deu agiñetan" - (Kirriskada bat eduki du haginetao)

lurrune: lurruna

matrallagiñe: matrailagina

minpekoa: mihipea, mihiharia, mihipekoa

"Orrek esteko minpekorik, igual badabill, e, apur bet, e, dan baño gidxau esaten, orrek esteko minpekorik esaten da" - (Horrek ez dauka mihipekorik, igual badabil, apur bat, den baino gehiago esaten, horrek ez dauka mihipekorik esaten da)

miñe: mihia

mosue: musua, pota, laztana

musturre: muturra, musturra, ezpainak

"Garbittu ixu musturre" - (Garbi ezazu musturra)

ormasie, ormasidxe: aho-zerua, aho-sabaia

santzoa: zantzoa, irrintzi, algara

"Bai ba esakera ba padau orren ganién amen eusotidxen gu ainbet neskato ta mutill egon gintzen edade antzekoak, d'Uribarrin be bai, da gu amendik etorten bide batetik, ara beko trokararte

ARRIETAKO HIZTEGIA

alkarreas danok, da etorten gintzen gero amendik, batzuk eta beste batzuk Uribarrire, edo Olealdera, eta igual santzo in bidien esta? dakidxenak santzo itxen deu, da bestiek erantzun, de gu emen goas, eta olantxeik" - (Bai ba esakera bat badago horren gainean hamen auzotegian gu hainbat neskato eta mutil egon ginen edade antzekoak, eta Uribarrin ere bai, eta gu hamendik etortzen bide batetik, hara beheko trokaraino elkarregaz denok, eta etortzen ginen gero hamendik, batzuk eta beste batzuk Uribarrira, edo Olea aldera, eta beharbada zantzoz egin bidean, ezta? dakienak zantzoz egiten du, eta besteek erantzun, eta gu hemen goaz, eta holantxe)

"Berbetie, berbetan, santzoagas, bestieri igerri, beste basoan dauena, da arek kontestean" - (Berbeta, berbetan, zantzoagaz, besteari igarri, beste basoan dagoena, eta hark erantzun)

trague: zurrutada, urrupada

txantxarra: txatxarra

txistue: txistua, ttua

"Eta ba, eitxe sana pisarrie, ori memoridxen dekot, bota txistue, ta papel bateas garbittu" - (Eta ba, egiten zena arbela, hori gogoan daukat, bota txistua, eta paper bategaz garbitu)

udxe: oia, hobia

1.3. BEGIA

begi argidxe: begi argia

begi baltza: begi beltza

begidxe: begia

"Mareasiño ordureko begidxe lausi in dostie, sein de desaparesidu in dxatzun moduen, sera edo, bistie be" - (Zorabio ordurako begiek lauso egin didate, zein da desagertu egin zaizun moduan, zera edo, ikusmena ere)

begi epela: begi epela, aurpegi txarra, gaixo itxura

"Begi epela ba, begidxe erdi ixi antzien edo olan egoten danari esaten dxako begi epela" - (Begi epela ba, begiak erdi itxi antzean edo holan egoten denari esaten zaio begi epela)

begi eroa: begi epela

beikunie: begirakunea, adikunea

begi motela: begi motela

begi nabarra: begi nabarra

begi ondoa, begidxondoa: begi ondoa

"Oin be bako askok olan igual begidxondoan da" - (Orain ere badauka askok holan igual begi ondoan eta)

begi santue: begi santua, begi-ninia

begi solidxe: begi zolia, begi zuhurra

"Begi solidxe esaten dxako begi argidxeri" - (Begi zolia esaten zaio begi argiari)

begi suridxe: begi zuria, begi argiak dauzkanari esaten zaio

betterrie: begi errea

betondoa: betondoa

betulie: bekaina

bistie: ikusmena

"Ona ixengo da baya au igual bisterako ganeko ederraas ensaladarako ta be, au lisue eder ederra da" - (Ona izango da baina hau beharbada ikusmenerako gaineko ederragaz entsaladarako eta ere, hau lisua eder-ederra da)

near anpulue: negar anpuluua, negarra, malkoa

negarra: negarra, negar anpuluua, malkoa

ojerie: betondoa

pestañie: betilea

pistie: pizta

santue: begi santua, begi-ninia

"Au santue ba, berdie badekosu, begidxe berdie tekosus" - (Santu hau ba, berdea badaukazu, begiak berdeak dauzkazu)

"Santue esaten dxako orreri barrukoari txe estaipa ni pa" - (Santua esaten zaio barruko horri eta ez dakit ba nik ba)

sotiñe: zotina, negar zotina

1.4. BELARRIA

astrapalie: astrapalada, zarata handia

"Selako astrapalie ataraten du!" - (Zelako astrapalada ateratzen dugu!)

astrapalotza: astrapalotsa

belarridxe: belarria

"Telebisiñotik edo radidxotik edo asko entzun dales ya belarridxe ein ye" - (Telebistatik edo irratitik edo asko entzun denez gero ja belarria egin da)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"San Kristobal belarriarena da au erminttie" - (San Kristobal belarriarena da baseliza hau)

berbotza: berbotsa

"Suen berbotzak entzuten dire sereti pe" - (Zuen berbotsak entzuten dira zeretik ere)

bunburidxe: durunda, barrunba

"Barruen jente asko dau te, berbotza asko sertzzen dales, bunburidxe esaten tzagu guk orreri" - (Barruan jende asko dago eta, berbotsa asko zertzzen denez gero, durunda esaten diogu guk horri)

girrintzie: girrintza

pausotza: pausotsa

saratie: zarata

"Saratie eraitxen baño eseuen dxakin kasik baya, bera ixeta san naikoa" - (Zarata eragiten baino ez zuen jakin kasik baina, bera izaten zen nahikoa)

sokorrue: sokorruea, alarua, garrasia, oihua

"Ganaduegas ibilli tte asaoti edo sokorru itten dxako ganadueri itzela gero" - (Ganaduagaz ibili eta asagotik edo sokorru egiten zaio ganaduari itzela gero)

1.5. SUDURRA

akar usiñe: aker usaina

"Amen akar usiñe, amen sorgiñek on die, esaten ixen due" - (Hamen aker usaina, hamen sorginak egon dira, esaten izan dute)

arnasie: arnasa

"Arnasie artu esiñi nau" - (Arnasa hartu ezinik nago)

atza: hatsa

"Selako atza dau amen" - (Zelako hatsa dago hemen)

erre sundie: erre sunda

"Esnie erreten danien da erre sundie dau" - (Esnea erretzen denean eta erre sunda dago)

"Ba esate san base, da neu pe iños asme dot orren usiñe, e? ni Mungidxen ego nitzen baten be olantxe, ba urten emen goixetik, eta Mungidxera dxoa nitzen da, selako erre sundie! erre sundie, ta ser da au te? baya goixetik" - (Ba esaten zen baze, eta neuk ere inoiz asmatu dut horren usaina, e? ni Mungian egon nintzen baten ere

holantxe, ba irten hemen goizetik, eta Mungiara joan nintzen eta, zelako erre sunda! erre sunda, eta zer da hau eta? baina goizetik)

erre usiñe: erre usaina

sundie: sunda

surpie: surpea

"Surpie erreta dekосу" - (Surpea erreta daukazu)

surre: surra, sudurra

surtzilloa, sursilloa: surtziloa, sudurtziloa

usiñe: usaina

ustel usiñe: ustel usaina

1.6. ILEA

bixarra: bizarra, burukoak izan ezik, gorputzaren gainerako ileak

errisue: kirrua, kiribiloa

galbarra: galbarra, bekoki aldeko ulduna

"Galbar ederra deko orre pe!" - (Galbar ederra dauka horrek ere!)

girtena: kirtena, ileetan puntaz geratzen direnak

kalboa: uldunea

kanie: ile urdina, ile zuria

kaskue: kaskua

lumie: birrilea, ile mehea

"Kasureko gurie estu esango bixerrak, bixerra pai, baya, ser? lumek gidxau" - (Kasurako gurea ez dugu esango bizarrak, bizarrak bai, baina, zer? birrileak gehiago)

moñoa: moinoa, moto txikerra

"Beti moñoa nik ikusi dot, da ule lusie barrutik, ulie dana lusie, trentzie iñ, eta gero a tzentzie batuteuen" - (Beti moinoa nik ikusi dut, eta ile luzea barrutik, ilea dena luzea, trentza egin, eta gero trentza hura batzen zuen)

saidxe: buruko zahia

sapie: sapa, txima

trentzie: trentza, ile txorta

"Ulie dana eukieuden aren beti, trentza bat ein moño aspitxik eta batuteuden" - (Ilea dena eduki zuten haren behetik, trentza bat egin moino azpitik eta batzen zuten)

txilingordue, txiringordoa: kirrua, kiribiloa

txortie: txorta, txirikorda

ule baltza: ile beltza

ule fiñe: ile mengela

ARRIETAKO HIZTEGIA

ule girtena: ile kirtena, ile girna

ule gorridxe: ile gorria

ule lodidxe: ile lodia

ule mengela: ile mengela

"Ule mengela neu tekot, sedaskoa lakoa, mengeleidxe" - (Ile mengela neuk daukat, zetazkoa lakoa mengelegia)

ule puntie: ile puntaz

ule sapie: ile sapa

"Ule sapak daridxola eroan esik es baya" - (Ile sapak dariola eroan ezik ez baina)

ule suridxe: ile zuria, ile urdina

ule txilingordue: ile kirrua

"Beres naturales dekonari, ule txilingordue da ori" - (Berez naturalez daukanari, ile kirrua da hori)

ule txortie: ile txorta, ile txirikorda

ulie: ilea

1.7. GORPUTZA

alboa: alboa

altzoa: altzoa

biskerra: bizkarra

bularra, bulerra: bularra

"Bueno bulerra badeko amak, ba bulerra emoten tzien, da gero ostantzien ba, esnetxue edo, esnie bajetute ur apur bategas edo, ta gero asukera apur bet einye olantxe" - (Beno bularra badauka amak, ba bularra ematen zieten, eta gero osterantzean ba, esnetxoa edo, esnea baxatuta ur apur bategaz edo, eta gero azukre apur bat eginda holantxe)

eperdidxe: ipurdia

espaldie: bizkarra

garridxe: gerria

"Lenau paxieas garridxen, pañala lotzen dxakon da umiek kaderak solte" - (Lehenago paxagaz gerrian, oihala lotzen zitzaion eta umeak oinak solte)

gorputze: gorputza

lepoa: lepoa

"Sakatu, onen lepoan imiñi eskuek, ta kaderak sabalik salto beste partera" - (Sakatu honen lepoan ipini eskuak, eta oinak zabalik salto beste aldera)

paparra: paparra

"Paparra selan loitxu su ba?" - (Paparra zelan lohitu duzu)

silbota: zilbota

"Gixoneskoana da silbota" - (Gizonezkoena da zilbota)

soñie: soina

sorbaldie: sorbalda

titidxe: titia

tripeko sille: tripeko zila

tripie: tripa

"Ori be, sein ye koliko moduen edo olan ixeta san, tripetako sera dauenien" - (Hori ere, zein da koliko moduan edo holan izaten zen, tripetako zera dagoenean)

txepie: kunkurra

txikotoye: txikota

1.8. BESOAK

atzamarra: atzamarra

"Atzamarrakas eitxeuen sure amak" - (Atzamarrakaz egiten zuen zure amak)

"Esateuden au dala atzamar printzipala, au baño be biarraukoa" - (Esaten zuten hau dela atzamar garrantzitsua, hau baino ere beharragokoa)

atzamar txikerra: atzamar txikerra

atzasala, asatzala: atzazala

besapie: besapea

besartie: beso-arte

besoa: besoa

dxuntie: junta, artikulazioa

eskerra: ezkerra

eskoye, eskumie: eskoa, eskoia

esku barrue: esku-barrua

eskue: eskua

esku ganie: esku-gaina

esku lepoa: esku-gaina

eskuartie: esku-arte

eskuturre: ezkuturra

orkorooa, orkoloa: orkorooa, erkoroa, atzamar lodiaren izena

ukondoa: ukondoa

ukubille: ukubila

"Ukubillegas dxo oste orrek" - (Ukubilagaz jo nau horrek)

1.9. HANKAK

ankie: hanka, zangoa

belune: belauna

ARRIETAKO HIZTEGIA

"*Bertan daus bidxek, kaderiena dau te gero belunena, arridxen*" - (*Bertan dagoz biak, oinarena dago eta gero belaunarena, harrian*) [*Bakion dagozen San Juanen oinetzen gainean dabil*]

bernie: berna

bies txikerra: behatz txikerra

bietza: behatza

isterra: izterra

kadera egala: oin-alboa

kadera ganie: oin-gaina

kaderaspidxe: oinazpia

kaderie: oina

"*Oiñ andi estire dxoaten, belunkadie dau, bai kaderie ta belune*" - (*Orain handik ez dira joaten, belaunkada dago, bai oina eta belauna*)

oñaspidxe: oinazpia

oñetza: oinetza

"*Godxen oñetza dabil*" - (*Goian oinetza dabil*)

orkatillie: orkatila

orpoa: orpoa

peusue, pausue: pausua, urratsa

saltoa, saltue: saltoa

"*Salto bai, illedie bakotxak segidu itxen suen, ta falta itxen badeu kanpora*" - (*Salto bai, ilara bakoitzak segitu egiten zuen, eta falta egiten badu kanpora*)

sankapie: zankapea, belaunaren atzea

sankie: zankapea, belaunaren atzea

"*Sankak arexekaittik esan gure ixen dot nik, onetara kutxilloagas ein silloa, oin be olantxe eskeitten du guk txala, egurregas*" - (*Zankapeak haiengatik esan gura izan dut nik, honetara kutxiloagaz egin zuloa, orain ere holantxe eskegitzen dugu guk txahala, egurragaz*)

trankue: trangua, urrats handia

"*Tranku andidxe deko orrek*" - (*Trangu handia dauka horrek*)

txankamie: txanka mehea

txankie: txanka, bernaren atzeko aldea

1.10. ERRAINAK

asurre: hezurra

belun burue: belaun burua

beluneko asurre belaun hezurra

bernako asurre: bernako hezurra

bidxosturidxe bihozturia, urdailaren hasierari esaten zaio

bidxotza: bihotza

"*Taukadaka dekot bidxotza*" - (*Taupadaka daukat bihotza*)

biestune, birustune: behaztuna

"*Seu pe dxakingo su, Jose Ramonen andrie be estau ba, biestunetik operata?*" - (*Zeuk ere jakingo duzu, Jose Ramonen andrea ere ez dago ba, behaztunetik operatuta*)

biskarreko asurre, biskerrasurre: bizkar hezurra

dxuntie: junta, artikulazioa

estie: heste

"*Estieri itten dxako sera galdu edo*" - (*Hesteari egiten zaio zera galdu edo*)

estomague, estomangue: urdaila

garnue: gernua

garunek: garunak

gibela: gibela

gorgolle: gorgoila

"*Gorgolle amekoa da, au samako gorgolle au de, au amen urtetan deuen*" - (*Gorgoila hamengoa da, hau samako gorgoila hau da, hau hamen irteten duena*)

kaka: kaka

kokotasurre: kokota hezurra

kokoteko asurre: kokoteko hezurra

kuntzurrunie: guntzurruna

lepoko asurre: lepoko hezurra

matrallasurre: matrailezurra

mokordoa: mokordoa

odola: odola

"*Batzu pa, odola ikusitxe igual desmayetan diela esaten dure*" - (*Batzuk ba, odola ikusita beharbada zorabiatzen direla esaten dute*)

okotzeko asurre: okotzeko hezurra

pulmoye: biria

puxikie: puxika

sadxetza: saihetsa

sana: zaina

txixe: txiza

"*Esaunie bada beintzet, nik estaitt botaten badeu, txixe edo seuser eitten deuela*" - (*Esakunea bada behintzat, nik ez dakit botatzen duen, txiza edo zer edo zer egiten duela*)

une: una

urdille: urdaila

uskerra: uzkarra

ARRIETAKO HIZTEGIA

1.11. AZALA

andittue: handitua

aragidxe: haragia

asala: azala

"Asala barridxe be itten da" - (Azala berria ere egiten da)

askordiñe: azkordina

"Askordiñek neguen etorten dires bietzatan, belarri puntetan da, otzak ekarritte" - (Azkordinak neguan etortzen dira behatzetan, belarri puntetan eta, hotzak ekarrita)

baltzunie: beltzunea

ebaye: ebakia

eridie: zauria

"Sarri in yot nik eridie, ebai tte serrias da beti kureu, baya au etxaten kureu" - (Sarri egin dut nik zauria, ebaki eta zerragaz eta beti osatu, baina hau ez zitzaidan osatu)

"Bai tte gero osabedarra beste bape, badau noberantzako sertzzen dana, txapien ganiien edo imiñi, nonon, da a berotuten danien asala kendu, de a imiñi tte, eridientzako ona da, garbittu itten deu te" - (Bai eta gero osabelarra beste bat ere, badago norberarentzat zertzzen dena, txaparen gainean edo ipini, non edo non, eta hura berotzen denean azala kendu, eta hura ipini eta, zaurientzat ona da, garbitu egiten du eta)

erpekadie: erpakada, txerpakada

garidxe, garatxa: garia, garioa, garatxa

"Niri morroi batek, e, lagun batek, e, euki neuen nik olako garidxe, itzela, da neuk emongo uet ori kenduteko sertzxu bet esa osten, da alako esparadrapo antzekotxu bet emo ostan baltza, d'aixe ganiien iminye eduki tte beres usteldu deu te, da aixek usteldute, kendu ostan" - (Niri morroi batek, lagun batek, eduki nuen nik holako garia, itzela, eta neuk emango diat hori kentzeko zertzxu bat esan zidan, eta halako esparadrapo antzekotxu bat eman zidan beltza, eta huraxe gainean ipinita eduki eta berez usteldu du eta, eta harexek ustelduta, kendu zidan)

golpie: kolpea

"Golpie da golpe bat artzen dosunien, edo dxeusitxe, golpie artun deu orrek umiek" - (Kolpea da kolpe bat hartzen duzunean, edo jausita, kolpea hartu du ume horrek)

gorri unedie: gorri uneda, gorriunea

gorriunie: gorriunea

intzebaidxe: intzebakia

"Intzebaidxek etorten dire, atzamarratan be etorten dire intzebaidxek" - (Intzebakiak etortzen dira, atzamarretan ere etortzen dira intzebakiak)

ixerdidxe: izerdia

"A sabaldu gero palakas, baya biar gogorra da se erreten deu, bai begidxek, dana erreten deu, da ixerdidxeas barres, uden, e!" - (Hura zabaldu gero parakaz, baina behar gogorra da ze erretzen du, bai begiak, dena erretzen du, eta izerdiagaz berriz, udan, e!)

kalloa: kailoa

kolore berdie: azalaren kolorea

mamiñe: mamia, haragia

"Mamiñe agiridxen lotzen da" - (Haragia agirian lotzen da)

markie: orbaina

materidxe: materia

"Materidxek urtetan deu sakatute gero" - (Materiak irteten du sakatuta gero)

odolbatue: odol batua

"Amen baltzitzu in dxat, odolbatue in dxat" - (Hamen belztu egin zait, odol batua egin zait)

"Odolbatue a ixengo da, an odola sartunde dekosu, golpiegas lotunde, baltzittu itten da gero a" - (Odol batua hura izango da, han odola sartuta daukazu, kolpeagaz lotuta, belztu egiten da gero hura)

pekie: orezta

pustille: postila

saldarra, sulderra: zaldarra

"Sulderra esaten tzie, onek bedxek eukitxen txusenak, sulderrak orrek, e, gitxi dxanekoak" - (Zaldarra esaten diote, behi hauek edukitzen dituztenak, zaldarrak horiek, gutxi janekoek)

"Nire gaste denporan, amak eta, saldarrak, e, kinpulie, saidxegas, sai beroagas da iminye, ba olan, parien imiñi trapu bateas batu te, errementeu eraiñ" - (Nire gazte sasoian, amak eta, zaldarrak, kinpula, zahiagaz, zahi beroagaz eta

ARRIETAKO HIZTEGIA

*ipinita, ba holan, parean ipini trapu
bategaz batu eta, errementatu eragin)*

tunturre: tunturra, handitua

txatxamurkadie: txatxamarkada

tximurre: zimurra

txotorra: txotorra, begitxindorra

*"Andittuten danien begidxe? txotorra edo
ori" - (Handitzen denean begia? txotorra
edo hori)*

urbatue: urba tua

urrukadie: urratada

*"Fijo dau sasiartien, dxoaneskero,
urrukadie" - (Ziur dago sasi artean,
joanez gero urrutada)*

1.12. GURARIAK

askurie: hazkurea

egarridxe: egarria

gomittu larridxe: botagura

gosie: gosea

kaka larridxe: kakalarria

logurie: logura

*"Ori de logurie, begidxetan be igerten
dxatzu" - (Hori da logura, begietan ere
igartzen zaizu)*

txixe larridxe: txizalarria

1.13. LOA

amesetie: ametsa

arrosidxe: aharrausia

lo: lo

lokukue: lokukua, lotaldi txikerra

*"Bai igual dxan da gero ba, logurie ta
lokukue, telebisiñoan begire basaus, ba
logure badxoatzu lokukue igual eitxen
dosu" - (Ba beharbada jan eta gero ba,
logura eta lokukua, telebistaren begira
bazagoz, ba logura badoakizu lokukua
beharbada egiten duzu)*

lo ostie: lo ostea

lo oste txarra: lo oste txarra, lo egin ostein
edukitzen den aldarte txarra

lo sakona: lo gogorra

lo sikue: lo sendoa

lo surre: lo zuhurra

lotaldidxe: lotaldia

lo txarra: lo txarra

orroye: zurruna, orroa

siestie: bazkalostekoa, biaoa

urrumie: zurruna

2. OSASUNA

Atal honetan osasunagaz erlazionatuko
berbak aurkezten ditugu. Atala lau azpi-
ataletan banatu dugu: gaixoak, sintomak,
erremedioak eta kolpeak.

2.1. GAIXOAK

begiskoa, begiskoana: begizkoa

*"Begiskoa kentzeko astuaiñe eurki, eroate
san" - (Begizkoa kentzeko azturuagana
aurki, eroaten zen)*

beraskoa: beherazkoa, beherakoa

*"Beraskoa esaten da, estomangue bigun
dauenien" - (Beherazkoa esaten da,
urdailetik bigun dagoenean)*

bidxotzekoa: bihotzekoa, bihotzeko gaixoa

bixidxoa: bizioa

bixiena: biziena, minbizia

elgorridxe: elgorria

erreumie: umorea

gatxa: gaitza, gaixoa

geixoa, gaixoa: gaixoa

gibelekoa: giblelekoa, gibleleko gaixoa

gorra: gorreria

gripie: gripea

kantzerra: minbizia

katarroa: katarroa

*"Pistek danien eukitxen txusenien begiko
katarroa" - (Piztak denean edukitzen
dituenean begiko katarroa)*

kokaldie: kokaldea, papera

kolera geixoa: kolera gaixoa

kolerie: kolera

kontrabistie: betokerra denaren gainean
esaten da

kostipedue: kostipadua, marranta

*"Nik iños entzun dot kostipedue danien be
ona dala botatie" - (Nik inoiz entzun dut
marranta denean ere ona dela botatzea)*

*"Mamukidxoa ba seuser bronkidxoatakoa
edo olan aren ure useta san, kostipedue
edo badau be bai aren ure ta, egositte" -
(Mamukioa ba zer edo zer brokioetakoa
edo holan haren ura usatzen zen,*

ARRIETAKO HIZTEGIA

marranta edo badago ere bai haren ura eta, egosita)

kukurruku estule: kukurruku eztula
"Kukurruku estule len bai entzute san" -
(Kukurruku eztula lehen bai entzuten zen)

osasune: osasuna

pulmonidxe: pulmonia, alborengo

sarnie: sarna

unurie: unorea, erreuma

"Orrek unuriek badxekosak asko" - (Horrek unoreak bazauzkak asko)

urdillekoa: urdailekoa, urdailena

2.2. SINTOMAK

alboko miñe: alboko mina, karraka egin eta ostean alboan sentitzen den mina

antojue: antojua, nazka, higuina

arnasistue: arnasestua

arnasoska: arnasoska

arnasoskie: arnasoska, arnasestua

bidxorkadie: bihurkada

biosganekoa: bihozganekoa

biotzerrie, bidxotzerrie: bihotzerrea

bulerristue: arnasoska, arnasestua

damistikune, doministikune: doministikua

dardakadie: dardakada

"Au de dardakadie, ori betikoa du, bape, otzikarari padau, dardakadan otzagas" -
(Hau da dardakada, hori betikoa dugu, bat ere, hotzikararik badago, dardakadan hotzagaz)

enpague: antojua, nazka, higuina

enpatxue: enpatxoa

"Enpatxue da, sikue, estomangu sikue dauenien dau enpatxue" - (Enpatxoa da, sikua, urdaila sikua dagoenean dago enpatxoa)

erasoa: eraso

"Eraso ba kadera baten suk bidxorkada bat eitten dosu te eraso in yeu, eta esaten du, beittu kaderie eraso deu" - (Eraso ba oin baten zuk bihurkada bat egiten duzu eta eraso egin du, eta esaten dugu, begiratu oina eraso du)

estule: eztula

estul tropie: eztul dorpea, eztul sakona

"Nik bastante estul tropie igual eukitxen dot, eta eurten euki ot estul tropie ganera ta ainbet denporan da, ene ori de estule!" -
(Nik nahiko eztul dorpea beharbada

edukitzen dut, eta aurten eduki dut eztul dorpea gainera eta hainbat denboran eta, ene hori da eztula!)

galbanie: galbana, beroak eragindako nekadura

gana txarra: gogo txarra, gorputzaldi txarra

gomittue, gonbittue, gomitxue: gonbitoa, errebesa

gomittu larridxe: botagura

goraskadie: korrokada, gorazkoa

gorputzaldidxe: gorputzaldia

gorroa: gorroa

infesiñoa: infekzioa, zoldura

inyerra, inderra, inyarra: indarra

"Orrek esteko bidan inyerra" - (Horrek ez dauka behar den indarra)

kalenturie: kalentura, sukarra

"Bardiñ antzien ixengo da, pentzetan dot nik, diño pa ni pa, geixoa datorrenien a pe kalenturie bierbada eukiko deu" -
(Berdin antzean izango da, pentsatzen dut nik, dinot ba nik ba, gaixoa datorrenean hark ere kalentura beharbada edukiko du)

kaltie: kaltea

kirri korro: katarroak eraginda bularrean egiten den zarata

korrokadie: gorazkoa

larridxe: larria

miñe: mina

"Alboko miñe in dxat" - (Alboko mina egin zait)

mokoa: mokoa, mukia

odol lodidxe: odol lodia

otzikerie: hotzikara

penie: mina

"Orra dxoate san, lenau, eta oiñ estaitt dxoaten bada iñor ba, belarriko entzupidiegaittik, esta? entzun es edo, penak kentzeko olako seuser" - (Horra joaten zen, lehenago, eta orain ez dakit joaten den inor ba, belarriko entzupideagatik, ezta? entzun ez edo, minak kentzeko holako zer edo zer)

pistikune: doministikua

"Pistikune itten danien, pisti! sera kostipedue datorrenien" - (Doministikua egiten denean, pisti! zera marranta datorrenean)

sotiñe: zotina

takarradie, taukadie, taupadie: taupada

ARRIETAKO HIZTEGIA

tenple txarra: tenple txarra, gorputzaldi txarra

tenplie: gorputza edo lurraren egoera, tenple ona, tenple txarra

tentziñoa: tentsioa

"*Au tentziñoan bedarra, tentziñoa bajetako bedarra ta asko usetan txusen*" - (*Hau tentsioaren belarra, tentsioa baxatzeko belarra eta asko usatzen zituen*)

"*Ona inyaban asala, inyabie sertu garune kendu de a ganeko tekie egositte, da aren ure ona dala sarri entzun dot nik*" - (*Hona indaben azala, indaba zertu garaua kendu eta hura gaineko zeruka egosita, eta haren ura ona dela sarri entzun dut nik*)

txakurrestule: txakur-eztula

2.3. ERREMEDIOAK

alkola: alkohola

anisen ure: anisen ura, belarriko mina kentzeko

"*Anisen ure dala ta, aixe anisen ure, eta, tripetako miñe pasetako*" - (*Anisen ura dela eta, huraxe anisen ura, eta, tripetako mina pasatzeko*)

begiskoa, begiskoana: begizkoa

"*Begiskoana itte san, ba neu pe ori esin tzut ondo esplikeu baya, neu pe areri ei notzan, alabieri ei notzan, negar da negar, da negar, ba andrak eote siren, begiskoana, pareta san sille baten dxesarritte, da seu umiegas, tape itten tzun ixera bateas, edo olako trapu bateas, da berak, ba ure imintte seuen eurrien, ta estañue edo sera botate seuen, ara, ta gero erresuek eitten txusen seuser, da an uretan urtete suen figuriek, ba nok eitten tzon areri umieri begiskoana, sein ye, asko gurotzon personiek ba begiskoa eitten tzola umieri, da ori itte seuen begiskoana*" - (*Begizkoarena egiten zen, ba neuk ere hori ezin dizut ondo azaldu baina, neuk ere hari egin nion, alabari egin nion, negar eta negar, eta negar, ba andreak egoten ziren, begizkoarena, eta zeu umeagaz, tapatu egiten zizun izara bategaz, edo holako trapu bategaz, eta berak, ba ura ipintzen zuen aurrean, eta estainoa edo zera botatzen zuen, hara,*

eta gero otoitzak egiten zituen zer edo zer, eta han irteten zuten irudiek, ba nork egiten dion ume hari begizkoarena, zein da, asko gura dion pertsonak ba begizkoa egiten diola umeari, eta hori egiten zuen begizkoarena)

belarriko miñe: belarriko mina

"*Belarriko miñe dauenien, e, gotak, igual oridxo epeltxuegas da lenau ixeta san*" - (*Belarriko mina dagoenean, txiztilak, beharbada olio epeltxoagaz eta lehenago izaten zen*)

"*Belarriko miñe dauenien, ba San Kristobal dala ta, ba, oridxo beroa imiñitte, sai beroa be bai sakutxu baten barruen imiñitte da beroak imiñi*" - (*Belarriko mina dagoenean, ba San Kristobal dela eta, ba, olio beroa ipinita, zahi beroa ere bai zakutxo baten barruan ipinita eta beroak ipini*)

"*Belarriko miñe, egote san alako, lanpara baten oridxo, argitxu bateas, or San Kristobalen, ori esetu dot, eta belarriko miñe pasetako, jentiek eitxeuen eurek eroan, oridxo, bakotxak eroan, an bape barik lotu esteidxen, da ara bota, da gero ango oridxoagas ein belarrixetan, belarriko miñe kentzeko, ori San Kristobalen*" - (*Belarriko mina, egoten zen halako, lanpara baten olio, argitxu bategaz, hor San Kristobalen, hori ezagutu dut, eta belarriko mina pasatzeko, jendeak egiten zuen eurek eroan, olio, bakoitzak eroan, han bat ere barik lotu ez dadin, eta hara bota, eta gero hango olioagaz egin belarrietan, belarriko mina kentzeko, hori San Kristobalen*)

botikie: botika

endesioa, indesioa: injekzioa

enplastue: enplasto

"*Bai sadxe be bai, seinye enplastu moduen eitteuden sadxegas*" - (*Bai zahia ere bai, zein da enplasto moduan egiten zuten zahiagaz*)

erremedidxo: erremedioa

"*Oin be ba, etzien eitten dien erremedidxoak geusekas, asko dau*" - (*Orain ere ba, etxean egiten diren erremedioak gauzakaz, asko dago*)

gripie: gripea

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Bai neu pe sarri emon dot ori, olan kostipedue edo seuser edo, gripe sera, edo olan, a, etorteko serien dauenien igual burue ser da, igual seuser mokoak kentzeko edo iñ, sera ta odola mogidute, odola emon, eta ori ona dala esateuen lengo serak, deskargeu itten dala odola ta" - (Bai neuk ere sarri eman dut hori, holan marranta edo zer edo zer edo, gripe zera, edo holan, etortzeko zerean dagoenean beharbada burua zer da, beharbada zer edo zer mokoak kentzeko edo egin, zera eta odola mugituta, odola eman, eta hori ona dela esaten zuten lehengo zerek, deskargatu egiten dela odola eta)

kurie: osaketa

lurrune: lurruna

"Eukalitruen lurrune edo bai, seragas, saidxegas da ardauas ein enplatu bet, a berotu itxen da, paparreko miñe edo seuser dauenien, tripeko miñe be igual, baya imintxen dxakien bai, saidxe ta ardaua ixete san" - (Eukaliptuen lurruna edo bai, zeragaz, zahiagaz eta ardaugaz egin enplasto bat, hura berotu egiten da, paparreko mina edo zer edo zer dagoenean, tripako mina ere beharbada, baina ipintzen zitzaien bai, zahia eta ardaua izaten zen)

medikamentue: medikamentua

plegasiñoa: fregazioa, igurtzialdia

"Ni pe entzunde euki nuen, da bueno, entzunde ta gero einye be bai etzien be, baya nik gixonari baten einotzan, gixonari, ta eiñ asunekas, ta karo, erre itxen deu arek, dana erretan due, ta gero segiduen erretan da dana ta esiñ egon leku baten be, da arek esaten dosten niri, baya amen, amen esi lei egon, bueno ba beste oi batera orduen, beste oyen be bardiñ, asunekas sera, plegasiñoa" - (Nik ere entzunda eduki nuen, eta beno, entzunda eta gero eginda ere bai etxean ere, baina nik gizonari baten egin nion, gizonari, eta egin asunakaz, eta jakina, erre egiten du hark, dena erretzen du, eta gero segituan erretzen da dena eta ezin egon leku baten ere, eta hark esaten zidan niri, baina hamen, hamen ezin liteke egon, beno ba beste ohe batera

orduan, beste ohean ere berdin, asunakaz zera, fregazioa)

santigitue, santiretue: zantiratua

"Santigitu sana urrutu sana beran lekuen sartu" - (Zain tiratu zaina urratu zaina bere lekuan sartu)

"Ori ba, seuser, e, kredoa, ta ba aldresbestara, akabuen asitte erreseu te, esateuden, galtzerdi tte orrotza paseu, santietu sana urrutu sana bere lekuen sartu, ori itten deuenak esateuela, da pasaten dxakien, e?" - (Hori ba, zer edo zer, kredoa, eta ba aldrebestera, azkenean hasita errezatu eta, esaten zuten, galtzerdi eta orratza pasatu, zaintiratu zaina urratu zaina bere lekuan sartu, hori egiten duenak esaten zutela, eta pasatzen zitzaien, e?)

urdillena: urdailena

2.4. KOLPEAK

alboskadie: albozkada

belarriondokoa: belarriondokoa

bernatakoa: bernetakoa

betondokoa: betondokoa

"Emoten baotzut betondoko bat" - (Ematen badizut betondoko bat)

blistasoa: kolpea

bultzeskadie: bultzakada

eperdikoa: ipurdikoa

golpie: kolpea

koskorrotekoa: koskorrotekoa

koskorroye: koskorroia

musturrekoa: musturrekoa, muturrekoa

ostikiedie: ostikada

sapladie: zaplada

txalao: txalao

"Geur emongo tzutes ba, geur bai, geur dekosu txalo bat edo bi" - (Gaur emango dizkizut ba, gaur bai, gaur daukazu txalo bat edo bi)

txanketakoa: txanketakoa

ukubilkadie: ikubilkada

"Ukubilkadie emoten botzut, seinye saplada bat emongo tzut esatie les, ukubilleas" - (Ikubilkada ematen badizut, zein da zaplada bat emango dizut esatea legez, ikubilagaz)

ARRIETAKO HIZTEGIA

3. FAMILIARTEKOAK

Atal honetan familia eta familia hartuemonei dagozkien berbak biltzen ditugu. Berbak hobeto sailkatzeko, atal honen azpi-atalak familia bera, senideak, familia erlazioak eta adin erlazioak izango dira.

3.1. FAMILIA

aistie: ahizta

"Aiste bat euki gendun or soltera, gero eskondu sen belu baya, eta arentzat, eskatza esaten du gu pa, ba oneri, an eta kuartu bet eukitxeko lekue, bixi den artien, ori be eskribidute, bai bai, orrek geusek on siren lenau oiñ estau olan" - (Ahizta bat eduki genuen hor ezkonbakoa, gero ezkondu zen belu baina, eta harentzat, eskatza esaten dugu guk ba, ba honi, han eta gela bat edukitzeko lekua, bizi den artean, hori ere idatzita, bai bai, gauza horiek egon ziren lehenago orain ez dago holan)

"Etzetik bakosus, e, nogas dxoan, aistek eurretik edo bakosus, b'ordu en arintxuau aste sara ba, lagune dekosu te, ostantzien sei saspri urtegas" - (Etxetik badauzkazu, nogaz joan, ahiztak aurretik edo badauzkazu, ba orduan arintxoago hasten zara ba, laguna daukazu eta, osterantzean sei zazpi urtegaz)

aitte, aitxe: aita

"Neure aitxe be ikus dot, neuk espatadxantzari itxeko atxiñe" - (Neure aita ere ikusi dut, neuk ezpatadantzari egiteko antzina)

"Neure aitte pe erreko suen edoser da" - (Neure aitak ere erreko zuen edozer eta)

"Gure aitte es, gure aitte eskondu ein sen ona, ama san bertokoa" - (Gure aita ez, gure aita ezkondu egin zen hona, ama zen bertokoa)

aitteamak: gurasoak

aitxitxe, aittitte: aitaita

"Aittittek esateuen, nire aittittek, estaitt senbat bieja einye dauela bera San Juanera" - (Aitaitak esaten zuen, nire aitaitak, ez dakit zenbat bidaia eginda dagoela bera San Juanera)

alabie: alaba

"Egonas baten an, baten ortik dxoan gintzen, e, neure semien andrie ta neure alabiegas, esan notzien eraistesue orraxe etzera, se berrogei urtien bestot ikusi ori tte" - (Egon naiz baten han, baten hortik joan ginen, neure semearen andrea eta neure alabagaz, esan nien eroan nazazue etxe horrexetara, ze berrogei urtean ere ez dut ikusi hori eta)

ama: ama

"Ixillien ein bisus eskriturek ostien arexe teko deretxoa, erositxeko, guri pase dxakun aunas etziegas, au etzie erosi gendun guk, da onen kolindantie esaten da, albokoak aorrek bekoak ixen siren, orrek euki seitxuesan oneri, emen egon siren, ama da alabie eskondute emen, eta ama or alboan, beran alabien ama ortxe, ta arek amak eukiuen or lekue, eta solo batzuk, berantzako aparteta, gosamena, eta gero orrek, a, gosameneko terrenoak kendu iotziesan areri amari, se alabien gixonaas be esan ondo arregletan, d'orrek kendu iotzesan, orreri serari, esta? eta gero guk erosi gendunien au etzie, ba pase bier ixen gendus en, gedxau pageu, eta illebete edo olan barruen, ixillien eskriturek, ostien orrek erosten dure, guri pase dxakun" - (Isilean egin behar dituzu eskriturak ostean harexek dauka eskubidea, erosteko, guri pasatu zitzaigun haonegaz etxeagaz, etxe hau erosi genuen guk, eta honen kolindantea esaten da, albokoak haoriek behekoak izan ziren, horiek eduki zituzten honi, hemen egon ziren, ama eta alaba ezkondata hemen, eta ama hor alboan, beraren alabaren ama hortxe, eta ama hark eduki zuen hor lekua, eta soro batzuk, berarentzat bananduta, gozamena, eta gero horiek, gozameneko lurrak kendu egin zizkioten ama hari, ze alabaren gizonagaz ere ez zen ondo konpontzen, eta horrek kendu zizkion, horri zerari, ezta? eta gero guk erosi genuenean etxe hau, ba pasatu behar izan genituen, gehiago ordaindu, eta hilabete edo holan barruan, isilean eskriturak, ostean horiek erosten dute, guri pasatu zitzaigun)

amama, amoma, amuma: amama

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Eukitxusen, oiñ estaitx non dausen be, baya euki txusen aulako, burdiñe lako geuse batzukes, run, run, nire amomak eitxen txusen" - (Eduki zituen, orain ez dakit non dagozen ere, baina eduki zituen haolako, burdina lako gauza batzuekaz, run, run, nire amamak egiten zituen)

anaidxie, anadxie: anaia

"Nire aitte Ameriken bederatzi urte eiñekoa da, bere anaidxie be bai, da ariñau egon siren, e, egote sien eure paño ariñau dxoanda, frantzes euskeldunek egote sien eure paño ariñau dxoanda" - (Nire aita Ameriketara bederatzi urte eginekora da, bere anaia ere bai, eta arinago egon ziren, egoten ziren eurek baino arinago joanda, frantzes euskaldunak egoten ziren eurek baino arinago joanda)

andragixonak: andra-gizonak

andrie: andrea

"Onek andrie tiñona, bada, umiena, entretenidugarri bakarrik" - (Andre honek dinoena, bada, umeena, entretenigarri bakarrik)

"Erretratueta gure amamana, e, andrie sutunik eta gizona dxesarritxe" - (Argazkietan gure amama, andrea zutunik eta gizona jesarrita)

arrebie: arreba

birlobie: birloba

birraititte: birraitaita

birramoma: birramama

famelidxe, familidxe, pamilidxe: 1. familia. 2. seme-alabak

"Oniño atariko familidxe bixi de" - (Oraindino haietariko familia bizi da)

"Etze bakotxien saspri sortzi familidxe, danatan" - (Etxe bakoitzean zazpi-zortzi familia denetan)

gizona: gizona, senarra

"Alabien gixonagas be esan ondo arregletan" - (Alabaren gizonagaz ere ez zen ondo konpontzen)

"Nire denporan, e, nobidxa ixete san gero gizona ixetekoa" - (Nire denboran, gizona izaten zen gero gizona izatekoa)

"Orrexen alabien gixonan ama, alargune da" - (Alaba horrexen gizonaren ama, alarguna da)

guresoak, gurasoak: gurasoak

"Bai ori entzun dot, nik guresoari entzun tziet" - (Bai hori entzun dot, nik gorasoei entzun diet)

lobie: iloba

"Guk estu esaten olakorik guk lengo euskerie itxen du, oiñ, o, lobak esaten dostie niri, mutiltxuek, amama ser esan dosu? selan dakixu berbetan suk? ori esta olan esaten, e? ikastolara dabis de" - (Guk ez dugu esaten holakorik guk lehengo euskara egiten dugu, orain, lobek esaten didate niri, mutiltxoak, amama zer esan duzu? zelan dakizu berbetan zuk? hori es da holan esaten, e? ikastolara dabilta eta)

matrimoniño: andre-gizonak

"Au otel baten egon san, matrimoniño bat seme biges, ille bidxen" - (Hau hotel baten egon zen, andre-gizonak seme bigaz, hil bian)

nebarrebak: neba-arrebak

"Etzie dekona, etzera, etzie dekonari, ba beste nebarrebari emoteko dirue ekarri bixiteuen" - (Etxea daukana, etxera, etxea daukanari, ba beste neba-arrebei emateko dirua ekarri behar izaten zuen)

nebie: neba

"Nire nebiek erosi otzan beran etze partie, eta aparte sitxusen bera bixi den artien, solo bat eta beran etzien lekue, eta nire nebiek emoteko, esnie falta deuna, eta egurre su itxeko" - (Nire nebak erosi zion beraren etxe parte, eta apartatu zituen bera bizi den artean, soro bat eta beraren etxean lekua, eta nire nebak emateko, esnea falta duena, eta egurra su egiteko)

semealabak: seme-alabak

"Semealaba asko badekosue, bateri itxi ledxo, ama ta aitxe iltxen dienien, ba orrek eukiko deu gosamena, urte bete, bi, iru be isten txus, ba gitxik, jeneral bat ixetan da, urte bete eta aonen soloan eukiko deu lekue" - (Seme-alaba asko badaukazue, bati utz dakioke, ama eta aita hiltzen direnean, ba horrek edukiko du gozamena, urte bete, bi, hiru ere uzten ditu, ba gutxik, gehienetan bat izaten da, urte bete eta haonen soroan edukiko du lekua)

semie: semea

ARRIETAKO HIZTEGIA

3.2. SENIDEAK

bigarren lengusue: bigarren lehengusua

"Da gero etziek gustidzek, e, dana peterik, e? lengusue edo bigarren lengusue edo danak, eta beskaritten, lo ta dana eitten da" - (Eta gero etxeak guztiak, denak beterik, e? lehengusua edo bigarren lehengusua edo denak, eta bazkaltzen, lo eta dena egiten eta)

erdi parientie: senide-artekoa

etzekoartekoa: senidea, etxeko-artekoa

"Suen etzekoartekoak edo, Oleakoa pe, are pe usetan deude, baya itxiko otzien are pe igual" - (Zuen etxe-artekoek edo, Oleakoek ere, haiek ere usatzen dute, baina utziko zioten haiek ere beharbada)

fameliartekoa: familia-artekoa

ixekoa: izekoa

lengusiñe: lehengusina

"Oloa baya ori ixetan san ba, es kanpoko jentiek, espadase, etzeko famelidzek edo, edo lengusin batek edo, parientiek, dxoaten siren ba, a daon lekure oloa artute, ta beste geusetxu batzuk, eurek pentzetan suena" - (Oiloa baina hori izaten zen ba, ez kanpoko jendeak, ezpadaze, etxeko familiak edo, edo lehengusin batek edo, artekoak, dxoaten ziren ba, hura dagoen lekura oiloa hartuta, eta beste gauzatxo batzuk, eurek pentsatzen zutena)

lengusue: lehengusua

"Lengusu bet or bixi sen len, oin Mungidxen bixi de baya, eta eskonparri gausela ta, solteruten be bai, arek eta nik eitten gendun alkarregas" - (Lehengusu bat hor bizi zen lehen, orain Mungian bizi da baina, eta ezkonbarri gagozela eta, ezkongaietan ere bai, hark eta nik egiten genuen elkarregaz)

lobie: loba

"Nik, i, esetu nuen, gero gure ama be ibiltxe san olan apur bet igual, e, beste etze batera, beran lobieñe edo, esta? dxoate san, da an eitxen suen da gero berak ekarri in suen" - (Nik, ezagutu nuen, gero gure ama ere ibiltzen zen holan apur bat beharbada, beste etxe batera, beraren lobarengana edo, ezta? joaten zen, eta han egiten zien eta gero berak ekarri egin zuen)

osabie: osaba

parientie: senidea

tia: izekoa

"Non dekosue tia ba?" - (Non daukazue izekoa ba?)

tio: osaba

"Nire tio batek dxoteuen sonue" - (Nire osaba batek jotzen zuen soinua)

3.3. FAMILIA ERLAZIOAK

aistordie: ahiztaordea

aitxebitxi, aittebitxi, aittebitxidxe: aitabitxi

"Es ama es, amabitxidxe, da aitebitxidxe eta eroaten seuenta, igual, e, berak parteriek eroaten basuen, igual parteriek bera pe, eroaten seuen igual, esta? baya ostantzien b'eurek pentzetan duenak, etzeko batek edo, eroaten seuen" - (Ez ama ez, amabitxia, eta aitabitxia eta eroaten zuena, beharbada, berak artekoak eroaten bazuen, beharbada emaginak berak ere, eroaten zuen beharbada, ezta? baina osterantzean ba eurek pentsatzen dutenak, etzeko batek edo eroaten zuen)

aitxebitxi amabitxidzek: aitabitxi-amabitxiak

aittegiñarreba: aitaginarreba

aittiteordie: aitaitaordea

aitxeordie: aitaordea

alabaordie: alabaordea

amabitxi, amabitxidxe: amabitxi

"Ni amabitxi ixetako ixe nitxen baya nik amalau urte eneuseles euki ba itxi es, abadiiek, nik artun gurixeneuen, lengusiñe ixen san nirie, esta? ba nik artun gurixeneuen, beran nebie ixen san aitebitxi, txe diferentzidxe euki suen da, beran nebie ixetako aitebitxi, da ni amabitxi, baya etorri gintzesan ona, e, bautisetan, baya abadiiek esan dosten amalau urte estekotesela ta esetz, negarres asi nitxen gero or, eta gero gure ama defuntiek berak artu suen" - (Ni amabitxi izateko izan nintzen baina nik hamalau urte ez nituen ez gero eduki ba utzi ez, abadeak, nik hartu gura izan nuen, lehengusina izan zen nirea, ezta? ba nik hartu gura izan nuen, beraren neba izan zen aitabitxi, eta alde eduki

ARRIETAKO HIZTEGIA

zuten eta, ni amabitxi, baina abadeak esan zidan hamalau urte ez dauzkadala eta ezetz, negarrez hasi nintzen gero hor, eta gero gure ama difuntuak berak hartu zuen)

amagiñarreba: amaginarreba

"Bai dxoan bai, dxoan bai itte siren, nire amagiñarreba t'orrek dxoan dire, eta txalak eta erosten, nire aittegiñarreba ta nire gixona baitte, nire aitte ta be danak" - (Bai joan bai, joan bai egiten ziren, nire amaginarreba eta horiek joan dira, eta txahalak eta erosten, nire aitaginarreba eta nire gizona baita, nire aita eta ere denak)

amaordie: amaordea

anaidxordie: anaiaordea

andraskoa: andrazkoa

andrie: andrea

arribaordie: arribaordea

besoatakoa: besoetakoa

errana, errena: errena

gixona: senarra

koñatakidxe: koinatagaia

koñatie: koinata

"Nire aistien, e, koñatiek euki euen Olabarrin barra, dxaten emon da dana eitxeuena" - (Nire ahiztaren, koinatak eduki zuen Olabarrin taberna, jaten eman eta dena egiten zuena)

koñatue, koñetue: koinatua

"Koñetu defuntuek geurien be itteuen ori pruebie" - (Koinatu difuntuak geurean ere egiten zuen hori proba)

koñatukidxe: koinatugaia

nebaordie: nebaordea

semeordie: semeordea

suingedxe, suinkidxe: suhingaia

suñe: suhina

3.4. ADIN ERLAZIOAK

agurie: agurea

angerue: aingerua, ume txikitxua jaun hartu barik dagoena

"Angerue esta bautiseu bari tauena" - (Aingerua ez da bataiatu barik dagoena)

"Angerue, bautiseta iltxen danari angerue" - (Aingerua, bataiatuta hiltzen denari aingerua)

atzoa: atsoa

atzosarra: atso zaharra

bikotxak: bikoitzak

bikotxa lagune: bikoitza laguna, bikotia

"Nire bikotxa laguneri itxi otzan" - (Nire bikoitza lagunari utzi zion)

enbraskoa: andrazkoa

enbrie: andrazkoa

"Ori egon san, sarrena, iltxen basiren aitxe ta ama, gu ixen giñen, San Kristobal, a, ondoan bixi ixen giñen gu, eta gu ixen giñen ba lau mutill, iru mutill eta lau neska, ta gure aitxe ta ama il sirenien, sarrenari itxitxeko on siren, eta gero ama il sen belurau, aitxe baño, aitxek gure ixueu sarrenari emon, ta ama il sen belutxuau, ta amak itxi otzan ba, neure laguneri, gastienari, mutilleri e, mutilleri, enbrari es" - (Hori egon zen, zaharrena, hiltzen baziren aita eta ama, gu izan ginen, San Kristobal, ondoan bizi izan ginen gu, eta gu izan ginen ba lau mutil, hiru mutil eta lau neska, eta gure aita eta ama hil zirenean, zaharrenari uzteko egon ziren, eta gero ama hil zen beluago, aita baino, aitak gura izan zuen zaharrenari eman, eta ama hil zen belutxoago, eta amak utzi zion ba, neure lagunari, gazteenari mutilari, mutilari, andrazkoari ez)

"Buruen ule barik, baya oño gogoa dekola neskias edo enbrias ibiltzeko" - (Buruan ile barik, baina oraindino gogoa daukala neskagaz edo andrazkoagaz ibiltzeko)

etzeko umie: etzeko umea, seina

gixona: gizona

"Ermandada itten egoan gixonak ori ya kantetauen" - (Ermandadea egiten zegoen gizonak hori ja kantatzen zuen)

mantetako umie: oihaleko umea

morroskoa: morroskoa

morroye: morroia

"Ori ba, ori intelijentie da morroye, e? olako asuntoatan" - (Hori ba, hori azkarra da morroia, e? holako gauzetan)

mutikoa: mutikoa

mutil bardingoa: mutil berdingoa, ertaina

mutil koskondue: mutil kozkondua

mutil koskorra: mutil kozkorra

mutille: 1. mutila. 2. mutil zaharra

"Euren olgetak eukitxe seitxuesan mutillek" - (Euren olgetak edukitzen zituzten mutilek)

ARRIETAKO HIZTEGIA

neska bardingoa: neska berdingoa

"Sarkotxie ba, onek neska bardingoak, e, dana dakidxenak, ama paño gedxau dxakitxen duenak" - (Zaharkotxa ba, neska berdingo hauek, dena dakitenak, amak baino gehiago jakiten dutenak)

neska mutillek: neska-mutilak

"Neska mutillek eta danok olgetan gendun, txinboa imintxen gendun neguen, da bata bestie sakatute, gurdixen punten da, edosetara" - (Neska-mutilek eta denok olgatzten genuen, txinboa ipintzen genuen neguan, eta batak bestea sakatuta, guriaren puntan eta, edozertara)

neskatillie: 1. neskatila. 2. neska zaharra

"A neskatillie da ta nebie be solterue da" - (Hura neskatila da eta neba ere ezkonbakoa da)

neskatoa: neskatoa

"Neskatoak eta mutillek kontra, eitxen dun guk" - (Neskatoak eta mutilak kontra, egiten genuen guk)

neskie: neska

"Guk neskak eta mutillek sarritxen igual olgetan gendun" - (Guk neskak eta mutilak sarritan igual olgatzten genuen)

"Neskak neskatara eitxen san" - (Neskak neskatara egiten zen)

odxaleko umie, odxalekoa: oihaleko umea

"Odxalekoa bai, ume txikerra, dxadxbarridxe, ume txikerra odxalekoa" - (Oihalekoa bai, ume txikerra, jaioberria, ume txikerra oihalekoa)

saspikidxe: zazpikia

"Bai esaten da, ba saspikidxe ixen da ori umie edo, esteko denporarik, se bederatzi estekos da" - (Bai esaten da, ba zazpikia izan da ume hori edo, ez dauka denborarik, ze bederatzi ez dauzka eta)

señe: seina

"Auxe da seña" - (Hauxe da seina)

ume bardingoa: ume berdingoa

ume gorridxe: ume gorria

ume kaskondoa: ume kozkondua

umesurtze: umezurtza

umie: umea

"Umie langoa da ori" - (Umea lakoa da hori)

"Bai ori etze etzeka oin be gure umiek, etzetxuek einye ta" - (Bai hori etxe-etxeka, orain ere gure umeek, etxetxoak eginda eta)

"Ametik asko dxoate sien ba, San Bartolomera umiek artunde, ta dxoate sien" - (Hamendik asko joaten ziren ba, San Bartolomera umeak hartuta, eta joaten ziren)

"Umientzako estot esetu nik amen Dxainkon estot esetu bape, umerik, ba umientzako ba alegriau dxoten txuesan Arrietan da orretan, baya amen estot esetu umerik, e? es" - (Umeentzat ez dut ezagutu nik hamen Jainkon ez dut ezagutu bat ere, umerik, ba umeentzat ba alaiago jotzen zituzten Arrietan eta horietan, baina hemen ez dut ezagutu umerik, e? ez)

urikoa: hurikoa

4. ELIKADURA

Atal honetan giza elikaduraren gainean jasotako berbak biltzen ditugu. Berbok azpi-ataletan banatzea erraza ez den arren, azpi-atal batzuk egiten ahalegindu gara, irakurketa erraztekoan. Azpi-atalok, jatorduak, hastekoak, okela, txerrikia, arraina, arrautzak, ogia, esne-gaztaia, gozokiak-postreak, eta edariak dira.

4.1. JATORDUAK

afaridxe: afaria

amaiketakoa: hamaiketakoa

armosue, armusue: armozua, gosaria

"Armosue esaten dxakon ba, kafie, edo ogidxeas da sopak einye dxan aixe, da espabe ba taloa ta esnie, lenaukoa ixeta san" - (Armozua esaten zitzaion ba, kafea, edo ogiagaz eta zopak eginda jan huraxe, eta ezpabere ba taloa eta esnea, lehenagokoa izaten zen)

"Lelengo, solora dxoan biarrien, da gero etzera etorri, de orduntxe dxan armosue edo ser dxan bidan, armosue esaten dxakon" - (Lehenengo, sorora joan beharrean, eta gero etxera etorri, eta orduantxe jan armozua edo zer jan behar den, armozua esaten zitzaion)

baraue, bareue: baraua

barusi: barau hautsi

barustie: barau haustekoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

beridxendie, beridendie: askaria

beskaridxe: bazkaria

dxana: jana

"Bidxotzan ganién lotu dxatek, dxana, da kalte in dxostek" - (Bihotzaren gainean lotu zaidak, jana, eta kalte egin zidak)

dxatekoa: jatekoa

"Bidxotzan ganién lotuten da, dxatekoa edo olan, e, arin dxanda" - (Bihotzaren gainean lotzen da, jatekoa edo holan, arin janda)

dxatordue: jatordua

"Gero dxatordu bet eitxeuden, euren diruokas" - (Gero jatordu bat egiten zuten, euren diruokaz)

kopue: kopua, mokaua

4.2. HASTEKOAK

arrosa: arroza

"Arrosana beti ixen da, ointxe be bada arrosana, eta ori len be bai" - (Arrozarena beti izan da, oraintxe ere bada arrozarena, eta hori lehen ere bai)

asa oridxo: aza olio

"Orduen tipikoa ixeta san ba, asa oridxo, koniflora edo" - (Orduan arrunta izaten zen ba, aza olio, aza lorea edo)

berakas sopie: berakatz-zopa

berdurie: berdura

biñegrie: ozpina

bitze: bitsa

"Eneuen dxakiñ ilye dauenik, bestiek ondoan on siren da, da agotik, bitze" - (Ez nuen jakin hilda dagoenik, bestiek ondoan egon ziren eta, eta ahotik, bitsa)

ensaladie: entsalada

"Onék lorak estosues dxaten, gosoa tires onék, egositte ensaladan imiñitte, seinye koliflora estilora les" - (Lore hauek ez dituzue jaten, gozoak dira hauek, egosita entsaladan ipinita, zein da azalore erara legez)

fideo sopie: fideo zopa

garbantzue, garrabantzue: garbantzua

gatza: gatza

"Es gatza normala, gatza lodidxaua obie" - (Ez gatza normala, gatza lodiagoa hobea)

gixedue: gisatua, sukalkia

"Sopie, murtzillek eta gixedue, orixe ixeta san dxatekoa" - (Zopa, buzkantzak eta gisatua, horixe izaten zen jatekoa)

grasie: koipea

inyaba gorridxe: indaba gorria

inyaba lapikoa: indaba lapikoa

inyaba suridxe: indaba zuria

kañedie: lapikorako erabiltzen den hezurra

koipe gasie: koipe gaza

koipie: koipea

"Karie be bai, ori ixeta san, a koipie berak ekarteuen koipie, sertu sedidxen, alperrik galdu sedidxen" - (Karea ere bai, hori izaten zen, koipe hura berak ekartzen zuen koipea, zertu ze dadin, alperrik gal ze dadin)

lapikokoa: lapikokoa

lentejie: lenteja

ogi opak: ogi zopak, indabén saldagaz eta ogiagaz egiten den zopa

ollo saldie: oilo salda

"Oloa eroaten tzien, ta oloa saldie artuten suen, a artun bidala bakarrik, ta oiñ esei da artu biar a baya, ordun bai" - (Oiloa eroaten zioten, eta oilo salda hartzen zuen, hura hartu behar dela bakarrik, eta orain ez ei da hartu behar hura baina, orduan bai)

"Olo sarra bai emoten dxakon, oloa saldie edo in didxen ba, famelidxe euki deuen andrieri" - (Oilo zaharra bai ematen zitzaion, oilo salda edo egin dezan ba, familia eduki duen andreari)

"En jeneral oloa, ixeta san amantzako, oloa saldie amak edateko, ta aitxek isterrak dxateko" - (Gehienetan oiloa, izaten zen amarentzat, oilo salda amak edateko, eta aitak izterrak jateko)

ondakiñe: hondakina

"Onenak eitten sien dxadzetako, beste ondakintxuek edo bittartetxuek, e, gatza emon, ta gero a gatza emoten danien atzera ataaten da piper txikitxue emon da, eskeitte imiñi gero bittartien dxateko" - (Onenak egiten ziren jaietako, beste hondakintxoak edo bitartetxoak, gatza eman, eta gero gatz hura ematen denean atzera ateratzen da piper txikitxo eman eta, eskegita ipini gero bitartean jateko)

oridxo: olio

"Makalloa beti, eskatzien eskeitte ote san, da satitxue kendute, erre ta dxo dxo dxo

ARRIETAKO HIZTEGIA

eiñ, da bota oridxo gordiñe ta a goso, talo beroagas be" - (Makailoa beti, suetean eskegita egoten zen, eta zatitxoak kenduta, erre eta jo-jo-jo egin, eta bota olio gordina eta hura gozo, talo beroagaz ere)

oridxo asie: olio aza

"Gurien ixete san, lelengo oridxo asie, beti beti beti, gero ixete san, len lenau, txarri pata pe bai, da karakolak, da makalloa" - (Gurean izaten zen, lehenengo olio aza, beti-beti-beti, gero izaten zen, lehen-lehenago, txerri hankak ere bai, eta barraskiloak, eta makailoa)

pistola sopie: pistola zopa, pistola deritzon ogiaz egiten den zopa

porrusaldie: porru salda

"Porrusaldie dxate san nosgure" - (Porru salda jaten zen noizgura)

salda garbidxe: salda garbia

saldie: salda

"Ori esaunie da, klaro, an andriek, e, saldie artzen seuela, esin yeuela dxan olloa, eta gixonak gero olloa dxan, andrie parik" - (Hori esakuna da, jakina, han andreak, salda hartzen zuela, ezin duela jan oiloa, eta gizonak gero oiloa jan, andreak barik)

saltza berdie: saltsa berdea

saltzie: saltsa

sopie: zopa

untoa: bustikoa, bazia

4.3. OKELA

faldie: okela zati bat, falda

"Faldie, esate baterako, isterra, da solomoa, da orduen txuletak, gatza emoten dxaken orduen be, kureu itte siren" - (Falda, esate baterako, izterra, eta solomoa, eta orduan txuletak, gatza ematen zitzaien orduan ere, ondu egiten ziren)

gidxarrie: giharra

gixena: gizona

mamiñe: mamia, okela

okela bildriñe: okela bildina, okela zatia

okelie: okela

"Lelengo gatza emoteko ba txala bi dan moduen imiñi bi deu presteute ba, euren, klasifikeu apur bet gora bera, se txalak okelak diferentiek klase askotakoa tekos,

da ixenteu ba onetara, ta onetara, ta onetara ta ebai, seinye estilo antzien, seinye ondo sertzeko, plegetako modu antzien, da emon gatza" - (Lehenengo gatza emateko ba txahala behar den moduan ipini behar du prestatuta ba, euren, sailkatu apur bat gora behera, ze txahalak okelak desberdinak mota askotakoak dauzka, eta izendatu ba honetara, eta honetara, eta honetara, eta ebaki, zein da era antzean, zein da ondo zertzeko, tolesteko modu antzean, eta eman gatza)

ollo sarra: oilo salda egiteko erabiltzen dena, antzina ama berriari erregalatu egiten zitzaion umea egin eta ostean

sankarroye: zankarroia

sesiñe: zezina

"Orduen sesiñe beti itxe san" - (Orduan zezina beti egiten zen)

solomilloa: solomotxoa

tajadie: xerra

"Gerorantza asi san, e? tajadak eta geitxuau" - (Gerorantz hasi zen, e? xerrak eta gehitxoago)

txuletie: txuleta

4.4. TXERRIKIA

amasie: orea, saltsagarria, masa

biskerra: txerri bizkarra

buskantza: buzkantza

gantzagidxe: gantzagia

garrantziñoa: urdina

gidxarrie: giharra

jangoikoa, jainkoa: jainkoa, lopea

"Jangoikoa esaten dxakon areri, tripe neusidxe beteten danien, jangoikoa esaten dxakon areri" - (Jainkoa esaten zitzaion hari, tripa nagusiari betetzen denean, jainkoa esaten zitzaion hari)

mortzillie, murtzillie: buzkantza

"Murtzillek baten in yoas neure denporan, da neuk esa notzan ba, murtzille baño antojosoaurik etxauk, e, ondo einye espadxausak" - (Buzkantzak baten egin ditut neure sasoian, eta neuk esan nion ba, buzkantza baino antojagarriagorik ez zagok, ondo eginda ez bazaudek)

murtzille amasie: buzkantza masa, buzkantza saltsagarria; buzkantzak

ARRIETAKO HIZTEGIA

egiteko porru eta kinpulgaz prestatzen dena

odolestie, odolostie: odolostea

pernille: pernila, urdaiazpikoa

sadxeskidxe: saiheskia

salmoa: salmoa, gatzura

"Salmoa ba, klase askotara, batzuk, e, eitten tzue bota gatzeta ta, ba ta patatie ta arrotza bat, ta gora urteten duenien ba ordun bota gero, gidxerrak, nik jeneralmente, gurien bestera akostunbre da, sikuen" - (Salmoa ba, era askotara, batzuek, egiten dizute bota gatzeta eta, ba eta patata eta arrautza bat, eta gora irteten dutenean ba orduan bota gero, giharrak, nik gehienetan, gurean bestera usatu da, sikuan)

sartenekoa: zartaginekoa

"Bai sartenekoa dxate san, baya biarraldidxe edo in barik, ya trope pareta san" - (Bai zartaginekoa jaten zen, baina beharaldia edo egin barik, ja dorpe paratzen zen)

solomoa: solomoa

"Piperragas da gorritu, orreatik imintte siren, seinye solomoan moduen" - (Piperragaz eta gorritu, horregatik ipintzen ziren, zein da solomoaren moduan)

suringekoa: zuringakoa, hestearen amaierako zatiagaz egiten den buzkantza

tripe nausidxe: heste nagusia

txarri belarridxe: txerri belarriak

txarri musturrek: txerri muturrak

txarri patak: txerri hankak, jatekoak direnak

txarrikidxe: txerrikia

txingorra: urdai frijitua

txintxortie: txintxorta

txorixoa: txorizoa

"Es salmoatan sera tires, txorixoak" - (Ez salmoatan zerak dira, txorizoak)

txorixo kordie: txorizo korda

urdi asala: urdai azala

urdidxe: urdaia

urdiñe: urdina

4.5. ARRAINA

angulie: angula, txitxardina

antxobie: antxoba

"Sardiñe ta antxobie, ta txitxarroa olakoa etorte san, ba asko barik ekarte suen" - (Sardina eta antxoba, eta txitxarroa holakoa etortzen zen, ba asko barik ekartzen zuten)

arrañe: arraina

atune: atuna

atun prijidue: atun frijitua; bermeotarrek saltzen zutena

besegue: besigua

"Nik esetu dot, e, gixonan aitxe, esetu dot nik ekarten besegue geuri, aitxek urtie tekosen egunien a dxoate san, orra, Mungidxera da besegue ekarten doskun" - (Nik ezagutu dut, gizonaren aita, ezagutu dut nik ekartzen besigua geuri, aitik urteak dauzkan egunean hura joaten zen, horra, Mungiarra eta besigua ekartzen zigun)

"Sanantontxu egunien dxoate sien aitte eta olan dxoate sienien bai, tte bueltan besegue, eskeitte imiñi palutxuen punten, ta besegue" - (San Antontxo egunean joaten ziren aita eta holan joaten zirenean bai, eta bueltan besigua, eskegita ipini makilatxoaren puntan, eta besigua)

lebatza: lebatza

"Lebatza karu egote san, ta lebatza esin dxan ixete san" - (Lebatza garesti egoten zen, eta lebatza ezin jan izaten zen)

makalloa: makailoa

"Orko Arridxetako madxe esateuden lenau, San Juanera dxoan andik etorten sienien, an makalloa eta ogidxe imintxeudela, andi datosenak dxan deidxien, e, erridxek pagetauela ta, makalloa ta ogidxe oten sala ta ardaa, da gero an mesak apunten ixen dire len" - (Horko Arrietako mahaia esaten zuten lehenago, San Juanera joan handik etortzen zirenean, han makailoa eta ogia ipintzen zutela, handik datozenak jan dezaten, herriak ordaintzen zuela eta, makailoa eta ogia egoten zela eta ardaa, eta gero han mezak apuntatzen izan dira lehen)

sardiñe sarra: sardina zaharra

sardiñie: sardina

txitxarroa: txitxarroa

ARRIETAKO HIZTEGIA

4.6. ARRAUTZAK

arrotzabixeridxe: arrautza abisaria

"Arrotzabixeridxe, baya abixeridxe suridxe olan da" - (Arrautza abisaria, baina abisaria zuria holan da)

arrotzasala: arrautzazala

arrotze gorringoa: arrautza gorringoa

arrotze suringoa: arrautza zuringoa

arrotzie, arrutzie: arrautza

"Emetik Bermiora asko dxoate san arrutzek saltzien da, aonen ama be, goixeko orduetan urten da astoagas, baya asto barik buruen, da arrutze bat tope ei dxueu, da esan ei dxueu, auxe be neure moduen etor danen batek galdu deu, artu eta beran arrutzen tartien imiñi, gero sartu ei sen sasiartien, es ei dxueu dxakiñ, non ibil yen be, selako geusek!" - (Hemendik Bermeora asko joaten zen arrautzak saltzen eta, haonen ama ere, goizeko orduetan irten eta astoagaz, baina asto barik buruan, eta arrautza bat topatu ei zuen, eta esan ei zuen, hauxe ere neure moduan etorri denean batek galdu du, hartu eta beraren arrautzen tartean ipini, gero sartu ei zen sasi artean, ez ei zuen jakin, non ibili den ere, zelako gauzak!)

asala: azala

asalbakoa: azalbakoa

gorringoa: gorringoa

gorringo bikoa: gorringo bikoa

kaskarie: azala

mintze: mintza

mintzutze: mintz hutsezko arrautza

suringoa: zuringoa

tortillie: tortila

4.7. OGIA

abune, agune: aguna, ondo ehoko irina

"Abune, gosatzu dauena, ondo idxota dauena" - (Aguna, gozatsu dagoena, ondo ehota dagoena)

aidxe: ahia

amasie: orea, amasa

arto labakoa: labako artoa

"Labasue itten dabixena pe, arto labakoak egotie, se aren berotasuneas igerteuden se tamañuten dauen labie" - (Labasua egiten dabiltzanak ere, arto labekoak

egotea, ze haren berotasunagaz igartzen zuten ze tamainutan dagoen labea)

arto surtekoa: surteko artoa, beheko suaren txingarretan egiten zen artoa

"Arto surtekoa esaten dxako, arto surten eiñekoa" - (Surteko artoa esaten zaio, arto surten eginekkoa)

arto urune: arto irina

asala: azala

erritxie: ogi mota bat

esie: hezea, irin hezea

fota: ogi mota bat

"Fota, aolako ogidzek egote sien lenau, lenau ogidxe biribille danari, fota" - (Fota haolako ogiak egoten ziren lehenago, lehenago ogia biribila denari, fota)

gari urune: gari irina

gosagarridxe: gozagarria

"Gosagarridxe san lenau taloari botaten dxakon, apurtxu bet botaten dxakon, urun suridxe, garidxen urune, taloari" - (Gozagarria zen lehenago taloari botatzen zitzaion, apurtxu bat botatzen zitzaion, irin zuria, gariaren irina, taloari)

ierra: igerra, irin igerra

kuskurre: kuskurra, kurruskua

labako artoa, labartoa: labe artoa, labeko artoa

"Eta gero labie berotu dala igerten danien, ba ure, posotxu bet alboan espabe balda baten eroan, irek ekarten gontzesan, guri aginyute oskun irek eroateko, da palu baten irek amarreu puntan, da gero arek irek sartu uretan, da labie garbitxu, da gero arto labakoak an imiñi, gosoa labako artoa" - (Eta gero labea berotu dela igartzen denean, ba ura, putzutxo bat alboan ezpabere balde baten eroan, irak ekartzen genizkion, guri agintzen zigun irak eroateko, eta makila baten irak amarratu puntan, eta gero ira haiek sartu uretan, eta labea garbitu, eta gero arto labekoak han ipini, gozoa labeko artoa)

lebadurie, labadurie: legamea

"Ogidxe iñ etzien, esta? labadurieas da euki, altzeu lelengo ta gero atzera moldeu, ta aspiren eukitxen gendusin" - (Ogia egin etxean, ezta? legameagaz eta eduki, altxatu lehenengo eta gero atzera moldatu, eta azpiran edukitzen genituen)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Ori geuk etzien estu iños eiñ, baya lelengo lebadurie, lenau etzien eitten sana panaderittik edo, nonondik ekarte san lelengo satidxe, da gero aregas masie itten sanien, itxitte san sati bet" - (Hori geuk etxean ez dugu inoiz egin, baina lehenengo legamea, lehenago etxean egiten zena okindegitik edo, non edo nondik ekartzen zen lehenengo zatia, eta gero haregaz amasa egiten zenean, uzten zen zati bat)

liorra, ligorra: leorra, txarto ehoko irina

"Liorra da ta, dxoteko esteu balidxo, apurtu itten da ori" - (Lehorra da eta, jotzeko ez du balio, apurtu egiten da hori)

"Txarto edxota badau ligor urteten deu, da a ba, esta gustosoa, dxateko, a pentzutzet edo, lenau ba asko edxote san olakoa, esta? normalmentien, ba ondo edxo itte san, baya etorte siren batzuk, u, ba laban gitxi igertukoak, d'arek edxoten igual gatxa ixeta san, da igual ligortxuau edxoten siren" - (Txarto ehota badago lehor irteten du, eta hura ba, ez da gustosoa, jateko, hura pentsutzat edo, lehenago ba asko ehotzen zen holakoa, ezta? gehienetan, ba ondo eho egiten zen, baina etortzen ziren batzuk, ba labean gutxi igertukoak, eta haiek ehotzen beharbada gaitza izaten zen, eta beharbada lehortxoago ehotzen ziren)

"Beittu arto klasiek, e, artoak eurek, emen, e, klaro etxure baten, ba etxako igerten, estakidxena pa are gitxiau, baya artoa, edo paraje batekoa ixen, edo beste batekoa ixen, diferentzidxe deko, errotan, orregaitti te errotiek dekon konplikasiñoa, edoseñek, e, esango leke ba errotie bota artoa ta beti euki, ba urunek urtengo deu, baya es, gero a artoa kanbidxokoa botakeran, kasu in bi tzasu, se arto batzuk, u, fin fiñe taus, txikidxe garbi txikitxue ta fin fin fiñek, da arek, e, korridu itten deu asko, turruuu, txorroa doa, da a txorro gustidxe, ba, esin yeu edxo, arridxe ondo, eta orduen eitten deu ligor, da areri in bi dxako andik, i, gradueu, an goiko seretik gradueu, eta imiñi, eta imiñi martxan, bein martxan imiñi eskeiño bai, bein martxan imiñi eskeiño arto igualagas, idxe, ekutu ein barik, igual

egonda an ibiltten da, ekutu ein barik, diñot, o, arridxeri tte, areri ekutu ein barik, aixe dxausten danagas ba" - (Begiratu arto motak, artoak eurak. hemen, jakina itxura baten, ba ez zaio igartzen, ez dakienak ba are gutxiago, baina artoa, edo inguru batekoa izan, edo beste batekoa izan, desberdintasuna dauka, errotan, horregatik da errotak daukan gaitzasuna, edozeinek, esango luke ba errota bota artoa eta beti eduki, ba irinak irtengo du, baina ez, gero arto hura aldaketakoa botakeran, fin-finak dagoz, txikiak garba txikitxo eta fin-fin-finak, eta hark, korritu egiten du asko, turruuu, txorroa doa, eta txorro hura guztia, ba, ezin du eho, harriak ondo, eta orduan egiten du lehor, eta hari egin behar zaio handik, graduatu, han goiko zeretik graduatu, eta ipini, eta ipini martxan, behin martxan ipiniz gero bai, behin martxan ipiniz gero arto berdinagaz, ea, ikutu egin barik, berdin egonda han ibiltzen da, ikutu egin barik, dinot, harriari eta, hari ikutu egin barik, huraxe jausten denagaz ba)

mamiñe: mamia

masie: orea, masa

morokille: morokila

"Morokille itxe san arto urunegas" - (Morokila egiten zen arto irinagaz)

ogi asala: ogi azala

ogi baltza: ogi beltza

ogidxe: ogia

"Ogidxe laban eitte siren, labasuen, labie bakixu selakoa dan, kanpoan eitten dana? antxe itte sien" - (Ogiak labean egiten ziren, labasuan, labea badakizu zelakoa den, kanpoan egiten dena? hantxe egiten ziren)

ogi kuskurre: ogi kozkorra, ogi kurruskua

ogi mamiñe: ogi mamia

ogi puntie: ogi punta

ogi tremesa: ogi tremesa

ogi urune: ogi irina

opille: opila

"Arto uruneas esan eitten olakorik, arto uruneas, opille pai baya txikitxuek olakoak eitte sien" - (Arto irinagaz ez zen egiten holakorik, arto irinagaz, opilak bai baina txikitxoak holakoak egiten ziren)

orapilloa: orapiloa, ore pila

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Ori ixeta san len, kasureko, labasuek eitten sirenien, ba sartze san orapillotxue, ta sartze san barrure, artoa, da gero palias tan-tan-tan dxote san, da bertan dxota oten da asko gosoau artoa, berton barruen dxota" - (Hori izaten zen lehen, kasurako, labasuak egiten zirenean, ba sartzen zen orapilotxoa, eta sartzen zen barrura, artoa, eta gero paragaz tan-tan-tan jotzen zen, eta bertan jota egoten da asko gozoago artoa, berton barruan jota)

orie: orea, amasa

pistolie: pistola, ogi mota bat, mehea eta luzea

"Len len gitxi, len pistola esan aitxetuten, ogi sopie, oin daus pistolak" - (Lehen-lehen gutxi, lehen pistola ez zen aitutzen, ogi zopa, orain dagoz pistolak)

ritxie: ogi mota bat

"Txakur andikoa ritxie ixete san, da fota ba, estai pa nik, txakur bikoa ela erriala ixetan basan" - (Txakurandikoa erritxea izaten zen, eta fota ba, ez dakit ba nik, txakur bikoa ala erreala izaten zen)

surpeko morokille: surteko artoa, beheko suaren txingarretan egiten zen artoa

surteko artoa: surteko artoa, beheko suaren txingarretan egiten zen artoa

taloe: taloa

"Taloa da, e, artoas eitxen dana, arto urunegas eitxen dana" - (Taloa da, artoagaz egiten dena, arto irinagaz egiten dena)

talo ola: talo ohola, taloa jotzeko erabiltzen dena

"Aspirie on sanien, ori esan usetan ori talo ola" - (Azpira egon zenean, hori ez zen usatzen talo ohol hori)

tremesa: tremesa

"Tremesa be orren antzekoa da" - (Tremesa ere horren antzekoa da)

urun abune, urun agune: aguna, ondo ehoko irina

"Ori urun agune ba, da, ondo edxota dauena, fiñe" - (Hori irin aguna ba, da, ondo ehota dagoena, fina)

urune: irina

"Urune egoten da, dxatekoa ixetan da, ba labati pasekoa" - (Irina egoten da, jatekoa izaten da, ba labetik pasatukoa)

"Aren urunek beste ixen bat eukitxeuen, pasebakoak" - (Haren irinak beste izen bat edukitzen zuen, pasatubakoak)

urun esie: irin hezea, labetik pasatubakoa

urun igerra, urun ierra: irin igertuta, labetik pasatukoa

urun suridxe: irin zuria, gari irina

"Nik eitten dot taloa, arto urunegas, eitten dot masie, esta? baya gero urun suridxegas dxoten dot" - (Nik egiten dut taloa, arto irinagaz, egiten dut amasa, ezta? baina gero irin zuriagaz jotzen dut)

4.8. ESNEA-GAZTA

amasie: gazta orea

burgulle: esnari egiten zaizkion drunguluak

"Ein ye artes es, b'oiñ egun bire edo olan, arek eiñ eitten dire an burgullek, egoskeran, burgullek lotzen dxakos esnieri, da arek gusteu ser!" - (Egin eta artez ez, ba orain egun bira edo holan, haiek egin egiten dira han drunguluak, egoskeran, drunguluak lotzen zaizkio esnari, eta haiek gustatu zer!)

bikorra: pikorra, kipurra

"Bikorra esne egosidxeri itten dxako, e? esne gordiñeri ori bai, baya ori esne egosidxeri itten dxako bikorra ganekoa" - (Pikorra esne egosiari egiten zaio, e? esne gordinari hori bai, baina hori esne egosiari egiten zaio pikorra gainekoa)

bitze: bitsa

esne galdue: esne galdua

esnie: esnea

"Eutze uretan einye, esnie dala ta" - (Hautsa uretan eginda, esnea dela eta)

gastai mamiñe: amasa

gastaye: gaztaia

gastozarie: gaztotzara, gaztaia egiteko erabiltzen diren ontziak

gasturie, gatzure: gatzura

"Gero gasturie, aren ure kendu, eta txakurreri edo emon, da gero olan, sakatu in bisu" - (Gero gatzura, haren ura kendu, eta txakurrei edo eman eta gero holan, sakatu egin behar duzu)

gatzatue: gatzatua

"Amak emote oskuen gatzatue" - (Amak ematen zigun gatzatua)

ARRIETAKO HIZTEGIA

lierra: legarra

"Lelango in bisu esnie, esnie dauen moduen epela, e? eratzu txe segiduen, ta lierra bota, senbet lier gitxiau oboto da, e?" - (Lehenengo egin behar duzu esnea, esnea dagoen moduan epela, e? eraitzi eta segituan, eta legarra bota, zenbat legar gutxiago hobeto da, e?)

mantekillie: gurina

natie: kipurra, esnegaina, pikorra

"Egosi orduko eukitxen deu bitze, ta gero egosten danién, da natie" - (Egosi orduko edukitzen du bitsa, eta gero egosten denean, da pikorra)

putxie: putxa, gatzatua

4.9. GOZOKIAK-POSTREAK

aisko tostadie: ahizko tostada

almimerue, **almimerie:** almimera, almibarra

ardau sopie: arda zopa

asukerie: azukrea

estidxe: eztiá

"Estidxe asko se, etzien euki gendusen guk erliek, da estidxe asko dxaten gendun" - (Eztiá asko ze, etxean eduki genituen guk erleak, eta eztiá asko jaten genuen)

"Arrietan dau etze bat, esti asko koisten deuená" - (Arrietan dago etxe bat, ezti asko hartzen duena)

galletie: gailéta

ikopasie: ikopasa

intxur saltzie: intxaur saltsa

"Intxurrek eiñ, dxo dxo eiñ, serien, morteruen, dxo dxo sano, ondo, da gero intxur saltzieri, asukerie da ser gedxau? seuser gedxau" - (Intxaurrak egin, jo-jo egin, zerean, mortairuan, jo-jo sano, ondo, eta gero intxaur saltsari, azukrea eta zer gehiago? zer edo zer gehiago)

kanelie: kanela

karameloa: karamelua

konpotie: konpota

maspasie: mahaspasa

"Ikopasak eta maspasak eta orrek geubon bueltatxuen ote sien" - (Ikopasak eta mahaspasak eta horiek gabon bueltatxoan egoten ziren)

pasie: pasa

pastela: pastela

postrie: postrea

sopak: zopak

sopotza, sapatza: arteko egunean sobratuko taloa esneagaz egosten denean da sapatza

"Sapotza tires, esniegas, esne beroagas, porrejenplo taloa dauenien erreta besperan, orrek sapatzak esne beroagas egosi" - (Sapatzak dira, esneagaz, esne beroagaz, esate baterako taloa dagoenean erreta bizperan, sapatz horiek esne beroagaz egosi)

talo sopie: talo zopa

tostadie: tostada

turroye: turroia

txokolatie: txokolátea

"A! txokolatie gizonari, urrengo goixien, bai, ori nire aman denporan ixen san gu txikitxuek garela, beixu, familidxe ixeta seuenien, urrengo goixien eusoko gizonak batzen sien danak txokolatie dxaten, gizonak, e? andrak es, gizonak" - (A! txokolátea gizonari, hurrengo goizean, bai, hori nire amaren denboran izan zen gu txikitxoak garela, begira, familia izaten zuenean, hurrengo goizean auzoko gizonak batzen ziren denak txokolátea jaten, gizonak, e? andreak ez, gizonak)

urunesko tostadie: irinezko tostada

4.10. EDARIAK

anise: anisa

ardaba, ardaue: ardaua

ardau baltza: arda beltza

ardau gorridxe: arda gorria

ardau gosoa: arda gozoa

ardau suridxe: arda zuria

edaridxe: edaria

kafie: kafea

koñaka: koinaka

kopie: kopa

likorra: likorra

limonadie: limonada

moskorra: mozkorra

mostoa: mostoa

paitarra, pattarra: patarra

"Emen dxadxetan, e, oin be iltten da txala, besinoan artien, da oiñ esta itten, e, es koparik es esebe artu, baya lenau txala erosten dan usabak eukitteuen

ARRIETAKO HIZTEGIA

obligasiñoa, paitarra esaten dxaken, sera, solisonbra, paitarra nasteute botille bete da ogidxe, barusi itteko jentieri, danak batu ara, da txalan bueltan, da txalan bisten ukusi, d'onek onenbeste erralde deko, asi, meidu, are peste deko ta, kopatxue edan ogi satitxu dxan da a lelengo, da gero tunba! txala dxo da ill" - (Hemen jaietan, orain ere hiltzen da txahala, auzoen artean, eta orain ez da egiten, ez koparik ez ezer ere hartu, baina lehenago txahala erosten den uzabak edukitzen zuen obligazioa, paitarra esaten zitzaien zera, "solisonbra", paitarra nahastuta botila bete eta ogia, barausi egiteko jendeari, denak batu hara, eta txahalaren bueltan, eta txala agirian ikusi, eta honek honenbeste erralde dauka, hasi, neurtu, hark beste dauka eta, kopatxoa edan ogi satitxoa jan eta hura lehenengo, eta gero tunba! txahala jo eta hil)

sagardoa: sagardoa

"Sagardoa be itten gendun, de sagardoa be, ba serien, makiñen" - (Sagardoa ere egiten genuen, eta sagardoa ere, ba zerean, makinan)

sangridxe: sangria

"Ude partien, beroa ta, tia! dxorran ein biu aborna bat, aittetaamak, eta dxorran ein biu aborna bat, gero amabidxekek ingerurarten dxorran, klaro amabidxetako ya dxorran ibilli, kantzeute, berotute etor nitzen da, seuser trague itteko ganie ta, gero pentzetan base, oin se edangopa? txakoliñe, jo txakoliñe gogor, ba gero limonadie egote san ba, da igual kuartillo bat limonadieri bota, edo kuartillo bat, e, txakoliñe, bota limonada orrek txikitxuek, tamañuen, botilletxu bi, selako sangridxe!" - (Uda partean, beroa eta, tira! jorran egin behar dugu aborna bat, aitak eta amak, eta jorran egin behar dugu aborna bat, gero hamabiak inguruara arte jorran, jakina hamabietarako ja jorran ibili, nekatuta, berotuta etorri nintzen eta, zer edo zer zurrutada egiteko gogoa eta, gero pentsatzen baze, orain zer edango dut ba? txakolina, jo txakolina gogor, ba gero limonada egoten zen ba, eta beharbada kuartilo bat limonadari bota,

edo kuartilo bat, txakolina bota limonada horiek txikitxoak, tamainuan, botilatxo bi, zelako sangria!)

txakolin gorridxe: txakolin gorria

txakolin suridxe: txakolin zuria

txakoliñe: txakolina

"Amen iñor bestot esetu nik txakoliñe itxen"

- (Hamen inor ere ez dut ezagutu nik txakolina egiten)

txispie: mozkorra

ure: ura

"Ure baño obie dala esateuden" - (Ura baino hobea dela esaten zuten)

5. JANTZIAK

Jantzieraren gaineko berbak banatzeko egin ditugun azpi-atalak arropak, oinetakoak, osagarriak, apaingarriak eta, azkenik, joskigintza beharrari dagokiona izango dira.

5.1. ARROPAK

abarka kaltzerdidxe: abarka galtzerdia

aidxibittie, aidxibitxie: aiubeta, gorantza lotzeko erabiltzen zen kordel mota bat

"Aidxibitxie, ori gorantza amarretakoa, lenau gorantzak ibiltxen txusen amomak eta, olan bai" - (Aiubeta, hori gorantza amarratzekoa, lehenago gorantzak erabiltzen zituen amamak eta, holan bai)

"Aidxibittie estakixu? aidxibittie gorantza istututeko selan ibiltte san?" - (Aiubeta ez dakizu? aiubeta gorantza estutzeko zelan ibiltzen zen?)

arkondarie: alkondara

aspiko gonie: aspiko gona

atorrie: atorra

bruse: brusa

bufandie: bufanda

dxakie: jaka

dxantzidxe: jantzia

elastikue: elastikoa

erropie: arropa

"Gu erropak garbitxuten dxoaten giñen itxurrire" - (Gu arropak garbitzen joaten ginen iturrira)

"Erropak imintten die ta, pilloan pilloan imintten die plegeute, bete bete bete"

ARRIETAKO HIZTEGIA

einye, ixetan da ba, sestoa be ona ixeta san urek urtetako" - (Arropak ipintzen dira eta, piloan-piloan ipintzen dira tolestuta, bete-bete-bete eginda, izaten da ba, otzara ere ona izaten zen urak irteteko)

faldoye: faldoia

"Faldoye elegante ixeta san, umie elegante imintteko" - (Faldoia dotorea izaten zen, umea dotore ipintzeko)

frakie: praka

"Frakie laburtuten dosule, edo lusetuten dosule edo, as bi, as bi naikoa deu" - (Praka laburtzen duzula, edo luzatzen duzula edo, hatz bi, hatz bi nahikoa du)

"Kutxilletute daus orrek fraka orrek" - (Kutxilatuta dagoz praka horiek)

galtzerdidxe, kaltzerdidxe: galtzerdia

galtzetiñie: galtzerdia

galtzontzilloa: galtzontziloa

garrikoa: gerrikoa

gonie: gona

"Mutille bada gonak dxantzinye edo neskatoa bada frakak dxantzinye ta ba olan urtete san, ta arpidxe tapeute" - (Mutila bada gonak jantzi eginda edo neskatoa bada prakak jantzi eginda eta ba holan irteten zen, eta aurpegia estalita)

"Goniek eukitteuen, e, barruko partikerie" - (Gonak edukitzen zuen, barruko patrika)

gorantza: gorantza

"Esara akordetan? gorantza amarre esiñik ibiltten giñen da" - (Ez zara gomutatzen? gorantza amarratu ezinik ibiltzen ginen eta)

jersie: jertsea

jugoye: jugoia

kaltzetie, galtzetie: kaltzeta

kaltzetiñie: galtzerdia

kamisetie: kamiseta

kamisie: kamisa, azpiko gona antzeko barruko jantzia

"Kamisie lelengo dxasten danari, gorputzien lelengo dxasten dana da" - (Kamisa lehenengo jantzen denari, gorputzean lehenengo jantzen dena da)

kamisoye: kamisoia

kirrusko arkondarie: kirrusko alkondara

kuleroa: kuleroa

kutune: kutuna

mantie: manta, ume txikerrei ipintzen zitzaiena

mantoye: mantoia

"Otza badau, iru mantoi txe iminye ariñ elixera bautisetan" - (Hotza badago, hiru mantoi eta ipinita arin elizara bataiatzen)

mariñerie: marinera

odxela: oihala

"Orrek odxelagas dausenak, oiñ estau odxelik, orduen odxelak oten sien da traputxuek, e, aspitxik, ixeratxue les, traputxuek einye, da arexe, ta gero odxeltxue, da gero mantoitxue" - (Horiek oihalagaz dagozenak, orain ez dago oihalik, orduan oihalak egoten ziren eta traputxoak, azpitik, izaratxoa legez, traputxoak eginda, eta huraxe, eta gero oihaltxoa, eta gero mantoitxoa)

paixie, paxie: paixa

"Garridxen imintxen dxakon buelta buelta, ori artes egoteko, umie artes egoteko, paxie guk esaten tzakun" - (Gerrian ipintzen zitzaion buelta-buelta, hori artez egoteko, umea artez egoteko, paixa guk esaten genion)

"Paxiegas batzen dxakon" - (Paixagaz batzen zitzaion)

pastore galtzerdidxe: artzain galtzerdia

prakak: prakak

soñekoa: soinekoa

"Soñekoa kanbidxe biot" - (Soinekoa aldatu behar dut)

sujetadora: titi zorroa

trapue: trapua, umei oihalaren azpian jartzen zitzaiena xurgatzeko

"Odxela ta, lelengo trapue barruti, ixeta san, da gero odxela ganetik" - (Oihala eta, lehenengo trapua barrutik, izaten zen, eta gero oihala gainetik)

"Suridxe ixen bierrien baltza, trapu baltza imintxe san" - (Zuria izan beharrean baltza, trapu baltza ipintzen zen)

txalekoa: txalekoa

txapiñe: txapina

"Ba orrexek, galtzetie itxekoak, galtzerdidxek edo, txapiñek edo esaten dxakonak, eta ba olan" - (Ba horiexek, galtzak egitekoak, kaltzerdiak edo, txapinak edo esaten zitzaienak, eta ba holan)

ARRIETAKO HIZTEGIA

5.2. OINETAKOAK

abarka kordela: abarka kordela

abarka mantie: abarka manta

"Abarka manta pai, esetu dotes, lau kuadrukoak ixeten sien, da punte bat sartze dxakien, e, eurrien aspire, bestie batu, da au puntie ona gora, da gero doble ta imiñi ondo amarreute" - (Abarka mantak bai, ezagutu ditut, lau laukikoak izaten ziren, eta punta bat sartzen zitzaizen, aurrearen azpira, bestea batu, eta punta hau hona gora, eta gero tolestu eta ipini ondo amarratuta)

abarkaola: abarka-ohola, abarkak egiteko erabiltzen den oholezko molde

"Sesiñe itte san, txala iltte san, esta? da gero, ba erdi bana itten baosu be, ba abarkaola egote san, ol bat" - (Zezina egiten zen, txahala hiltzen zen, ezta? eta gero, ba erdi bana egiten baduzu ere, ba abarka-ohola egoten zen, ohol bat)

abarketa kordela: abarketa kordela

abarketa sorue: abarketa zorua

"Busterri barridxe iñeskero, apur bet manejetan busterridunek, da armerie barrukoa gorau altzeu te bestie beratxuau ein eta olakoak baya, abarketa soruekas da etzien be sarri bustertute sien ganaduek" - (Buztarri berria eginez gero, apur bat maneiatzen buztarridunak, eta armera barrukoa gorago altxatu eta bestea beheratxoago egin eta holakoak baina, abarketa zoruakaz eta etxean ere sarri buztartzen ziren ganaduak)

abarketie: abarketa

abarkie: abarka

"Bigunduten sanien eitxen san abarkie" - (Biguntzen zenean egiten zen abarka)

"Abarkak eitte sien etzien, e, aittek eta itten duen lenau, beratuten imiñi, eta estaitt senbet egunien eukitten duen a narrue beratuten, da gero siketute sanien, ba dxositte san, da abarkak eskolarako eitten doskusen, aren narru me metxuek gordete siren pelotak eitteko" - (Abarkak egiten ziren etxean, aitik eta egiten zuen lehenago, beratzen ipini, eta ez dakit zenbat egunean edukitzen zuen narru hura beratzen, eta gero sikatzen zenean, ba josten zen, eta abarkak eskolarako egiten zizkigun, haren narru mehe-

mehetxoak gordetzen ziren pelotak egiteko)

abarkorrotza: abarka orratza, abarkak josteko erabiltzen den orratza

abarkauntzie, abarkuntzie abarkuntzea, abarkak egiteko erabiltzen zen iltzea

"Ori itxeko olan sertxu bet, tak emoten tzan da sulotuteuen, alako ser esango tzu pa? abarkauntzie" - (Hori egiteko holan zertxo bat, tak ematen zion eta zulatzen zuen, halako zer esango dizut ba? abarkuntzea)

amarrie: lokarria

billeridxe: bileria, apabarroa, txizpegia; botei lustretzat ematen zaien koipea, txerriaren zila ingurukoa da

bortzegidxe: bortzegia, zapata mota bat

botie: bota

kordela: kordela

"Baya orra badekosu kordela ela?" - (Baina horra badaukazu kordela ala?)

kordoye: kordoia

lustre kajie: lustre kaxa

lustrie: lustre

mingillie: mingila

oñetakoak: oinetakoak

sapata amarrie: zapata lokarria

sapata bortzegidxe: zapata bortzegia

sapata ganie: zapata gaina

sapata kordela: zapata lokarria

sapata sorue: zapata zorua

sapata takoye: takoidun zapata

sapatie: zapata

seboa: bilgorra

silbegidxe: bileria, apabarroa, txizpegia; botei lustretzat ematen zaien koipea, txerriaren zila ingurukoa da

sintxie: zinta, abarketako zinta

sorue: zorua

takoibakoa: takoibakoa

takoidune: takoiduna

takoye: takoia

txankloa: txankloa, gomazko zapatak abarken gainetik janzen zirenak kortarako edo

txokoloa: txokoloa, hauek egurrezkoak izaten ziren eta abarken gainetik janzen ziren

ARRIETAKO HIZTEGIA

5.3. OSAGARRIAK

adarra: adarra, buruko zapiarena

amental: amantala

antijuek: anteojuak, betaurrekoak

belarridxe: belarria, adarra, buruko zapiarena

boltzie: poltsa

boltzilloa: poltsikoa

buru baltza: buru beltza, buruko zapiari eusteko orratz mota

buruko pañolue, buruko pañuelue: buruko zapia

"Bai bai esetu dot nik amen, andrak buruko pañueluekas" - (Bai bai ezagutu dut hamen, andreak buruko zapiagaz)

burukorrotza: buruko orratza

gantxoa: gantxoa

garrikoa: gerrikoa

garriko ugela: gerriko uhala

gorbetie: gorbata

gordosola: guardasola, aterkia

karterie: kartera, diru zorroa

metxerue: metxeroa

orkillie: gantxoa

pañolue: zapia

partikerie: patrika

"Partikerie ganeko a, baya barrutik es" - (Patrika gaineko hura, baina barrutik ez)

petakie: petaka

"Eta orrek, e, ein biar ixeten siren, ojje bada txikittu, beran tenplien daonien txikittu eta gero, gure bada apur bet siketuten edo euki, eta gero pues usetan asi baya, oten siren petakak, ote siren beste, esetu odas edo ikusi dodas oleatesko, olako katxarrotxu batzuk, tapa ta gustikoak, an barruen, konserbetako ogoto tabakoa, pipetan be bai, fumetan" - (Eta horiek, egin behar izaten ziren, orria bada txikitu, beraren tenplean dagoenean txikitu eta gero, gura bada apur bat siketzen edo eduki, eta gero bada erabiltzen hasi baina, egoten ziren petakak, egoten ziren beste, ezagutu ditut edo ikusi ditut latorrizko, holako katxarrotxo batzuk, tapa eta guztikoak, han barruan, kontserbatzeko hobeto tabakoa, pipetan ere bai, erretzen)

sintturoye: gerriko-uhala

sintxie: zintak

txapela: txapela

"Neuk kasureko txapela asko usetan dot beti" - (Neuk kasurako txapela asko erabiltzen dut beti)

txintxirriñe: txintxirrina

txiskerue: metxeroa

txotoa: txotoa

5.4. APAINGARRIAK

adornue: apaingarria

"Orrek adornutzet asko tekos" - (Hori apaingarrizat askok dauzka)

arrakada suloa: arrakada zuloa

arrakadie: arrakada

belarritxekoa: arrakada, belarritakoa

elastune: eraztuna

erlojue: erlojua

katie: katea

lasue: lazoa, bigizta

puntillie: puntila

"Apelliduekas, apellidu, andra gixonan apelliduek en jeneral eukitxen txusen mantelak, bordeute iminye, puntillie eskiñetan da" - (Abizenekaz, abizena, andre-gizonen abizenak gehienetan edukitzen zituen zamauak, bordatuta ipinita, puntila ertzetan eta)

txoridxe: txoria, bigizta

urregorridxe: urregorria, urrea

urresuridxe: urrezuria, zilarra

urrie: urregorria, urrea

5.5. JOSKIGINTZA

adabarridxe: adabua, ipinkia

"Seuser apurtuten danien adabarridxe, ori be lenau sen" - (Zer edo zer apurtzen denean adabua, hori ere lehenago zen)

albandorrotza: albandorratza, orratz handia

"Beste bat, albandorrotza, lodidxa, piperrak eta imintxeko, txortan" - (Beste bat, albandorratza, lodiagoa, piperrak eta ipintzeko, txortan)

algodoye: algodoia

anbuloa: troinua, korapiloa

ardatza: ardatza, gorua eta ardatza erabiltzen dira goruetan egikeran

"Amomak eukiuen ardatza edo esaten dxakona, olako bat, imintxeuen palu bet, eta emen aridxe batzekoa ta olan burdiñe

ARRIETAKO HIZTEGIA

bat bueltaka nik esetu dot amoma aridxe itxen" - (Amamak eduki zuen ardatza edo esaten zitzaiona, holako bat, ipintzen zuen makila bat, eta hemen haria batzekoa eta holan burdina bat bueltaka nik ezagutu dut amama haria egiten)

ardilanie: artilea

"Orixe da aridxe, ardi lanieri arittuteko" - (Horixe da haria, artilea haritzeko)

aridxe: firua, haria,

"Eta gero aridxe be berak eitxeuen" - (Eta gero haria ere berak egiten zuen)

ari pilloa: hari piloa, gorutan egiten dena

artasidxe: artazia

"Esan doste ainbet pastorek asko dala obie artasidxe" - (Esan didate hainbat artzainek asko dela hobea artazia)

"Orrek gorde in bi dire, te tiretu itten tzie, se esaten dere, dxosten egotie, ba artasidxe eta eukittie txarra dala" - (Horiek gorde egin behar dira, eta tiratu egiten die, ze esaten dute, josten egotea, ba artaziak eta edukita txarra dela)

aspilduridxe, aspilyurie, aspilloye: azpildura

"Artuixu aspilduridxe orreri" - (Hariezaiozu azpildura horri)

barrena: barrena

boltzilloa: poltsikoa

botoi silloa: botoi zuloa

botoye: botoia

bragetie: brageta

buru suridxe: buru zuria

dobladilloa: barrena

dxosteko makiñie: josteko makina

dxostorrotza: jostorrotza

"Orrostokidxe dxostorrotzak gordeteko lekue, ta askok dirue be antxe erabilli beti, egunero aldien, e?" - (Orroztokia jostorrotzak gordetzeko lekua, eta askok dirua ere hantxe erabili beti, egunero aldean, e?)

dxosturie, dxoskurie: joskura

erara: erara

erie: era, iruntziaren kontrakoa

fraka barrena: praka barrena

galtzerdi orrotza: galtzerdi orratza

gardie: garda

garrikerie: gerrickada, gerri ingurua

gona barrena: gona barrena

gorue: gorua

"Gorue esaten dxakon" - (Gorua esaten zitzaion)

ididxabolie, idodebalie: firu bala, hari bala

ilbana: ilbaina

ilban aridxe: ilbantzeko haria

iruntzetedxe: iruntzia

isteko orrotza: ixteko orratza

"Umieri txe imintxen dxakiena, atxiñe atxiñe imintxen dxakien isteko orrotza, eta mantoyetan be bai andra pe eroateuden" - (Umeei eta ipintzen zitzaiena, antzina-antzina ipintzen zitzaien ixteko orratza, eta mantoietan ere bai andreek ere eraoten zuten)

ixurre: izurra

"Erropie olan, e, lisu egon bierrien ba ixurre olan artu" - (Arropa holan, lisu egon beharrean ba izurra holan hartu)

jerse orrotza: jertse orratza

kirrue: kirrua, ehun mota bat

"Erreka ondoko bedarrak, batu te siketu, da gero orrekas eitxen seudiela telie, kirrue" - (Erreka ondoko belarrak, batu eta sikatu, eta gero horiekaz egiten zutela ehuna, kirrua)

kolkoa: kolkoa

kollue: koilua

kortxetie: kortxeta

lanie: artilea

liñe: lihoa

magala: magala

"Magala da ba, istue ixen bierrien, buelo andidxe badeko, ba magal asko deko, da magal gitxiges ba istue" - (Magala da ba, estua izan beharrean, zabalera handia badauka, ba magal asko dauka, eta magal gutxgaz ba estua)

"Magala sabalerie edo olan da, bai magal andidxe deko orrek" - (Magala zabalera edo holan da, bai magal handia dauka horrek)

mangie: mahuka

miesie: mihisea

"Miesie sera egote san, amen, e, liñe eraitxen san, amen nire sarrak, liñe asko koisteuden, da estaitx ser eitxen tzien, siketuteuden, uretan beratuteuden, dxo dxo eitxeuden, da gero asurre kendu te bestie, eta botateuden, Bergarara edo estaitx nora" - (Mihisea zera egoten zen, hamen, lihoa ereiten zen, hamen nire zaharrek, liho asko hartzen zuten, eta ez

ARRIETAKO HIZTEGIA

dakit zer egiten zioten, sikatzen zuten, uretan beratzen zuten, jo jo egiten zuten, eta gero hezurra kendu eta bestea, eta botatzen zuten, Bergarara edo ez dakit nora)

murgille: morgila, hariari egiten zaion tronbila

obilloa: obiloa

ojalie: botoi zuloa

orrostokidxe: orraztokia

"Orrostokidxe leku, tubo bat ixete san, an orrotzak gordetan sien da tapeute, enbrak ibiltxeudeles ori, e, an barruen ori boltziori, ba antxe ibiltxeuen" - (Orraztokia leku, hodi bat izaten zen, han orratzak gordetzen ziren eta tapatuta, andrazkoek erabiltzen zuten gero hori, han barruan poltsa hori, ba hantxe erabiltzen zuten)

orrotza: orratza

"Nik orrotza beti, albandorrotza, edo dxosteko orrotza edo, buru baltzak onek, len oten sienak" - (Nik orratza beti, albandorratza, edo josteko orratza edo, buru beltzak hauek, lehen egoten zirenak)

orrotzan eperdidxe: orratzaren ipurdia

"Orrotzan eperdidxe be bai, ori be entzun dot iños, orrexeri, orrotzan silloari esateko eperdidxe" - (Orratzaren ipurdia ere bai, hori ere entzun dut inoiz, horrexeri, orratzaren zuloari esateko ipurdia)

pañue: ehuna

paparreko orrotza: paparreko orratza

puntue: puntua

serrapollerie: zerrapoilera, arropetan erabiltzen diren kortxeta antzekoak

"Serrapollerie da alkarren ganién, sertuten dana, da kortxetie da bestera, onetara engantxetan dana" - (Zerrapoilera da elkarren ganean, zertzen dena, eta kortxeta da bestera, honetara engantxatzen dena)

telie: ehuna, tela

"Bai baya eiñ eitxen dxakesan etzien, olan telias edo itxen tzesan bakotxak" - (Bai baina egin egiten zitzaizkien etxean, holan ehunagaz edo egiten zizkion bakoitzak)

titerie: titarea

"Ta titerie ta orrostokidxe, da aridxe, seuselako alakoa beti tte botoyek, baya

antxe" - (Eta titarea eta orroztokia, eta haria zer edo zelako halakoa beti eta botoiak, baina hantxe)

txabille: txabila

"Gero ostabe txabille, da txabille imiñi tte, bueltatxuek emon da bueltatxuek emon da aridxe iñ, da gero aras aridxegas ba, serak" - (Gero osterera ere txabila, eta txabila ipini eta, bueltatxoak eman eta bueltatxoak eman eta haria egin, eta gero haregaz hariagaz ba, zerak)

6. BIZILEKUA

Bizilekuari emango diogun atal honetan etxearen inguruan batu ditugun berbak aurkeztuko dira. Azpi-atalak etxea egiteko materialak, etxearen egitura, etxearen banaketa, atea-leihoak-eskailera, sua, argia, ura, sueteko tresnak, ontziteria, altzariak, etxeko arropak, bogada eta garbikuzia dira.

6.1. ETXEA EGITEKO MATERIALAK

amasie: amasa, adreiluak ipintzeko egiten dena

are arridxe: hare-harria

"Gatiketik arantza or Unbeko mendidxe ba are arridxe erresa eukitte deules, se au frontoye ta eitteko andik ekarte san" - (Gatikatik harantz hor Unbeko mendiak ba hare-harria erraza edukitzen duenez, ze frontoi hau eta egiteko handik ekartzen zen)

arie: harea

arridxe: harria

"Arri ona, erres manejetakoa ta ona, amen, e, buelta gustidxe estau, Sollube teko arridxe ba, txarra manejetakoa losak edo urtetan badeu bai, baya da, sikue, arri gogorra" - (Harri ona, erraz maneiatzekoa eta ona, hamen, buelta guztia ez dago, Sollubek dauka harria ba, txarra maneiatzekoa harlauzak edo irteten badu bai, baina da, sikua, harri gogorra)

arrilosie: harlauza

bufardie: bufarda, harria lantzeko erabiltzen den mailua

ARRIETAKO HIZTEGIA

idxeltzoa: igeltsua

errementari untzie: errementari iltzea

gabille: ohola lantzeko erreminta

gabitxie: oholak iltze barik josteko pasadora

kare bixidxe: kare bizia

"Illedan euso gustiko gurdidxeak, kargeu kare bixidxe, da gero soloan illedan illedan pilloak bota, da uregas bota arek pilloatatik ure, ta pareta san, a, kare bixidxe sute les, da lurre ta paliegas apur bet tapeu, ta tenpletan itxi arik eta, a dobera esaten dxakon a, bola andidxe, desitten da gero" - (Ilaran auzo guztiko gurdiakaz, kargatu kare bizia, eta gero soroan ilaran-ilaran piloak bota, eta uragaz bota pilo haietatik ura, eta paratzen zen, kare bizia sua legez, eta lurra eta paragaz apur bat tapatu, eta epeltzen itxi harik eta, hura dobera esaten zitzaion hura, bola handia, desegiten da gero)

karie: karea

"Nik datorren urtien emongotzutes karie ta satza" - (Nik datorren urtean emango dizkizut karea eta satsa)

"Karie itte san lekue pai oniño badaus bixirik" - (Karea egiten zen lekuak bai oraindino badagoz bizirik)

"Lurre normalmentien dau einye, lenau, emen etzien be agertuten da, lurre karias nasteute" - (Lurra gehienetan dago eginda, lehenago, hemen etxean ere agertzen da, lurra kareagaz nahastuta)

ladrillue: adreilua

"Ladrillurik onek etze sarrak bate pesteko" - (Adreilurik etxe zahar hauek batek ere ez dauka)

losie: harlauza

"Lenau ba, or be egon san beste etzeren bat sidxorrakas einye, Solluben egon san pastoreren bat, baya Solluben asko losie, losie eukitteuen, losakas einye egote sien" - (Lehenago ba, hor ere egon zen beste etxeren bat bidurrakaz eginda, Solluben egon zen artzainen bat, baina Solluben asko harlauza, harlauza edukitzen zuen, harlauzakaz eginda egoten ziren)

morterue: mortairua, hormak egiteko porlanaren orde erabiltzen zen amasa

"Lenengo morterue orixe da" - (Lehenago mortairua horixe da)

obrie: beharlekua

sementue, sementoa: porlana

"Arridxe, eta bitxartien darue, estarue sementorik, eser, espabese lurre, lurre darue asko, igual arritxik, sera erdidxe, arri txikerra sartun de gero lurre" - (Harria, eta bitartean daroate, ez daroate porlanik, ezer, ezpadaze lurra, lurra daroate asko, beharbada harritik, zera erdia, harri txikerra sartu eta gero lurra)

sidxorra: bidurra, etxe-barruan hormatzat erabiltzen ziren egurrezko zumitz antzekoak

"Sidxorrakas eiñekoa da" - (Bidurrakaz eginekoea da)

"Sidxorragas einye, ein biarrien tabikie, ein biarrien ladrillue, ladrillue ordun ba kostoso ia ixengo san da, ekarri Sollubetik edo Mapetik, Mapetik ekarri urretxak edo serak, da sertu, eiñ egurreas ra ra! eiñ, eta gero sertu, basa bustiñieas, ba lotzen siren tabikek" - (Bidurrakaz eginda, egin beharrean tabikea, egin beharrean adrilua, adrilua orduan ba garestia izango zen eta, ekarri Sollubetik edo Mapetik, Mapetik ekarri hurritzak edo zerak, eta zertu, egin egurragaz ra ra! egin, eta gero zertu, basa buztinagaz, ba lotzen ziren tabikeak)

simendue: oinarria

"Or simendurik estau, estau esebe, ori etzie be dana dau atxan ganiien einye" - (Hor oinarrik ez dago, ez dago ezer ere, etxe hori ere dena dago haitezaren gainean eginda)

untze buru andidxe: iltze buru-handia

6.2. ETXEAREN EGITURA

age trabesa: habe trabesa, alde batetik bestera doana

agie: habea

"Tallatukoa erdidxen datorren, e, sujetetan deuen age andi bet egoten da or godxen, erdi erdi erdidxen, b'aixe, orrek, e, falletan badeu etzie apurtu bidxaku, esateuren lenau, orrek, e, falletan badeu orrek, orreri in bidxako kontu se orrek falletan badeu apurtu ingo dxaku etzie" - (Teilatukoa erdian datorren, eusten duen habe handi bat egoten da hor goian, erdi-erdi-erdian, ba huraxe, horrek, huts

ARRIETAKO HIZTEGIA

egiten badu etxea apurtu behar zaigu, esaten zuten lehenago, horrek, huts egiten badu horrek, horri egin behar zaio kontu ze horrek huts egiten badu apurtu egingo zaigu etxea)

"Onek, e, agiek beyen doasenari esaten dxakie agiek, etze barruen, da talletuen doasenak bandak" - (Hauek, habeak behean doazenei esaten zaie habeak, etxe barruan, eta teilatuan doazenak bandak)

arkue: arkoa

arrakalie: arrakala

astillie: arrakala

bandie: banda

"Banda tires serak, normalien ormatik kanpora urtetan duenak" - (Bandak dira zerak, normalean hormatik kanpora irteten dutenak)

"Banda tie talletukoak" - (Bandak dira teilatukoak)

bein ganie, beyen ganie: behearen gaina

beye: behea

"Beyen kuartuek eta gero godxen ba, kuartu bet edo serien, da libre antzien" - (Behean gelak eta gero goian ba, gela bat edo zerean, eta libre antzean)

bitxartie: bitartea

egala: hegala

erretallie: erretailea, teila berria egitea etxeari

eskiñe arridxe: eskina-harria

"Eskiñe arridxeek eta siminyu arridxeek eskiñetakoak ixeten sien andidxeek, andidxeek ba eskiñetako sera, emen, e, esta au sona on ona ixen arridxentzako, au amen Arrieta ixena euki arren, amen etziek, e, arri bastante pobrie dekier" - (Eskina-harriak eta oinarri-harriak eskinetakoak izaten ziren handiak, handiak ba eskinetako zera, hemen, ez da inguru hau on-ona izan harrientzat, hau hamen Arrieta izena eduki arren, hamen etxeek, nahiko harri pobrea daukate)

eskiñie: eskina

eskutunie: ezkutunea

frontala: frontala

gallurre: gallurra

"Esan gurosu suk, u, eusteko gero godxen gallurreri, edo serari eusteko?" - (Esan gura duzu zuk, eusteko gero goian gallurrari, edo zerari eusteko?)

"Gallurre pe eukitxen deu ori" - (Gailurrak ere edukitzen du hori)

godxe: goia

itxoñe, itxugiñe: itugina

"Euridxe itxen deuenien, itxugiñien imintxe san balda sabala edo" - (Euria egiten duenean, ituginean ipintzen zen bada zabala edo)

kaballetie: astoa

"Kaballetie ba ixete san atzeko miru bustena eittekoa" - (Astoa ba izaten zen atzeko miru buztana egitekoa)

kabridxo: kabrioa

kapelie: kapela, gailurraren gaineko teila eta teilatua bera adierazteko erabiltzen da

"Kapelie iminye, ixetie lentxik, txapela ixetie lentxik, noberak txapela imintxie lentxik" - (Kapela ipinita, izatea lez, txapela izatea lez, norberak txapela ipintzea lez)

kaperidxo: gapirioa

"Solube tie etzien barruen dausenak, solubek, agertik agera doasenak, eta onek talletukoak kaperidxoak" - (Solibak dira etxearen barruan dagozenak, solibak, habetik habera doazenak, eta teilatuko hauek gapirioak)

lata bitxartie: lata bitartea

latie: lata, teilaren azpian ipintzen den ohola

"Oingo etze barridxeek dana ya segiduen darue, baya len esuen eroaten segiduen, ixate san gastañe edo aretxa, geur normalien ya gitxi dau ori, eta latie esaten tzien bitxartias eitxen dana, bitxartetxue isten tzie apur bet uekoa, tallie imintxeko" - (Oraingo etxe berriek dana segituan daroate, baina lehen ez zuten eroaten segituan, izaten zen gaztaina edo haritza, gaur normalean ja gutxi dago hori, eta lata esaten zioten bitarteagaz egiten dena, bitartetxoa uzten diote apur bat hutsik, teila ipintzeko)

"Latie da talletuen dxosten dan ola" - (Lata da teilatuan josten den ohola)

lau urekoa: lau ureko teilatua

lau uretara: lau ureko teilatua

listoye: listoia

miru bustena: miru buztana, teilatuaeren atzeko alderdian irteten duen buztana

"Miru bustena da, esplikeko tzut, au de talletue ixetie, esta? gallurre, gallurre da olan doana tallie, kasureko, da gero atzien eitxen deu, olan, au klasera, miru

ARRIETAKO HIZTEGIA

bustena areri esaten tzie" - (Miru buztana da, azalduko dizut, hau da teilatua izatea, ezta? gailurra, gailurra da holan doana teila, kasurako, eta gero atzean egiten du, holan, honen erara, miru buztana hari esaten diote)

"Atzien eñ, esta? ta gero olan, e, kuadrure itxen tzie goitxik istuen, bera, olan sabalera au ixetie lentxik, areri esaten tzie miru bustena, atzeko talletue, satidxe itxen tzie olan, a, bera" - (Atzean egin, ezta? eta gero holan, laukira egiten diote goitik estuan, behera, holan zabalera hau izatea lez, hari esaten diote miru buztana, atzeko teilatua, zatia egiten diote holan, behera)

mondxorra, monyorra: teila boda, teila ematean egiten den jatordua

"Mondxorra bai, etzien akabuko obrien akabuen da bai, ori oin be usetan da" - (Teila boda, etxearen amaierako obraren azkenean eta bai, hori orain ere usatzen da)

"Mondxorra ixete san, da makalloa dxate san" - (Teila boda izaten zen, eta makailoa jaten zen)

"Monyorra, monyorra ba esaten dxako, geuse bat akabetan danién, esate baterako, etze baten talletue iminkeran, ori ixetan da monyorra ba ori, talletue imintten dxakonien" - (Teila boda, teila boda ba esaten zaio, gauza bat amaitzen denean, esate baterako, etxe baten teilatua ipinkeran, hori izaten da teila boda ba hori, teilatua ipintzen zaionean)

ola: ohola

"Egurre dau guk esaten tzakune, agie, gero latie, latie esaten dxako areri olari, tallien aspidxen imintxen dan ola" - (Egurra dago guk esaten dioguna, hagea, gero lata, lata esaten zaio hari oholari, teilaren azpian ipintzen den ohola)

orma silloa: horma zuloa

ormie: horma

"Onek orma lodidxe tire olakoak" - (Horma hauek lodiak dira holakoak)

"Goiko gallurretik eroaten dure, aulan ser bat, ixetie lentxik, gallurreri eusteko olan, ormara olan ser bat" - (Goiko gailurretik eroaten dute, haolan zer bat, izatea lez, gailurrari eusteko holan, hormara holan zer bat)

pasaderie: pasadera

"Pasaderak, espadau arriskoa, onak, lantzien bat egurrekoa imiñi, idi estittesan ormak" - (Pasaderak, ez badago harrizkoa, onak, lantzean bat egurrezkoa ipini, ireki ez daitezen hormak)

"Ormie ikeran, ormie itte san, arridxen a, sentzilloa ixete san ormie ittie, bata pareta san alderdi batetik, da bestie bestetik, da ametik dxoate san arri bet imintten onetara, arri bet, arri andi bet, da beste bat, aonen erdidxen beste batek onetara beste arri bet, da ametik onetara beste arri bet, da alderdi bidxetatik dxoate sien eitten ta, ta pasaderak ixeten sien, batetik besterartekoa amarre didxen" - (Horma egikeran, horma egiten zen, harrian, erreza izaten zen horma egitea, bata paratzen zen alderdi batetik, eta bestea bestetik, eta hamendik joaten zen harri bat ipintzen honetara, harri bat, harri handi bat, eta beste bat, haonen erdian beste batek honetara beste harri bat, eta hamendik honetara beste harri bat, eta alderdi bietatik joaten ziren egiten eta, eta pasaderak izaten ziren, batetik besterainokoa amarra dezan)

poste arridxe: poste harria, poiala, poste nagusiari eusten dion harria

postie: postea

"Arridxen dau postie sartunde" - (Harrian dago postea sartuta)

pudxela: poiala

"Pudxela, ori de, umedadiék estidxen betik idxen, se ostantzien, egurre, umedadiék orti datos" - (Poiala, ori da, umeltasunak ez dezan behetik igan, ze osterantzean, egurra, umeltasunak hortik datoz)

salie: sala, egurrezko behea

"Salie etze barruetako salak, barrukoak salak" - (Sala etxe barruetako salak, barrukoak salak)

sapatie: zapata

"Sapatie da, e, ormie, ormien ganién, ormie, esta? ormien ganién imintxen dana, e, agieri, areri eusteko, areri dxosteko imintxen tzien sapatie" - (Zapata da, horma, hormaren gainean, horma, ezta? hormaren gainean ipintzen dena, hagiari, hari eusteko, hari josteko ipintzen zioten zapata)

ARRIETAKO HIZTEGIA

siminyue: oinarria

"Ba arridxe, arridxeas eiñ, e, simentasiñoa topeu, gogorra, ta gero an asi sertuten, siminyuk amen, e, bueno gu amen sonan, gu gausen sonan, e, beye ona dau emen, atxa dau emen, toskie au toska, erres, bastante erresa da soltetan be" - (Ba harriak, harriakaz egin, oinarriak topatu, gogorra, eta gero han hasi zertzen, oinarriak hamen, beno gu hemen inguruan, gu gagozen inguruan, behea ona dago hemen, haitza dago hemen, toska toska hau, erraz, nahiko erraza da soltatzan ere)

siminyu arridxe: oinarri-harria

solubie, solibie: soliba, teilatuko gapirioen artean doazen hage txikerrak

"Solube tires orrexek agiek" - (Solibak dira hage horiexek)

tabikie: tabikea

tabloye: oholtzarra

talletue, tallatue: teilatua

"Ikusteosu a talletue imintxen dauena etze barridxe?" - (Ikusten duzu teilatu hura ipintzen dagoena etxe berria?)

tallie: teila

"Gero garbittu ondo, imiñi, madxen ganera altzeu atzera, imiñi olao ser bategas da busti busti, ondo ondo einye gero ba, edo kutxilloan ganiegas, edo talle sati on bategas, ra ra garbittu" - (Gero garbitu ondo, ipini, mahaiaren gainera altxatu atzera, ipini holako zer bategaz eta busti-busti, ondo-ondo egin eta gero ba, edo kutxiloaren gainagaz, edo teila zati on bategaz, ra-ra garbitu)

tijerie: teilatuko armadizoa

trabesa: trabesa

tranpie: igoteko tranpa

ur bikoa: ur biko teilatua

ur, bitxara, ur bittera: ur biko teilatua

"Badau olan, badau, ori miru bustena dekona, badau, nonon ikusitxe dekot, baya normalien ser bikoa, ur bitxara" - (Badago holan, badago, miru buztan hori daukana, badago, non edo non ikusita daukat, baina normalean zer bikoa, ur bitara)

6.3. ETXEAREN BANAKETA

bastarra: bazterra

bekaldie: behealdea

bixilekue: bizilekua

bixitze biko etzie: bizitza biko etxea

bixitzie: bizitza

"Auxe etzie be len bixitze bikoa ixen san" - (Etxe hauxe ere lehen bizitza bikoa izan zen)

"Lekeriken bertan ogetas umiek iru bixitzetan egon siren" - (Lekeriken bertan hogeitaz umeak hiru bizitzetan egon ziren)

bodegie: sotoa

dutxie: dutxa

egala: hegala

entradie: sarrera

eskatza: eskatza, suetea

"Ba lekue etzien, eskatza da kuartu bet, eta gero solo bat edo bi, edo alantxe baya en jeneral solo bat" - (Ba lekua etxean, eskatza eta gela bat, eta gero soro bat edo bi, edo halantxe baina gehienetan soro bat)

"Ortxe be, lurre, bai eskatzien bai kuartuetan, da danien lurre egon san" - (Hortxe ere, lurra, bai eskatzean bai geletan, eta denean lurra egon zen)

"Gu bixi ixen gara, sartu, esta? etzera, eskatzera? eta an egote san beirik onena edo olan, estramiñe ta bertan bedarra, eta gero eskatzetik ara bidie" - (Gu bizi izan gara, sartu, ezta? etxera, eskatzera? eta han egoten zen behirik onena edo holan, estramina eta bertan belarra, eta gero eskatzetik hara bidea)

eskiñie: eskina, kantoia

eskusue: komuna

etxe bixitzie: etxe bizitza

etxe bueltie: etxe-ingurua

"Gure etxe bueltan ibiltten die" - (Gure etxe-inguruan ibiltzen dira)

etzeatzie: etxe-atzea

etzeondoa: etxe-ondoa

etzeurrie: etxe-aurrea

etzie: etxea

"Auxe ixen san eurek bixi sien lekue, auxe etzie" - (Hauxe izan zen eurek bizi ziren lekua, etxe hauxe)

gelie: gela

goitxegidxe: goitegia

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Goitxegidxe da, lenengo seretik urrengo serera dauena, talletuen bitxartien, es danien, esta? danien es, baya goitxegidxe esaten tzie areri bai" - (Goitegia da, lehenengo zeretik hurrengo zerera dagoena, teiltuaren bitartean ez denean, ezta? denean ez, baina goitegia esaten diote hari bai)

iru bixitzeko etzie: hiru bizitzako etxea

"Ba Julian bera bixi san iru bixitzeko etzien" - (Ba Julian bera bizi zen hiru bizitzeko etxean)

kakalekue: kakalekua

kamarie: kamara, ganbara

"Eskillerak eoten sien kamarara da eskillera buruen dau" - (Eskailerak egoten ziren kamarara eta eskailera buruan dago)

"Baserri sarrak, e, godxetan, salak, goiko salatan libre, kamarie be bai" - (Baserri zaharrek, goietan, salak, goiko saletan libre, kamara ere bai)

kantoye: kantoia

karrajue: karrajua

"Karrajuen eoten sien estramiñek" - (Karrajuan egoten ziren estraminak)

kuartue: logela

"Guk len godxen eitxen gendun lo, oin beyen eitxen du kuartue atarata baya, godxen eitxen gendunien esate notzan nik oneri, amen eskatzien eingot nik, ni enoa orra gora, aixiek bota in bisku etzie ta, selako aixie or godxen!" - (Guk lehen goian egiten genuen lo, orain behean egiten dugu gela aterata baina, goian egiten genuenean esaten nion nik honi, hemen eskatzan egingo dut nik, ni ez noa horra gora, haizeak bota egin behar digu etxea eta, zelako haizea hor goian!)

lastatidxe, lasteidxe: lastategia

"Lasteidxen ote san ori, lasteidxe olan bedarrakas, eta an goitxegidxe bestie, beste bat ganien oten sana" - (Lastategian egoten zen hori, lastategia holan belarrakaz, eta han goitegia bestea, beste bat gainean egoten zen)

okulue: okoilua, bazterra

pasillue, pasilloa: iraganbidea

portala, portalie: ataria

"Sasteidxe bitxarte dala labie ote san, portalie aolan, esta? ta sasteidxe an bitxartien, da gero labie" - (Sastegia

bitarte dela labea egoten zen, ataria haolan, ezta? eta sastegia han bitartean, eta gero labea)

"Artu sillie, portalien dekosus sillek, ekarri portaletik, dxeusi barik seu" - (Hartu aulkia, atarian dauzkazu aulkiak, ekarri ataritik, jausi barik zeu)

salie: egongela

tejabanie: tejabana

6.4. ATEA-LEIHOAK-ESKAILERA

aldabie: aldaba

akarra: markoan sartzen den bisagraren alderdia

"Bisegrak erreruek amen, e, erreruek eitten ttusen bisegra sarrak, eta akarra, akarra serien sartzen dana, markoan sartzen dana akarra ta gero bisegrak, guk asko in yus geu pe uneda baten, e?" - (Bisagrak errementariak hamen, errementariak egiten zituen bisagra tzarrak, eta akerra, akerra zerean sartzen dena, markoan sartzen dena akerra eta gero bisagrak, guk asko egin ditugu geuk ere unada baten, e?)

ateburue: ateburua

ate kolomie: ate koloma

ate markoa: ate koloma

atie: atea

"Atetik aolakoa deko orrek" - (Atetik haolakoa dauka horrek)

balkoi mantzue: balkoi bantzua

balkoye: balkoia

"Ori esta bereskoa, ori matza egote san etzien, e, ondoan da olan balkoyetan da parra einye" - (Hori ez da berezkoa, mahats hori egoten zen etxean, ondoan eta holan balkoietan eta parra eginda)

balustrie: balustra, leihoetako kanpoko aldean egoten diren burdinazko hesiak

balustradie: balustrada

barandie: baranda, balkoietako hesia

barrena: barrena, eskailera barrena

beko atie: beheko atea

bentana kolomie: leiho koloma

bentanie: leihoa

bisegrie, bisagrie: bisagra

eskillera barrena: eskailera barrena

eskilleraburue: eskailera burua

eskillera godxena: eskailera goiena

ARRIETAKO HIZTEGIA

eskillera mallie: eskailera maila
eskillerapie: eskailerapea
eskillerie: eskailera
eskudela: eskudela, bantzua, oralekua
giltze: giltza
goiko atie: goiko atea
kisketa: kisketa
"Kisketa burdiñeskoa da" - (Kisketa burdinazkoa da)
kolomie: koloma
kristela: kristala
mallie: maila
mantzue: eskailera bantzua, oralekua
"Mantzue da eskillerie tekona agarretako" - (Bantzua da eskailerak daukana oratzeko)
pasadora: kisketa
trabille: trabila
tranga belarridxe: tranka belarria
trangie, trankie: tranka
"Trangie albatieri edo imintxen dxakon" - (Tranka albateari edo ipintzen zitzaion)
"Egote sien batzuk, trangie orman, suloa einye eukitteuen, ra! sartzeueun barrure" - (Egoten ziren batzuk, tranka horman, zuloa eginda edukitzen zuten, ra! sartzen zuten barrura)
txaramela: txaramela
"Txaramela nik esetu dot eta gero giltze" - (Txaramela nik ezagutu dut eta gero giltza)

6.5. SUA

bartzune: bartzuna, beheko suan hautsa batzeko erabiltzen den tresna
bekosue: beheko sua
"Beste bat bekosuen imintxen san" - (Beste bat beheko suan ipintzen zen)
besue: beheko sua
"Egurre lodidxe gusu ba txaparako edo besureko lodidxe" - (Egurra lodia gura duzu ba txaparako edo behe surako lodiak)
brasie: txingarra
burruntxidxe: burduntzia
"Bai burruntxidxe esaten dxakona" - (Bai burduntzia esaten zitzaiona)
euspoa: hauspoa
eutze: hautsa
garra: garra

ikestokidxe: ikatz tokia, ikatz larrena
"Emen ba lenau bai itten sien ikestokidxe eta olan" - (Hemen ba lehenago bai egiten ziren ikatz tokia eta holan)
"Kargeu a, sakon egote sales, kargeu sakon sakon, dana bete egurre ta egurre ta egurre, da gero sodxekas tapeu ganetik, aspittik sue emon, da a erretan erretan erretan an egote san, e, sera errekoa, alan lotze san egurreko iketza einye" - (Kargatu hura, sakon egoten zenez, kargatu sakon-sakon, dena bete egurra eta egurra eta egurra, eta gero zohiakaz tapatu gainetik, azpitik sua eman, eta hura erretzen erretzen erretzen han egoten zen, zera errekoa, halan lotzen zen egurrezko ikatza eginda)

iketza: ikatza

"Nik entzunde bai iketza selan sertze suen da, one pai, entzunde dekotzat aitxeri baya" - (Nik entzunda bai ikatza zelan zertzen zuten eta, hauek bai, entzunda daukakiot aitari baina)

"Ori eitxe suen, basoan, puntuetan daus, oin be esun dau, e, olan ein suloa, bakixu suloa? sein ye karabidxen modure suloa, ointxe be basoan daus, lurre dau oin be, geure basoatan be bai badau, baltz oniño, a lurre dau oniño sein ye errete dauen moduen, eta an suloak ein ye an eitxe suen eurki sera, iketza itxeko" - (Hori egiten zuten, basoan, puntuetan dagoz, orain ere ezagun dago, holan egin zuloa, badakizu zuloa? zein da karabiaren modura zuloa, oraintxe ere basoan dagoz, lurra dago orain ere, geure basoetan ere bai badago, beltz ondino, lur hura dago oraindino zein da errete dagoen moduan, eta han zuloak egin eta han egiten zuten aurki zera, ikatza egiteko)

iketziale: ikatz hila, amatatuta dagoen ikatz zatia

illuntidxe: ilentia

"Tenesakas txinger bat sigarroa bistuteko be bai, eta nire amoma ikuste nuen nik txikidxe ixte nitzenien, kafie itxeuen bekosuen, eta botateuen kafie eta gero olako illuntitxuegas eraitxen tzan" - (Tenazakaz txingar bat sigarroa bizteko ere bai, eta nire amama ikusten nuen nik txikia izan nintzenez, kafea egiten zuen)

ARRIETAKO HIZTEGIA

beheko suan, eta botatzen zuen kafea eta gero holako ilentitxoagaz eragiten zion)

katie: katea

katue: beheko suteko burdina

"Len katuek eukitten gendusen guk, aulako, katuek esaten dxakien" - (Lehen katuak edukitzen genituen guk, haolako, katuak esaten zitzaien)

kedarrie: kedarra

keye: kea

"Keyek begidxe erreta, d'antxe dxoakoan da, ibiltzen siren emeko barridxoko gustidxe domekatan, araxe dxoanda" - (Keak begiak erreta, eta hantxe jokoan eta, ibiltzen ziren hemengo auzotegiko guztiak domeketan, haraxe joanda)

laskakoa, lagatzue: laratzua

metxerue: metxeroa

metxie: metxa

mistoa: mistoa

"Mistoa esate baterako, ta a akabeta sanien akabeta san, e, funtziñoa" - (Mistoa esate baterako, eta hura amaitzen zenean amaitzen zen funtzioa)

misto kajie: misto kaxa

mukurre: mukurra, sua egiteko erabiltzen den enborra

"Gedxenatan bueno, igual sue orrekas mukurrekas sue egoten san igual urruno egunien be da itxi itxen dxakon, ba akabetan sienien ba kendu itxe san" - (Gehienetan beno, beharbada sua mukur horiekaz sua egoten zen beharbada hurrengo egunean ere eta utzi egiten zitzaion, ba amaitzen zirenean ba kendu egiten zen)

oliñe: kedarraren hautsa

parrillie: parrila

"Trebedie, eta ser ixeta san bestie? parrille ba pe bai ixeta san" - (Trebedea, eta zer izaten zen bestea? parrila bat ere bai izaten zen)

prasio: txingarra

sue: sua

sugarra: sugarra

sugarridxe: sugarria, sua egiteko gaia

"Sugarridxe? ba erretako egurre, sugarridxe ekarri bi dot, ba dxoaten sien basora ta sugarritxen" - (Sugarria? ba erretzeko egurra, sugarria ekarri behar dut, ba joaten ziren basora eta sugarritan)

surteko eutze: surteko hautsa

surtie: surtea

susidxe: zuzia

"Galtzu txolie su emonda, susidxe esaten dxakon orreri" - (Galtzu txola su emanda, zuzia esaten zitzaion horri)

sutondoa: sutondoa

"Banoa sutondora os dau te" - (Banoa sutondora hotz dago eta)

talaburdiñie: talaburdina

"Taloak erretako talaburdiñie esaten dxakon" - (Taloak erretzeko talaburdina esaten zitzaion)

tanboliñe: danbolina, gaztainak erretzeko erabiltzen zen

tenesa: tenaza

trebedie: trebedea

"Atxiñe egoten sienak trebedie egote san" - (Antzina egoten zirenak tebedea egoten zen)

txapie: txapa

tximiñidxe, tximinidxe, tximiñie: tximinia

"Amen etzien neu be esetute nau, tximiñeri pes etziek" - (Hamen etxean neu ere ezagututa nago, tximiniarik ere ez etxeak)

txingerra: txingarra

txisparridxe: txisparria, sua biztuteko erabiltzen zen harria

txispie: txinparta

"Nik neuk estot sertu baya ikusitxe nau kasureko arridxe, e, es danak baya askok emoten deu, kasureko eiñ, burdiñen olan, a, dxo arridxe, ta txispie emoten deu" - (Nik neuk ez dut zertu baina ikusita nago kasurako harriak, ez denek baina askok ematen du, kasurako egin, burdinean holan, jo harria, eta txinparta ematen du)

6.6. ARGIA

argidxe: argia

"Guk etzien eukitxen gendune bai, gatza imiñi, pote baten gatza, oridxo bota, ganera, da metxa bat imiñi, metxa bat sartun areri, eta areas argidxe itxen bai esetu dot etzien" - (Guk etxean edukitzen genuena bai, gatza ipini, pote baten gatza, olio bota, gainera, eta metxa bat ipini, metxa bat sartu hari, eta haregaz argia egiten bai ezagutu dut etxean)

ARRIETAKO HIZTEGIA

farola: farola

kandela argidxe: kandela argia

kandela negarra: kandela negarra

kandelerue: kandelerua

kandelie: kandela

"Kandela pa, segun ba, bat il basan bata ta, da beste ba pe il basan ba beste bat eta, selan akabeu ba alan imintte sien" - (Kandelak ba, segun ba, bat hil bazen bata eta, eta beste bat ere hil bazen ba beste bat eta, zelan amaitu ba halan ipintzen ziren)

kandille: kandila

"Ori ixen san, aolako baltza, da an imintxen dxakon kandille esaten dxakona oridxo, da metxa bat, jugoi sarragas edo itxen san a metxie, oridxotan imiñi txe puntetik sue emon" - (Hori izan zen, haolako beltza, eta han ipintzen zitzaion kandila esaten zitzaiona olio, eta metxa bat, jugoi zaharragaz edo egiten zen metxa hura, oliotan ipini eta puntatik sua eman)

karburoa, karbudoa: karburoa

"Ori estot esetu nik karbudoa bai, karbudoa asko" - (Hori ez dut ezagutu nik karburoa bai, karburoa asko)

"Karburoa bai esetu dot, karburoa bai, eskeitxe tximiñidxen" - (Karburoa bai ezagutu dut, karburoa bai, eskegita tximiniatik)

karbuo argidxe: karbuo argia

kurtzulue: kurtzelua, kriseilua

"Tximiñidxen a kurtzulue oten san" - (Tximinian kurtzelu hura egoten zen)

"Bakixu karbuoas eitxen dan argidxe, egote san leku batzutan, or esan egon, eta egote san kurtzulue" - (Badakizu karbuoagaz egiten den argia, egoten zen leku batzuetan, hor ez zen egon, eta egoten zen kurtzelua)

"A ekarteuden, da imintteuden serien gero, kurtzuluen" - (Hura ekartzen zuten, eta ipintzen zuten zerean gero, kurtzueluan)

metxie: metxa

"Kurtzulue san aulan, e, forma batera, istuen, eta oridxo, olan astatxuas, errementaridxe eiñekoa, orrek, astatxu bateas gora, eta metxie an punten, da ak oridxo txupeta seuen arek metxiek eta antxe itxen deuena, eta ederto ikusi, orduen, da keyeas begidxe erreta" - (Kurtzelua zen haolan, itxura batera,

estuan, eta olio, holan astatxoagaz, errementariak eginekoa, horiek, astatxo bategaz gora, eta metxa han puntan, eta hark olio xurgatzen zuen metxa hark eta hantxe egiten duena, eta ederto ikusi, orduan, eta kegaz begiak erreta)

oridxo argidxe: olio argia

"Alako sintxe bat imintxe otzien oridxoari" - (Halako zinta bat pintzen zioten olioari)

petrolidxo: petrolioa

"Nik esetu dot petrolidxo, olako argi bet, karburoa be bai" - (Nik ezagutu dut petrolioa, holako argi bat, karburoa ere bai)

petrolidxo argidxe: petrolio argia

sañe: zaina, kurtzeluaren erregaia, olio antzekoa izaten zen

"Argidxe bai aregas, sañe ekarte san gero ta, sañe be; Bermion ba emoteuden merke, da sañe ekarteuden" - (Argia bai haregaz, zaina ekartzen zen gero eta, zaina ere, Bermeon ba ematen zuten merke, eta zaina ekartzen zuten)

6.7. URA

arradie, erradie: errada

"Erradak edo olan ure ekarteko, geu pe euki gendun" - (Erradak edo holan ura ekartzeko, geuk ere eduki genuen)

"Onen ganiien imiñi erradie" - (Honen gainean ipini errada)

arridxe: harria, sukaltarria

depositxue, depositue: depositua, biltegia

gantxoa: ur makilaren kakoa

kantarue: kantarua, gubila

potixe: potixea

"Potixe, solora eta eroaten san" - (Potixea, sorora eta eroaten zen)

txorroa: txorroa

"Gu pai emen, estu euki guk uren, e, ur faltarik iños, bueno, etzien es txorroan" - (Guk bai hemen, ez dugu eduki guk uraren, ur faltarik inoiz, beno, etxean ez txorroan)

ur palue: ur makila, ura eta esnea garraiatzeko erabiltzen zen makila

ure: ura

ARRIETAKO HIZTEGIA

6.8. ESKATZEKO TRESNAK

ardau botillie: arda botila

astie: asta

balda sabala: balde zabala

"Orduen balda sabalak edo esaten dxakonak edo serak eta egoten siren" - (Orduan balde zabalak edo esaten zitzaaienak edo zerak eta egoten ziren)

baldie: baldea

botie: zahatoa

botillie: botila

burrintzaldidxe: burruntzalia

enbudo: enbutua

"Ori be saraskoa da sein ye, enbudo moduen olan" - (Hori ere sareskoa da zein da, enbutu moduan holan)

eperdidxe: lapiko eta kazolen ipurdia

esne terriñe: esne kantina

espitte: espita, barrikaren txorrota ixteko erabiltzen da

fruterue: frutontzia

galdarie: galdara

"Artoan ganiien sagarrak erretan gendusen guk, latak eiñ alan, orrek galdarak edo olakoak ote siren, oidalakoak" - (Artoaren gainean sagarrak erretzen genituen guk, latak egin halan, galdara horiek edo holakoak egoten ziren, ohidalakoak)

gantxoa: gantxoa

garrafoye: garrafoia

"Ordun ba astoan da ekarte san ure, garrafoyetan, onek, e, kantarako garrafoyetan da, bost edo sei astoan iminye da" - (Orduan ba astoan eta ekartzen zen ura, garrafoietan, hauek, kantarako garrafoietan eta, bost edo sei astoan ipinita eta)

kafe errotie: kafe errota

kafeterie: kafegailua

kajie: kaxa

kankarroa: kankarroa

kantiñe: kantina

"Geuk estu ibilli baya, ure ekarteko es, esnie bajatuteko, or baserridxetatik, usetauen ori palue lepoan, kantin bet atzien eurrien, kantin bi, bata atzien da bestie eurrien" - (Geuk ez dugu erabili baina, ura ekartzeko ez, esnea bajatzeko, hor baserrietatik, usetzen zuten makila hori lepoan, kantin bat atzean aurrean, kantin bi, bata atzean eta bestea aurrean)

kasue: kazua

kasuelie: kazola

katxarroa: katxarroa

"Sagarrak normalien eitxe siren, e, artoan ganiien, imintxen sendusen, seuser imiñi katxarro an, bakixu, aproposko katxarro baten" - (Sagarrak normalean egiten ziren, artoaren gainean, ipintzen zenituen, zer edo zer ipini katxarro han, badakizu, aproposko katxarro baten)

kortxoa: kortxoa

kosiiñe: kozina, janariak prestatzeko eskatzean dagoen tresnaren gainean esaten da

kutxarillie: koilaratxoa

labañie: labana

"Neu pe aitxe iños ikusi dot, eitxen, ni gastie nitzenien, e, bixerra kendu te gero sertzeko normalien egote san ori labañie bixerra kentzekoa" - (Neuk ere aita inoiz ikusi dut, egiten, ni gaztea nintzenean, bizarra kendu eta gero zertzeko normalean egoten zen labaina hori bizerra kentzekoa)

lapikoa: lapikoa

latie: latazko ontziak

morterue: mortairua

onille: onila

"Ekarristesu ori onille" - (Ekar iezadazu onila hori)

orrasidxe: orrazia

"Orrasi bet eukitxen deuren, olan imintxen deuren" - (Orrazi bat edukitzen zuten, holan ipintzen zuten)

orrasi sarratue: orrazi itxia

"Orrasi sarratue usetan san atxiñe asko" - (Orrazi itxia usetzen zen antzina asko)

palanganie: palangana

pasadora: iraztontzia

"Pasadoran modukoa da ori" - (Iraztontziaren modukoa da hori)

plantxie: plantxa

potie: potea

prentzie: prentsa

sagidxe: zahagia

sartena: zartagina

"Errekeran be idiek usintxue, sartenien be igerten dxako aren usintxue, urdidxen asalari" - (Errekeran ere irak usaintxoa, zartaginean ere igartzen zaio haren usaintxoa, urdaiaren azalari)

ARRIETAKO HIZTEGIA

sesterie: taloa gainean jartzeko egurrezko erretailu antzekoa

tanboliñe: danbolina

tangie: tanka

"Tanga bete ur ekarriestu" - (Tanka bete ur ekar iezadazu)

tapie: tapa, estalkia

tapotza: tapotza, zapotza

tarroa: potea

tarterie: tartera

terriñe: kantina

"A palue apur bet okerragas, eta egote siren batzuk, areri palueri, palu fuerte ixeta san, areri atarate dxakosan olako rendijetxu batzuk, an, terriñek sartzeko, eta gero aregas txarameltxue iñ, arek falle sedidxen" - (Makila hura apur bat okerragaz, eta egoten ziren batzuk, makila hari, makila gogorra izaten zen, hari ateratzen zitzazkion holako arrakalatxo batzuk, han, kantinak sartzeko, eta gero txarameltxo haregaz egin, hark huts egin ze dezan)

trastie: trastea

"Kendu ixus onek trastiek emetik" - (Ken itzazu traste hauek hemendik)

udxe: oia, zahagi eta zahatoei barruan ematen zaien oi beltza

"Udxe sagidxeri itten dxakona, sagidxek, barruen eukitten deu" - (Oia zahagiari egiten zitzaiona, zahagiak barruan edukitzen du)

6.9. ONTZITERIA

basiñie: bazina, lurrezko ontzia katilua baino handiagoa

"Basiñie, taloa ta esnie dxateko katxarro bat, lurrezko bat, euki dus guk" - (Bazina, taloa eta esnea jateko katxarro bat, lurrezko bat, eduki ditugu guk)

basue: basua

dxarrie: pitxarra

katillue: katilua

kollarie: koilara

kutxarillie: koilaratxoa

kutxilloa, kutxillue: ganibeta

"Ainbeste kutxillo ta ainbeste geuse esan imintxen" (Hainbeste ganibeta eta hainbeste gauza ez zen ipintzen)

lapikoa: lapikoa

pitxarra: pitxerra

"Arek eitxe seuen kortara dxoan, eta eratzi bedxe ta pitxarretik lelengo tragu in berak an edan errapetik ara" - (Hark egiten zuen kortara joan, eta eraitsi behia eta pitxarretik lehenengo zurrutada egin berak han edan errapetik hara)

platera: platera

"Guk, u, goxeti ikesi gendun bakotxa bere plateratati dxaten" - (Guk, goizetik ikasi genuen bakoitza bere plateretik jaten)

plater asala: plater azala

plater sakona: plater sakona

"Plater sakonak iminsus" - (Plater sakonak ipin itzazu)

tasie: kikara baino handiagoa dena izaten da hau

tenedora: sardeska

txikerie: kikara

6.10. ALTZARIAK

arkie: arka

armaridxo: armarioa

aspirie: azpira

astoa: egurrez egineko armadizoa gainean lan egiteko edo ohol batzuk ipinita mahaia izateko

baldie: balda, arasa, sukaldeko eta gelako altzaria

"Baldie egote san kuartuen" - (Balda egoten zen gelan)

bañerie: bainontzia

bankue: jesarlekua

baule: baula

dxesarlekue: jesarlekua

erroperue: erroa armarioa

eskaparota, eskrapota: eskapalota, geletan egoten zen armario handia erroa gordetzeko

espillue: espilua

eurkidxe: aulkia, hau errespaldobakoa da, baita kortarako ganadua eraisteko erabiltzen dena

"Eurkidxe esaten tzaku guk areri, kortako eurkidxe" - (Aulkia esaten diogu guk hari, kortako aulkia)

eurredie: kuxa, ohearen burua eta oina

gasun askie: gazun aska, honetan pernilak, urdaia eta orohar txerrikia gordetzen zen gatzatan kontserbatzeko; bertan gatzatu

ARRIETAKO HIZTEGIA

ere egiten zen, esate baterako zezina, gero eskegita gordetzen bazen ere

"Gasun askan imiñi tte, gasun aska baten imiñi, d'ara bota gatza ta an imiñi okelie" - (Gazun askan ipini eta, gazun aska baten ipini, eta hara bota gatza eta han ipini okela)

kaixie: kaixa

kajie: kaixa

kajoye: kajoia, tiradera

kakoa: kakoa

"Kortako erropak eta eskegitxeko kakoa" - (Kortako arropak eta eskegitxeko kakoa)

kolgadora: eskegitokia

koltxoye: koltxoia

"Lanaskoa eukitxeuen gure amak koltxoye ta arek lanak dxo itxe sien, ostantzien bolatu itxen siren" - (Artilezkoa edukitzen zuen gure amak koltxoia eta artile haiek jo egiten ziren, osterantzean bolatu egiten ziren)

komadie: komoda

"Komadie beste bata, baldie ta oye ixeta sien, atxiñeko kuartuen oten sienak" - (Komoda beste bat da, balda eta ohea izaten ziren, antzineko gelan egoten zirenak)

kumie: kuma

lana koltxoye: artile koltxoia

lastamarrie: artosapaz egiten zen koltxoia

madxe, maidxe: mahaia

"Madxe be egote san, oin kendu dure" - (Mahai bat egoten zen, orain kendu dute)

mollie: malgua, koltxoiaren azpian ipintzen dena

"Koltxoyek eukitxeuen ori, mollie aspitzik eta koltxoye gero ardi lanakas, eta arek gero nosipiñien edo atara ta, batzuk garbitxu be bai, beste batzuk dxo, dxo dxo iñ eta barridxen imintxen siren" - (Koltxoiak edukitzen zuen hori, moila azpitik eta koltxoia gero ardi ileakaz, eta haiek gero noizean behin edo atera eta, batzuk garbitu ere bai, beste batzuk jo, jo-jo egin eta berriro ipintzen ziren)

ogaserue: ohe-zerua, antzinako oheek zeukaten estalkia, lau zutaberen gaineko zerua

"Orrek lenau, oyek ote sien ba ogaserue dekienak godxen, alangoan eitxen seuen godxen lo, arek, e, bueno bueno, eundesak, ak arrotzasalak ara, surrut eiñ,

da ara oi ganera botata tope tzesan" - (Horiek lehenago, oheak egoten ziren ba ohe-zerua daukatenak goian, halakoan egiten zuen goian lo, harek, beno beno, ehundazak, hark arrotzasalak hara, zurrut egin, eta hara ohe gainera botata topatu zizkioten)

oye: ohea

pertxie: gakoa

radidxo: irrati aparailua

sillie: aulkia, hau errespaldoduna izaten da

"An daus sillek, sobran be amen badaus sillek" - (Han dagoz aulkiak, sobran ere hamen badagoz aulkiak)

"Estot esetu emen sillek eta olan eitxen txusenik" - (Ez dut ezagutu hemen aulkiak eta holan egiten dituenik)

telebisiñoa: telebista aparailua

tiradora: tiradera

txixillue: zizilua, karrajuan edo eskatzean egoten zen jesarleku luzea

6.11. ETXEKO ARROPAK

antzar lumie: antzar luma, koltxa egiteko erabiltzen zen

armueda asala: burruko azala

armuedie: burrukoa

burruko asala: burruko azala

burrukoa: burrukoa

esku sorkidxe: esku sorkia

ixerie: izara

"Ixerak eta orre pe ixeta sien jeneralien, kirruskoak esate dxakienak" - (Izarak eta horiek ere izaten ziren gehienetan, kirruzkoak esaten zitzaizenak)

"Ixerie ikusi dot nik kirruskoa" - (Izara ikusi dut nik kirruzkoa)

kirrusko ixerie: kirruzko izara

koltxie: koltxa

koltxillie: koltxila, izaren gainean jartzen zen edredoi antzekoa

kortiñie: gortina

mantela: zamaua

mantie: manta

miesie: mihisea, lihoaz egiten zen ehun mota

"Miesie fiñau ixeta san kirrue baño" - (Mihisea finagoa izaten zen kirrua baino)

sorkidxe: sorkia

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Ekaixu ori sorkidxe" - (Ekar ezazu sorki hori)

tapie: tapa, manta

"Tapa gitxi deko nire oyek os da" - (Tapa gutxi dauka nire oheak hotz da)

toallie: toaila

trapue: trapua, sorkia, zapia

6.12. BOGADA

askie: aska, errekan bogada egiteko prestatuta egoten zena

"Errekan egote san ordun imintte aska bat, olakas da, askie noberak einye edo, t'an garbittu te gero eskei, kanpoan" - (Errekan egoten zen orduan ipinita aska bat, oholakaz eta, aska norberak eginda edo, eta han garbitu eta gero eskegi, kanpoan)

balda sabala: zina, balde zabala; gehienetan arropa garbitzeko edo txerria hilkeran odola hartzeko erabiltzen dena da

barreñue: barreinua

erropa arridxe: arropa harria, arropa garbitzeko erreketan egoten zen harria

eustrapue: hauts trapua, lixiba egikeran surteko hautsa iragazteko erabiltzen den trapua

"Arek imintten dire plegeu plegeu einye, da gero ganetik imintten da, a eus trapue, arrioan be ekarte san, eus trapue esaten dxakon, da ixeta san, sera, saku fiñe garbittu, a imintten dxakon gero, ganerengo, da aren ganera botate sien, eutzegas egosi, da aren ure, lixibie esaten dxakon, lixibie" - (Haiek ipintzen dira tolestu-tolestu eginda, eta gero gaineretik ipintzen da, hauts-sorki hura, arreoan ere ekartzen zen, hauts-sorkia, esaten zitzaion, eta izaten zen, zera, zaku fina garbitu, hura ipintzen zitzaion gero, gainerengo, eta haren gainera botatzen ziren, hautsagaz egosi, eta haren ura, lixiba esaten zitzaion, lixiba)

gantxoa: arropa eskegitzeko gantxoa

jabonadurie: xaboiztadura

"Gure amak eta serak ba, erropak garbittuten sienien da, jabonadurieri, bota, irikitten ure imiñe tte gero surteko eutze be bai, botaten da" - (Gure amak eta zerak ba, arropak garbitzen zirenean

eta, xaboiztaduran, bota, irakiten ura ipini eta gero surteko hautsa ere bai, botatzen da)

lejie: lixiba

lixibe arridxe: lixiba harria, bogada harria

"Orretan erreka eskiñetan da orrek lixibe arridxe, antxe ongo siren oin be, baya orrek batu dire" - (Erreka ertz horietan eta lixiba harri horiek, hantxe egongo ziren orain ere, baina horiek batu dira)

lixibie: bogada

mantxie: lohidura, espila

surteko eutze: surteko hautsa, arropari botatzen zitzaiona xaboi orde

"Irikiñ ureri, surteko eutze, da erañotza da ori patena ara bota, ta gero erropak imiñi an olan, sexto baten edo baldan edo, da ure bota, ta bidxamonien edo, lejie ointxe itten dan moduen, da usin gosoa, da ederto" - (Irakin urari, surteko hautsa, eta ereinotza eta baten hori hara bota, eta gero arropak ipini han holan, otzara baten edo baldean edo, eta ura bota, eta biharamonean edo, lixiba oraintxe egiten den moduan, eta usain gozoa, eta ederto)

tiñekue: tinakoa

tiñie: tina

6.13. GARBIKUZIA

arrikua: harrikoa

arrokie: ugerra, nardaka, lohitasuna

barandie: makil edo ohol luzea arropa eskegitzeko

basurerue: zakarrontzia

basurie: zaborra

eskobie: erratza

eskubille garratza: eskubila garratza

eskubillie: eskubila

eutze: hautsa

garbikusidxe: garbikuzia

"An egote san aren ganién, baya arek loittu estixen, e, imintte san, lelengo, an plegeute plegeute ote sien erropak eta, an barrike lako bat edo, ta andik urteteuen ure ixeta san, ba serak eitteko, garbikusidxe eitteko" - (Han egoten zen haren gainean baina haiek lohi ez daitezen, ipintzen zen, lehenengo, han tolestuta-tolestuta egoten ziren arropak

ARRIETAKO HIZTEGIA

eta, han barrika lako bat edo, eta handik irteten zuen ura izaten zen, ba zerak egiteko, garbikuziak egiteko)

jaboye, dxagoye, dxaboye: xaboia

katasio: lohitasuna, ugerra

lodxe: lohia

lumetxie: lumetxa

plantxie: plantxa

saborra: zaborra

sepillue: eskubila

ugerra: ugerra, lohitasuna

7. SINISKERAK

Atal honetan sineskerei buruzko berbak batzen ditugu; sineskera horietariko gehienak elizari dagozkio; beste batzuk, ostera, garaiteko sines-esparruetan koka ditzakegu. Gaia aurkezteko honako azpiatalok egin ditugu: eliza, erlijioa, elizkizunak, kleroa eta gainerako sineskerak.

7.1. ELIZA

abade kanpak: abade kanpaiak; abadea hiltzen denean jotzen diren kanpaiak

albakoa: albatakoa, goizeko lehen kanpaiaren izena

"Albakoa bai, esate san, goixien bai, seitan edo olan dxote san e, goixien dxote san ori" - (Albatakoa bai, esaten zen, goizean bai, seitan edo holan jotzen zen, goizean jotzen zen hori)

altara nausidxe: altare nagusia

"Lelengo altara nausidxen egon sanien gero serien egote san, sera, kapillen, an kapillen eitte san guardidxe" - (Lehenengo altare nagusian egon zenean gero zerean egoten zen, zera, kaperan, han kaperan egiten zen guardia)

altarie: altarea

"Arrietan badaus, u, lau altara, aretan altara gustidxetan mesak esaten txuesan, da erdidxen andidxena" - (Arrietan badagoz, lau altare, altare haietan guztietan mezak esaten zituen, eta erdian handiena)

amabittekoak, amabidzek: hamabiak, hamabietako kanpaiak

amarittekoak,

aimeritxekoak,

abemarietako kanpaiak

"Es amarittekoak ordu bet antzien dxote san, estaitt se ordu ixete san, baya ordu bet ingiru ixete san e, ba geue itten asten daneko baya, ordu bet eukitte suen amarittekoak dxote suenak" - (Ez abemarietakoak ordu bat antzean jotzen zen, ez dakit ze ordu izaten zen, baina ordu bat inguru izaten zen, ba gaua egiten hasten deneko baina, ordu bat edukitzen zuen abemarietakoak jotzen zituenak)

angeru kanpie: aingeru kanpaia, ume txikerren bat hilda, jotzen den kanpaia

arkupie: arkupea, elizpea

atralle: atrila

"Atralle egurreskoa einye, ta kandelak, ta gero mantel suridxe iminye" - (Atraile egurrezkoa eginda, eta kandelak, eta gero zamau zuria ipinita)

bankue: jesarlekua

"Len sillek ote sien elixan bankue parik" - (Lehen aulkiak egoten ziren elizan jesarlekuak barik)

bateoko arridxe: bateoko harria

eguerdiko kanpak: eguerdiko kanpaiak

elispie, elespie: elizpea

"Arrisko madxek ote sien lenau, elispietan, arridxeas einye" - (Harrizko mahaiak egoten ziren lehenago, elizpeetan, harriagaz eginda)

elixako mantela, elixako trapue: elizako zamaua

"Trapu suri bet, iltxe sanien bat, almidoyeas eta plantxeta, erateuen, e, atzetik, a erateuen, mantela da kandelie, neu pe eroan dot batena, mantela amen, esta? ta kandelie beran lasu baltzagas amen, eta eurrerengo egon bixeta san, botate seixuesan diruek batu, ta gero abadieri emoteko" - (Trapu zuri bat, hiltzen zenean bat, almidoiagaz eta lisututa, eroaten zuten, atzetik, hura eroaten zuen, zamaua eta kandela, neuk ere eroan dut batena, zamaua hamen, ezta? eta kandela beraren lazuz belzagaz hamen, eta aurrerengo egon behar izaten zen, botatzen zituzten diruak batu, eta gero abadeari emateko)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Mantel bat, mantel suri bet, gero atralle, esaten dxakona atralle da gero an kandelak, elixako trapue esaten tzakun guk" - (Zamau bat, zamau zuri bat, gero atrila, esaten zitzaiona atrila eta gero han kandelak, elizako zamaua esaten genion guk)

elixie: eliza

"Ibarridxe dau eta elixara dxoan in bida" - (Hil berria dago eta elizara joan egin behar da)

"Elixegote san dana kandelas beterik" - (Eliza egoten zen dena kandelaz beterik)

"Olabarrikoa esta elixie be" - (Olabarrikoa ez da eliza ere)

engantxoa: elizpearen behea, probalekuaren karrajuaren behea

erminttie, ermittie, erremittie, ermintxie: basiliza

"San Justoana serien on san, baya oiñ estau, galdute dau a erremittie, Biskon" - (San Justoarena zerean egon zen, baina orain ez dago, galduta dago basiliza hura, Biskon)

"Egongo san, se erremittie itten nik estot esetu te ba, orren ekarkerie nik esetu dot eta beste bat, beste santu bet egongo san an" - (Egongo zen, ze basiliza egiten nik ez dut ezagutu eta ba, horren ekarkera nik ezagutu dut eta beste bat, beste santu bat egongo zen han)

"San Justo, nik an dekot entzunde, an Bisko ondoan, e, dxekusi sala erreminttie ta San Justo an egon sala" - (San Justo, nik han daukat entzunda, han Bisko ondoan, jausi zela basiliza eta San Justo han egon zela)

"Ta San Juanera be bai kaltzada ixen da, San Juanerako ermitterakoa be" - (Eta San Juanera ere bai galtzada izan da, San Juanerako basilizarakoa ere)

"Beste ermintxe bat egon ei san or Bedxenta ganen, Santa Krus, a nik estot esetu, da gero beste ba pe egon ei san an Orben, San Paulo a edo" - (Beste basiliza bat egon ei zen hor Beienta gainean, Santa Gurutze, hura nik ez dut ezagutu, eta gero beste bat ere egon ei zen han Orben, San Paulo hura edo)

"Nik estot esetu ermintxetan, se amen badaus San Kristobal, San Luis ta ermintxek baya nik estot esetu ori" - (Nik

ez dut ezagutu baselizetan, ze hamen badagoz San Kristobal, San Luis eta baselizak baina nik ez dut ezagutu hori)

erre kanpak: erre kanpaiak

il kanpak: hil kanpaiak

kandelerue: kandeleroa

kandelie: kandela

"Elixan be dana kandelie ote san orduen ba, andra bat enkargeta san, da dirue espadekosu pagetako, astoas ibiltxe san artagarunen bille" - (Elizan ere dena kandela egoten zen orduan ba, andre bat enkargatzen zen, eta dirua ez badaukazu ordaintzeko, astoagaz ibiltzen zen artagaroaren bila)

kanpatorrie: kanpaidorrea

kanpaye, kanpie: kanpaia

"Nonon badau seuser erretan, se errien kanpa taus dxoten" - (Non edo non badago zer edo zer erretzen, ze errearen kanpaiak dagoz jotzen)

"Eta oiñ es baya len ba, Fruisen kanpak dxoten sien, igual ordu betien arek kordoyek erretako" - (Eta orain ez baina lehen ba, Fruizen kanpaiak jotzen ziren, beharbada ordu betean kordoi haiek erretzeko)

kapille: kapera

korue: korua

"Mutillek koruen edo olan oten siren" - (Mutilak koruan edo holan egoten ziren)

kurtziperidxoa, **kurtzifisidxoa:** gurtziperia

"Ni gastie nitzela prosesiñoa itxe san, elixatik, kurtziperidxoa dau Arrietan, sartukeran, eskoako alderritxik, an etzien, kamiñoan kontrán, santukeran antxe" - (Ni gaztea nitzela prozesioa egiten zen, elixatik, gurtziperia dago Arrietan, sartukeran, eskoako alderditik, han etxean, kaminoaren kontra, sartukeran hantxe)

kurtzie: gurutzea

"Amen kurtzerik esta egon" - (Hamen gurutzerik ez da egon)

mantela: zamaua, sepulturetan ipintzen zena

"Guk eraten gendun mantela, trapu suri bet, da aspidxen baltza, da ganetik suridxe, eta aixe, neu pe eranuena da, a mantela olan da aren ganien kandelie baltzagas, lasu baltzagas da iminye" - (Guk eroaten

ARRIETAKO HIZTEGIA

genuen zamaua, trapu zuri bat, eta azpian beltza, eta gainetik zuria, eta huraxe, neuk ere eroan nuena da, zamau hura holan eta haren gainean kandela, beltzagaz, lazu beltzagaz eta ipinita)

mesa kanpak: meza kanpaiak

mesa ostie: meza ostea

ontzidxe: ontzia

ordu bidxek: ordu bietako kanpaiak

"Bai dxote siren, e, goixien, e, albakoa, eguredidxen amabidxek, da gero illuntzien amaritxekoa esaten dxakona, eta sapatuetan da domeketan ordu bidxe pe bai" - (Bai jotzen ziren, goizean, albakoa, eguerdian hamabiak, eta gero iluntzean abemarietakoa esaten zitzaiona, eta zapatuetan eta domeketan ordu biak ere bai)

parrokidxe: parrokia

"Orrek geusek parrokidxen eitten sien" - (Gauza horiek parrokian egiten ziren)

"Au elixie Arrietako parrokidxe baño asko ariñautik einye ei dau, amen eitxen ei sien atxiñe atxiñe atxiñe, elixie estala be, seinye ayuntamiento moduen, osea, erriko anditxuena, batzarra amen eitxe san" - (Eliza hau Arrietako parrokia baino asko arinagotik eginda ei dago, hamen egiten ei ziren antzina-antzina-antzina, eliza ez dela ere, zeinda udal moduan, hau da, herriko handitxoena, batzarra hamen egiten zen)

potendidxe: bataioak egiteko elizan egoten den harrizko ontzia

pulpittue: pulpitoa

"Pulpitutik abade batek esan euen" - (Pulpitutik abade batek esan zuen)

sakristidxe: sakristia

sepultureko mantela: sepulturetako zamaua

sepulture: sepultura, familia bakoitzak elizan kandelak eta jartzeko zeukan lekua
"Sepulturek oño esta urte asko kendute dausela" - (Sepulturak oraindino ez da urte asko kenduta dagozela)

"A ixeta san, bakotxak eukitxe seuen elixan, iltxen sanien, sepulture bat, leku bet, da an imintxe san mantel bat, eta kandelie, da ara botate san errespontzoa esaten dxakon dirue, ta a dirue gero abadiak eroate seuen, ba domeka gustidxetan dxoate san fameliko bat, il dxakon, e,

fameliko bat ara, sepulturera mesie entzuten, da an egote san dirue ba abadiak eroateuen, paternosterra erresetan seuen, paternoster eitxen seuen orduen, latin" - (Hura izaten zen, bakoitzak edukitzen zuen elizan, hiltzen zenean, sepultura bat, eta kandela, eta hara botatzen zen erresponsoa esaten zitzaion dirua, eta diru hura gero abadeak eroaten zuen, ba domeka guztietan joaten zen familiako bat, hil zaion, familiako bat hara, sepulturara meza entzuten, eta han egoten zen dirua ba abadeak eroaten zuen, aita gurea errezatzen zuen, aita gurea egiten zuen orduan, latin)

sillie: aulkia

"Or on san sepulture bakoitxana, etze bakoitxana, da silletxueas" - (Hor egon zen sepultura bakoitzarena, etxe bakoitzarena, eta aulkitxoagaz)

torrie: dorrea

txiliñe: txilina

ur bereinketue: ur bedeinkatua

"Ur bereinketueri gatza botaten tzien, nik esetu dot ureri gatza botaten, bereinketuteko" - (Ur bedeinkatuari gatza botatzen zioten, nik ezagutu dut urari gatza botatzen bedeinkatzeko)

ur bereinketu untzidxe: ur bedeinkatu ontzia

7.2. ERLIJIOA

agur maridxe: agur maria

"Tru agur mari erresetan gendun" - (Hiru agur maria errezatzen genuen)

aittearen, aitxearen, aitxaren: aitearena

aitte gurie, aitxe gurie: aita gurea

"Arto sasoyen da, artaburu sasoyen errestan ikisten ori bai, aittegas asko dekot, danok artaburuek surittuten eta berak aitte gurie ta agur maridxe t'orrek, orrek ba erresetan" - (Arto sasoiaren eta, artaburu sasoiaren errezatzen ikasten hori bai, aitagaz asko daukat, denok artaburuak zuritzen eta berak aita gurea eta agur maria eta horiek, horiek ba errezatzen)

amaberjiñie, amabirjiñie: amabirjina

"Oñes dxoaten da ta amabirjiñie eroaten da, kurtzerue, abadie, amabirjiñie ta lau

ARRIETAKO HIZTEGIA

andari, lau andari, de gero atzeti prosesioa" - (Oinez joaten da eta amabirjina eroaten da, gurutzea, abadea, amabirjina eta lau andari, lau andari, eta gero atzetik prozesioa)

"Begoñeko amabirjiñie ekar sanien, orduen itzela ixen san, a itzela ixen san, asi amen, e, Mandaluspetik eta gora Arrieta gustidxe dana arkus beterik, baya ondo prepareute!" - (Begoñako amabirjina ekarri zenean, orduan itzela izan zen, hura itzela izan zen, hasi hamen, Mandaluspetik eta gora Arrieta guztia dena arkuz beterik, baina ondo prestatuta!)

"Gure gaste denporan, guk itxi in tzaku oiñ eroatieri eskapularidxea, karmengo amabirjiñena" - (Gure gazte sasoiaren, guk utzi egin diogu orain eroateari eskapularioa, Karmengo Amabirjinarena)

"Amen Amabirjiñien debosioa on da beti, eta au esateudien gure ixekoak eta, dala, e, abogada de los partos, au amabirjiñe amekoa, se asko etorten ei sien andrak familidxetako dausenak onaiñe, eta gero agertuten ei sien umi erropatxuek amabirjiñen oñetan, ori gure ixeko sarrak, nik estot esetu" - (Hamen Amabirjinaren debosioa egon da beti, eta hau esaten zuten gure izekoek eta, dela, erditzeen babeslea, amabirjina hau hamengoa, ze asko etortzen ei ziren andreak seindun dagozenak honegana, eta gero agertzen ei ziren ume arropatxoak amabirjinaren oinetan, hori gure izeko zaharrek, nik ez dut ezagutu)

andramaridxe: andramaria

angerue: aingerua

arimie: arima

barkamena: barkamena

bereinkesioa: bedeinkazioa

bijilidxe: bijilia

birjiñie: birjina

bisioye: misioa

buldie: bulda

"Buldek eroste sien, elixan eroste sien buldek eta gero ba arek ba, espadosu itten bijili ba buldie eroste sun" - (Buldak erosten ziren, elizan erosten ziren buldak eta gero ba haiek ba, ez baduzu egiten bijilia ba bulda erosten zenuen)

"Buldie, ba papel bat, emote seudien, garixumen, ba, egun gustidxetan bijilidxe in bi ixeta san, egun gustidxetan, garixume gustidxe bijilidxe da bareue, esan txarrikirik es okelarik es olakorik esebes, buldie artzen basendun, ya barikuetan einye paseta san, baya a artu biar ostien garixume gustidxe, ein biar" - (Bulda, ba paper bat, ematen zuten, garizuman, ba, egun guztietan bijilia egin behar izaten zen, egun guztietan, garimuma guztia bijilia eta baraua, ez zen txerrikirik ez okelarik ez holakorik ezer ere ez, bulda hartzen bazenuen, ja barikuetan eginda pasatzen zen, baina hura hartu behar ostean garizuma guztia, egin behar)

debosioa: debozioa, fedea

demonioa: diabrua, demonioa, txerrena

diabrua: diabrua, demonioa, txerrena

"Gu be, kuadrille ixen gintzen da eskendun igual eskatza garbitan guk se, kontuek konten egon da gero garbitxu barik, da orreatxik esaten due se, ba eskas garbidxen aingeruek eitxen due dxantzan da eskas lodxen ba diabruak" - (Gu ere, taldea izan ginen eta ez genuen beharbada eskatza garbitzen guk ze, kontuak kontatzen egon eta gero garbitu barik, eta horregatik esaten dute ze, ba eskatz garbian aingeruek egiten dute dantzan eta suete lohian ba diabruak)

dotriñie: doktrina

"Eskolatik urten da dotriñera dxoaten gintzesan, eskolatik urten, da ordu erdi dotriñie an bertan Dxainkon" - (Eskolatik irten eta doktrinara joaten ginen, eskolatik irten, eta ordu erdi doktrina han bertan Jainkon)

ebanjelidxea: ebanjelioa

eliza sartzie, elixe sartzie: eliza sartzaita

"Elix sartzie ba, denporagarrentxuen, ama bera sano oten sanien, bera dxoate san umie artute elixe sartzie itten, da gero elixan be ote san, elixan sartu barik ote san, elixako atietan, da atarate otzien, beleuniko egoteko, sera, sille bat" - (Eliza sartzie ba, denboragarrentxoan, ama bera sano egoten zenean, bera joaten zen umea hartuta eliza sartzie egiten, eta gero elizan ere egoten zen, elizan sartu barik,

ARRIETAKO HIZTEGIA

egoten zen, elizako ateetan, eta ateratzen zioten, belauniko egoteko, zera, aulki bat)
"Ama gero dxoate san, andik, e, berrogei egun, elixe sartzie umiegas" - (Ama gero joaten zen, handik, berrogei egun, eliza sartzea umeagaz)

elixartzie: eliza hartzea

"Berak amak ekarri bixeta suen umie elixartzie itxeko" - (Berak amak ekarri behar izaten zuen umea eliza hartzea egiteko)

erlijjiñoa: erlijioa

erresue: errezua, otoitza

"Da esaten due, oiñ, orrek geusek, onek, e, jentie geubetan ibilttie ta estausela, se, eitten dalako mesa asko entzun, erresu asko, eta orrexeaittik geuseaittik, desaparessidute dausela, nik sarri entzun dot ori, e?" - (Eta esaten dute, gauza horiek, hauek, jendea gauetan ibiltzea eta ez dagozela, ze, egiten delako meza asko entzun, errezu asko, eta gauza horiexengatik, desagertuta dagozela, nik sarri entzun dut hori, e?)

errogatibie: errogatiba

"Danak, e, batu elixara ta ba, mesie emon da, eskatuten euridxe in didxen da bai, su pa bai errogatibek? errogatibe pai" - (Denak, batu elizara eta ba, meza eman eta, eskatzen euria egin dezan eta bai, zuk ba bai errogatibak? errogatibak bai)

"Ba igual siketie, andidxe, esta? eta errogatibek, e, iru egunien edo, eitxe san, Arrietan eitxe san ba elixatik atara santu bet, eta ara kurtzifisidxora, an kurtzifidxoia oin barristeta dau a, ara egote san, e, prosesioño moduen, da letañoak eiñ, kantuek, letañoak, eitxen siren, euridxe in didxen" - (Ba beharbada sikatea, handia, ezta? eta errogatibak, hiru egunian edo, egiten zen, Arrietan egiten zen ba elizatik atera santu bat, eta hara kurtzeperiora, han kurtzeperioa orain barriztuta dago hura, hara egoten zen, prosesio moduan, eta letaniak egin, kantuak, letaniak, egiten ziren, euria egin dezan)

fedie: fedea

guardidxe: guardia, elizan egiten zena

"Bariku guren egunetan ba, selan eitte san, guardi eitte san Jesuseri, ba ogetalau orduen" - (Bariku guren egunetan ba,

zelan egiten zen, guardia egiten zen Jesuseri, ba hogeita lau orduan)

gure jaune: gure jauna

induljentzidxe: induljentzia

"Oiñ induljentzi asko itten da" - (Orain induljentzia asko egiten da)

jainkoa: jangoikoa

kandela bereinketue: kandela bedeinkatua

kretoa: kretoa

letañoie: letania

limosnie: limosna

"Gero batzen suen etzerik etze, limosnie ba, kanpak dxoten ibiltten salako, ba limosnie batze suen, edo arrutzek edo, baktotxa tekona" - (Gero batzen zuen etzerik etxe, limosna ba, kanpaiak jotzen ibiltzen zelako, ba limosna batzen zuen, edo arrautzak edo bakoitzak daukana)

maldisiñoa: madarikazioa

misiñoa: misioa

orasiñoa: errezua, orazioa, otoitza

"San Bartolomeri eitten dxakon ori, sein ye orasiño bat eitten dan moduen, e, amestako a da San Bartolome, ta aixeri itten dxakon" - (San Bartolomeri egiten zitzaion hori, zein da orazio bat egiten den moduan, amestako hura da San Bartolome, eta harexeri egiten zitzaion)

"Elisperaño ta elispera urtetauen abadiak, eta an, e, orasiño batzuk eitxen txusen ta gero barrure" - (Elizperaino eta elizpera irteten zuen abadeak, eta han, orazio batzuk egiten zituen eta gero barrura)

pekatue: bekatua

penitentzidxe: penitentzia

promesie: promesa, agindua

"Promesak askok eitten deus, Sanantoniñori, Urkidxolakora be bai, ganaduren bat txarto badau be" - (Promesak asko egiten ditu, San Antoniori, Urkiolakora ere bai, ganaduren bat txarto badago ere)

"Bai ori be sertzen due, esaten due ill itten danien, promesa bat euki badeu etzekoak bete in bi duela" - (Bai hori ere zertzen dute, esaten dute hil egiten denean, promesa bat eduki badu etzekoek bete egin behar dutela)

prosesiñoa: prosesioa

purgatoridxoia: purgatorioa

santie: santua (f.)

santue: santua

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Santuetan dxai bi dekosena sein ye?" -

(Santuetan jai bi dauzkana zein da?)

"Sein ye santue dxai bi urteko dekosena?" -

(Zein da santua jai bi urteko dauzkana?)

serue: zerua

siñestie: sinesmena

tentasiñoa: tentazioa

txantela: txantela

7.3. ELIZKIZUNAK

bautisoa: bataioa

bederatzi urrune, bederatzi urrena:
bederatzi urrunak

"Da gero egote san bederatzi urrena ostabe, segiduen, bederatzi egunetan bederatzi urrenak, da an ostabe, armusue, doasen gustidxeri armusue ostabe barridxen, kafekoletxe edo, barustie esaten tzien" - (Eta gero egoten zen bederatzi urruna ostera ere, segituan, bederatzi egunetan bederatzi urrunak, eta han ostera ere, armozua, doazen guztiei armozua ostera ere berriro, kafesnea edo, barustea esaten zioten)

beluko mesie: beluko meza

"Lelengo san, beluko mesie ixen san len, egon san, goxeko mesie ta beluko mesie" - (Lehenengo zen, beluko meza izan zen lehen, egon zen goizeko meza eta beluko meza)

"Nire amomari urtetan tzen beti beluko mesarako, Arrietara dxoateko, amaiketako mesara, andixik andabidetik nire amoma dxoate san" - (Nire amomari irteten zion beti beluko mezarako, Arrietara joateko, amaiketako mezara, handixe andabidetik nire amama joaten zen)

errespontzoa: errespontsoa

"Bota osue errespontzoa, umiek ara sepulturera? esate oskun amak" - (Bota duzue errespontsoa, umeak hara sepulturara? esaten zigun amak)

errosaridxoak, erresaridxoak: errosarioa

"Errosaridxoak, ba dxoan etzietara ta, pamelidxegas, errosaridxoak erreseu" - (Errosarioak, ba joan etxeetara eta, familiagaz, errosarioak errezatu)

"Funerala baño lenau, etzera dxoan da erresaridxo errese? da orrek eitxen

siren" - (Hileta baino lehenago, etxera joan eta errosarioa errezatu? eta horiek egiten ziren)

etze bateietue, etze bautisoa: etxe bataioa

funtziñoa: funtzioa

illien laugarrena: hilaren laugarren domeka difuntuen omenezko mezak eta egiten ziren

"Illien akabuko domekie be itte san, illien laugarrena esaten dxakona" - (Hilaren azkeneko domeka ere egiten zen, hilaren laugarrena esaten zitzaiona)

iru urrenak: hiru urruneko mezak

komuniñoa, komoniñoa: komunioa, jaun-hartzea

konfesiñoa: konfesioa, aitortza

kurtze santiaren: gurutze santuarena

mesa barridxe: meza berria, abadetu ostean ematen den lehen meza

"Mesa barridxe, lenengo mesie emoten deuen abadiak" - (Meza berria, lehenengo meza ematen duena abadeak)

mesa nagosidxe: meza nagusia

"Mesa nagosidxe lenau, ba inportantie ixen san, abadie pe iru te, geuse itzela ixeta san" - (Meza nagusia lehenago, ba garrantzitsua izan zen, abadeak ere hiru eta, gauza itzela izaten zen)

mesie: meza

"Basutxu et imintte san oridxoagas, da gero metxatxu et, ba esetuteko, ta gero a, ba belarridxetan, mesie entzun de gero" - (Basutxo bat ipintzen zen olioagaz, eta gero metxatxo bat, ba ezagutzeko, eta gero hura, ba belarrietan, meza entzun eta gero)

"Baya estost urtetan da non dau ori ba, mesatara beti dxoan da niges da" - (Baina ez dit irteten eta non dago hori ba, mezatara beti joan da nigaz eta)

olatako mesie: olatako meza

olatie: olata meza

"Olatie da urrengo domekie, sortzigarren egunekoa. olatako mesie" - (Olata da hurrengo domeka, zortzigarren egunekoa olatako meza)

ondra: ondra

sermoye: sermoia

urtegarreneko mesie: urtegarreneko meza

urtekoa: meza

ARRIETAKO HIZTEGIA

7.4. KLEROA

abade kridxedie: abade-neskame

"Ori gu bixi garen lekuen, b'or bixi sen abade kridxedie" - (Hori gu bizi garen lekuan, ba hor bizi zen abade-neskamea)

abadie: abadea

"Da gero abadie etorte san, mesie emoteuenien, akabate sanien elixakoa ta itxeuen txu txu txu, esan igerritxen ser esateuen" - (Eta gero abadea etortzen zen, meza ematen zuenean, amaitzen zenean elizakoa eta egiten zuen txu-txu-txu, ez zen igartzen zer esaten zuen)

"Abadie atzes, altarara begire abadie, jentieri atzie emonda, oin bestera da baya jentieri atzie emonda" - (Abadea atzez, altarera begira abadea, jendeari atzea emanda, orain bestera da baina jendeari atzea emanda)

aitxe santue, aitte santue: aita santua

frailie: fraidea

"Nire aman lengusue frailie ixen san" - (Nire amaren lehengusua fraidea izan zen)

jaune: jauna

kanpanerue: kanpai jolea

kapellaue: kaperaua

mayordomoa: maiordomoa

"Ari esaten tzien mayordomoa, a ixeta san elixan dirue batu te olan eitxe seuena" - (Hari esaten zioten maiordomoa, hura izaten zen elizaren dirua batu eta holan egiten zuena)

mojie: moja

monagilloa: meza-laguna

"Da geixorik egoten sanien lagun bet, ba abadie ekarte otzien komoniño emoteko da abadie bidien badator, dxoaten bagiñen eskolara be beluniko danok bertan, abadie ikusten genduleko, txiliñeas etorte san, ganeko suridxe monagilloagas" - (Eta gaixorik egoten zenean lagun bat, ba abadea ekartzen zioten komunioa emateko eta abadea bidean badator, joaten baginen eskolara ere balauniko denok bertan, abadea ikusten genuelako, txilinakaz etortzen zen, gaineko zuria meza-lagunagaz)

"Abadie ta monagilloa dxoate siren" - (Abadea eta meza-laguna joaten ziren)

"Monagilloak eta abadie atzes, monagilloa pe bai atzes oten sien" - (Meza-lagunak

eta abadea atzez, meza-lagunak ere bai atzez egoten ziren)

parrokoa: erretorea

sakristeue, sakristaue: sakristaua

"Bueno orduen ba, nire eurretik beste batzuk ixen sien, eta gero, ba abadien pentzeuen ba barridkek imintxie, da gero nire gixona sakristeu imin seuen, eta ni ba elixako bierrak eitxeko" - (Beno orduan ba, nire aurretik beste batzuk izan ziren, eta gero, ba abadeak pentsatu zuen ba berriak ipintzea, eta gero nire gizona sakristau ipini zuen, eta ni ba elizako beharrak egiteko)

"Sakristeuea da ba kanpak dxo, baten bat iltxen danien kanpak dxo, da olako bierrak, gero elixan be, lagundu be bai, oin gitxiau, esta? ba len gedxau ixetan san laguntasune elixan be" - (Sakristaua da ba kanpaiak jo, baten bat hiltzen denean kanpaiak jo, eta holako beharrak, gero elizan ere, lagundu ere bai, orain gutxiago, ezta? ba lehen gehiago izaten zen laguntasuna elizan ere)

7.5. GAINERAKO SINESKERAK

anbotoko señorie: Anbotoko andrea

"Ba esate san lenau, e, edurre edo itxeuenien, ixerak sabaldute itxusen, d'ikusi itxen ei sien estaitx nondik, e, ba ori sen Anbotoko Señorie, orixe famie euki euen ak" - (Ba esaten zen lehenago, elurra edo egiten zuenean, izarak zabaltzen zituen, eta ikusi egiten ei ziren ez dakit nondik, ba hori zen Anbotoko andrea, horixe ospea eduki zuen hark)

"Esan eitteuden, estai ni pa, Anbotoko Señorie esate san da" - (Esan egiten zuten, ez dakit nik ba, Anbotoko Andrea esaten zen eta)

"Anbotoko señoriene gedxen entzun de, ba leixibie sabalduteuenien, brillue emoteuela, da antza, oin be ori, geur be komentetan da ori" - (Anbotoko Andrearena gehien entzun da, ba leixiba zabaltzen zuenean, dizdira ematen duela, eta antza, orain ere hori, gaur ere komentatzen da hori)

astue: azturua

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Len amendik ibiltzen sien, dxoaten sien ba igerten batzie, edo, se lenau, asko egote san, e, bestaldekoas erriestan dabixenak, e, ibiltzen sien demandak eta, esta? demandak edo jaleoak, eta orduen abogaduegas esales ibiltzen orrenbestien, ba dxoate sien astuaiñe, ba irebasko badu espadu dxakitzen, edo selan in biduen da, astuek esaten duen" - (Lehen hamendik ibiltzen ziren, joaten ziren ba igartzen badie, edo, ze lehenago, asko egoten zen, beste aldekoagaz errietan dabilzanak, ibiltzen ziren demandak eta, ezta? demandak edo istiluak, eta orduan abokatuagaz ez zenez ibiltzen horrenbestean, ba joaten ziren azturuagana, ba irabaziko dugun ez dugun jakiten, edo zelan egin behar duten eta, azturuek esaten zuten)

dxentille: jentila

"Dxentillek ba, gixon andi batzuk ixeten siela ori bai, se oin be esaten dxako igual, e, enei orre teko dxentill antza, bai olan persona andidxe edo" - (Jentilak ba, gizon handi batzuk izaten zirela hori bai, ze orain ere esaten zaio beharbada, ene! horrek dauka jentil antza! bai holan pertsona handia edo)

"Dxentillek gixon andi batzu tire antza, gixon andi batzuk ixen sien bai dxentillek" - (Jentilak gizon handi batzuk dira antza, gizon handi batzuk izan ziren bai jentilak)

"Plasara doasela, an, orrek gixon andidok, dxentillok, gixon andidxen batzuk ixetan sien antza, arek urtetan seudiela, ta ikeratu te, dxoaten siela, edo atzera etzera, ori bai" - (Plazara doazela, han, horiek gizon handiok, jentilok, gizon handiren batzuk izaten ziren antza, haiek irteten zutela, eta ikeratu, joaten zirela, edo atzera etxera, hori bai)

kate saratie: kate zarata

kutune: kutuna

"Kutune be bai, alako sertxu bet, kutuntxu bet, a beti antxe, kanbidxetan danien, a kutuntxue antxe imiñi" - (Kutuna ere bai, halako zertxo bat, kutuntxo bat, hura beti hantxe, aldatzen denean, kutuntxo hura hantxe ipini)

lamiñe: lamina

"Goitxik enbra elegante da betik sera euki euena, arreñe ixen sana edo, or errekan egoten ixen da, Olabarriko errekan [lamina]" - (Goitik andre dotore eta behetik zera eduki zuena, arraina izan zena edo, hor errekan egoten izan da, Olabarriko errekan)

oridxo usiñe: olio usaina

"Orduen esateudien purgatoridxoko arimek, a oridxo usiñe barruntetan bada, erreseu edo mesie esan edo seuser eitxeudien, se an purgatoridxoan dauela bata bat eta" - (Orduan esaten zuten purgatorioko arimak, olio usain hura barruntatzen bada, errezzatu edo meza esan edo zer edo zer egiten zuten, ze han purgatorioan dagoela baten bat eta)

sakramanteka: sakamanteka, jendea ikartzeko aipatzen zen pertsonaia

"Nire denporan ya apur bet galdute on san baya ariñau bai, nire denporan Sakramantekagaz gedxau ote san billurre" - (Nire sasoiari ja apur bat galduta egon zen baina arinago bai, nire sasoiari Sakramantekagaz gehiago egoten zen bildurra)

"Sakramantekak etorten siela, orrek, e, kotxieas aberatzak eta, umiek koisten txusela, e, koipie kentzeko edo gantzagidxe kentzeko" - (Sakramantekak etortzen zirela, horiek, kotxeagaz aberatsak eta, umeak hartzen zituztela, koipea kentzeko edo gantzagia kentzeko)

8. HERIOTZA

Atal honetan gizakiaren heriotzagaz lotuko lexikoa batzen dugu.

agonidxe: agonia, hilzoria

andabidie: andabidea

"Bai andabidiek, len kamiñorik esan egon, da kotxietan esan dxoaten, dxoate san ba, lepos eroate san da andabidiek" - (Bai andabideak, lehen kaminorik ez zen egon, eta kotxeetan ez zen joaten, joaten zen ba, lepoz eroaten zen eta andabideak)

"Onek kamiñoak eta eiñ orduko andabidie ori ixen san amen" - (Kamino hauek eta egin orduko andabidea hori izan zen hamen)

ARRIETAKO HIZTEGIA

andakoa: andakoa

andaridxe: anderue: andaria

astie: atautea eroateko asta

ataute, ateute: atautea, zerraldoa

"Lenau oingo moduen barik, ateutek ote sien astakas, olako astak, eta emen eroan esin yeuenak ba, astatik eroateuen" - (Lehenago oraingo moduan, atauteak egoten ziren astakaz, holako astak, eta hemen eroan ezin duenak ba, astatik eroaten zuen)

bixidxe: bizia

bixitzie: bizitza

"Santuen bixitxe baño estoskusen esaten" - (Santuen bizitzak baino ez zikigun esaten)

entierroa, entierrue, interrue: entierroa

"Entierrue len Dxainkon esan eitxen, eroate san, e, ango jentie Dxaoinkoti, ona ekarte san, entierrue itxeko, lepoan, baya bide bat on san" - (Entierroa lehen Jainkon ez zen egiten, eroaten zen, hango jendea Jainkotik, hona ekartzen zen, entierroa egiteko, lepoan, baina bide bat egon zen)

"Entierrue goixetan eitte san, eta ixeta san iru klase, segun famelidxe selakoa dan alan" - (Entierroa goizetan egiten zen, eta izaten zen hiru mota, segun familia zelakoa den halan)

"Amen esien eitxen entiuerruek len, eitxen sien parrokidxen, Arrietan da gero amen asi sala ba senbat urte, don Jesusen denporan asi san amen" - (Hamen ez ziren egiten entierroak lehen, egiten ziren parrokan, Arrietan eta gero hamen hasi zela ba zenbat urte, on Jesusen sasoiari hasi zen hamen)

funerala: hileta

"Geuri pasetan dxakune ganera, funeralatan da entereu bes sarritten, entereu bes sarritten, funerala pe persona esuneiñe dxoan biarrekoiñe ta entereu bes igual" - (Geuri pasatzen zaiguna gainera, hiletetan eta enteratu ere ez sarritan, enteratu ere ez sarritan, hiletak ere pertsona ezagunagana joan beharrekoagana eta enteratu ere ez beharbada)

"Gero egote san funeral ein ye ostien beskaridxe, da dxoate san jentie txispe itzelakas, eupadaka ta jentie etzera" - (Gero egoten zen hileta egin eta ostean

bazkaria, eta joaten zen jendea mozkor itzelakaz, eupadaka eta jendea etxera)

"Primerako funerala egote sanien, mesie akabeta saneko nik eroate neusen, ardauridxe, ta mistela da galletak, sakristidxera abadiari" - (Lehen mailako hileta egoten zenean, meza amaitzen zeneko nik eroaten nituen, ardauridxe, eta mistela eta galletak, sakristiari abadeari)

geubelie, geuola, gauela: gaubela

"Oin be itxen da geubelie" - (Orain ere egiten da gaubela)

"Geubelie ointzurartien bai on da ori, oin galdu de ya, baya emen asko len" - (Gaubela oraintsura arte bai egon da hori, orain galdu da ja, baina hemen asko lehen)

"Geubelatan useta san, kafie emon da kopatxuek emon da" - (Gaubelatan usatzen zen, kafea eman eta kopatxoak eman eta)

"Asko dxoate san gaelatara edatiarren, da asko dxoate san entierruetara be, beskaridxe dxatiarren, igual mesarik, se orduen ixeta san, beiñ entierrue dxoaneskeiñon, mesie atara, esta? ta gero beskaridxe dxan" - (Asko joaten zen gaeletara edatearren, eta asko joaten zen entierroetara ere, bazkaria jatearren, beharbada mezarik, ze orduan izaten zen, behin entierroa joanez gero, meza atera, ezta? eta gero bazkaria jan)

gorpu bidie: gorpu bidea, andabidea

gorpue: gorpua

"Ilte sanien gorpue, errire dxoate sien, ba elixera abadiari parte emoten da, kajie be erridxen eitte san" - (Hiltzen zenean gorpua, herrira joaten ziren, ba elizara abadeari parte ematen eta, atautea ere herrian egiten zen)

"Amen il sen, e, andra bat eta ni gastetxue ixen nitzen, da len ei san kostunbrie, abadie, gorpue daroanien, pater nosterra esaten tzakun, ta txakurrandi bet emoten dxakon ba sonbrerure abadiari, bidera urtenda, da gu umiek urtenda, bagoas emoten dirue, eta abadiak esoskun artu txakurrandirik, se Dxainkon eitten dxakon gorpue, leges doanari, elixatik, ba pater nosterra, madxe ote san Dxainkoko elispian iminye, kanpa

ARRIETAKO HIZTEGIA

dxotzalliek imintteuen, kandela bistute, d'an andaridzek deskantze itteurien, gorpue madxen ganien itxitte, lepoan eroate san da, eta onek an, gixonak, gixonari abadiiek pregunte in tzan, nondik dxoango gara? da gixonak esan tzan, ametixik, iñor pasetan estan lekutik, andixik eraeuen andrie berana! errege bidetik, sarretik, entzun e! d'orrek eitten seurien elixan erresaridxoia erreseu, funeralik eseuen ein gure ixen abadieri es pagetako" - (Hamen hil zen, andra bat eta ni gaztetxoia izan nintzen, eta lehen ei zen ekandua, abadea, gorpua daroanean, aita gurea esaten genion, eta txakurrandi bat ematen zitzaion ba kapelera abadeari, bidera irtenda, eta gu umeak irtenda, bagoaz ematen dirua, eta abadeak ez zigun hartu txakurrandirik, ze Jainkon egiten zitzaion gorpuari, legez doanari, elizatik, ba aita gurea, mahaia egoten zen Jainkoko elizpean ipinita, kanpai jotzaileak ipintzen zuen, kandela biztuta, eta han andariiek deskantsatu egiten zuten, gorpua mahaiaren gainean utzita, lepoan eroaten zen eta, eta honek han, gizonak, gizonari abadeak itaundu egin zion, nondik joango gara? eta gizonak esan zion, hametixek, inor pasatzen ez den lekutik, handixek eroan zuen andrea berarena! errege bidetik, zaharretik, entzun e! eta horiek egiten zuten elizan errosarioa errezatu, hiletarik ez zuen egin gura abadeari ez oradaintzeko)

"Orduen elixera esan eroaten gorpue" - (Orduan elizara ez zen eroaten gorpua)

il barridxe: hil berria

ille: hila

kajie: zerraldoa

kanposantue: kanposantua

"Or Dxainkotik etorten giñenien, or kanposantuen ondotik pase bi ixetan gendun, ta billur bet, da bakixu ser itxe oskuen kalabasi imiñi, barruko papel gorridxegas, eta an ukusten gendun, enei!" - (Hor Jainkotik etortzen ginenean, hor kanposantuaren ondotik pasatu behar izaten genuen, eta bildur bat, eta badakizu zer egiten ziguten kalabaza ipini, barruko paper gorriagaz, eta han ikusten genuen ene!)

kurtzerue: kurtze eroalea

linboa: linboa

"Linbora esaten duen, an, ortusantuen on san linbo antzeko ser bat, ta ara" - (Linbora esaten zuten, han, kanposantuan egon zen linbo antzeko zer bat, eta hara)

lutue: lutua

"Etxekoa iltten danien, lutu andidxe artzen dxakon, urte betien bal baltzik edo, ibiltte san" - (Etxekoa hiltzen denean, luto handia hartzen zitzaion, urte batean beltz-beltzik edo, ibiltzen zen)

ortu santue: ortusantua, kanposantua

"Ointxe ortusanture dxoaten dales olantxe ba, nik beti esetu dot" - (Oraintxe kanposantura joaten den legez holantxe ba, nik beti ezagutu dut)

tokadie: hil kanpaia

9. UMEZAROA

Atal honetan umezaroaren gaineko berbak batzen ditugu; azpi-atalak olgetak, umeakaz erabiltzen den lexikoa eta, azkenik, eskolari dagokiona batzen dugu.

9.1. UMEEN OLGETAK

akinke: akinka, oin baten gainean ibiltzea

"Ori akinke, da irugarrena pase bixeta san ba ukutu barik igual, lenengoa ta bigarrena, da irugarrena ukutu barik laugarrenerarte salto, da gero bosgarrena da gero kanpora" - (Hori akinka, da hirugarrena pasatu behar izaten zen ba ikutu barik igual, lehenengoa eta bigarrena, eta hirugarrena ikutu barik laugarreneraino salto, eta gero bosgarrena eta gero kanpora)

arrekiko, arretxikito: arretxiko, umea lepoan eroatea

asto astoka: asto-astoka, bat makurtuta gainetik salto eginda egiten den olgeta, batzuetan makurtuta dagoenaren ipurdian ostikada ematen zen

baloye: baloia

ARRIETAKO HIZTEGIA

bilbo ikusi: umea masailetatik oratuta altxatzea, altxatzeko Bilbo ikusiko dutela edo erakutsiko zaiela esaten zaie

birinboltie: birinbolta, txirinbuelta

botxike, botxoka: botxoka, kanikak edo intxaurrak botxoan sartzeko lurrean egiten den olgeta

"Sulotxue iñ, d'asauti, kanikie bota, da botxike" - (Zulotxo egin, eta asagotik, kanika bota, eta botxora)

botxoa: botxoa, olgatzeko egiten den zulotxo

dxokoa: jokoa

erradxie: arraia, marra

erruedie: goitibeheraren txirrinka

etze etzeka: etxe-etxeka; latorri, harri, landare, eta abarrekaz etxea irudikatzen edo salerosteko egiten den olgeta

"Etze etzeka itxen da ba, imiñi alako katxarrotxu batzuten, ba ure oridxo dala ta, eta gero an imiñi dxaten, da laguneri deitxu, te pareu dxesarritxe ta, dxan in yule beskaridxe ta alako geusek" - (Etxe-etxeka egiten da ba, ipini halako katxarrotxo batzuetan, ba ura olio dela eta, eta gero han ipini jaten, eta lagunari deitu, eta paratu jesarrita eta, jan egin dugula bazkaria eta halako gauzak)

fido: kuikan ostuta dagoen baten bat lo izan denak ikusten duenean esaten duen berba; beronen bidez ikusi duela adierazten da

goittiberie: gotibehera

"Soka dxantzan be itte san, baya goittiberias guk asko olge du" - (Soka dantzan ere egiten zen, baina goitibeheragaz guk asko olgatu dugu)

istrikulu: iztertolaka

istrikuluke: iztertolaka, hankak zabal zabalik paratzea

itzu-itzuke: itsu-itsuka, batek begiak estalita ikututa lagunak harrapatu eta nortzuk diren igarri behar du

kabraka: itsu-itsuka

kañikie, kanikie: kanika

kastorra: kistorrera egiteko erabiltzen den intxaur txikerra

"Kastor bat ote san, bat, bat, bera bakarrik, baya alboan orrek danak, a kastor bota eskiñoan danak berantzako" - (Kistor bat egoten zen, bat, bat, bera bakarrik, baina, alboan horiek denak, kistor hura botaz gero denak berarentzat)

"Kastor esaten dxakon ari txikitxueri ba, kastortxue" - (Kistor esaten zitzaion txikitxo hari ba, kistortxoa)

kastorrien: intxaurrakaz egiten den jokoa

"Olan illedan imintxen siren, esta? eta txikitxu bategas, beste bategas, dxo, da a ataraten dana noberantzako, igual amar ixetan basien, amar intxur, intxur bana imiñi danak, eta, olan len esan dun moduen, konteu olan da, lau edo bostera edo ixetan dana, a asten san lenengo eta ataraten deusenak eta, batzuk eukitxeuen apunterie ona, da danak ataraten txuesan, da danak batek eraten txusen gero" - (Holan ilaran ipintzen ziren, ezta? eta txikitxo bategaz, beste bategaz, jo, eta hura ateratzen dena norberarentzat, beharbada hamar izaten baziren, hamar intxaur bana ipini denek, eta, holan lehen esan dugun moduan, kontatu holan eta, lau edo bostera edo izaten dena, hura hasten zen lehenengo eta ateratzen dituenak eta, batzuek edukitzen zuten apunteria ona, eta denak ateratzen zituzten, eta denak batek eroaten zituen gero)

kikili, kikilli: kikili, arretxiko; umea hankak dandiliska bizkarrean jesarrita eroatea

"Diferentie da, kikili de, ameti koisten dosus kaderak, da bestie da txikotien" - (Desberdina da, kikili da, hamendik hartzen dituzu hankak, eta bestea da txikotean)

kirrin karran: kirrin-karran, bat gurdiaren puntan iztertolaka jesarrita paratzen da, garitekoek kamari sakatuta gora eta behera erabiltzen dute

"Gurdidxe imiñi, lenauko gurdidxek, eta an dxesarri atzien gu, da gurdi punten beste bat, eta atzien lagun asko egoten sanien, ba arek gurdidxen punten gora idxetauen, ta gero bera ta gero gora ta" - (Gurdia ipini, lehenagoko gurdiak, eta han jesarri atzean gu, eta gurdi puntan beste bat, eta atzean lagun asko egoten zenean, ba hark gurdiaren puntan gora igaten zuen, eta gero behera eta gero gora eta)

"Partikien punten pareta san bat, ta bestiek atzeti, gora ta bera, ta gora ta bera" - (Partikoaren puntan paratzen zen bat, eta

ARRIETAKO HIZTEGIA

besteak atzetik, gora eta behera, eta gora eta behera)

kui: kui, kuika olgetan ostutakoan esaten den berba, berba honegaz ostuta dagozela eta bilatzen has daitekeela adierazten da

"Kui esaten da, ya ostuten dienien" - (Kui esaten da, osten direnean)

"Kui esaten deuenien ba ya bestie bille doa" - (Kui esaten duenean ba ja bestea bila doa)

kuike: kuika, ostaltara

"Ostu alan, kuke esaten gontzan guk orreri" - (Ostu halan, kuika esaten genion guk horri)

"Kuike, ba, lau edo bost batu, juntetan gintzesen da, arek, ba ostondu eskiñe baten da bat lotu begidzek ixitte, gero kui esan, da a koisten bateri pestera" - (Kuika, ba, lau edo bost batu, elkartzen ginen eta, haiek, ba ostu eskina baten eta bat lotu begiak itxita, gero kui esan, eta hura hartzen batetik bestera)

kukuke: kuika

"Kukuke ba ostu, egon olan, esta? ta bat, e, pareu begidzek serratute, ba ostu bestiek eta a topetan, arek topetan gero" - (Kuika ba ostu, egon holan, ezta? eta bat, paratu begiak zerratuta, ba ostu besteak eta hura topatzen, haiek topatzen gero)

kukulumixu, kukulumixo: kukulumixu

"Kukulumixu pareute dau" - (Kukulumixu paratuta dago)

lapur dxokoa: lapur jokoa

lepos: taba jokoan jaustean tabak daukan itxuretarik bat

leposkoa: lepozkoa

lo iñ: lo egin, kuika moduko olgetetan begiak estalita, lagunak topatzeko kontatu behar duenak lo egiten du

lo lotu, lo egon: lo lotu, kontatzeko lotu

"Lo dauenak tope in bedeu" - (Lo dagoenak topatu egin behar du)

maistre maistreka: maistra-maistraka

"Dxatekoak eitxeko ta, esta? dxatekotxuek eta eitxeko ta, se etze etzeka ba dxatekoak eitxeko ixeta san, gero apur bet sertzien sienien maistre maistreka be bai" - (Jatekoak egiteko eta, ezta? jatekotxoak eta egiteko eta, ze etxe-etxeka ba jatekoak egiteko izaten zen, gero apur bat zertzen zirenean maistra-maistraka ere bai)

marro: marro, elkar harrapatzeko olgeta

marroka: marroka, elkar harrapatzeko olgeta

"Marroka be itxen dun, marroka, orti mutillek eta gu emeti, neskak alderri bateti eta mutillek besteti, eta marroka" - (Marroka ere egiten genuen, marroka, hortik mutilak eta gu hemendik, neskak alderdi batetik eta mutilak bestetik, eta marroka)

marro-marroka: marro-marroka

mingillie: mingila, begia; tronpoi kordelari egiten zaiona

mirue: mirua; ume batek, mirua izanda, ilaran paratzen diren beste guztien aurrerengoi itaunak eginda, lantzean ume bat kentzen dio

"Da beste olgeta bat on san politxe, kasureko bat pareta san anditxuenatariko bat eurrien, da atzien illedie txikidzek, eta eurrien pareta san bat, eta esaten tzon se, nondi dxoaten da Bilbora? ta ortik, da nondi dxoaten da Donostire ta ortik, da ori sartzeko sertzue emongostasu? txetxetxue, umetxue, eta es, ara t'ona ta ara t'ona, da arek lantzien bat ostu itxen tzan a ixen san mirue, mirue" - (Eta beste olgeta bat egon zen polita, kasurako bat paratzen zen handitxoenetako bat aurrean, eta atzean ilara txikian, eta aurrean paratzen zen bat, eta esaten zion ze, nondi joaten da Bilbora? eta hortik, eta nondi joaten da Donostiara eta hortik, eta hori sartzeko zertxoa emongo didazu? txetxetxoa, umetxoa, eta ez, hara eta hona, eta hara eta hona, eta hark lantzean bat ostu egiten zion hura izan zen mirua, mirua)

muñekie: andrakila

olgetie: olgeta

"Orrek olgetak danak einye gaus gu" - (Olgeta horiek denak eginda gagoz gu)

ostu ostuke: kuika, ostu-ostuke zein kuke biak erabiltzen dira

"Ostu ostuke be bai, tope in bi de gero a ostuten dana" - (Ostu-ostuka ere bai, topatu egin behar da gero hura osten dena)

parretilke, parratilke: trukamera

"Parretilke da, olan ein kuadrue, esta? da gero kuadrutxuek einye, da arek pase in bier, arek erradzek, e, sapaldu barik arek

ARRIETAKO HIZTEGIA

parretillek, tallie edo, a erraidxien, sapaldute lotzen bada parretille, galdu" - (Trukamera da, holan egin laukia, ezta? eta gero laukitxoak eginda, eta haiiek pasatu egin behar, marra haiiek, zapaldu barik trukamera harri hark, teila edo, hura marran, zapalduta lotzen bada trukamera harria, galdu)

parretille, parratille: trukumera harria

"A parratille ibiltzen gendun, kuadrurik kuadrure, eta txarto itxen bagendun ala! beste bat gero ostabe" - (Trukumera harri hura erabiltzen genuen, laukirik laukira, eta txarto egiten bagenuen hara! beste bat gero ostera ere)

pelotaka: pilotaka

pelotie: pilota

"Dxesarri beyen ta, tabak imiñi sabaldute, ta pelotie gora" - (Jesarri behean eta, tabak ipini zabaldua, eta pelota gora)

soka dxantzan: soka dantzan, soka egin

sokan: sokan

"Ba sokan, e, bik eraiñ, eta illedie paretan sien" - (Ba sokan, bik eragin, eta ilara paratzen ziren)

soka saltoa: soka saltoa, soka dantza

sokie: soka

tabaka: tabaka

"Ordun ote sien limonadak, botillek, da eukitxeun kristel sertzxu bet, biribiltxu bet sakatu, da aixek ataraten dxakiesan, da arexegas eitxen gendun tabaka" - (Orduan egoten ziren limonadak, botilak, eta edukitzen zuen kristal zertxo bat, biribiltxo bat sakatu, eta haiexek ateratzen zitzaizkien, eta harexegaz egiten genuen tabaka)

tabatara: tabatara

tabie: taba

"Erosi be bai, saltxien be ote sien, da gero artxoak iltxen sienien gorde, gorde be psik geuse itzela tabie gordetie, oiñ oin ser? oin bota" - (Erosi ere bai, saltzen ere egoten ziren, eta gero artxoak hiltzen zirenean gorde, gorde ere psik gauza itzela taba gordetzea, orain orain zer? orain bota)

"Lau klasetara itxe san, amabi tabagas" - (Lau eratara egiten zen, hamabi tabagaz)

"Tabieri bueltak emon, pelotie goitxi dan artien tabieri bueltie emon" - (Tabari

bueltak eman, pelota goitik den artean tabari buelta eman)

"Korroan pareu, eta tabari bueltak emon, pelotie bota gora, eta tabari bueltak emon" - (Korroan paratu, eta tabei bueltak eman, pelota bota gora, eta tabei bueltak eman)

tardantzie eskatu/emon: umeak astunduta, nor edo nogana joateko esaten zaie tardantza eskatzeko edo emateko, bide batez norberari baketan uzten diote

"Tardantzie emon, botatearren umie, botatearren noberan ondotik" - (Tardantza eman, botatzearren umea, botatzearren norberaren ondotik)

te: berbaz egiten den olgetan tartekatzen den silaba

"Ba kasureko, Miren esateko, te-mi te-ren" - (Ba kasurako, Miren esateko, te-mi te-ren)

"Bai, geuk eitxen gendun txikidkek gintzenien ori, bai tegas" - (Bai, geuk egiten genuen txikiak ginenean hori, ba te-gaz)

tiragomie: tiragoma

tronpoi kordela: tronpoi kordela, xiba kordela

tronpoye, tronboye: tronpoia, xiba

"Tronpoye bai, geu pe itxen gendun ori, neska pe bai" - (Tronpoia bai, geuk ere egiten genuen hori, neskek ere bai)

"Olan, bera bota, aridxeas batu, eta olan bera bota ta dxantzan be imintzeko, tronboye" - (Holan behera bota, hariagaz batu, eta holan behera bota eta dantzan ere ipintzeko, tronpoia)

tutulunberdie: txirinbuelta

tutulunberdike: txirinbuelbaka

txapaka: txapaka

txapatara: txapatara

"Misto kajak edo seuser eon sien, orduen sasoi baten bai, bai, olan bota txapatara edo esaten dxakon" - (Misto kutxak edo zer edo zer egon ziren, orduan sasoi baten bai, bai, holan bota txapatara edo esaten zitzaion)

txapelka: txapelka

"Alan dxo mutillek ori itxeuen, esta? bai, mutillek itxeuden, txapela eukitxeuen mutil danak, txikitxerik eta, bat dxo ta" - (Halan jo mutilek hori egiten zuten, ezta? bai, mutilek egiten zuten, txapela

ARRIETAKO HIZTEGIA

edukitzen zuten mutil denek, txikitatik eta, bat jo eta)

txapinke: txapinka, elkarren atzean segika eta elkar harrapatzen egiten zen jokoa, eskuz bata bestea ikutzean "txapin" esaten zen

txapiñ: txapinka jokoan baten bat harrapatuz gero esaten zen berba

"Ori ixeten san, kasureko, olan gastiek etorri erromeri batetik, esta? d'ori txapiñe inye etzera eskapeu itxen siren" - (Hori izaten zen, kasurako, holan gazteak etorri erromeria batetik, ezta? eta hori txapina eginda etxera eskapatu egiten ziren)

txikitoyen, txikotien: txikoan, ; umea hankak dandiliska sorbaldetan jesarrita eroatea

txinboa: txinboa

"Arbola andidxeri imiñi sokak eta txinboak, atzetik batek sakatu, ta senbat eta arau dxoan posau" - (Arbola handiari ipini sokak eta txinboak, atzetik batek sakatu, eta zenbat eta harago joan pozago)

txirikilloa: txirikila

txirrintxola: txirrintxola, txirrinkola

txoriabidexk topetan: txori habia bila

txorro morro piko tallo ke: txorro-morro

txorromorroka: txorromorroka

"Txorromorroka be bai, atxiñe, eitxen gendun asko" - (Txorromorroka ere bai, antzina, egiten genuen asko)

9.2. UMEEN LEXIKOA

abus: lau txakur, katanar

andi andi: handi-handi, paseoan joateko esaten da

apapa: apapa, ibiltzeko esaten da

apapan: apapan, ibiltzeko esaten da

apatxe: apatxe, jesartzeko esaten da

apatxe iñ : jesarri

atatan: umei ibiltzeko eta paseoan joateko esaten zaie

aupa iñ: altxatu

aupa: aupaa, umei altxatzeko esaten zaie

aupale: aupala, umei altxatzeko esaten zaie
"Aupale bai noberak artzen deuenien umie, aupaa gusu umie?" - (Aupala bai norberak hartzen duenean umea, aupaa gura duzu umea?)

din-dan: dilin-dalan, kanpaiaren hotsa

dingilin-dangalan: dingilin-dangalan, albo-alboka

eperdiko taloa: umei mehatxu gisa eperdiko taloa berotuko zaiela esaten zaie

et: ez; zer edo zer egin ez dezaten edo arriskuaz jaube eratzeko esaten zaie

etetet: ez, ez

guauguau: txakurra

itzulapikoa: utxe-lapikoa

kilikilli, kili kilidxe: kili-kili

kilikilli eiñ, kili kili iñ: kili-kili egin

koko: txokolatea, gozokia

kokoko: oiloa

lastana emon: lastana eman

lastana iñ: lastana egin

lastana: lastana, deikari amoltsua

lau txakur: lau txakur

lolo: lo

lolo iñ : lo egin

"Lolo in bi de oiñ" - (Lolo egin behar da orain)

mama: ura

"Gusu mama politxe?" - (Gura duzu mama polita?)

"Mama ure da" - (Mama ura da)

mamarro: mamarroa, umeak ikaratzeko mamarroak eroan egingo zituela esaten zitzaien

"Mamarro esaten dxakien umieri kasureko, txikidxen okerra padie ta serien da, mamarro etor da, e, mamarro pe eroango tzue" - (Mamarro esaten zitzaien umei kasurako, txikitan okerrak badira eta zerean eta, mamarro etorri da, mamarrok ere eroango zaituzte)

mari maistrrie: mari-maistra

"Ori bai esate san, mari maistrrie, seuser aginyu edo, itxen badeu" - (Hori bai esaten zen, mari-maistra, zer edo zer agindu edo, egiten badu)

mari mutille: mari-mutila

"Olan mutillekas edo beti ibilli, esta? ta aren faborie ta itxen deuenaa, au da mari mutille!" - (Holan mutilakaz edo beti ibili, ezta? eta haren faborea eta egiten duena, hau da mari-mutila!)

miau, mitxiña, mixiño: katua

nene: esnea

pa: mosua

pa bota: mosua bota

pa emon: mosua eman

ARRIETAKO HIZTEGIA

papa: ogia

pio-pio: txoria

pipie: txupetea

pitxidxe: pitxia, jostailua

"Pitxitxue be ademas, pitxidxe esaten da, neskak edo, erropa barridxe ta selako pitxi politxe dekosu" - (Pitxitxoaa ere gainera, pitxia esaten da neskek edo, arropa berria eta zelako pitxi polita daukazu)

pitxin: umeei amoltsuki esaten zaie

pli-pla: pli-pla

plis plas: plis-plas, jo

"Plis plas emongo tzut" - (Plis-plas emango dizut)

plisti plasta: plisti-plasta, ur azalean kolpean ematean esaten da

"Uretan da ori plisti plasta" - (Uretan da plisti-plasta)

pospoliñe: deikari amoltsua

potxoloa: potxoloa

pu: sua

"Pu, noberak esateko, sue daola, pu, umieri pu esaten dxako" - (Pu, norberak esateko, sua dagoela, pu, umeari pu esaten zaio)

pu iñ: pun egin, jausi

"Ene or pu dau lastana! e, or pu ingo tzu!" - (Ene hor pu dago lastana! hor pu egingo dizu!)

punba: jausi

punbala: jausi

punbala iñ : jausi

"Geldiro dxoan punbala ingosu te" - (Geldiro joan jausi egingo zara eta)

pupu: mina

pupu iñ : min egin, min hartu

"Kontus ibilli pupu in barik" - (Kontuz ibili min hartu barik)

sapa sapa: arin joaten esaten da

sarabandie: sarabanda, amakona

"Sarabandie ba, bera dana ta bestiek bapes" - (Sarabanda ba, bera dena eta besteek bat ere ez)

"Sarabanda bat, berba asko ta, sustentzi gitxi dekonari" - (Sarabanda bat, berba asko eta, sustantzi gutxi daukanari)

sarkotxie: zaharkotxa

"Guk esaten tzakun sarkotxie, ba, selan esangot? ume bat, e, olan eurrera etorridxe edo, asko pregunte edo seuser itxen deuen, selako sarkotxie da ori!" - (Guk esaten genion zahakotxa, ba, zelan

esango dut? ume bat, holan aurrera etorria edo, asko itaundu edo zer edo zer egiten duena, zelako zaharkotxa da hori!)

saskili baskili: saskili-baskili, gauzak laskintzea, bartzilatzeta

taka taka: taka taka

tas tas: tas-tas, jo

"Tas tas emongo tzut" - (Tas-tas emango dizut)

tas tas iñ: tas-tas egin, jo

tata iñ: tata egin

ta-ta: jo

tatantxu: lastana

tatantxu iñ: lastandu

tato: umeari esaten zaio salto egiteko

"Olan alturetuen, saltetako, tato, tato" - (Holan altueratxoan, saltatzeko, tato, tato)

tilin talan: tilin-talan, kanpaiaren hotsa eta kanpaia bera

tirriñe: tirrina, zila

tretie: treta, maina

txaka txaka: txaka-txaka

txapiskolie: neskatoei esaten zaie amoltsuki
"Biskorra danien, selan esaten tzien ba? txapiskolie esixena" - (Bizkorra denean, zelan esaten zioten ba? txapiskola ezizena)

txatxa: fruitua

txatxurre, txantxurre: lehen haginak irtekeran esaten zaie

"Txantxurre da agintxue, amen deko txantxurre, urtetan deko txantxurre" - (Txatxurra da hagintxo, hamen dauka txatxurra, irteten dauka txatxurra)

"Txatxurrek urten tzie umieri" - (Txatxurrek irten diote umeari)

txetxe: txetxe, umea

"Txetxe an dau" - (Txetxe han dago)

txiki txaka: oinez

txin-txin: oinaren gainean umea zabukatzea

txin-txin: dirua

txintxirriñe: txintxirrina

txio-txio: txio-txio, txoria

txipi-txapa: txipi-txapa, oinez ibili

"Txipi txapa oñes asikerie ixengo da, txipi txapa txipi txapa, oñes ya asten danien" - (Txipi-txapa oinez hasikera izango da, txipi-txapa txipi-txapa, oinez ja hasten denean)

txipli txapla: txipli-txapla

txitxi: okela

ARRIETAKO HIZTEGIA

txotxo: txotxo

txupetie: txupetea

txurku-txurku: zurrut edan

txurku-txurku edan: txurku-txurku edan, zurrut edan

"Nene txurku-txurku edan" - (Esnea txurku-txurku edan)

txut: txut, txi, erretzeko arriskua dagoenean esaten zaie

"Txut! kendu ortik" - (Txut! kendu hortik)

9.3. ESKOLA

bakasiñoak: oporrak

erreglie: erregela

eskola lagune: eskola laguna

eskola umie: eskola umea

eskolie: eskola

"Orra Libora, Libo esaten tzaku guk Arrietari, orra dxoaten giñen eskolara eta asau, asau es baya, egurdixen esokun denporarik emoten dxoateko, ta tabernara dxoan, ontza bat txokolate, geuse itzela orduen txokolatie dxatie, eta ogi satitxu bet dxan eta gero tabaka itxen gendun, an elispian" - (Horra Libaora, Libao esaten diogu guk Arrietari, horra joaten ginen eskolara eta asago, asago ez baina, eguerdian ez zigun denborarik ematen joateko, eta tabernara joan, ontza bat txokolate, gauza itzela orduan txokolatea jatea, eta ogi zatitxu bat jan eta gero tabaka egiten genuen, han elizpean)

"Dxainkora eskolara be Busturitxi etorten san, da urten eitxen tzakun geuk, e, ara mendire, eskolako umiek" - (Jainkora eskolara ere Busturitik etortzen zen, eta irten egiten genien geuk, hara mendira, eskolako umeek)

"Gu asiko gintzesan, e, sei urte edo olan, asiko gintzesan, se diputasiñoak ein yoskun an eskolie" - (Gu hasiko ginen, sei urte edo holan, hasiko ginen, ze aldundiak egin zigun han eskola)

"Ni lenengo asi nintzenien, republike denporan, ba euskera asko itte san, guk maistre ona euki gendun, da euskera asko itte san, gero ba erderie baya, da abadie pe onak euki dus, da a drotriñie euskeras ikesi du asko ta asko" - (Ni lehenengo

hasi nintzenean, errepublika sasoian, ba euskaraz asko egiten zen, guk maistra ona eduki genuen, eta euskara asko egiten zen, gero ba erdera baina, eta abadeak ere onak eduki ditugu, eta droktrina hura euskaraz ikasi dugu asko eta asko)

"Gero orrek sartu sirenien, ba galaso i eurien euskera eittie eskolan, dotriñie be erdera, ein biar" - (Gero horiek sartu zirenean, ba galarazo egiten zuten euskaraz egitea eskolan, doktrina ere erdaraz, egin behar)

"Ni ibilli nitzen Olabarrire, Olabarri ixen san eskola andidxe" - (Ni ibili nintzen Olabarrira, Olabarri izan zen eskola handia)

kartillie: kartila, dotrina ikasteko liburua

kastigue: zigorra

"Esan ixetan geuse andirik kastigue" - (Ez zen izaten gauza handirik zigorra)

katoye: abcedarioa ikasteko erabiltzen zena

"Katoye esate dxakon, gero bai, gero liburue bai, baya guk gitxi, liburu gitxi gure denporan, on sien, e? baya" - (Katoia esaten zitzaion, gero bai, gero liburua bai, baina guk gutxi, liburu gutxi gure sasoian, egon ziren, e? baina)

lesiñoa: ikasgaia

"Abadie etorte san eskolara astien, lesiñoa artzen" - (Abadea etortzen zen eskolara astean, ikasgaia hartzen)

letrie: letra

liburue: liburua

"Liburu batzuk oten sien da, asko estun ikisi gu paya" - (Liburu batzuk egoten ziren eta, asko ez genuen ikasi guk baina)

maistrie: maistra

"Eskolan danak batera, eskola baten danok, maistre bategas" - (Eskolan denak batera, eskola baten denok, maistra bategaz)

maixue: maisua

maixu maistrek: maisu-maistrak

numeroa: zenbakia

papera, papela: papera

pisarrie: arbela

sasi eskolie: sasi eskola

"Sasi eskola esaten gendun guk, eskoasenien etzetik, bueno dxoan etzetik eta, es dxoan eiñeskiñoan eskolara, eskolara dxoan es igual, nonoas dxoan bi dala, edo seuser

ARRIETAKO HIZTEGIA

pentze sagarrak edo seuser koisten, da sasi eskola ori ixeta san sasi eskolie" - (Sasi eskola esaten genuen guk, ez goazenean etxetik, beno joan atzetik eta, ez joan eginez gero eskolara, eskolara joan ez beharbada, nor edo nogaz joan behar dela, edo zer edo zer pentsatu sagarrak edo zer edo zer hartzen, eta sasi eskola hori izaten zen sasi eskola)

10. DENBORA

Denborari buruzko berbak aurkezteko atal hau ondoko azpi-ataletan banatuta emango dugu: urtaroak, hilak, astegunak, denboraren banaketa, egunaren banaketa eta egunen arteko erlazioak

10.1. URTAROAK

negue: negua

"Arek imintxe siren, e, batu, da gero pilloak eitxen gendusen bertan soloan, da gero ekarri itxen gendusen etzera ta lastatire, gero neguen, e, ganadueri emoteko" - (Haiek ipintzen ziren, batu, eta gero piloak egiten genituen bertan soroan, eta gero ekarri egiten genituen etxera eta lastategira, gero neguan, ganaduari emateko)

udebarridxe: udaberria

"Ementxe bota bidot, ta ra botata, urrengo udebarridxen senbagure perejill, ori bai erres koisten da" - (Hementxe bota behar dut, eta ra botata, hurrengo udaberrian zenbagura perrexil, hori bai erraz hartzen da)

udegodxena: udagoiena, udazkena

"Lau kuartu badekos, e, iretargidkek, ya bittera sartu gara, esate baterako, negu de udebarri batera, eta ude udegodxena beste batera" - (Lau aldi badauzka, iretargiak, ja bitara sartu gara, esate baterako, negu eta udaberri batera, eta uda eta udagoien beste batera)

udie: uda

"Emen be ikusten dot neu pe olan, igual naboaa oin ba gitxi eraitten bakotxa, se fasillau de, uden edo neguen be, ba naboaa baño kodañieas ebatie ballejue,

esta? eta bakotxa naboari tte isten asi de" - (Hemen ere ikusten dut neuk ere holan, igual arbia orain ba gutxi ereiten bakoitza, ze errezagoa da, udan edo neguan ere, ba arbia baino kodainagaz ebakitzea bailikua, ezta? eta bakoitza arbiari eta uzten hasi da)

10.2. HILAK

abendue: abendua

abustue, abostue, agostue: abuztua

"Goixetik asi dire emoten, ba txapelikoas batera, agostuen asi siren txapelikoak dxaten, oin ya akabuko ostikeda taus oiñ, baya san martiñekoak oño be, aspaldidxon emoten daus de, ya akabetan daus orre pe" - (Goizetik hasi dira ematen, ba txapel ikoagaz batera, abuztuan hasi ziren txapel ikoak jaten, orain ja azken ostikadak dagoz orain, baina san martinekoak oraindino ere, aspaldion ematen dagoz eta, ja amaitzen dagoz horiek ere)

aprille: apirila

"Esaterako, bier baosus, segidureko, martidxen edo aprillen asikeratan, espadekosu, amen guri iños pase dxaku te, labrantzarako ganadurik, eta derrigorres bier baosus, biarrien be artu biosu, alandase segun selako labrantzie, onek esture idirik bier, onek ididxe parik maneje dire, tratora ekarri arte, beidxekas edo" - (Esaterako, behar badituzu, segiturako, martian edo apirilean hasikeretan, ez badaukazu, hamen guri inoiz pasatu zaigu eta, lanketarako ganadurik, eta derrigorrez behar badituzu, beharrean ere hartu behar duzu, halandaze segun zelako lanketa, hauek ez dute idirik behar, hauek idiak barik maneiatu dira, traktora ekarri arte, behiakaz edo)

bagille: bagila, ekaina

disienbrie: abendua

"Ori ak, a, en jeneralien eitteuen disienbrien" - (Hori hark, gehienetan, egiten zuen abenduan)

eneroa: urtarrila

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Eneroan san, e, santantoittan bedxena" -
(Urtarrilean zen, San Antonioetan behiena)

garagarrille: garagarrila, uztaila

ireille, iraille: iraila

"Da beste klase ba pe euki du, oiñ a be galdu dxat, a be agostu iraillerako eldute sana, dultze dultze, a iko pasa eitten dien klasie" - (Eta beste mota bat ere eduki dugu, orain hura ere galdu zait, hura ere abuztu irailerako heltzen zena, gozo-gozo, hura iko pasa egiten diren era)

julio: garagarrila, uztaila

junio: bagila, ekaina

martidxe: martia, martxoa

"Martidxen eitten dxakon emen garidxeri, orduen ba, estaitt nik setako ixeta san, narragas paseu, eraiñ eitte san ba otubre nobienbre, eta andik gero martidxen ote san ba aonen tamañukotxue edo, da narragas paseu itte san orduen" - (Martian egiten zitzaion hemen gariari, orduan ba, ez dakit nik zertarako izaten zen, narragaz pasatu, erein egiten zen ba urri zemendi, eta handik gero martian egoten zen ba haonen tamainakotxoa edo, eta narragaz pasatu egiten zen orduan)

mayetza: maiatza

"Eta mayetzien lora pe bai. lorak Arrietan, etorten giñen gu gastiek, kuadrillek loratara, mayetzien" - (Eta maiatzean loreak ere bai loreak Arrietan, etortzen ginen gu gazteak, taldeak loretara, maiatzean)

nobienbre: zemendia, azaroa

otubre: urria

semendidxe: zemendia, azaroa

"Semendidxen erosieskero estau problemarik, bierrien apur bet dxakiñ es arren, se denporie deko, andik eta martire, etzien irekasteko" - (Zemendian erosiz gero ez dago poblemarik, beharrean apur bat jakin ez arren, ze denbora dauka, handik eta martira, etxean irakasteko)

seselle: zezeila, otsaila

"Aixete itzela on san, aixe ei euen urte baten, sesellen amabost edo ixen san" - (Haizete itzela egon zen, haize egin zuen urte baten, zezeilaren hamabost edo izan zen)

setienbre: iraila

urridxe: urria

"Artoa be esate baterako elduten da, ba setienbre, urridxen, oin ya dxoan da artoa, berde berde on direnak, ser pase da? ta artoa beres igertu de" - (Artoa ere esate baterako heltzen da, ba iraila, urrian, orain dagoeneko joan da artoa, berde-berde egon direnak, zer pasatu da? eta artoa berez ihartu da)

10.3. ASTEGUNAK

astelena: astelehena

barikue: barikua, ostirala

"Ene bidxer eguena da, da etzi barikue" -
(Ene bihar eguena da, eta etzi barikua)

domekie: domeka, igandea

"Es kariena e? esetu otas totoak, e, satzagas eitxen bai, satza eroaten, eta aitxe be bai emetik ikus dot nik, satzik es eurek eta, totoa, ta gero emoten tzen andik urrengo domekan edo, beskari bet edo, tabernan pagetan tzen da" - (Ez karearena e? ezagutu ditut totoak, satsagaz egiten bai, satsa eroaten, eta aita ere bai hemendik ikusi dut nik, satsik ez eurek eta, tota, eta gero ematen zien handik hurrengo domekan edo, bazkari bat edo, tabernan ordaintzen zien eta)

eguena: eguena, osteguna

egustena: eguaztena, azteazkena

martitzena: martitzena, asteartea

sapatue: zapatua, larunbata

"Urrengoa sapatue da" - (Hurrengoa zapatua da)

10.4. DENBORAREN BANAKETA

amabosta: hamabosta, hamabostaldia

"Amabosta edo irugarren astien, elixara erateuden umie, ta abadiak itxe otzon seuser" - (Hamabosta edo hirugarren astein, elizara eroaten zuten umea, eta abadeak egiten zion zer edo zer)

arto sasoye: arto sasoi

aste akabue: astegoi, asteburua

aste bitxartie: aste bitartea

astegune: asteguna

astidxe: astia

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Orrek esteko astirik" - (*Horrek ez dauka astirik*)

astie: astea

"Ni, e, bederatzi urteas ama il dxasten, au dxadxo san, da bitxartietan ba, dxoate nitzen baya igual astien eitte neusen iru bija" - (*Ni, bederatzi urtegaz ama hil zitzaidan, hau jaio zen, eta bitartean ba, joaten nintzen baina beharbada astean egiten nituen hiru bidaia*)

atzalde erdidxe: arratsalde erdia

atzaldie, arratzaldie: arratsaldea

"Lenau ixeta sanien umie, goixien ixetan baeuen, arratzaldien bautisetan, segiduen, ta ama esan dxoaten, aitxe, ta aitxebitxi amabitxidxe, da beste andra bat dxoate san umie eroateko" - (*Lehenago izaten zenean umea, goizean izaten bazuen, arratsaldean bataiatzen, segituan, eta ama ez zen joaten, aita, eta aitabitxi-amabitxiak, eta beste andre bat joaten zen umea eroateko*)

bart: bart

"Errondaridxek egon dire bart" - (*Errondariak egon dira bart*)

besperie: bezpera

"Besperako geueko amabidxetatik gora ure be esin san edan" - (*Bezperako gaueko hamabietatik gora ura ere ezin zen edan*)

bider: bider

"Senbat bider amak bota ost ni orren bille" - (*Zenbat bider amak bota nau ni horren bila*)

bisiestue: bisiestoa

"Ganaduen bertan be bai, partoetako be eraiñ eitten deuela esaten due bisiestuek" - (*Ganaduan bertan ere bai, erditzeetarako ere eragin egiten duela esaten dute bisiestoak*)

denporadie: denboraldia

denporie: denbora

"Olgetak eta orrek geusek estire astuten iños, orrek gastetako denporak estire astuten" - (*Olgetak eta gauza horiek ez dira ahazten inoiz, gastetako denbora horiek ez dira ahazten*)

desordue: desordua, ordu desegokia

"Ollarrana desorduen eitten bada, esaten dure, desorduen" - (*Oilarrarena desorduan egiten bada, esaten dute, desorduan*) [Zorte edo albiste txarra ei dakar desorduko kukurrukuak]

egune: eguna

"Ba, bautisetan ama esan dxoaten, da onenbeste egungarrenien, ogetamar edo berrogei, egun batzuk artzen sien, da ama dxoaten san umiegas, eta abadiiek urtetauen kanpora, eta dxoate san elixa barrure, ama ta umie" - (*Ba, bataiatzen ama ez zen joaten, eta honenbeste egungarrenean, hogeita hamar edo berrogei, egun batzuk hartzen ziren, eta ama joaten zen umeagaz, eta abadeak irteten zuen kanpora, eta joaten zen eliza barrura, ama eta umea*)

egun erdidxe: egun erdia

epokie: sasoi, aldia

"Piperra pe ederto ikuskosus, ba ño! ser pase dxako ba? sasoye, beres, bere epokie akabe dala" - (*Piperrak ere ederto ikusiko dituzu, ba ño! zer pasatu zaio ba? sasoi, berez, bere sasoi amaitu dela*)

gaste denporie: gaste denbora

gerraostie: gerra ostea

gisaldidxe: gizaldia, mendea

illebetie: hilabete

"Oin be bai, oin be jentie dxoaten da elixara, il ye ainbekarren illebeterarte" - (*Orain ere bai, orain ere jendea joaten da elizara, hil eta hainbakarren hilabetera arte*)

illie: hila

momentue: mementua

"Oneas esan gurotena da, ontxe, se berbeta euki du? momentuen? ya eskape deu" - (*Honegaz esan gura dudana da, oraintxe, ze berbeta eduki dugu? momentuan? ja esakapatu du*)

ordue: ordua

"Ordue eukitxen gendun etzerako" - (*Ordua edukitzen genuen etxerako*)

ordu erdidxe: ordu erdia

"Ordu erdi ariñao ya preparentako edo olan dxote san" - (*Ordu erdi arinago ja prestatzeko edo holan jotzen zen*)

ordu laurena: ordu laurena

"Bai, dxoten da ordu erdi ariñau lelengoa, ordu lauren ariñau, bigarrena, ta gero ya entradie" - (*Bai jotzen da ordu erdi arinago lehenengoa, ordu lauren arinago, bigarrena, eta gero ja sarrera*)

sartzarora: zahatzarora

"Gastetan pasetan esteuena pe sartzaroon, sarrauan paseu in biar askok" -

ARRIETAKO HIZTEGIA

(Gaztetan pasatzen ez duenak ere zahartzaroan, zaharragoan pasatu egin behar askok)

sasoye: sasoi

"Andraskorik esan ibiltzen, emen orduen sasoyen" - (Andrazkorik ez zen ibiltzen, hemen orduan sasoi)

unekadie: unea, unekada

"Berton etzien be sarri, olan aramu sarie, ene! unekada bat egoten da ganera" - (Berton etxean ere sarri, holan aramu sarea, ene! unekada bat egoten da gainera)

unie: unea

urtegune: urteguna

urtie: urtea

"Sei urterartien esan asten" - (Sei urtera arte ez zen hasten)

"Urte asko da ori kendu dala" - (Urte asko da hori kendu dela)

10.5. EGUNAREN BANAKETA

arrastidxe: arrastegia

"Jeneralien bai satorrak, goixien, e, oin ba orduak eta kanbidxeta daus baya, amarrak ingeruen, da or amabidxek bueltan da gero arrastiko serirek ingeruen edo, dxo eitten deuen gedxen ixetan da" - (Gehienetan bai satorrak, goizean, orain ba orduak eta aldatuta dagoz baina, hamarrak inguruan, eta hor hamabiak bueltan eta gero arrastegiko seiak inguruan edo, jo egiten duena gehien izaten da)

atzalde erdidxe: arratsalde erdia

atzaldie: arratsaldea

egun sentidxe: egun sentia

"Egune ikeran, egun sentidxen, kasureko, esaten dxake neskari be, belu etorten dienien, egun sentidxen etor sarie gero!" - (Eguna egikeran, egun sentian, kasurako, esaten zaie neskei ere, belu etortzen direnean, egun sentian etorri zarete gero!)

egurdatie: eguerdi-arte

egurdidxe, eberdidxe: eguerdia

"Eberdidxetan edo goixien edo illuntzien dxoko deu arek" - (Eguerdietan edo goizean edo iluntzean joko du hark)

geuberdidxe, geuerdidxe: gau erdia

"Bueno dxoate san gure deuen ba, geuberdidxen urtenda, ta gero goixien dxoate san sera, prosesiñoa, d'aregas junte an, da gero etorri beragas" - (Beno joaten zen gura duena ba, gau erdian irtenda, eta gero goizean joaten zen zera, prozesioa, eta haregaz elkartu han, eta gero etorri beragaz)

geubie, geue: gaua

"Geue itxen dau edo illundidxe" - (Gaua egiten dago edo ilundea)

"Goixaldien eitten badeu, geubien, geubeko amabidxetati eurrera itten badeu, orduen lagune il ye" - (Goizaldean egiten badu, gauean, gaueko hamabietatik aurrera egiten badu, orduan laguna hil da)

gois erdidxe: goiz erdia

goixaldie: goizaldea

"Goixaldien, geuberako gixoneskoak, eta eguneskoan ya enbrak, ordutetik ordutera, baya falta barik, e, ogetalau orduen ote san" - (Goizaldean, gauerako gizonetzkoak, eta egunezkoan ja andrazkoak, ordutatik ordutara, baina falta barik, hogeita lau orduan egoten zen)

"Uden, espadau, ur gitxi badau, ba goixaldien, ordu bidxek ingeruen edo, ya kendu itteuen" - (Udan, ez badago, ur gutxi badago, ba goizaldean, ordu biak inguruan edo, ja kendu egiten zuen)

goixe: goiza

illunabarra: ilunabarra

"Lukidxek illunabarrien etorten dire" - (Lukiak ilunabarrean etortzen dira)

illundi nabarra: ilunde nabarra, ilunabarra

illundidxe, illundie: ilundea

"Illundidxen eitten bada geue freskoa dales, aguante itten deu goixerartien" - (Ilundean egiten bada gaua freskoa denez gero, iraun egiten du goizera arte)

illuntzie: iluntzea

"Dxainkon erresaridxa len egote san, Dxainkoko erresaridxa erreseu, de dxoate nitzen lauretako ya Arrietara, beskari dxan ariñ prepareu te dxoan, erresaridxora ta, da an ba illuntzetxurarte egon da gero ortik biderik bide etzera" - (Jainkon errosarioa lehen egoten zen, Jainkoko errosaria errezatu, eta joaten nintzen lauretako ja Arrietara, bazkari jan arin prestatu eta

ARRIETAKO HIZTEGIA

joan, errosariora eta, eta han ba iluntzetxora arte egon eta gero hortik biderik bide etxera)

"Erresaridxa erresetan du illuntze gustidxetan" - (Errosarioa errezatzen dugu iluntze guztietan)

10.6. EGUNEN ARTEKO ERLAZIOAK

arenegun, areñeun, ariñegun: herenegun

"Atzo il dxasten ardi ederra eta esa notzan beteinaidxoari, atzo es areñeun" - (Atzo hil zitzaidan ardi ederra eta esan nion albaiteoari, atzo ez herenegun)

ariñeun atzetik, ariñegun atzetik: herenegun atzetik

atzo: atzo

"Oñ, e, ibil yeu, atzo, trugoyek, biarrien dauen lekuen" - (Orain, erabili du, atzo, trumoiak, beharrean dagoen lekuan)

bidxamona: biharamona

"San Juan bidxamona kasu esatie les, edo San Pedro bidxamonien" - (San Juan biharamona kasu esatea legez, edo San Pedro biharamonean)

bidxamonien: biharamonean

bidxer: bihar

"Bidxer da domekie" - (Bihar da domeka)

etzi: etzi

"Geur de egustena, esta? ta bidxer eguena ta gero etzi, esaten du, ene etzi barikue da" - (Gaur da eguaztena, ezta? eta bihar eguena eta gero etzi, esaten dugu, ene etzi barikua da)

etzigerokoa: etzidamu

geur: gaur

"Geur esta itxen" - (Gaur ez da egiten)

11. METERELOGIA

Metereologiari buruzko atal hau honako azpi-ataletan banatuta aurkezten dugu: eguraldia, euria, ekaitza, elurra-leia, haizea, lainoa-hedoia eta tenperatura.

11.1. EGURALDIA

aroa: aroa

denpora berdie: eguraldi txarra

"Denpora berdiek on die" - (Eguraldi berdeak egon dira)

denpora sikue: eguraldi sikua

denporie: eguraldia

"Jeneralmenten len denpora obiek eitten txusen oin baño, San Martiñen, ni neuretzako, geu gastiek ixen da otzik es edo" - (Gehienetan lehen eguraldi hobeak egiten zituen orain baino, San Martinen, ni-neuretzat, geu gazteak izan eta hotzik ez edo)

"Da egunek onak edo seuser ein bi dan sera, ta ortik igerten dxakon len, oiñ, e, ariñau kanbidxeu itten deu denporie, igual egun bet ona dau te bidxerko igual ra! kanbidxeu itten deu te, len sanoau ixen san denporie, asko be oingo aldien" - (Eta egunak onak edo zer edo zer egin behar den zera, eta hortik igartzen zitzaion lehen, orain, arinago aldatu egiten du eguraldia, beharbada egun bat ona dago eta biharko beharbada ra! aldatu egiten du eta, lehen osasungarriagoa izan zen eguraldia, asko ere oraingo aldean)

eualdidxe: eguraldia

kuarta denporak: kuarta denborak

"An beyen Santa Krutze esaten dxako, araxe dxoan, da an, a, amabidxetan edo, txolie edo ori garidxena, a bistute ba, antxe egote san, da geldi geldi esateuen ak egote sala ta gero amabidxeu edo ixete sienien, aixie, aste sala, da antxe gero akabuko serak, a, nondik axe, suen sera edo keye botaten deuen aixek selan irebasten deuen esateuen ak" - (Han behean Santa Krutze esaten zaio, haraxe joan, eta han, hamabietan edo, txola edo hori gariarena, hura biztuta ba, hantxe egoten zen, eta geldi-geldi esaten zuen hark egoten zela eta gero hamabiak edo izaten zirenean, haizea, hasten zela, eta hantxe gero azken zerak, hura, nondik huraxe, suaren zera edo kea botatzen duen haizeak zelan irabazten duen esaten zuen hark)

"Jeneralmente ixetan da, ba, esta pentzetan baya geueko ordu batetan da, puntu puntue, bariasiñoa or eukitten deuen aixiekas, egustena, barikue ta sapatue, iru egun dires, eta, ba orretan ba orixe ordue artu bisu, geueko ordu batetan,

ARRIETAKO HIZTEGIA

kanpora urten, ya kanpo libre ixen bi deu, aixiek danak, eta iñondik enbarasu barik, e, koisteko moduen, eta bueno ixetu sigarroa, da gora begire, ta a keye, norantza doa? arantza daroa, edo orrantza daroa, surrera, edo este oeste edo nora doa? eta bueno, e, nora eraten deuen ordu batetan, arek aixien diresiñoa keyena, igual eraten deu iferraixiek, edo eraten deu erriko aixiek, edo eraten deu bendebalak edo eraten deu nortiek, edo surrek edo dana dalakoak, eta igual ba egoten da, lañotute, eta igerrri esiñe, aixerik es, da iñorako eskiñie artes artes gora, gero dxoaten olan andik lañoak, e, orretan begire egonda, igetargidxen, e, arantza edo orrantza, norantza, diresiñoan dxoan siren lañoak, aixek aixe alderdidxek irebasi deu a egune, aixiek, keyeas bada, a nora doan keye, aixek alderdikoak aixiek irebasi deu egun atan, ori de ba esate baterako egustena, baya orretan iruretan be, egustena teko inyarrik gitxiengoa, da inyar gedxau dekona da barikue eta sapatue, orre tire, nagosi dienak, ta jeneralmentien, e, igual sapatue sartu igetargi barri, d'oniño, norako inyarra emoteko, ak emoten tzo inyar gedxau oniño ostabe ortik, igetargidxek berari, ta ortik fuera, ba esa otena, ekusten dosu lañoa ta iñorako mobimenturi pes, eta geldi geldi te lañoak batera ta lañoak bestera, esteu aixie pe irebasi baya, tormentara emon dxok, tormenta tipora, seaitti se, ekusten dosu igual aixie andik dxo gure, ortik dxo gure, bidxetatik igual dxo gure, ta laño pikasoyek eta bueno, tormentie dau ba, da esate baterako, bariku sapatuetan leku baterakoak irebasten badeu, mayoridxe aixek ataraten deu, esate baterako emon deu bendebalak, bariku sapatuen, eguestenekoak igual emon deu iferrera, da bariku sapatuen bendebala, ba mayoridxe denpora eingo deu, urrungo iru illebeta barru onek gedxenetan, da euridxe ongo da" - (Gehienetan izaten da, ba, ez da pentsatzen baina gaueko ordu batetan da, puntu-puntu, bariazioa hor edukitzen duena haizeakaz, eguaztena, barikua eta zapatua, hiru egun dira, eta, ba horietan ba ordu

horixe hartu behar duzu, gaueko ordu batetan, kanpora irten, ja kanpo libre izan behar du, haizeak denak, eta inondik enbarazu barik, hartzeko moduan, eta beno iziotu zigarroa, eta gora begira, eta ke hura, norantz doa? harantz daroa, edo horrantz daroa, hegora edo ekialdera edo mendebaldera edo nora doa? eta beno, nora eroaten duen ordu batetan, hark haizearen norabidea kearena, beharbada eroaten du ekialdeko haizeak, edo eroaten du herriko haizeak, edo eroaten du mendebalak edo eroaten du iparrak, edo hegoak edo dena delakoak, eta beharbada ba egoten da, lainotuta, eta igarri ezina, haizerik ez, eta inorako eskina artez-arte gora, gero joaten handik lainoak, horretan begira egonda, iretargiaren, harantz edo horrantz, norantz, norabidean joan ziren lainoak, haize harexek alderdiak irabazi du egun hura, haizeak, kegaz bada, hura nora doan kea, harexek alderdikoak haizeak irabazi du egun hartan, hori da ba esaten baterako eguaztena, baina horietan hiruretan ere, eguaztenak dauka indarrik gutxiengoa, eta indar gehiago daukana da barikua eta zapatua, horiek dira, nagusi direnak, eta gehienetan, beharbada zapatura sartu iretargi barria, eta oraindino, norako indarra emateko, hark ematen dio indar gehiago oraindino ostera ere hortik, iretargiak berari, eta hortik kanpo, ba esan dudana, ikusten duzu lainoa eta inorako mogimenturik ere ez, eta geldi-geldi eta lainoak batera eta lainoak bestera, ez du haizeak ere irabazi baina, ekaitza eman dik, ekaitz erara, zeren, ikusten duzu beharbada haizea handik jo gura, hortik jo gura, bietatik beharbada jo gura, eta laino ziztadak eta beno, ekaitza dago ba, eta esate baterako, bariku sapatuetan leku baterakoak irabazten badu, gehienetan harexek aterako du, esate baterako eman du mendebalak, bariku sapatuan, eguaztenekoak beharbada eman du ekialdekoa, eta bariku sapatuan mendebala, ba gehienetan eguraldia egingo du, hurrengo hiru hilabete barru horiek gehienetan, eta euria egongo da)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Egunek beti ixetan dires, gaon eurreko, gaon egune ixetan da ogetalauen, ogetalauen eurretik ixen bi deu, askenengo sapatu bariku" - (Egunak beti izaten dira, gabon aurreko, gabon eguna izaten da hogeita lauan, hogeita lauaren aurretik izan behar du, azkenengo zapatu bariku)

siketie: sikatea

umedadie: umedadea

"Bakixu ser pasten dan? onetan baserrixetan, onek etziek umedadie dekie asko" - (Badakizu zer pasatzen den? baserri hauetan, etxe hauek umedadea daukate asko)

11.2. EURIA

arkoirixe: uztarkua

aterri: aterri

"Makiñetu kasureko, esta? da, egun bi edo iru eitten badeu aterrixte, ba asal ederra in dxako" - (Makinatu kasurako, ezta? eta, egun bi edo hiru egiten badu aterria, ba azal ederra egin zaio)

"Aterri in deidxola!" - (Aterri egin diezaiola)

aterrunie: aterrunea

basatzie: basatza

basie: basa

euri garoa: euri-garua

"Euri garoa on san" - (Euri garua egon zen)

euri lanparra: euri ugerra, euri lanbria, euri ziria

"Euridxe se se danien, euri lanparra da ori" - (Euria xehe-xehe denean, euri lanparra da hori)

euri saparradie: euri zaparrada

"Euri saparrada itzela in yeu" - (Euri zaparrada itzela egin du)

euri txistille: euri txiztila

euridxe: euria

"Ameti dator aixie, da onek seguru antzetik ekarri leike euridxe" - (Hamendik dator haizea, eta honek ziur antzean ekar lezake euria)

"Amen Sollube illun badator, e, bidxerko euridxe dau" - (Hamen Sollube ilun badator, biharko euria dago)

euritzie: euritza

lupetzie: lupetza

pustillie: puspulua

"Arek pustillek eitten badire, ba euri asko ingo deuela esaten dure" - (Puspulu haiek egiten badira, ba euri asko egingo duela esaten dute)

saparradie: zaparrada

sirimiridxe: ziri-miria

txilipristadie: zipiztada

txistille: txiztila, tanta

umedadie: hezetasuna

ur andidxe: uholdea, ur handia

uridxolie, udxubela: uriola

"Uridxolie dxoan or, karkabatan, uridxolak dxoasak" - (Uriola joan hor, karkabetan, uriolak zoazek)

11.3. EKAITZA

afrontue, afruntue: afrontua, aurrerik hara jotzen duen euria haizeagaz batera

"Afrontue bai, aixe andidxe dauenien, selako afrontue dau!" - (Afrontua bai, haize handia dagoenean, zelako afrontua dago!)

denporalie: denboralea, ekaitza

"Ardidxe be esun oten da, geldi geldi oten die ta, ostantzien badoas ortik gora, da or pillo pilloan badaus, de geldi badaus, denporalie seguru dau, egun bet edo bi barru denporalie seguru dau" - (Ardia ere ezagun egoten da, geldi-geldi egoten dira eta, osterantzean badoaz hortik gora, eta hor pilo-piloan badagoz, eta geldi badagoz, denborala ziur dago, egun bat edo bi barru denborala ziur dago)

galarrena: galarrena, galerna

"Galarrena bero larridxe dauenien da, ostien datorrena, galarrena orreri esaten dxako" - (Galarrena bero larria dagoenean da, ostean datorrena, galarrena horri esaten zaio)

iñestue, oñestue: ineztua

"Emen, e, iñestue ta dauenian, igual apurtuten deu au, olan da" - (Hemen, ineztua eta dagoenean, beharbada apurtzen du hau, holan da)

trugoi lañoa: trumoi lainoa

trugonadie: trumonada, ekaitz

"Trugonadie danien da, da geur gitxiau baya len geixoa dauenien, kandelie

ARRIETAKO HIZTEGIA

bistute san" - (Trumonada denean eta, eta gaur gutxiago baina lehen gaixoa dagoenean, kandela bizten zen)

trugoye, truboye: trumoia

"Kandelaridxo egunien? kandelak, gero trugoyek eta dienien, iñestuek eta trugoyek eta dienien ba bistu arek, oin be guk bistuten dus" - (Kandelario egunean? kandelak, gero trumoiak eta direnean, ineztuak eta trumoiak eta direnean ba biztu haiek, orain ere guk bizten ditugu)

"Trugoye dauenien bistute imintteko, eta umie ba negar da negar txikitten badau, a bereinketue dala, a be bistute imiñi, ba negar gitxiu in didxen, da orretako ixeta san" - (Trumoia dagoenean biztuta ipintzeko, eta umea ba negar eta negar txikitan badago, hura bedeinkatua dela, hura ere biztuta ipini, ba negar gutxiago egin dezan, eta horretarako izaten zen)

"Oloa esarritte arrotzakas dauenien be, abidxen aspidxen, askorie edo burdiñe satitxu bet, trugoyen kontrarako" - (Oiloa ezarrita arrautzakaz dagoenean ere, habiaren azpian, aizkora edo burdina zatitxo bat, trumoiaren kontrarako)

11.4. ELURRA-LEIA

arridxe: harria, inetasi handia

edur euridxe: elur euria, elur bustia

edur matasie: elur maluta

"Edur seye esaten dxako orreri, t'edurre parra parra dxausten danien edur matasie" - (Elur xehe esaten zaio horri, eta elurra parra-parra jausten denean elur maluta)

edurre: 1. elurra. 2. izotza

"Edurre in bi deuenien, emen Magaltzan ganien, emen Solluben, egoten da bals bals baltza, e? baltza!" - (Elurra egin behar duenean, hemen Magaltzaren gainean, hemen Solluben, egoten da beltz-beltz-beltza, e? beltza!)

edur seye: elur xehea

edurtzie: elurtza

freskurie: ihintza

garoa: euriaren osteko garaua, ihintza euri egin barik sortzen dena da; garaua, berriz, euri egin eta ostekoa

"Garoa dau geur itzela, da bedarri pe esi lei ebai eberdidxen" - (Garaua dago gaur itzela, eta belarrik ere ezin liteke ebaki eguerdian)

intze: ihintza

iñetasidxe: inetasia

"Gero gebonatarra asten bada txarra, mayetzeraño be iñetasidxe ta otza igual, edurre be bai" - (Gero gabonetara hasten bada txarra, maiatzeraino ere txingorra eta hotza beharbada, elurra ere bai)

"Eneroa febreroan, a, eitte baeuen, e, edo aixe bat edo iñetasidxe, edo olako sera, se itteuen? apurtu, apurtu itteuen galtzue, da burue dana dxausten da" - (Urtarril zezeilean, egiten bazuen, edo haize bat edo inetasia, edo holako zera, zer egiten zuen? apurtu, apurtu egiten zuen galtzua, eta burua dena jausten da)

kandele: elur kandela

"Oiñ esta itten kandelarik, kandelak eitteko, leitzek eta edurtzek andidxe bota bidire" - (Orain ez da egiten kandelarik, kandelak egiteko, leitzak eta elurtzak handiak bota behar dira)

kristela: kristala, ur potongoetan ura leitzea
"Poso baten kristel itzela itten da" - (Putzu baten kristal itzela egiten da)

ledxe, ladxe: leia

"Ledxe edo otzagas, denporagas, ba bertan usteldu, esteu produsiten" - (Leia edo hotzagaz, eguraldiagaz, ba bertan usteldu, ez du ekoizten)

lei baltza: lei beltza, ikusten ez den leia izaten da, baina ikusi ez arren lurra gogortu egiten du

"Lei baltzak dana erretan deu, patatie edo erneta badau be dana erretan deu, gero barridxen urtetan deu baya" - (Lei beltzak dena erretzen du, patata edo erneta badago ere dena erretzen du, gero berriro irteten du baina)

lei suridxe: lei zuria

"Bigunau edo lei suridxe esaten du" - (Bigunagoa edo lei zuria esaten dugu)

mantie: elur geruza

11.5. HAIZEA

aixe borraskadie: haize bolada

aixe golpie: haize kolpea

ARRIETAKO HIZTEGIA

aixe igerra: haize igerra

"Orduen esaten dxakon, o, ire pe, gustidzek, aixiek eroan bioskus, aixe igerra dau" - (Orduan esaten zitzaion, irak ere, guztiak, haizeak eroan behar dizkigu, haize igerra dago)

aixe lekue: haize lekua

aixetzie: haizetza

aixie: haizea

"Ori ixetan da aixe fuerte" - (Hori izaten da haize indartsua)

axetie: haizetea

bendabala, bendebala: mendebaldeko haizea

"Bendebala da umedade gedxen dekona" - (Mendebala da hezetasun gehien daukana)

bendebal axie: mendebal haizea

enbra aixie: hego haizea

erriko aixie: herriko haizea, hego haizea

"Len esan dune erriko aixie, au de aixe igerra" - (Lehen esan duguna herriko haizea, hau da haize igerra)

euntzaixie: iparra, ipar ekialdeko haizea

euntze illeko aixie: ekialdeko haizeari buruz esaten da

"Orrek aixe orrek euntze pe ilko lekes" - (Haize horrek ahuntzak ere hilko lituzke)

iferra: ekialdeko haizea, iparra

"Arek esateuen Uribarrireko, aixirik otzena au dala, iferra" - (Hark esaten zuen Uribarrirako, haizerik hotzena hau dela, iparra)

"Iferra otza ta sikue, nortie be, negu partien koxueskero edurre asko itteko igual, asko edurre iñ, da gero igual eitten deu iferra egun bet, orrek asko bota mantie, ta egun bi edo iru eiñ orrek dxo, da ganie leittu gero, da or egoten da luseroko edurre kendu barik" - (Ekialdekoa hotza eta sikua, iparra ere, negu aldean hartuz gero elurra asko egiteko beharbada, asko elurra egin, eta gero beharbada egiten du ekialdekoa egun bat, horrek asko bota geruza, eta egun bi edo hiru egin horrek jo, eta gaina leitu gero, eta hor egoten da luzeroko elurra kendu barik)

iferraixie, iperraixie: ekialdeko haizea

"Ametik, i, aixe gitxi, esaten tzie iperraixie, ori lei aixie ixetan da" - (Hamendik, haize gutxi, esaten diote ipar haizea, hori lei haizea izaten da)

"Ori ba len, e, seguruaia ixeta san, ba oin denporie pe esteko segurantza eserik, e, au iferraixie, edo, orkoa edo sartzen danien ba onek denpora ba, egun gedxauko sera eukitteuen, abanta gedxau" - (Hori ba lehen, ziurragoa izaten zen, ba orain eguraldiak ere ez dauka segurantza ezerik, ipar haize hau, edo, horkoa edo sartzen denean ba honek eguraldia ba, egun gehiagoko zera edukitzen zuen, iraupen gehiago)

itxosoko aixie: ipar haizea

korrientie: korrontea

lei aixie: lei haizea

mendebal aixie: mendebal haizea

"Afruntue, mendebalatik orti badator, mendebal aixie, afruntue dxauk itzela geur" - (Afruntua, mendebaletik hortik badator, mendebal haizea, afruntua zagok itzela gaur)

mendebala: mendebaldeko haizea

norteaixie, norteko aixie: ipar haizea

"Ameti dator, o, norte aixie, orrek edurre, iñetasidxe eta olako denporale gogorra, oiñ euri gitxikoa" - (Hamendik dator, ipar haizea, horiek elurra, inetasia eta holako denborala gogorra, orain euri gutxikoa)

nortie: ipar haizea

"Amen nortiek asko dxoten deu emetik betik norteko aixie dauenien emen beti otz oten da" - (Hamen iparrak asko jotzen du hemendik behetik iparreko haizea dagoenean hemen beti hotz egoten da)

"Iferra otzena da, nortie be otza da, baya iferra otzaua da, ifer naturala dauenien" - (Ekialdekoa hotzena da, iparra ere hotza da, baina ekialdekoa hotzagoa da, ekialde naturala dagoenean)

urriko aixie, urri aixie: urriko hego haizea

"Ori oiñ, ille onetan, bates be, da beorren sasoye, urri aixie" - (Hori orain, hil honetan, batez ere, eta berorren sasoi, urri haizea)

"Urriko aixiek entzute itzela deko" - (Urriko haizeak entzute itzela dauka)

11.6. LAINOA-HEDOIA

lañoa: lainoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

"*Laño batzuk egoten dire, da trugoye danién arek, serak, mendidxen punték sorrotzauak edo diferente, sera trugoi dxo bi deu edo*" - (*Laino batzuk egoten dira, eta trumoia denean haiek, zerak, mendiaren puntak zorrotzagoak edo desberdin, zera trumoi jo behar du edo*)

lanparra: lanparra

montor baltza: montor beltza

montorra: hedoi montorra, hedoi montorrak, euria dakarten hedoi beltz handiak

odedxe: hedoia, hodeia

sarrasoye: lainoa

"*Lañoa be beyen dauenien ba, sarrasoye itzela eoten da*" - (*Lainoa ere behean dagoenean ba, sarrasoia itzela egoten da*)

11.7. TEMPERATURA

bero armiñe: bero handia, larria

bero larridxe: bero larria, likina

beroa: beroa

"*Piperrak gure deu beroa*" - (*Piperrak gura dau beroa*)

freskoa: freskoa, hoztxoa

otza: hotza

"*Os dauenien kikildute nau edo*" - (*Hotz dagoenean kikilduta nago edo*)

sargoridxe: sargoria

txangorie: txangotada

12. ZERUA-ASTROAK

Atal honetan zerua eta astroei buruzko berbak batzen ditugu.

eguski argi: eguzki argia

eguskidxe: eguzkia

"*Senbat eta aixe gedxau, eguski gedxau artzen deuen, asko da fiñaua*" - (*Zenbat eta haize gehiago, eguzki gehiago hartzen duen, asko da finagoa*)

eguski gorridxe: eguzki gorria

eguski larridxe: eguzki larria

eguski txangorie, eguski txangoa: eguzki txangoa, eguzki txangota, sano berotzen duen eguzkialdia

gerispie: gerizpea

gerixie gerizea

goixeko ixarra: goizeko izarra

igetargi barridxe: iretargi berria

igetargi betie: iretargi betea

igetargidxe, iretargidxe: iretargia

"*Or dekosue gero igetargidxe laba ganien*" - (*Hor daukazue gero iretargia labe gainean*)

ilbera: ilbehera, kasu honetan aditzondoa da

"*Arek, e, ori enkarguori emoneskero, iltteuen beran sasoyen, ilberan, semendidxen, ilberan en jeneral*" - (*Hark, mandatu hori eman ez gero, hiltzen zuen beraren sasoiari, ilbeheran zemendian, ilberan gehienetan*)

"*Ortureko, kinpulie nei porrue nei olakoa pe, plantasiñoa da, asko obie ilberan*" - (*Orturako, kinpula nahi porrua nahi holakoak ere, landaketa eta, asko hobea ilbeheran*)

"*Asidxe erain bi de ilberan, inportantie ori de*" - (*Hazia erain behar da ilbeheran, garrantzitsua hori da*)

"*Lenau txarridxe ilberan iltte san*" - (*Lehenago txerria ilbeheran hiltzen zen*)

ilberie: ilbehera

"*Eraitteko ba beti, ilberie edo olako, bixeta san, a, asidxentzako da dana da obie ilberie*" - (*Ereiteko ba beti, ilbehera edo holako, behar izaten zen, hazientzat eta dena eta hobea ilbehera*)

ilgora: ilgora, kasu honetan aditzondoa da

"*Beste sera tiño, gorantza frutu emon bi deuen ilgoran erain bi dala*" - (*Beste zerak dino, gorantza fruitu eman behar duena ilgoran erein behar dela*)

ilgorie: ilgora

ixarra, ixerra: izarra

ixarratue: izarratua

"*Ixarratue dxauk*" - (*Izarratua zagok*)

koronie: koroa, iretargiak inguruan edukitzen duen argitasuna

"*Bai sein ye sera, koronie dan moduen batzuten eukitten deu*" - (*Bai zein da zera, koroa den moduan batzuetan edukitzen du*)

"*Kanbidxo dakarrela denporiek, igetargidxe tekola a koronie*" - (*Aldaketa dakarrela eguraldiak, iretargiak daukala koroa hura*)

karroa: karro handia, hartz handia

norteko ixerra: ipar izarra

ARRIETAKO HIZTEGIA

serue: zerua

txangorunekadie: txangota unekada

uregora: uren gora

13. INGURUNEA

Inguruneari buruzko berbak aurkezten dira atal honetan. Azpi-atalak herria, eraikinak, mendia, lurra-sorua, bideak, errekek eta itsasoa izango dira.

13.1. HERRIA

alkatie: alkatea

ausunie: auzunea

barriadie: auzotegia

barridxa: auzoa, auzotegia

"Madaridxa barridxa ori Arrietara allege baño apur bet ariñau artuten dana" - (Madaria auzotegia hori Arrietara ailegatu baino apur bat arinago hartzen dena)

"Gero Osiña barridxa an, ortusantutik bera dauena" - (Gero Osiña auzotegia han, ortusantutik behera dagoena)

erbestie: erbestea

"Etzien noberak eukitte be arekas dxoateko posik, erbestera dxoanda" - (Etxean norberak edukita ere haiekaz joateko pozik, erbestera joanda)

erridxe: herria

"Estaitx selako agintaridxe edo ser eon sien erridxen" - (Ez dakit zelako agintariak edo zer egon ziren herrian)

"B'ori, erririk erri ibil san orduen, se Fruisera be dxoan san da, ona be bai" - (Ba hori, herririk herri ibili zen orduan, ze Fruizera ere joan zen eta, hona ere bai)

eusoa: auzoa

"Gu dxoaten gara, kasureko, etor sare Arrietara esaten doskue, es, esaten tzaku guk, gu etor gara Libora, Arrietan bixi gara gu te" - (Gu joaten gara, kasurako, etorri zarete Arrietara esaten digute, ez, esaten diegu guk, gu etorri gara Libora, Arrietan bizi gara gu eta)

eusotidxe, eusoteidxe: auzotegia

"Oñ eusotidxen, e, alboko personien barridxe baño Txinen pasetan danana

igual ogoto ta ariñau dakixu" - (Orain auzotegian, alboko pertsonaren berria baino Txinan pasatzen denarena beharbada hobeto eta arinago dakizu)

"Au da Dxainko ta a da Arrieta, amekoak ariñau dxoango dire, Arrietara, Arrietakoak ona baño" - (Hau da Jainko eta hura da Arrieta, hamengoak arinago joango dira, Arrietara, Arrietakoak hona baino)

fabrikie: fabrika, beharlekua, lantokia

galipota: galipota, alkitrana

kalie: kalea

"Kalien daruenari ba, bai inyabie edo arrotzie edo, arrañen alderako emon, ba esan oten dirurik eta ba, batek arrañe emon da bestiek inyabie edo arrotzie edo, urune be bai taloa itteko ta olakoak eroaten txusen eurek" - (Kalean daroatenei ba, bai indaba edo arrautza edo, arrainen alderako eman, ba ez zen egoten dirurik eta ba, batek arraina eman eta besteak indaba edo arrautza edo, irina ere bai taloa egiteko eta holakoak eroaten zituzten eurek)

"Kale ba tau egon be, uriko moduen kale ba tau, da ondo iminye dau" - (Kale bat dago egon ere, huriko moduan kale bat dago, eta ondo ipinita dago)

kantoye: kantoia

konsejala: zinegotzia

pisue: solairua

plasia: plaza

uri eusoa: huri auzoa

"Aren etzie, Errigoitti ixen da beti, ba Arrietan egon da, d'orre tire uri eusoak" - (Haren etxea, Errigoitti izan da beti, ba Arrietan egon da, eta horiek dira huri auzoak)

uridxe: huria

"Sei taberna, bost bertan uridxen da bat emen, sei" - (Sei taberna, bost bertan hurian eta bat hemen, sei)

13.2. ERAIKINAK

abadetzie: abadetxea

"Amen, or goiko elixera, ba gure aitte defuntuek makiñe bat biar eitteuen, bateko abadetzien erretallie, besteko elixen erretallie" - (Hamen, hor goiko

ARRIETAKO HIZTEGIA

elizara, ba gure aita zenak makina bat behar egiten zuen, bateko abadetxearen erreteila, besteko elizaren erreteila)

aldetzie: baserria, etxaldea

"Aldetzie imintxen due eguski alderdire" - (Baserria ipintzen dute eguzki alderdira)

ardi kortie: ardi korta

ardi txabolie: ardi txabola

arkue: arkua

arkupie: arkupea

ayuntamentue **adxuntamentue:** 1. udaletxea. 2. udala

"Emen eusotidxen bedeatzi besino ixen siren, da euki euden ba, bat ayuntamentuek nonbreta euen kabo barrio, asiske arek eitte seittuen errekaduek, da an bidie txarto dau, a bidie arregletako ak abisetan badeu dxoan in bixeta san" - (Hemen auzotegian bederatzi auzo izan ziren, eta eduki zuten ba, bat udalak izendatzen zuen kabo barrio, halandaze hark egiten zituen mandatuak, eta han bidea txarto dago, bide hura konpontzeko hark abisatzen badu joan egin behar izaten zen)

barra: taberna

baserridxe: baserria

"Emen errotiegas bakarrik gitxi bixi ixen da beti itten dure baserridxe" - (Hemen errotiaz bakarrik gutxi bizi izan da beti egiten dute baserria)

"Baserri pobriek egon siren emetik" - (Baserri pobreak egon ziren hemendik)

baso erminttie: baseliza

botikie botika, farmazia

dendie: denda

"Ikusi, Gernikeko denda gustidxe ne, serak, restauranak, errigoittiarrena tire" - (Ikusi, Gernikako denda guztiak nahi, zerak, errestauranteak, errigoittiarrenak dira)

erriko tabernie: herriaren taberna

etzaldie: baserria

farmasidxe: farmazia, botika

fererridxe: burdinola

frontoye: frontoia

"Sarie euki euen itzela, frontoi ormien ganetik gora, da ak sariek aixe asko artu, da frontoi dana bota euen" - (Sarea eduki zuen itzela, frontoi hormaren gainetik

gora, eta sare hark haize asko hartu, eta frontoi dena bota zuen)

"An, a, len frontoyen atzien asko egote san" - (Han, lehen frontoiaren atzean asko egoten zen)

kantarillie: kantarila, estolda

"Eukitteuen, suloa sakon atara, da gero beko barrenetik, alako karkabatxue, kantarillie, andik purgetako edo estaitt ser ixeta san a" - (Edukitzen zuen, zuloa sakon atera, eta gero beheko barrenetik, halako karkabatxoa, kantarila, handik purgatzeko edo ez dakit zer izaten zen hura)

karnaseridxe, karniseridxe: harategia

kartzelie: kartzela

mataderoa: hiltegia

"Jentie mataderoan txala ilye ta kobreta etorten da" - (Jendea hiltegian txahala hilda eta kobratuta etortzen da)

panaderidxe: okindegia

pastore etzie: artzain etxea

pelukeridxe: ile apaindegia

peskaderidxe: arraindegia

plasia: plaza

tabernie: taberna

"Len berton ote san, e, jenero gustidxe berton ote san dana, asukerie, kafie, dana dana berton ote san, tabernetan, sei tabernatan ementxe ote san" - (Lehen berton egoten zen, jenero guztia berton egoten zen dena, azukrea, kafea, dena dena berton egoten zen, tabernetan, sei tabernatan hementxe egoten zen)

tejabanie: tejabana

"Gero etorte siren Bermioti tte Busturitti, ta San Martin dana pase arte berton, tejabanatan da lastatidxen da lo eta edonon lo, ta baya alegriek ixeta siren San Martiñek orduen, andidxe" - (Gero etortzen ziren Bermeotik eta Busturitik, eta San Martin dena pasatu arte berton, tejabanetan eta lastegian eta lo eta edonon lo, eta baina alaiak izaten ziren San Martinak orduan, handiak)

torrie: dorrea

"Ori torrie da einye, oiñ, sortzireun urte edo gedxau dekos orrek torriek, ta ori torrie, amen plasia ein yanien, egalien alan banku antzeko at euki uen, da kendu dxakon a banku antzekoa garbittako ta aiba! sera agertu sen, torrien siminyuek

ARRIETAKO HIZTEGIA

ageridxen, ba egon san egala bajatute da a banku egon san siminyuek tapetako" - (Dorre hori da eginda, orain, zortziehun urte edo gehiago dauzka dorre horrek, eta dorre hori, hamen plaza egin denean, hegalean halan jarleku antzeko bat eduki zuen, eta kendu zitzaion jarleku antzeko hura garbitzeko eta aiko! zera agertu zen, dorrearen oinarriak agerian, ba egon zen hegala bajatuta eta jarleku hura egon zen oinarriak tapatzeko)

txabolie: txabola

"Txabolarik estekot nik, baya ortan eukitxeitxue txabolak askok" - (Txabolarik ez daukat nik, baina horretan edukitzen dituzte txabolak askok)

13.3. MENDIA

aldasbera: aldasbehera

aldasgora : aldasgora

aldatzie: aldatsa

aldrapie: 1. troka pikea. 2. terrenoaren tontorra, altakurra

"An dau aldrapie!" - (Han dago aldrapa)

"A etzie dau aldrapan" - (Etxe hura dago aldrapan)

arbolartie: arbola-arte

are arridxe: hare-harria

"Are arridxe da sorrostuteko ona, a bestie, gogorra bada es, are arridxe, esan gurot, a total total bigune barik, apur bet, e, serien dana, gogortxuaua, a total gogorreidxe barik, a da sorrostuteko ona" - (Hare-harria da zorrozteko ona, beste hura gogorra bada ez, hare-harria, esan gura dut, guztiz-guztiz bigun hura barik, apur bat, zerean dena, gogortxoagoa, guztiz gogorregi hura barik, hura da zorrozteko ona)

arridie: harriada, harri zintarria

arridxe: harria

atxa: haitza

"Atxa tope ta atxan ganién dau ori einye" - (Haitza topatu eta haitzaren gainean dago hori eginda)

baju unedie: bajunada

barrankoa: troka

"Gero ibil sien emen, ortxe barrankoan, ba gure fameliko tartekoa san, basoa itzela, eta euki euen, aretxak, tantai itzelak" -

(Gero ibili ziren hemen, hortxe trokan, ba gure familia-artekoa zen, basoa itzela, eta eduki zuen, haritzak, tantati itzelak)

basakorta erdidxe: basakorta erdia

basakortie: basakorta

"Basakortie da bosteun gixelan" - (Basakorta da bostehun gizalan)

basartie: baso-arte

baserri karabidxe: baserri karabia

basoa: basoa, mendia

baso eskiñie: baso bazterra

bedar lekue belar lekua, larra

begadie: ibarra

begie: ibarra

beresidxe: berezia

"Mungidxe beresitan da urtetauela, emeko gixonak dxoan txalagas, esta? da txalan dirue artunde etorten sienien, Mungidxe beresitan urten, e, arek eta kentzen tziela dirue" - (Mungiako berezietan eta irteten zuela, hemengo gizonak joan txahalagaz, ezta? eta txahalaren dirua hartuta etortzen zirenean, Mungiako berezietan irten, hark eta kentzen ziela dirua)

burdiñ arridxe: burdin-harria

"Onek etziek erdidxe ingerue aixe burdiñ arridxe deko" - (Etxe honek erdia inguru huraxe burdin-harria dauka)

erri mendidxe: herri mendia

"Onek erri mendidxe, oin ya piñue taus baya lenau aspigarridxe ote san or, da aspigarridxe ebateko, besinoak, e, erridxeri ba emon eitte otzien, da erremata itteuden" - (Herri mendi hauek, orain ja pinuak dagoz baina lehenago azpigarria egoten zen hor, eta azpigarria ebakitzeke, auzoek, herriari ba eman egiten zioten, eta erremata egiten zuten)

ertza: ertza

eskutue: ezkutua

"Etze batzuk eskutuau dau, beste batzuk gedxau atrapetan dure, onek asko atrepetan deu aixie, orko eurrekoa dauenien emen esi lei egon be iñ" - (Etxe batzuk ezkutuago dagoz, beste batzuk gehiago harrapatzen dute, honek asko harrapatzen du haizea, horko aurrekoa dagoenean hemen ezin liteke egon ere egin)

espaldie malda

eurberie: aurbehera

ARRIETAKO HIZTEGIA

gatzarridxe: gatz-harria, ganaduari ematen zaiona mihizka dezan

"Gatzarridxe estxako esaten ganadueri emoten dxakon, e, arridxeri ela?" - (Gatz-harria ez zaio esaten ganaduari ematen zaion, harriari ala?)

irripie, erripie: erripa

"Leunien estaipa, leunien ei lei igual erdidxen iminye baya emekoa, basabis apur bet erripen, ixen bideu, dxoan bideu, katiek, katieas dxoan bideu, bueltetan dienien, ganaduek bueltetan dienien egalien, egaleko serien bueltetan dienien, a katie etorten da beko alderrire, beko alderritxik espadoa a estoa ondo" - (Leunean ez dakit ba, leunean egin liteke beharbada erdian ipinita baina hemengoa, bazabiltza apur bat erripan, izan behar du, joan behar du, kateak, kateagaz joan behar du, bueltatzen direnean, ganaduak bueltatzen direnean hegalean, hegaleko zerean bueltatzen direnean, katea hura etortzen da beheko alderdira, beheko alderditik ez badao hura ez doa ondo)

kantarie: harrobia

"Gorosiken daus kantara onak" - (Gorozikan dagoz harrobi onak)

karabidxe: karabia

"Karabidxe pe bai, karabidxe pe, ortxe be egon san bat karie erretakoa" - (Karabiak ere bai, karabiak ere, hortxe ere egon zen bat karea erretzekoa)

"Ori itxe suen Busturixik, Busturiko karabidxe on san da Busturixik ekarte suen, kamioyeas, ekarri txe karie bota, ba sarri emon tzaku geu pe soloari" - (Hori egiten zuten Busturitik, Busturiko karabia egon zen eta Busturitik ekartzen zuten, kamioiagaz, ekarri eta karea bota, ba sarri eman diogu geuk ere soroari)

karatxa: kare-haitza

"Karatxa bertan eukitteuden senbagure oniño an ongo da" - (Kare-haitza bertan edukitzen zuten zenbagura oraindino han egongo da)

kare arridxe: kare harria

kontrasola: ainubea, eguzkiak jotzen ez duen lekua

"Kontrasol alderriko talletu alderridxen andidxauak eitten sien, an dxausten dxausten leidxen da" - (Ainube alderdiko

teillatu alderdian handiagoak egiten ziren, han jausten-jausten leian eta)

kostie: itsasaldea, kostaldea

larrena: larraina, artifizialki egiten den zeharrunea

"Larrena esaten tzakun guk serien, e, larrena bai, ortxe larrena ixetie lentxik, aolan leunune bat basoari itxen dxakona, larrena, ortxe larrenien" - (Larraina esaten genion guk zerean, larraina bai, hortxe larraina izatea lez, haolan leunune bat basoari egiten zaiona, larraina, hortxe larrainean)

lekue: lekua

"Oin leku askotan kendu dire orrek, e? asko kendute daus orrek" - (Orain leku askotan kendu dira horiek, e? asko kenduta dagoz horiek)

lexie: leiza

"Lexie ba onek, e, urek eiñeko, serak, mendi bittartien, mendidxe goitti bera igual, ure sartzen da godxen, esta? ta betik aspittik igual urten, da an, a, arri bittartietan eitten dire suloak lexak, lexie esaten dxakon orreri" - (Leiza ba hauek, urak egineko, zerak, mendi bitartean, mendia goitik behera beharbada, ura sartzen da goian, ezta? eta behetik azpitik beharbada irten, eta han, harri bitartean egiten dira zuloak leizak, leiza esaten zitzaion horri)

mendidxe: mendia

"Txarridxe artun Baldatiken, Baldatike dau Gernike ganién, da emetik medirik mendi baserrixetatik etorte san txarri sera, bandatxue artun eurrien da, oñes" - (Txerriak hartu Baldatikan, Baldatika dago Gernika gainean, eta hemendik mendirik mendi baserrietatik etortzen zen txerri zera, taldetxoa hartu aurrean eta, oinez)

mendi lurre: mendi lurra

mundue: mundua

"Emen munduen danok ondo arregle biarrekoak gara, baya bat gorau paretan bada estau arreglurik, se a gorengo paretan danak abuse itten tzu" - (Hemen munduan denok ondo konpondu beharrekoak gara, baina bat gorago paratzen bada es dago konponketarik, ze hura gorengo paratzen denak abusatu egiten dizu)

ARRIETAKO HIZTEGIA

parajie: ingurunea

perdenala: sukarrria

"Perdenala au arri klase bat itten dxakona"
- (Sukarrria hau harri mota bat egiten zaiona)

piñuartie: pinu-arte

sakon unedie: sakon unada

sakostie: sakosta

"Sakostie esaten tzakun ba, baju unedie" -
(Sakosta esaten genion ba, baxu unada)

seledxe, seladxe: zelaia

sinttedidxe: zintudia, harizti luzenga

siporrie: zingira

"Sidxek urtetan deu, orrek arloan urtetan deu, ori ba siporrie, or ure dau" - (Zihiak irteten du, horrek arloan irteten du, hori ba zingira, hor ura dago)

"Urten eitten deu siporrien klaseko bedarrak" - (Irten egiten du zhiaren erako belarrak)

siporrunekadie: zihitza, zihitza unekada

sonbreidxe: ainubea

taluse: troka txikerra

tontorra: tontorra

trokie: troka

13.4. LURRA-SOROA

are lurre: hare-lurra

"Orrek, e, onentzakotzat les, orrek eta are lurrek, mendi lurrek badire are lurrek, orrek goikoa pe badire" - (Hauek, onentzakotzat legez, horiek eta hare-lurrak badira hare-lurrak, horiek goikoak ere badira)

"Are lurre ixen bi deu, lur erresa" - (Hare-lurra izan behar du, lur erraza)

"Gero Arrieta esta are lurre, baya Arrietan dau ori, toskie, da ori be da lur erresa, da or patatarako ta orrek godxek, e, onak ixetan die" - (Gero Arrieta ez da hare-lurra, baina Arrietan dago hori, toska, eta hori ere da lur erraza, eta hor patatarako eta goi horiek, onak izaten dira)

argana: hargaina

"Argana esate ako arri askoko lurreri" - (Hargaina esaten zaio harri askoko lurrari)

arloa: arloa

"Ostantzien biko lekie, arlo itzela bueltie emoteko" - (Osterantzean beharko lukete, arlo itzela buelta emateko)

barrena: barrena, behekaldeko zedarria soloetan

barrutidxe: barrutia

"Barrutidxe lantzarra da" - (Barrutia lantzarra da)

basa bustiñie: basa buztina

basatzie: basatza

baso lurre: baso lurra

bedarlekue: belar lekua, belardia

bekobarrena: beheko barrena

bustiñe lurre: buztin lurra

"Alboatara dxoaneskeiño dau ori bustiñe lurre, eta ori de, aro onien edo gusture koisten espaosu, lur gatxa manejetan, se ori bigunien artzen basu bolak eitten die, da a bolie gero apurtutie gatxa da" - (Alboetara joanez gero dago hori buztin lurra, eta hori da, aro onean edo gustora hartzen ez baduzu, lur gaitza maneiatzen, ze hori bigunean hartzen baduzu bolak egiten dira, eta bola hura gero apurtzea gaitza da)

bustiñie: buztina

egala: hegala

erreka lurre: erreka lurra

"Onena norberana, baya ostien kalidade modureko, nik estai pa, neuk seiñ elejiduko neken, onek beko lurre tire are lurrek, apur bet erreka lurrek, use itten direnak, onena tire, eta Arrietako alderdikoa pe bai, dire toska lurrek esan dun moduen" - (Onena norberarena, baina ostean kalitate modurako, nik ez dakit ba, neuk zein aukeratuko nukeen, beheko lur hauek dira hare-lurrak, apur bat erreka lurrak, erabili egiten direnak, onenak dira, eta Arrietako alderdikoak ere bai, dira toska lurrak esan dugun moduan)

ertza: ertza

fradue: belar lekua

galondoa: galondoa

godxena: goiena, soro burua

kadxuela lurre: kaiuela lurra

kadxuelie: kaiuela, lur mota bat

"Kadxuelie dau, ori, bai, kadxuela lurre, ori en jeneral, da, lur asko estau ortan, eta fiñe, euridxe asko eitten badeu lurrik onena, baya siketie baator ariñ igerri

ARRIETAKO HIZTEGIA

siketiek" - (*Kaiuela dago, hori, bai, kaiuela lurra, hori gehienetan da, lur asko ez dago horretan, eta fina, euria asko egiten badu lurrik onena, baina sikatea badator arin igarri sikateak*)

karkabie: karkaba

landa mintze: landare pisutsua, gaitza ebakitzeko baina azpigarri egiteko ona

landie: landa

"Landatan urteten duenak, bedarlekuetan da urteten duenak, kukufrakak" - (*Landetan irteten dutenak, belarlekuetan eta irteten dutenak, kukuprakak*)

lanperatue, lanberatue: lanberatua, landubako soroa, latz dagoena, soroa da eta ez lantzarra

"A lanperatue da, laborie emoten deu te, lanperatue esaten dxako areri, es lantzarra" - (*Hura lanberatua da, laborea ematen du eta, lanberatua esaten zaio hari, ez lantzarra*)

"Guk lanberatue esaten tzaku, soloa las badau, lanberatue, labreu bari tauelako" - (*Guk lanberatua esaten diogu, soroa latz badago, lanberatua, landu barik dagoelako*)

lantzarra: lantzarra

"Siporrie bai, lantzarretan be urtetan deu, ur asko lotzen dan lekuen, leunien edo olan sipor unekadak oten dire, basoatan da, baya lantzarrien esta oten, sipor unekadarik, es" - (*Zihia bai, lantzarretan ere irteten du, ur asko lotzen den lekuan, leunean edo holan zihia unekadak egoten dira, basoetan eta, baina lantzarrean ez da egoten, zihia unekadarik, ez*)

lur baltza: lur beltza

"Lur baltza gitxi usetan da, lur baltza gitxi dau amen, ostera bustiñe lurre" - (*Lur beltza gutxi usatzen da, lur beltza gutxi dago hamen, ostera buztina lurra*)

lur barridxe: lur berria

"Lur barridxe eiñ, lurre iñ atxurtute da, lur barridxe esaten dxako orreri" - (*Lur berriak egin, lurra egin aitzurtuta da, lur berria esaten zaio horri*)

lur gorridxe: lur gorria

lurmena: lurmena

lurre: lurra

mendi lurre: mendi lurra

munarridxe: munarria

"One teko ondo munarri baten barruen dana" - (*Honek dauka ondo munarri baten barruan dena*)

"Amen deku guk munarridxe, amen geure etzeondoan, Errigoitti sartzen da orraxaño" - (*Hamen daukagu guk munarria, hamen geure etxe ondoan, Errigoiti sartzen da horraxeino*)

mune ganie muna tontorra

munebarrena: muna barrena

munie: muna

"Orren ganera gero, igual dxeuste san mune bat, bidera, euri andidxe eitten seittusen da a libreu in bi da" - (*Horren gainera gero, beharbada jausten zen muna bat, bidera, euri handiak egiten zituen eta hura libratu egin behar da*)

okatza: solo zati txikerra

ortue: ortua

"Ortuen be bai eta leku askotan botate san" - (*Ortuan ere bai eta leku askotan botatzen zen*)

palatue: palatua, soroa mugatzeko karkaba bat ateratzen da eta bertatik aterako lurra mugatzat erabiltzen da

"Palatue edoselan selan eingo da ba? emeti munarritti ara, dxoten deu onek eta, antxe artes palatue" - (*Palatua edozelan zelan eingo da ba? hemendik munarritik hara, jotzen du honek eta, hantxe artez palatua*)

patatartie: patata-arte

pedernal lurre: sukarrri lurra

sanjie: lubana, lubakia

sarraduridxe, serradurie: zerratunea

sarratue: zarratua, barrutia

soloa: soroa

"A soloa itteko lenau, a, a ganekoa kendu itten dxakon da arek erre itten siren gero, pilloa" - (*Soro hura egiteko lehenago, gaineko hura kendu egiten zitzaion eta haiek erre egiten ziren gero, pilloa*)

solobarrena: soro barrena

solo eskiñie: soro bazterra

sologodxena: soro goiena

solo txankille: soro txantela, soro txankila, soro txikerra

solo txantela: soro txantela, soro txankila, soro txikerrari esaten zaio, gehienetan okatz baten dagoena izaten da

taketa: taketa

ARRIETAKO HIZTEGIA

"An egon da, an saldidxe egon dan ondoan, an taketien" - (Han egon da, han zaldia egon den ondoan, han taketean)

terrenoa: lur saila

"Terreno andidxe euki gendusen" - (Lur sail handiak eduki genituen)

toska lurre: toska lurra

"Onenak ya, kanbidxokoak, esta? toska lurrek eta, toska lurre, orreri fasillek, inyartzuek" - (Onenak ja, aldaetakoak, ezta? toska lurrak eta, toska lurra, horiei errazak, indartsuak)

toskariñe: toska arina

"Are lurre bi deu, lur ariñe bi deu, da emen gurien ba, toskariñe badeko pe, es solo danatan baya lantzien uneda baten, da toskariñe dan lekuen" - (Hare-lurra behar du, lur arina behar du, eta hemen gurean ba, toska arina badaukat ere, ez soro denetan baina lantzean uneda baten, eta toska arina den lekuan)

toskie: toska, lur mota bat

txantela: txantela, soro txikia

"Kasu baterako onek estoste emon gure niri emen, au txantela, emeti aunako txantela" - (Kasu baterako honek ez dit eman gura niri hemen, txantel hau, hemendik haonako txantela)

unedie, unadie: unada

unekadie: unekada

13.5. BIDEAK

arrilosie: harlauza

atajue: laster bidea

"Eta Errioittiko eleixie pe euki deu, beko seretik, urittik eta ataju moduen, eleixara bertara, ataju moduen, oin kamiñotxue inye dau, len, e, on san, oinbidien ganera, ba, sera, arridie, eskillera mallie ixetie les, arri losatxuek losatxuek, aretati pa peusu einye andik dxoateko" - (Eta Errigoitiko elizak ere eduki du, beheko zeretik, huritik eta laster bide moduan, elizara bertara, laster bide moduan, orain kaminotxoa eginda dago, lehen, egon zen, oinbidearen gainera, ba, zera, harriada, eskilera maila izatea legez, harlauzak harlauzatxoak, haietatik ba urrats eginda handik joateko)

basie: basa

baso bidie: baso bidea

basora bidie: basora bidea

bide eskiñie: bide ertza

bidegintzie: bidegintza

bide sidxorra: bide zidorra

bidie: bidea

"Ganera abadie datorrenien, bidien dausen etziek, ba dirueas urteten tzien abadieri" - (Gainera abadea datorrenean, bidean dagozen etxeak, ba diruagaz irteten zioten abadeari)

"Oin lenau bidie egon san lekuen dau piñue edo dau, satarredixe edo" - (Orain lehenago bidea egon zen lekuan dago pinua edo dago, zatarrerria edo)

"Gure etze albotik, doan bide bat, Mungidxetik Gernikerakoa da" - (Gure etxe albotik, doan bide bat, Mungiatik Gernikarakoa da)

erramadie: erramada, erromara

"Egurrekas eitten dana erramadie da" - (Egurraz egiten dena erramada da)

"Gure bedxek an kanpoan erramadie dekie olakas einye" - (Gure behiek han kanpoan erramada daukate oholakaz eginda)

errebueltie: bihurtzea

errege bidie, errebidie: errege bidea

"Entierru sibille itten seurienak eraten seurien errege bidetik" - (Lurpetze zibila egiten zutenek eraten zuten errege bidetik)

"Erregebide sapsi oiñ ixeten da, eta kamioyentzako istu ixeten dales estau pasorik" - (Errege bidea zazpi oin izaten da, eta kamioientzat estu izaten denez ez dago pasorik)

estratzie: estratza

"Euntzek ill in txusen orre pa, lenau, ortxe Magaltzan, an goirengo etzien, aulan on san estratza sakon bat, da an estratzara eskutunera, euntzek bajatu, eta ledxegas edurre, da edurregas gorano, estratzie betetu, da euntzek illeko estratzie esaten tzie areri" - (Ahuntzak hil egin zituen horrek ba, lehenago, hortxe Magaltzan, han goirengo etxean, haolan egon zen estratza sakon bat, eta han estratzara ezkutunera, ahuntzak bajatu, eta leiagaz elurra, eta elurragaz goraino, estratza bete, eta ahuntzak hileko estratza esaten diote hari)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Estratzie be igual ixengo da, errege bidetik igual seure basorako, partikular dauen paso bat" - (Estratza ere berdin izango da, errege bidetik beharbada zeure basorako, partikular dagoen pasabide bat)

galipota: galipota

gurpidie: gurpidea

"Arek marketa eukitteuden a unedie, ostantzien edonondik, amen be leku txarra egon san gurpidien, ba arek taka taka etorte siren" - (Haiek markatuta edukitzen zuten unada hura, osterantzean edonondik, hamen ere leku txarra egon zen gurpidean, ba haiek taka-taka-taka etortzen ziren)

kaltzadie: galtzada

"Esaten dxako, oinbidie dauen lekuen, ba peusuko peusuko, losatxuekas losatxuekas iminye kaltzadie" - (Esaten zaio, oinbidea dagoen lekuan, ba pausoko-pausoko, losatxoakaz-losatxoakaz ipinita galtzada)

"Egon da ontxe, untzurengo be, ontxe estaitt ya kendu bada baya, Urkidxolako badau andik, e, kaltzadie" - (Egon da oraintxe, oraintsurengo ere, oraintxe ez dakit ja kendu den baina, Urkiolarako badago handik, galtzada)

kamiñoa: errepidea

"Lenau etzietara biderik esan egoten, kamioye etorte san kamiñora, da kamioye amen beti begire euki barik, ser eitte san? eusotidxe abiseu, te igual sei edo sortzi burdi edo, ara" - (Lehenago etxeetara biderik ez zen egoten, kamioia etortzen zen kaminora, eta kamioia hamen beti begira eduki barik, zer egiten zen? auzotegia abisatu, eta igual sei edo zortzi burdi edo, hara)

"Bai atajuetatik ixeta san, se orduen kamiño kamiñorik es egoan, ba ori beko kamiño jenerala bai" - (Bai laster bideetatik izaten zen, ze orduan kamino kaminorik ez zegoen, ba hori beheko errepidea bai)

kamiño egala: kamino hegala, kamino bazterra

kurtzerue, kurtzie: bide gurutzea

"Aor dau, or kurtzeruen dau beste errota bat" - (Haor dago, hor bide gurutzean beste errota bat)

oinbidie: oinbidea

"Oinbidie lagunena da" - (Oinbidea lagunena da)

pasue, pasoa: pasabidea

pistie: baso bidea

silloa, suloa: zuloa

"Sillotxu bet imintxe san, d'ara sillora bota arek intxurrek" - (Zulotxo bat ipintzen zen, eta hara zulora bota haiek intxaurrak)

13.6. ERREKAK

erreka egala: erreka hegala, erreka ertza

"Erreka egalatan ibiltten dire orrek" - (Erreka hegaletan ibiltzen dira horiek)

erreka eskiñie: erreka bazterra

errekie: erreka

"Emetik errekie bakixu non dauen?" - (Hemendik erreka badakizu non dagoen?)

"Errekatan, len seuser ikuste san baya oiñ, e, estau, uri pestau te" - (Erreketan, lehen zer edo zer ikusten zen baina orain, ez dago, urik ere ez dago eta)

errekondoa: erreka-ondoa

itxurridxe: iturria

"Oin ya ure etzien deku, baya ur korriente len eskendun eukitten da, beko itxurrire dxoan bixeten gendun" - (Orain ja ura etxean daukagu, baina ur korrontea lehen ez genuen edukitzen eta, beheko iturrira joan behar izaten genuen)

karkabie: karkaba

korrientie: korrontea

manentia: iturburua

metal ure: metal ura

"Metal ure, gustu diferentie deko arek, da gorri gorri itxitxeuen katxarroa beragas ibiltxen dana be" - (Metal ura, gustu desberdina dauka hark, eta gorri-gorri uzten zuen katxarroa beragaz ibiltzen dena ere)

patiñe: patina

"Arrietako etze bate pe badeko patiñe" - (Arrietako etxe batek ere badauka patina)

posoa, posue: putzua

"Ure itxurridxen, an beyen egoten san da gero amen etzien euki gendun poso andi bet, eta edateko ekarten san da bestetarako poso andi bet ure, txikitxen esan egon amen etzien" - (Ura iturrian,

ARRIETAKO HIZTEGIA

han behean egoten zen eta gero hamen etxean eduki genuen putzu handi bat, eta edateko ekartzen zen eta besteetarako putzu handi bat ura, txikitan ez zen egon hemen etxean)

"Posoak eukitten gendusen or bat, berauan beste bat" - (Putzuak edukitzen genituen hor bat, beheragoan beste bat)

potxidxe, potxingoa: potxingoa

presie: presa, uharka

singerie: ur jausia, zingira

subidxe: zubia

ur gorridxe. metal ura

"Amen euki nuen neuk serra puntetxuegas eiñ pikadie, eta sekule pasetan es, sekule pasetan es ba, egon ta, ur gorridxe gatzagas egositte dala ona lenauko sarra pa esate suen, soldu eiñ esitteko, eiñ arexegas geu beten, da abanteu esiñ, geu gustidxen, esiñ abanteu, ta andittu, neargarridxen, urrungo goxien Krusesera dxoan bixi nuen, dxoa nitten, txarto dekosu atzamarra, tetano formeta dekosu" - (Hamen eduki nuen neuk zerra puntatxoagaz egin pikada, eta sekula pasatzen ez, sekula pasatzen ez ba, egon eta, ur gorria gatzagaz egosita dela ona lehenagoko zaharrek ba esaten zuten, zoldu egin ezteko, egin harexegaz gau baten, eta eutsi ezin, gau guztian, ezin eutsi, eta handitu, negargarrian, hurrengo goizean Gurutzetara joan behar izan nuen, joan nintzen, txarto daukazu atzamarra, tetano eginda daukazu)

13.7. ITSASOA

arie: harea

itxosoa: itsasoa

kostie: itsasaldea, kostaldea

marie bera: marea behera

marie gora: marea gora

"Itxosoa selan, e, marie gora, gora itten deu arek" - (Itsasoa zelan, marea gora, gora egiten du hark)

14. LANDARERIA

Landareria alorreko berbak ondoko azpi-ataletan banatuta aurkezten ditugu: arbolak, basa-landareak, ortuariak, fruituak, garia, artoa, belarra-zekaleak, landareen atalak, eta azkenik, jaso ditugun berba konposatuakaz, gainerakoak.

14.1. ARBOLAK

altza: haltza

ametza: ametza

"Aretxa, eta ametz aretxa dires diferentiek, aretxak bidxek baya diferentiek" - (Haritza, eta ametz haritza dira desberdinak, haritzak biak baina desberdinak)

ametz aritxie: ametz haritza, ametza

"Sagarra lakoak eitten dxakes ametz aretxari geixo bat ixetie les da a" - (Sagarra lakoak egiten zaizkie ametz haritzari gaixo bat izatea lez da hura)

arbolie: arbola

"Frutiek ta arboliek igual dekie ixena" - (Fruituak eta arbolak berdin daukate izena)

"Aretxa da arbolie" - (Haritza da arbola)

ares sinttie: haritz zintia, arteza den haritza

"Ares sinttie esaten dxako aretx artesari tte artes gora doanari" - (Haritz zintia esaten zaio haritz artezari eta artez gora doanari)

aretxa: haritza

"Aretxa egoten da gogor, untzie sartzen gatx egoten da" - (Haritza egoten da gogor, iltzea sartzen gaitz egoten da)

arkasidxe, askasidxe: arkazia

artie: artea

"Artie gogorra da ta sikue" - (Artea gogorra da eta sikua)

eukalitoa, eukelitrue, eukalitrue: eukalitua

gastañie: gaztaina

"Gastañek ixen bideu orretarako, mendubakoak, eta orretarikoak, amen lenau asko ote san gastañie, eta orrek, e, beran sasoi betera allegetan sirenien botaten seittuesan, ilberan edo olan ixeta san, se gastañie da, arbola bat, apartekotasun andidxe dekona, gastañie esaterako, beran sasoyen bota, eta

ARRIETAKO HIZTEGIA

estakatzatako esate baterako, estakak eitteko, deko apartekotasun bet andidxe, se estau, gastañien beste erresistentzi denporaldien kontra dekonik, amen nik esetuten dotenik beintzet, arkasidxe emoten tzo antz bat, baya gastañiek, esate baterako, or tejabanen eongo da oño estaka sarren bat edo, arek egongo dire oin be arridxe les, dxoan askoriegas eta ebateko, gogor, eta ostera gastañe arek, e, berdetan edo, ondoan ganiien dausenien, total bigun da, total bigune!" - (Gaztainak izan behar du horretarako, medabakoak, eta horietarikoak, hamen lehenago asko egoten zen gaztaina, eta horiek, beraren sasoi batera ailegatzen zirenean botatzen zituzten, ilbeheran edo holan izaten zen, ze gaztaina da, arbola bat, apartekotasun handia daukana, gaztaina esaterako, beraren sasoi bota, eta taketatzarako esate baterako, taketak egiteko, dauka apartekotasun bat handia, ze ez dago, gaztainaren beste erresistentzia denboraldiaren kontra daukanik, hamen nik ezagutzen dudarik behintzat, arkaziak ematen dio antz bat, baina gaztainak, esate baterako, hor tejabanen eongo da oraindino taket zaharren bat edo, haiek egongo dira orain ere harria legez, joan aizkoragaz eta ebakitzeko, gogor, eta ostera gaztaina haiek, berdetan edo, ondoaren gainean dagozenez, guztiz bigun da, guztiz biguna!)

gorostokidxe: gorostia

"Gorostokidxe total gitxi, se botatie be galarasota dau" - (Gorostia guztiz gutxi, ze botatzea ere galarazota dago)

gurbuxe, gurguxe: gurbitza

"Antxe dauena aixe da ori garuntxu gorridxe emoten deuen da beste bat gero gurguxe esaten dxakona, egote san, garun gorridxe emoten deuen, sein ye mallukidxen moduen emoten deuen" - (Hantxe dagoena huraxe da hori garautxo gorria ematen duena eta beste bat gero gurbitza esaten zitzaiona, egoten zen, garau gorria ematen duena, zein da mailukiaren moduan ematen duena)

intxurre: intxaurra

"Bertoko intxurre san ori, baltza, barrutik baltza agertute san, dan danak estie

ixetan baltzak, esta?" - (Bertoko intxaurra zen hori, baltza, barrutik baltza agertzen zen, den-denak ez dira izaten baltzak, ezta?)

lexarra, lixarra: lizarra

"Lixarra San Juan egunien amen portaleko atondoan nire gixonak imintten deu beti beti lorakas dxantzitte" - (Lizarra San Juan egunean hamen atariko ate ondoan nire gizonak ipintzen du beti-beti loreakaz jantzita)

olmoa: zumarra

pagoa: pagoa

piñue: pinua

"Erriko basoetan, e, piñue botaten bada, esate baterako, a egurre subasteu itteuden" - (Herriko basoetan, pinua botatzen bada, esate baterako, egur hura errematan egiten zuten)

"Gure gaste denporan egon san, geur proporsiños piñue dauen moduen edo gastañie" - (Gure gazte denboran egon zen, gaur proportzioz pinua dagoen moduan edo gaztaina)

sagatza, saratza: sahatsa

sinttie: arteza den haritza

tantadxe: tantaia

"Gure aitte defuntuek eitteuen, tantadxe eitten an beyen da, etzientzako kaperidxoak eta itteko ta, jo! aitte defuntue betik te ni goittik eta, goikoak gorantza inyar asko, baya berantzakoak beran pixueas ra! baya gorakoak, e, inyar asko in bi deu, esateuen ño! bierra gogorra sala ba" - (Gure aita zenak egiten zuen, tantaia egiten han behean eta, etxeentzako gapirioak eta egiteko eta, jo! aita zena behetik eta ni goitik eta, goikoak gorantza indar handia, baina beherantzakoak beraren pisuagaz ra! baina gorakoak, indar handia egin behar du, esaten zuen ño! beharra gogorra zela ba)

txopoa: txopoa

urkidxe: urkia

urretxie, urrutxie: hurritza, hurra

14.2. BASA LANDAREAK

aingeru lorie: aingeru lorea

arakatza: arakatza

ARRIETAKO HIZTEGIA

arrutze perretxikoa: arrautza perretxikoa

asune: asuna

bedarra: belarra

erañotza, ereñotza: ereinotza

"Ereñotza amarreu puntan da mondxorra" - (Ereinotza amarratu puntan eta teila boda)

"A eutze egosten dan lekure botate siren erañotza erramak eta, erañotza ta, ta arek an egosi, tte gero arek bota itte siren" - (Hauts hura egosten den lekura botatzen ziren ereinotza erramak eta, ereinotza eta, eta haiek han egosi, eta gero haiek bota egiten ziren)

erramue: erramu, ereinotza

erromerue: erromeroa

esne bedarra: esne belarra

estrakie: elorria

espata bedarra: ezpata belarra

gillurdiñe: gibelurdina

giñarrie: ginarra

idie, irie: ira

"Karga bat ire beti egote san etzien, esta? aren begire eskiñen egoten" - (Karga bat ira beti egoten zen etxean, ezta? haren begira ez ginen egoten)

indi gastañie: infu gaztaina

intzurridxe, insurridxe: huntzorria

iñurri ondokoa: inurri ondokoa

kabeliñe: krabelina

kanpo kañaberie: kanpo ginarra

kañaberie: kanabera

kardue: kardua

kardu latza: kardu latza

"Bat kardu latza da olan, inketan dana" - (Bat kardu latza da holan, inkatzen dena)

karraskillie: karraskila

kukufrakak: kukuprakak

kuku sagarra: kukusagarra

larrosie: larrosa

liñe: lihoa

"Liñeas biar eitteko, estai pa, gardak, da kardeu itte san" - (Lihoagaz behar egiteko, ez dakit ba, gardak, eta gardatu egiten zen)

luki bustena: luki buztana

"Luki bustena or dekot, inyerra emoteko gorputzeri be esaten dure" - (Luki buztana hor daukat, indarra emateko gorputzari ere esaten dute)

"Luki bustena bai, orrek erreka ondoan edo egoten dire, sein ye piñuen estilo serien,

e, luki bustena moduen ba, ser serratue dekenak" - (Luki buztana bai, horiek erreka ondoan edo egoten dira, zein da pinuaren era zerean, luki buztana moduan ba, zer itxia daukatenak)

mamukidxoa: mamukioa

"Mamukidxoa animalidxeri edo lenau emoten tzielakoa dekot" - (Mamukioa animaliei edo lehenago ematen zietelakoa daukat)

mantzanille: kamamila

"Mantzanille ixete san amengo, botikie, oten sana amen" - (Kamamila izaten zen hamengo botika, egoten zena hamen)

"Bai sarri, aixie edo putze esaten dxakona, sertun de, edo tripetako miñekas edo serien badabill, mantzanille sertunde, emon ganadueri tte sarri in tzakue" - (Bai sarri, haizea edo putza esaten zaiona, zertu eta, edo tripetako minakaz edo zerean badabil, kamamila zertuta, eman ganaduei eta sarri egin diegu)

masustie: masusta

mimena: mimena

"Gero podetan sanien amarretan mimenakas eitte san amarrie" - (Gero inauten zenean amarratzen mimenakaz egiten zen amarra)

mispillue: mizpila

odoldidxe: odoldia, goroldioa

"Da etor dxaten estai pa se sasoitten, agostuen ela nos ei ostan esatitt, etorri tte mende in bi usek orrek, ekarrun berak, e, beran, e, emoten deuen produziñoko seran punte, eta ebai, eta imiñi orrek mendeute, eta segas, e, tapetie gurok oin ba? oiñ, galipota edo ser ein bidxok orrek tapetako, pekorotza ela ser? ela basie ela bustiñe edo ser? keba! fasillena, odoldidxe" - (Eta etorri zitzaidan ez dakit ba ze sasoitan abuztuan ala noiz egin zidan ez dakit, etorri eta mendatu egin behar ditiagu horiek, ekarri zuen berak, beraren, ematen duen produzioko zeraren punta, eta ebaki, eta ipini horiek mendatuta, eta zegaz, tapatzea gura duk orain ba? orain, galipota edo zer egin behar duk horiek tapatzeko, behekorotza ala zer? ala basa ala buztina edo zer? bai zera! errazena, odoldia)

onkoa: ondoa

orma bedarra: horma belarra

ARRIETAKO HIZTEGIA

osabedarra: osa belarra

"Osabedarrak, talletuetan, amen berton be esetute dekotas, tallien ganién, talletu ganién, tallien imiñi, eta antxe konserbeta san, t'orrek penie ote sanién koxu a bedarra, da ganeko asaltxu fin fiñe kentze dxakon areri" - (Osa belarrak, teilatuetan, hamen berton ere ezagututa dauzkat, teilaren gaineán, teilatu gaineán, teilan ipini, eta hantxe kontserbatzen zen, eta horiek mina egoten zenean hartu belar hura, eta gaineko azaltxo fin-fina kentzen zitzaion hari)

otabarra: otabarra

otie: otea

"Orduen ebate san ota asko, oiñ otubre ingeruen, artoak batu itten dire, artoak, soloatako artoak, labasuetarako, orduen gasteta san ota asko" - (Orduan ebakitzen zen ote asko, orain urri inguruan, artoak batu egiten dira, artoak, soroetako artoak, labasuetarako, orduan gastatzen zen ote asko)

patena: batana

"Arexetan sertun, de aixe bota, surteko eutze da orrek nasteu, erañotza patena da orrek, da gero ganetik a bota erropari" - (Haiexetan zertu, eta huraxe bota, surteko hautsa eta horiek nahastu, ereinotza batana eta horiek, eta gero gainetik hura bota arropai)

perretxikoa: perretxikoa

"Perretxikoa les inkeu, ta gatxa da kentzen be" - (Perretxikoa lez inkatu, eta gaitza da kentzen ere)

saldi bedarra: zaldi belarra

sanbedarra: zain belarra

"Sanbedarra pai, orre pe ba useta siren, sein ye enplastu edo einye, edo serak, eridek edo olako seratan" - (Zain belarrak bai, horiek ere ba usatzen ziren, zein da enplasto edo eginda, edo zerak, zauriak edo holako zeretán)

"Sartenien edo, oridxo aputxu beteas edo, bigundu deittesan sanbedarrak, eta gero imiñi" - (Zartagineán edo, olio apurtxo bategaz edo, bigun daitezen zain belarrak, eta gero ipini)

san jose lorie: san jose lorea

san juan lorie: san juan lorea

sapo bedarra: zapo belarra

sasiartie: sasi-arteá

sasidxe: sasia

sasi larrosie: sasi larrosa

sastrakie: sastraka

"Sastrakie arbola ser ba ta ori, pintxoá tekosena, sastraka" - (Sastraka arbola zer bat da hori, arantzak dauzkana, sastraka)

saukue: saukua

sidxe: zihia

siporra bedarra: zihi belarra

takokidxe: traustekia

txanpiñoye: txanpinoia

txarri okarana: txirri okarana

"Txarri okarana txikitxue da, basokoa da ori mendebakoa" - (Txirri okarana txikitxoa da, basokoa da hori mendabakoa)

txibiritie: txiribita

txori kardue: txori kardua

"Txori kardue beste bata, e, soloatan egoten dana a, bastante andidxe" - (Txori kardua beste bat da, soroetan egoten dena hura, nahiko handia)

usturidxe: uzturia, mihura

14.3. ORTUARIAK

aranbarren: patata mota bat

arbidxe: arbia

"Arbidxe da bestie" - (Arbia da bestea)

aselgie: azelga, zerba

asie: aza

"Asatara be pasten dire olakoak" - (Azetara ere pasatzen dira holakoak)

autodatie: patata mota bat

baba andidxe: baba handia

baba txikerra: baba txikerra

"Baba txikerra baba andidxe, da badaus klasiek, goixaukoa beluaukoa" - (Baba txikerra baba handia, eta badagoz motak, goizagokoa beluagokoa)

babie: baba

"Ganaduek, odola deko orrek otz, babie emon, da odola bistu odola berotu" - (Ganaduak, odola dauka horrek hotz, baba eman, eta odola biztu odola berotu)

bañie, bañie: leka

"Bai esate baterako asidxe teko kotxo klase bat, da inyabak beste klase bat eukitten due, inyabak, baiñe pe bai, olan kotxo txikitxue" - (Bai esate baterako haziak

ARRIETAKO HIZTEGIA

dauka kotxo mota bat, eta indabek beste mota bat edukitzen dute, indabek, lekek ere bai, holan kotxo txikitxo)

baraka: patata mota bat

"Guk geuk oiñ, asken partien etzien, e, baraka gastetan du etzerako" - (Guk geuk orain, azken aldian etxean, baraka gastatzen dugu etxerako)

berakatza: berakatza

"Ekarrixu berakatza" - (Ekar ezazu berakatza)

berako iderra: beherako ilarra

berako inyabie: beherako indaba

"Beti beti usetan du guk gorakoa, paluetan edo artoari ba amarretan tzo goraño, eta bueno ba gedxau artzeko jenero, esan gurot, se berakoa pai, eukitten deu jenero a pe ondo badau, kargeute, baya gorakoak eitten deu ser gedxau, teka gedxau asten deu" - (Beti beti usatzen dugu guk gorakoa, makiletan edo artoari ba amarratzen dio goraino, eta beno ba gehiago hartzeko jeneroa, esan gura dut, ze beherakoak bai edukitzen du jeneroa hark ere ondo badago, kargatuta, baina gorakoak egiten du zer gehiago, zeruka gehiago hazten du)

berdurie: berdura

bitor: patata mota bat

erremolatxie: erremolatxa

"Erremolatxie egosi, da gero, apurtu apurtu in ye artoa nasteu, arto garune, edo urune, da osalie" - (Erremolatxa egosi, eta gero, apurtu-apurtu egin eta artoa nahastu, arto garaua, edo irina, eta osala)

erretako piperra: erretzeko piperra

esparragoa, esparrague: esparragoa, zainzuria

"Udebarridxen, or, e, marti ingeruen da, sur ibilli, asko dxatzu brotetan da, da brotetan an puntetxue, eta a brotetxue daun lekuen kendu lurre, da gero kutxillotxueas tast! ebai, da ostabe barridxen suabe suabe kargeute itxi lurre, an emoteuen, senbat sakonau dekosun emoteuen esparragoa lusiaua" - (Udaberrian, hor, marti inguruan eta, zuhur ibili, hasiko zaizu ernetzen eta, eta ernetzen han puntatxoa, eta ernekatz hura dagoen lekuan kendu lurra, eta gero kutxilotxoagaz tast! ebaki, eta ostera ere

berriro suabe-suabe kargatuta utzi lurra, han ematen zuen, zenbat sakonago daukazun ematen zuen zainzuria luzeagoa)

gatxa: gaitza

"Seuser gatxa euki deu arek" - (Zer edo zer gaitza eduki du hark)

gorako iderra: gorako ilarra

gorako inyabie: gorako indaba

"Ba estakixu, seuk eskatukoa bada espada, se an klasietakoa tatos da igual gorakoa edo berakoa, erain ye gero, igual guixen dosu gorakoa ta urten tzu berakoak" - (Ba ez dakizu, zeuk eskatukoa den ez den, ze han motatakoak datoz eta beharbada gorakoa edo beherakoa, erein eta gero, beharbada gura izan duzu gorakoa eta irten dizu beherakoak)

gorriñe: gorrina

"Ori be geroau te gatxau, kontaminasiñoaittik, edo gorriñe, gero ta gatxau dau emen" - (Hori ere geroago eta gaitzago, kutsaduragatik, edo gorrina, gero eta gaitzago dago hemen)

iderra: ilarra

"Iderrak, beti koisten dus urte gustietan" - (Ilarrak, beti hartzen ditugu urte guztietan)

indidxabie, inyabie: indaba

"Andik ekarten du bai naboa ta bai inyabie be bai" - (Handik ekartzen dugu bai arbia eta bai indaba ere bai)

"Eta inyaba pe ba, bestetarikoak bardiñ, gorridxe ta baltzien be, igual igual daus, gorridxe, baltza" - (Eta indabak ere ba, besteetarikoak berdin, gorria eta beltzean ere, berdin-berdin dagoz, gorria, baltza)

"Indidxabieri, asa barridxe txikittu txikittu te ure kendu te sartu, de indidxabie ote san goso" - (Indabari, aza berria txikittu-txikitu eta ura kendu eta sartu, eta indaba egoten zen gozo)

inyaba asala: indaba azala

"Arek, e, ameti pe sarri eroan txus ak, inyaba asalak, arexek, e, egositte ta ure edateko" - (Hark, hamendik ere sarri eroan ditu hark, indaba azalak, haixek, egosita eta ura edateko)

inyaba baltza: indaba baltza

"Esate baterako guk emen pase dan urtien kanbidxe du, da ekar du Nabarnistik, au inyaba baltza" - (Esate baterako guk

ARRIETAKO HIZTEGIA

hemen pasatu den urtean aldatu dugu, eta ekarri dugu Nabarniztik, indaba beltz hau)

inyaba gorridxe, indidxaba gorridxe: indaba gorria

"Egurdidxen lapikoa jeneralien lenaukoak, lapikoa ixeta san indidxaba gorridxe" - (Eguerdian lapikoa gehienetan lehenagokoek lapikoa izaten zen idaba gorria)

inyaba suridxe: indaba zuria

kalabasi: kalabaza

"Kalabasi ta erremolatxie, erremolatxie obeto da, e, ganadue lodittuteko, esnerako kalabasi da obeto" - (Kalabaza eta erremolatxa, erremolatxa hobeto da, ganadua loditzeko, esnerako kalabaza da hobeto)

kinpule gorridxe: kinpula gorria

kinpule suridxe: kinpula zuria

kinpulie: kinpula

"Es gorakoa ta berakoa, gorakoa da, ba, sera itten danien, garatu itten dan moduen artoa, idxoten deu, ba, kasu beterako klase txarra bada, kinpuliek gora idxoten deu klase txarra danien, ikusten da igual, e, ba inyertzu kinpule, ta ño! orra ta ra! asireko formasiñoa iñ" - (Ez gorakoa eta beherakoa, gorakoa da, ba, zera egiten denean, garatu egiten den moduan artoa, igotzen du, ba, kasu baterako mota txarra denean, ikusten da igual, ba idartsu kinpula, eta ño! horra eta ra! hazirako zila egin)

koniflora, koliflora: azalorea

"Koniflora bai baya koniflora baño gedxau asa oridxo" - (Azalorea bai baina azalorea baino gehiago aza-olioa)

letxugie: letxuga

"Orrek berde txikitxue tie orrek letxugetan ta oten dienak" - (Horiek berde txikitxoak dira horiek letxugetan eta egoten direnak)

"Gero be etor san ba, letxugie ta gatza dxaten diela ta Jesus! arraro itten dxakun, gatzagas dxatie" - (Gero ere etorri zen ba, letxuga eta gatza jaten direla eta Jesus! arraro egiten zitzaigun, gatzagaz jatea)

naboa: arbia

"Naboa be esate baterako, ganaduek dxateko da, etxako inportantzidxe

emoten, ba naboa etzien koixuten lusero badabill, baya dejenereu itten da" - (Arbia ere esate baterako, ganaduak jateko da, ez zaio garrantzirik ematen, ba arbia etxean hartzen luzero badabil, baina degeneratu egiten da)

ortuaridxe: ortuaria

"Kinpule klasiek? ori ni paño, asuntu ori, se gu pa, ortuaridxen eskara orrenbeste au sonie dediket" - (Kinpula motak? hori nik baino, gorabehera hori, ze guk ba, ortuarian ez gara horrenbeste inguru hau dedikatzen)

patata gorridxe: patata gorria

patata suridxe: patata zuria

patatie: patata

perejille: perrexila

"Bueno eraiñ eitten da, guk etzien berton koixuten du, bera perejille ya sarra itten danien berak emoten deu asidxe" - (Beno erein egiten da, guk etxean berton hartzen dugu, bera perrexila ja zaharra egiten denean berak ematen du hazia)

piper gorridxe: piper gorria

"Enkargeta san txala asteko, esta? ori ixeta san nobienbrien, semendidxen, orduen eitte san txala, se gero lenau oingo moduen esan egoten, e, ori, orduen emoten dxakon, gatza, eta gero eukitte san askan ainbet denporan, eta gero ba, bueno emoten dxakon beran tratamientue, kendu gatza, garbittu aputxu bet, gero pernille edo, piper gorridxe, piper gorridxe onetarikoa, e? ori emon ganetik eta, imintte siren eskegitte" - (Enkargatzen zen txahala hazteko, ezta? hori izaten zen zemendian, zemendian, orduan egiten zen txahala, ze gero lehenago oraingo moduan ez zen egoten, hori, orduan ematen zitzaion, gatza, eta gero edukitzen zen askan hainbat denboran, eta gero ba, beno ematen zitzaion beraren tratamendua, kendu gatza, garbitu apurtxo bat, gero pernila edo, piper gorria, piper gorria hauetarikoa, e? hori eman gainetik eta, ipintzen ziren eskegita)

piper lodidxe: piper lodia

"Txorixerue ixetan da siketuten dune ta bestie ba piper lodidxe" - (Txorizerua izaten da sikatzen duguna eta bestea ba piper lodia)

ARRIETAKO HIZTEGIA

piperra: piperra

"Piperrak erreten sirenien, bertan laban lelenge erre, bota labara, dauen moduen garbitxu bota, eta antxe erre, momentuen eitxen dire" - (Piperrak erretzen zirenean, bertan labean lehenengo erre, bota labera, dagoen moduan garbitu bota, eta hantxe erre, momentuan egiten dira)

"Nik eraitteko etzat beittuten piperrak tte imintteko, era danien" - (Nik ereiteko ez diot begiratzen piperrak eta ipintzeko, era denean)

piper sikue: piper sikua

"Gatza artzeko, egun batzutan itxi in bi dxako bertan, da gero a gatza artzen deuenien ataraten dosu te garbi garbi in, siketute imiñi tte piper sikue emon edo piper barik segun selan akostunbretan dan" - (Gatza hartzeko, egun batzuetan utzi egin behar zaio bertan, eta gero gatz hura hartzen duenean ateratzen duzu eta garbi-garbi egin, sikatuta ipini eta piper sikua eman edo piper barik segun zelan usatzen den)

piper txorixerue: piper txorizerua

"Bueno orrek, e, ya piper txorixeruek siketute beres dekies, barruko arek kendu, eta, nosonos umedadie euki badue paper baten imiñi sabal sabal sabal apur bet siketute arte, gero gorde" - (Beno horiek, piper txorizeruek sikatuta berez dauzkate, barruko haiek kendu, eta, noiz edo noiz umeltasuna eduki badute paper baten ipini zabal-zabal-zabal apur bat sikatu arte, gero gorde)

porrue: porrua

sabina: patata mota bat

senaoridxe: azenaoria

"Senaoridxe bai, urte gustietan etzien beti koixuten du" - (Azenaoria bai, urte guztietan etxean beti hartzen dugu)

serjen: patata mota bat

tenpranie: patata mota bat

tolosana andidxe: tolosar handia

tolosana txikerra: tolosar txikerra

tolosanie: indaba tolosarra

"Tolosanie, txikerra ta andidxe taus orre pe, txikerra esate baterako, berakoa ta gorakoa, tolosanie amarretan dana" - (Tolosana, txikerra eta handiak dagoz horiek ere, txikerra esate baterako,

beherakoa eta gorakoa, tolosana amarratzen dena)

tomatie: tomatea

"Tomatie botilletan imintxe san" - (Tomatea botiletan ipintzen zen)

"San Martiñ eurretik, e, jeneralmentien, tomatie beti akabetan da emoten, beres akabetan da" - (San Martin aurretik, gehienetan, tomatea beti amaitzen da ematen, berez amaitzen da)

txakur asie: txakur aza

"Bueno asitterako bai, ortarako be bai, txakur asie esaten tzu orreri" - (Beno hazitarako bai, horretarako ere bai, txakur aza esaten diogu horri)

txorixerue: txorizerua

"Txorixerue ixetan da, siketuten dune, da bestie piper lodidxe, piper lodidxe esaten tzu, bestie gorri tropie" - (Txorizerua izaten da, sikatzen duguna, eta bestea piper lodia, piper lodia esaten diogu, bestea gorri dorpea)

14.4. FRUITUAK

agostu madaridxe: abuztu madaria

asta matza: asta mahatsa

"Asta matza ba matza san ori, sein ye moskatel matza ixetie les, garun andidxe kas da serak, mordak orre pe andidxe" - (Asta mahatsa ba mahatsa zen hori, zein da moskatel mahatsa izatea legez, garau handiakaz eta zerak, mordak horiek ere handiak)

boskantoye: bost kantoia, sagar mota bat

"Boskantoye euki ot, da boskantoye galdu dxat a be" - (Bost kantoia eduki dut, eta bost kantoia galdu zait hura ere)

errañetie: erreineta

etze mallukidxe: etxe mailukia

freskue: freskoa, milikota

"Freskuek onek garratzaua tiresenak" - (Freskoak hauek garratzagoak direnak)

"Gero freskue be bai, frenkue pe daus, e, sein ye onek, oiñ etorten dien onek" - (Gero freskoa ere bai, freskoak ere dagoz, zein da hauek, orain etortzen diren hauek)

frutie: fruitua

"Botiken porasus dabis koisten askotan lenau, edosein frute sagar madari ingeru

ARRIETAKO HIZTEGIA

gustidxe ote sien, eta eser eser, gitxi gitxiges, nosipeiñ igual ondoatan, kare bixidxeas edo ein ye pode edo olako bat eiñ, eta erres koxute san frutie ta sanoa, d'oiñ, ba botikien porasus" - (Botikaren podazuz dabilta hartzen askotan lehenago, edozein fruitu sagar madari inguru guztiak egoten ziren, eta ezer-ezer, gutxi gutxigaz, noizean behin beharbada ondoetan, kare biziagaz edo egin eta inausi edo holako bat egin, eta erraz hartzen zen fruitua eta sanoa, eta orain, ba botikaren podazuz)

garagarrilleko ikoa: iko mota bat

"Garagarrillekoa be badaus, oiñ esteku, etzien euki du garagarrillekoa be bai, madaridxe lako andidxe itten da, baltzundu itten dienak" - (Garagarrillekoa ere badagoz, orain ez daukagu, etxean eduki dugu garagarrillekoa ere bai, madaria lako handia egiten da, baltzitu egiten direnak)

gasa sagarra: sagar mota bat

gastañie: gaztaina

ikoa: ikoa

ikopasie: ikopasa

intxurre: intxaurrea

"Eurten entzun dot intxurretan be badaola ori, intxurretan arra ta emie imin bidiela" - (Aurten entzun dut intxaurretan ere badagoela hori, intxaurretan arra eta emea ipini behar direla)

kaballo kerixie: zaldi gerezia

"Kaballo kerixie esaten tzena bat, baya estaitt ixena esateko moduen" - (Zaldi gerezia esaten diotena bat, baina ez dakit izena esateko moduan)

kana sagarra: kana sagarra

"Kana sagarra galdu dxat" - (Kana sagarra galdu zait)

kanpanillie: madari mota bat

kerixie: gerezia

"Kerixe pe ya galdu in dires emen sonan da" - (Gereziak ere ja galdu egin dira hemen inguruan eta)

"Neuri gedxen gustetan dxaten frutie orixe da barres, kerixie" - (Neuri gehien gustatzen zaidan fruitua horixe da berriz, gerezia)

kibidxe: kibia

"Ba nik amen, aor dekoas kibidxe, erosi asidxe, koixu etzien dxateko frutie ta ba,

ainbeste serak urteten deu, imin yoas gero, ta arbola itzela, itzela! loran be, bete bete bete, bapes fruterik, ser da? ta danak arrak antza edo, es arrak ixen direlako, espadase mendeu in biar da" - (Ba nik hamen, haor dauzkat kibiak erosi hazia, hartu etxean jateko fruitua eta ba, hainbeste zerak irteten du, ipini ditut gero, eta arbola itzela, itzela! loran ere, bete-bete-bete, bat ere ez frutarik, zer da? eta denak arrak antza edo, ez arrak izan direlako, ezpadaze mendatu egin behar da)

klaudia: klaudia, okaran mota

kutxillo madaridxe: kutxilo madaria

laranje, naranje: laranja

"Mutikotan euki gendun ortxe, elispe kantoyen ondoan, naranja ederra, da limoye alboan elduten bestzien isten, d'eukitte sitxuen, se arbola andidxe san, arek eukiko euen igual, e, danatara tonelada erdi naranja bai igual, baya eskandalu eukitteuen!" - (Mutikotan eduki genuen hortxe, elizpe kantoiaren ondoan, laranja ederra, eta limoia alboan heltzen ere ez zioten uzten, eta edukitzen zituen, ze arbola handia zen, hark edukiko zuen beharbada, denetara tona erdi laranja bai beharbada, baina asko eukitzen zuen!)

larrabetzu sagarra: larrabetzu sagarra

limoye: limoia

"Limoyek urte osoan emoten due" - (Limoiak urte osoan ematen du)

madaridxe: madaria

makatza: makatza, madari mota

mallukidxe: mailukia

mas baltza: mahats beltza

mas suridxe: mahats zuria

mastidxe: mahastia

"Mastidxe leku bitten eukitten gendus en emen betik eta bestetik" - (Mahastiak leku bitan edukitzen genituen hemen behetik eta bestetik)

matza: mahatsa

"Guk geuk, e, matza ta asko euki gendus en" - (Guk geuk, mahatsa eta asko eduki genituen)

melokotoye: milikota, freskoa

"Gurien melokotoye taus, gorri gorridxe, orrek, enbotekoak, orre pe badaus, da batzu taus asul gorridxe barrutik, asul

ARRIETAKO HIZTEGIA

gorridxe tienak, beste batzu taus, e, ba naranja kolorekoa tienak" - (Gurean milikotak dagoz, gorri-gorriak, horiek, enbotatukoak, horiek ere badagoz, eta batzuk dagoz urdin-gorriak barrutik, urdin-gorriak direnak, beste batzuk dagoz, ba laranja kolorekoak direnak)

okarana, okerana: okarana

okaran baltza: okaran beltza

okaran gorridxe: okaran gorria

okaran klaudia: okaran klaudia

okaran pasie: okaran pasa

sagar gorridxe: sagar gorria

sagarra: sagarra

san juan makatza: san juan madaria

san juan sagarra: san juan sagarra

"Oin lenaukoa taus, urdin sagarra, gasa sagarra, boskantoye, e, larrabetzu sagarra, san juan sagarra, orre pe klasie taus, gorridxe ta suridxe" - (Orain lehenagokoak dagoz, urdin sagarra, gaza sagarra, bost kantoia, larrabetzu sagarra, san juan sagarra, horiek ere motak dagoz, gorria eta zuria)

san pedro sagarra: san pedro sagarra

san martiñeko ikoa: iko mota bat

"Onek san martiñekoak, onek bestiek, elduten dire ointxe, ille onetatik eta datorren illera" - (San martineko hauek, beste hauek, heltzen dira oraintxe, hil honetatik eta datorren hiler)

santiago madaridxe: santiago madaria

sidiridxe: sidiri madaria

txapelikoa: iko mota bat

"Agosturesko ya, txapelikoak goixetikoak asten dire elduten, garagarrillekoa ariñau, a elduten da, ba garagarrillen" - (Abuzturazkero ja, txapel ikoak goizetikoak hasten dira heltzen, garagarrillekoa arinago, ba garagarrilean)

txarri okarana: okaran txikerra

urdin sagarra: urdin sagarra

urretxie, urrutxie: hurritza

urtebetie: urte bete, sagar mota bat

"Urtebetie ta urdin sagarra badekotas lengoak oniño" - (Urte betea eta urdin sagarra badauzkat lehengoak oraindino)

14.5. GARIA

arrilosie: garia jotzeko harria

asidxe: hazia

"Gorde itten da baya, eitten du, ba esate baterako urte biri bat edo olan, kanbidxe itten du asidxe" - (Gorde egiten da baina, egiten dugu, ba esate baterako, urte birik bat edo holan, aldatu egiten dugu hazia)

birsaidxe, birsadxe: birzahia

"Birsadxe da, lelango apartetan da, urune da sadxe, da gero barridxen, e, pasekeran, a birsadxe ba seyaua, an lotzen da ostabe serien" - (Birazhia da, lehenengo bereizten da, irina eta zahia, eta gero berriro, pasakeran, birzahi hura ba xeheagoa, han lotzen da ostera ere zerean)

bixer garidxe: bizar garia

bixerbako garidxe: bizarbako garia

bixerbakoa: bizarbakoa, gari mota bat

"Bata bixerdune esaten dxakona, da beste bat egon sana, bixerbakoa, bi, klase bi, ba emen enjeneralien, bixerrik estekona, sera, eitte san eraiñ" - (Bata bizarduna esaten zitzaiona, eta beste bat egon zena, bizarbakoa, bi, mota bi, ba hemen gehienetan, bizarrrik ez daukana, zera, egiten zen erein)

bixerra: bizarra

burue: galburua

errusoa: errusiarra, gari mota bat

"Errusoa be bai, ori ba febrero marso eldu itte san" - (Errusiarra ere bai, hori ba zezeil marti heldu egiten zen)

frantzes: gari mota bat

"Emen gari txikitxue itte san, gero etor san, a, unekada baten, e, gari frantzes edo dala ta, bastante garun andidxe" - (Hemen gari txikitxo egiten zen, gero etorri zen, unekada baten, gari frantzes edo dela eta, nahiko garau handia)

galeutze, galutze: galautsa

"Galeutze da, a ganeko asala" - (Galautsa da, gaineko azal hura)

"A, gero galutze esaten dxakon areri, a burue, garunen ganiien dekona, sera, a gero, makiñien paseta san eskus, erainye, antxe paseu de garbittu te gero errotara eroan, edo ba, ganadueri edo ba, dana aprobetxeta san etzien" - (Hura, gero galautsa esaten zitzaion hari, buru hura, garau gainean daukana, zera, hura gero,

ARRIETAKO HIZTEGIA

makinean pasatzen zen eskuz, eraginda, hantxe pasatu eta garbitu eta gero errotara eroan, edo ba, ganaduari edo ba, dena aprobetxatzen zen etxean)

galtzue: galtzua

"Ori bota gero, tiñekure bota, ur epela apur bet bota ta galtzue bigun bigun eitten da, da gero artoan urune" - (Hori bota gero, tinakora bota, ur epela apur bat bota eta galtzua bigun-bigun egiten da, eta gero artoaren irina)

"Aregas ebate san galtzue" - (Haregaz ebakitzen zen galtzua)

"Ganaduentzat dxateko txarra, ganadueri emon galtzu moduen da estule itten tze ta, oin be ikusten da, galtzue datorrenien, olako asko badau, txarra" - (Ganaduentzat jateko txarra, ganaduei eman galtzu moduan eta eztula egiten die eta, orain ere ikusten da, galtzua datorrenean, holako asko badago, txarra)

galtzu txolie: galtzu txola

gari bixerra: gari bizarra

gari burue: gari burua

garidxe: garia

"Garidxe asko eraitxe san lenau, da gero ogidxe be etzien eitxen gendun labasu einye" - (Garia asko ereiten zen lehenago, eta gero ogia ere etxean egiten genuen labasua eginda)

"Bai garidxe, geu pe eraitten ixen du te" - (Bai garia, geuk ere ereiten izan dugu eta)

"Garidxe urte asko, dala, emen akabe sala" - (Gariak urte asko, dela, hemen amaitu zela)

gari dxo: gari jo

"Gari dxoten bai, gari dxoten, e, ba eusoak, en jeneral, a, lagunten tzien batak bestieri, geur batena urrengoan beste batena, lagundu itte san" - (Gari jotzen bai, gari jotzen, ba auzoek, gehienetan, laguntzen zien batak besteari, gaur batena hurrengoan beste batena, lagundu egiten zen)

gari dxotie: gari dxotzea

gari ebatie: gari ebakitzea

gari txolie: gari txola

gari urune: gari irina

garune: garaua, alea, bihia

"Or be ikusten da se kanpotik ekarten dienak emengoa paño garun andidxauak eta ederrauak, eta ba seuser badau diferentzidxe" - (Hor ere ikusten da ze kanpotik ekartzen direnek hemengoek baino garau handiagoak eta ederragoak, eta ba zer edo zer badago desberdintasuna)

kosetxie : uzta

lodoje: lodoia

metie: meta

"Metie gero ostabe, txola ya igual ba, dxoteko aro iñ arte eukitten gendun metak einye, euridxe ingo baleu beyen ganién, txolie estosu itxiko ta, ba metatxuek einye, ta igual arorik es, da denpora txarra, meta andidxau eitte san gero ostabe, imiñi meta txikidxorrek ein meta andidxe, sakatu sakatute, igual meta bakotxak bost anega igual eukitten sitxuen" - (Meta gero ostera ere, txola ja beharbada ba, jotzeko aro egin arte edukitzen genuen metak eginda, euria egingo balu behearen gainean, txola ez duzu utziko eta, ba metatxoak eginda, eta beharbada arorik ez, eta eguraldi txarra, meta handiagoa egiten zen gero ostera ere, ipini meta txiki horiek egin meta handia, sakatu-sakatuta, beharbada meta bakoitzak bost anega beharbada edukitzen zituen)

motxorroa: gari mota bat, bizarbakoa

"Emen ba ondoen, motxorroa esaten dxakona, garune ederra, ta beste ba tau bixerdune, a bixerdune txarra se, noberantzako be eskuartien txarra san a, kiñeu!" - (Hemen ba ondoen bizarbakoa esaten zitzaiona, garaua ederra, eta beste bat dago bizarduna, bizardun hura txarra ze, norberarentzako ere esku artean txarra zen hura, kinatu!)

saidxe, sadxe: zahia

"Nik estakit, iños entzun dot nik, e, sartenien oridxoagas estait ser arrotza prijidu, arrotza gorringoa bota edo, estait ser bota, ta gero eiñ enplastu aregas, sadxegas, da a imiñi gero" - (Nik ez dakit, inoiz entzun dut nik, zartaginean olioagaz ez dakit zer arrautza frijitu, arrautza gorringoa bota edo, ez dakit zer bota, eta gero egin enplasto hategaz, zahiagaz, eta hura ipini gero)

ARRIETAKO HIZTEGIA

txolie: txola

"Txolak emen besartien imiñi, eta urrutu itxen giñen danak, ta dxantzi jerse batzuk edo ta arexekas" - (Txolak hemen beso artean ipini, eta urratu egiten ginen denak, eta jantzi jertse batzuk edo eta haiekaz)

14.6. ARTOA

artaberdie: artaberdea

artaburue: artaburua

"Gero arek elduten sien artaburuek, artaburue batzuten batu eitxen gendun guk" - (Gero haiek heltzen ziren artaburuak, artaburua batzuetan batu egiten genuen guk)

artagarune, artogarune: artagaraua

"Artogarunen be itten tzo serriñe lakoa ataraten tzo" - (Artagaraua ere egiten dio zerrautsa lakoa ateratzen dio)

artasuritzek: artazuritzea

artoa: artoa

"Pentzu ona dalako ixengo da ori, artoa pe asko berotu itten deuela esaten deude" - (Pentsu ona delako izango da hori, artoak ere asko berotu egiten duela esaten dute)

"Oño ba, lantzen leku baten koisten dure, esta? baya, oiñ etxako emoten inportantzirik, idxe artoagas iñok esteu biarrik eitten" - (Oraindino ba, lantzean leku baten hartzen dute, ezta? baina, oraindino ez zaio ematen garrantzirik, ea artoagaz inork ez du beharrik egiten)

artoartie: arto-arte

arto bixarra, arto bixerra: arto bixarra

arto dxorra: artajorra

arto garune: artagaroa

arto esie: arto hezea

arto igerra: arto igerra

"Pikeu, batzutan bai, asko inkeu badxako, batzutan bai, da beste batzutan, ba, kendu a artoa, gero bota arto igerra, igerraua, igerrau dauen bat eta arek libretan deu, libretan deu arek, se ori, ariñau, lelengo, lotzen dxako pikeute, arin badau, da gero istu imintten baosu, orduentxe itten dxako ori" - (Pikatu, batzuetan bai, asko inkatu bazaio, batzuetan bai, eta beste batzuetan, ba,

kendu arto hura, gero bota arto igerra, igerragoa, igerrago dagoen bat eta hark libratzen du, libratzen du hark, ze hori, arinago, lehenengo, lotzan zaio pikatuta, arin badago, eta gero estu ipintzen baduzu, orduantxe egiten zaio hori)

arto lastoa: arto lastoa

"Artolastoa artaburueas lotzen da" - (Arto lastoa artaburuagaz lotzen da)

arto lupue: artalupua, artoaren gaixoa

"Arto lupuek orre tires, e, usteldu moduen oten da olan" - (Artalupuak horiek dira, usteldu moduan egoten da holan)

arto putze: arto putza

arto sotoa: arto sotoa

"Arto sotoak, satora itten bada, edo ostantzien, illedara, edo eixias ba kalera itten dan moduen, edo markadoraas markeute eraitten da kaletara" - (Arto sotoak, satora egiten bada, edo osterantzean, ilarara, edo exagaz ba kalera egiten den moduan, edo markadoragaz markatuta ereiten da kaletara)

astoa: astoa; artoa garantzeko ipurdia zuloz beterik zeukan kaxa bat erabiltzen zen; bertan artaburuak sartu eta mazu bategaz jotzen ziren, kaxan burutxak lotzen ziren eta garaua ipurdiko zuloetatik jausten zen

bixerra: bizarra

burutxie: burutxa

dxorrie: jorra

garie: gara, txola, artoak burutu baino lehen edukitzen duen lora antzekoa

"Lelengo garie, sestokadak batuten gendusen guk!" - (Lehenengo garia, zarankadak batzen genituen guk!)

"Garie da goiko punterengoa, asten deuena, a garie da, batzuk ganaduek dxateko, len eskas len ote sales, lelengo tak! gara batu itten tzen, urtenbarridxen dxateko gosoa dala txalantzako, loditeko" - (Gara da goiko puntarengoa, hazten duena, hura gara da, batzuek ganaduek jateko, lehen eskas lehen egoten zen legez, lehenengo tak! gara batu egiten zioten, irtenberrian jateko gozoa dela txahalantzako, loditzeko)

garune: garaua

"Ori en jeneral orretan, a, lurretan, a, ori artoa koisten ixen da, da ori artoa da emen edxoten ixen doten nik fiñena, gero

ARRIETAKO HIZTEGIA

badaus artoak beste garun andidxena tekosenak arto onak are pe, esta? baya asala gedxau" - (Orain gehienetan horietan, lurretan, arto hori hartzen izan da, eta arto hori da hemen ehotzen izan dudana nik finena, gero badagoz artoak beste garau handienak dauzkatena arto onak haiek ere, ezta? baina azala gehiago)

gernike artoa: gernika artoa

"Gernike artoa da andidxaia, au muxike artoa edo gernike artoa" - (Gernika artoa da handiagoa, hau muxika artoa edo gernika artoa)

kapaxie, kapaixe: sapa

"Papelik es igual, sigarroa beraas kapaixear eñ, imiñi bere tamañuen da ya keye! ke baltza" - (Paperik ez beharbada, zigarroa beragaz sapagaz egin, ipini bere tamainuan eta ja kea! ke beltza)

lastagana: lastagaina, txola

"Ya anditten doasela? lastagana, batzuk lelen go garie kentzen tzie da gero lastagana bestie" - (Ja handitzen doazela? lastagaina, batzuk lehenengo gara kentzen diote eta gero lastagaina bestea)

lastoa: lastoa

"Lastoa igertuten sanien, eitten siren pilloak" - (Lastoa ihartzen zenean, egiten ziren piloak)

lasto trongoa: lasto enborra

lupue: lupua, artoaren gaixoa

"Lupue, olako baltzune bat eroaten deuen buruen kontrako artoak" - (Lupua, holako baltzune bat eroaten duena buruaren kontra artoak)

muxike artoa: muxika artoa, arto mota bat

txarakiñ artoa: txagin artoa

"Txarakiñ artoa, ori de garun txikerraua bestie baño" - (Txagin artoa, hori da garau txikerragoa bestea baino)

txarakiñe: txagina

"Mamiñe txarakiñek gedxau deko" - (Mami txaginak gehiago dauka)

"Txarakiñe da, emen parajien, e, ori asko koiste san len, ori garbi txikitxue, artaburue be aulakoa txikitxue, burutxie aulakoa, meye, da ori artorik fiñena dauena" - (Txagina da, hemen inguruan, hori asko hartzen zen lehen, hori garba txikitxoa, artaburua ere haolakoa

txikitxoa, burutxa haolakoa, mehea, eta hori artorik finena dagoena)

14.7. BELARRA-ZEKALEAK

alfafie: alfalfa

"Igual, a, alfafiek durretan batzu iru lau urte, ba ya a lurre deskantzeta lotzen da" - (Beharbada, alfalfak irauten badizu hiru lau urte, ba ja lur hura deskantsatuta lotzen da)

allurbie: ailorba

"Allurbie edo eraitten bada, ordun ba derrigor ein biosu, arlo ba tabixune, deskantzu emon tzu bide bates" - (Ailorba edo ereiten bada, orduan ba, derrigor egin behar duzu, arlo bat darabilzuna, deskantsu eman diogu bide batez)

askidxe: askia, aski belarra, belar txarra

"Askidxe beste bat, txarra orixe be!" - (Askia beste bat, txarra horixe ere!)

ballikoa, ballejoa: belar mota bat

"Eraikeran usetan da, alfafieri berari be eitten tzie batzuk, lelen go kortie oten dales makal, da ebateko gorputz apur bet euki didxen, eraitten dako oloa edo ballejoa, edo seuser olan, e, edo garidxe be igual eitten da nastien, da euki didxen sutunik" - (Eraikeran usatzen da, alfalfari berari ere egiten diote batzuek, lehenengo ebakia egoten denez makal, eta ebakitzeko gorputz apur bat eduki dezan, ereiten zaio oloa edo bailikoa, edo zer edo zer holan, edo garia ere beharbada egiten da nahastean, eta eduki dezan zutunik)

bedarra: belarra

"Sekule bedarra edo alfafie eraitten dosu da orduen imintten dosu bedarrera" - (Sekula belarra edo alfalfia ereiten duzu eta orduan ipintzen duzu belarrara)

bermio bedarra: bermeo belarra, txomin belarra, belar txarra

"Txarrak asko kontetan dus, bermio bedarra bat" - (Txarrak asko kontatzen ditugu, bermeo belarra bat)

erpegorridxe: erpegorria, belar txarra

"Erpegorridxe, erpie botaten deu, erpe gorri gorridxe, sakon, atara esiñ" - (Erpegorria, erpea botatzen du, erpe gorri-gorria, sakon, atera ezinik)

ARRIETAKO HIZTEGIA

erpoi bedarra: arpoi belarra, belar txarra
"Erpoi bedarra dau beste bat, jo! au be txupoye bada ba!" - (Arpoi belarra dago beste bat, jo! hau ere xurgatzailea bada ere!)

errosaridxo bedarra, erresaridxo bedarra: errosario belarra, belar txarra
"Erresaridxo bedarrak emoten deuen estilokoa, bedarra emoten deu gora, baya itten deu beyen sepa itzela, erpes bete bete beterik olan! ataraten deu lurre, lurre dana, baitte siminyue be agarretan badeu erpietan, da ataraten gatxa da, esta ona inñondi pe aixe be, erpoi esaten tzaku guk erpoi bedarra" - (Errosario belarrak ematen duen erakoa, belarra ematen du gora, baina egiten du behean ondo itzela, erpez bete-bete-beterik holan! ateratzen du lurra, lurra dena, baita porlana ere hartzen badu erpeetan, eta ateratzen gaitza da, ezta ona inondik ere huraxe ere, apoi esaten diogu guk arpoi belarra)

frantzes: frantzes
"Esaterako erain biar bada sekule bedarra, erain biar bada frantzes, edo erain biar bada gero, geroko isteko jenero bat, ba asatza derrigorrekoa da, dxakitoko, frantzes apur be gora bera igerte san, se frantzes eraitte san lenau, dxorratu lenengo, bota naboa eurrera, naboa, artoartera, eta gero atxurre paseu, ta gero frantzes ganera" - (Esaterako erein behar bada sekula belarra, erein behar bada frantzes, edo erein behar bada gero, geroko uzteko gauza bat, ba azatza derrigorrekoa da, jakiteko, frantzes apur bat gora behera igartzen zen, ze frantzes ereiten zen lehenago, jorratu lehenengo, bota arbia aurrera, arbia, arto artera, eta gero aitzurra pasatu, eta gero frantzes gainera)
"Sekule bedarra ona da, baya a baño obarik es, frantzes da onena" - (Sekula belarra ona da, baina hura baino hoberik ez, frantzes da onena)

frantzes bedarra: frantzes belarra

garagarra: garagarra
"Garagarra emen, e, esta, au sonie esta garagarrekoa, inños batzuk igual puebarako eraingo suen baya ostien es" - (Garagarra hemen, ez da, alderdi hau ez

da garagarrekoa, inoiz batzuek beharbada probarako ereingo zuten baina ostean ez)

ider baltza: ilar beltza

"Ider baltza ba ganaduena da, ori da garune, sein ye iderra, badaki ser dan? arexen modukoa baltza, ganaduentzako, ori eraitte san ba, or ba udegodxenien, da gero udebarridxen dxan" - (Ilar beltza ba ganaduarena da, hori da garaua, zein da ilarra, badaki zer den? harexen modukoa beltza, ganaduarentzako, hori ereiten zen ba, hor ba udagoiengan, eta gero udaberrian jan)

laborie: laborea

"Koxuten du denetariko laborie, e?" - (Hartzen dugu denetariko laborea, e?)
"Gure soloa or, sera da, bustidxe, freskoa, da aittik laborie emoten deu ona" - (Gure soroa hor, zera da, bustia, freskoa, eta hargatik laborea ematen du ona)

oloa: oloa

"Kasureko, batek gure badeu erain sekule bedarra, edo oloa edo beste jenero bat, eser estauen lekuen, orduen bai asatzak eitten siren" - (Kasurako, batek gura badu erein sekula belarra, edo oloa edo beste gauza bat, ezer ez dagoen lekuan, orduan bai azatzak egiten ziren)
"Oloa be eraitten da, esate baterako, allurbiegas, allurbie ba bera dxeusten dales andi ikeran, eusteko olo banaka bat imiñi aren kontra arrimuen, dxeusi estidxen" - (Oloa ere ereiten da, esate baterako, ailorbagaz, ailorba ba behera jausten denez gero handi egikeran, eusteko oloa banaka bat ipini haren kontra ondoan, jaus ez dadin)

sebadie: garagarra

"Oin ya ikusten da, galtzue be, bakotxak, e, garidxena barik, e, sebadiena ekarten da, asko obeto, asko obeto da se bigunau de" - (Orain ja ikusten da, galtzua ere, bakoitzak, gariarena barik, garagarrarena ekartzen da, asko hobeto, hasko hobeto da ze bigunagoa da)

sekule bedarra: sekula belarra

"Sekule bedarra oin ya urte biresko ya galdu itten da" - (Sekula belarra orain ja urte birazkero ja galdu egiten da)

trebola: trebola

ARRIETAKO HIZTEGIA

txomin bedarra: txomin belarra, belar txarra

"*Idxe idxe daus txomin bedarras beteta eskiñe gustidxe*" - (Ea ea dagoz txomin belarraz beteta eskina guztiak)

uste bedarra: uztai belarra, belar txarra

"*Gero badaus onek, a, uste bedarra, a pe asidxe ta erpie ta txupetan deu asko*" - (Gero badagoz hauek, uztai belarra, hark ere hazia eta erpea eta xurgatzen du asko)

14.8. LANDAREEN ATALAK

adxena: aihena

allie: aila

arantzie: arantza

"*Sasidxen moduen arek arantzak eta sera pe eukitten ttus orrek*" - (Sasien moduan hark arantzak eta zerak ere edukitzen ditu horrek)

"*Arantza tekos orrek, basoatan oten da baya, leku gitxitten*" - (Arantzak dauzka horrek, basoetan egoten da baina, leku gutxitan)

arapoa: lakatza

"*Erramatik lotzen da, a, ser bat, gogorraua arapoa*" - (Abarretik lotzen da, zer bat, gogorragoa lakatza)

"*Arapoa, erramiek nondik urten deuen arapoa*" - (Lakatza, abarrak nondik irten duen lakatza)

asala: azala

asidxe: hazia

astie: piperren asta

astillie: ezpala

atala: atala

brotie: ernekatza, pipila, begia

burue: burua

egurre: egurra

"*Selan edo alan egurreas edo bitxartie, egurre sartzen tzen, igual bakixu tamañu andidxe badau egurre olan goitxi bera ta gero areri len esan dune olan*" - (Zelan edo halan egurragaz edo bitartea, egurra sartzen zioten, beharbada badakizu tamainu handia badago egurra holan goitik behera eta gero hari lehen esan duguna holan)

eperdidxe: ipurdia, arbolak botata lurtean lotzen dena

erpie: erpa, sustraia

"*Erpie ondo bako, piperra beroaittik esta galtzen, baya ostien, ostxu itten badeu piperra gorritu itten da*" - (Erpa ondo badauka, piperra beroagatik ez da galtzen, baina ostean, hoztxo egiten badu piperra gorritu egiten da)

"*Egurrek danak, e, da asko be egur nobliu eta obie ataraten due, erpie erdikoa ebai eskero, egurrek berak, e, trasplanteckeran, txikitten, ebai erpie, da orduen ixetan da, ba, sabidxe eta idxen biarrien erditetik gora, ta erditetik erramak urten biarrien egaletara, alboko erpietatik gedxau, alboatatik urtetan deu asko be geroa ta obie*" - (Egurak denak, da asko ere egur nobleagoa eta hobea ateratzen dute, erpea erdikoa ebakiz gero, egurak berak, aldatukeran, txikitan, ebaki erpea, eta orduan izaten da, ba, urak eta igan beharrean erditatik gora, erditatik abarrek irten beharrean hegaletara, alboko erpeetatik gehiago, alboetatik irteten du asko ere geroago eta hobea)

erramie: adarra

"*Onek, lantzien sortzi urteri beiñ edo, a egurre ganekoa saldu itteuen, da bota, kapeu arbolak, eta errama bat itxi ontara, da gero andik, bosgarren edo seigarren urtien barridxen emoteuen ak ostabe, da a egurre saldu*" - (Honek, lantzean zortzi urterik behin edo, egur hura gainekoa saldu egiten zuen, eta bota, kapatu arbolak, eta errama bat utzi honetara, eta gero handik, bosgarren edo seigarren urtean berriro ematen zuen hark ostera ere, eta egur hura saldu)

errepolloa: burua

"*Txakur asie esaten tze orreri, se badaus batzuk, errepollo inye oten dire mardo mardoak, beste batzuk orridxe kendute goraño, are pe asidxe emoten deu, batzuk eukitten deurie ba ganadueri ba, orridxe gedxau aprobetxeta emoteko dxaten, edo txarri edo koneju edo olan dekonari edo*" - (Txakur aza esaten diote horri, ze badagoz batzuk, burua eginda egoten dira mardo-mardoak, beste batzuek orria kenduta edukitzen dute ba ganaduari ba, orria gehiago aprobetxatuta emateko jaten, edo txerri edo koneju edo holan daukanari edo)

ARRIETAKO HIZTEGIA

erretxiñe: erretxina

"Erretxiñe ona da, ona da arako" -
(Erretxina ona da, ona da harako)

frutie: fruitua

garune: garaua

garridxe: gerria, arbolen enborra

gixena: enborraren kanpoko aldeko zatia

kanpanille: kanpanila

kimie: kima

kuskurre: ezkurra

landarie: landara

"Errosaridxa be esta ona, se asko dauenien bera pe, landarak eta itto itten deus" -
(Errosarioa ere ez da ona, ze asko dagoenean berak ere, landareak eta ito egiten ditu)

"Erosi be bai landarie, simintteratetik erositte ekarten du imintteko oiñ" - (Erosi ere bai landarea, mintegietatik erosita ekartzen dugu ipintzeko orain)

lastrie: erbatza

lorie: lorea

"Errama asko oten da, kordelen korritten deu te kanpanille antzeko lora suritxue itten deuen" - (Errama asko egoten da, kordelean korritzen du eta kanpanila antzeko lore zuritxoaren egiten duena)

"Sasoi onetaraskero ori ba, loran dxoate san" - (Sasoi honetarazkero hori ba, loretan joaten zen)

malletue: mailatua

mendue: mendua

mingotza: mingotza, berde mina

mordie: morda

mukurre: mukurra

"Mukurre, trongoa da ixetes, surterako da, mukurre ba orixe, arapos beteko trongotza bat, baya surterako ona" -
(Mukurra, enborra da izatez, surterako da, mukurra ba horixe, lakatzez beteko trokotza bat, baina surterako ona)

muskille: muskila

nabolorie: arbigara

ondoa: ondoa, landarea

orbela: orbela

orridxe: orria

"Orri sabala eukitten deu" - (Horri zabala edukitzen du)

oskola: moskola

palue: makila

"Edoselan be batu, artoari sein palueri itten dxakos" - (Edozelan ere batu, artoari zein makilari egiten zaizkio)

pintxoa: erbatza, arantza

samarra: egur samarra

"Egur samar batzuk batu, lenau, oiñ egurre edonon dau baya lenau, gu txikidxe giñenien" - (Egur samar batzuk batu, lehenago, orain egurra edonon dago baina lehenago, gu txikiak ginenean)

sarmientue: sarmientoa

"Bueno sarmientue da, bai gero podeu te gero, ba ori trasplante edo itteko eukitten dana" - (Beno sarmientoa da, bai gero inausi eta gero, ba hori aldaketa edo egiteko edukitzen dena)

serukie: zeruka, indaba, ilarra eta abarren azala

silbegidxe: zilbegia, ernakatza

sille: zila

"Andik formetan dxako sille ta, ernementureko be" - (Handik egiten zaio zila eta, ernamendurako ere)

sospala: zozpala

"Sospala bai, askoriek botaten deuen a satidxe da sospala" - (Zozpala bai, azkorak botatzen duen zati hura da zozpala)

sotza: zotza

sustredxe, susterra: sustraia

"Bai suster gedxau deko, orrek, e, klase txarra esaten tzunek, orrek eskas orrek" -
(Bai sustrai gehiago dauka, horiek, mota txarra esaten diegunek, eskas horiek)

tekie: zeruka, teka

tokotza, trokotza: trokotza, arbola eperdia

trongoa, trongue, trungue, tronkoa: enborra

trongotza: trokotza

truntxue: trontzela

txortie: txorta

"Aprille erdidxen asten bada frantzesaren ebaten, ya mayetz erdireko ya txortie einye edo" - (Apiril erdian hasten bada frantzesaren ebakitzen, ja maiatz erdirako ja txorta eginda edo)

urkulue: urkulua

14.9. GAINERA KOAK

ares landarie, aris landarie: haritz landarea

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Ares landarak esate baterako ba, bat egon bierrien, badaus arloa, sinttedidxe" - (Haritz landareak, esate baterako ba, bat egon beharrean badagoz arloa, zintudia)

asaburue: aza burua

asa landarie: aza landarea

"Gero landarak imintteko be, piperrak sartzeko, edo asa landarie, dxorraidxe, batzu pa, sakontxu gurosu, igual badoatzu ondatxurregas, sakon sartute asie imintteko, ba gustue taus" - (Gero landareak ipintzeko ere, piperrak sartzeko, edo aza landarea, jorraia, batzuek ba, sakontxo gura duzu, beharbada badoakizu ondaitzurragaz, sakon sartuta aza ipintzeko, ba gustuak dagoz)

asaorridxe: aza orria

"Bai eusnarra ekarteko ta sardiñe sarra, are pe, onen aitteri sarri entzun tzat nik, a emon, ona asaorridxekas edo sertunde dxan da, eusnarra ekarteko ta ona ixeta sala a be" - (Bai hausnarra ekartzeko eta sardina zaharra, hark ere, honen aitari sarri entzun diot nik, hura eman, ona aza orriakaz edo zertuta jan da, hausnarra ekartzeko eta ona izaten zela hura ere)

berakas burue: berakatz burua

egur saborra: egur zaborra

egur samarra: egur samarra

erañotza erramie: ereintz-abarra

eukalitrū landarie: eukalipro landarea

gastañe egurre: gaztaina egurra

ire sustredxe: ira sustraia

mas mordie: mahasmorda

patata asala: patata azala

piñu landarie: pinu landarea

sasi pilloa: sasi piloa

trungu trokotza: enbor trokotza

15. ANIMALIAK

Atal honetako animaliei buruzko hiztegia aurkezteko honako azpi-atalak egin ditugu: ugaztunak, txoriak, narrastiak eta anfibioak, arrainak eta intsektuak.

15.1. UGAZTUNAK

animalidxe: animalia

"Ori animalidxen be pastan dala esaten deude" - (Hori animalian ere pasatzen dela esaten dute)

ardillie: katagorria

arratoye: arratoia

"Ogigastie arratoye lakoa da" - (Ogigaztaia arratoia lakoa da)

askonarra: azkonarra

"Askonarra pe ba, artoa dxaten deu aixe pe" - (Azkonarrak ere ba, artoa jaten du harexek ere)

"Askonarrak, e, bai, baya orrek gitxi dabis emetik orrek, e, artoa ta dxaten durela esaten dure, baya orrenbeste kalte esture itten" - (Azkonarrak, bai baina horiek gutxi dabilta hemendik horiek, artoa eta jaten dutela esaten dute, baina horrenbeste kalte ez dute egiten)

basakatue: basakatua

basauntze: basahuntza

basordie, basurdie: basurdea

"Lukidxe asko galdu de, baya basordie dabil asko, nik estot ikusi, neure denporan bat ikus dot basordie bixirik" - (Lukia asko galdu da, baina basurdea dabil asko, nik ez dut ikusi, neure sasoiari bat ikusi dut basurdea bizirik)

"Amen, e, kalterik andidxena itten deuen a oin ba basurdie esaten dxakona" - (Hamen, kalterik handiena egiten duena orain ba basurdea esaten zaiona)

"Emen oñ, o, orrexek lukidxe ta basurdie, basurdiek eitten deu ainbet kalte emen" - (Hemen orain, horiexek lukia eta basurdea, basurdeak egiten du hainbat kalte hemen)

erbidxe: erbia

katamixerra: katamixarra

kirikolatza: kirikolatza

"Aspaldidxon asko ikusten da kirikolatza, len esta ikusten ixen" - (Aspaldion asko ikusten da kirikolatza lehen ez da ikusten izan)

konejue: untzia

"Batzuk eukitten deurie ba ganadueri orridxe gedxau aprobetxetako emoteko dxaten, edo txarri edo konejue edo olan dekonari edo" - (Batzuek edukitzen dute ba ganaduari orria gehiago aprobetxatzeko emateko jaten, edo txerri edo konejua edo holan daukanari edo)

loboa: otsoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

lukidxe: lukia

"Lukidzek beñ ikisiskiñon, bai artxoa bai olloa, a gero ille bidxen an dau dxagoten" - (Lukiak behin ikasiz gero, bai artxoa bai oiloa, hura gero hil bian han dago jagoten)

"Lukidxe pa ostantzeko serik esteko, lukidxe pa olloa edo ba, billotzak pastorieri ba, dxadxoparridxen edo olako serien, arixek, ostien lukidzek esteko olako serik" - (Lukiak ba osterantzeko zerik ez dauka, lukiak ba oiloa edo ba, bildotsak artzainari ba, jaioberrian edo holako zerean, haiexek, ostean lukiak ez dauka holako zerik)

"Gure umiek aor, sarratute deko, terreno erosi seuen, otamar gixelan or da, sarratute ondo euki deu, ondo iminye, dxoan san nire gixona ara, da tope seuen euntze umie einye, ene onek umie in yeu, te umetokidxe be tope seuen, da eumerik es, da eumie non deko ba? ta bapes, ta Karloseri deittu in tzan telefonotik, ene ara dxoa nas da estau iñ, umie esta ageri, badau, ume sera ta botata dau euntze, ba an ongo da nonon suloren bat, onek topeu ei euen Karlos guriek suloa, alanbrien aspidxen, ta gure Karlosek eroan, lasue imiñi, d'or doa, olantxe sapatuetan etorten da, ta badoa, t'or dakar lukidxe" - (Gure umeak haor, itxita dauka, terrenoa erosi zuen, hogeita hamar gixelan hor eta, itxita ondo eduki du, ondo ipinita, joan zen nire gizona hara, eta topatu zuen ahuntza umea eginda, ene honek umea egin du, eta umetokia ere topatu zuen, eta aumerik ez, eta aumea non dauka ba? eta bat ere ez, eta Karlosi deitu egin zion telefonoz, ene hara joan naiz eta ez du egin, umea ez da agiri, badago, ume zera eta botata dago ahuntza, ba han egongo da non edo non zuloren bat, honek topatu egin zuen Karlos gureak zuloa, alanbrearen azpian, eta hor doa, holantxe zapatuetan etortzen da, eta badoa, eta hor dakar lukia)

"Bakixu niri? eurten, or etze atzien dekot, karro mudukoa, alako ba tekot or etze atzien, da eurok imiñi ostien lisutute ta, konejuek eukitten dotas an, da gure bestaldeko lobie, etor dire ba geubien beranduen, gixona egon da, da esan

dostan, tia lukidxe egon da, ba an sartu esiñ, burdiñeskoa dau, musturre imiñitte burdiñien, bertoraño, gure tejabanaraño" - (Badakizu niri? aurten, hor etxe atzean daukat, gurdi modukoa, halako bat daukat hor etxe atzean, eta eurok ipini zidaten lisututa eta, untziak edukitzen ditut han, eta gure beste aldeko loba, etorri dira ba gauean beranduan, gizona egon da, eta esan zidan, izeko lukia egon da, ba han sartu ezin, burdinazkoa dago, muturra ipinita burdinan, bertoraino, gure tejabanaraño)

ogigastie, ogigastaye: ogigaztaia

"Ogigastiek ainke iñeskeron, ba saspi erritteko kanpak dxo biar ta, esateuden atxiñe" - (Ogigaztaiak haginka eginez gero, ba zazpi herritako kanpaiek jo behar eta, esaten zuten antzina)

"Istutuskeron salto norberari edo ainke edo itten deu ogigastiek" - (Estutuz gero salto norberari edo haginka edo egiten du ogigaztaiak)

"Arratoyen kontraridxoa bada ogigastie, arratoye, atzetik segidu te, koixueskeron orrek laster sertzze itxus" - (Arratoiaaren arerioa bada ogigaztaia, arratoia, atzetik segitu eta, hartuz gero horrek laster zertzen ditu)

"Nik ogigastaye ikus dot arratoye iltten, etor san, girrintzeka etor san arratoye, olantxe goitti bera, eta kamiño ondoan ra! koxu uen, koxu es, ak etzon, a, ai esateko beste denporari pe estot pentzetan emon tzanik, da! seuser ei otzan, da siku" - (Nik ogigaztaia ikusi dut arratoia hiltzen, etorri zen, girrintzeka etorri zen arratoia, holantxe goitik behera, eta kamino ondoan ra! harrapatu zuen, harrapatu ez, hark ez zion, ai esateko beste denborarik ere ez dut pentsatzen eman zionik, da! zer edo zer egin zion, eta siku)

otzoa: hartza

sague: sagua

"Ori de sague lako sertzxu bet, satorra baño txikidxau de, ta sague da ixetes" - (Hori da sagua lako zertzxu bat, satorra baino txikiagoa da, eta sagua da izatez)

sagusarra: saguzaharra

satorra: satorra

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Mustur sorrostxue, sague paño sertzua deko satorran estiloko musturre" - (Mitur zorroztxoa, saguak baino zertxoago dauka satorraren erako muturra)

sator suloa: sator zuloa

urtxakurre: urtxakurra

"Urtxakurre badau te lur txakurre be bai, bidxe tauselakoa dekot" - (Urtxakurra badago eta lur txakurra ere bai, biak dagozelakoa daukat)

"Urtxakurrek eta orrek sera tire errekan edo dabixenak" - (Urtxakurrak eta horiek zerak dira errekan edo dabilzanak)

15.2. TXORIAK

abidxe: habia

antzarra: antzarra

artatxoridxe: artatxoria

atxanarroa: haitzarranoa

"Orrexek atxanarroak eta siren, guk estus esetu orre paya, orrek asko egon siren len amen eurki, ta ensegida ardidxe edo ganadue edo illeskiñoan ensegida likidatuteuen orrek antza" - (Horiexek haitzarranoak eta ziren, guk ez ditugu ezagutu horiek baina, horiek asko egon ziren lehen hamen aurki, eta berehala ardia edo ganadua edo hilez gero berehala garbitzen zuten horiek antza)

basollarra: basoilarra

baso palomie: baso usoa

"Kukue, miruen, e, orrek miru andidxen beste es baya, sera, gabilloye da bat, miru klase bat, da beste bat gero, onek, miru andidxe ibiltten dienak bueltaka bueltaka, au, e, baso palomie baki selakoa dan? ba aren tamañu ingerukoa da kukue" - (Kukua, miruaren, horiek miru handien beste ez baina, zera, gabiraia da bat, miru mota bat, eta beste bat gero, hauek, miru handiak ibiltzen direnak bueltaka-bueltaka, hau, baso usoa badaki zelakoa den? ba haren tamainu ingurukoa da kukua)

belie: belea

"Bela txikidxauek eta andidxauek pai berton be esetu dire" - (Bele txikiagoak eta handiagoak bai berton ere ezagutu dira)

biregarroa, biragarroa: birigarroa

"Biragarroa be bai berton, o, len egon san, a, oiñ asko dau gitxiau te, sosoan tamañukoa baya grisien" - (Biragarroa ere bai berton, lehen egon zen, orain asko dago gutxiago eta, zozoaren tamainukoa baina grisean)

burubaltza: txirria

durdurie, durdulie: durdura

"Otz andidxe dauenien gero ba orrek durdulek, da gero onek sera pe etorten dire" - (Hotz handia dagoenean gero ba durdura horiek, eta gero hauek zera ere etortzen dira)

egaberie: hegabera

elaye: elai

"Esate baterako elaye be, denporadaraskero dxoaten da" - (Esate baterako elai ere, denboraldirazkero joaten da)

"Elayek angeruekas bixi dire" - (Elaiak aingeruakaz bizi dira)

eperra: eperra

erreka txoridxe: erreka txoria, epertikara

gabilloye: gabiraia

"Kukue ba gabilloi tipora, alperra, daunik pistirik alperrena kukue ixengo da, se itten deu arek txinyorran abidxen berak arrutze iñ, da txepetxanien, bidxe gixajoak, e, gosiek trageta ibiltten dire euren umie atara esiñik" - (Kukua ba gabirai erara, alperra, dagoenik piztiarik alperrena kukua izango da, ze egiten du hark txindorraren habian berak arrautza egin, eta txepetxarenean, biak gixajoak, goseak tragatuta ibiltzen dira euren umea atera ezinik)

gabilloi andidxe: gabirai handia

gabilloi txikidxe: gabirai txikia

gabontza: gauontza

galeperra: galeperra

geu txoridxe: gau txoria

itxos txoridxe: itsas txoria

jilgeroa: jilgeroa

kalindrie: larra txoria

kanpo soso: kanpo zozoa

"Udebarridxen orrek kanpo sosoak etorten dire" - (Udaberrian kanpo zozo horiek etortzen dira)

kukue: kukua

"Kukuek, e, martidxen ogetabosterako espadator, entierro eitteko" - (Kukuak, martiaren hogeita bosterako ez badator, lurpetzea egiteko)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Martidxen ogetabostetik, e, aprillen asikeratako, derrigor agiri bi deu, dxoten entzun bixeten da" - (Martiaaren hogeita bostetik, apirilaren hasikeretarako, derrigor agiri behar du, jotzen entzun behar izaten da)

"Andramari martikoas, kukue, da fijeu, eta beti beti beti, gedxenatan, aratxuau onatxuau, batak edo bestiek ikusten deu, ya andramari martikosko agertu itten da, ikusten da, egastadan baño espada ikusten da" - (Andramari martikoagaz, kukua, eta fijatu, eta beti-beti-beti, gehienetan, haratxoago honatxoago, batak edo besteak ikusten du, ja andramari martikorazkero agertu egiten da, ikusten da, hegazkadan baino ez bada ikusten da)

"Boltzilloan dirue badekosu ba urte ona, edo" - (Poltsikoan dirua badaukazu ba urte ona, edo)

kurlinkie: kurlinka

larratxoridxe: larratxoria

marti soso: marti zozoa

mikie: mika

mingorra: mingorra

miru andidxe: miru handia

mirue: mirua

"Miruen antzien bat koixu itxen tzien serari, olloari" - (Miruaren antzean bat hartu egiten zioten zerari, oiloari)

"Onek olloak, a, ori godxen badabill ori miru ori godxen badabill ensegideko alerta paraten die ta ostu" - (Oilo hauek, hori goian badabil miru hori goian badabil behingoan alerta paratzen dira eta ostu)

miru suridxe: miru zuria

miru txikidxe: miru txikia

mosoloa: mozoloa

okille: okila

"Okille egarri da" - (Okila egarri da)

"Okille kantetan ta serien, sertzen danien, okille be egarritu da, da euridxe in bi deu" - (Okila kantatzen eta zerean, zertzen denean okila ere egarritu da, eta euria egin behar du)

ollogorra: oilagorra

oskillasoa: oskilasoa

paloma andidxe: uso handia

paloma txikidxe: uso txikia

palomie: usoa

pasoa: pasoa

patoa: ahatea

pospoliñe: galeperra

sigueñie: zikoina

sosoa: zozoa

"Bertoko sosoa ba soso baltza da" - (Bertoko zozoa ba zozo beltza da)

"Biragarroa eta sosoak bertokoak siren" - (Biragarroa eta zozoak bertokoak ziren)

txantxilloa: txantxiloa

txepetxa: txepetxa

"Txinyorra edo txepetxa koisten badeu kukuek berak likideu" - (Txindorra edo txepetxa hartzen badu kukuak berak garbitu)

txepetx arrutzie: txepetx arrautza

"Txepetxarrutze be on sien, lelengo txepetxarrutzek on sien, txepetxarrutzek desaparesidu in sien, arek, e, berak kukuek edan sitxuen seguro alperra san da, arek edan da berak arrutze imiñi" - (Txepetx arrautzak ere egon ziren, lehenengo txepetx arrautzak egon ziren, txepetx arrautzak desagertu egin ziren, haiek, berak kukuak edan zituen ziur alperra zen eta, hark edan eta berak arrautza ipini)

txinyorra: txindorra, txori honek albisteak ekartzen ei ditu agertzen denean etxe ondora edo

"Txinyorrek eta mitek eta orrek, e, pikuas koxu te or doas" - (Txindorrek eta mikak eta horiek, mokoagaz hartu eta hor doaz)

txirri txorroak: txirria

txirtie: txirta

txontie: txonta

txori abidxe: txori habia

"Mutillek beti txori abidxetan afesiñoa ta, txinyor abidxe, ederto, politto pilitto einye abidxe, edo txinyorra, es txepetxana ixen biar se, dana sarratute ta alan sulotxue bakarrik ganien da" - (Mutilek beti txori habietan zaletasuna eta, txindor habia, ederto, polito-polito eginda habia, edo txindorra, ez txepetxarena izan behar ze, dena itxita eta halan zulotxoa bakarrik gainean eta)

txoridxe: txoria

"Orrek txoridxek sertzu tire? baya olan ogetasak, e?" - (Txori horiek zertzuk dira? baina holan hogeitazak, e?)

urrumie: urrumada

ARRIETAKO HIZTEGIA

15.3. NARRASTIAK-ANFIBIOAK

berenoa: pozoia

biborie: larra sugea

"Biborie edo esaten dxakona, ori da emen berenorik gedxen dekona" - (Larra sugea edo esaten zaiona, hori da hemen pozoirik gehien daukana)

estena: eztena

larra sugoye: larra sugea

lupue: lupua

muskerra: muskerra

"Nik neu pe, muskerra ikusi tte ariñ eskapeta neuen, aginke itten deurela ta" - (Nik neuk ere, muskerra ikusi eta arin eskapatzen nuen, haginka egiten dutela eta)

sapaburue: zapaburua

sapoa: zapoa

"Sapoa atrapeueskero, gure aittek esateuen, sapoari es segidu gero, sapoak txixe botaten deu te itzutu itten da ta" - (Zapoa harrapatuz gero, gure aitak esaten zuen, zapoari ez segitu gero, zapoak txiza botatzen du eta itsutu egite da eta)

sirune: zirauna

sugoye: sugoia, sugea

"Sugoye padaus, baya lengo beste estie ikusten" - (Sugoiak badagoz, baina lehengo beste ez dira ikusten)

"Sugoyek, e, eitten ei deu, sera batu, agora batu sera, bustena, eta bueltaka bueltaka korriduten segitan deu, nopera paño ariñau, gorantza in bide, berantza eiñeskiñon berak irebasi" - (Sugoiak, egiten ei du, zera batu, ahora batu zera, buztana, eta bueltaka-bueltaka korritzen segitzen du, norberak baino arinago, gorantz egin behar da, beherantz eginez gero berak irabazi)

"Ori bai entzun, u, gure aitteri tte bai, sugoyek eiñekoa, kostunbreskiñoan, a, aixeri itxi gure ixeten tzola gero, estai pa nik, i, agoa gosoa edo ser, sugoyek edaten batzo beren orduetan, a, itxitten tzola edaten" - (Hori bai entzun, gure aitari eta bai, sogoiak eginekua, ekanduz gero, harexeri utzi gura izaten diola gero, ez dakit ba nik, ahoa gozoa edo zer,

sugoiak edaten badio beraren orduetan, uzten diola edaten)

"Aitteri sarritten entzun, sugoye sertun, de isterrien batunde, bedxeri selan edaten tzan esnie" - (Aitari sarritan entzun, sugoia zertu, eta izterrean batuta, behiari zelan edaten zion esnea)

"Burue imiñi itten badeu onetara, godxen, e, artesien be, goitti bera, ariñ eitten deu sugoyek" - (Burua ipini egiten badu honetara, goian, artezean ere, goitik behera, arin egiten du sugoiak)

"Errekan bertan be ibiltten dire sugoyek, uretan be" - (Errekan bertan ere ibiltzen dira sugoiak, uretan ere)

"Sugoye pe bedxeri edaten tzo esnie ta, kortan sartute ta, bedxeri, tte bedxek geldi geldi isten ei tzo, e, agoa suabe antza" - (Sugoiak ere behiari edaten dio esnea eta, kortan sartuta eta, behiari, eta behiak geldi-geldi uzten ei dio, ahoa suabe antza)

"Ori be entzun dot bulerra edan tzola be bai, amari, eta gero ser pasetan ete da? gero serriñe edo arie bota euen da an topeuen muestrie selan andi pasetan dan sugoye" - (Hori ere entzun dut bularra edan diola ere bai, amari, eta gero zer pasatzen ete da? gero zerrautsa edo hareia bota zuten eta han topatu zuten zidurria zelan handik pasatzen den sugoia)

suguntxille, suintxille, txirintxille: sugelandara, sugelinda

"Txirintxil txirintxil aitte kanpa dxoten ama errestan esposu urtetan aitte tama ill" - (Txirintxil txirintxil aita kanpaia jotzen ama errezatzen ez baduzu irteten aita eta ama hil)

ugesaridxoa, uesaridxoa: igela

15.4. ARRAINAK

angillie: angira

"Angillek esateuden egoten siela, erropak garbitako bakixu lenau, lixibie esaten dxakon, da seran erropak garbitan, da axen arridxen aspidxen ote sien ostute" - (Angirak esaten zuten egoten zirela, arropak garbitzeko badakizu lehenago, lixiba esaten zitzaion, eta zeraren

ARRIETAKO HIZTEGIA

arropak garbitzen, eta harri harexen azpian egoten ziren ostuta)

"Angillie ba, errekie utzittute, sertunde be bai eitte san, ure utzittu, da gero beste ser batetik emon bidie ta gero eraiñ, te urteten deu gero" - (Angira ba, erreka hustuta, zertuta ere bai egiten zen, ura hustu, eta gero beste zer batetik eman bidea eta gero eragin, eta irteten du gero)

arrankaridxe: arrankaria

arrañe: arraina

"Piñue edo sera ta gerispie daueles errekatan da be, eguskidxe gure deu arrañe pera pe sertzeko, errekan egoteko" - (Pinua edo zera eta gereizpea dagoenez gero erreketan eta ere, eguzkia gura du arrainak berak ere zertzeko, errekan egoteko)

kangrejoa: karramarroa

"Kangrejoa ba eskure, serera be bai olan sara serara be bai" - (Karramarroa ba eskura, zerera ere bai holan sare zerara ere bai) [harrapatzeko eraz dabil]

karramarroa: karramarroa

kaskallue: kaskailua

"Kaskallue pe, egote san, denporadak egote sien kaskalluena pe" - (Kaskailuak ere, egoten zen, denboraldiak egoten ziren kaskailuenak ere)

loiñie: loina

15.5. INTSEKTUAK

akana: akaina

aramoa, aramue: aramua

aramo sarie, aramu sarie: aramu sarea

"Edonon aramu sarie, bentanatan ensegida danien elei topeu" - (Edonon aramu sarea, leihoetan behingoan denean ez liteke topa)

ardidxe: ardia, kukusoa

ardxoa: harjoa

"Ardxoa bai, esate baterako arra berak silloa eiñ, da barruen, da an deko kotxoa bertan dxaten" - (Harjoa bai, esate baterako harrak berak zuloa egin, eta barruan, eta han dauka kotxoa bertan jaten)

arra: harra

arrutzerue: orratza, orratzetera

artasidxe: artazia, mari urkulua

artasi kotxoa: artazia, mari urkulua

barie: barea

"Bakixu selan kendu gero? ei notzan sera, barie topeu, eta bara bi edo topeu, eta barie sartunde" - (Badakizu zelan kendu gero? egin nion zera, barea topatu, eta bare bi edo topatu, eta barea sartuta)

baspidxe: bazpia, bartza

"Baspidxe, nasteu nasteu, nobera garbi on arren beste batzuk nasten dire ta, naste itxe da" - (Bazpia, nahastu-nahastu, norbera garbi egon arren beste batzuk nahasten dira, nahastu egiten da)

bitxoa: mamarroa

epetargidxe: ipurtargia

eragoye: eruga

eskalabajoa, eskarabajoa: eskarabajoa

"Eskalabajoa or esan deuen orre tire dxaten txusenak" - (Eskarabajoa hor esan duena horrek dira jaten dituztenak)

espatie: ezpata, ezpata eulia

"Beste ba tau, ari be espata esaten tzie, da, apur bet ori baño lusengiau" - (Beste bat dago, hari ere ezpara esaten diote, eta, apur bat hori baino luzengatxoagoa)

eulidxe: eulia

euli txikerra: euli txikerra

ganadu espatie: ganadu ezpata

"Orre tires, e, ganadu espatie esaten tzague, baya orre tire, esate baterako, ganadueri inkaten dxake, ta, allege esiñe lekuen inkaten da beti" - (Horiek dira, ganadu ezpata esaten diegu, baina horiek dira, esate baterako, ganaduei inkatzen zaie, eta, ailegatu ezineko lekuan inkatzen da beti)

geltxoa: eltxoa

iñurridxe, indorridxe: inurria

kakarraldoa: kakarraldoa

kaparra: kaparra

karakola: barraskiloa

"Karakola pe dxaten txues, baya beste batzu badaus, karakola pe trageu itxen txus, e? karakola pe, trageu, baya beste geuse batzu badaus" - (Barraskiloek ere jaten dituzte, baina beste batzuk badagoz, barraskiloak ere hil egiten ditu, e? barraskiloak ere, hil, baina beste gauza batzuk badagoz)

kokoa: kokoa, kotxoa

kotxo berdie: kotxo berdea

ARRIETAKO HIZTEGIA

kotxoa: kotxoa

"Lurrentzako geuse ona da, se galtzen ttus bedar txarrak eta galtzeko daona, d'orrek kotxoak eta arrak eta orrek" - (Lurrarentzat gauza ona da, ze galtzen ditu belar txarrak eta galtzeko dagoena, eta kotxo horiek eta harrak eta horiek)

"Olakoa dxaten deuen kotxo ba tau or, ta ortarikoan ba ta, esan dostesune" - (Holakoa jaten duen kotxo bat dago hor, eta horietarikoren bat da, esan didazuna)

kotxoarra: kotxo-harra

"Artoa inyertzu dabill, ta kak aspittik kotxo arrak suloa iñ eta artoa fastidieute" - (Artoa indartsu dabil, eta kak azpitik kotxo-harrak zuloa egin eta artoa hondatuta)

kukaratxie: labezamorroa

kurebidxoa, **kurubidxoa:** urubioa, kurubioa

lupue: lupua

lur txakurre: lur txakurra

mamarroa: mamarroa

mandaulidxe, mandulidxe: mandaulia

mariposie: txirpilotatza

"Ya oin medikamentue taus, ya eutzek ser emoten dxakon ba? seinye, or kanpoan, e, ote san, e, olako, mariposiek eitten deuen abidxe antzeko sera pe bai, da arek batu, da arek sartu, trageu erain ye eusnar ekarteko" - (Orain medikamentuak dagoz, hautsak zer ematen zitzaion ba? zein da, hor kanpoan, egoten zen, holako, txirpilotak egiten duten habia antzeko zerak ere bai, eta haiek batu, eta haiek sartu, irentsi eragin eta hausnar ekartzeko)

martingorri, marigorringo: marigorringoa

moskitxue, moskittue, moskittoa: eltxoa

"Uden eoten die orre pa, moskitxuek piketan deuenien, orduen, orrek askurek egoten die oyen" - (Udan egoten dira, horiek ba, eltxoak pikatzen duenean, orduan, azkura horiek egoten dira ohean)

pikedie: ziztada

saltamatxiñe, **saltamatxiñoa:** saltamatxinoa

sitze: sitsa eta zedena

"Oneri sitzik etxakie itten, onek akabuen ser eitten dires? sarran sarragas eitten dire ill, esan gutena akabe itten die ill eitten die, ba bosteun urtegas edo olan, orduen

ba sitze baño ostantzeko bitxoak, umedetan danien orduen dxaten deu" - (Hauei sitsik ez zaie egiten, hauek azkenean zer egiten dira? zaharraren zaharragaz egiten dira hil, esan gura dodana akabatu egiten dira hil egiten dira, ba bostehun urtegas edo holan, orduan ba sitsa baino osterantzeko mamarroak, umeltzen denean orduan jaten du)

sorginbitxidxe, sorgimitxidxe: gaueko tximeleta

sorgiñ orratza: sorgin orratza

sorridxe: zorria

sorrikumie: zorrikumea

"Baspidxe ixen da arrotzie, sorrikumie iñ orduko" - (Bazpia izan da arrautza, zorrikumea egin orduko)

txirritxirridxe: txirri-txirria

"Mutillek txixe itten batzien ara sillora ba ra! urtete suen txirri txirridxek" - (Mutilek txiza egiten bazioten hara zuloa ba ra! irteten zuen txirri-txirriak)

txirri txirri silloa: txirri-txirri zuloa

usena: izaina

16. BEHARRA

Atal honetan nekazaritza eta abelazkuntza ez diren garaiteko ogibideen gainerako berbak emango ditugu. Horretarako, ogibideak, arotza eta errementaritza izeneko azpi-atalak bereiziko ditugu.

16.1. OGIBIDEAK

abarketerue: abarketa egilea

abogadue: abokatua

aguasille: aguazila, udaltzaina

alagorekoa: alogerekoa, jornalaria

"Baten suerte dxaten, eurekas, se orduen bierrixena egote san, eta lantzien olan libre dauen une baten, etorte siren, ba fulano edo bestie, edo a edo, edo aspigarridxe ekarteko edo egurre ekarteko edo, ia aber jornal bategas, alogereko, al ixeneskero dxoan in biar se falta ixeta san da, eta dxoa nitzen orraxa, Landagunetik ara bera dxoa nitzen, eskerretara, etor dxaten, alargundute

ARRIETAKO HIZTEGIA

egon san, eta egurre ekarriko banekidxo gurdi bete, ta non dekosu egurre ba? ta Dxandonis, San Pedro Atxarreko ermintte badakixu non dauen, es, esta? ori dau, au sinturon deyerro esaten dxakona lenau, arexen parien, onantzau, Fikerantzau, ba an, baserri baten ondoan, a, an dekola egurre, dxaki neuen ori baserridxe non dauen baya nondik dxoaten dan es beragas dxoa nitzen, se berak, a, dxakieuen non dekon egurre ta, ostantzien topeu es, nora? eta dxoa nitzen, da olako baten esa notzan se, non dau egur ori ba? kantzeute dxoaten ya, eta auntxe, aor, bueno, ein gendun gure allegerie eta kargeu gurdi ori, egurre, amarre gero sokie ta, or gatos, etor giñen etzera, da gero ba seuser kopu bet page in biar gero, kopu bet esaten dxako ba, ogidxe ta ardau apur bet edo, seuser, eta illundu dxakun guri bidxen bittarte, ta gero, ta emostan beran jornala, orduen normal, eta banator, bastante illun egon san, ortik etor biar ba, d'or istuunen, gurdixen ganien etor nitzen, neu be kantzeta ego nitzen apur bet, ididxek estaitt selan ongo siren, are pe etzera posik, eta seuser bidien erdidxen, da! lotu dxatesan ididxek, ba derrepente, ser pasetan da? eta aginyu eurrera, akulu barik, e? akulu barik, posik etor siren etzera ta, ta bakixu ser ixen san? katu bet eurrien, ta katuen begidxek geubien" - (Baten suertatu zitzaidan, eurakaz, ze orduan beharizana egoten zen, eta lantzean holan libre dagoen une baten, etortzen ziren, ba urlia edo bestea, edo hura edo, edo azpigarria ekartzeko edo egurra ekartzeko edo, ia alogera bategaz, alogereko, ahal izanez gero joan egin behar ze falta izaten zen eta, eta joan nintzen horrax, Landagunetik hara behera joan nintzen, ezkerretara, etorri zitzaidan, alargunduta egon zen, eta egurra ekarriko niokeen gurdi bete, eta non daukazu egurra ba? eta Jandonis, San Pedro Atxarreko baseliza badakizu non dagoen, ez, ezta? hori dago "cinturón de hierro" esaten zitzaiona lehenago, harexen parean, honantzago, Fikarantzago, ba han, baserri baten ondoan, han daukala egurra, jakin nuen

baserri hori non dagoen baina nondik joaten den ez beragaz joan nintzen, ze berak, jakin zuen non daukan egurra eta, osterantzean topatu ez, nora? eta joan nintzen, eta holako baten esan nion ze, non dago egur hori ba? nekatuta joaten ja, eta oraintxe, haor, beno, egin genuen gure ailegakera eta kargatu gurdi hori, egurra, amarratu gero soka eta, hor gatoz, etorri ginen etxera, eta gero ba zer edo zer kopu bat ordaindu egin behar gero, kopu bat esaten zaio ba, ogia eta ardau apur bat edo, zer edo zer, eta ilundu zitzaigun guri bien bitarte, eta gero, eta eman zidan beraren alogera, orduan normal, eta banator, nahiko ilun egon zen, hortik etorri behar ba, eta hor estuunean, gurdiaren gainean etorri nintzen, neu ere nekatuta egon nintzen apur bat, idiak ez dakit zelan egongo ziren, haiak ere etxera pozik, eta zer edo zer bidearen erdian, da! lotu zitzaizkidan idiak, ba bat-batean, zer pasatzen da? eta agindu aurrera, akuilu barik, e? akuilu barik, pozik etorri ziren etxera eta, eta badakizu zer izan zen? katu bat aurrean, eta katuaren begiak gauean)

albañela, albañila: igeltseroa

aldianie: nekazaria (f.)

aldianue: nekazaria

aña: inudea

argiñe: hargina

barberue: barberua, bizargina

basurerue: zabor biltzailea

beterinadxo, **betinaidxo,**

beterenaridxo: albaiteroa

"Beterenaridxo, oin dausen beterenaridxo asko baño obie san a" - (Albaiteroa, orain dagozen albaitero asko baino hobia zen hura)

biargiñe: behargina, langilea

biarlekue: 1. beharlekua. 2. beharra

bixergiñe: bizargina, barberua

busterrigiñe: buztargina

"Busterrigiñe Olabarrin egon san" - (Buztarrigina Olabarrin egon zen)

dxostune, dxoskille: jostuna

errotaridxe: errotaria

"Errotaridxe oniño be bai, Arrietakoa badabil" - (Errotaria oraindino ere bai, Arrietakoa badabil)

aulie: ehulea

ARRIETAKO HIZTEGIA

fruterue: fruta saltzailea

galbarerue: galbahe saltzailea

guardie: basozaina

jornalerue: alogerekoa

*"Dxorran eukitten gendus en jornalereuek" -
(Jorran edukitzen genituen alogerekoak)*

jubiladue: jubilatua, erretiratua

kamiñerue: kaminerua, bide konpontzailea

"Nire aitxe gastie sanien, bestaldien ba neskak eta ainbeste on sien, da nire aitxitxe ibiltxe san kamiñeru Gerniken, Gerniken Lumo aldien, eta Lumon egon san gixon bat, bakarrik bixi sana, da beste aldien euki euen enbra gaste bat, da esan eitzen, suretzako selako enbrie dau gure bestaldien da, bai? txe bai txe, ba nik olakoa biopa, ta esan tzon oneri, t'one pai, da gixona bakarrik egon san, errentadorie ixen san, e? da eskondu sien, ba sortzi semealaba euki txuen da esin separeu da oiñ enamoreu te eskondu te separeu itxen dire" - (Nire aita gaztea zenean, beste aldean ba neskak eta hainbeste egon ziren, eta nire aitaita ibiltzen zen kamineru Gernikan, Gernikan Lumo aldean, eta Lumon egon zen gizon bat, bakarrik bizi zena, eta beste aldean eduki zuen andre gazte bat, eta esan ei zion, zuretzat zelako andrea dago gure beste aldean eta, bai? eta bai eta, ba nik holakoa behar dut ba, eta esan zion honi, eta honek bai, eta gizona bakarrik egon zen, errentadorea izan zen, e? eta ezkondu ziren, ba zortzi semealaba eduki zituzten eta ezin banatu eta orain maitemindu eta ezkondu eta banatu egiten dira)

karnaserue, karneserue: harakina

"Oingo karneseruek, atoatan eitten due dana, ill, da satittu, da kobreu te fuera eitten due, ba guk kostunbre ixen du ba, egun erdidxen edo, eitten dune da gero, gibela prestatu te gibela dxan, da gibela dxaten dan denporan oten da txarridxe eskeitte, da gero, bajatu, satittu, erdibittu te pixeu gure bada pixeu" - (Oraingo harakinek, atoetan egiten dute dena, hil, eta zatitu, eta kobratu eta kito egiten dute, ba guk ekandua izan dugu ba, egun erdian edo, egiten duguna da gero, gibela prestatu eta gibela jan, eta gibela jaten den denboran egoten da txerria

eskegita, eta gero, bajatu, zatitu, erdibitu eta pisatu gura bada pisatu)

karreterue: karreterua, itzaina

"Ainbet agerika entzun dot nik ori dala ta estala, se ni txarra ixen nitzin, karreteru txarra" - (Hainbat agerika entzun dut nik hori dela eta ez dela, ze ni txarra izan nintzen, itzain txarra)

karterie: postari andrazkoa (f.)

karterue: postari gizonetzkoa

kridxadie, kridxedie: kriada, neskame (f.)

"Da tia Mateari be entzun tzat nik, nire tia bateri, Bilbon on san bar baten, kridxada, Basortu esaten otziena, bar baten gastetan, eta mutil batek, basue pe ra! apurtuten ei seitxusen, da betetu be bai, selan eitxen ete txusen arek, da aau biosu suk, ta olakoxe bat atara ei dxotzen" - (Eta izeko Mateari ere entzun diot nik, nire izeko bati, Bilbon egon zen taberna baten, neskame, Basurto esaten diotena, taberna baten gaztetan, eta mutil batek, basuak ere ra! apurtzen ei zituen, eta bete ere bai, zelan egiten ete zituen hark, eta haau behar duzu zuk, eta holakoxe bat atera ei zion) [orraztokiaren gainean dabil]

kridxedue: morroia

kosiñerie: sikaldaria (f.)

kuranderue: sasi medikua

letxerue: esneketaria

"Letxerue dator ointxe ta, igual arintxu, esta? segun selako kargie dekon aldien lepoak" - (Esneketaria dator oraintxe eta, igual arintxo, ezta? segun sçzelako karga daukan aldean lepoak)

"Suk estaitt esetuko sendun, baya, ni pa esetu dot letxerue" - (Zuk ez dakit ezagutu zenuen, baina, nik ba ezagutu dut esneketaria)

maderistie: egur tratularia

marinue: marinua, marinela

medikue: medikua

"Medikue eukitxeuden, da gero a lagunduten, da esebes besterik, etzien danak" - (Medikua edukitzen zuten, eta gero hura laguntzen, eta ezer ere ez besterik, etxean denak)

mielerue: ezti saltzailea

pajerue: galtzu saltzailea

"Ba suerte san, ba negu baten alfafa sikue, ba ordun ganadutxu asko eukitte, aitte

ARRIETAKO HIZTEGIA

baño es, ba goasen Nabarrara ta, kamioi bet alfafa ekarri bi dxuk andik, beti ba amen ibiltten pajeruek eta serien da, iñon bittartes guk dxoan bi dxuk, da geuk eskojidu te bertatik kamiokadie ekarkou, da olantxe domeka baten pentzeute, alakon baten lotu de erri baten da, ba beskari dxateko ordue, da beskari dxaten gausela, emetik ibiltten dan pajerue, da badiñost base, koño! ya ke etor sarien, ba esango tzut non dekosuen alfafie t'olan, da erakutzi oskun, eroan oskun solora, bertatik solotik ikusi gendun, koxitten egon siren ordun, enfardetan da, ederra alfafie, kontrate gendun kamioikadie, da diñosku base, neuk esanotzan, da arek an ser dabile an biarrien? tratoraas an bueltaka? ser eitten dabis? es arek esparragera tires, ta ser bata, oiñ au seuenien be ixengo litxeke, diño berak olantxe, pajeruek esa oskun de, ba neuk emongo tzuetes ogetamar sepa, da eixue aprobie, aprobie in bi du te ba, atzaldien beskari dxan, da au imin yu bijie ekarteko ta beraas, e, an tabernan kafie artzen gausela, esa oskun base, bueno neuk eroango tzut ointxe saku baten, ekarri oskusen ogetasak, igual, e, sientoa igual etorko siren se, ire sustradxen moduen, igual iguala tires eurek, sustraidxe da" - (Ba suertatu zen, ba negu baten alfalfa sikua, ba orduan ganadutxo asko edukita, aita baino ez, ba goazen Nafarroara eta, kamioi bat alfalfa ekarri behar diagu handik, beti ba hamen ibiltzen galtzu-saltzaileak eta zerean eta, inoren bitartez guk joan behar diagu, eta geuk aukeratu eta bertatik kamioikada ekarriko dugu, eta holantxe domeka baten pentsatuta, halakoren baten lotu da herri baten eta, ba bazkari jateko ordua, eta bazkari jaten gagozela, hemendik ibiltzen den galtzu-saltzailea, eta badinost baze, koño! etorri zaretenez gero, ba esango dizut non daukazuen alfalfa eta holan, eta erakutsi zigun, eroan gintuen sorora, bertatik sorotik ikusi genuen, hartzen egon ziren orduan, enfardatzen eta, ederra alfalfa, kontratatu genuen kamioikada, eta dinosku baze, neuk esan nion, eta haiek han zer darabilte han beharrean?

traktoragaz han bueltaka? zer egiten dabilta? ez haiek esparragerak dira, eta zer ba eta, orain hau zeuenean ere izango litzateke, dino berak holantxe, galtzu-saltzaileak esan zigun eta, ba neuk emango dizkizuet hogeita hamar ondo, eta egizue aproba, aproba egin behar dugu eta ba, arratsaldean bazkari jan, eta hau ipini dugu bidaiaria ekartzeko eta beragaz, han tabernan kafea hartzen gagozela, esan zigun baze, beno, neuk eroango dizut oraintxe zaku baten, ekarri zizkigun hogeitazak, beharbada, ehunekoa beharbada etorriko ziren, ze, ira sustraiaren moduan, berdin-berdinak dira eurak, sustraia da)

panaderue: okina

parterie: emagina

"Parterie ser esango tzut ni pa, gure ama, amoma, amoma gurie ba dxoate san ainbet lekure, ainbet lekure dxoate san bai, amoma" - (Emagina zer esango dizut nik ba, gure ama, amama, amama gurea ba joaten zen hainbat lekutara, hainbat lekutara joaten zen bai, amama)

"Gure amak sortzi ixen txusen da, aixeas beko parterias ixen suela, ori entzutie nik beti euki dot, medikurik etzera barik, ba arexeas ein seitxusela" - (Gure amak zortzi izan zituen eta, harexegaz beheko emaginagaz izan zuela, hori entzutea nik beti eduki dut, medikurik etxera barik, ba harexegaz egin zituela)

pastorie: artzaina

"Tabak, orrek oin saso onetan etorten siren, e, kiputzek ona, probintzekoak esaten tzaku orreri, probintzixi etorten sien, pastoriek, t'arek emote oskun taba batzuk, eta orrexek tabak" - (Tabak, horiek orain sasoi honetan etortzen ziren, giputzak hona, probintziakoak esaten diegu horiei, probintziatik etortzen ziren, artzainak, eta haiek ematen zizkiguten taba batzuk, eta taba horiexek)

sakerue: zaku egilea

sapaterue: zapataria

sardiñerie: sardinera, arrain saltzailea

"Sardiñerak etorte sien, Bermiotik ona oñes Sollubetik" - (Sardinerak etortzen ziren, Bermeotik hona oinez Sollubetik)

sekretaridxo: idazkaria

serrerue: zerraria

ARRIETAKO HIZTEGIA

sesterue: otzara egilea

"Etzien be use du guk ori sesterue, sillek eta, onek onetariko sillek es baya, onek bestiek sidxegas eitten dire, orretarikoari aspidxek imintten, eta sestotxue itten, eta sarenak eitten d'orrek etzien b'euki du iños" - (Etxean ere erabili dugu guk hori otzara egilea, aulkiak eta, hauek hauetariko aulkiak ez baina, beste hauek zihiaz egiten dira, horietarikoei azpiak ipintzen, eta otzaratxoa egiten, eta zaranak egiten eta horiek etxean ere eduki dugu inoiz)

tabernerue: tabernaria

telerue: ehun saltzailea

traperue: trapu erosle eta saltzailea

txarrisñe: txarrizaina

"Txarrisñe etorri itxen san txarrix saltzen ortik Gerniketetik edo, gixon bat, e, brusdun bat" - (Txarrizaina etorri egiten zen txerria saltzen hortik Gernikatetik edo, gizon bat, brusdun bat)

txatarrerue: txatarrerua

txoferra: txoferra

16.2. AROTZA/HARGINTZA

arotza: arotza

"An ateutek dxoste seittuesan, ateutek aros batek" - (Han atauteak josten zituen, atauteak arotz batek)

arotzeridxe: arotzeria

argiñe: hargina

arpan serrie: basoan lehen erabiltzen zen zerra enborretatik oholak egiteko

arri mallue: harri mailua

asulie: azuela

birbikiñe: birbikina

"Etze askotan tope du guk, ola bi dxositte, eiñ, latroagas edo birbikiñeas suloak suloak eta, serakas, e, dxositte serakas, sidxekas dxositte" - (Etxe askotan topatu dugu guk, ohola bi josita, egin, laratroagaz edo birbikinagaz zuloak-zuloak eta, zerakaz, josita zerakaz, ziriakaz josita)

brokie: broka

bufardie: harria pikatzeko mailua

erbatza: erbatza

"Erbatza ixeten da igual arotzeridxen sabixenien edo, makiñeren baten alau

tiretxuek urten batzun kendu ori erbatza urten tzona, erbatza kendu, eskiñe, tire batek urten tzonak estana bier edo erbatza" - (Erbatza izaten da beharbada arotzerian zabiltzanean edo, makinaren baten halako tiratxoak irten bazizun kendu erbatz hori irten diona, erbatza kendu, eskina, tira batek irten dionak ez dena behar edo erbatza)

erreminttie: erreminta

"Kodañe ugeridxau te erremintte au etor dok!" - (Kodaina ugariagoa eta erreminta hau etorri duk!)

esku sepillue: esku zepiloa, esku arrabota

eskuadrie: eskuadra

gabillie: kabila

"Sidxe da kuñe modure, da gabillie da beste biribille" - (Ziria da ziri modura, eta kabila da beste biribila)

garlopie: garlopa

gillamie: gilama

ginbeleta: ginbeleta

granbille: oholetan markak egiteko erabiltzen dena

kanaladora: kanalak egiteko makina

lakie: laka

"Lakie da egurre ebaikeran, ba tronkoan, egalien lotzen dan au, falta dana, lakie" - (Laka da egurra ebakikeran, ba enborraren hegalean lotzen den hau, falta dena, laka)

"Lakie ba, bueno satidxe imiñi edo, baya lakie ixete san ba, egurrek emon es, ebaikeran, dxoakeran, ebaikeran, ba alan, egaltxu beten ba, faltie da lakie" - (Laka ba, beno, zatia ipini edo, baina laka izaten zen ba, egurrak eman ez, ebakikeran, joakeran, ebakikeran, ba halan, hegaltxo baten ba, akatsa da laka)

laratroa, laatroa, latroa: laratroa

"Gero ein laatroagas, suloa, eta sartzen tzien sidxe, esaten tzie areri, egurre, sidxe, an suloa ein ye gero sidxe sartun, burdiñe barik sidxegas sartunde daus, lenaukoak" - (Gero egin laratroagaz, zuloa, eta sartzen zioten ziria, esaten zioten hari, egurra, ziria, han zuloa egin eta gero ziria sartu, burdina barik ziriagaz sartuta dagoz, lehenagokoak)

latrillie: laratro txikerra

mallue: mailua

matxinbrie: matxinbrea

ARRIETAKO HIZTEGIA

metxie: broka

mintze: erbatza, egur zati txikerra azalean sartzen dena

otxandidxo untzie: otxandio iltzea

"Untzek, e, emen Otxandidxon eitte ttesan untzek, amen lenau antza, Otxandidxo ixen san fabrika, untze sarrak otxandidxo untzie esaten tzienak, ixete sien ba, e, kuadradeuk, eta buru sabalagas da lusiek" - (Iltzeak, hemen Otxandion egiten zituzten iltzeak, hamen lehenago antza, Otxandio izan zen fabrika, iltze tzarrak otxandio iltzea esaten zitzaienak, izaten ziren ba, karratuak, eta buru zabalagaz eta luzeak)

palankie: palanka

porrie: porra, mailu mota bat

"Iguar, e, esin yosu bota, ta estabaiden dau, sartzen dosu, burdiñesko tako edo kuñe bat, ta porreas dxo, da ein didxen, ara botateko" - (Beharbada, ezin duzu bota, eta eztabaidan dago, sartzen duzu, burdinazko zati edo ziri bat, eta porragaz jo, eta egin dezan, hara botatzeko)

punteroa: punteroa, harria lantzeko erabiltzen dena

san jose serrie: san jose zerra, zerra mota bat

sepillue: zepiloa, arrabota

serrie: zerra

serriñe: zerrautsa

serrotie: zerrota

sidxe: zirria

"Untzie karue ixete san, sidxekas, sidxekas edo seragas, eiñ laratroas suloa, ta eiñ egurrekas, egurresko sidxekas sartu goittik bera" - (Iltzea garestia izaten zen, ziriakaz, ziriakaz edo zeragaz, egin laratroagaz zuloa, eta egin egurraz, egurrezko ziriakaz sartu goitik behera)

sintzela: zintzela

suaridxe: ebakitzeko luzera handiko piezak markatzeko erabiltzen den haria

"Ori lenau eitteudien lanias, lanias ein ye gero, eitteuen erre, e, erretauen idie edo olako seoser, gero an nasteu, aren serien, eutzeas" - (Hori lehenago egiten zuten artileagaz, artileagaz egin eta gero, egiten zuten erre, erretzen zuten ira edo holako zerozer, gero han nahastu, haren zerean, hautsagaz)

tabloye: ohol handia

taluse: alboz egiten den ebaketa

tiroa: harrobian harria ateratzeko eragiten den leherketa

"Tiroak eitten deu, dardieu eitten deu" - (Tiroak egiten du, dardartu egiten du)

trontzie: trontza

"Guk atxiñe itxen gendun ebai trontziegas egurre" - (Guk antzina egiten genuen ebaki trontzagaz egurra)

txirlorie: txirlora

"Lengoan neu pe txirlorie artu neuenien ba, amendik asaletik sartu dxaten da, atara esiñi kero" - (Lehengoan neuk ere txirlora hartu nuenean ba, hamendik azaletik sartu zitzaidan eta, atera ezinik gero)

"Txirlorak oiñ, e, onek danak, e, aprobetxetan die" - (Txirlorak orain, hauek denak, aprobetxatzen dira)

untzie: untzea, iltzea

"Lengo etzietan es, lengo etzietan, e, orrek agiek eta, untzekas, baya untzek sirenak, e, serak, errementaridxe eiñeko untzekas, untze barik, orrek etziek geuriek lengoa pe euki deu, oin estekos, eitxen tzien seinye ser bat, a, aolan agin bet, da beste agin bet eta emen enpalmeta" - (Lehengo etxeetan ez, lehengo etxeetan, hage horiek eta, iltzeakaz, baina iltzeak zirenak, zerak, errementariak egineko iltzeakaz, iltze barik, etxe horrek gureak lehengoak ere eduki du, orain ez dauzka, egiten zioten zein da zer bat, haolan hagin bat, eta beste hagin bat eta hemen erantsita)

16.3. ERREMENTARITZA

argimallue: argi mailua

burdiñie: burdina

"Eukitxusen, oiñ estaitx non dausen be, baya euki txusen aulako, burdiñe lako geuse batzukes, run, run, nire amomak eitxen txusen" - (Eduki zituen, orain ez dakit non dagozen ere, baina eduki zituen haolako, burdina lako gauza batzuekaz, run, run, nire amamak egiten zituen)

erradorie: perratzailea

erradurie: perra

"Guk erradure be ganaduek etzien geuk eitten ixen dus beti" - (Guk perra ere

ARRIETAKO HIZTEGIA

ganaduak etxean geuk egiten izan ditugu beti)

"Erradurek erosi itten gendusen guk" -
(Perrak erosi egiten genituen guk)

errematxie: errematxea

errementaridxe: errementaria

"Orre tire gurpillek, Bakidxon eiñekoak, nire aitte defuntuek enkargeute, eta orrek eitte seittusen, errementaridxe" -
(Horiek dira gurpilak, Bakion eginekoak, nire aita difuntuak enkargatuta, eta horiek egiten zituen, errementariak)

"Errementaridxe eitteusen orrek bierrak" -
(Errementariak egiten zituen behar horiek)

"Errementaridxe ortxe Olabbarriñ egoan, oniño bixi de" - (Errementaria hortxe Olabarrin zegoen, oraindino bizi da)

errerue: errementaria

euntegidxe, untidxe: ehuntetia

"Onek egote sien lenau amen, ba or be egon sien da lantzien leku beten egoten sien untidxe, ta an erradureta san" - (Hauek egoten ziren lehenago hamen, ba hor ere egon ziren eta lantzean leku baten egoten ziren ehuntetia, eta han perratzen zen)

galtzeirue: galtzairua, altzairua

mallue: mailua

porrie: porra, mailu mota bat, handia eta astuna

sutegidxe: sutetia

"An sutegidxe ote san, arek erradurek ein ye arie ta" - (Han sutetia egoten zen, hark perrak egin eta area eta)

tenesie: teneza

txatarra: txatarra

ugerra: ugerra

17. ABELAZKUNTZA

Abelazkuntzaren gaineko berbak aurkezteko, abere mota bakoitzaren araberrako ondoko sailkapena egin dugu: ganadua, ardiak eta ahuntzak, ekinoak, txerria, oiloak, erleak, txakurra, katua eta gainerakoak; azken azpi-atal honetan arteragokoetan ezin sartu izan ditugun berbak agertuko dira.

17.1. GANADUA

adar apala: adar apala

adarka: adarka

adarkadie: adarkada

"Adarkadie jeneralien, e, au eitten deuenien, e, da beste batzuten murrake, ra golpe datos" - (Adarkada gehienetan, hau egiten duenean, eta beste batzuetan murraka, ra kolpe datoz)

adarra: adarra

"Inportantie da ori ademas, ididxe adarrak, a, bat baju badeko, ak ididxe esteu balidxo, ebai itten tzien adarra be" - (Garrantzitsua da hori gainera, idiak adarrak, bat baxu badauka, idi hark ez du balio, ebaki egiten zioten adarra ere)

"Ortako ba, adartxuek, e, gorantza erain gure badxako, beti gasteta san, beti gasteu apurtxu bet, asala gasteu, goiko asalak gorantza inyar ein deidxon" - (Horretarako ba, adartxoak, gorantza eragin gura bazaio, behetik gastatzen zen, behetik gastatu apurtxu bat, azala gastatu, goiko azalak gorantz indar egin diezaion)

agutxarriñe: errapearen gaixoa

aida!: aida, ganaduari aurrera arinago egiteko esaten zaio

albañie: albaina, arnasa estua

"Albañen on dosak" - (Albainean egon dituk)

anilloa: sudurreko uztaia, paradako zekorrari ipintzen zaiona

ankie: hanka

antzue: antzua

apala: apala

"Apala ya adarrak beras dekosena da, adar apala" - (Apala ja adarrak beherantz dauzkana da, adar apala)

apatxa: apatxa

"Ori apatxetako bat, inportantie da, apatxak egala deko, ertza deko emen, esta? da kanpoan ibillieskero, a ertza solteu itten da, idi itten dxako, ertza idi itten da, da gero selan ibiltten dan kanpoan, a iditten dana lurreas edo basiegas edo bete itten da, da a sakatuten, sakatuten idi itten dxako, da ebai in bi dxako a, guk garbittu, da erradurie imiñi ba kureu, olantxe in bi da" - (Hori apatxetako bat, garrantzitsua da, apatxak hegala dauka, ertza dauka hemen, ezta? eta kanpoan

ARRIETAKO HIZTEGIA

ibiliz gero, ertz hura soltatu egiten da, ireki egiten zaio, ertza ireki egiten da, eta gero zelan ibiltzen den kanpoan, hura irekitzen dena lurragaz edo basagaz edo bete egiten da, eta hura sakatzen, sakatzen ireki egiten zaio, eta ebaki egin behar zaio hura, guk garbitu, eta perra ipini ba osatu, holantxe egin behar da)

apatxetakoa: apatxartekoa, ganaduaren gaixoa

arbidxe: apatxen barruko mamia

armerie: armera, ganaduaren adarrek osatzen dute armera

"Armera politte deko" - (Armera polita dauka)

"Adarra bera deko ak, armera txarra" - (Adarra behera dauka hark, armera txarra)

arrana, arrena: arrana

aspidxe: azpia, kortan egiten zaien ohea egiteko materiala

"Oñ egunien iru bider garbittan dxakes aspidxek, orduen amabostari beñ igual, edo sortzi eguni beñ igual botate siren aspiko satarreridxe sas pillora" - (Orain egunean hiru bider garbitzen zaizkie azpiak, orduan hamabostarik behin beharbada, edo zortzi egunik behin beharbada botatzen ziren azpiko zatarrerriak sats pilora)

aspigarri metie: aspigarri meta

"Ondo konserbetarren ba, imiñi gero puntan, e, seinye sera aspigarri metie eitten dan moduen, imiñi ure sartu estidxen puntan, e, orretara, gero denpora ona danien sabal sabal sabal eguskidxe emon, da gero etzeratu te gero, arrilosak imiñi, totoan edo dxoten da olan eitte san gari dxoten" - (Ondo kontserbatzarren ba, ipini gero puntan, zein da zera aspigarri meta egiten den moduan, ipini ura sar ez dadin puntan, horretara, gero denbora ona denean zabal-zabal-zabal eguzkia eman, eta gero etxeratu eta gero, harlauzak ipini, totoan edo jotzen da holan egiten zen gari jotzen)

aspigarridxe: aspigarria

"Ametik eta Mapera, edo Makuleta, badakixu suk non dauen, Makuleta beko ori, serena, Paula defuntiena ta, aren andiko parteraño dxoaten giñen gu

aspigarritten, e?" - (Hamendik eta Mapera, edo Makuleta badakizu zuk non dagoen, Makuleta beheko hori, zaharrena, Paula difuntuarena eta, haren handiko alderdiraino joaten ginen gu azpigarritan, e?)

asturiana bedxe: asturiar behia, behi enda bat

asturianie: asturiarra, behi enda bat

asturianue: asturianoa, ganadu enda bat

atze biko ididxe: matutoa

atze sabala: atze zabala

atzie: atzea

atzistue: behien kalidadea, atze estua

bartzianoa: idi mota bat

bedxe: behia

"Eusnarra txarto bedxek, da bedxek txarto dxan, da adurre, kendu biar ixen gendun" - (Hausnarra txarto behiak, eta behiak txarto jan, eta adurra, kendu behar izan genuen)

bei arra: behi arra, behi antzua

bei matxorrie: behi arra

beintxie: begantxa

bekorotza: bekorotza

bera!: behera!

besaka: besaka

"Ba bidxe txarrak, estai pa nik, i, neuk, u, estot iños, o, orrenbesteko esperentzirik euki, bai, baten suerte dxakun, euki gendusen ididxe onak, onak, salamankiño batzuk, eta, amen etzien igual esiren egon sarri aren moduko ididxe, ixen siren proba ididxe, arek ibilte siren, baya ixen siren gorputzekoak, gorputzekoak ixen siren, proba ididxe konpletoak ixen siren! eta arek ibilte siren, akulue be esaten dxakon, norbera eurreti dala, da altuek, andidxe ixen siren, diñoten moduen barridxen esanda, aren bestekorik estu iños euki amen, eta, olantxe egun baten, e, ortik, Olatxutik ona gora, geubes etor nitzen eurekas, da klaro aiñ artes ibiltten sireles, busterri utzien, bustertute, gurdidxegas ba defentsa ba tekie, se partiek dxagoten ttu te, ba, busterri utzien etor sireles, or beyen dau uneda bat, bastante istue, arek artien ondo paseta sien andik, ondo artes artes, eta nik estaipa, aor bien, ikeratu, billurtu in siren seragaittik, neu etor nitzen eurretik

ARRIETAKO HIZTEGIA

eta atzetik astrapala itzela, ididxen kontran, artien ondo etorritte, eta koste in dxaten pasatie, ikeratu edo antza in siren, eta asi siren onetara sakatuten alkarrerri, besaka, eta paseu esiñ" - (Ba biak txarrak, ez dakit ba nik, neuk, ez dut inoiz, horrenbesteko esperientziarik eduki, bai, baten suertatu zitzaigun, eduki genituen idiak onak, onak, salamankino batzuk, eta, hamen etxean beharbada ez ziren egon sarri haien moduko idiak, izan ziren proba idiak, haiek ibiltzen ziren, baina izan ziren gorputzekoak, gorputzekoak izan ziren, proba idi osoak izan ziren! eta haiek ibiltzen ziren, akuilua ere esaten zitzaion, norbera aurretik dela, eta altuak, handiak izan ziren, dinodan moduan berriro esanda, haien bestekorik ez dugu inoiz eduki hamen, eta, holantxe egun baten, hortik, Olatxutik hona gora, gauetz etorri nintzen eurakaz, eta jakina hain artez ibiltzen ziren lez, buztarri hutsean, buztartuta, gurdiagaz ba defentsa bat daukate, ze partikak jagoten ditu eta, ba, buztarri hutsean etorri ziren lez, hor behean dago unada bat, nahiko estua, haiek artean ondo pasatzen ziren handik, ondo artez-arte, eta nik ez dakit ba, haor behean, ikaratu, bildurtu egin ziren zeragatik, neu etorri nintzen aurretik eta atzetik astrapala itzela, idien kontra, artean ondo etorrita, eta kostatu egin zitzaidan pasatzea, ikaratu edo antza egin ziren, eta hasi ziren honetara sakatzen elkarri, besaka, eta pasatu ezin)

besatirrie: besatira

biar bedxe: behar behia

bidekatxa: apatxetako gaixoa

bigie: begaia, begantxa

"Sekorra ela bigie da?" - (Zekorra ala begia da?)

biridxetakoa: birikietakoa

buelta: buelta egiteko esaten zaie

buelta atzera: buelta egiteko ganaduari esaten zaio

bustena: buztana

"Guk eskus erasten gendun denporan, bedxek eukitten deu bustena, ulie lusie igual eukitten deu, alako ule bi koixu, da beran isterrera amarretan espadxakos arek uliek, kordeltxu bet amarreu, se

ostantzien, bustenan puntie loi badeko dxoten tzu arpeidxen da imintten tzu!" - (Guk eskuz eraisten genuen sasoiaren, behiak edukitzen du buztana, ilea luzea igual edukitzen du, halako ile bi hartu, eta beraren izterrera amarratzen ez bazaizkio ile haiek, kordeltxu bat amarratu, ze osterantzean, buztanaren punta lohi badauka jotzen zaitu aurpegian eta ipintzen dizu!)

busterrirreko bedxe: buztarri behia

dindirridxe: dindirria, txahala egin aurrean behian naturatik botatzen duen lohitasuna
"Lenau eukitxen due normalien bedxek eta onek, dindirridxe eukitxen due bierbada, bost sei illebete edo dekiesenien igual, bakixu atzetik daridxola olan dindirridxe, baya ya ernaridxen dausenien, e?" - (Lehenago edukitzen dute normalean behiek eta hauek, dindirria edukitzen dute beharbada, bost sei hilabete edo dauzkatenean igual, badakizu atzetik dariola holan dindirria, baina ja ernarian dagozenean, e?)

durangie: ganadu arraza bat

durangoa: ganadu arraza bat

dxuntie: hanketako juntura

enpajadie: enpajada

"Enpajadie, galtzu utzegas es baya, oten sien patata asalak edo, saidxe, nastetako ta gero ur beroa bota ganera, beratuteko, ta tapeute itxi apur baten eta gero arto urune nasteu, da a emoten dxakien ganadueri, enpajadie esaten dxakon" - (Enpajada, galtzu hutsagaz ez baina, egoten ziren patata azalak edo, zahia, nahasteko eta gero ur beroa bota gainera, beratze, eta tapatzeko utzi apur baten eta gero arto irina nahastu, eta hura ematen zitzaian ganaduei, enpajada esaten zitzaion)

enpatxue: enpatxoa, ganaduaren gaixoa

ernari: ernari

"Txala in baño ariñau, igual lau bost illebeteko ernaridxe dekonien" - (Txahala egin baino arinago, beharbada lau bost hilabeteko ernaria daukanean)

"Bai esangutena, ordun ya asten dxakes, ernari txikerra dekonien lau bost sei illebetera doasenien" - (Bai esan gura dudana, orduan ja hasten zaizkie, ernari

ARRIETAKO HIZTEGIA

txikerra daukanean lau bost sei hilabetera doazenean)

errapie: errapea

"Txala barruen edo badau te, esnie, errapie utzittute badeko ba oneri seusek edan tzo" - (Txahala barruan edo badago eta, esnea, errapea hustuta badauka ba honi zer edo zerk edan dio)

erri bedxe: herri behia

"Geur asko gedxau ongo da bierbada, baya orduko sasoikoak, ba, batzuk, lelengo suisak, eta beste batzuk turrankak, beste batzuk u, kastañadak esaten dxakienak, eta, oingo moduten estau, erri ganadue, erri bedxek" - (Gaur asko gehiago egongo da beharbada, baina orduko sasoikoak, ba, batzuk, lehenengo suizarrak, eta beste batzuk turrankak, beste batzuk, gaztainadak esaten zitzaizkienak, eta oraingo moduetan ez dago, herri ganadua, herri behiak)

erri bei katanarra: herri behi katanarra, gorri antzeko koloreagatik esaten da

erri ganadue: herri ganadua

erroa: erroa

erroko txala: erroko txahala

eskeilekue: eskegi lekua, hil eta ostean eskegitzeko alderdiari esaten zaio

esnatzie: esnatza, esne asko ematen duen behia

esne askokoa: esne askokoa

esne bedxe: esne behia

esne beroa: esne beroa, errorik harakoa da

esne gitxikoa: esne gutxikoa

esne lodidxe: esne lodia, behiak txahala egin eta ostean ematen duen haserako esnea

"Esne lodidxe bai, ori esaten gontzan" - (Esne lodia bai, hori esaten genion)

"Esne lodidxe, ori inportantie da txalak dxadxoten danak edateko ganera, estemangutik libretako, dxadxoten daniien ori apur bet edatie txalak inportantie da, ama ill edo itten bada txalak esnie barik, txalak txarto pasetan deu" - (Esne lodia, hori garrantzitsua da txahalak jaiotzen denak edateko gainera, urdailetik libratzeko, jaiotzen denean hori apur bet edatea txahalak garrantzitsua da, ama hil edo egiten bada txahalak esnea barik, txahalak txarto pasatzen du)

esne txarrastadie: esne txorrotada

espille: espila

"Espille deko bekokidxen" - (Espila dauka bekokian)

eurkidxe: aurkia

eurreko palak: aurreko haginak

eurrerako txala: aurrerako txahala

eurt: jeurt, ganadurari buelta egiteko esaten zaio

eusnarra: hausnarra

"Artes esteu itten, e? andik ya denporie bideu baya, eusnar asten da gero ganadue" - (Artez ez du egiten, e? handik ja denbora behar du baina, hausnar hasten da gero ganadua)

ganadue: ganadua

"Ganadueri emoten dxakien andik dxaten" - (Ganaduei ematen zitzaizkien handik jaten)

ganadu gorridxe: ganadu gorria

garagarraka: garagarraka, lurrean bueltaka ibiltzen direnean esaten da

gora!: gora!

idi parie: idi pareta

ididxe: idia

kaderie: hanka

"Ganadue sartzen da, amarretan da da, eitten dxako olako ser batzukes, rodillo batzukes, palankakas altzeu gora ganadue, aidien imiñi, da gero agarreu sokiegas, kaderieri tte tiretu, te sujeteu an atzien, kaderie gogor gogor ta ba, antxe" - (Ganadua sartzen da, amarratzen da eta, egiten zaio holako zer batzuekaz, txilindro batzuekaz, palankakaz altxatu gora ganadua, airean ipini, eta gero oratu sokagaz, hankari eta tiratu, eta eutsi han atzean, hanka gogor-gogor eta ba, hantxe)

kañarie: kainada, hanketako hezurra

"Emetik belunetik berakoari kañarak esaten tzagu guk, emetik belunetik berakoari, kañarie, andik eta apatxerartien gero apatxa" - (Hemendik belaunetik beherakoei kainadak esaten diegu guk, hemendik belaunetik beherakoei, kainada, handik eta apatxeraino gero apatxa)

kartzelidxe: galtzelia

"Ganadue taus batzuk, kartzelidxe gedxau dekienak, au dekienak gedxau, ulertesu? orixe da kartzelidxe" - (Ganaduak dagoz batzuk, galtzelia gehiago daukatenak,

ARRIETAKO HIZTEGIA

*hau daukatenak gehiago, ulertzen duzu?
horixe da galtzelia)*

kastañadie: gaztainara, behien kolorea

kastañie: gaztaina, behi mota bat

kastañoa: idi mota bat

kokota: kokota

korotza: gorotza

mamitisa: mamitisa, ganaduaren gaixoa

matrise: matriza

matutie: matutoa, ganadu arraza (f.)

matutoa: matutoa, idi mota bat

bei matxorrie: behiarra, matxorra

matxorrie: behiarra, matxorra

*"Bedxe matxorrie, bei madariketu ori
matxorrie" - (Behia behiarra, behi
madarikatu hori behiarra)*

morrosaka: murrusaka

morrosie: murrusa

murruke: murruka

murrukie: murrukada

musturre: muturra

naparreidxe: nafarrerria

*"Apatxetan da agoan be egoten da
naparreidxe" - (Apatxetan eta ahoan ere
egoten da nafarrerria)*

narrue: narrua

*"Pelotak ein be etzien eitten gendusen,
narruek ekarritte" - (Pelotak egin ere
etxean egiten genituen, narruak ekarrita)*

naturie: alua

o: o, ganaduari lotzeko esaten zaio

okelarako bedxe: okelarako behia

orroa, orroye: orroa

osalie: osala

*"Ori ya txarridxentzako esta itten ori oiñ,
lenau itte san ori, osalie" - (Hori
txerrientzat ez da egiten hori orain,
lehenago egiten zen hori, osala)*

*"Osalie ganaduena da" - (Osala
ganaduarena da)*

ostike: ostika

ostikedie: ostikada

paradako sekorra: paradako zekorra

*"Paradako sekorrrik guk estu iños euki" -
(Paradako zekorrrik guk ez dugu inoiz
eduki)*

*"Len paradako sekorrak ote sien emen, leku
askotan da page itxe suen aonenbeste,
mille peseta, mille ta bosteun edo
olantxe, mille peseta ingeru" - (Lehen
paradako zekorrak egoten ziren hemen,
leku askotan eta ordaindu egiten zuten*

*haonenbeste, mila pezeta, mila eta
bostehun edo holantxe, mila pezeta
inguru)*

paradie: parada

*"Paradie eukitteko diputasiñoak autorise in
bideu, e? orduen bai beintzet, ori
edoseñek eseuen eukitten" - (Parada
edukitzeko aldundiak baimendu egin
behar du, e? orduan bai behintzat, hori
edozeinek ez zuen edukitzen)*

partoa: erditzea

*"Ori inportantie da, partoan ama ill edo
itten bada, arek txalak aman esnie apur
bet edatie" - (Hori garrantzitsua da,
erditzean ama hil edo egiten bada, txahal
hark esnea apur bat edatea)*

pekorotza: bekorotza

pentzue: pentsua

*"Pentzue txarra da orrentzako, pentzu asko"
- (Pentsua txarra da horrentzat, pentsu
asko)*

*"Batzuk, u, sebadie be bai, igerten dure,
pentzureko edo dediketan dienak" -
(Batzuek, garagarra ere bai, igertzen
dute, pentsurako edo dedikatzen direnek)*

potroa: potroa

pulpa sakue: pulpa zakua

pulpie: pulpa

*"Pulpie bai, bata da pulpie granulaue, oin
ya etorten dana, ya granulaue dator" -
(Pulpa bai, bata da pulpa granulatu,
orain ja etortzen dena, ja granulatu
dator)*

salamankinoa: idi mota bat

sankarroye: zankarroia, zankaztela

sankie: txanka

satza: satsa

seboa: bilgorra

sekor paradie: zekor parada

*"Bedxek sekorrainie eroan bisus de, sekorra
espadekosu" - (Behiak zekorragina
eroan behar dituzu eta, zekorra ez
badaukazu)*

sekorra: zekorra

sorroa: ume zorroa

*"Ori sorroa dana botaten deu kanpora, a
sartzen esta aiñ erresa gero" - (Zorro
hori dena botatzen du kanpora, hura
sartzen ez da hain erraza gero)*

suisa bedxe: suizarra, behi enda bat

suisie: suizarra, ganadu arraza bat

suldarra: zuldarra

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Orrek suldarrak ixeten dires, itten dxake, kotxoa barruen formetan dxako orreri, ta gero apur bet elduten dienien, sakatu olan da, dak! erremente ta urtetan tze" - (Horiek zuldarrak izaten dira, egiten zaie, kotxoa barruan egiten zaio horri, eta gero apur bat heltzen direnean, sakatu holan eta, dak! errementatu eta irteten die)

susera: susara

"Au bedxe susera da ta sekorrainē eroan biot" - (Behi hau susara da eta zekorragana eroan behar dut)

tañoye: porraileak, ganaduaren gaixoa, errapearen egiten zaikion gogortuneen izena

tira: tira, aurrera egiteko esaten zaie

tortie: torta, ganaduaren jatekoa

"Tortie bai, ori, be badau baya ori estot esetu nik geure etzien, guk estu iños gasteu" - (Torta bai, hori, ere badago baina hori ez dut ezagutu nik geure etxean, guk ez dugu inoiz gastatu)

turrankia: turranka, behi mota bat

turrankoa: turrankoa, idi mota bat

txala: txahala

"Suk asten baosu txala, nik txarridxe, ta suk txala, sure txalan erdidxe nik artze neuen, eta nire txarridxen erdidxe suk, olan arregleta san, urte askotan" - (Zuk hazten baduzu txahala, nik txerria, eta zuk txahala, zure txahalaren erdia nik hartzen nuen, eta nire txerriaren erdia zuk, holan konpontzen zen, urte askotan)

"Guk txala ta urte gustittan iltten du, bueno urte gustittan edo" - (Guk txahala eta urte guztietan hiltzen dugu, beno urte guztietan edo)

txala narrue: txahal narrua

txalille: txahalhila

txarolesa: behi enda bat

txiliñe: txilina

"Txiliñe bai ganadueri imintxen dxakien" - (Txilina bai ganaduei ipintzen zitzaien)

ume sorroa: ume zorroa

"Igual barruek botaten tzus, ume sorroa be, dana botateko peligru andidxe dau" - (Igual barruak botatzen dizkizu, ume zorroa ere, dena botatzeko arrisku handia dago)

umetokidxe: umetokia

"Bedxek dxaten deu umetokidxe" - (Behiak jaten du umetokia)

17.2. ARDIAK-AHUNTZAK

akarra: akerra

akar urrusie: aker urrusa

"Akar urrusie da es arra es emie, bidxetarikoa" - (Aker urrusa da ez arra ez emea, bietarikoa)

ardidxe: ardia

"Onako ardidxe latxa da onena" - (Honako ardia latxa da onena)

ardi korotza: ardi gorotza

"Arek eroateuen ametik ardi korotz utz utze, batun, eta ortuetara bota" - (Hark eroaten zuen hamendik ardi gorotz huts-hutsa, batu, eta ortuetara bota)

ardi mandie: ardi multzoa

"An on da ardi madie" - (Han egon da ardi multzoa)

ardi narrue: ardi narrua

ardi sarra: ardi zaharra

"Ardi sarrak etxok balidxo" - (Ardi zaharrak ez dik balio)

ardi satza: ardi satsa

ardi txabolie: ardi txabola

ardi txakurre: ardi txakurra, artxakurra

aritto, aritxoa: aharittoa

"Gordeistesu neuri, ori arittoan narrue" - (Gorde iezadazu neuri, aharito horren larrua)

"Asko in yus orrek, a, arittoakas asko in yu" - (Asko egin ditugu horiek, aritoakaz asko egin dugu)

"Aritxoa beti deko ardidxek, oiñ aritxoa pe igual falletan deu, baten batzuk, da bi edo iru bisus derrigor" - (Aharittoa beti dauka ardiak, orain aharittoa ere beharbada huts egiten du, baten batzuek, eta bi edo hiru behar dituzu derrigor)

arkastie: arkaztea

"Urtekoa arkastie da, da urte bikoa urte bi dekosena" - (Urtekoa arkaztea da, eta urte bikoa urte bi dauzkana)

arkera: arkera

artegidxe: artegia, artaldea

"Bera pe Solluben euki euen artegidxe, da goixien goixeti dxagi tte, Solluben ardidxek eratzi, da esnie saltzen dxoan Bermiora, da saldu esnie an" - (Berak ere

ARRIETAKO HIZTEGIA

Solluben eduki zuen artegia, eta goizean goizetik jagi eta, Solluben ardiak eraitsi, eta esnea saltzen joan Bermeora, eta saldu esnea han)

artxoa: artxoa

"Arrari artxoa, ta emieri urrusie" - (Arrari artxoa, eta emeari urrusa)

bekokarrie, bekorrie: bekekorra

billotza: bildotsa

"Billotza itxeko sasoyen etzera, one pe billotza bat einye ekar dot menditxik" - (Bildotsa egiteko sasoiari etxera, hauek ere bildotsa bat eginda ekarri ditut menditik)

"Oñes dxoan bi dxoate pa, ser ba? billotza dxadxo dxastek, ori geuse ederra ok" - (Oinez joan behar diat ba, zer ba? bildotsa jaiot zaidak, hori gauza ederra duk)

"Olako eguskidxe dauenien, blast! doa billotza errapera, ta esne apurtxu bet edaten badeu billotza salbeta dau, billotza gogorra da" - (Holako eguzkia dagoenean, blast! doa bildotsa errapera, eta esne apurtxu bat edaten badu bildotsa salbatuta dago, bildotsa gogorra da)

erkeria: arcaria

erkerarik: arkararik

"Ardidxe erkerari tau" - (Ardia arkararik dago)

eumie: aumea

euntze: ahuntza

"Berenoa deko euntzek, de euntze, euntze da bat txarra pistidxe" - (Pozoia dauka ahuntzak, eta ahuntza, ahuntza da bat txarra piztia)

lanie: artilea

mandie: ardi multzoa

markie: marka

orroa, orroye: orroa

urrusie: emea, urrusa

"Urrusie esaten tzaku guk, ardi jeneroari bai" - (Urrusa esaten diogu guk, ardi jeneroari bai)

urte biko: urte biko aharitua

urteko aritxoa: urteko aharitua

arre: asto eta zaldiei aurrera egiteko esaten zaie

astoa: astoa

"Aitte etorte san orra, bedarretan, astoagas" - (Aita etortzen zen horra, belarretan, astoagaz)

"Pasa dan urtien neu pe kendu neuen astoa" - (Pasa den urtean neuk ere kendu nuen astoa)

astoarra: astoarra

astoemie: astoemea

astokumie: astokumea

biorkie: behorka

"Biorkie esaten tzie ba, olan emieri apur bet gastetxue dana, biorkie, umerik einbakoa iños danari, biorkie, ya apurtxu bet asidxe tierenien" - (Behorka esaten diote ba, holan emeari apur bat gastetxoa dena, behorka, umerik eginbakoa inoiz denari, behorka, ja apurtxu bat haziak direnean)

biorra: behorra

burriñoa: burriñoa

"Burriñoa da, e, saldidxe astoagas" - (Burriñoa da, zaldia astoagaz)

garagarraka: garagarraka

girrintzie: irrintzia

ixo: ixo

kaballoa: zaldia

mandoa: mandoa

mulie: mandoa

muloa: mandoa

o: ixo

ostikedie: ostikada

poperreka: popaerreka, astoa saltuka eta ostikoka hasten denean esaten da

"Astoa dabil poperreka, igual arrantzaka, ta saltoka ta ostikeka or kanpoan dabilienien" - (Astoa dabil popaerreka, igual arrantzaka, eta saltoka eta ostikoka hor kanpoan dabilenean)

poperrie: popaerrea

saldidxe: zaldia

"Saldidxe astoak les esteu itten, metxuau itten deu saldidxe" - (Zaldiak astoak legez ez du egiten, mehetxoago egiten du zaldiak)

saldikumie: zaldikumea

17.3. EKINOAK

arrantzaka: arrantzaka

arrantzie: arrantza

ARRIETAKO HIZTEGIA

17.4. TXERRIA

anabakie: anabaka, txerrientzako jatekoa

"Anabakie, kalabasiakas da txarrixeri emotekoa san" - (Anabaka, kalabazagaz da, txerriei ematekoa zen)

andarridxe: birikietako mintza, andarrakia

"Andarridxe, ori olako, miñen antzeko ser luse bat ixetan da, estomaguari be inkeute oten dana" - (Andarrakia, hori holako, mihiaren antzeko zer luze bat izaten da, urdailari ere itsatsita egoten dena)

apoa: apoa

arkelie: arkela

barasarie: bare sarea

"Guk esaten tzaku orreri barasarie, geuse ba ta ori, guk esaten tzakune da barasarie" - (Guk esaten diogu horri bare sarea, gauza bat da hori, guk esaten dioguna da bare sarea)

billeridxe: bileria

"Billeridxe, ori kendute ote san, txarrixeri iltten sanien, tripen aspidxen eukitteuen ori ba, txarrena ixeta san a, eta a kendu sati bet eta gorde itte san gero edieri, busterridxeke aparatueri, aregas igurdi tte gosatuteko, ortako ixeta san a" - (Bileria, hori kenduta egoten zen, txerria hiltzen zenean, triparen azpian edukitzen zuen hori ba, txarrena izaten zen hura, eta hura kendu zati bat eta gorde egiten zen gero hedeei, buztarriko aparatuari, haregaz igurtzi eta gozatzeko, horretarako izaten zen hura)

biridxe: birikia

birikidxe: birikia

"Bai pulmoye tire birikidxe" - (Bai pulmoiak dira birikiak)

este gorridxe: heste gorria

"Este gorridxe da gero, estai pa nik, ya kanporartien doan tuboa goitti bera" - (Heste gorria da gero, ez dakit ba nik, ja kanporaino doan tutua goitik behera)

este lodidxe: heste lodia

este meye: heste mehea

estie: hestea

"Txalana tire lodidxauak, jangoiko esaten gontzan guk areri, olako, txalak bi edo iru eukitte ittus olakoak, da gero estiek lodidxauak eta gero metxuauak, da eukitte ittus, iru klase edo bai" - (Txahalarenak dira lodiagoak, jangoikoa

esaten genion guk hari, holako, txahalak bi edo hiru edukitzen ditu holakoak, eta gero hesteak lodiagoak eta gero mehetoagoak, eta edukitzen ditu, hiru mota edo bai)

gantxo: gantxo, txerria hiltzean oratzeko erabiltzen dena

gantzagidxe: gantzagia

"Gantzagidxe kentzen dxakos lelengo lelengo" - (Gantzagiak kentzen zaizkio lehenengo lehenengo)

"Lelengo lelengo idi itten da, idi itten da seragas, gantzagidxe esaten dxakenagas, da gero, tripien ganiien, dau ori sera, ori mantilliori, a kentzen dxako da, areas batera etorten da gero ori guk len esan dune, ori gorridxe" - (Lehenengo lehenengo ireki egiten da, ireki egiten da zeragaz, gantzagiak esaten zaionagaz, eta gero, triparen gainean, dago hori zera, hori mantila hori, hura kentzen zaio eta, haregaz batera etortzen da gero hori guk lehen esan duguna, gorri hori)

girrintzie: girrintza

gorgolle: gorgoila

"Guk gorgolle esaten tzaku, miñeas batera etorten dana da ori, goitti bera" - (Guk gorgoila esaten diogu, mihiagaz batera etortzen dena da hori, goitik behera)

korotza: gorotza

kurrin kurrin: kurrin-kurrin, txerriari deitzeko erabiltzen den berba

makerie: makera, umeak dauzkan txerri emea

mantillie: mantila

"Mantillie barrurau dau" - (Mantila barrurago dago)

ordotza: ordotza

paradako txarrixeri: paradako txerria, txerrikumeak egiteko txerri arra

sorburue: sorburua

suringie: zuringa, hestearen amaierako zatia
"Guk estie esaten tzaku danari tte suringie ya kanporakoa da" - (Guk hestea esaten diogu denari eta zuringa ja kanporakoa da)

talle satidxe: teila zatia, txerria erre eta osten ileak karrankatzeko erabiltzen dena

tripie: tripa

"Da gero idi itten da, ta gero datos tripek, este ta ingeruekas" - (Eta gero ireki

ARRIETAKO HIZTEGIA

egiten da, eta gero datoz tripak, heste eta inguruakaz)

txarriarra: txerri arra

txarridxe: txerria

"A txarridxe il ye gero? bai, lelengo, eskegi orduko lelengo erre, lelengo atara kortati kanpora txarridxe, eta sangreu, odola atara" - (Txarri hura hil eta gero? bai, lehenengo, eskegi orduko lehenengo erre, lehenengo atera kortatik kanpora txerria, eta odolostu, odola atera)

txarrikumie: txerrikumea

txarrimie, txarriemie: txerri emea

"Txarriemie berotute dau" - (Txerri emea berotuta dago)

17.5. OILOAK

abidxe: habia

abixeridxe: 1 abisaria, habian ipintzen den gezurrezko arrautza oiloak egiten bertara joan daitezen. 2. Usteldutako arrautza

askie: aska, edateko zein jateko lekuari esaten zaio

astraka: aztraka

biroa: biroa

egoa: hegoa

errotie: errota, hegaztien urdaila

espille: espila

gangarra: gangarra

kakaka: oiloaren zarata

kapoye: kapoia

karaxie: karakada

"Karaxie, olloa karaxaka dau, karaxie in yeu arek" - (Karakada, oiloa karakadaka dago, karakada egin du hark)

kukurrukue: kukurrukua, oilarraren hotsa

"Ollarra pe kukurruku eitten deu" - (Oilarrak ere kukurruku egiten du)

kurra: urra, oiloei deitzeko erabiltzen den berba, gehienetan errepikatuta erabiltzen da "kurra-kurra"

loka: loka, oiloen zela

lokie: loka, lokatuta dagoen oiloa

lumie: luma

marti ollandie: marti oilanda

"Marti ollandak, e, eurreriek ixeten diela, eurreriek, marti ollandie da ori, se ariñ etorten dxako ariñ, udie, d'eurreratu itxen da, kasureko, neguko otzagas dau, baya martikoak eurreriek ixeten dire" -

(Marti oilandak, aurreratuak izanten direla, aurreratuak, marti oilanda da hori, ze arin etortzen zaio arin, uda, eta aurreratu egiten da, kasurako, neguko hotzagaz dago, baina martikoak aurreratuak izaten dira)

mikie: mika

minpekoa: mihipekoa, mihiaren azpian egiten zaien hari modukoa

mudie: muda

ollandie, ollendie: oilanda

"Txitxie, da olloskoa, da emie bada ollendie da arra bada olloskoa" - (Txita, da oilaskoa, eta emea bada oilanda eta arra bada oilaskoa)

ollarra: oilarra

"Nire aitxitxe il sanien, nire aitxek esateuen, bentanara idxenda, ollarrak kukurruku i euela da esaeuela estakitx nok, e, aitxitxe sala da bata bat laster doa onen atzetik, da estaitx aingerue bestaldien il sala andik egun gitxire" - (Nire aitaita hil zenean, nire aitak esaten zuen, leihora igonda, oilarrak kukurruku egin zuela eta esan zuela ez dakit nork, aitaita zela eta baten bat laster doa honen atzetik, eta ez dakit aingerua beste-aldean hil zela handik egun gutxira)

olloa: oiloa

"Amairu, olloa segun selakoa dan" - (Hamairu, oiloa segun zelakoa den)

"Arrotzie itten deuenien en jeneral kantetan deu olloak" - (Arrautza egiten duenean gehienetan kantatzen du oiloak)

"Ollolak, a, arridxe be dxaten deu, asko arri txikidxe be" - (Oiloak, harria ere jaten du, asko harri txikia ere)

ollo abidxe: oilo habia

ollo baltza: oilo beltza, oilo mota bat

ollo gorridxe: oilo gorria, oilo mota bat

ollo kantie: oilo kanta

ollo korotza: oilo gorotza

ollolokie: oiloloka

"An egoten da ollolokie, ak esteu urten be itten, iru egunien da be" - (Han egoten da oiloloka, hark ez du irten ere egiten, hiru egunean eta ere)

olloskoa: oiloskoa

ollo suridxe: oilo zuria, oilo mota bat

ollotokidxe: oilotokia

otie: ota, oiloek lo egiteko lekua oilotokian

pertxie: ota

ARRIETAKO HIZTEGIA

pikue: mokoia

pipittie: pipita, oiloen gaixoa, mihiaren azpian egiten zaien haria

sama urrutue: sama urratua, oilo enda bat; enda honetako oiloek samaren unekada baten ez daukate lumarik

txitxe bandie: txitxe taldea

"Emen txikitten, e, bueno gu txikidxe giñenien, solten ibiltten gendusen guk, u, serak, olloak, da or errekien beste partien basoan, igual ataate seittun olloak, a, berak eiñ arrotzie ta igual txitxe bandie igual ataateuen, eta gero emen solten ibiltten siren da, iños bai, ataketan be ikusi be, bajaten die orrek, e, dxiii! goitti bera ta dast! koisten dure ta eroan" - (Hemen txikitan, beno gu txikiak ginenean, solte erabiltzen genituen guk, zerak, oiloak, eta hor erreKaren beste aldean basoan, beharbada ateratzen zituen oiloak, berak egin arrautza eta beharbada txita banda beharbada ateratzen zuen, eta gero hemen solte ibiltzen ziren eta, inoiz bai, erasotzen ere ikusi ere, bajatzen dira horiek, dxiiii! goitik behera eta dast! harrapatzen dute eta eroan)

txitxie: txita

"Trugoye badau estau txitxeri pe" - (Trumoia badago ez dago txitarik ere)

txotoa, txotie: oiloen gangarra

17.6. ERLEAK

abie: zaparra

"Len, e, ote san kaja bat olakoa, esta? keyegas atateuden, erlie kanpora, da arek abak esaten dxaken, barruko abak esaten tzien barrukoari, arek atara" - (Lehen, egoten zen kaxa bat holakoa, ezta? keagaz ateratzen zuten, erlea kanpora, eta haiek abak esaten zitzaizen, barruko abak esaten zieten barrukoei, haiek atera)

erle kajie: erlautza

erleutze: erlautza

erlie: 1. erlea. 2. erlategia

"Bai esetu dot, da desgusto itzela be euki etzien, idxe ill umie be neuri, oin be ilye dekot semie sarrena baya, iru urte euseusen euki, da erlie dxadxo itten da,

erliek umiek botaten deusenien edonon eitten deu montoye, da melokotoye euki neuen or etzeurrien nik, ta melokotoyek erramak baju euki, da umie txikerra ixen sales urte bi bes, d'arek eskueas alan ukutu, da gero berari danak batu, erlie dxadxo san" - (Bai ezaugutu dut, eta atsekabe itzela ere eduki etxean, ea hil umea ere neuri, orain ere hilda daukat semea zaharrena baina, hiru urte ez zituen eduki, eta erlea jaio egiten da, erleak umeak botatzen dituenen edonon egiten du piloa, eta milikota eduki nuen hor etxe aurrean nik, eta milikotak abarrak baxu eduki, eta umea txikerra izan zenez urte bi ere ez, eta hark eskuagaz halan ikutu, eta gero berari denak batu, erlea jaio zen)

erregiñe: erregina

"Bestiek ill eitten deu erregiñek, da bera, bera erregiñe iltten bada be, danak sertzzen dire, galdu itten da erlie" - (Besteak hil egiten du erreginak, eta bera, bera erregina hiltzen bada ere, denak zertzzen dira, galdu egiten da erlea)

estena: eztena

estidxe: eztia

"Batzuk esateuen esti errisadue dala ona" - (Batzuek esaten zuten ezti kizkurra dela ona)

kajie: erlautza

kankarro otza: kankarro hotsa, erlea uxatzeko erabiltzen den zarata

maskarie: karatula

tanborrada otza: kankarro hotsa, erlea uxatzeko erabiltzen den zarata

17.7. TXAKURRA

alauridxe: alauraua

alta: alta, ogera

"Txakurremie altari tau" - (Txakur emea altarik dago)

amorrue: amorrua

ardi txakurre: ardi txakurra

arratoi txakurre: arratoi txakurra

"Onek arratoi txakurrek eta orrek, sugoye sertun de itten due, te mogimentuen asten dienien, orduen oratuten tzie ta au di da! eitten due, ta estai pa nik, lepoko biskerra edo apurten tzie eta ensegida joditen

ARRIETAKO HIZTEGIA

txues" - (Arratoi txakur hauek eta horiek, sugoia zertu eta egiten dute, eta mogimenduan hasten direnean, orduan oratzen diote eta hau di-da! egiten dute, eta ez dakit ba nik, lepoko bizkarra edo apurtzen diote eta berehala tragatzen dituzte)

eldu: heldu, eraso egin dezan txakurrari esaten zaiona

erostie: erosta

"Esaten due, enei! seuser paseko da edo, ori bai txakurren erostak, amen asko beixuten dxakien, len gedxau" - (Esaten dute, ene! zer edo zer pasatuko da edo, hori bai txakurren erostak, hamen asko begiratzen zitzaien, lehen gehiago)

etxe txakurre: etxe txakurra

eusidxe: ahausia

kasa txakurre: ehiza txakurra

katu geixoa: katu gaixoa

luki txakurre: luki txakurra

"Luki txakurre ba lukidxen estilo antzera da" - (Luki txakurra ba lukiaren era antzera da)

murmue: txakurren gaixoa

otxe: otxe, eraso egin dezan esaten zaio

polisi txakurre: polizia txakurra

tomaki: uxatzeko esate zaion berba

txakur amorrotue: txakur amorratua

"Ori ba ogitxuen puntie lelengo ogidxe ba, etzeko gixonak ebateuen puntetxue, au gorde bide, datorren urterako ba estidxen egon, e, txakur amorraturik" - (Hori ba ogitxoaren punta lehenengo ogia ba, etzeko gizonak ebakitzen zuen puntatxoa, hau gorde behar da, datorren urterako ba ez dadin egon, txakur amorraturik)

txakurrarra: txakur arra

txakurremie: txakur emea

txakurkumie: txakurkume

txakurre: txakurra

"Txakurrek eitten deuenien uuu, seuser pase dala edo notisi txarran ba tauela edo" - (Txakurrak egiten duenean uuu, zer edo zer pasatu dela edo albiste txarren bat dagoela edo)

urrumie: urrumada

17.8. KATUA

erpie: erpa

ixepi: ixepi, katuari esaten zaion berba joateko

katarra: katarra

"Katar bat etor de" - (Katar bat etorri da)

"Katuemieñe etorten die katarrak" - (Katuemieñe etortzen dira katarrak)

katuemie: katu emea

"Au katuemiau berotute dau" - (Katuemie hau berotuta dago)

katu katarra: katu katarra

katue: katua

katukumie: katakumea

miau: miau

17.9. GAINERAKOAK

animalidxe: animalia

antzarra: antzarra

arra: arra

arrasie, errasie: enda, arraza

"Errasie be orduen ba edoselakoa be eseuken euki, diputasiñoak ya esku sartueskero, suisoa edo orduen, e, oingo beste errasa es egoan" - (Arraza ere orduan ba edozelakoa ere ez zezakeen eduki, aldundiak ja esku sartuz gero, suizarra edo orduan, oraingo beste arraza ez zegoen)

bandie: banda, talde

egastidxe: hegaztia

"Egastidxe da ba, olloa edo patoa edo, ori de egastidxe" - (Hegaztia da ba, oiloa edo ahatea edo, hori da hagaztia)

emie: emea

etxe palomie: etxe usoa

konejue: untzia

kumie: kumea

"Orma silloatan orrek kumie be asko itxen deu orrek, asko" - (Horma-zuloetan horrek kuma ere asko egiten du horrek, asko)

markie: marka

palomie: usoa

patoa: ahatea

pistidxe: piztia

"Ortariko pistidxe ixengo da ori, baya estait nik orren ixena dxakittes" - (Horietariko piztia izango da hori, baina ez dakit nik horren izena jakitez)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Pisti asko dabis de elduten be estzie isten" -
(Piztia asko dabilta eta heltzen ere ez
diote uzten)

umie: kuma, kume

18. NEKAZARITZA

Nekazaritza alorreko berbak banatzeko, jarduera bakoitzaren arabera sailkatzeko, ondoko azpi-atalak egin ditugu: lurra lantzeko tresnak, soro lanketa, basoa, egurra, belarra, otzarak, errota, labea, gurdia, asto garraioa eta gorta.

18.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

alperrarridxe: alper-harria, mokilak hausteko erabiltzen den harri biribil handia

"Alperrarridxe? an etze atzien dau oniño" -
(Alper-harria? han etxe atzean dago oraindino)

"Alperrarridxe amen gure sonan es, es amen lurrek erresa tie, baya Dxainkon bai use da" - (Alper-harria hamen gure inguruan ez, ez hamen lurrak errezak dira, baina Jainkon bai usatu da)

are arkue: are-eskua, eskudela, areari oratzeko astari esaten zaio

are eskue: are-eskua, eskudela, areari oratzeko astari esaten zaio

are narra: are narra

are subille: are-zubila, arearen armazioa egiteko makila bakoitza, makila hauetan hortzak egoten dira sartuta

arie: area

asto porkerie: asto porkera

bidxorra: bidurra, narrak egiteko erabiltzen diren egurrak

bos(t) subilleko arie: bost zubileko area

egoa, ego bakarra: makina klase alderdi baterakoa

eixie, exie: exea, pertika eta burdinazko aho bakarreko tresna, ilarak markatzeko erabiltzen zen

"Baten bat ein gendun baya, arie, porkerie, eixie da, emen egurrekoak eitten sienak orrek ixeta sien" - (Baten bat egin genuen baina, area, porkera, exea eta, hemen

egurrezkoak egiten zirenak horiek izaten ziren)

estoa: estoa, narra; soroko mokilak hausteko erabiltzen zen tresna. Egurrezko armazoi baten bidurrez egiten zen behea.

goldie: goldea, aho bakarreko makina izan zen; behin ilara bat eginez gero, atzera egin behar izaten zen berriro ekiteko. Honen ostean makina deritzona etorri zen.

"Goldias be bardiñ, goldias be goldatu, te bertara goldako erraidxen bota artoa eta gero are narra edo arieas paseu" - (Goldeagaz ere berdin, goldeagaz ere goldatu, eta bertara goldatuko ildoan bota artoa eta gero are-narra edo areagaz pasatu)

itillie: itaila

"Artoas ibiltteko porkerie, bueno ganaduekas be porkerie badau, e? ganadueas itillen, itillen eitte san aregas, da busterri bakarraas bedxegas be, etzien be sarritten" - (Artoagaz ibiltzeko porkera, beno ganaduakaz ere porkera badago, e? ganaduagaz itailan, itailan egiten zen haregaz, eta buztarri bakarragaz behiagaz ere, etxean ere sarritan)

karramarroa, karramarrue: karramarroa

katie: katea

ladxe, laidxie: laia

"Amen be nik erain yot laidxeas babie berton be" - (Hamen ere nik erein dut laiagaz baba berton ere)

lankatie: lankatea

"Lankatie ties, e, katiek, normalien birrien ibiltxen diena paño, e, tropiauak, lodidxauak, pixu gedxaukoak" - (Lankateak dira, kateak, normalean beharrean ibiltzen direnak baino, dorpeagoak, lodiagoak, pisu gehiagokoak)

lau subilleko arie: lau zubileko area

"Lau subillekoa, bos subillekoa, badeku geu pe" - (Lau zubilekoa, bost zubilekoa, badaukagu geuk ere)

makiñie: makina, aho bikoa makinari esaten zaio

"Onetan lur gogorretan, a, peusu et oker eitten baosu ba igual doa makiñie edo atzeko trastie alrrebes da bueno! entzun biarrixeteittus eurrekoak!" - (Lur gogor

ARRIETAKO HIZTEGIA

hauetan, urrats bat oker egiten baduzu ba beharbada doa makina edo atzeko traste aldrebes eta beno! entzun behar izaten ditu aurrekoak!)

markadora: markadora

narra: narra, estoa

"Tirora, da gero ba, narrakas edo serakas edo paseu, ganetik" - (Tirora, eta gero ba, narrakaz edo zerakaz edo pasatu, gainetik)

ortza: hortza, erreminten burdinazko hortza

porkerie: porkera, bostortza

"Gedxau use du astoa, astoa orretarako asko kuriosoau, eta gitxiu apurtute, eta gero orretarako in biar ixeta san porkerie, deittuten dxakon orreri, bara bi egalatan, an sartzen san busterri bakar ori, eta ori ididxentzako edo bedxentzako, baya astoantzako txikerraua, baya ortzak ondo imiñi eskero, ortzak, orrek bost eroaten sitxun astoa pe, da astoa ixeta san gero gedxau usetan gendune guk orretarako" - (Gehiago usatu dugu astoa, astoa horretarako asko kuriosoago, eta gutxiago apurtuta, eta gero horretarako egin behar izaten zen porkera, deitzen zitzaion horri, bara bi hegaletan, han sartzen zen buztarri bakar hori, eta hori idientzat edo behientzat, baina astoarentzat txikerragoa, baina hortzak ondo ipiniz gero, hortzak, horrek bost eroaten zituen astoak ere, eta astoa izaten zen gero gehiago usatzen genuena guk horretarako)

subille: zubila, arearen armazoiaren makila

tratora: traktorea

trilladora: txilindroa, makina honek dauzkan txilindroak horzdunak izaten dira

18.2. SORO LANKETA

abonue, abonoa: ongarria

"Abonoa ta berak esa osten moduen, illedan bota bisu abonoa ondo, lurre inyertu didxen" - (Ongarria eta berak esan zidan moduan, ilaran bota behar duzu ongarria ondo, lurra indar dadin)

agiñe: hagina, akatsa

"Bedarra ebateko kodañie sartzen basu otan, edo bai sartzen basu iden, edo

arridxe dxo sulako a itxe sulako gero ta bedarrerako esteu balidxo arek, se agiñek eitxen dxakos agoan, da ya esteu balidxo" - (Belarra ebakitzeko kodaina sartzen baduzu otean, edo bai sartzen baduzu iran, edo harria jo duzulako hura egiten duzulako gero eta belarrerako ez du balio hark, ze haginak egiten zaizkio ahoan, eta ja ez du balio)

alanbra illedie: alanbre ilara

alanbrie: alanbrea, burdin haria

"Ubela useta san, edo baitte alanbrie be usetauen baten batzuk" - (Uhala usatzen zen, edo baita burdin-sarea ere usatzen zuten baten batzuek)

amarrie: lokarria

andakoa: angarila, satsa garraiatzeko erabiltzen zen oholezko aska antzekoa

artobitxartie: arto bitartea

asaroa: azaroa, lurrarentzat euri ongarria denaren gainean esaten da

"Asaroa euridxeri, euridxe atzo in yeu te, se asaro ederra!" - (Azaroa euriari, euria atzo egin du eta, ze azaro ederra!)

asatza: azatza; soroan ereiten ibiltzen denean, hazia non bota den jakiteko ezagungarri batzuk jartzen dira, horiexek dira azatzak

"Asatzak, ori asidxe eraitteko esan gure dosu suk" - (Azatzak, hori hazia ereiteko esan gura duzu zuk)

astie: asta, kirtena

asufrie: azufrea, sufrea

atxur burue: aitzur burua, dorua

atxurre: aitzurra

bañe palue: baina makila

barrike usteidxe: barrika uztaia

barrikie: barrika, upela

"Berrogei urte ingeru badire ya itxi tzakule orreri, baya itten gendusen, igual ba barrikek egoten dien, bodega moduen iminye, da igual amar barrike, berreun litrokoak eitten gendusen urtero, andik gora igual, txakoliñ utzetan" - (Berrogei urte inguru badira ja utzi geniola horri, baina egiten genituen, beharbada ba barrikak egoten diren, soto moduan ipinita, eta beharbada hamar barrika, berrehun litrokoak egiten genituen urtero, handik gora beharbada, txakolin hutsean)

ARRIETAKO HIZTEGIA

bokoye: bokoia, upel handia 600 litro ingurukoa

botikie: 1. botika, ongarri kimikoaren gainean esaten da. 2. mamarroak hiltzeko erabiltzen den hilgarri kimikoa

"Botikien porasus ixen bideu, d'a ta gusti be konserbeu esiñ" - (Botiken podazuz izan behar du, eta halan eta guzti ere kontserbatu ezin)

dobera: kare bola handia

dxibitxie: indabak jotzeko erabiltzen zen erreminta

"Dxibitxie inyabak dxotekoa, palu bet ixete san, sera, au ser deko, or dekune, ori arantzadune, or dekune, ser da? ori bola gorridxegas dauena, gorostidxe, ixen san errama bat, da narru bet, alderri batien, an punten, da beste egurre ixete san jeneralmente, ba altza edo olan, ariñe, da au gorostokidxe, fuertie ixeten sales, orregas emoten dxakon golpie, inyabieri" - (Jibita indabak jotzekoa, makila bat izaten zen, zera, hau zer dauka, hor daukaguna, hori arantzaduna, hor daukaguna, zer da? hori bola gorriagaz dagoena, gorostia, izan zen adar bat, eta narru bat, alderdi batean, han puntan, eta beste egurra izaten zen gehienetan, ba haltza edo holan, arina, eta gorostia hau, gogorra izaten zen legez, horregaz ematen zitzaion kolpea, indabari)

dxorraidxe: jorraia, jorratzeko erabiltzen den aitzur txikerra

"Esate baterako inyabie sartuteko, faltak edo, artoartien, ño amen inyaba gitxi dau, de dxorraitxueas sartun" - (Esate baterako indaba sartzeko, faltak edo, arto artean, ño hamen indaba gutxi dagu, eta jorraitxoagaz sartu)

dxorrie: jorra

"Orrek esteko dxorrarik, orreri esi leidxo ikutu es, se ori ataraskiñoan, mogiduskiñoan ba siketu itten da, ori ba, sein ye bedarra dan moduen da ori" - (Horrek ez dauka jorrarik, horri ezin dakioket ikutu ez, ze hori ateraz gero mogituz gero ba sikatu egiten da, hori ba, zein da belarra den moduan da hori)

engantxie: engantxea

erraturie: erratura, soroko belarrak eratzita erre egitea ongarri moduan erabiltzeko

erremesie: txanda, beharraldia

erreminttie: lanabesa, erreminta

esie: hesia

esparragerie: esparragoak ereiteko lekua

espitte: espita

estakie: taketa

"Guk estakakas iminyu te gero alanbra illedie" - (Guk taketakaz ipini dugu eta gero burdin-hari ilara)

gantxoa: gantxoa

illedara: ilarara, ereiteko era

illedie: ilara

ire kargie: ira zama, ira karga

itturrekoa: itaurrekoa, idiakaz edo behiakaz lurra lantzean, exegaz zein areakaz, busterriaren aurretik doana gidatzeko

"Iturrekoa eurrekoa da, da bestie ba atzeti" - (Itaurrekoa aurrekoa da, eta bestea ba atzetik)

itturren: itaurren

"Ni itturren ibillitte nau" - (Ni itaurren ibilita nago)

kakoa: kakoa

kanala: ubidea

karkabie: karkaba

katie: katea

kordie: korda, piperrak, berakatzak, e.a. amarratzeko egiten diren kordak

kortatxurre: kortaitzurra

kosetxie: uzta

labrantzie: laborantza, lugintza

masparrie: mahats parra

masue: mazua, mokilak hausteko erabiltzen zena

masutoa: mazutoa; mokilak hausteko eta astoan artoa garatzeko erabiltzen zena

metxie: txakolin-barrika garbitzeko erretzen den metxa

minttegidxe: mintegia

"Minttegidxe, ba siminttera ixetie les, ori ixetan san esaterako ba, noberak basoan imiñikoa, len imintte san modun piñu landarie koxu etzien edo eukalitrū landarie edo aris landarie edo olakoa da minttegidxe" - (Mintegia, ba semintera izatea legez, hori izaten zen esaterako ba, noberak basoan ipinikoa, lehen ipintzen zen moduan pinu landarea hartu etxean edo eukalipto landarea edo haritz landarea edo holakoa da mintegia)

mokille: mokila

ARRIETAKO HIZTEGIA

ondeatxurre, ondatxurre: ondaitzurra, arraitzurra, aitzur handia basoan bereziki behar egiteko erabiltzen dena

"Ondatxurre basorako da ori" - (Ondaitzurra basorako da hori)

ota satza: ote-satsa

"Len, e, berton be itte san, suloak einye, seratan, sasteidxe esaten dxakon, o, etzeaurrietan da seratan da ba, suloak eta einye ara ekarrितte, ota satza eitteko ori ixeta san" - (Lehen, berton ere egiten zen, zuloak eginda, zeretan, sastegia esaten zitzaion, etxe-aurretan eta zeretan eta ba, zuloak eta eginda hara ekarrita, ote-satsa egiteko hori izaten zen)

parrera eraiñ: parrara erein

parrie: parra

"Parrara eta parra bari pe bai, bidxetara koixuten da ori be" - (Parrara eta parra barik ere bai, bietara hartzen da hori ere)

prentzie: prentsa, mahatsa zapartzeko erabiltzen dena

"Aproposko sera euki dun ba, makiñie txikitakoa, prentzie, bi dan moduen orrek bierrak eittekoa, da gero ba barrike pe garbittu ondo, da sufrieas metxie imiñi erre" - (Aproposko zera eduki genuen ba, makina txikitzekoa, prentsa, behar den moduan horiek beharrak egitekoa, eta gero ba barririk ere garbitu ondo, eta sufreagaz metxa ipini erre)

sardatxurre: sardaitzurra

"Olan okertute dauena, sarda seran tipokoa, sardatxurre edo, kortatxurre edo" - (Holan okertuta dagoena, sarda zeraren erakoa, sardaitzurra edo, kortaitzurra edo)

saspilloa: sastegi, sats-piloa

"Orduen pilloak itzelak, sas pilloak itzelak, eta gero, agostuen, nabotarako, danak atarate siren, artotarako lelengo mayetza ingeruen, kortie garbittu, da gero barridxen ostabe agostuen kortie garbittu itte san, satzak danak kanpora atara" - (Orduan piloak itzelak, sats piloak itzelak, eta gero, abuztuan, arbitarako, denak ateratzen ziren, artotarako lehenengo maiatza inguruan, korta garbitu, eta gero berriro osterara ere abuztuan korta garbitu egiten zen, satsak denak kanpora atera)

sastaidxe, sasteidxe: sastegia, sats-lekua

"Orreatxik esatetzien sastaidxe" - (Horregatik esaten zioten sastegia)

"Ortxe sasteidxen dauen, e, satza be ona ixengo da geuse batzuterako" - (Hortxe sastegian dagoen, satsa ere ona izango da gauza batzuetarako)

satza: satsa

"Orduen, kortan barruen bertan satza be manejeta san, oiñ, e, satza kanpora ataraten da dan dana" - (Orduan, kortaren barruan bertan satsa ere maneiatzen zen, orain, satsa kanpora ateratzen da den-dena)

serrie: zerra, igitaia

"Ori eskus ebai len, serriekas, a , eraiñ, ba ori itte san ointxe nobienbrien, da lelango ba labreu, makiñetu edo sera, ba gero paseu, seuser, ganaduekas, ganadus dana biarra be, eitte san len" - (Hori eskuz ebaki lehen, zerrakaz, erein ba hori egiten zen oraintxe zemendian, eta lehenengo ba landu, makinatu edo zera, ba gero pasatu, zer edo zer, ganaduakaz, ganaduz dena beharra ere, egiten zen lehen)

simintterie, siminderie: mintegia

"Klasie daus, e, ekusten da etzien igual, e, ño an fulano teko simintterie t'are teko klase ona" - (Motak dagoz, ikusten da etxean igual, ño! han urliak dauka mintegia, eta hark dauka mota ona)

"Klasie taus se, ikusten da etzien igual, e, ño an fulano teko simintterie t'are teko klase ona" - (Motak dagoz ze, ikusten da etxean beharbada, ño han urliak dauka mintegia eta hark dauka mota ona)

"Bueno ortako beti, siminderie espadekosu ba, lurre alik eta gosatxuen, fintxuen imiñi, berari eitteko, sasoye dala edo pentzaten danien, da, trateu in biar, se sague pe dxaten due ensegidako ori asi klasie" - (Beno horretarako beti, mintegia ez badaukazu ba, lurra ahalik eta gozatxoan, fintxoan ipini, berari egiteko, sasoi delo edo pentsatzen denean, eta, tratatu egin behar, ze saguek ere jaten dute atorako hazi mota hori)

sodxe: zohia

sokie: soka

soloa: soroa

sotoa: sotoa, txorkoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

sotora: ereiteko era; ereiteko era nagusi bi bereizten dira edo sotora, banan-banan, edo tirora. Gauza batzuk era batera eta beste batzuk bestera egiten dira

taketa: taketa

"Lau egurregas, taket biri dxosi, da arantza ta onantza itten dana erramadie amen beti esan du" - (Lau egurragaz, taket biri josi, eta harantz eta honantz egiten dena erramada hamen beti esan dugu)

tapotza: zapotza

tirora: ereiteko era

"Orixe da, len ba marti askenetaneskiño ba artoa, ba tirora bota esaten dxakon ba, makiñetute igual arlo bat, ta ño onesko ya asi lei artoa eraitten, ba kukue be asi dire dxoten da ya, artoa bota in bi de" - (Horixe da, lehen ba marti azkenetarazkero ba artoa, ba tirora bota esaten zitzaion ba, makinatuta beharbada arlo bat, eta ño honezkero ja has liteke artoa ereiten, ba kukuak ere hasi dira jotzen eta ja, artoa bota egin behar da)

trasplantue: aldaketa

trontza serrie: trontza zerra

txori dxagolie: txori jagola

usteidxe: uztaia

18.3. BASOA

agoa: aizkora ahoa

"Ori be ya, ori kostunbrie galdute dau, d'arek antza, ba askoriek emetik agoa deko, ba bestetik be bai, astie da, emetik de emetik bidxetatik" - (Hori ere ja, ekandu hori galduta dago, eta haiiek antza, ba aizkorak hemendik ahoa dauka, ba bestetik ere bai, asta eta, hemendik eta hemendik bietatik)

akatza: akatsa, aizkorari ahoan egiten zaiona

apea: apea, ebakiko eta prestatuko enborra

askora begidxe: aizkora begia

askora burue: aizkora burua

askorie: aizkora

"Askorak eta ori bai ba, estot nik gorde iños" - (Aizkorak eta hori bai ba, ez dut nik gorde inoiz)

astie: asta, kirtena

astillie: zozpala

astoa: astoa, basoan enborrak ebakitzeko egiten den armazoa; beronen gainean enborrak ipintzen dira

barandie: makila edo ohol luzea, esate baterako arbolen adarrak astintzeko erabiltzen dena

bardie: barda

"Bardie, esaten tzien, e, olango ser bat, sein ye ser bat, palu bet ixen, esta? bardie eiñ, eta gero aregas edo a itxeko edo ori itxeko" - (Barda esaten zioten, holako zer bat, zein da zer bat, makila bat izan, ezta? barda egin, eta gero haregaz edo hura egiteko edo hori egiteko)

egurre: egurra

"Sentimetro lodidxerie urtien siketuten da egurre, urte asko ixetan da siketuten" - (Zentimetro lodiera urtean sikatzen da egurra, urte asko izaten da sikatzen)

"Berdetan ebaten da egurre beti" - (Berdetan ebakitzen da egurra beti)

"Jeneralmente botate ttuesan, urte bete, lenengo ilberan, urteko ilberatan, neguen, da gero, errama ta gusti basoan itxi, urte betien edo bertan botata, ori ixeta san, egurreri ure edan didxoen erramiek, bertan erramiek tiretu deidxon ta edan deidxon, ta gero ebaten ttuesan, ba urte betien basoan iste ttuesan, ori lengo sarrak, da gero bertan basoan serratu" - (Gehienetan botatzen zituzten, urte bete, lehenengo ilbeheran, urteko ilbeheretan, neguan, eta gero, abarra eta guzti basoan utzi, urte batean edo bertan botata, hori izaten zen, egurrei ura edan diezaien abarrak, bertan erramak tira diezaion eta edan diezaion, eta gero ebakitzen zituzten, hori lehengo zaharrek, eta gero bertan basoan zerratu)

entresakie: entresaka, arboladietan egiten den mehazketa

esku serrie: esku zerra

"Txiki txikitten bai, esku serrak, eitten, asta biko serakas, bata goittik eta bestie betik, lelengo, egurreko olako bat einye, godxen bat da beyen bestie" - (Txiki txikitan bai, esku zerrak, egiten, asta biko zerakaz, bata goitik eta bestea behetik, lehenengo, egurrezko holako bat eginda, goian bat eta behean bestea)

garrotie: egur zamak lotzeko erabiltzen den egurra, katea estutzeko balio du

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Garrotiegas istututen suen, lankatiekas, lankatiek esaten tzie orrexeri ba, soloan bierrien ibiltxen diena paño tropiaua tire orrek, eta usetan dues orrek bai gurdidxen ekarten badues, e, ebaitxe, ebaitxe bakixu metro bidxen edo, serak, orrek, e, piñue edo bai aretxe edo bai arbola gustidxek, ekarten duesenak arexeri garrotieas istututeko dire orrek lankatiek" - (Garroteagaz estutzen zuten, lankateakaz, lankateak esaten diete horiexeri ba, soroan beharrean ibiltzen direnak baino dorpeagoak dira horiek, eta usatzen dituzte horiek bai gurdian ekartzen badituzte, ebakita, ebakita badakizu metro bian edo, zerak, horiek, pinua edo bai haritza edo bai arbola guztiak, ekartzen dituztenak haiexeri garroteagaz estutzeko dira horiek lankateak)

girtena: kirtena

kargille: egur txola

kakoa: kakoa

"Erramak bajetako, normalien eitxen sana, emen parajien, e, eiñ egurresko kako at, areas kakoas bajetu, te aber askorieas allegetan bada" - (Abarrak bajatzeko, normalean egiten zena, hemen inguruan, egin egurrezko kako bat, haregaz kakoagaz bajatu, eta ea aizkoragaz ailegatzen den)

katie: katea

"Katiekas tiretu biar bosu tronko bat edo tiretu biar bosu, a in biar bosu, nardidxe bisu, se ostantzien a gurtedie, a dau einye megiden eta ondo inye, bakixu lenengo ugel lodidxek barrutik, da gero onetara bakixu, aren ugeletan, ugel metxuaukas dana fin fin fin einye, da an sartzen bosu katie ordun ser eitxen deu, dana desformetan da, esteu balidxo" - (Kateakaz tiratu behar baduzu enbor bat edo tiratu behar baduzu, hura egin behar baduzu, nardaia behar duzu, ze osterantzean gurtada hura, hura dago eginda neurrian eta ondo eginda, badakizu lehenengo uhal lodiak barrutik, eta gero honetara badakizu, haren uhaletan, uhal mehetxoakaz dena fin-fin-fin eginda, eta han sartzen baduzu katea orduan zer egiten du, dena desitxuratzen da, ez du balio)

matxeta: matxeta

mendue: mentua

mukurre: mukurra, esate baterako sutarako egiten den enborra

nardeidxe, nardidxe: nardaia, basotik enborrak ateratzeko erabiltzen den katea. Idi probetan buztarria eta harria lotzen duena da

"Guk jeneralien, egurre lelengo kargeu, eta katias amarretan gendun, lelengo, emon txanbidxorra, ta areas aplasteta san, ganera, gurdidxen kamie, dana koxute sales, dana lotze san sujeteute, d'alan da be bai iruliskero, arek katiek esin kendu ba, ostantzien badoa, egurre, eta olan urrien badau, katiek ekarri, a beste gurdidxe imiñi asegureute ta, lelengo asegureu a beste gurdidxe, eta ekarri katiek, eta nardidxe" - (Guk gehienetan, egurra lehenengo kargatu, eta kateagaz amarratzen genuen, lehenengo, eman garrotea, eta haregaz zapartzen zen, gainera, gurdiaren kama, dena hartzen zenez gero, dena lotzen zen eutsita, eta halan eta ere bai irauliz gero, kate haiek ezin kendu ba, osterantzean badoa, egurra, eta holan paraje badago, kateak ekarri, beste gurdi hura ipini aseguraturuta eta, lehenengo aseguratu beste gurdi hura, eta ekarri kateak, eta nardaia)

"Nardidxe da, e, busterritxi taroa, e, gurtedie, gurtedie da, nardidxe, eta gurdidxeri puntie sartzen dxakon sera, ugelaas einye egoten da, eta andixi toana da nardidxe katieri inketako bai soloan makiñetan, edo bai idi probatan edo" - (Nardaia da, buztarriak daroa, gurtedea, gurtedea da, nardaia, eta gurdiari punta sartzen zitzaion zera, uhalagaz eginda egoten da, eta handixik doana da nardaia kateari inkatzeko bai soroan makinatzen, edo bai idi probetan edo)

papue: papua, aizkoraren akatsa

"Askorieri eitten dxako ba gastakeran papue" - (Aizkorari egiten zaio ba gastatukeran papua)

pikadora: taukia, egurra txikertzeko erabiltzen den enborra

piñu egurre: pinu egurra

podie: inausketa

porrie: porra, mailu modukoa baino handiagoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

serrie: zerra

sidxe: ziria, enberrari sartzen zaizkio ziri bi
eta porragaz jota erdibitu egiten da

sospala: zozpala

sure: zura

trontza serrie: trontza-zerra

trontzie: trontza

urkulue: urkulua

18.4. BELARRA

agodolue: kodainaren akatsa

akatz: ahoaren akatsa

allie: aila, kodaina ahoa estutzeko erabiltzen
dena

"Giltze engantxetan dan lekue, allie" -
(Giltza engantxatzen den lekua, aila)

astalekue: asta-lekua, kirten-lekua

astie: kodainaren asta edo kirtena

atxur kodañie: aitzur kodaina

"Atxur kodañie, baya ori de, ya otie baño
andidxau ebateko, ya urtietako otie, ixetie
lentxik, otabarra esaten tzagu guk idie
ebateko kodañie normala" - (Aitzur-
kodaina, baina hori da, ja otea baino
handiagoa ebakitzeko, ja urteetako otea
izatea lez, otabarra esaten diogu guk ira
ebakitzeko kodaina normala)

bedar freskoa: belar freskoa, belar berdea

bedar pilloa: belar pilloa

bedarra: belarra

bedar sikue: belar sikua

dxungudie: jungada txikerra, kodaina
pikatzeko lurrean sartuta erabiltzen dena

elestune: kodainaren eraztuna

"Girtena, allie, elestune eukitten deu an, e,
sujetetako, bera, bere sera kodañagoa,
giltzegas istututeko" - (Kirtena, aila,
eraztuna edukitzen du han, eusteko, bera,
bere zera kodaina-ahoa, giltzagaz
estutzeko)

eskuberie: eskuarea

fardoa: fardo

giltze: giltza, kodaina-ahoa estutzeko
erabiltzen dena

girtena: girtena

katasie: belarrak kodainaren ahoan uzten
duen lohitasuna

"Katasie, a garbittu in bi dxako arridxe
emoteko, ostantzien, loittuten dxako bera
arridxe, eta esteu sorrosten, se itten tzo

*katasa moduen, laban laban laban" -
(Lohitasuna, hura garbitu egin behar
zaio harria emateko, osterantzean,
lohitzan zaio bera harria, eta ez du
zorrozten, ze egiten dio lohitasuna
moduan, laban-laban-laban)*

kodañagoa: kodaina-ahoa

"Ori be bai, ori be famaue, imiñi olan, e,
sartute gantxo baten da kodañagoa ixeten
dales imiñi gero, da ras! lasto serrie" -
(Hori ere bai, hori ere ospetsua, ipini
holan, sartuta gantxo baten eta kodaina-
ahoa izaten denez ipini gero, eta ras!
lasto-zerra)

kodañie: kodaina

"Baya kodañie, diferentie laburrau lusiau
baya kodañie beti use du guk" - (Baina
kodaina, desberdina laburragoa
luzeagoa baina kodaina beti usatu dugu
guk)

kortatxurre: sardakakoa

mallue: mailua, kodaina pikatzeko
erabiltzen dena

metie: meta

"Metarik estu itten esta usetan" - (Metarik
ez dugu egiten ez da erabiltzen)

"Asko ogon igual, e, kortan lekurik es edo
lastatidxen, bueno kanpoan in yun metie,
aspigarridxeas be itte san lenau, idie ta
ekarritte, kortie beteten, negureko ta,
metie barruen, e, palu bet imiñi, eusteko
ta areri gero ganetik, e, seuser ure sartu
estidxon iminye t'olan" - (Asko egon
beharbada, kortan lekurik ez edo
lastategian, beno kanpoan egin dezagun
meta, azpigarriakaz ere egiten zen
lehenago, ira eta ekarrita, korta betetzen,
negurako eta, meta barruan, makila bat
ipini, eusteko eta hari gero gainetik, zer
edo zer ura sar ez dakion ipinita eta
holan)

pike malluek: pika-mailuak kodaina
pikatzeko erabiltzen diren mailu eta
jungada

"Pike mallue tires bidxek, yungudie ta
mallue" - (Pika-mailuak dira biak,
jungada eta mailua)

pilloa: piloa

sardatxurre: sardakakoa

sardie: sarda

serrie: zerra, igitaia

ARRIETAKO HIZTEGIA

sorrostarridxe: zorroztarria, kodaina zorrozteko erabiltzen dena

"Sorrostarridxe taus oin klase asko, da sorrostarridxe be, nik pentzetan dot auxe ona dala, da aixe da boltzilloan" - (Zorroztarriak dagoz orain mota asko, eta zorroztarria ere, nik pentsatzen dut hauxe ona dela, eta huraxe eta poltsikoan)

txoleta: zorroztarria eroateko erabiltzen den potea

"Lenaukoak txoleta eroateurien, e, uregas iminye garridxen sartute, oiñ ya orrek, e, adarrien be bai" - (Lehenagokoek txoleta eroaten zuten, uragaz ipinita gerrian sartuta, orain ja horiek, adarra ere bai)

18.5. OTZARAK

esku otzarie: esku otzara

otzara sabala: otzara zabala

"Otzarak ixetan siren, otzara sabala pe oten siren, a buruen ibilttekoa ixeta san, bestie besartien ibilttekoa astiegas" - (Otzarak izaten ziren, otzara zabalak ere egoten ziren, hura buruan ibiltzekoa izaten zen, bestea beso artean ibiltzekoa astagaz)

otzarie: otzara

sarena: zarana

"Sarena andidxe ixeneskero, txikitxue bada sestotxue" - (Zarana handia izanez gero, txikitxoa bada otzaratxoa)

sestoa: otzara

"Sestoa lepoan, edo astoari, imiñi aparejue esaten tzagune, burdiñekas edo makoakas, egurrekoakas da astoan ekarri" - (Otzara lepoan, edo astoari, ipini aparejua esaten dioguna, burdinakaz edo makoakaz, egurrezkoakaz eta astoan ekarri)

"Neu pe esetu ot ama defuntie be, sestoa esaten dxakon ba, bedarretako edo serak ibiltten dienak, antxe imiñi tte gero ori ganetik bota, ta antxe, urek gero beres eskapetan tzan" - (Neuk ere ezagutu dut ama difuntua ere, otzara esaten zitzaion ba, belarretako edo zerak ibiltzen direnak, hantxe ipini eta gero hori gainetik bota, eta hantxe, urak gero berez eskapatzen zion)

sestotxue: otzaratxoa

"Goixetan, e, oittik altzeu te dxoate nitzen, sestotxue edo otzaratxue ta kutxillotxue artun da solora, da eguskidxe urteten dauela, koño! ementxe esta agiri, bada agiri, amentxe dau tontorrunatxue, da antxe ra! lurre kendu, batze nittusen ba, geuse gitxi euki gendusen, baya egunien, kilo bi iru koiste nittusen" - (Goizetan, ohetik altxatu eta joaten nintzen, zarantxoa edo otzaratxoa eta kutxilotxoa hartu eta sorora, eta eguzkia irteten dagoela, koño! hementxe ez da agiri, bada agiri, hamentxe dago tonturrunadatxoa, eta hantxe ra! lurra kendu, batzen nituen ba, gauza gutxi eduki genituen, baina egunean, kilo bi hiru hartzen nituen)

sumitze: zumitza, otzarak egiteko erabiltzen den materiala

18.6. ERROTA

andaparie: antepara, aldaparoa

"Gero andi tator eurrera ure, an dau erreguletako ure semet bi dan, esta? gero andaparie dau amen berton ganien, auxe ormie da andaparie, orixe, aortxe dauen, e, ormien ostien dau andaparie, ori de, ur gitxi dauenien, asko dauenien orrenbeste problema esteko orrek, se segiduen etorten da ure ta, baya gitxi dauenien, ba lotu in bia da errotie ure akabetan danien, se ure espadator errota batentzako beste, ba, arik eta, lotu in bia da ta gero, a presie iñ artien itxi bi da, se ur gitxik esteko presiñorik" - (Gero handik dator aurrera ura, han dago erregulatzeko ura zenbat behar den, ezta? gero antepara dago hamen berton gainean, horma hauxe da antepara, horixe, haortxe dagoen, hormaren ostean dago andepara, hori da, ur gutxi dagoenean, asko dagoenean horrenbeste problema ez dauka horrek, ze segituan etortzen da ura eta, baina gutxi dagoenean, ba lotu egin behar da errota ura amaitzen denean, ze ura ez badator errota batentzat beste, ba, harik eta, lotu egin behar da eta gero, presa hura egin arte utzi behar da, ze ur gutxik ez dauka presiorik)

ARRIETAKO HIZTEGIA

ardatza: ardatza

"Ardatza, lenau esaten dxakon, oin burdiñesko ejie, oin burdiñesko ejie, lenau ardatza, se lenau ote san, e, beyen ikitteuen sureskoa, sati bet, da gero godxen, lenau lenau lenau dana sureskoa ixete san antza, baya gero andik gora, an, an atzien badau bat, a, sati bet, andik gora, ba erdittik gora, burdiñeskoa, da arek urteteuen ona, orrexen ganera errotien barrure, eta, errotiek, gero arridxe deko or, da arek arridxe taroa erdidxen puente bat, puente kuadradu bet, da arek eitten deu, a takarreles arek punten, u bet, arek agarretan tzo areri ueri, da arek mogiduten deu arridxe" - (Ardatza, lehenago esaten zitzaion, orain burdinazko ardatza, orain burdinazko ardatza, lehenago ardatza, ze lehenago egoten zen, behean edukitzen zuen zurezkoa, zati bat, eta gero goian, lehenago-lehenago-lehenago dena zurezkoa izaten zen antza, baina gero handik gora, han, han atzean badago bat, zati bat, handik gora, ba erditik gora, burdinazkoa, eta hark irteten du hona, horrexen gainera errotaren barrura, eta, errotak, gero harria dauka hor, eta harri hark daroa erdian zubi bat, zubi karratu bat, eta hark egiten du, hark dakarrenez hark puntan, u bat, hark oratzen dio u hari, eta hark mugitzen du harria)

askatxille: askatxila, dolberaren aska

"Ori askatxille esaten tzaku guk lenau, askatxille, goiko kajie, orra artoa botatekoa" - (Hori askatxila esaten diogu guk leheango, askatxila, goiko kaxa, horra artoa botatzekoa)

askie: irin aska

baye: bahea

"Pentzutzet dxote san garidxe emen, e, koxute san garidxe, ostantzien be esan ixetan garbidxe, eta ba edxo, dauen moduen, eroateuen da ba, gure deuenak ogidxe eiñ, ba paseu etzien bayegas da, alan eitteuen" - (Pentsutzat jotzen zen garia hemen, hartzen zen garia, osterantzean ere ez zen izaten garbia, eta ba eho, dagoen moduan, eroaten zuten eta ba, gura duenak ogia egin, ba pasatu etxean bahegaz eta, halan egiten zuen)

"Bayek gedxena tie ba, naikoa sarratuek, emen usetan dienak" - (Baheak gehienak dira ba, nahikoa zerratuak, hemen usatzen direnak)

bokie: ahoa

"Are teko, ori kajie, bokie dekona, a kajie, a edo gedxau edo berau, ba lenauko klasera, ta kordelaas sertuten da, kordela istutu itten baosu, a gorau altzaten da aren, a, garune gitxiau, garun gitxiau, da bestera ba, garune gedxau bota biar badeu, a nasittu de, kaide gedxau emoten dxako" - (Hark dauka, kaxa hori, ahoa daukana, kaxa hura, edo gehiago edo beheago, ba lehenagoko erara, eta kordelagaz zertzen da, kordela estutu egiten baduzu, hura gorago altxatzen da haren, garaua gutxiago, garau gutxiago, eta bestera ba, garaua gehiago bota behar badu, hura nasaitu eta, jaitsiera gehiago ematen zaio)

burdiñesko ejie: burdinazko ardatza

ejie: ardatza

"Gero, a da inyarra emotekoa, da dau errueda bat, errueda andi be tau burdiñeskoa, sera tekos, urek dxoteko, urek inyarragas dxoteko ta a mogiduten deu arek urek, arek urek mogidu itten deu te, betik gora gero deko ejie" - (Gero, hura da indarra ematekoa, eta dago txirrinka bat, txirrinka handi bat dago burdinazkoa, zerak dauzka, urak jotzeko, urak indarragaz jotzeko eta hura mogitzen du ur hark, ur hark mogitu egiten du eta, behetik gora gero dauka ardatza)

errotaridxe: errotaria

errotarridxe: errotarria

"Bai, bardiñe tie, die ta estie, se guk, u, emen, arri apartekorik leku gitxitten on da, garidxe edxoteko, an dekotes nik, an atzien dau bat, ta an dauena beste bat, orre tire, garidxe edxoteko arridxek, da ori de, ori de ba garidxe bestie pe edxo itten deu baya, one pe, ontxe dausen moduen be, baya, orrek se itten dure? asala edxo, asala edxoten tzie, da asala edxoeskeiñoko urune, ataaten deu illunau, da orrek bestiek, e, ba orixe dekiele, orrek bestie pa, asala ataaten dure sabalau, asala sabala ataaten tzie garidxeri, eta urune saritxuau ataaten

ARRIETAKO HIZTEGIA

ixen dure, da ori, ori, imin sen akabu antzien, lelengoan ba, lelengoan sien ba, olakoas edxoten san da" - (Bai, berdinak dira, dira eta ez dira, ze guk, hemen, harri apartekorik leku gutxitan egon da, garia ehotzeko, han dauzkat nik, an atzean dago bat, eta han dagoena beste bat, horiek dira, garia ehotzeko harriak, eta hori da, hori da ba garia besteak ere eho egiten du baina, hauek ere, oraintxe dagozen moduan ere, baina, horiek zer egiten dute? azala eho, azala ehotzen diote, eta azala ehoz gero irina, ateratzen du ilunago, eta beste horiek, ba horixe daukate, beste horiek ba, azala ateratzen dute zabalago, azala zabala ateratzen diote gariari, eta irina zuritxoago ateratzen izan diote, eta hori, hori, ipini zen azken antzean, lehenengoan ba, lehenengoan ziren ba, holakoakaz ehotzen zen eta)

errotie: errota

"Maridxe, urek eroan tzo garidxe, se errotie eukiuen arek" - (Maria, urak eroan dio garia, ze errota eduki zuten haiek)

"Gero errotara eroate san ba urune itteko" - (Gero errotara eroaten zen ba irina egiteko)

"Nik geubetan estot ibiltten, se estau ibilli biarri pes, se esta oten orrenbeste prisa edxoteko, baya len emen bixi giñenien, errotiek badeko, seuser, e, modifikasiñoan bat edo, edo, artoa gitxi etorkoa ixeneskeiñoiko igual berotu itten da, eta berotuten danielen igual pastididxetan asten da, da sarata diferentie badeko, tak, dxoten deu belarridxe, ori bai, neuri pasetan dxat eta, gure aittek eta orrek ba oño gedxau" - (Nik gauetan ez dut ibiltzen, ze ez dago ibili beharrik ere ez, ze ez da egoten horrenbeste prisa ehotzeko, baina lehen hemen bizi ginenean, errotak badauka, zer edo zer, aldaketaren bat edo, edo, artoa gutxi etorrikoa izanez gero beharbada berotu egiten da, eta berotzen denean beharbada hondatzen hasten da, eta zarata desberdina badauka, tak, jotzen du belarria, hori bai, neuri pasatzen zait eta, gure aitak eta horiek ba oraindino gehiago)

"Da gero on sien errotak, Durangon on san, emen urren on sana Durangon, da ara eroan garidxe, eta an emote otzuen urune, baya urune etzuen emoten, e, toketan dxakon dana, espabese emoten tzuen, e, segun, bueno segun es, orduen tarife ba paño esegoan da" - (Eta gero egon ziren errotak, Durangon egon zen, hemen hurren egon zena Durangon, eta hara eroan garia, eta han ematen zizuten irina, baina irina ez zizuten ematen, tokatzen zitzaion dena, ezpadaze ematen zizuten, segun, beno segun ez, orduan tarifa bat baino ez zegoen eta)

"Orduntxe akabe sien emen ba, amarrik, i, sortzi ingeru errotak" - (Orduantxe amaitu ziren hemen ba, hamarrik, zortzi inguru errotak) [1983.eko urioletan jazo zen hori]

"Orduntxe akabe siren, e, emeko errotak, a, se askok, orduen ia apurtxu bet bajetan asitte egon san, a, errotana, ya gitxiau edxote san da, da gero, bai emoteuen indenisasiño apur bet, baya ser? ba gasteu in bi sendusen, e, orduen, ordun sasoyen be ba, milloi batzuk, emon eitten tzuen ba fondo perdido be, ba emoten tzuen seuser, askok orduen gero itxi euen errotie eseuen atzera monte" - (Orduantxe amaitu ziren, hemengo errotak, ze askok, orduan ea apurtxo bat bajatzen hasita egon zen, errotena, ja gutxiago ehotzen zen eta, eta gero, bai ematen zuten indemnizazio apur bat, baina zer? ba gastatu egin behar zenituen, orduan, orduan sasoian ere ba, milioi batzuk, eman egiten zizuten ba 'fonfo perdido' ere, ba ematen zizuten zer edo zer, askok orduan gero utzi zuten errota ez zuten atzera montatu)

"Onek, e, daus, nik, i, or esetu ot ori errotie ontxe dauen moduen, onek bidxek on ei sien lenengo, gure aitte ona eskondu sanien, da a irugarrena gure aittek montekoa da" - (Hauek, dagoz, nik, hor ezagutu dut errota hori oraintxe dagoen moduan, hauek biak egon ei ziren lehenengo, gure aita hona ezkondu zenean, eta hura hirugarrena gure aitak montatukoa da)

erruedie: txirrinka

galbaye: galbahea

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Aone tie galbayek, oiñ orre pai badaus mietzauak edo sarratuauak" - (Hauek dira galbaheak, orain horiek bai badagoz mehatzagoak edo zerratuagoak)

kaixadie: kaixada

kaltzie: klatza

"Areri presie, eta konporta, gero konportak, kaltzie esaten dxako, ta kaltzie teko gero bidien, ba ur asko dauenien edo serien, ba konporta, desbietetako ure" - (Hari presa, eta konporta, gero konportak, kaltza esaten zaio, eta kaltzak dauka gero bidean, ba ur asko dagoenean edo zerean, ba konporta, desbideratzeko ura)

"Suloak, a, eiñ, bueno amen badaus olako serak, ba, aonek beonek kaltziek, se kaltzie dator goittik, errekie dau aor beyen, or betik doa errekie, eta, ure padeko eskape bat, a ure dxaten dxaten doa a aspidxe" - (Zuloak, egin, beno hamen badagoz holako zerak, ba, haonek beronek kaltzak, ze kaltza dator goitik, erreka dago haor behean, hor behetik doa erreka, eta, ura badauka eskape bat, ur hura jaten jaten doa azpi hura)

kanala: harriaren kanala

konporta: konporta

"An dau, konporta esaten dxakona da olako bentanille bat, da, ure gedxau edo gitxiau ba, olak, a, die txikidxe, esta? geuk einye ba txikidxe, batzuk andidxauek beste batzuk txikidxauek, gitxi biar bada arek olak kendu t'andik bera dxoaten da ure" - (Han dago, konporta esaten zaiona da holako leihatila bat, eta, ura gehiago edo gutxiago ba, oholak, dira txikiak, ezta? geuk eginda ba txikiak, batzuk handiagoak beste batzuk txikiagoak, gutxi behar bada ohol haiek kendu eta handik behera joaten da ura)

mendie: menda, errotariaren ordaina

"Mendie esaten dxakon ori" - (Menda esaten zitzaion hori)

"Ori ekarten san sorroari, ba toketan dxakona kentzen dxakon da, eroateuen, dirurik esan ibiltzen bittartien, ekarten baseuen berrotamar killo orduen sasoyen ba, lau killo esetu ot nik, i, gitxiena, kentzie, berrotamar killo edxoteko, lau killo, esetu ot, o, neuk, u, merkienea esetu otena, aixe da lau killo, gero bostera altze san, gero sei saspí, oiñ amar" -

(Hori ekartzen zen zorroari, ba tokatzen zitzaiona kentzen zitzaion eta, eroaten zuen, dirurik ez zen ibiltzen bitartean, ekartzen bazuen berrogeita hamar kilo orduan sasoyen ba, lau kilo ezagutu dut nik, gutxiena, kentzea, berrogeita hamar kilo ehotzeko, lau kilo, ezagutu dut, neuk, merkeena ezagutu dudana, huraxe da lau kilo, gero bostera altxatu zen, gero sei zazpi, orain hamar)

"Oin be olantxe, olantxe, segiten du, batan bat etorten da ta, estekot nik gitxi baño ta, ba pageu ingo tzut mendie, esaten deu, esta? da toketan dxakona kobreu te olan, baya ontxe be, gedxenak bestera itten dure" - (Orain ere holantxe, holantxe, segitzen dugu, baten bat etortzen da eta, ez daukat nik gutxi baino eta, ba ordaindu egingo dizut menda, esaten du, ezta? eta tokatzen zaiona kobratu eta holan, baina oraintxe ere, gehienek bestera egiten dute)

muserie: musera

"Muserie da, goiko samako, jiratoridxa jiretan deuen, lenau egurrekoa san ori, egurreas einye muserie" - (Musera da, goiko samako, jiratorioa jiratzten duena, lehenago egurrezkoa zen hori, egurragaz eginda musera)

orie: orea

"Orixe da, orixe len esaten dxoa nasena, ba artoa, se orrek, e, onek ibil yie, igual ibilko sien, e, amabost egunien lotu in barik, onek errotak, amabost egunien igual lotu be in barik, esegaitti pes, ure badau, neguen ademas, lotu be in barik, eta, ein bi dxakona kasu de, artoa diferentie botaten tzasunien, orduntxe euki bi da kuidadue, artoa diferentie botaten batzasu, esteu bardiñ edxoten errotiek, bardin ibilliaittik, da gero ori, a artoa, bat ixen bada, asko igertukoa da bestie gitxi igertukoa, ba ak gitxi igertukoak, a, berotu itten deu gedxau, da se itten deu? pastie an arridxen bittartien, orixe da orie, ori esaten dxakona oratu in ye" - (Horixe da, horixe lehen esaten joan naizena, ba artoa, ze horiek, hauek ibili dira, beharbada ibiliko ziren, hamabost egunean lotu egin barik, errota hauek, hamabost egunean beharbada lotu ere egin barik, ezergatik

ARRIETAKO HIZTEGIA

ere ez, ura badago, meguan gainera, lotu ere egin barik, eta, egin behar zitzaiona kasu da, artoa desberdina botatzen diozunean, orduantxe eduki behar da kontua, artoa desberdina botatzen badiozu, ez du berdin ehotzen errotak, berdin ibiliagatik, eta gero hori, arto hura, bat izan bada, asko igertukoa eta bestea gutxi igertukoa, ba hark gutxi igertukoak, berotu egiten du gehiago, eta zer egiten du? pasta han harriaren bitartean, horixe da orea, hori esaten zaiona oratu egin da)

palankie: palanka

"Gero or dau, ba ori, ori de ba uren, e, etorkerie, gero aspidxen dau, ba, boka ba teko aolakoa, bokie salidekoa, orrek, e, itxi tte idi orrexek eitten deu, ori botate osunien bera, ak palankie deko, au eitten dauena, olan isten deu, goratik danien itxi itten da, da, bera botaeskeiño aolan lotzen da ta libre" - (Gero hor dago, ba hori, hori da ba uraren, etorkera, gero azpian dago, ba, aho bat dauka haolakoa, ahoa irtekerakoa, horrek, itxi eta ireki horrexek egiten du, hori botatzen duzunean behera, hark palanka dauka, hau egiten dagoena, holan ixten du, goratik denean itxi egiten da, eta, behera botaz gero haolan lotzen da eta libre)

pikie: pika, errotarria pikatzeko erabiltzen dena

presie: presa, uharka

"Ure dator emen, ba presie inye dau emetik, i, bosteun metrora, an godxen, Olabarri esaten dxakon ondoan, presie an dau, baya gero dator, kause bateti" - (Ura dator hemen, ba presa eginda dago hemendik, bostehun metrora, han goian, Olabarri esaten zaion ondoan, presa han dago, baina gero dator, ubide batetik)

"Iru errota antxe dabis presa batetik" - (Hiru errota hantxe dabilza presa batetik)

sakue: zakua

"Ori garbitxute san, e, palu luse bat, imintxe san eta saku bet edo batuten tzien eta garbitxuteuden" - (Hori garbitzen zen, makila luze bat, ipintzen zen eta zaku bat edo batzen zioten eta garbitzen zuten)

"Emen estu iñ, e, sakuekas olan ekarterik es" - (Hemen ez dugu egin, zakuakaz holan ekartzetik ez)

sardie: sarda, harriaren bitartea erregulatzeko erabiltzen dena

sorroa: zorroa

"Olako sorroak ekarten siren, baya olako sorroak es, baya ekarten sittusen jentiek orduen, se artoa urte gustidxen dxate san, eta, ba ser esango tzut? arek eta gaon ingerurartien edo, nobienbren akaburartien ba sorroka ekarte san, en jeneral, se orduen ixete san edo txarridxeri emoteko edo ba, sertuteko ba, dxateko be bai baya, ganadueri emoteko eta orretako edxote san, a, edxo ba ondo itte san ordun be, esta? baya, orretako ixeten san, gero bein gaonak paseu eskeiñoko, aste san jentie, ba, kaixadak, esaten tzakun guk, kaixadak, batzuk ekarte suren berreun killo, beste batzuk irureun, beste batzuk bosteun, da olakoak, one tie, kaixak one tie, kaixadak, olako kaixadie, ekarteuen garune, edxo d'eroan eta, sakatu eurotan, eta urte gustireko eukitteuren gero" - (Holako zorroak ekartzen ziren, baina holako zorroak ez, baina ekartzen zituen jendeak orduan, ze artoa urte guztian jaten zen, eta, ba zer esango dizut? harik eta gabon ingurura arte edo, zemendiaren amaierara arte ba zorroka ekartzen zen, gehienetan, ze orduan izaten zen edo txerriei emateko edo ba, zertzeko ba, jateko ere bai baina, ganaduari emateko eta horretarako ehotzen zen, eho ba ondo egiten zen orduan ere, ezta? baina, horrerako izaten zen, gero behin gabonak pasatuz gero, hasten zen jendea, ba, kaixadak, esaten genien guk, kaixadak, batzuek ekartzen zuten berrehun kilo, beste batzuek hirurehun, beste batzuek bostehun, eta holakoak, hauek dira, kaixak hauek dira, kaixadak, holako kaixada, ekartzen zuten garaua, eho eta eroan eta, sakatu eurotan, eta urte guztirako edukitzen zuten gero)

tangalie: tangala, txangala

"Aixe askie, bestie, a ola an dekona da, tangalie esaten tzakun guk, se a da, a dabill arridxen ganien, an dekon olan alboan dekon ola dabill arridxen ganien,

ARRIETAKO HIZTEGIA

arridxe bueltaka dabilles ta a dabil emen da, arridzek mogiduten deu ori ola d'arek ola mogiten deu garune dxausi deitten" - (Aska huraxe, bestea, ohol hura han daukana da, tangala esaten genion guk, ze hura da, hura dabil harriaren gainean, han daukan oholaren alboan daukan ohola dabil harriaren gainean, harria bueltaka dabilenez eta hura dabil hemen eta, harriak mogitzen du ohol hori eta ohol hark mugitzen du garaua jaus dadin)

tornue: dornua

trigerie: galbahea

txiploye: txifloia

"Arek, e, andikoak beste diferente deko, a barridxau de, eta a teko ba gora ta bera, palanka bateas eitten dana, a teko olako boke kuadradue, da, gora ta bera itten da, serratuten danien, e ba, berantza botaeskeiño serratu eitten da, da gora altzaten danien ba gure dan beste ser, ori de, txiploye esaten dxako orreri, e, bokie, urek urteten deuen" - (Hark, handikoak beste desberdin dauka, hura berriagoa da, eta hark dauka ba gora eta behera, palankaATEGAZ egiten dena, hark dauka holako aho karratua, eta, gora eta behera egiten da, zerratzen denean, ba, beherantza botaz gero zerratu egiten da, eta gora altxatzen denean ba gura den beste zer, hori da, txifloia esaten zaio horri, ahoa, urak irteten duena)

txoridxe: txoria

"Txoridxe or dau, or, an, a, arek papela tausien lekuen, e, tornue deko orrek, an, a, goitti bera, an goitti bera deko tirante bat, tirante ba teko, da, au tirantie ona ixetie les, da, emetik, ona, deko beyen sardie, ori sardie da onek egurreskoa dekie, batzuk burriñeskoa iminye dekie, baya onek egurreskoa taus, egurreskoa tie, sureskoak, eta, a da sardie esaten tzagune guk, a dau emen, aregas tirantiegas, a, lotute, emen tirantiek agarretan tzo emetik aspittik, ta alan dau, da emen dau fijo, eta txoridxe doa emen erdi erdidxen, txoridxe, da, arek tornuek eitten tzo, gora ta bera, gedxau edo gitxiau, nasidxau edo istuau" - (Txoria hor dago, hor, han, paper haiek dagozen lekuan, dornua dauka horrek, han, goitik

behera, han goitik behera dauka tirante bat, tirante bat dauka, eta, tirante hau hona izatea legez, eta, hemendik, hona, dauka behean sarda, sarda hori eta hauek egurrezkoa daukate, batzuek burdinazkoa ipinita daukate, baina hauek egurrezkoak dagoz, egurrezkoak dira, zurezkoak, eta, hura da sarda esaten dioguna guk, hura dago hemen, tirante haregaz, lotuta, hemen tiranteak oratzen dio hemendik azpitik, eta halan dago, eta hemen dago finko, eta txoria doa hemen erdi-erdian, txoria, eta, dornu hark egiten dio, gora eta behera, gehiago edo gutxiago, nasaiago edo estuago)

ue: u formako pieza bat

ugetue: ugetua

"Orreaittik ugetue, ak goiko errotiek apur be kora bera nos botaten deuen, a dxagon da, ogoto aprobetxeu itte san, ugetue orixe da, ur gitxi oten sanien, ugeturik estau ure naikoa dauenien" - (Horregatik ugetua, hark goiko errotak apur bat gora behera noiz botatzen duen, hura jagon eta, hobeto aprobetxatu egiten zen, ugetua horixe da, ur gutxi egoten zenean, ugeturik ez dago ura nahikoa dagoenean)

"Ugetue da ur gitxi dauenien, estau errota bat segiduen ibiltzeko beste ur espadau, ba lotute euki bi sendun ori tte ugetue da a ure batzen sanien andaparara, ba, aren golpie, eurreko errotiena, en jeneral dxagon biar ixeta san, ondo aprobetxetako, se onek kaltzak, ba estaus sementoas einye, da beti galtzeuen apur be kora bera, idxen esteidxen urek, ba beti galtzeuen" - (Ugetua da ur gutxi dagoenean, ez dago errota bat segituan ibiltzeko beste ur ez badago, ba lotuta eduki behar zenuen hori eta ugetua da ur hura batzen zenean andaparara, ba, haren kolpea, aurreko errotarena, gehienetan jagon behar izaten zen, ondo aprobetxatzeko, ze kaltza hauek, ba ez dagoz porlanagaz eginda, eta beti galtzen zuten apur bat gora behera, igan ez dezan urak, ba beti galtzen zuen)

urun askie: irin aska

ARRIETAKO HIZTEGIA

18.7. LABEA

birikidxe: belakia, labean txingarrak ateratzeko eta artoari buelta eragiteko erabiltzen zen makila luzea

ipiskidxe: labea garbitzeko makila baten puntan irak, trapuak edo zakuak ipitzen dira, ginarra moduko bat osatuz

"Brasak atara itxe sien, e, bueno nik estaitx or, beste batzutan diferente ikus dot, emen ixete san, e, ipiskidxe esaten tzagu guk, ipiskidxe, ixete san palu bet, da punten imintxen dxakon ide berdie, idi berdie, eta apurtxu bet ureas busti a, eta lenengo atarate san, e, a brasie kanpora, eta gero areas dana garbitxu ondo, artoak gero segidxen barrure" - (Txingarrak atera egiten ziren, beno nik ez dakit hor, beste batzuetan desberdina ikusi dut, hemen izaten zen, ipiskia esaten diogu guk, ipiskia, izaten zen makila bat, eta puntan ipintzen zitzaion ira berdea, ira berdea, eta apurtxu bat uregaz busti hura, eta lehenengo ateratzen zen, txingar hura kanpora, eta gero haregaz dena garbitu ondo, artoak gero segidan barrura)

labako palie: labeko para

"Gero sartun a eta gero orduen aste san, labako paliegas, ya astiegas, e, eraitxen artopillek" - (Gero sartu hura eta gero orduan hasten zen, labeko paragaz, ja asteagaz, eragiten arto-opilak)

labarotie: labarako otea

labartoa: labartoa

labasue: labasua

"Samartiñetako be labasue itxe san ogidxe eukitxeko etzien" - (San Martinetarako ere labasua egiten zen ogia edukitzeko etxean)

"Gero labasuek eitxe seitxusenien ogidxe itxen gendun etzien" - (Gero labasuak egiten zituztenean ogia egiten genuen etxean)

labie: labea

"Berotasune, bueno, e, eitxe san igual, suertan badxatzu, laban, a, apur bet larri su eitxie, eitxe san labie apur bet, eurrie tapeu barik itxi, otzitzu arte, igerten tzasun ba, lar tosteko dire edo, pentzetan basu, artoa orduen iditxe itxi, eta gitxitxu ein yosule pentzetan basu, gitxidxen, pastan sana san, gitxi itxen basu, egote

san, andik ataate sun a brasie, egurre erreko brasie, a imintxen tzasun eurrien, pilloa onetara serien, da gero imintxen tzasun areri brasieri artoas nasteu estitxen, e, tallie onetara ganien imintxen dxakon beti" - (Berotasuna, beno, egiten zen beharbada, suertatzen bazaizu, labean, apur bat larregi su egitea, egiten zen labea apur bat, aurrea tapatu barik utzi, hoztu arte, igartzen zenion ba, lar igertuko dira edo, pentsatzen baduzu, artoa orduan irekita utzi, eta gutxitu egin duzula pentsatzen baduzu, gutxian, pasatzen zena zen, gutxi egiten baduzu, egoten zen, handik ateratzen zenuen txingar hura, egurra erreko txingarra, hura ipintzen zenion aurrean, piloa honetara zerean, eta gero ipintzen zenion txingar hari artoagaz nahastu ez dadin, teila honetara gainean ipintzen zitzaion beti)

"Puntue igerten tzasun porrejenplo, labie, lenengo sartze sunien, labie barrue dana itxen dxako baltz lotu, ulertesu? baltz, eta klaro orduen senbat eta berotuten dxoan sartzen tzasu egurre ta sartzen tzasu te gero asten da betik, suritxuten, arek ladrilluek suritxuten, ta gora gora gora ta ya godxe suritxute dekonien ya berotute dau, ortik igerten dxako".(Puntua igartzen zenion esate baterako, labea, lehenengo sartzen duzunean, labea barrua dena egiten zaio beltz lotu, ulertzen duzu? beltz, eta jakina orduan zenbat eta berotzen joan sartzen diozu egurra eta sartzen diozu eta gero hasten da behetik, zuritzen, adreilu haiek zuritzen, eta gora-gora-gora eta ja goia zurituta daukanean ja berotuta dago, hortik igartzen zaio)

labigarra: labigarra, labean erretzeko materiala

"Bai oniño, urune ta itten deu, oniño, onen aitte pe lengoan, a, an on giñenien esaten egon san, a, pasa dan urtien amabi labigar artoa saldu tzosela ta" - (Bai oraindino, irina eta egiten du, oraindino, honen aitag ere, lehengoan, han egon ginenean esaten egon zen, pasatu den urtean hamabi labigar artoa saldu dizkiola eta)

ARRIETAKO HIZTEGIA

lamadie: lamada, labetik bat-batean irteten duen berotasuna

palie: para

"Guk palie esaten gontzan, aspidxe kentzeko ari palie esaten gontzan" - (Guk para esaten genion, azpia kentzeko hari para esaten genion)

tapie: tapa, labearen ahoa ixtekoa

urkulue: urkulua, egurrezko sarda otea labean sartzekoa

18.8. GURDIAK

akulue: akuilua

"Lenau gurdidxegas satzetan ibiltten giñen ba, satza pe gurdidxeas atara, idi busterridxegas, gurdidxe ganeti bajatu barik, onek, e, ortixik euki euen, ortxe deku albatie, da gurdidxen ganetik bajatu barik, ekarri eurres, bueltea te gurdidxe atzes kortara botate nuen, aginyu olantxe akuluas, akuluas manejeu, d'ididxek bueltie artu, atzes aginyu te, tras-tras-tras d'ididxek, e, gurdidxe atzes" - (Lehenago gurdiagaz satsetan ibiltzen ginen ba, satsak ere gurdiagaz atera, idi buztarriagaz, gurdia gainetik baxatu barik, honek, hortixek eduki zuen, hortxe daukagu albatea, eta gurdiaren gainetik baxatu barik, ekarri aurrez, bueltatu eta gurdia atzez kortara botatzen nuen, agindu holantxe akuiluagaz, akuiluagaz maneiatu, eta idiek buelta hartu, atzez agindu eta, tras-tras-tras eta idiek, gurdia atzez)

aldamena: aldamena, gurkamaren alboetan dagozan makilak

ardi narrue: ardi narrua, buztarriaren gainean ipintzen dena

aspiola: azpi ohola, garraio batzuetarako gurkamaren azpiko aldean ipintzen diren oholak

astoa: astoa, aldamenen azpian ardatzari eusteko dagoen egurra

"Arek eitte seittusen, gurpillek, eta gero areri sartu biar ixetan dxakon, egalatan, kamiñen parien, olako rejille edo, buelta gustidxen olako bat, eta arek eroateuen olan, e, gasteuneda bat, ta an sujetetan dxakosan gero, astoak esaten dxakonak" - (Hark egiten zituen, gurpilak, eta gero

hari sartu behar izaten zitzaion, hegaletan kamaren parean, holako erraila edo, buelta guztian holako bat, eta hark erooten zuen holan, gastaunada bat, eta han eusten zitzaizkion gero, astoak esaten zaizkieanak)

atzera kargie: atzera karga

"Au in bideu lelengo atzera kargie defendiduteko, ta aldatzien gora badoa, atzien paretan dxako astun kargie" - (Hau egin behar dugu lehenengo atzera karga defenditzeko, eta aldatsean gora badoa, atzean paratzen zaio astun karga)

bei busterridxe: behi buztarria

"Lenau bei busterridxek etze gustittan ote siren bedxek, tratorik es egoan da, bedxekas biar, orduen bedxen armerie inportantie ixeta san" - (Lehenago behi buztarriak etxe guztietan egoten ziren behiak, traktorik ez zegoen eta, behiakaz behar, orduan behien armera garrantzitsua izaten zen)

bolantie: bolantea, gurdi mota bat lotua ez dena

"Bolantie apartekoa da" - (Bolantea apartekoa da)

burdidxe: gurdia

busterri bakarra: buztarri bakarra

"Gitxi, gitxi, busterri bakarra, nos edo nos bai, baya gitxi, ori usetan gendun guk, onek artoak, eraitte siren illedatara, eixiegas, eta a bittartie porkeratuteko ote san busterri bakarra" - (Gutxi, gutxi, buztarri bakarra, noiz edo noiz bai, baina gutxi, hori usatzen genuen guk, arto hauek, eraiten ziren ilaratara, exeagaz, eta bitarte hura porkeratzeko egoten zen buztarri bakarra)

busterri utzien: buztarri hutsean

busterridxe: buztarria

"Alderdi bateti imintten dxakon sartuteko lekue, esta? aren busterridxen ganera, eta besteti, ba engantxetako, emoten dxakon olako, ba narru sati bet eta gero engantxe bat, solteu te amarreu itteko" - (Alderdi batetik ipintzen zitzaion sartzeko lekua, ezta? buztarri haren gainera, eta bestetik, ba engantxatzeko, ematen zitzaion holako, ba narru zati bat eta gero engantxe bat, soltatu eta amarratu egiteko)

edie: hedea

ARRIETAKO HIZTEGIA

erraille: erraila, aldamen batetik bestera doazen makilak gurkama osatzeko

erramala sokie: erramala soka

"Egur bet ixetan san, esta? suk esan dosun moduen, eurretik atzera, gurdidxe kargeute, gero atzian amarreu sokie ta itten sana, erramala sokie, soka laburregas, baya guk usetan gendusen bidxek batera" - (Egur bat izaten zen, ezta? zuk esan duzun moduan, aurretik atzera, gurdia kargatuta, gero atzean amarratu soka eta egiten zena, erramala soka, soka laburragaz, baina guk usatzen genituen biak batera)

erramalie: erramala

erruedie: gurpila

espatie: ezpata, gurkamaren aurreko aldean tente jartzen den makila

"Beidxekas eseikien geuse andirik ekarri tte, orduen, ididxekas, usetan gendun lenengo, kargeu, au aurreko gurdidxe taroana, aparatoari esaten dxakon espatie" - (Behiakaz ez zitekeen gauza handirik ekarri eta, orduan, idiakaz, usatzen genuen lehenengo, kargatu, hau aurreko gurdiak daroana, aparatoari esaten zitzaion ezpata)

eurmedie: aurmada, buztartu ostean ardi narruaren azpiko altxagarria

"Ori ixeta san, deittuten tzakun guk eurmedie, eurmedie, ori de altxagarri bet, se ardi narrue ixeta san, guk usetan gendune beintzet, artxo, urteko artxoa edo, ardi mie" - (Hori izaten zen, deitzen genion guk aurmada, aurmada, hori da altxagarri bat, ze ardi narrua izaten zen, guk usatzen genuena behintzat, artxo, urteko artxoa edo, ardi mehea)

eurrera kargie: aurrera karga

"Eurrera kargie be ona esta, bates be eurberan pase biar bada" - (Aurrera karga ere ona ez da, batez ere aurbeheran pasatu behar bada)

galgasorra: galgaziorra

"Eta ote siren galgasorra esaten dxakienak, beste batzuk" - (Eta egoten ziren galgaziorra esaten zitzaienak, beste batzuk)

galgie: galga

"Bai galgie esaten dxakon orreri" - (Bai galga esaten zitzaion horri)

"Nik estot useu etzian, arik eta, gurdidxe, burdiñesko, e, seragas, gurrillek eta, au, sestema barriko gurdidxe useu arte, estot useu iños galgarik" - (Nik ez dut erabili etxean, harik eta, gurdia, burdinazko, zeragaz, gurrilak eta, hau, sistema berriko gurdia erabili arte, ez dut erabili inoiz galgarik)

gana: gaina, kina, akuiluak puntan daukan iltzea

ganadu busterridxe: ganadu buztarria

gurdi bolantie: gurdi bolantea

gurdidxe: gurdia

"Guk aunetan etzietan, ba inyabak eroan dus beti gurdidxegas, lenau asko koiste san da" - (Guk etxe hauetan, ba indabak eroan ditugu beti gurdiagaz, lehenago asko hartzen zen eta)

gurdi puntie: gurrupunta

gurdi taketa: gurdi taketa, aldamenetan ipintzen direnak

gurdi txirriñe: gurdi txirrina

gurkamie: gurkama

gurrille: gurrpila, txirrinka

"Ori ixeta san etzeko galgie esaten dxakona, norberak eitteuena, emote dxakon, o, erateuen, e, gurril batek, erateuen, e, beran atzian, olan, a, aro bat, eta an dxoate san, kolokeute, tako bat, burdiñe edo sureskoa, sureskoa, eta arek erateuen gero korredera bat, atzera, eta areri tirtute, enrosketa san gurrillegas a" - (Hori izaten zen etzeko galga esaten zitzaiona, norberak egiten zuena, ematen zitzaion, eroaten zuen, gurril batek, eroaten zuen, beraren atzean, holan, uztai bat, eta han joaten zen, ezarrita, tako bat, burdina edo zurezkoa, zurezkoa, eta hark eroaten zuen gero korredera bat, atzera, eta hari tiratuta, biribilkatzen zen gurrilagaz hura)

gurrupuntie: gurrupunta

gurditxille: basoan enborrak ateratzeko erabiltzen den gurdi malgua

"Gurditxille san lenau, e, klaro, esales egoten medidxorik, dana ixeta san, e, idi parejieas, busterridxe ididxekas, ataratie, danak, piñue bai aretxe bai gastañe, dana, eta normalien ekarte suen, ba igual, piñu bet, busterra batek edo, ikusten badue larrei dala busterra batentzako ba, erdidxe ebaitxe edo, bi

ARRIETAKO HIZTEGIA

igual, da klaro ori gurdixille ixeta san, e, eukitxe seuen ba, gurdidxe normalmentien, metro bat eta berrogei sentimetro ingeru edo olan euki seuen kamiek, b'orrek euki seuen, e, altuen ba metro bat, edo gitxiau, eta erdidxen eukitxe seuen, olan busterra bet einye, busterra bet, erdidxen, ejiegas, ulertesu? sartun an ejie, da arek kurbetan da, a itxe san, ak jireu itxe seuen, an ejie euki seueles, sein ye onek kamioyek eta dekien moduen, arek olan sartunde dekoles sera, arek jireu itxe seuen, bueltak artu deidxesan ondo" - (Gurdixila zen lehenago, jakina, ez zenez egoten mediorik, dena izaten zen, idi pareagaz, buztarria idiakaz, ateratzea, denak pinua bai haritza bai gaztaina, dena, eta normalean ekartzen zuten, ba beharbada, pinu bat, buztarri batek edo, ikusten badute larregi dela buztarri batentzat ba, erdia ebakita edo, bi beharbada, eta jakina gurdixila hori izaten zen, edukitzen zuen ba, gurdiak normalean, metro bat eta berrogei zentimetro inguru edo holan eduki zuen kamak, ba horrek eduki zuen, altuan ba metro bat, edo gutxiago, eta erdian edukitzen zuen, holan buztarri bat eginda, buztarri bat, erdian, ardatzagaz, ulertzen duzu? sartu han ardatza, eta hark bihurtan eta, hura egiten zen, hark borratu egiten zuen, han ardatza eduki zuenez, zein da kamioi hauek eta daukaten moduan, hark holan sartuta daukan lez zera, hark itzuli egiten zuen, bueltak har ditzan ondo)

gursotza: gurzotza

gurtedie: gurtedeia

gurtetza: ardatza

"Gurtetza egurrezkoa, esta? da gero klaro aflojatu itxe san a, da aflojatuten sanien sartzen dxakon sidxe" - (Ardatza egurrezkoa, ezta? eta gero jakina lasatu egiten zen hura, eta lasatzen zenean sartzen zitzaion ziria)

"Iños neuri be suerte dxat, ños, e, dxoan Sollubera aspigarritxen, ididxeikas, eta etorri goitxik bera eta ariñ eitxe suen arek, nobera eurrien, eta martxan, da ori bakixu girrin ye girrin, girrin ye girrin, da akabuen lotu in biar, se sue artun, gurtetza berotu sanien sue" - (Inoiz neuri

ere suertatu zait inoiz, joan Sollubera azpigarritan, idiakaz, eta etorri goitik behera eta arin egiten zuten haiek, norbera aurean, eta martxan, eta hori badakizu girrin eta girrin, girrin eta girrin, eta azkenean lotu egin behar, ze sua hartu, ardatza berotu zenean sua)

gurtetz untzek: gurtetz iltzeak

gurtola: gurtoholak, kartola

kamie: gurkama

"Ori de gurdi normalagas, bardiñ eitxen tzien kanbidxeu, ori kamie diferentie, esta? eta gurdidxen erruedakas engantxeta seuen ori bardiñ" - (Hori da gurdi normalagaz, berdin egiten zioten aldatu, hori kama desberdina, ezta? eta gurdiaren gurpilakaz engantxatzen zuen hori berdin)

kargie: karga, zama

"Guk usetan gendun burdiñeskoa, se kargie be ixete sales bastante fuertie, sotza, atzeko tiriegas eta gero kargiegas, igual apurtu itte san" - (Guk usatzen genuen burdinazkoa, ze karga ere izaten zenez nahiko gogorra, zotza atzeko tiragaz eta gero kargagaz, beharbada apurtu egiten zen)

karroa: karroa; gurdia eta karroa desberdinak dira, gurdia itxiari esaten zaio, karroa, berriz, astoakaz edo ibiltzen denari edo irikiari

"Amen karroak eroateuen frenue" - (Hamen karroak eroaten zuen galga)

narrue: narrua, buztarriaren gainean ipintzen dena, gehienetan ardi narrua

"Gero ori eurmedie setako? edo ori narrue obeto esateko? a barruko aparejue dxagoteko euridxen kontra" - (Gero aurmada hori zertarako? edo narru hori hobeto esateko? barruko aparejo hura jagoteko euriaren kontra)

ola: ohola

orrasidxe: orrazia, aldamenetatik goitik behera ardatzari eusten dioten egurrak

palanketa: atzakarra

partikie: partika

"Ori partikiek ekarteuen" - (Hori partikak ekartzen zuen)

pistiñe: piztina

sapie: sapa

sotza: zotza, larakoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Klaro! selako ganadue dekon batek, esate baterako badekos batek apur bet ididzek edo, apur bet torpie igual ixeta san, atzerengo suloan imin biar ori sotza, a fijo ixeta san, eta gero sartu gurtedana, eta eurreti, beste sos bat" - (Jakina! zelako ganadua daukan batek, esaten baterako badauzka batek apur bat idiak edo, apur bat dorpea beharbada izaten zen atzerengo zuloan ipini behar zotz hori, hura finko izaten zen, eta gero sartu gurtadarena, eta aurretik, beste zotz bat)

surrune: zurruna

"Orreri deittuten dxako surrune, eta garitxue be bai" - (Horri deitzen zaio zurruna, eta garitxua ere bai)

"Ta a burdiñe dxoate san eskeitte, aren espatien punten, untzetxu bateas inkeu katiekas, an dxoate san a, orduen, a, beteta sanien, arañño suloatarañño, emoten tzakun ori, surrune esan dune, amarreu sokiegas, soka laburregas atzien, ta gero kargetan gendun ganera, beste ba, seoser, erdidxe, paseutxu kargetan gendun, surrunen aspidxen, ta ganera, gero konplete arte, ganera kargeu, ta gero egur batzuk imiñi, egurrek, segun, an, a, guk eroaten gendun aspigarri, bedarra seiñ irie, nastie, bastante anditxue ixete san orduen, egurrek imiñi, eta gero sokie emoten tzakun, sokiek eukiko sittusen apur be kora bera, ogetabost metro, ogetamar, luseran, ori ixete san lodidxaua beste, areri bestieri surruneri emoten dxakona baño, e? lodidxaua, eta ba orixe apur be kora bera ogetabost, ogetamar metro" - (Eta burdina hura joaten zen eskegita, ezpata haren puntan, iltzetxoategaz inkatu kateakaz, han joaten zen hura, orduan, betetzen zenean, haraino zuloetaraino, ematen genion hori, zurruna esan duguna, amarratu sokagaz, soka laburragaz atzean, eta gero kargatzen genuen gainera, beste ba, zer edo zer, erdia, pasatutxo kargatzen genuen, zurrunaren azpian, eta gainera, gero osatu arte, gainera kargatu, eta gero egur batzuk ipini, egurrak, segun, han, guk eroaten genuen aspigarri, belarra zein ira, nahastea, nahiko handitxoa izaten zen orduan, egurrak ipini, eta gero

soka ematen genion, sokak edukiko zituen apur bat gora behera, hogeita bost metro, hogeita hamar, luzeeran, hori izaten zen lodiagoa beste, beste hari zurrunari ematen zaiona baino, e? lodiagoa, eta ba horixe apur bat gora bera hogeita bost, hogeita hamar metro)

taketa: taketa, aldamenetan ipintzen diren egur txikarrak

ubela: uhala, larakoak edo gurzotzak daukan uhaltxoari esaten zaio

"Guk gedxen partien ubela usetan gendun, sesiñen narruegas eiñeko ubela" - (Guk ghinetan uhala usatzen genuen zezinaren narruagaz egineko uhala)

yantie: gurpilaren uztaia

18.9. ASTO GARRAIOA

aparejue: aparejua

"Aparejue barik aspidxen eroaten seuena, txalmak egote siren apropos einye" - (Aparejua barik azpian eroaten zuena, txalmak egoten ziren apropos eginda)

asto aparejue: asto aparejua

asto burdiñie: asto burdina

astotzarie: astotzara

bastie: basta

bustenperakoa: buztanpekoa

kabeserie: kabezera

kollarra: koilarra

makoa: txalma

monturie: montura

petrala: petrala

txalmie: txalma

"Txalmie lelengo, aspitxik lepoan miñ eiñ estidxon, txalmie edo bastie" - (Txalma lehenengo, azpitik lepoan min egin ez diezaion, txalma edo basta)

txintxie: zintxa

"Emetik ba, sintturidxen imintten dana txintxie" - (Hemendik ba, gerrian ipintzen dena zintxa)

ubela: uhala

18.10. KORTA

albatie: albatea

"Albatie da, kortara sartzen garena" - (Albatea da, kortara sartzen garena)

ARRIETAKO HIZTEGIA

angarillie: angarila

"Mutil bik, oniño bixi die arek mutillek, altze uen dana, olakoxe angarilletxu bateas" - (Mutil bik, oraindino bizi dira mutil haiek, altxatu zuten dena, holakoxe angarilatxo bategaz)

"Angarillie guk estu useu, ba nik esetu ot, obratan amen karretillerik esan egoten, egoten sien karretillek burdiñesko erruedakas, eta gero ba angarillek, orixe kaja bat ixete san, astatxu biges" - (Angarila guk ez dugu usatu, ba nik ezagutu dut, obretan hamen karretilarik ez zen egoten, egoten ziren karretilak burdinazko gurpilakaz, eta gero ba angarilak, horixe kaxa bat izaten zen, astatxo bigaz)

askie: aska

"Lenau egote san amen au obrie iñ orduko, au eskatza, egon sala esaten deu nire gixonak, ortxe, estramiñek amen egon siren, se askie or beste partien dau" - (Lehenago egoten zen hamen obra hau egin orduko, eskatz hau, egon zela esaten du nire gizonak, hortxe, estraminak hamen egon ziren, ze aska hor beste aldean dago)

eskubille garratza: eskubila garratza

"Eskubille garratza ori andidxe da" - (Eskubila garratza hori handia da)

"Or dau gurien, ondo dxanda dau, eskubille garratza" - (Hor dago gurean, ondo janda dago, eskubila garratza)

eskubille: eskubila

"Eskerreko eskuen txarrantxie ta eskoyen eskubille" - (Ezkerreko eskuan txarratxa eta eskoian eskubila)

estramiñie: estramina

"Estramiñek eoten sien atxiñe eskatzetik, atxiñe atxiñe esetu tas nik, tapakas da ganadueri emoteko, amen, e, eskatzetik atxiñe eukitxen txuen batzuk eta beste batzuk karrajutik" - (Estraminak egoten ziren antzina eskatzetik, antzina-antzina ezagutu ditut nik, tapakaz eta ganaduari emateko, hamen, eskatzetik antzina edukitzen zituzten batzuk eta beste batzuek karrajutik)

"Estramiñe pe badekus, kortan, ganaduek dxaten deuen leku, eurreti" - (Estraminak ere badauzkagu, kortan, ganaduak jaten duen leku, aurretik)

estramiñeurrie: estramin aurea

eurkidxe: behiak batzeko erabiltzen den aulkia

galtzuserrie, galtzaserrie: galtzu-zerra, lastoak ebakitzeko erabiltzen ziren igitaiak; gehienetan kortako zutaberen baten egoten ziren, han ebakitzen ziren lastoak ganaduari emateko

"Galtzuserrie da oja biges da olan eitten sana, se ori useta san, txolie esaten dxako galtzu txolie gari dxota, sartze san an da, ra! galtzue ganadueri emoteko, enpajadan edo olan eitteko eitte san orregas" - (Galtzu-zerra eta alde bigaz eta holan egiten zena, ze hori usatzen zen, txola esaten zaio galtzu txola gari jota, sartzen zen han eta, ra! galtzua ganaduari emateko, enpajadan edo holan egiteko egiten zen horregaz)

karretillie: karretila

"Nik esetu nuen amen karretillie, burdiñesko erruedadunek, lenengo, gero erruedie, gomaskoak gero, gero etor sien" - (Nik ezagutu nuen hamen karretila, burdinazko gurpildunak, lehenengo, gero gurpila, gomazkoak gero, gero etorri ziren)

kortatxurre: kortaitzurra

kortie: korta

"Ni bendejara enas ixen, ni es, ni asi nitzen kortan amabi urteas da gedxau kortan esetu dot neure burue, kortan" - (Ni bendejera ez naiz izan, ni ez, ni hasi nintzen kortan hamabi urtegaz eta gehiago kortan ezagutu dut neure burua, kortan)

lastaserrie, lastoserrie: galtzu-zerra, lasto-zerra

"Lasto serrie da bestie lastoa txikertakoa, ostantzien lastoa orreas esta itten ondo, eiñ eitten da baya gatx, inyar asko bi deu" - (Lasto-zerra da bestea lastoa txikertzekoa, osterantzean lastoa horregaz ez da egiten ondo, egin egiten da baina gaitz, indar asko behar du)

sardie: sarda

sepillue: eskubila

"Sarrantxie da sera, sepillueas paseu gero, ta eutze kendu" - (Txarrantxa eta zera, eskubilagaz pasatu gero, eta hautsa kendu)

txarrantxie, sarrantxie: txarrantxa

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Bedxe garbittu, sarrantxie da sepillue" -
(Behia garbitu txarrantxa eta eskubila)

19. GIZARTEA

Gizarte bizimoduari buruzko atal honetako lexikoa merkatu-azoka, dirua, neurriak, jendea, kortesia formulak, jabetza erlazioak, auzoen erlazioak-elkarteak, ezkontza, musika-dantza, kirola, karta jokoak, ehiza-arrantza, jaiegunak, euskara, eta gerratea-soldaduska izeneko azpi-gaietan banatuta ematen dugu.

19.1. MERKATU-AZOKA

bendejerie: bedejera

bendejie: bendeja

"Ni enas dxoan ños bendejiegas, baya dxoaten diren amen, e, inyabiegas edo olan" - (Ni ez naiz joan inoiz bendejagaz, baina joaten diren hamen, indabagaz edo holan)

beseridxe: bezeria

"Beseridxe eukitxeuen orrek beti beti dabixenak" - (Bezeria edukitzen zuten horiek beti-beti dabiltzanek)

beserie: bezeria

erregaterie: erregatera, erosi eta saldu egiten duena plazan edo azokan (f.)

"Erregaterak ekarten txuesan, e, tranpasko lako baskula antzeko batzuk eta, guk bost kilo emon, lau esaten doskuen da, axe" - (Erregaterak ekartzen zituzten, tranpazko lako baskula antzeko batzuk eta, guk bost kilo eman, lau esaten ziguten eta, huraxe)

erregaterue: erregatera, erosi eta saldu egiten duena plazan edo azokan

errekadue: 1. errekadua, mandatua. 2. gaztigua, mezua

erromanie: erromana

feri egune: azoka eguna

"San Markoatan, lenau lenau, Gatiken ixetan dire San Markoak, feri egunek, baya an il yeuela San Markoatan euntze aixe otzak" - (San Markoetan, lehenago-lehenago, Gatikan izaten dira San Markoak, azoka egunak, baina han hil duela San Markoetan ahuntza haize hotzak)

feridxe: azoka

ganadu feridxe: ganadu azoka

plasia: plaza, azoka

"Ameti be bai plasara asko itte suenak astoas ibiltte sien, e, nire denporan ibiltte sien emeti pe astoas dxoate sien, Sollubetik dxoate sien, baya ori mendialdie gedxau" - (Hamendik ere bai plasara asko egiten zutenak astoagaz ibiltzen ziren, nire sasoian ibiltzen ziren hemendik ere astoagaz joaten ziren, Sollubetik joaten ziren, baina hori mendialdea gehiago)

presidxo: prezioa

"Magaltzako esateuden, billotzakas dxoan sala plasara, da presidxo ona eiñ, da atzera etorri etzera, da artu beste billos bi lepoan, da eroan txusen ostabe" - (Magaltzako esaten zuten, bildotsakaz joan zela azokara, eta prezio ona egin, eta atzera etorri etxera, eta hartu beste bildots bi lepoan, eta eroan zituen osterera ere)

sorroa: zorroa, zakua

tratantie: tratantea, tratularia

"Ya esta derrigorra irekatzi bierra, segun, selakoak artzen dosusen feridxen, se geur esate baterako pare bat, idi pare bat topetako igual korridu bier dire ba, feri batzuk, norberan gustukoa topetako, baya lenau, gure sasoyen, ordun egote san ididxe, asko, asko egote san, se dxoaten sien Asturiasera, ta ekarte sitxuesan ba enkargeute be igual, tratantiek dxoaten sienak, se egoten siren tratante batzuk, dediketan sirenak, orretan bakarrik, esta? da beste batzuk, bapes idirik" - (Honezkero ez da derrigorra irakatsi beharra, segun, zelakoak hartzen dituzun azokan, ze gaur esate baterako pare bat, idi pare bat topatzeko beharbada korritu behar dira ba, azoka batzuk, norberaren gustukoa topatzeko, baina lehenago, gure sasoian, orduan egoten zen idia, asko egoten zen, ze joaten ziren Asturiasera, eta ekartzen zituzten ba enkargatuta ere beharbada, tratulariak joaten zirenek, ze egoten ziren tratulari batzuk, dedikatzen zirenak, horretan bakarrik, ezta? eta baste batzuk, bat ere ez idirik)

tratue: tratua

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Tratu ein ye gero tabernara albokara" -
(Tratu egin eta gero tabernara
albrokara)

19.2. DIRUA

alagorie: alogera, soldata

balidxo: balioa

dirue: dirua

"Nire gaste denporan, Indixetara diruek
eitten dxoaten sirela" - (Nire gazte
sasoian, Indietara diruak egiten joaten
zirela)

erriela: erreala

gastue: gastua

"Sekretaridxoan gastuek eta itteko,
koperatibe bat forme san amen,
koperatibe San Martin, de piñuek sartu
siren amen" - (Idazkariaren gastuak eta
egiteko kooperatiba bat egin zen hamen,
San Martin kooperatiba, eta pinuak sartu
ziren hamen)

jornala: alogera, soldata

ogerlekoa: ogerlekoa

"An itxen dosties markeu, irukoak gitxi daus,
aren umie astiaitxik, mille ogerleko
emoten dosties, ta aritxoa asten baot
sortzi mille peseta" - (Han egiten
dizkidate markatu, hirukoak gutxi dagoz,
haren umea hazteagatik, mila ogerleko
ematen dizkidate, eta aharittoa hazten
badut zortzi mila pezeta)

pagie: paga

pague: ordaina

"Gero totoa ixete san, pageu esan eitten, a
jornal moduen bapes, pague ixete san
berierendie edo trague emoten sana" -
(Gero totoa izaten zen, ordaindu ez zen
egiten, hura alogera moduan bat ere ez,
ordaina izaten zen askaria edo zurrutada
ematen zena)

pesetie: pezeta

sorra: zorra

tarifie: tarifa

"Sadxe, a, paseute emote otzuen a, arek
emoten tzuen baya, ogei killo edo, orixe
salako tarifie, ba sadxe" - (Zahia,
pasatuta ematen zizuten hura, haiek
ematen zizuten baina, hogeit hamar kilo edo,
horixe zelako tarifa, ba zahia)

txakur txikerra: txakur txikerra

txakurrandidxe: txakurrandia

"Pesetie es, nire denporan txakurrandidxek
eta olan, e, onen denporan ya pesetie
igual bai, baya nire denporan ba
txakurrandidxek eta olakoak emoten
oskusen" - (Pezeta ez, nire sasoian
txakurrandiak eta holan, honen sasoian
ja pezeta beharbada bai, baina nire
sasoian ba txakurrandiak eta holakoak
ematen zizkiguten)

19.3. NEURRIAK

alturie: altuera

"Eta senbat eta alture gedxau dauen artoak
diferentzi andidxe deko" - (Eta zenbat eta
altuera gehiago dagoen artoak
desberdintasun handia dauka)

anega erdidxe: anega erdia

anegie: anega

"Lau kuarta eixus olan, meidute imiñi tte,
anega bat" - (Lau kuarta egin itzazu
holan, neurtuta ipini eta, anega bat)

"Estai pa senbat a, selemiñe eukitten
sittusen anegiek, amabi selemiñe edo,
estaipa ser ixen san, oiñ astute nau orre
paya" - (Ez dakit ba zenbat hura, zelemín
edukitzen zituen anegak, hamabi zelemín
edo, ez dakit ba zer izan zen, orain
ahaztuta nago horiek baina)

arra erdidxe: arra erdia

arrie: arra

arrobie: arroba

asunbreddidxe: azunbre erdia

asunbrie: azunbrea

atza: hatza

"As bat edo bi kendu, edo as bat edo bi
lusetu edo" - (Hatz bat edo bi kendu, edo
hatz bat edo bi luzatu edo)

dosena erdidxe: dozena erdia

dosenie: dozena

"Guk koitxeduek ekarten gendun ba, dosena
bi iru arrutze, olloskotxue dausenien,
inyabatxue, d'olakoxe geusek" - (Guk
koitaduok ekartzen genuen ba, dozena bi
hiru arrautza, oilaskotxoa dagozenez,
indabatxoa, eta holakoxe gauzak)

erdidxe: erdia

erdikiñe: erdikina

erraldie: erralde, bost kiloko pisua

ARRIETAKO HIZTEGIA

esteridxa, esteridxe: esterioa, arbolen eta egurren neurria

"Buena esteridxa megiduten da, ba megiduten dosu, kamioyek esate baterako deko, kamien berak sei metro luse, bi tt'erdi sabal, eta gero ba, e, alturek artu, alturek igual, ba metro bi, sei metroko luserie badeko kamiek, iru lekuten artu meidek, alturek, iru lekuten alderdi batetik, beste iru lekuten beste alderdittik, sei alture artzen dosus, aurren sumek danak eñ, eta dibididu seigas, da uetetan deu ba serak, promedidxa, alturetana, da gero ba luserie sei, eta gero sabalerie badeko bi tt'erdi, da an urtetan deu kantidediek" - (Beno esterioa neurtzen da, ba neurtzen duzu, kamioiak esate baterako dauka, kaman berak sei metro luze, bi eta erdi zabal, eta gero ba, altuerak hartu, altuerak beharbada, ba metro bi, sei metroko luzeera badauka kamak, hiru lekutan hartu neurriak, altuerak, hiru lekutan alderdi batetik, beste hiru lekutan beste alderditik, sei altuera hartzen dituzu, haorien batuketak denak egin, eta zatitu seigaz, eta irteten du ba zerak, batez-bestekoa, alturetana, eta gero ba luzeera sei, eta gero zabalera badauka bi eta erdi, eta han irteten du kopuruak)

gixelana: gixelana, honek 380 metro karratu dauka

"Onek terreno asko euki deu, bai onek terreno asko euki deu, onek mille gixelan euki ttu" - (Honek terreno asko eduki du, bai honek terreno asko eduki du, honek mila gixelan eduki ditu)

kana erdidxe: kana erdia

kanie: kana, ehuna eta egurra neurtzeko neurria

"Telie, erosteko bai kanie" - (Ehuna, erosteko bai kana)

kantara erdidxe: kantara erdia

kantarie: kantara

killoa: kiloa

"Anegako sera, kentzeuen, killoko ba onenbeste gramo edo sera ba, anegako ba idxoten bada lau killo edo bost edo sera kendu itteuen" - (Anegako zera, kentzen zuen, killoko ba honenbeste gramo edo zera ba, anegako ba ehotzen

bada lau kilo edo bost edo zera kendu egiten zuen)

"Onek, promedidxo bat edxoten dure, arto onien, ba, sortzi amar killo orduko" - (Hauek, batez-besteko bat ehotzen dute, arto onean, ba, zortzi hamar kilo orduko)

killo erdidxe: kilo erdia

kilometroa: kilometroa

kinttela: kintala

kuartie: kuarta

"Kuartiek amabi kilo t'erdi, da selemiñek lau kilo, badaus oniño geurien, lengoak" - (Kuartak hamabi kilo eta erdi, eta zeleminak lau kilo, badagoz oraindino geurean, lehengoak)

"Bai orrek egosan, badaus orrek, e, selemiñie, kuartie, orre tie, nik neuk esetu otesenak" - (Bai horiek zegozen, badagoz horiek, zelemina, kuarta, horiek dira, nik neuk ezagutu ditudanak)

kuartillu erdidxe: kuartilua erdia

kuartillue: kuartilua

laurena: laurena

liber lauren: libra laurena

liberdidxe: libra erdia

librie: libra

litro erdidxe: litro erdia

litroa: litroa

medidie, meidie: neurria

metroa: metroa

neurridxe: neurria

ontza erdidxe: ontza erdia

ontzie: ontza

"Lengo sarrak ameko arotzak sentimetroa gitxi useta euden, gitxi, metroa pe espadeko, ontzatak metroa espadeko eseuen balidxo ixetan, bidxek euki biar" - (Lehengo zaharrek hemengo arotzek zentimetroa gutxi erabiltzen zuten, gutxi, metroak ere ez badauka, ontzetako metroa ez badauka ez zuen balio izaten, biak eduki behar)

oñe: oina; estratzek zazpi oineko zabalera eduki behar dute

pare bat: pare bat

parejie: bikotea

pilloa: piloa

pixue: pisua

satidxe: zatia

"Batek artun txusen, e, talle satitxuek, da bestiek arri satidxek, kolore diferentiek artzeko" - (Batek hartu zituen, teila

ARRIETAKO HIZTEGIA

zaitxoak, eta besteak harri zatiak, kolore desberdinak hartzeko)

selemiñe, selemiñie: zelemina

"Lenau selemiñe egote san, olako kaja antzeko bat, anega erdi edo eukitteuen" - (Lehenago zelemina egoten zen, holako kaxa antzeko bat, anega erdi edo edukitzen zuen)

"Ba selemiñie esaten dxakona, da beste bat kuartie edo esaten dxakona, andidxaua" - (Ba zelemina esaten zitzaiona, eta beste bat kuarta edo esaten zitzaiona, handiagoa)

"Selemiñie da olako kajatxu et, beran neurridxe, lau killo, da kuartie amabi killo ta erdi, kuartie orreaittik esaten da, anegie ixen sales, e, orduen, e, ba sertute sana gedxen sertuten sana, ba mediderik serana ba, kuartie orreaittik sen ba amabi killo ta erdi" - (Zelemina da holako kaxatxo bat, beraren neurria, lau kilo, eta kuarta hamabi kilo eta erdi, kuarta horregatik esaten da, anega izan zenez, orduan, ba zertzen zena gehien zertzen zena, ba neurririk zerena ba, kuarta horregatik zen ba hamabi kilo eta erdi)

sentimetroa: zentimetroa

sientoa, sientue: ehunekoa, landareak saltzeko eta erosteko neurria

siento erdidxe: ehuneko erdia

tamañue: tamainua

"Bi edo iru itten dires orrek, se tolosanie gorakoa ta berakoa dau andidxen, tamañu andidxen, ta txikerra dau, ba amarretan estana berakoa" - (Bi edo hiru egiten dira horiek, ze tolosana gorakoa eta beherakoa dago handian, tamaina handian, eta txikerra dago, ba amarratzen ez dena beherakoa)

txortie: txorta

19.4. JENDEA

andikidxe: handikia

eskekoa: eskekoa

euso lagune: auzo laguna

jentie: jentea

"Lelako beste, ser jentias oiñ estau bata bestiegas" Lehenagoko beste, zer jendeagaz orain ez dago bata besteagaz)

kittanue, kitxanue: ijitoa

"Kitxanuek beti daus andi-orti-emetik, beti daus astoakas" - (Ijitoak beti dagoz handik-hortik-hemendik, beti dagoz astoakaz)

"Sakone dau an beyen, da guk esaten tzakun, an oten sien beti kittanuek len, da esaten tzakuen umieri se, Sakonekoak etorko dire, ikeratuteko, edo Sakonekoa paño txarrau sara su" - (Sakone dago han behean, eta guk esaten genion, han egoten ziren beti ijitoak lehen, eta esaten genien umeei ze, Sakonekoak etorriko dira, ikaratzeko, edo Sakonekoak baino txarragoa zara zu)

kittanie, kitxanie: ijitoa (f.)

lagune: pertsona

"Lurre padire, nik esa oten moduen len, gurien moduen gogorak, lelengo ba biar gogorra, eraitxen dxakien ididxeri, eta fasille, fasillaua bedxeri, ba aparte ixetan siren arek bedxek, esne gitxiaukoak, eta ba orretarako balidxo deudenak, eta olan lagun bi bier ixetan siren, e?" - (Lurra badira, nik esan dudan moduan lehen, gurean moduan gogorak, lehenengo ba behar gogorra, eragiten zitzaaien idiei, eta erraza, errazagoa behiei, ba aparte izaten ziren behi haiek, esne gutxiagokoak, eta ba horretarako balio dutenak, eta holan lagun bi behar izaten ziren, e?)

"Gure denporako lagunak galdu in dxakus bertatik" - (Gure sasoiko lagunak galdu egin zaizkigu bertatik)

"Arrietan ni gastie ixen nitzenien mille lagun egon gintzen" - (Arrietan ni gaztea izan nintzenean mila lagun egon ginen)

lapurre: lapurra

"Sarri lapurrek urten due or, da dirue kendu" - (Sarri lapurrek irten dute hor, eta dirua kendu)

lapur lekue: lapur lekua

ollo lapurre: oilo lapurra

personie: pertsona

"Ixekerie da ori personiena" - (Izakera da hori pertsonarena)

"Edosein persona dan moduen oiñ eitten da, ori ondo dau, danak ixen bi du igual da" - (Edozein pertsona den moduan orain egiten da, hori ondo dago, denok izan behar dugu berdin eta)

ARRIETAKO HIZTEGIA

saldune: zalduna

"Nire gixonan aittitte ta amoma ta errentadore etor siren, ba aren eurrekoak, antza saldunek ixen sien" - (Nire gizonaren aitaita eta amama eta errentadore etorri ziren, ba haien aurrekoak, antza zaldunak izan ziren)

19.5. KORTESIA FORMULAK

agur: agur

arrastion: arrasti on

bidxerrarte: bihar arte

egunon: egunon

eskerrik asko: eskerrik asko

gabon: gabon, gau on

gero arte: gero arte

gorantzidzek: gorantziak

mesedes: mesedez

ola: kaixo

soridxonak: zorionak

19.6. JABETZA ERLAZIOAK

alkar poderoso: elkar poderoso

"Alkar poderoso, ba neure faltan oneri edo onek neuri" - (Elkar poderoso, ba neure faltan honi edo honek neuri)

dxeugie, dxeubie: jabea

"Dxeugiena da ori" - (Jabearena da hori)

errentadorie: errentadorea

"An beste baserri etzetxu beten, errentadore bat euki euden orrek, eta are pe paradako sekorra eukitteuden" - (Han beste baserri etxetxo baten, errentadore bat eduki zuten horiek, eta haiek ere paradako zekorra eduki zuten)

errentie: errenta

etze partie: etxe partea

etzeko andrie: etxeko andrea

gosamena: gozamen

"Soloak danak esotziesan itxitxen, e? solo bat edo, bi edo alan, gosamena" - (Soroak denak ez zizkioten uzten, e? soro bat edo, bi edo halan, gozamena)

"Gosamena esaten dxakon, ba nirie ixen san propiedadie, esta? eta ni iltxe nitxenien igual ote san gastienari itxi txe gosamena, aren faltara, aman faltara urte bi edo iru edo olan, igual iru urte,

igual urte bat igual urte bi, a orduntxe arek urtiek, an eukitxe txusen ak antxe etzien, amen berton pase san, aor atzeko etzien" - (Gozamena esaten zitzaion, ba nirea izan zen propietatea, ezta? eta ni hiltzen nintzenez beharbada egoten zen gazteenari utzi eta gozamena, haren faltara, amaren faltara urte bi edo hiru edo holan, beharbada hiru urte, beharbada urte bat, beharbada urte bi, hura orduantxe urte haiek, han edukitzen zituen hark antxe etxean, hamen berton pasatu zen, haor atzeko etxean)

medeliñe: medelina

"Medeliñe esaten tze, normalien gallurreko serari esaten tze medeliñe, altureko sera, medeliñe" - (Medelina esaten diote, normalean gailurreko zerari esaten diote medelina, altuerako zera, medelina)

"Medeliñetik arantza batena, ta medeliñetik onantza" - (Medelinetik harantz batena, eta medelinetik honantz)

propiedadie: propietatea

propietaridxo: etxaguna, etxe jauna

uesaba, usaba: ugazaba

usabandrie: uzabandrea

19.7. AUZO ERLAZIOAK-ELKARTEAK

albokie: albroka

albokoa: auzokoa

artuemonak: hartu-emonak, harremanak

aspigarri totoa: azpigarri totoa

ausoa, eusoa: auzoa

"Axe kostunbre bat ixen sana, iltxen danien, ba dxoan eusoak, ba erresaridxo errese da geu gustidxen oten sien, kanpoko jentie" - (Ekandu huraxe bat izan zena, hiltzen denean, ba joan auzoak, ba errosarioa errezatu eta gau guztian egoten ziren, kanpoko jendea)

besinoa: auzoa

"Eusotidxen erregaletan, beti, umiek ganera, makiñe bat ibillikoak gara eusotidxen, geur estau askorik emen, ba emen eusotidxen ba beratzki besino edo ixeta siren, da mortzille tratue beti, besinoakas" - (Auzotegian erregalatzan, beti, umeak gainera, makina bat ibilikoak gara auzotegian, gaur ez dago askorik hemen, ba hemen auzotegian ba

ARRIETAKO HIZTEGIA

bederatzi auzo edo izaten ziren, eta buzkantza tratua beti, auzoakaz)

bestalde bestaldekoak: bestealde-
bestealdekoak

beste aldekoa, bestaldekoa: beste aldekoa,
etxe bereko auzoa

beste aldie, bestaldie: auzoa

egur totoa: egur totoa

ermandadie: ermandadea, baserritarren
arteko elkarte ganaduaren aseguru
egiteko; bakoitzak buruko honenbeste
ematen zuen eta tasazioa egiten zen gero,
zer edo zer jazoz gero kobratu ahal
izateko

*"Ni neuk asko estot esetu baya bai, bai,
ermandadak ainbet ote siren emen" - (Nik
neuk asko ez dut ezagutu baina bai, bai,
ermandadeak hainbat egoten ziren
hemen)*

*"Beste ermandada bat ote san emen
Olabarrin" - (Beste ermandade bat
egoten zen hemen Olabarrin)*

erregalue: erregalaoa, oparia

errematie: erremata

*"Da orduen erremata itte san
ayuntamentuen, da orduen ote siren ba,
iru lau grupo, edo bost edo, orrek
pajeratarako subasta itteko, da batak, e,
bost ogerleko bestiek sei edo bestiek bost
peseta, da akabukoa be antxe, ba antxe,
kandelie, ta amatetan danien, a orduen
akabetan da" - (Eta orduan erremata
egiten zen udaletxean, eta orduan egoten
ziren ba, hiru lau talde, edo bost edo,
lastategi horiek erremata egiteko, eta
batek, bost ogerleko besteak sei edo
besteak bost pezeta, eta azkena ere
hantxe, ba hantxe, kandela, eta
amatatzen denean, hura orduan amaitzen
da)*

eskerrona: eskerrona

eskertxarra: eskertxarra

etze erriena: etxe errearena, etxea errez
gero aseguro modukoa egiteko elkarte

eusoa: auzoa

eusokoa: auzokoa

kabo barridxo: auzo arduraduna

*"Kabo barridxo egote san bat nonbreute" -
(Auzo arduradun egoten zen bat
izendatuta)*

kare totoa: kare totoa

*"Kare totoa be bai, ori be asko lenau" -
(Kare totoa ere bai, hori ere asko
lehenago)*

konbidedue: gonbidatua

konbidutzie: gonbidadutza

kuadrillie: lagun taldea

*"Nobidxoak ixen arren kuadrillen dana
etorten sien" - (Senargaiak izan arren
taldean denak etortzen ziren)*

lagune: laguna, adiskidea

legie: legea

*"Ori ba gobiernuek berak imiñiko lege bat
san" - (Hori ba gobernuak berak ipiniko
lege bat zen)*

listerue: listeroa, ermandadaren kontuak
eroaten zituena

*"Or ya bat egoan ermandadan, listerue
esaten tziena" - (Hor ja bat zegoen
ermandadean, listeroa esaten ziotena)*

maordomoa, mayordomoa: maiordomoa,
ermandadeko burua

*"Mayordomoak esaten dxaken orreri, baya
emen ya kanbidxeu itte siren orrek, e,
emen gure ermandadan, estai pa senbat
urte eukitteuden" - (Maiordomoak esaten
zitzaien horiei, baina hemen ja aldatu
egiten ziren horiek, hemen gure
ermandadean, ez dakit ba zenbat urte
edukitzen zuten)*

*"A ixeta san beti listerue, da gero
maordomoak ixeta siren, beste bost edo
estai senbat ixeta siren, ta arek ya
kanbidxeu itte siren, e?" - (Hura izaten
zen beti listeroa, eta gero maiordomoak
izaten ziren beste bost edo ez dakit zenbat
izaten ziren, eta haiek ja aldatu egiten
ziren, e?)*

mondxorra: teila-boda, teilatua egikeran
egiten den jatordua

mortzille tratue: buzkantza tratua

*"Mortzille tratue eroan, da umiek, e, saridxe
emote otzien da Josus! umiek ara
eroateko posik baten ba!" - (Buzkantza
tratua eroan, eta umeak, saria ematen
zieten eta Jesus! umeak hara eroateko
pozik baten ba!)*

mutil kuadrillie: mutil taldea

mutil lagune: mutil laguna

neska lagune: neska laguna

porretie: puxa

sas totoa: sats-totoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Sas totoa be itte san lenau, ba arek modu gitxi edo, bedxek igual txala einye ta txarto suerteu te ba, eusotidxek lagundu itten tzien ba, bieja bana edo, iños euren satzetatik, da beste batzuten sarritten beraneti pe bai, orreri esaten dxako totoa, ba gero ostien eitte san, edo afaridxe be igual beridxendie edo" - (Sats-totoa ere egiten zen lehenago, ba hark modu gutxi edo, behiak igual txala eginda eta txarto suertatu eta ba, auzoek lagundu egiten zioten ba, bidaia bana edo, inoiz euren satsetatik, eta beste batzuetan sarritan berarenetik ere bai, horri esaten zaio totoa, ba gero ostein egiten zen, edo afaria ere beharbada askaria edo)

sindikatoa: sindikatoa

tasadorie: tasadorea

totoa: totoa

"Totoa eitteunak, egun bet edo bidxen ba, dxorrek ein ye danak ein ye pareta san" - (Totoa egiten zuenak, egun bat edo bian ba, jorrek egin eta denak egin eta paratzen zen)

"Ori totoa ixeta san, bueno, oten siren ostantzekoa pe baya, sastotoa ixeta san enjeneral, baya oten siren, egurretan eitten deu batek totoa edo, aspigarritten" - (Hori totoa izaten zen, beno, egoten ziren osterantzekoak ere baina, sats-totoa izaten zen gehienetan, baina egoten ziren, egurretan egiten du batek totoa edo, aspigarritan)

"Lelengo etorte san, interesadue, konforme bada edo espada bat, totoa in biu satzetan edo aspigarritten, edo egurretan, ba abise in bidot, fulano tekos ididxek, arek bestie pe bai, segun non dekosun seure, totoa edo geuse ori ekarteko, se ara, len esan dune aspigarri kontuen, se ametik araño dxoan esate baterako, iru lau kilometroan, eta ara dxoan eta, erdidxe edo doblie ekarri ba diferentzidxe deko norberantzako be, da bieje bardin kostetan da, ta dxatordue be bai bardiñe emon bitzasu, orrek danari apur bet beittu biar ixetan dxakien" - (Lehenengo etortzen zen, interesatua, ados bada edo ez bada bat, totoa egin behar dugu satsetan edo aspigarritan, edo egurretan, ba abisatu egin behar dut,

urliak dauzka idiak, beste hark ere bai, segun non daukazun zeure, totoa edo gauza hori ekartzeko, ze hara, lehen esan duguna azpigarri kontuan, ze hamendik haraino joan esate baterako, hiru-lau kilometroan, eta hara joan eta, erdia edo bikoitza ekarri ba desberdintasuna dauka norberarentzat ere, eta bidaia berdin kostatzen da, eta jatordua ere bai berdina eman behar diezu, den horiei apur bat begiratu behar izaten zitzaien)

"Ire ebaten be bai, irie ebaten be itte san totoa" - (Ira ebakitzen ere bai, ira ebakitzen ere egiten zen totoa)

txarri bodie: txerri boda

ume kuadrillie: ume taldea

19.8. EZKONTZA

alargune: alarguna

"Ori esateuden, e, alan alargunen bat eskonduten danien edo olan eitxen diela, esta? baya ya nire denporan es" - (Hori esaten zuten, halan alargunen bat ezkontzen denean edo holan egiten direla, ezta? baina ja nire sasoiaren ez)

andragedxe: andregai

arreo, arrio: arreo, ezkondukeran etxe berrira eroaten dena

bixialargune: bizi-alarguna, banatua, dibortziatua

"Bixi alargune apartekoa da" - (Bizi-alarguna banatukoa da)

bodie: ezkontza

"Ama, neskien etzera, ta in suen tratue ba mutilleas eskonduteko, da bodie, mutillek etzie euki suen, ta bodie itxeko, da arek, neskiek, pentzetan dot mille ogerleko emon biar sitxusela" - (Ama, neskaren etxera, eta egin zuen tratua ba mutilagaz ezkontzeko, eta ezkontza, mutilak etxea eduki zuen, eta ezkontza egiteko, eta hark, neskak, pentsatzen dut mila ogerleko eman behar zituela)

dedxerie: deierak, geierak

dotie: dotea

"Alegiñe in bixeteuen arek mutillek, dirudun nobidxie topetako, berantzako etzie lotu deidxen, da beste nebarrebari edo arek nobidxie takarren dotie emon" - (Ahalegina egin behar izaten zuen mutil

ARRIETAKO HIZTEGIA

hark, dirudun andregaia topatzeko, berarentzat etxea lotu dadin, eta beste neba-arrebei edo andregai hark dakarren dotea eman)

errangedxe, errengeaxe: erraingaia

errondaridxe: errondaria

errondie erronda, etxerik etxe joatea neskak kortejatzeko

"Errondak, etzerik etze ibiltxie, mutillek geubes, ba antxe egon, antxe bertan egon, gero atera urten, nobidziek, mutillegas" - (Errondak, etxerik etxe ibiltzea, mutilak gauez, ba hantxe egon, hantxe bertan egon, gero atera irten, andregaiak, mutilagaz)

eskongedxe: ezkongai

eskontzie: ezkontza

"Orduko eskontzak oingoak esiren ixen" - (Orduko ezkontzak oraingoak ez ziren izan)

"Eskontzara be iñor bes, gurien iñor besan egon, bederatzi lagun edo egon gintzesan" - (Eskontzara ere inor ere ez, gurean inor ere ez zen egon, bederatzi lagun edo egon ginen)

gixongedxe: gizongaia

matrimoniñoa: andra-gizonak

morroi lagune: morroi laguna

"Morgan bai il seuen batek, gizona, il ye beran nobidxoak eta bidxek kortan enterreu, beran morroi lagunek eta andriek il i eurien, ba beran gizona, beran amantiegas, eta kortan enterreu" - (Morgan bai hil zuen batek, gizona, hil eta beraren maitaleak eta biek kortan lurpetu, beraren morroi lagunak eta andreak hil egin zuten, ba beraren gizona, beraren maitaleagaz, eta kortan lurpetu)

mutil lagune: mutil laguna

mutilsarra: mutil zaharra

neska lagune: neska laguna

neska sarra: neska zaharra

nobidxie: andregaia, emaztegaia

"Bentanan dxo da altze itxen dxakon nobidxie" - (Leihoan jo eta altxatu egiten zitzaion andregaia)

nobidxo: gizongaia, senargaia

"Bentanara ba nobidxo jeneralmente, ta orduen, esate san, neskatoan bentanie, egalak suritxu itxen tziesala, dxakitxeko, sein yen neskatoak lo itxen deuen

bentanie, eta ara idxoteuen mutillek, eskillerias edo masparrie edo seuser egote san ta ara idxoteuen" - (Leihora ba gizona gehienetan, eta orduan, esaten zen, neskatoaren leihoa, hegalak zuritu egiten zizkiotela, jakiteko, zein den neskatoak lo egiten duen leihoa, eta hara igotzen zuen mutilak, eskaileragaz edo mahas-parra edo zer edo zer egoten zen eta hara igotzen zuen)

nobidxo nobidxek: andre-gizongaiak, senar-emaztegaia

senserradie: zentzerrada

solterie: ezkonbakoa (f.)

"Arrietan, neure amoman denporan, neure amak konteta dakitt, ba, soltera bat on ei sen an, neska soltera bat" - (Arrietan, neure amamaren sasoian, neure amak kontatuta dakit, ba, ezkonbako bat egon ei zen han, neska ezkonbako bat)

solterue: ezkonbakoa (m.)

19.9. MUSIKA-DANTZA

albokie: alboka

atziskue, atzeskue: atzeskua, aureskukordaren azkena

bertzoa: bertsoa

bertzolaridxe: bertsolaria

doxe: dohaia

dultziñie: dultzaina

dxantza soltue, dxantza soltie: dantza suelta

dxantzaridxe: dantzaria

dxantzie: dantza

dxolasa: jolasa, plazan domeketan eta jaiegunetan egiten zen dantzaldiaren izena

dxolasa: plazan egiten zen dantzaldia

erremeridxe, erromeridxe: erromeria

"Gero ya etzera, erremerittik ordun etzera" - (Gero ja etxera, erromeriatik orduan etxera)

"Amentxe ote san erremeridxe, nire denporan amen egon da" - (Hamentxe egoten zen erromeria, nire sasoian hamen egon da)

"Kasureko San Kristobalen, San Kristobal egunien, ba, egote san mesie, da gero ote san erromeridxe" - (Kasurako San Kristobalen, San Kristobal egunean, ba,

ARRIETAKO HIZTEGIA

egoten zen meza, eta gero egoten zen erromeria)

erromeri egune: erromeri-eguna

erromeri lekue: erromeri-lekua

"Emen or beyen ba, selei modure ego sales erromeri lekue itteko or" - (Hemen hor behean ba, zelai modura egon zenez erromeri-lekua egiteko hor)

eskota: eskota, erromeri-lekuan zahagi ardaua ipintzen zen eta bertakoen artean doan banatzen zen; horri eskota esaten zitzaion

eskoteko ardaua: eskoteko ardaua

eskoteko aritze: eskoteko haritza; doan banatzen zen arda zahagia haritz baten ondoan ipintzen zen; horixe zen eskoteko haritza

eskoteko sagidxe: eskoteko zahagia

espatadxantzaridxe: ezpatadantzaria

espatadxantzie: ezpatadantza

etorridxe: etorria

eurreskue: aurrekua

fanderoa, panderoa: panderoa

gramolie: gramola

"Nik orrexek esetu doas da gero gramolie imiñi euen Liboko, serak" - (Nik horiexek ezagutu ditut eta gero gramola ipini zuen Liboko, zerak)

ifernuko euspoa: ifernuko hauspoa, soinuaren desizena

"Soñueri be ifernuko euspoa esaten tzien" - (Soinuari ere ifernuko hauspoa esaten zioten)

ilanderie: neska ezpatadantzaria

jotie: jota

juergie: parranda

kantie: kanta

"Onek kantie nik makiñe bat kante tziet oneri, eta oin telebisiñoagas eser esebe" - (Kanta hauek nik makina bat kantatu diet hauei, eta orain telebistagaz ezer-ezer ere ez)

kordie: dantza korda

korrue: korroa, dantza korroa

mosu gittarrie: mosu gitarra

"Aren semie pe mosu gittarrie ederto dxoten due" - (Haren semeek ere mosu gitarra ederto jotzen dute)

musikie: musika

sokie: soka, dantza korda

sonue, soñue: soinua

"On san, e, ser bat, gramola bat, baya ariñau sonue egon san, ta gero ak sonuek itxi tzonien gramolie" - (Egon zen, zer bat, gramola bat, baina arinago soinua egon zen, eta gero soinu hark utzi zionean gramola)

"Arteraukoak ya gixoneskoak ixetan sien gedxenak, batzuk soñuegas beste batzuk ain barik" - (Arteragokoak ja gizonetakoak izaten ziren gehienak, batzuk soinuagaz beste batzuk hain barik)

sonularidxe: soinularia

sonu txikidxe: soinu txikia

sueldue: dantza suelta

tanbolintterue: tanbolinterua

tanboliñe: danbolina

tanborradie: danborrada

txistue: txistua

txistularidxe: txistularia

19.10. KIROLA

aritto topeka: ahari topeka

baskulie: baskula

falta: falta

frontoi albo: frontoi albo

frontoye: frontoia

idi busterridxe: idi buztarria

idi probie: idi proba

kargie: zama idiei kargatzen zaion gain karga

karreterue: karreteroa, idi probetako gidariak

pasa: pasa

pelotaridxe: pelotaria

pelotie: pelota

posturie: postura, apostua

primerdidxe: primi erdia

primeska: primika

primie: pimia

"Bost edo sei bagabix olgetan, akaburengo lotzen danak arek eitten deu primie" - (Bost edo sei bagabiltza olgetan, azkenengo lotzen denak hark egiten du primia)

proba ididxe: proba idia

probalaridxe: probalaria

probalekue: probalekua

probie: proba

saridxe: saria

tantue: tantua

ARRIETAKO HIZTEGIA

tranpie: tranpa
txapie: txapa, frontoikoa
untzie: untzea
ustela: ustela, idi probetan karrajutik irtekeran egiten dena

19.11. KARTA JOKOAK

bastoa: bastoa
batekoa: batekoa
bateko urrie: 1. bateko urrea. 2. burla egiteko ere erabiltzen da adjektibo moduan
bikoa: bikoa
bostekoa: bostekoa
dxokoa: jokoa
erregie: erregea
espatie: ezpata
irukoa: hirukoa
kartie: karta
kiñue: keinua
kopie: kopa
laukoa: laukoa
saspikoa: zaspikoa
seikoa: seikoa
tutie: tutea

19.12. EHIZA-ARRANTZA

amue: amua
"Amue be bai angilletan da olan bai" - (Amua ere bai angiratan eta holan bai)
butroye: butroia
"Butroye be peskarakoa da" - (Butroia ere arrantzarakoa da)
kasan: ehizan
kaserue: ehiztaria
"Ni kaserue enok" - (Ni ehiztaria ez nauk)
kasie: ehiza
lasue: lazua
misklie: miskela
paso: pasabidea
peskie: arrantza
"Kotxo normala be egoten da, olako seratatik, a lureko kotxo gorridxek, orrek lusiek, orrek ba, peskarako ta usetan dienetarikoak" - (Kotxo normala ere egoten da, holako zeretatik, lureko kotxo gorriak, horiek luzeak, horiek, ba, arrantzarako eta usatzen direnetarikoak)

sarie: sarea
"Kaskallue ta orre pa, sarie edo setze san, da sarie imiñi an da gero ba, atxurrekas edo eraiñ, i, serera, ta ara sarien serera dxoan, da gero sarie gora altzeu" - (Kiskailua eta horiek ba, sarea edo zertzen zen, eta sarea ipini han eta gero ba, aitzurrakaz edo eragin, zerera, eta hara sarearen zerera joan, eta gero sarea gora altxatu)
tiroa: tiroa
tranpie: tranpa

19.13. JAIEGUNAK

andramaridxe: andra maria
"Andramaridxek ixeten siren ba setienbrien, e, sortzidxen, d'ondiño ondo eldu barik ote san matza be" - (Andramariak izaten ziren ba irailaren, zortzian, eta oraindino ondo heldu barik egoten zen mahatsa ere)
andramari martikoa: andra mari martikoa
apalaxidxo: apalazioa
aratoste: aratostea
"Ori lenengo, esta? gero urrengo aratoste, da urrengo egustena ba eutzen egune" - (Hori lehenengo, ezta? gero hurrengo aratoste, eta hurrengo eguaztena ba hautsen eguna)
arimen egune: arimen eguna
"Arimen egune da ba, nobienbre ixeten da" - (Arimen eguna da ba, zemendia izaten da)
"Gero urrengo egunien arimen egune ostabe barridxen urrengo egunien illien bidxen, arimen egune, ori beti nik esetu dot" - (Gero hurrengo egunean arimen eguna ostera ere berriro hurrengo egunean hilaren bian, arimen eguna, hori beti nik ezagutu dut)
aste santue: aste santua
"Aste santuetan da jente asko etorte san ona" - (Aste santuetan eta jente asko etortzen zen hona)
astegune: asteguna
bariku guren egune, barikugurune: bariku guren eguna
"Abadie dxoate san beran seragas erdidxen, ori ixeta san bariku guren egunien" - (Abadea joaten zen beraren zeragaz

ARRIETAKO HIZTEGIA

erdian, hori izaten zen bariku guren egunean)

"Arrietan ixen san bariku guren egune urtegunik andidxena, etorte sien Beñakati, Morgati, Fruistik leku gustietatik etorten sien, emen prosesio itzela egote san Arrietan" - (Arrietan izan zen bariku guren eguna urte-egunik handiena, etortzen ziren Meñakatik, Morgatik, Fruiztik leku gustietatik etortzen ziren, hemen prozesio itzela egoten zen Arrietan)

"Beti, beti, beti, urtien urtien, aixe egune in biar, ori esetu ot bai, urrengo egunien lo ingo euen bierbada, baya bariku gurenes beti, soloan ganaduekas, ori esetu dot, e?" - (Beti, beti, beti, urtean-urtean, egun huraxe egin behar, hori ezagutu dut bai, hurrengo egunean lo egingo zuen beharbada, baina bariku gurenez beti, soroan ganaduakaz, hori ezagutu dut, e?)

bariku santue: bariku gurena

basatoste, basaratoste: basatostea, txitxiburruntzia

"A san basatoste, basatoste esaten dxakona, sartenekoa einye, gero an bertan eitten sana" - (Hura zen basatostea, basatoste esaten zitzaiona, zartaginekoa eginda, gero han bertan egiten zena)

"Ein be in yu geuk makiñe bat eta ene! neskamutillek eta lagunek, mutil lagunek eta neskato lagunek eta parejak eta, eitten gendun basora dxoan da, eroan txorixoak ta arrutzek eta basoan sue iñ eta ein basatoste" - (Egin ere egin dugu geuk makina bat eta ene! neska-mutilak eta lagunak, mutil lagunak eta neskato lagunak eta bikoteak eta, egiten genuen basora joan eta, eroan txorizoak eta arrautzak eta basoan sua egin eta egin basatoste)

bisperie: bezpera

damusanture: domusantua

dxadx: jaia

"Orduen, arek dxadxek pase t'ostien, dxoaten gintzesan irebaten" - (Orduan, jai haiek pasatu eta ostean, joaten ginen ira ebakitzen)

dxadxegune: jaieguna

eguen guren egune, egungurune: eguen guren eguna

"Ganadues da olan es, bedarra ebai itte san goixien edo olan, da gero ba, bariku guren egunien ba es, eguen guren egunien eitten gendun goixien igual bier bada, bate batzuk igual baya gitxik eitte suen, e?" - (Ganaduagaz eta holan ez, belarra ebaki egiten zen goizean edo holan, eta gero ba, bariku guren egunean ba ez, eguen guren egunean egiten genuen goizean beharbada behar bada, baten batzuk igual baina gutxik egiten zuten, e?)

erramu egune: erramu eguna

"Elixara lelengo, nire semiek eroate seuen besartakadie bereinketuteko, eroate siren, erramu egunien" - (Elizara lehenengo, nire semeak eroaten zuen besarkada bedeinkatzeko, eroaten ziren erramu egunean)

erregen egune: erregen eguna

erremeri egune: erromeria eguna

eutzen egune: hautsen eguna

"Ori eutzen eguneko eutze ixeta san, neuk esango tzut nos errete san ori, ori eutze gordete san" - (Hautsen eguneko hauts hori izaten zen, neuk esango dizut noiz erretzen zen hori, hauts hori gordetzen zen)

gabon egune, gebon egune: gabon eguna

gabon sarra: gabon zaharra

gabonak, gaonak, geubonak, gebonak: gabonak

"Neu be kridxada egonda nau amalau urtegas dxoanda, lenau guk kridxada urtetan gendun umiek dxagoten da, da geubien, e, an lo itxeko negarrak ein baya antxe egon, da gebonatan da etzera etorteko selako posa uf!" - (Neu ere neskame egonda nago hamalau urtegaz joanda, lehenago guk neskame irteten genuen umeak jagoten eta, eta gauean, han lo egiteko negarrak egin baina hantxe egon, eta gabonetan eta etxera etortzeko zelako poza uf!)

garixumie: garizuma

"Garixumen egote sien frailliek, ba, iru egunekoak" - (Garizuman egoten ziren fraideak, ba, hiru egunekoak)

gebon geue, geubon geubie: gabon eguna

"Geubon geubien ogidxe aste sanien, ogidxen puntie be, gorde itte san" -

ARRIETAKO HIZTEGIA

(Gabon gauean ogia hasten zenean, ogiaren punta ere, gorde egiten zen)

gebon sar egune: gabon zahar eguna

gorpusti egune: gorpuzti eguna

"San jose egune es orrenbeste baya gorpusti egunien bai itte san, prosesioa, andidxe itte san" - (San Jose eguna ez horrenbeste baina gorpuzti egunean bai egiten zen, prozesioa, handia egiten zen)

iñusente monte: inuzentekadaren bat egin ostean esaten dena

iñusentien egune: inuzenteen eguna

"Iñusente potente txakurren bustena tente tente" - (Inuzente potente txakurraren buztana tente-tente)

kandelaridxo egune: kandelario eguna

"Kandelaridxo egune, len dxai andidxe ixeta san ori, danak kandelieas beluko mesara Arrietara, gu be, da gure guresoak, barres, ene gure ama!" - (Kandelario eguna, lehen jai handia izaten zen hori, denak kandelagaz beluko mezara Arrietara, gu ere, eta gure gurasoak, barrez, ene gure ama!)

karnabala: ihauteria

"Ori garixumen ixetan da, karnabal eurreko domekie" - (Hori garizuman izaten da, ihauteri aurreko domeka)

marroa: karatula, ihauterietako jantzia

"Marro dxantzinye bai esetu dot" - (Marro jantzi eginda bai ezagutu dut)

natibitate egune: natibitate eguna

paskoa: pazkoa

pasko egune: pazko eguna

"Ure bereinketu bai, ur bereinketue geu pe in yu, eta gero bakotxak botillie eroan, da etzera ekarri, a ure, pasko egunien emoten seuen abadiiek bereinkesiñoa urena, ta botille bete ur, geure ama pe beti ekarte seuen, beluko mesara beti eroateuen botillie, a ure ekarteko etzera" - (Ura bedeinkatu bai, ur bedeinkatua geuk ere egin dugu, eta gero bakoitzak botila eroan, eta etxera ekarri, ur hura, pazko egunean ematen zuen abadeak bedeinkazioa urarena, eta botila bete ur, geure amak ere beti ekartzen zuen, beluko mezara beti eroaten zuen botila, ur hura ekartzeko etxera)

"Arrietan auri bai, pasko egunien, ure bereinketuten deu abadiiek, da gero elispien egoten da ure, ur bereinketue

iminye elixara dxoateko, aittearen eitteko" - (Arrietan haori bai, pazko egunean, ura bedeinkatzen du abadeak, eta gero elizpean egoten da ura, ur bedeinkatua ipinita elizara joateko, aitarene egiteko)

samartiñek: san martinak

san blas egune: San Blas eguna

san jose egune: San Jose eguna

"Sasoi bet egon san, nire gaste denporan, San Jose egunien, san jose lorak egoten sien, d'arek eroaten sien San Jose egunien elixara bereinketuteko, da esate san arek, aren, e, erre edo, uretan egosi aren sera, belarriko miñe kentzeko ta ixetan sala" - (Sasoi bat egon zen, nire gazte sasoiaren, San Jose egunean, san jose loreak egoten ziren, eta haiek eroaten ziren San Jose egunean elizara bedeinkatzeko, eta esaten zen hark, haren, erre edo, uretan egosi haren zera, belarriko mina kentzeko eta izaten zela)

san juan egune: San Juan eguna

"Ori bestie da sanjuana ta sanjuan soblas dau beste bat, agostuen sein dana, ta Beñakatik dxoaten dies orduko egunien, ta gero sanjuan dekie beste batzuk, Bermiokoak edo estaitt, baya ametik sanisano da" - (Beste hori da San Juana eta San Juan Dolos dago beste bat, abuztuan seian dena, eta Meñakatik joaten dira, orduko egunean, eta gero San Juan daukate beste batzuek, Bermeokoak edo ez dakit, baina hamendik San Inazio da)

"Es ori estot esetu, bai esetu dot irekas, portalien oye iminttie, irek ebai, esta? d'or portalien imiñi, San Juan goxien" - (Ez hori ez dut ezagutu, bai ezagutu dut irakaz, atarian ohea ipintzea, irak ebaki, ezta? eta hor atarian ipini, San Juan goizean)

"Da ure ekarriskiñoan geubeko amabidzek dxoten duenien edo, sanjuanetan, a ure esta ustelduten, a ure konserbetan da urte gustidxen" - (Eta ura ekarriz gero gaueko hamabiek jotzen dutenean edo, San Juanetan, ur hura ez da usteltzen, ur ura kontserbatzen da urte osoan)

san juan sue: San Juan sua

"Sanjuanetan ba suek ein bai, san juan suek eta orre pai, eta kurtziek imiñi, soloatan

ARRIETAKO HIZTEGIA

imiñi kurtzetxuek imiñi soloatan ori bai" - (San Juanetan ba suak egin bai, San Juan suak eta horiek bai, eta gurutzeak ipini, soroetan ipini gurutzetxoak ipini soroetan hori bai)

"San Juan besperan suek, txolak, oiñ estaus, ba ni txola bistute etor nas solorik solo orraxaño" - (San Juan bezperan suak, txolak, orain ez dagoz, ba ni txola biztuta etorri naiz sororik soro horrainoxe)

sanantoniño egune: San Antonio eguna

sanantontxu egune: San Antontxo eguna

"Sanantontxu egune ixetan san, ta gero selan deko ixena? Sanantonio, d'orduena ataaten sien bedxek, kanpora, d'an seledxen imiñi tte ara kanpora, elispeko arkupien, d'an botate seuen bereinkesiñoa be, bedxek eta atarata an da" - (San Antontxo eguna izaten zen, eta gero zelan dauka izena? San Antonio, eta orduan ateratzen ziren behiak, kanpora, eta han zelaian ipini eta hara kanpora, elizpeko arkupean, eta han botatzen zuen bedeinkazioa ere, behiak eta ateratzen han eta)

saninasio egune: San Inazio eguna

sanisidro egune: San Isidro eguna

"Sanisidro egunien da dxantzitzen gintzesan eta ba, gona gorridxek eta serakas eta aixe egune" - (San Isidro egunean eta janzten ginen eta ba, gona gorriak eta zerakaz eta huraxe eguna)

"Sanisidro egune ta atxiñe famosoa ixen san amen" - (San Isidro eguna eta antzina ospetsua izan zen hamen)

santageda: Santa Ageda

"Andrak Bermiotik asko, Bermiotik asko etorte siren, len Santageda batzen" - (Andreak Bermeotik asko, Bermeotik asko etortzen ziren, lehen Santa Ageda batzen)

"Ni Santageda batzen dxoa nas beti, eskondu arte, etzerik etze" - (Ni Santa Ageda batzen joan naiz beti, ezkondu arte)

"Umetan eskolatik edo olantxe ostantzien es, ibiltten sien emen, e, asko nire txikerretan, grupoa itzela etorri siren, ganera, Bermiotik enbrak etorten siren, e, gixonak, a, ba itxosoan dabixenak, eta igual, a, itxoso txarra ta, enbra eskas da, etorten, besperatik batzen, etzerik etze,

etzerik etze, da emen euki euren, lo itteko fonda moduen emen lotzen siren" - (Umetan eskolatik edo holantxe osterantzean ez, ibiltzen ziren hemen, asko nire txikerretan, taldea itzela etorri ziren, gainera, Bermeotik andrezkoak etortzen ziren, gizonak, ba itsasoan darabiltzatenak, eta beharbada, itsaso txarra eta, andrea eskas eya, etortzen, bezperatik batzen, etzerik etxe, etzerik etxe, eta hemen eduki zuten, lo egiteko ostantu moduan hemen lotzen ziren)

santageda egune: Santa Ageda eguna

sapatu guren egune: zapatu guren eguna

"Bai aste santuko sapatu guren, oin be bai, eurton be eran dus batzuk" - (Bai aste santuko zapatu guren, orain ere bai, aurton ere eroan ditugu batzuk)

urtebarri: urtebarria

urtebarri egune: urtebarri eguna

19.14. EUSKARA

berbie: berba

"Estot iños entzun ori berbiori" - (Ez dut inoiz entzun berba hori)

berori: berorika tratamendua

"Berori nik estakitx, amen oiñ, abadieri berori etxake esaten" - (Berori nik ez dakit, hamen orain, abadeei berori ez zaie esaten)

erderie: erdara

"Lelengo lelengo txarrena ixeten sana, erdera ikesi bier dan dana, da denporie dxoaten san erderie ikesten" - (Lehenengo lehenengo txarrena izaten zena, erdara ikasi behar den dena, eta denbora joaten zen erdara ikasten)

esta ta bada: ez da eta bada, tratamendu neutroaren izena

"Ba nik oin be segidu in biar dotela, orixe esaten tzet nik, abadieri esin tzat esan, e, bestera, ba sarritxen ixillik egote nas, beste batzuk ikusten tes seu te esaten da, nik estot topetan ori ondo ta ni, ixillik antzian egote nas or, ori berbie ba, alan da edo seuser esaten tzet baya esta ta bada es" - (Ba nik orain ere segitu egin behar dudala, horixe esaten diet nik, abadeari ezin diot esan, bestera, ba sarritan isilik egoten naiz, beste batzuk

ARRIETAKO HIZTEGIA

ikusten ditut zeu eta esaten eta, nik ez dut topatzen hori ondo eta ni, isilik antzean egoten naiz hor, berba hori ba, halan da edo zer edo zer esaten diot baina ezta eta bada ez)

estok eta badok: eztok eta badok, hiketanoa, hika tratamendua

"Estok ori olan edo badok ori olan, ya, ori konfidantza totala dauen lekuen da" - (Ez duk hori holan edo badok hori holan, ja, hori konfidantza osoa dagoen lekuan da)

"Estok eta badok eitxe san, da oin be itxen da igual, baya gitxiau oiñ asko be, baya segun nor dan antza, nik estok eta badok, o, biri edo iruri itxen ixen tzet" - (Hika egiten zen, eta orain ere egiten da berdin, baina gutxiago orain asko ere, baina segun nor den antza, nik hika, biri edo hiruri egiten izan diet)

estona ta badona: andrazkoen hika tratamenduaren izena

"Estona eta badona estot pentzetan nik ibiltten direnik" - (Hika ez dut pentsatzen nik ibiltzen direnik)

"Andrie bada estona ta badona, ta gixona bada estok eta badok" - (Andrea bada eztona eta badona, eta gizona bada eztok eta badok)

"Estona ta badona ixen da beti, kuadrilleko jentieas, kasu beterako, Errigoittikoari edo Fruiskoari bes" - (Eztona eta badona izan da beti, lagun-taldeko jendeagaz, kasu baterako, Errigoitikoari edo Fruizkoari ere ez)

"Guk beti in yu, estona ta badona" - (Guk beti egin dugu, eztona eta badona)

euskerie: euskara

"Emen euskera diferentie dau egon be ta, beste leku betzuetatik aldien" - (Hemen euskara desberdina dago egon ere eta, beste leku batzuetatik aldean)

"Euskera eitxerik esan egon orduen" - (Euskaraz egiterik ez zen egon orduan)

"Asko nastaten du berton be, erdera euskerie" - (Asko nahasten dugu berton ere, erdara euskara)

"Guk estu esaten joan dxoan baño" - (Guk ez dugu esaten joan "dxoan" baino)

"Amen da Beñakan be diferente itten dire berbak" - (Hamen eta Meñakan ere desberdin egiten dira berbak)

"Lengo euskerie oiñ asko dau galdute" - (Lehengo euskara orain asko dago galduta)

"Arek berbeta politte dekie, Beñakak berbeta politte deko" - (Haiek berbeta polita daukate, Meñakak berbeta polita dauka)

19.15. GERRATEA-SOLDADUSKA

bakie: bakea

bonbie: bonba

gerratie: gerratea

"Suk estakixu baya ni pai, bakixu selan dakitxen ganera, selan geusek ixeten diren! lenau gerratien, orreri sera emon tzen, bonbie, bonbie sartunde, da alantxe nik gastetan ikusitxe selan dekosan serak" - (Zuk ez dakizu baina nik bai, badakizu zelan dakidan gainera, zelan gauzak izaten ziren! lehenago gerratean, horri zera eman zioten, bonba, bonba sartuta, eta halantxe nik gaztetan ikusita zelan dauzkan zerak)

gerrie: gerra, gudua

"Nik koixu nuen gerrie justo justoan, orrek geusek eitxeko edadien" - (Nik hartu nuen gerra ozta-ozta gauza horiek egiteko edadean)

gudaridxe: gudaria

kintoa, kinttoa: kintoa

"Arrietan, beti soldadu doasen kintoak etorte sien Santageda batzen, orduen urtien soldadu doasenak" - (Arrietan, beti soldadu doazen kintoak etortzen ziren Santa Ageda batzen, orduan urtean soldadu doazenak)

presoa: presoa

soldadue: soldadua

soldadu lagune: soldadu laguna

soldadutzie: soldadutza

tiroa: tiroa

20. OROKORRA

Atal honetako berbak ezin sartu izan ditugu arteragoko ataletan, izan ere, batekoak baino gehiagokoak izan daitezke; halandaze, hona hemen denak jarraian.

ARRIETAKO HIZTEGIA

abantie: iraupena

"Berotasune sadxek gedxau deko, abanta gedxau deko, da orduen a sadxe imintte san, belarridxetan da" - (Berotasuna zahiak gehiago dauka, iraupen gehiago dauka, eta orduan zahi hura ipintzen zen, belarrietan eta)

aberidxe: aberia, matxura

"Aberi andidxe in yeu orrek antza" - (Matxura handia egin du horrek antza)

abioye: abioia, hegazkina

abisue: abisua

abornie: abornada, ekitaldia

ademas: gainera

adorie: adorea

afana: afana, antsia

aginyue: agindua

agirika, agerika: agiraka, errieta

akabue: azkena, amaiera

"Ya oiñ akaburentza galdute dau, e?" - (Ja orain azkenerantz galduta dago, e?)

"Akabukoa emoteotzien uregas" - (Amaiera ematen zioten uragaz)

akaso: akaso, beharbada

akordue: akordua, gomuta

"Estekot akordurik, baya urten eitxen suen" - (Ez daukat gomutarik, baina irten egiten zuen)

aldie: alde, desberdintasuna

"Klaro diena! alde itzela dau, geurien geurien dau alde itzela ta" - (Jakina direna! alde itzela dago, geurean-geurean dago alde itzela eta)

alegiñe: ahalegina

"Alegiñe in bixeteuen arek mutillek, dirudun nobidxie topetako" - (Ahalegina egin behar izaten zuen mutil hark, dirudun andregaiia topatzeko)

alkar: elkar

"Bueno mutil batek neskato bateri errakadu itxie, alkarreas ibilli erremeridxen da olan da nobidxo ixen barik igual, esta? baya errekadu iñ, gero segitako nobidxo" - (Beno mutil batek neskato bati errekadu egitea, elkarregaz ibili erromerian eta holan eta gizongaia izan barik beharbada, ezta? baina errekadu egin, gero segitzeko gizongai)

"Arek eta nik eitten gendun alkarregas" - (Hark eta nik egiten genuen elkarregaz)

amarrie: lokarria

"Gero podetan sanien amarretan mimenakas eitte san amarrie" - (Gero inausten zenean hamarretan mimenakaz egiten zen amarra)

amodidxo: amodioa

antza: antza

"Ni antza negar ta negar ego nitzen" - (Ni antza negar eta negar egon nintzen)

antzerie: antzera

apellidue: abizena, deitura

"Lenau sillek oten siren, euren ixena ta apellidue iminye, amen Dxainkon on siren" - (Lehenago aulkiak egoten ziren, euren izena eta deitura ipinita, hamen Jainkon egon ziren)

apenas: ez dirudi, ez du ematen

"Baya ogigastayek eta orrek atakeu apenas eitten dure" - (Baina ogigaztaiek eta horiek ez dirudi eraso egiten dutenik)

aprobie: aproba, proba

"Neu pe iños ein yot aprobie etzien" - (Neuk ere inoiz egin dut aproba etxean)

apunteridxe: apunteria

"Batzuk eukitxeuen apunterie ona" - (Batzuek edukitzen zuten apunteria ona)

ardurie: ardura

"Oiñ artuixus ardurek, onen atzera eurriek" - (Orain har itzazu ardurak, honen atzera-aurreak)

arrabidxo: arrabioa

arrasoye, errasoye: arrazoia

arreglue: konponketa

"Baya bat gorau paretan bada estau arreglurik" - (Baina bat gorago paratzen bada es dago konponketarik)

arrimuen: arrimuan, aterpean

arriskue: arriskua

asuntue: gorabehera, arazoa

atxakidxe: aitzakia

atzera eurriek: atzera-aurreak

"Oiñ artuixus ardurek, onen atzera eurriek" - (Orain har itzazu ardurak, honen atzera-aurreak)

autobusie, autobuse: autobusa

bai: bai

bakotxa: bakoitza

"Arbolie eskatu euen orrek, bakotxak emon deidxela arbola bana" - (Arbola eskatu zuen horrek, bakoitzak eman dezala arbola bana)

"Bai baya eiñ eitxen dxakesan etzien, olan telias edo itxen tzesan bakotxak" - (Bai

ARRIETAKO HIZTEGIA

baina egin egiten zitzaizkien etxean, holan ehunagaz edo egiten zizkion bakoitzak)

balidxo: balioa

bañue: bainua

barkue: ontzia

barridxe: berria, albistea

"Ur ur urrekoa, bertokoan barridxe baño, Amerikekoa edonongoa, barridxe asko ogoto, telebisiñoan bittartes edo nondik andik" - (Praraje, paraje, parajekoa, bertokoen berria baino, Ameriketakoa edonongoa, berria asko hobeto, telebistaren bitartez edo nondik edo handik)

batzarra: batzarra

"Amen elixie iñ orduko, ba eitxen seudiela, ba orixe, neusidxe, erriko neusidxe, ayuntamentue, au in dan moduen, ba emen itxen txusela batzarrak, baya au Arrietako parrokidxe baño asko ariñaukoa da au elixie" - (Hamen eliza egin orduko, ba egiten zutela, ba horixe, nagusiak, herriko nagusiak udala, hau egin den moduan, ba hemen egiten zituztela batzarrak, baina hau Arrietako parrokia baino asko arinagokoa da eliza hau)

bayetz: baietz

"Bayetz esaten deude" - (Baietz esaten dute)

bayetza: baietza

bentajie: abantaila

biarra, bierra: 1. beharra. 2. beharrizana

"Lelengo orra imintzeko, ak laniek bierra emoteuen gero!" - (Lehenengo horra ipintzeko, artile hark beharra ematen zuen gero!)

bierbada: beharbada

"Estai pa nik, lenau, bierbada, apur bet, e, adornureko edo itxikoak edo, nik estai pa setako ixte leixen orrek" - (Ez dakit ba nik, lehenago, beharbada, apur bat, apaingarrirako edo utzikoak edo, nik ez dakit ba zertarako izan litezkeen horiek)

bestie: bestea

"Beste bat bekosuen imintxen san" - (Beste bat beheko suan ipintzen zen)

besto bat: beste bat

biejie, bijie: bidaia

"Imiñi euen bijie ara, eta gero eurek suntu oskuen dana, ta alabie ta bidxok dxoan giñen" - (Ipini zuen bidaia hara, eta gero

eurek zertu ziguten dena, eta alaba eta biok joan ginen)

bierlekue: beharra

bierrixena: beharrizana

bildriñe: bildrina, bildrikia

billurre, bildurre: bildurra

"Mungidzeko entradan, Mungidzeko beresidxen, aittegas dxoan bedxegas, esta? eta geure aitte be neuri esaten, amen billurre dekot, gero etorteko, guarda sibille topeu baten, akordeta nas, ni gastetxue, guarda sibillek geubien ibiltten sien ba, da, esteku oiñ, o, problemarik, esta etorko iñor" - (Mungiako sarreran, Mungiako berezian, aitagaz joan behiagaz, ezta? eta geure aita ere neuri esaten, hamen bildurra daukat, gero etortzeko, guardia zibila topatu baten, gomutatzen naiz, ni gaztetxoa, guardia zibilak gauean ibiltzen ziren ba, eta, ez daukagu orain, problemarik, ez da etorriko inor)

bisikletie: bizikleta

bisioa: bizioa, ajea

bittartekoa: bitartekoa

biximodue: bizimodua

"Olan ixeta san gure biximodue" - (Holan izaten zen gure bizimodua)

brillue: dizdira

bueltie: buelta

"Ostantzien biko lekie, arlo itzela bueltie emoteko" - (Osterantzean beharko lukete, arlo itzela buelta emateko)

burlie: burla, trufa

demandie: borroka, istilua

derrigorra: derrigorra, premia

"Len dxakin edo, dxakiñ edo derrigorraas dxakin erain biar, bai" - (Lehen jakin edo, jakin edo derrigorragaz jakin erain behar, bai)

desgrasidxe: ezbeharra

deskantzue: deskantsua

"Deskantzu emon tzu bide bates" - (Deskantsu eman diogu bide batez)

despresidxo: mespretzua

drogie: droga, istilua

dudie: zalantza, ezbaia

dxakiñesa: jakineza

dxasa: jasa, molde ona, itxura ona

dxoan etorridxe: joan-etorria

ARRIETAKO HIZTEGIA

"*Saspi konteute be, amalau kilometro dxoan etorridxen dire*" - (Zazpi kontatuta ere, hamalau kilometro joan-etorrian dira)

egidxe: egia

"*Orregas egidxe baño estot esaten*" - (Horregaz egia baino ez dut esaten)

ei: ei

einbiarra: eginbeharra

ekutue: ikutua

enbarasue: enbarazua, eragozpena

engañue: engainua, amarrua

enkargue: enkargua

"*Arek, e, ori enkarguori emoneskero, iltteuen beran sasoyen*" - (Hark, mandatu hori eman ez gero, hiltzen zuen beraren sasoian)

entzupidie: entzupidea

entzutie: entzutea, ospea

"*Ori entzutie nik beti euki dot*" - (Hori entzutea nik beti eduki dut)

erbestie: erbestea

erie: era

eritxidxe: eritzia

ernegue: ernegua

erradxie, erraye: erraia, marra

errasie: maila

errasoye: arrazoaia

erregie: erregea

"*Da bertan paretan giñen beluniko danok, aulan ene! geuse itzela abadie, oingo presidentie ta erregie baño geuse itzelaua abadie*" - (Eta bertan paratzen ginen belauniko denok, haolan ene! gauza itzela abadea, oraingo lehendakaria eta erregea baino gauza itzelagoa abadea)

errekadue: errekadua

errespetoa, errespetue: begirunea

erretratue: argazkia

"*One pe erretratu bet bi deu*" - (Honek ere argazki bat behar du)

errue: errua

es: ez

esetz: ezetz

esetza: ezetza

esixena: ezizena

eskubiarrak: esku beharra

esku inyarra: esku indarra

eskutue: ezkutua

estañue: arraroa

ete: ete, ote

etxurie: itxura

"*Artoa, igual dekosu ondo goberneute, eta artoa ba, etxure baten arto ona, eta, aor, arra, kotxo arra, da arek koisten tzo, ara barruko, a sartzen da bittarteti, ta barruko une dxaten tzo*" - (Artoa, beharbada daukazu ondo gobernatuta, eta artoa ba, itxura baten arto ona, eta, haor, harra, kotxo-harra, eta hark hartzen dio, hara barruko, hura sartzen da bitartetik, eta barruko muina jaten dio)

eurki: aurki, beharbada

fabrikie: fabrika

faltie: falta

"*Ta ser da ta auxe kare faltie da, baya, ain pare da karu esate baterako ori ekartie se esta oin ya kare bixidxe olan doberatan, dxoan karabire ta oiñ estu olakorik usetan*" - (Eta zer da eta hauxe kare falta da, baina hain paratu da garesti esate baterako hori ekartzea ze ez da orain ja kare bizia holan doberetan, joan karabira eta orain ez dugu holakorik usatzen)

famie: ospea

"*Fama txarra eukitteuen*" - (Ospe txarra eduki zuen)

fetxie: data

figurie: irudia

filie: ilara

"*Alde batetik bestera, ta alik artesen, da gero filie ba atzekoa eraittekoa, abarketako beste*" - (Alde batetik bestera, eta ahalik artezen, eta gero ilara ba atzekoa ereitekoa, abarkatzeko beste)

firmie: sinadura

formie: irudia, itxura

ganie: gogoa

ganorie: ganora

"*Oin be ikusten danien ume bat txarto dxantzitte, ganora barik, marro baten antza dekosu esaten da oin be*" - (Orain ere ikusten denean ume bat txarto jantzita, ganora barik, marro baten antza daukazu esaten da orain ere)

"*Oin daus ganora barik einye*" - (Orain dagoz ganora barik eginda)

garrotie: garrote, egurra

geusie: gauza

"*Aren ostien ote sien orrek geusek*" - (Haren ostean egoten ziren gauza horiek)

giltzotza: giltz kolpea

ARRIETAKO HIZTEGIA

gogo: gogo

"Lengo orrek gausek esaten apur bet gogoan ixetan ibil gara baya" - (Lehengo gauza horiek esaten apur bat gogoan izaten ibili gara baina)

"Neure gogoanien au erre da" - (Neure gogoan hau erre da)

gogoanien: gomutan

"Nire gogoanien bai, ariñau estaipa" - (Nire gomutan bai, arinago ez dakit ba)

gomutie: gomuta

"Estekot orren gomuterik estekot, iños estot useu" - (Ez daukat horren gomutarik ez daukat, inoiz ez dut erabili)

goraberak: gorabeherak

gorrotoa: gorrotoa

grasidxe: grazia

gusurre: gezurra

"Arek koixu txus, gusurre esan barik, e, eundesak, berak bakarrik" - (Hark hartu ditu, gezurra esan barik, ehundazak, berak bakarrik)

igual: igual

inpentzadako: ustebakoa

inpentzadan: ustekabean

"Inpentzadako geuse ba ta ori, inpentzadan ba, pentze pentzebako geuse bat ixen da, eta aulan suerte da ta inpentzadan" - (Ustekabeko gauza bat da hori, ustekabean ba, pentsatu pentsatubako gauza bat izan da, eta haolan suertatu da eta ustekabean)

ipuiñe: ipuina

"Lenauko ipuiñetako, personaje batzuk ixen sien orrek, asko orregaitxik berba itxe san bai Peru eta Maridxe" - (Lehenagoko ipuinetako, pertsonaia batzuk izan ziren horiek, asko horren ganean berba egiten zen bai Peru eta Maria)

irudidxe: irudia

"Bai, ataraten sien, e, irudidxek, Dolorosie, San Juan, da dxoaten sien madalena dxantzitxe" - (Bai ateratzen ziren, irudiak, Dolorosa, San Juan, eta joaten ziren madalena jantzita)

itxurie: itxura

ixena: izena

"Orrepe beran ixena deko" - (Horrek ere beraren izena dauka)

"Ori lengo sarrak, iños entzun dot seuser bai, ori dauenien seuser denporan sera, baya ixenik estaitt" - (Hori lehengo

zaharrek, inoiz entzun dut zer edo zer bai, hori dagoenean zer edo zer eguraldiaren zera, baina izenik ez dakit)

jeneroa: gauza, jeneroa

"Errire dator jeneroan eske" - (Herrira dator jeneroaren eske)

jornala: soldata, alogera

kajie: kaxa

kaltie: kaltea

kamioye: kamioia

kanbidxoa: aldaketa

"Koixu itten du baya, jeneralmentien kanpokoa ekarten du se kanbidxokoa beti de, obeto" - (Hartu egiten dugu baina, gehienetan kanpokoa ekartzen dugu ze aldaketakoa beti da, hobeto)

kankarrue: kankarroa

kapritxoa: apeta

kargue: kargua

kartie: gutuna

kartzelie: kartzela

kasue: kasua

"Andriek esa leike igual, e, ni paño ogeto kasu orretan" - (Andreak esan dezake beharbada, nik baino hobeto kasu horretan)

kejie: kexa

klasie: mota

"Pipe pe klasie taus eta, lenau be asko gedxau" - (Pipak ere motak dagoz eta, lehenago ere asko gehiago)

"Gorakoa ixetie edo berakoa ixetie, bueno or be asidxek klasiek diferentie taus" - (Gorakoa izatea edo beherakoa izatea, beno hor ere haziak mota desberdinak dagoz)

kolorie: kolorea

"Kolare argidxe bada ori loyorra da" - (Kolare argia bada hori lohiorra da)

kontaixu: beharbada, aurki, hurrean

kontraridxoa: kontrakoa

"Pistididxe tekus danak kontraridxoak eta beres beres goas isten orreri be" - (Piztiak dauzkagu denak kontrakoak eta berez-berez goaz uzten horri ere)

kontue: kontua

"Kontetako moduen estakides geur orrek geusek nik, baya Peru eta Maridxenak asko ixen siena kontue pai se guri, artaburu suritan gure aitxek asko kontetan doskusen orrek, bai" - (Kontatzeko moduan ez dakizkit gaur

ARRIETAKO HIZTEGIA

gauza horiek nik, baina Peru eta Mariarenak asko izan ziren kontuak bai ze guri, artaburu zuritan gure aitak asko kontatzen zizkigun horiek, bai)

kostunbrie: ekandua

"Ori koipe gasie, koipe gasie, egote san kostunbrie lenau, urte askotan" - (Hori koipe gaza, koipe gaza, egoten zen ekandua lehenago, urte askotan)

kotxie: autoa

kuadrue: laukia

legie: legea

leku illune: ijitoek akanpatzen duten lekua

loteridxe: loteria

lotzie: lotsa

malisidxe: malizia

manejue: moldaera

markie: marka

materidxala: materiala, gaia

matrakie: matraka

"Saspi neska ixen giñen gu, aixe matrakak saspirok bixi ixen bagiñen" - (Zazpi neska izan ginen gu, haiexek matrakak zazpiok bizi izan baginen)

memoridxe: oroimena, gogoia

"Laotamabost urtegas il san baya memoridxe gu paño obiegas il san" - (Larogeita hamabost urtegaz hil zen baina oroimena guk baino hobeagaz hil zen)

merittue: meritua

mesedie: mesedea

"Estakitt nik ak eitten batzen mesederik ela, baya" - (Ez dakit nik hark egiten zien mesederik ala, baina)

millo erdidxe: milioi erdia

milloye: milioia

minerala: minerala

miseridxe: miseria

"Gure denporan miseridxe, intxurrek eta, baya oiñ emoten dues, ba, pastak eta, eta dirue ta bastarrak geusek emon tzies" - (Gure sasoiaren miseria, intxaurrak eta, baina orain ematen dituzte, ba, pastak eta, eta dirua eta bazterrak gauzak eman dizkiete)

modue: modua

modie: moldea

mundue: mundua

"Ordurik ona buelta asko emon deu munduek" - (Ordutik hona buelta asko eman du munduak)

nagidxe: nagia

nasteporraste: nahaste-borrastea

nastie: nahastea

"Oin nastie baño estau, geroarau gedxau" - (Orain nahastea baino ez dago, geroago gehiago)

nobedadie: nobedadea, albistea, berria

norbera, nobera: norbera

"Bai tte gero osabedarra beste bape, badau noberantzako sertzzen dana" - (Bai eta gero osabelarra beste bat ere, badago norberarentzat zertzzen dena)

"Baspidxe, nasteu nasteu, nobera garbi on arren beste batzuk nasten dire ta, naste itxe da" - (Bazpia, nahastu nahastu, norbera garbi egon arren beste batzuk nahasten dira, nahastu egiten da)

notisidxe: albiste, berria

obrie: obra, beharlekua

ofesidxo: ogibidea

ojie: tabako mota bat

"En jeneral ixete sien, geur sigarrilloa usetan dan moduen, ba tabako soltue, ojie be esetu ot" - (Gehienetan izaten ziren, gaur zigarrotxoa usatzen den moduan, ba tabako soltea, orria ere ezagutu dut)

ordie: ordea

ostantzien: osterantzean, bestela

palisie: jipoia

paradie: 1. parada, geltokia. 2. zita, hitzordua, geratzeko lekua

"Esnie entrege bi dxakon paradara" - (Esnea eman behar zitzaion paradara)

"Bueno ba dxoango gara, erri baterik bestera erromerireko ta, ba fulanon etzien, e, an etzien, an kurtzeroan aiñ orduten paradie" - (Beno ba joango gara, herri batetik bestera erromerirako eta, ba urliaren etxean, han etxean, han bidegurutzean hain ordutan hitzordua)

parajie: parajea, ingurua

pasadie: jipoia

peligrue: arriskua

penie: pena

"Au billotza penie ok saltzie ta au asi bi dxoatek" - (Bildots hau pena duk saltzea eta hau hazi behar diat)

pipie: pipa

"Oñ esta ikusten piperik" - (Orain ez da ikusten piparik)

plomoa: beruna

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Nik estaitt, esateuden, nire ama pe, olan ni be sarrena ixte nitzen, lenengo umie ba, eta ni antza negar ta negar ego nitzen, eta, begiskoa dekotela, baten batek esan tzon, orrek, e, sorgiñek edo astuek edo trastiok, eta uretara, ure imiñi tte plomo sati bet edo bota ara, da ara urteteuela an, e, serak" - (Nik ez dakit, esaten zuten, nire amak ere, holan ni ere zaharrena izan nintzen, lehenengo umea ba, eta ni antza negar eta negar egon nintzen, eta, begizkoa daukadala, baten batek esan zion, horrek, sorginek edo azturuak edo trasteok, eta uretara, ura ipini eta berun zati bat edo bota hara, eta hara irteten zuela han, zerak)

posa: poza

"Posagas dxaten ote nitzen" - (Pozagaz jaten egoten nintzen)

preguntie: itauna, galdera

presidentie: presidentea

probie: proba

puntie: punta

"Orrek puntie edonondik emoten deu, da ugeridxe da emoten, esan gu dot sabalduten" - (Horrek punta edonondik ematen du, eta ugaria da ematen, esan gura dut zabaltzen)

radidxo: irratia

salidie: irteera

saridxe: saria

sarie: sarea

seguru: 1. ziur. 2. beharbada, antza

seloa: zela, jelsia

senalle, sendallie: seinalea

"Senalle ona estala esaten due txakurre alaurike ta badabill" - (Seinale ona ez dela esaten dute txakurra alaurika eta badabil)

sentalle: zentaila

sentidue: sentidua

sera: zera

serikusidxe: zerikusia

sigarroa: zigarroa

sisini: zidurria, lorratza

suertie: zortea

surrumurrue: zurrumurrua

"Agaitzik au surrumurrue dabill, aoneaitzik au esaten dabix" - (Haregatik zurrumurru hau dabil, haonegatik hau esaten dabilta)

tabakoa: tabakoa

"Ori usetan san, fumalaridxena, fumalaridxe oten sien lenau te, se lenengo ta bein tabako ote san eskas eta txarra" - (Hori usatzen zen, fumalariena, fumalariak egoten ziren lehenago eta, ze lehenengo eta behin tabakoa egoten zen eskas eta txarra) [artosapaz egiten zen zigarroaren gainean dabil]

tabakorridxe: tabakoa

tapie: tapa, estalkia

telefonoa: telefonoa

tenplie: tenplea

tranpie: tranpa

trena: tren

txapelokerrak: txapel okerrak, poliziak

uekue: hutsunea

"Aolan egurreas, au olan einye dau, ein egurregas, da gero uekuek beteten ttuesan arridxeas" - (Haolan egurragaz, hau holan eginda dago, egin egurragaz, eta gero hutsuneak betetzen zituzten harriagaz)

umorie: aldartea

21. ADJEKTIBOAK

Atal honetan adjektibo bakunak biltzen ditugu, noizean behin eratorriren bat ager daitekeen arren, hauetariko gehienak berba eratorrien atalean agertuko dira. Bestalde, adjektibo konposatuak eta adjektibotzat erabiltzen direnak esakunen atalean agertuko dira. Azkenik, kolorei buruzko berbak azpi-atal berezian agertuko dira amaieran.

21.1. ADJEKTIBO BAKUNAK

aberatza: aberatsa

"Aberatza pai ixengo dire se inyabak ondo ondo koisten dues, ba lurren kanbidxora emen be asko obeto emoten deu, bertoko bertokoa paño, kanpotik ekarritte" - (Aberatsak bai izango dira ze indabak ondo-ondo hartzen dituzte, ba lurraren aldatetara hemen ere asko hobeto ematen du, bertoko-bertokoak baino, kanpotik ekarrita)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Esan tzut len, oin dana karala aberatzak" -
(Esan dizut lehen, orain denak garela
aberatsak)

abille: trebea

abune: aguna, apatza

"Abun abun dau esaten da, ori lurreaittik
bardiñ, bai abun abun dau te, lurre suabe
dauenien" - (Agun-agun dago esaten da,
hori lurraren gainean berdin, bai agun-
agun dago eta, lurra suabe dagoenean)

afoa: afoa

"Afo dau au" - (Afo dago hau)

akabukoa: amaierakoa, azkena

alegrie: alaia

"Alegriek, oin be baño alegriauak, oin be
alegriek ixengo dires, baya orduen
alegriauak" - (Alaiak, orain ere baino
alaiagoak, orain ere alaiak izango dira,
baina orduan alaiagoak)

alperra: alperra

"Orreaittik, da esaune bat, sarra, ta da,
alperreko geusie dala bat munduen
alperran inyarra" - (Horregatik, da
esakuna bat, zaharra, eta da, alperreko
gauza dela bat munduan alperraren
indarra)

alperrekoa, alperrikoa: alperrekoa

altie: altua (f)

altue: altua

"Emen estu useu, se au altu dau" - (Hemen
ez dugu usatu, ze hau altu dago)

amerikanie: amerikarra, Ameriketan
egonekoa (f.)

amerikanue: amerikarra, Ameriketan
egonekoa

amotza: amotza

andidxe: handia

"Arri andidxez altzetan esan erres ongo" -
(Harri handiak altxatzen ez zen erraz
egongo)

antiguala: antigualekoa

"Antigual tiporako dire orrek" - (Antigual
erarako dira horiek)

antigualekoa: antigualekoa

antzekoa: antzekoa

antzue: antzua

apala: apala

apartekoa: apartekoa

apatza: apatza

aproposa: aproposa

aproposkoa: aproposkoa

"Aproposko askorakas, amen, e, tantadzek
eta eitteko, esku serrie erabilte seren,
ortariko askora pe ibilte sien" -
(Aproposko aizkorakaz, hamen, tantaiak
eta egiteko, esku-zerra erabiltzen zuten,
horietariko aizkorak ere ibiltzen ziren)

argala: argala

argidxe: argia

ariñe: arina

armiñe: arbina

arrarue: arraroa

arroa: harroa

artesa: arteza

"Kabliek artes ebaten deu" - (Kableak artez
ebakitzen du)

asala: azala, sakonaren kontrakoa

askena: azkena

askenengoa: azkenengoa

aspaldikoa: aspaldikoa

astokilloa: astokiloa

astune: astuna

atrasadue: atzeratua

atrebidue: ausarta

atxiñekoa: antzinakoa

bajue: baxua

bakarra: bakarra

balientie: ausarta, trebea

"Gure ama be balientie ixen dala esateuden
dxantzan" - (Gure ama ere trebea izan
dela esaten zuten dantzan)

"A kantetan balientie ixen san a" - (Hura
kantatzen trebea izan zen hura)

baltzingoa: baltzingoa, beltzarana

banangoa: banangoa

bardingoa: berdingoa, ertaina

bardiñe: berdina

barrabana: barrabana

barrabasa: barrabasa

barridxe: berria

"Arek Gerniketik, Gernike bonbardie san
egunien, sille bi erosi barridxe, da
buruen ekar seittusen oñes Gerniketik" -
(Hark Gernikatik, Gernika borbardeatu
zen egunean, aulki bi erosi berriak, eta
buruan ekarri zituen oinez Gernikatik)

bastoa: latza, lakatza, dorpea

benetakoa: benetakoa

berbaltue: belbartua

beroa: beroa

"Ur beroa botata andi itte san ori" - (Ur
beroa botata handik egiten zen hori)

betikoa: betikoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Orrek betiko geuse tire, esta?" - (Horiek betiko gauzak dira, ezta?)

biargiñe: behargina

bidxorra: bihurria

"Lantzien leku batzuten ikusten die barbaridadiek itzelak, ormak bidxorrakas da einye" - (Lantzean leku batzuetan ikusten dira barbaridadeak itzelak, hormak bihurriakaz eta eginda)

bigune: biguna

"Galtzue be ba, gero ganaduentzako ta bigunau edo serau eukitteuen ak, da noberak manejetako be, erresau ixeta san" - (Galtzua ere ba, gero ganaduarentzat eta bigunagoa edo zeragoa edukitzen zuen hark, eta norberak maneiatzeko ere, errezagoa izaten zen)

biribille: biribila

"Burdiñie eroaten deu arek, e, aolango burdiñe ser bat, fiñ antzeko bat aolan, biribille eroaten deu, katiek korridu deidxon" - (Burdina eroaten du hark, haolako burdina zer bat, fiñ antzeko bat haolan, biribila eroaten du, kateak korritu diezaion)

biskorra: bizkorra

bixidxe: bizia

bustidxe: bustia

debille: makala, ahula

defuntie: difuntua (f)

defuntue: difuntua

delikadue: delikatua

derrigorrekoa: derrigorrekoa

diferentie: desberdina

"Bueno antzekoak, antzekoa tire ixetes baya estiek, estiek eurek, diferentie tire, txarridexek esteko olako, jangoikoa esaten dxakon olako este andirik, txala pai" - (Beno antzekoak, antzekoak dira izatez baina hesteak, hesteak eurak desberdinak dira, txerriak ez dauka holako, jangoikoa esaten zitzaion holako heste handirik, txahalak bai)

dotorie: dotorea

drungulue: drungulua, kankala

"Bat olan, e, paretan san, ori mutillek gidxau itxeuen, neska pai batzuk drungulu antzekoa tienak, danak illedan dxoaten sien da dxausten dana, lantzen bat dxausi itxen siren ba, da a dxausten dana gero paraten san ostabe" - (Bat

holan, paratzen zen, hori mutilek gehiago egiten zuten, neskek bai batzuek drungulu antzekoak direnek, denak ilaran joaten ziren eta jausten dena, lantzen bat jausi egiten ziren ba, eta hura jausten dena gero paratzen zen osterera ere)

"Selako drungulue sara!" - (Zelako drungulua zara!)

dultzie: gozoa, ezta

"Amen kerixe gitxi dau, de dausena pa, kaballo kerixie taus, batzuk gorri gorri ederrak, beste batzuk olan, ba suri gorri itten dienak, da gero badaus baltz eder ederrak, orre pe dultzie dires" - (Hamen gerezi gutxi dago, eta dagozenak ba, zaldi gereziak dagoz, batzuk gorri-gorri ederrak, beste batzuk holan, ba zuri-gorri egiten direnak, eta gero badagoz beltz eder-ederrak, horiek ere gozoak dira)

dxakana: jakana, txarto eta gutxi jaten duena

dxasekoa: jasekoa, itxurakoa

"Ori dxaseko andrie da" - (Hori jaseko andrea da)

edadekoa: edadekoa, adinekoa, zaharra

ederra, edarra: ederra

"Logurie deko orrek ederra!" - (Logura dauka horrek ederra!)

eldue: heldua

elegantie: dotorea

eletrikue: elektrikoa

epela: epela

eroso: eroso

"Epeletan ondo eukittek, da dxaten emoteko ta, eroso eukittek" - (Epeletan ondo edukitzeko, eta jaten emateko eta, eroso edukitzeko)

erresa: erraza

"Orrek lurrek one paño erresaue tire, erabiltteko kontuen" - (Lur horiek hauek baino errazagoak dira, erabiltzeko kontuan)

errubidxie: ilegorria (f.)

errubidxo: ilegorria

eseune, esune: ezaguna

esiñe: ezina

eskasa: eskasa

"Orduen sasoyen esan ongo, uregas, paraje pobreaurik, eskasaurik, au parajie baño" - (Orduan sasoiaren ez zen egongo, uragaz, paraje pobreaurik, eskasaurik, paraje hau baino)

ARRIETAKO HIZTEGIA

eskerronekoa: eskerronekoa

eskertzarrekoa: eskertzarrekoa

estimedue: estimatua

eurrierie: ausarta, aurrelaria

faltzoa: faltsoa

"Ori berbetie faltzoa da" - (Berbeta hori faltsoa da)

famadue, famaue: famatua, ospetsua

fasille: erraza

fijoa: fixoa

fiñe: fina

"Emen ain andidxeek estus koisten txikitxuauk ba fiñe pai, e?" - (Hemen hain handiak ez ditugu hartzen txikitxoagoak ba finak bai, e?)

formala: formala

freskoa: freskoa

fuertie: indartsua

galanta: galanta

garbidxe: garbia

"Andra artesa, e, a fiñe da eta garbidxe" - (Andra arteza, hura fina da eta garbia)

garratza: garratza

"Akabuen berdie dxan bixetan gendun de berdetan garrastxue san, ba a goso ostien" - (Azkenean berdea jan behar izaten genuen eta berdetan garrastxoa zen, ba hura gozo ostean)

gasa: geza

gasidxe: gazia

"Esta ona, se emon bi dxako, kantidade andidxe gatza, umedadie dau te, eta gero gasi urteten deu" - (Ez da ona, ze eman behar zaio, kantitate handia gatza, umeltasuna dago eta, eta gero gazi irteten du)

gastie: gaztea

"Ba ordun gastiek esireles tabernara dxoaten ba neskan etzietara ta etorten sien eusoatako mutil gastiek" - (Ba orduan gazteak ez zirenez tabernara joaten ba nesken etxeetara eta etortzen ziren auzoetako mutil gazteak)

"Geur gaste bateri, esayosu mesara dxoateko ia" - (Gaur gazte bati, esaiozu mezara joateko ea)

gatxa: gaitza

"Ori useta san, e, lur gatxa dauen lekuen" - (Hori erabiltzen zen, lur gaitza dagoen lekuan)

geixokidxe: gaixokia

"Beti geixori tauena, beti ixen da ori geixokidxe" - (Beti gaixorik dagoena, beti izan da hori gaixokia)

giputze, kiputze: giputza

gixajia: gajoa, gixajoa (f.)

gixajoa: gixajoa

gogorra: gogorra

goixetikoa: goizetikoa

"Len ba, gedxau kanpora ta saltzen sanien, ordun ariñ etortekoa, goixetikoa" - (Lehen ba, gehiago kanpora eta saltzen zenean, orduan arin etortzekoa, goizetikoa)

gordine: gordina

gorra: gorra

gosekille: gosekila

goso: gozoa

ierra: igerra, labetik pasatuko irina

iguala: berdina

"Igual ikusten dosu, inyaba baltza esate baterako, ta estosu igerten asidxe bata dan edo bestie dan, baya da bata gorakoa eta bestie berakoa ta igual iguala tires" - (Beharbada ikusten duzu, indaba beltza esate baterako, eta ez duzu igartzen hazia bata den edo bestea den, baina da bata gorakoa eta bestea beherakoa eta berdin-berdinak dira)

igual antzekoa: berdin antzekoa

ikola: ikola

"Kasureko, txala kortan dau te, solteu te bedxeri edaten batzo errapeko esne dana, bai dxoa nas ba arek, e, errapie ikol deko, txalak edan tzo dana ta" - (Kasurako, txahala kortan dago eta, soltatu eta behiari edaten badio errapeko esne dena, bai joan naiz ba hark, errapea ikol dauka, txahalak edan dio dena eta)

"Ikol ikol dau ori, orrek esteko eser" - (Ikol-ikol dago hori, horrek ez dauka ezer)

illune: iluna

"Asala edxoeskeiñoko urune, ataaten deu illunau" - (Azala ehoz gero irina, ataratzen du ilunago)

inportantie: garrantzitsua

"A gure eusotidxe bastante inportantie ixenekoa da, arri landuas eiñeko etziek eta" - (Gure auzotegi hura nahiko garrantzitsua izanekoa da, harri landuagaz egineko etxeak eta)

iñusentie: inuzentea

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Ardidxe iñusentie dalako garbidxe, ardidxek estaki, euntzek, e, orro itzelak" - (Ardia inuzentea delako garbia, ardiak ez daki, ahuntzak, orro itzelak)

istue: estua

itzela: itzela

"Labasuek itzelak eitxen gendusen guk, otak ebai or godxen, da eroan da" - (Labasuak itzelak egiten genituen guk, oteak ebaki hor goian, eta eroan eta)

"Amen guk istoria itzela deku" - (Hamen guk istorio itzela daukagu)

itzue: itsua

ixille: ixila

kakapirridxe: geldiezina daukanari esaten zaio

kalboa: burusoila

karue: garestia

"Gero sartzaldi ona edo karie da ona baya kariek oin karu urtetan deueles estu kare itten, da emengo terrenoa taus, kare faltiegas dekus" - (Gero satsaldi ona edo karea da ona baina kareak orain garesti irteten duenez gero ez dugu kare egiten, eta hemengo lurak dagoz, kare faltagaz dauzkagu)

"Lenau materidxelak danak ixen siren karuek, eskubiarra merkie baya" - (Lehenago materialak denak izan ziren garestiak, esku beharra merkea baina)

katolikue: katolikoa

"Katolikutzet beran buru euki seuen" - (Katolikotzat beraren burua eduki zuen)

kiputze: giputza, gipuzkoarra

klarue: argia

koittedie: koitadua (f)

koittedue, koitxedue: koitadua

kojie: koxoa (f.)

kojoa: koxoa

kokolie: mamala

kokoloa: kokoloa

konpletoa: osoa

kontrakoa: kontrakoa

kontraridxo: arerioa

kojoa: herrena

kuadradue: karratua

labana: labana

"Abarkie labana ixen da beti" - (Abarka labana izan da beti)

laburre: laburra

larridxe: larria

laskidxe: laskia

lasue: lasua

latza: latza

leune: leuna

librie: librea, askea

ligorra, liorra: lehorra

"Ligor dau urune" - (Lehor dago irina)

listoa: zuhurra, azkarra

lisue: lisua, laua

"Emen ikusiko su balkoyetan, ameko baserrixetakoak, beti egurre, lisue" - (Hemen ikusiko duzu balkoietan, hamengo baserrietakoak, beti egurra, lisua)

lodidxe: lodia

"Lodidxe bastante lodidxe dana bai" - (Lodia nahiko lodia dena bai)

lodxe: lohia

lupue: lupua

lusengie: luzenga

"Asak, e, klasie diferentie dekie ba, alako, nabar raro batzuk eukitte ittues, lusenga batzuk asa pe" - (Azek, mota desberdina daukate ba, halako, nabar arraro batzuk edukitzen dituzte, luzenga batzuk azek ere)

lusie: luzea

madariketue: madarikatua

makala: makala, gaixoa

makurre: makurra

mamalie: mamala

mankue: besamotza

mardoa: mardoa

masala: mazala, lasaia

"Batzu daus, bixidxek, eta beste batzu dire masalak" - (Batzuk dagoz biziak, eta beste batzuk dira mazalak)

merdule: mardula

"Egurtu eta dxateko a, eskastu itten da, ta kanbidxeu, ta urtetan deu ondo sendoagas da merdulau te asko obeto" - (Egurtu eta jateko hura, eskastu egiten da, eta aldatu, eta irteten du ondo sendoagaz eta mardulago eta asko hobeto)

merkie: merkea

"Bera pe estau mereke ta itxi in tzo" - (Berak ere ez dago merke eta utzi egin dio)

meye, mie: mehea

"Estie tire batzuk lodidxauak beste batzuk me me meyek" - (Hesteak dira batzuk)

ARRIETAKO HIZTEGIA

lodiagoak beste batzuk mehe-mehe-meheak)

mietza: mehatza

milikidxe: milika

minberie: minbera

mingorra: mingorra, mingarria

mingotza: mingotsa

"Gastañe tire ixetes orre tiñona, esta? baya ene gastañe ederra ta amen, da kendute asala, da mingotza esin dxan" - (Gaztainak dira izatez horrek dinoena, ezta? baina ene gaztaina ederra eta hamen, eta kenduta azala, eta mingotsa ezin jan)

misketue: mizkatua

miskiñe: mizkina

morenie: beltzarana (f.)

morenoa: beltzarana

morroskoa: morroskoa

motela: motela

motza: motza

"Se dxaskera motza deko orrek!" - (Ze janzkera motza dauka horrek!)

"Errigoittikoa, motzaua da, gurie baño asko motzaua" - (Errigoitiakoa, motzagoa da, gurea baino asko motzagoa)

mutue: mutua

nagidxe: nagia

nagosidxe: nagusia

naseidxe, nasidxe: nasaia, lasua

"A esi lei igerran beste fiñe iñ, se a itten basu, imintten basu istu, inkeu itten da, arek eitten deu orie, istu imintten basu te imin bisu beti nasitxuau, da arek nasitxuau imiñikoak esteko, a, finttasune esteko bestien modukoa" - (Hura ezin liteke igerraren beste fina egin, ze hura egiten baduzu, ipintzen baduzu estu, inkatu egiten da, hark egiten du orea, estu ipintzen baduzu eta ipini behar duzu behetik nasaitxoago, eta hark nasaitxoago ipinikoak ez dauka, finttasuna ez dauka bestearen modukoa)

naturala: naturala

normala: normala, arrunta

obie: hobea

"Ori baño obarik estau" - (Hori baino hoberik ez dago)

"Erre itten tzo arek, da obie da, obie dala esaten deude" - (Erre egiten dio hark, eta hobea da, hobea dela esaten dute)

oidalakoa: ohidalakoa

"Entzun in tziet, neu txikitxue, txikidxe edo oidalakoa nasela, ba eroan in bi du, enei! sasoye pasetan gaus, eurek alkarreri andrak esaten, ama ta" - (Entzun egin diet, neu txikitxoa, txikia edo ohidalakoa naizela, ba eroan egin behar dugu, enei! sasoia pasatzen gagoz, eurak elkarri andreak esaten, ama eta)

okerra: okerra

"Okerra sara bai, ori okerra ba lenengo berbie, baya olan, e, saltoka edo, okerra ixetan bada, idxetan edo bajetan edo, selako drungulue da ori" - (Okerra zara bai, hori okerra ba lehenengo berba, baina holan, saltoka edo, okerra izaten bada, igotzen edo bajatzen edo, zelako drungulua da hori)

ona: ona

"Geuse ona ganaduentzako dan moduen da norberantzako" - (Gauza ona ganaduentzat den moduan da norberarentzat)

osoa: osoa

osokoa: osokoa

osperie: hozpera

"Osperie sara su" - (Hozpera zara zu)

ostantzekoa: osterantzekoa

otza: hotza

"Otza kalenturie dalakoa dekot" - (Hotza kalentura dalakoa daukat)

pobrie: pobrea, txiroa

"Arek pobriek ixen siren irurek, da arreba bat ill in dxakien, ba seas atara bi san etzeti, kortan enterreuren eurek, gero agertu sen, ori nire denporan, es atxiñe, nire denporakoa da ori" - (Haiek txiroak izan ziren hirurak, eta arreba bat hil egin zitzaien, ba zegaz atera behar zen etxetik, kortan lurpetu zuten eurek, gero agertu zen, hori nire sasoiari, ez antzina, nire sasoikoa da hori)

politte, politxe: polita

potoloa: potoloa

printzipala: pintzipala, garrantzitsuena

putze: putza

rubidxie: errubioa (f.)

rubidxo: errubioa

sabala: zabala

sakona: sakona

"Guk esetu dune da, kasureko, len estratzak, esta? bide txarrak oten sien da arexek arregletako gixonak batzen sien da danan"

ARRIETAKO HIZTEGIA

artien imiñi, oin baño sakonauak, estratzak, esta? sakonak, eta baten gixon bat esan etorri arregletan" - (Guk ezagutu duguna da, kasurako, lehen estratzak, ezta? bide txarra egoten ziren eta haiexek konpontzeko gizonak batzen ziren eta denen artean ipini, orain baino sakonagoak, estratzak, ezta? sakonak, eta baten gizon bat ez zen etorri konpontzen)

sakratue: sakratua

sala: zaila, zaintsua

samurre: samurra

santarra: zantarra

sapala: zapala

sapoa: faltsoa, ziztrina

sarra: zaharra

"Au alaba sarrena da" - (Hau alaba zaharrena da)

sarratue: itxia

saskela: zikina, lohia

"Ume saskel ori!" - (Ume zikin hori!)

satarra: zatarra

"Danak es, baya batzuk satarra tire antza orrek, satarrak pistidxe" - (Denak ez, baina batzuk zatarrak dira antza horiek, zatarrak piztiak)

selebrie: xelebrea

sendoa: sendoa

sentzilloa: sentziloa

seridxo: serioa

seye: xehea

sietza: zehatza

sikue: sikua

"Gedxau be sikue edo gorriñeas, oin sikurik es, emoten ondo on dire, ointxe asken partien" - (Gehiago ere sikua edo gorrinagaz, orain sikurik ez, ematen ondo egon dira, oraintxe azken aldian)

sistriñe: ziztrina

sitxela: zitala

"Sitxela da ori dxaten" - (Zitala da hori jaten)

solterie: ezkonbakoa (f)

solterue: ezkonbakoa

soltue: soltua

soroa: zoroa

sorrotza: zorrotza

sosoa: geza

suabe: suabea

"Da gero tapeu suabe suabe suabe, lur fin fiñegas, lur fiñegas, da kalerik kalera imingo su distantzidxe tratoraas gero suk

labretako barruen" - (Eta gero tapatu suabe-suabe, lur fin-finagaz, lur finagaz, eta kalerik kalera ipiniko duzu distantzia traktoragaz gero zuk lantzeko barruan)

surre: zuhurra

"Karakola pe itxen due ta, karakola pe letxugie imiñiesko danak dxaten txues, sur espasaus, karakolak edo orrexek" - (Barraskiloek ere egiten dute eta, barraskiloek ere letxuga ipiniz gero denak jaten dituzte, zuhur ez bazagoz, barraskiloek eta horiexek)

tartekoa: tartekoa

terkoa: tematia

tolle: maskala

tontie: mamala

tontoa: memeloa

torpie: baldarra

totalekoa: guztizkoa

trankille: lasaia

triperue: tripontzia

tristie: tristea, hitsa

"Esne utze tristie da gas barik" - (Esne hutsa tristea da gatz barik)

tropie: dorpea

"Ganaduen armerieri lenau, ididxeri be ta asko begittuten dxaken, se ganadu batzuk armera tropie ta badeke, busterridxen libretan be gatxak ixeta siren onetara dxoteuden txarto" - (Ganaduen armerari lehenago, idiei ere eta asko begiratzen zitzaien, ze ganadu batzuek armera dorpea eta badaukate, buztarrian libratzen ere gaitzak izaten ziren honetara jotzen zuten txarto)

txankille: eskasa

txarra: txarra

"Errosaridxo txarra da, baya, orrek bestiek txarrauak" - (Errosarioa txarra da, baina, beste horiek txarragoak)

txatoa: txatoa

txikerra: txikerra

txikidxe: txikia

"Enei! txikitxue tiresen artien dxateko, dauena amen" - (Ene! txikitxoak diren artean jateko, dagoena hamen)

txotxoloa: txotxoloa

ugeridxe: ugaria

"Probeixu au etzien, da ikuskosu se ugeridxe dan ta se gosoa dan" - (Proba ezazu hau etxean, eta ikusiko duzu ze ugaria den eta ze gozoa den)

ARRIETAKO HIZTEGIA

umedue: hezea

urkoa: hurkoa

urrekoa, urrengoa, urrungoa: hurrengoa

"Oin̄ estaeles mesie segiduen, ba urrungo domekan eitten deu abadiak" - (Orain ez dagoenez meza segituan, ba hurrengo domekan egiten du abadeak)

urridxe: urria

ustela: ustela

utze: hutsa

"Andrie elixe utze ixen san baya gixona esan dxoaten elixara, da andriek esateuen erdu ba barikuen esi lei ori txe, da bustertu ididxek eta dxoan solora, da busterridxe apurtu eta estaitx ser" - (Andrea eliza hutsa izan zen baina gizona ez zen joaten elizara, eta andreak esaten zuen erdu ba barikuan ezin liteke hori eta, eta buztartu idiak eta joan sorora, eta buztarria apurtu eta ez dakit zer)

21.2. KOLOREAK

amarilloa: beilegia

asul gorridxe: urdin-gorria

asule: azula, urdina

asuliskie: urdinxka

baltza: beltza

"Ni baltzik einitxen" - (Ni beltzik egin nintzen) [Ezkontzako janzkeraren gainean dabil]

baltzuskie: beltzixka

bellegidxe: beilegia, horia

bellegiskie: beilegixka, horixka

berdeskie: berdexka

berdie: berdea

"Au santue ba, berdie badekosu, begidxek berdie tekosus" - (Santu hau ba, berdea badaukazu, begiak berdeak daukazu)

berdeskiñe: berdexka

gorridxe: gorria

"Bakixu ser itxe oskuen kalabasi imiñi, barruko papel gorridxegas, eta an ukusten gendun, enei!" - (Badakizu zer egiten ziguten kalabaza ipini, barruko paper gorriagaz, eta han ikusten genuen ene!)

gorriskie: gorrixka

gorriskiñe: gorrixka

grise: grisa

"Biragarroa be bai berton, o, len egon san, a, oin̄ asko dau gitxiau te, sosoan tamañukoa baya grisien" - (Biragarroa ere bai berton, lehen egon zen, orain asko dago gutxiago eta, zozoaren tamainukoa baina grisean)

laranjie: laranja

larrosa: larrosa

marroye: marroia

moraue, moreue: moratua

nabarra: nabarra

oridxe: horia, beilegia

suridxe: zuria

"Suridxe ta baltza euki gendun guk" - (Zuria eta beltza eduki genuen guk)

"Oin suridxe dan moduen ordun baltza, neu be baltzagas einitzen bai" - (Orain zuria den moduan orduan beltza, neu ere baltzagaz egin nintzen bai)

suriskie: zurixka

suriskiñe: zurixka

22. ADITZONDOAK

Batu ditugun aditzondoak sailkatzeko euron esangura hartu dugu oinarriztat. Era honetara, atal honetako azpi-atalak denbora aditzondoak, leku eta kokaguneak, modu aditzondoak, maila aditzondoak, zenbatekoak, aditzondo konposatuak eta izenordain konposatuak izango dira.

22.1. DENBORA ADITZONDOAK

akabuen: azkenean

ariñ: arin, laster

"Bata ba arin datorrena, esate baterako, naboia ariñ etorten da, edo bestie nekesau, txikidxau, eskasau" - (Bata ba arin datorrena, esate baterako, arbia arin etortzen da, edo bestea nekezago, txikiagoa, eskasagoa)

arreskero: harrezkero

arterau: arterago

artien: artean, lehenago

aspaldi: aspaldi

"Lenau entzute san baya aspaldiko urtietan es" - (Lehenago entzuten zen baina aspaldiko urteetan ez)

ARRIETAKO HIZTEGIA

aspaldidixen: aspaldian

aspaldidixon: aspaldion

"Aspaldidixon, edo estai nik, e, denporien, e, klimetasune edo seaittik dan, onek san martiñekoak elduten asi dire goixau" - (Aspaldion, edo ez dakit nik, eguraldiaren, klimatasuna edo zergatik den, san martineko hauek heltzen hasi dira goizago)

atoan: atoan, berehala

"Bermiora atoan saus Mapetik" - (Bermeora atoan zagoz Mapetik)

atxiñe: antzina

"Gu atxiñe itxitxe gaus orreri geuseri" - (Gu antzina utzita gagoz gauza horiei)

"Ori atxiñe ixengo san" - (Hori antzina izango zen)

atzera: atzera, berriz

"Mai bet egote san elispian antzian, d'antxe seuselakoa ataaten tzuelakoa dekot nik se, an nik ikusi dot eta, an atzian, elixian atzian, elispian, antxe itxi, da elixakoa iñ, artun atzera da gero oñes, kanposanture" - (Mahai bat egoten zen elizpean antzean, eta hantxe zer edo zelakoa ateratzen dizutelakoa daukat nik ze, han nik ikusi dut eta, han atzean, elizaren atzean, elizpean, hantxe utzi, eta elizakoa egin, hartu atzera eta gero oinez, kanposantura)

barridixen: barriri, berriz

"Ni pakot, e, memoridixen eurretik sartun, eta atzeko atetik sartun atzera barridixen da errogatibek eitten" - (Nik badaukat, gogoan aurretik sartu, eta atzeko atetik sartu atzera berriri eta errogatibak egiten)

bein: behin

"Bein ori pase dxakon" - (Behin hori pasatu zitzaion)

belu: belu, berandu

berandu: berandu, belu

"Lelengo komuniñoa, oin berandu itxen da, baya len, e, saspri urte barik ni neu pe" - (Lehenengo komunioa, orain berandu egiten da, baina lehen, zazpi urte barik nik neuk ere)

beti: beti

"Soloak beti leku beten klase ba padau be, esteu errendimenturik emoten" - (Soroak beti leku baten mota bat badago ere, ez du errendimendurik ematen)

bider: bider

birriten: birritan

"Egunien birriten biarbada, segun siketie selan datorren" - (Egunean birritan beharbada, segun sikatea zelan datorren)

bittartien: bitartean

daborduko: daborduko, dagoeneko

"Tomatie, ba gurien daborduko ya asi dires, igertu dires aidxenak" - (Tomatea, ba gurean daborduko ja hasi dira, ihartu dira aihenak)

egunero: egunero

eguno: egundo

"Eguno esaten tziet" - (Egundo esaten diet)

en jeneral: gehienetan

ensegida: behingoan, atoan

"Neba bat ill in dxakon, Ameriketatik etorri tte ensegidako, esta?" - (Neba bat hil egin zitzaion, Ameriketatik etorri eta berehala, ezta?)

eurten: aurten

"Eurten emon da emotekoa" - (Aurten eman da ematekoa)

"Gure umieri eurten be irekatzi tziet eta ibil yire etzerik etze batzen" - (Gure umeei aurten ere irakatsi diet eta ibili dira etxerik etxe batzen)

gedxenien: gehienean

gero: gero

"Gero amabidxetan ostabe, bai amabidxetan be bai" - (Gero hamabietan ostera ere, bai hamabietan ere bai)

gesu beten: gezu baten

"Gesu beten artoa eraitten dunien, da eltzen danien, basurdek asiko dxakus" - (Gezu baten artoa ereiten dugunean, eta heltzen denean, basurdeak hasiko zaizkigu)

goixetik, goxetik: goizetik

iges: iaz, igaz

lantzien: lantzean, noizean behin

"Lantzian ba sepa bat galtzen asi sen" - (Lantzean ba ondo bat galtzen hasi zen)

lantzien bein: lantzean behin, noizean behin

lantzien bat: lantzean bat

laster: laster

"Olabarri be ba, Dxainkotik ya laster dau Gernikera bidien dau Olabarri" - (Olabarri ere ba, Jainkotik ja laster dago Gernikara bidean dago Olabarri)

lelengo: lehengo

len: lehen

lendik: lehendik

ARRIETAKO HIZTEGIA

lengoan: lehengoan

nosipiñien, nosipeñien: noizean behin

oiñ: orain

ondiño, oniño, oño: oraindino

"*Oniño nonon badaus gurien abarkak*" -
(*Oraindino non edo non badagoz gurean abarkak*)

"*Baitxe ementxe be badau oniño, orma bat*"
- (*Baita hementxe ere badago oraindino, horma bat*)

onesko: honezkero

ontzu, ointzu: oraintsu

oñokarren: ondinarren

orduén, ordun: orduan

osterabe, ostabe: ostera ere

"*Egun birik baten ostabe arek berak emoten deu*" - (*Egun birik baten ostera ere hark berak ematen du*)

ostien : ostean

sarri: sarri

"*Bekosue bai, sarri garbitxute san*" -
(*Behoko sua bai, sarri garbitzen zen*)

sarritten: sarritan

segiduen: segituan

sekule: sekula

"*Batek beti emoten dost, da bestiek baten bes, sekule esteu emoten*" - (*Batek beti eman dit, eta besteak baten ere ez, sekula ez du ematen*)

urrengoa: hurrengoa

urrengoan: hurrengoan

22.2. LEKUA-KOKAGUNEAK

akabuen: amaieran, azkenean

alboa: alboa

aldardidxe, alderdidxe, alderridxe:
alderdia

"*Mukurrek imintxe siren suten alderdi bixetan*" - (*Mukurrak ipintzen ziren sutan alderdi bietan*)

"*Alderdi banatan dekus geu pe*" - (*Alderdi banatan dauzkagu geuk ere*)

aldie: aldea

aparte: aparte

asau: asago

aspidxe: azpia

"*Gantzagidxe ebaten dienien, gantzagidxe tire lelengo urtetan duenak onetara, aren aspidxen doa gero tripien ganién, ori mantillie*" - (*Gantzagiak ebakitzen*

direnean, gantzagiak dira lehenengo irteten dutenak honetara, haien azpian doa gero triparen gainean, mantila hori)

atzie: atzea

barrena: barrena

barrue: barrua

beye: behe

bittartie, bitxartie: bitartea

erdidxe: erdia

eskutue: ezkutua

eurrie: aurrea

ganera : gainera

ganie: gainea

godxe: goia

"*Godxen esta egon kuarturik es esebe, olaas dxositxe besterik esebes*" - (*Goian ez da egon gelarik ez ezer ere, oholagaz josita besterik ezer ere ez*)

ingerue: ingurua

kanpoa: kanpoa

ondo: ondo

"*Arrietan, Ikoaneko tabernie elixien ondoan dau ba, oiñ estau tabernie baya, an tabernie on da beti*" - (*Arrietan, Ikoaneko taberna elizaren ondoan dago ba, orain ez dago taberna baina, han taberna egon da beti*)

parajie: paraje, ingurua, gunea

parie: pare, aurrea

parien: parean

"*Len egon be in sen Gernike parien gane ganetxun*" - (*Lehen egon ere egin zen Gernika parean gain-gainetxoan*)

partie: aldea

puntie: punta, muturra

"*Orrek solo bat eukiuen an, andiko partien, da arek buruen ekarteuen sestotxu bet, da eskuen bestetxu bet*" - (*Horrek soro bat eduki zuen han, handiko aldean, eta hark buruan ekartzen zuen otzaratxo bat, eta eskuan bestetxu bat*)

ur, urrien: hurrean, hurbil

"*Bi beintzet amentxe ur urrien daus*" - (*Bi behintzat hamentxe ur-urrean dagoz*)

urrun: urrun

"*Aimeitxeko gu, urrun bixi gintzeles amen, ba ariñau urtetan gendun aimeritxekoa paño*" - (*Abemarietarako gu, urrun bixi ginenez hamen, ba arinago irteten genuen abemarietakoak baino*)

"*Guk, u, urrunera dxoan bixetan gendun, ara dxoateko be kontuek ixetan siren*" -

ARRIETAKO HIZTEGIA

(Guk, urrunera joan behar izaten genuen,
hara joateko ere kontuak izaten ziren)

22.3. MODU ADITZONDOAK

abidxadan: abiadan

adi: adi, begira

agiridxen: agerian

aidien: airean

alagorien: alogeran

albos: alboz

aldrebestara: aldrebestara

alrrebes: aldrebes

"Ori alrrebestatik kendu ixe, imiñixu ondo"
- (Hori aldrebestatik ken ezazu, ipin
ezazu ondo)

andan: andan

andando: martxan

"Bai ba, Fruistik Olabarrire bittartien, e,
errotie oniño andando dabilena dau" -
(Bai ba, Fruistik Olabarrira bitartean,
errota oraindino martxan dabilena dago)

anorrementan: han-hor-hemenetan

antzien: antzean

"Len onek beresko onek dana da bete
beterik, oiñ e, arexe pe esteu emoten
lengo antzien bes" - (Lehen berezko
hauek dena eta bete beterik, orain,
harekek ere ez du ematen)

apenas: ez dirudi, ez liteke pentsa

apropos: nahita

ariñ: arin

arrapaladan: arrapaladan

artega: artega

"Artega daus ganaduek" - (Artega dagoz
ganaduak)

asarre: haserre

askoran: aizkoran

astrapalan: astrapaladan, zarataka

atxurren: atxurren

atzekos eurrera: atzekoz aurrera

atzes: atzez

bakarrien: bakarrean

banan: banan

banan banan: banan-banan

barridxen: berriz, berrito

beintzet: behintzat

"Amen lenau guk esaten gendune beintzet" -
(Hamen lehenago guk esaten genuena
behintzat)

beleuniko, beluniko: belauniko

"Bate bat badau geixorik edo bai, olan
bidien etorri, eta abade bat eta monagillo
bat, beleuniko pareta" - (Baten bat
badago edo bai, holan bidean etorri, eta
abade bat eta meza-lagun bat, belauniko
paratuta)

benetan: benetan

bera adi: behera adi

berbas: berbaz

berbetan: berbetan

berenes: berenez

beres: berez

"Bertan igertu be beres eitten da" - (Bertan
ihartu ere berez egiten da)

biarrien, bierrien: beharrean

bide bates: bide batez

bierbada: beharbada

billurres: bildurrez

botalien: bota ahala

burus: buruz

burus bera: buruz behera

busterridxen: bikoteak txiketetik oratuta
ibiltzea

dandarres: dandarrez

dardakadan: dardakadan

demandan: demandan, istilutan

derrepente: bapatean, halako batetan

derrigor: derrigor

"Elixara derrigor dxoan biar" - (Elizara
derrigor joan behar)

"Orduen derrigor ein biar dala esateoskuen
guri" - (Orduan derrigor egin behar dela
esaten ziguten guri)

derrigorres: derrigorrez

derrigorrien: derrigorrean

drogan: drogan, okerreria, bihurrikerietan

dxantzan: dantzan

"Dxantzan be edadekoak obeto itxeuden
gaste gastie paño, len iketikoa" -
(Dantzan ere edadekoek hobeto egiten
zuten gazte-gazteek baino, lehen
iketikoa)

dxasien: jasean, taiuz

dxorran: jorran

egas: hegaz

egastadan: hegazkadan

en jeneral: gehienetan

ensegida: berehala

eperdis bera: ipurdiz behera

eperdis gora: ipurdiz gora

erara, eratarra: eraz, eskura

eras: eraz

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Eras imiñixu" - (Eraz ipin ezazu)

erdera: erdaraz

erderas: erdaraz

"Erderas dxakiñ es amen da erdera ikesi bier eskolara dxoan da lelengo" - (Erdaraz jakin ez hamen eta erdara ikasi behar eskolara joan eta lehenengo)

erdi bana: erdi bana

erdikiñien: erdikinean

errentan: errentan

erresklan: ilaran, erreskan

"Suk salte itten sendun baya pareta siren igual bost edo sei edo erresklan da ara" - (Zuk saltatu egiten zenuen baina paratzen ziren beharbada bost edo sei edo erreskan eta hara)

errimuen: errimuan

errondan: errondan

"Atxiñe errondan eitte san, neskatoan etzera mutillek etorte siren ba" - (Antzina errondan egiten zen, neskatoaren etxera mutilak etortzen ziren ba)

esato: 1. justu. 2. zehatz

eskapan: iheska

eskien: eskean

eskure: eskura

"Gero ba, denpora ona tatosenien, sabaldu atzera, da ekarri, lepos edo astoakas, edo gurdidxekas, da arridxek imiñi portalien, e, arri serak, da an, eskure txolak" - (Gero ba, eguraldi onak datozenean, zabaldu atzera, eta ekarri, lepoz edo astoakaz, edo gurdiakaz, eta harriak ipini atarian, harri zerak, eta han, eskura txolak)

eskus: eskuz

"Lenau ba eskus, imiñi olan, a, filie arri batzuk imiñi an, da an arridxetan" - (Lehenago ba eskuz, ipini holan, ilara harri batzuk ipini han, eta han harrietan)

etzekoartien: etzeko-artean

eurrekos atzera: aurrekoz atzera

eurres: aurrez

euskera: euskaraz

fijo: ziur

"Estaitt senba tiren fijo" - (Ez dakit zenbat diren ziur)

fillen: ilaran

ganera: gainera

geldi: geldi

gora adi: gora begira, gora adi

gusture: gustora

idxe: ea

igual: beharbada

illedan: ilaran

iruntzetara: iluntzitara

"Iruntzetara dekosu" - (Iluntzitara daukazu)

"Iruntzetara dau ori" - (Iluntzitara dago hori)

ixillien: isilean, ostukarren

jeneralien: orokorrean

kejas: kejaz

konforme: ados

kontrara: kontrara

kontus: kontuz

"Kontus abarketatxuekas apurtu barik igual, e, eure pe ortosik dxoan da gero, lepotik dala, gero imiñi" - (Kontuz abarketatxoakaz apurtu barik beharbada, eurak ere ortozik joan eta gero, lepotik dela, gero ipini)

lapurretan: lapurretan

larri: larri

lau dardan: lau dardan, dardakadaka

lepoan: lepoan

libre: libre, aske

"Otie pentzetan dot libre ixeta sala" - (Otea pentsatzen dut libre izaten zela)

lo: lo

losakonien: lo sakonean

lotan: lotan

lotu esiñik: lotu ezinik

makal: makal, gaixorik

martxan: martxan

"A iminsu martxan ala? es abise barik imiñi" - (A ipini duzu martxan ala? ez abisatu barik ipini)

mesedes: mesedez

mietz: mehatz

narres, narras: narras

"Ori gitxiau useteuen, gurpil bidxek narres, imintte ittusena" - (Hori gutxiago usatzen zuen, gurpil biak narras, ipintzen dituen)

negarres: negarrez

nekes: nekez

"Ori amalau urtegas nekes dau" - (Hori hamalau urtegaz nekez dago)

normalien, normalmentien: normalean

oidales: ohidalez

"Ara! oidales dau oiño ori!" - (Hara! ohidalez dago oraindino hori!)

oñes: oinez

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Estabill oniño oñes" - (Ez dabil ondino oinez)

onien: onean

osoan: osoan

"Onek osoan eitten due etzien sesiñe baya" - (Honek osoan egiten dute etxean zezina baina)

patxadas: patxadaz

peskan: arrantzan

porkeran: porkeran

prest: prest

punten ganién: punten gainean

puntes: puntaz

sallen: sailen

saltatera: saltotara

sasois: sasoiz

segiduen: segituan

segun: segun

seguru: 1. ziur. 2. antza

selatadan: zelatan

"Da gero urrengo domekan be dxoan da, da urrengo domekan berak an mustur batetik selatadan ikusi, da klaro, selatan ikusi tte, ak bera pe ba edadetxue euki deu te, guri segiduteko kapas es, da dxakin deu nortzu tiren da gero neuk pageta neuen danana, etor sen gurera, dxokoan gero illuntzien, da aitteri edo amari esan" - (Eta gero hurrengo domekan ere joan da, eta hurrengo domekan berak han mutur batetik zelatadan ikusi, eta jakina, zelatan ikusi eta, hark berak ere ba edadetxoa eduki du eta, guri jarraitzeko gai ez, eta jakin du nortzuk diren eta gero neuk ordaintzen nuen denena, etorri zen gurera, jokoan gero ilundean, eta aitari edo amari esan)

selatan: zelatan

sietz: zehatz

sikuen: sikuan

sobran: sobran

solte: solte

soltuen, solten: soltuan

sorriketan: zorriketan; oiloak zorriketan dabilzanean euria dakarrela esaten da

surrut: zurrut

tantora: tantora behar egitea, diru finko bategaz egiten den beharra; zenbat eta arinago amaitu gehiago egin daiteke

"Tantora biar eittie da esate baterako, ba baso bat artu dot, e, ba esate baterako,

ogei gixelaneko baso bat, eta bueno piñu sartu bi su te ba, ogei gixelanien, ba seuk kalkulate osu, neuk neure konture iñ, a, biarra, usabari, da au basoa ba semet au, au sulotuteko, ogei gixelan ba esate baterako ba larogei mille peseta, suk ein kontue, onenbeste sillo, onenbeste sera ta bera, ba larogei mille peseta, konforme? es edo bai se, usabaas eitten dosu te ba, artu dosu a tantora, aixe da tantora" - (Tantora behar egitea da esate baterako, ba baso bat hartu dut, ba esate baterako, hogei gixelaneko baso bat, eta beno pinu sartu behar duzu eta ba, hogei gixelanean, ba zeuk kalkulatzen duzu, neuk neure kontura egin, beharra, uzabari, eta baso hau ba zenbat hau, hau zulatzeke, hogei gixelan ba esate baterako ba larogei mila pezeta, zuk egin kontua, honenbeste zulo, honenbeste zera eta bera, ba larogei mila pezeta, konforme? ez edo bai ze, uzabagaz egiten duzu eta ba, hartu duzu hura tantora, huraxe da tantora)

totalien: guztiz

trabes: trabes

trakill: trankil, lasai

txarrien: txarrean

utzien: hutsean

22.4. MAILA ADITZONDOAK

ainbet: hainbat

"Espadeko erremedidxorik, ainbet ariñen il ditxen sufritan on barik" - (Ez badauka erremediorik, hainbat arinen hil dadin sufritzen egon barik)

aiñ: hain

apur bet: apur bat

"Orretarako apur bet, artsanu ixen biar deu, orretarako, pipie etzien eitteko" - (Horretarako apur bat, artisaua izan behar du, horretarako, pipa etxean egiteko)

apurtxu bet: apurtxo bat

bastante: nahikoa

"Bastante altuek ixeten sien" - (Nahiko altuak izaten ziren)

"Bastante andidxe alan, korritan deu orrek, en jeneral orrek geues d'alan ibiltxen dire" - (Nahiko handia halan, korritzen

ARRIETAKO HIZTEGIA

du horrek, gehienetan horiek gauzez eta halan ibiltzen dira)

ia, idxe: ea

konpleto: guztiz, osotoro

lar: lar

"Guretzako onek lar dire" - (Guretzat hauek lar dira)

naikoa, neikoa: nahikoa

ondo: ondo, sano

orren: horren

sano: sano

sietz: zehatz, zeharo

total: guztiz

"Baya ori normala da, esta? total normala" - (Baina hori normala da, ezta? guztiz normala)

"Guk olan usetan gendusen, se, amen, bueno orduen egon san beste biximodu bet, total total apartekoa, diferentie total, orduen bixi bixeta san, lurretik, baserritik" - (Guk holan usatzen genituen, ze, hamen, beno orduan egon zen beste bizimodu bat, guztiz-guztiz apartekoa, desberdina guztiz, orduan bizi behar izaten zen, lurretik, baserritik)

22.5. ZENBATEKOAK

ainbeste: hainbeste

ainbet: hainbat

"Ni baño ainbeta sarrau ori" - (Ni baino hainbat da zaharrago hori)

aonenbeste, aunenbeste: haonenbeste

"Medeliñetik aunenbeste, edo distantzidxe, edo aunenbeste sera, edo aunenbeste emon bi tzaku" - (Medelinak haonenbeste, edo distantzia, edo haonenbeste zera, edo haonenbeste eman behar diogu)

apur bet: apur bat

apurtxu bet: apurtxo bat

arien: arean, zertxobait, apur bat

asko: asko

"Orrek piñuetan egoten dire asko" - (Horiek pinuetan egoten dira asko)

banaka bat, banakan bat: banaka bat

"Amen gitxi ademas egon sien, amen esan orrenbeste ikusi, banakan bat nonon" - (Hamen gutxi gainera egon ziren, hamen ez zen horrenbeste ikusi, banakaren bat non edo non)

bastante: nahikoa

batzuk: batzuk

"Batzu daus, bixidkek, eta beste batzu dire masalak" - (Batzuk dagoz biziak, eta beste batzuk dira mazalak)

dana: dena

"Danak ein dure, neuk estot eiñ iños" - (Denek egin dute, neuk ez dut egin inoiz)

"Danak esanekoak inotzesan, eta gero ser? da ba tapeute imiñi" - (Denak esanekoak egin nizkion, eta gero zer? eta ba tapatuta ipini)

eskandalue: asko

franku: franko

"Etzien beti oten siren, etzien frankutxuau dxate sana ta eskasauak" - (Etxea beti egoten ziren, etxean frankotxoago jaten zena eta eskasagoak)

gedxau, gidxau: gehiago

gedxena: gehiena

gitxi: gutxi

"Batzuk bakodas buruen baya gitxi" - (Batzuk badauzkat buruan baina gutxi)

gitxiu: gutxiago

gustidxe: guztia

ingerue: inguru, gutxi gora behera

"Iru egun ingeru, iru bet egun bittus, bueno segun, bei batzuk ariñau itten dire" - (Hiru egun inguru, hiru bat egun behar ditu, beno segun, behi batzuk arinago egiten dira)

lar: lar

makiñe bat: makina bat

"Makiñe bat urte dire gixona!" - (Makina bat urte dira gizona!)

nadxe: nahia, zenbagura

"Dirue bakixu nadxe dekie" - (Dirua badakizu nahia daukate)

neikoa: nahikoa

oidales: ohidalez, nahikoa, askotxo

onenbeste: honenbeste

"Ogidxe ba, onenbeste ser imiñi, urune, onenbeste, ya meidute imintte, edo apur bekora bera, eta gero sera bota, idxetako, lebadurie, axe nasteu, te arek altzeu itten deu, gero labasue itten sanien kanpoan, ara dxoan da antxe erre" - (Ogia ba, honenbeste zer ipini, irina, honenbeste, ja neurtuta ipinita, edo apur bat gora behera, eta gero zera bota, igotzeko, legamea, huraxe nahastu, eta harek altxatu egiten du, gero labasua egiten

ARRIETAKO HIZTEGIA

zenean kanpoan, hara joan eta hantxe erre)

orrenbeste: horrenbeste

pillo bat: pilo bat

senbegure: zenbagura

ugeri: ugari

22. 6. ADITZONDO KONPOSATUAK

edonon: edonon

"Ori edonon erosi leik" - (Hori edonon eros litekek)

"Asidxe koixu te edonon etxeta, aidera botata be ernetan da ori" - (Hazia hartu eta edonon botata, aidera botata ere ernetzen da hori)

edoselakoa: edozelakoa

"Errasie be orduen ba edoselakoa be eseuken euki, diputasiñoak ya esku sartueskero, suisoa edo orduen, e, oingo beste errasa es egoan" - (Arraza ere orduan ba edozelakoa ere ez zezakeen eduki, aldundiak ja esku sartuz gero, suizarra edo orduan, oraingo beste arraza ez zegoen)

edoselan: edozelan

"Edoselan be batu, artoari sein palueri itten dxakos" - (Edozelan ere batu, artoari zein makilari egiten zaizkio)

edosetara: edozertara

"Orrek edosetara berba itxen dxuek" - (Horiek edozertara berba egiten ditek)

esetara: ezertara

"Ori estok ingo ondo esertara be" - (Hori ez duk egingo ondo ezertara ere)

iñon: inon

"Ikus dok ori iñon?" - (Ikusi duk hori inon?)

"Da ataraten gatxa da, esta ona iñondi pe aixe be" - (Eta ateratzen gaitza da, ez da ona inondik ere huraxe ere)

iños: inoiz

"Iños egoas Donostidxen?" - (Inoiz egon haiz Donostian)

"Ni enas dxoan iños bendejiegas, baya dxoaten diren amen, e, inyabiegas edo olan" - (Ni ez naiz joan inoiz bendejeagaz, baina joaten diren hamen, indabagaz edo holan)

"Neu pe iños ein yot aprobie etzien" - (Neuk ere inoiz egin dut aproba etxean)

non edo an: non edo han

"Ongo dire non edo an" - (Egongo dira non edo han)

nonon: non edo non

"Ongo dire gordeta nonon" - (Egongo dira gordeta non edo non)

"Orrek badxoasak nonora" - (Horiek bazoazek non edo nora)

nosgure: noizgura

"Porrusaldie dxate san nosgure" - (Porrusalda jaten zen noizgura)

nosonos: noiz edo noiz

"Nosonos eitxeuen, ba beste batzuten es, toketan danien" - (Noiz edo noiz egiten zuen, ba beste batzuetan ez, tokatzen denean)

seuselako: zer edo zelako

"Mai bet egote san elispian antzien, d'antxe seuselakoa ataaten tzuelakoa dekot nik se, an nik ikusi dot eta, an atzien, elixien atzien, elispian, antxe itxi, da elixakoa iñ, artun atzera da gero oñes, kanposanture" - (Mahai bat egoten zen elizpean antzean, eta hantxe zer edo zelakoa ateratzen dizutelakoa daukat nik ze, han nik ikusi dut eta, han atzean, elizaren atzean, elizpean, hantxe utzi, eta elizakoa egin, hartu atzera eta gero oinez, kanposantura)

seusetara: zer edo zertara

"Seusetara ingosu ondo" - (Zer edo zertara egingo duzu ondo)

22.7. IZENORDAIN KONPOSATUAK

edonor: edonor

"Edonor etor lei" - (Edonor etor liteke)

edoseiñ: edozein

"Edosein frute sagar madari ingeru gustidxeke ote sien" - (Edozein fruitu sagar madari inguru guztiak egoten ziren)

"Paradie eukitteko diputasiñoak autorise in bideu, e? orduen bai beintzet, ori edoseñek eseuen eukitten" - (Parada edukitzeko aldundiak baimendu egin behar du, e? orduan bai behintzat, hori edozeinek ez zuen edukitzen)

edoser: edozer

"Edoser eukitte osu" - (Edozer edukitzen duzu)

eser: ezer

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Etxoat ekarri eser" - (Ez diat ekarri ezer)

"Eser eros dok?" (Ezer erosi duk?)

iñor: inor

"Eskontzara be iñor bes, gurien iñor besan egon, bederatzi lagun edo egon gintzesan" - (Ezkontzara ere inor ere ez, gurean inor ere ez zen egon, bederatzi lagun edo egon ginen)

"Iñor ikus dok?" - (Inor ikusi duk?)

"Neuri estost iñok iños eiñ, e? neuk estekot akorduen" - (Neuri ez dit inork inoiz egin, e? neuk ez daukat gogoan)

nonor: nor edo nor

"Nonor sartu ok etzien" - (Nor edo nor sartu duk etxean)

"Sasi eskola esaten gendun guk, eskoasenieen etzetik, bueno dxoan etzetik eta, es dxoan eiñeskiñoan eskolara, eskolara dxoan es igual, nonoas dxoan bi dala" - (Sasi eskola esaten genuen guk, ez goazenean etxetik, beno joan atzetik eta, ez joan eginez gero eskolara, eskolara joan ez beharbada, nor edo nogaz joan behar dela)

seuser: zer edo zer

"Seuser apurtuten danien adabarridxe, ori be lenau sen" - (Zer edo zer apurtzen denean adabua, hori ere lehenago zen)

"Seuser emoneskiñon posi taus" - (Zer edo zer emanez gero pozik dagoz)

23. ADITZAK

Atal honetan aditz partizipio bakunak eta konposatuak aurkeztu eta ostean, partizipio eta aditz izenen erabileraz jardungo dugu, horretarako partizipio soilen erabilera, partizipioei eransten zaizkienak eta aditz izenen erabileren gainerako adibideak emango ditugu.

23.1. ADITZ BAKUNAK

abanteu: 1. eutsi. 2. iraun

"Alan alan oten die, tonto baten moduen oten die, ta plast! ill, ill es lusero abanteu" - (Halan halan egoten dira, inuzente baten moduan egoten dira, eta plast! hil, hil ez luzero iraun)

aberastu: aberastu

abieu: abiatu, hasi, ekin

"Lo oneko ok ori, asme esitteko ba, beste batzuk lo surrekoak esaten tze, abietan duenari" - (Lo onekoa duk hori, ez asmatzeko ba, beste batzuk lo zuhurrekoak esaten diote, abiatzen duenari)

abiseu: abisatu

"Medikue abisetan sanien ba, etorte san etzera" - (Medikua abisatzen zenean ba, etortzen zen etxera)

abixerittu: abiasaritu

"Batan bat igual abixerittu be itten da" - (Baten bat beharbada abiasaritu ere egiten da)

abrosidu: abrozidu, gogaitu

"Ni ba gastetan, e, Gernikera ibiltte nau, da Mungidxera dxoan da Mungidxen, abrosidu de esunek, abrosidu Mungidxen, da Gernikera dxoan da itzel paseu" - (Ni ba gastetan, Gernikara ibilita nago, eta Mungiara joan eta Mungian, abrozidu eta ezagunak, abrozidu Mungian, eta Gernikara joan eta itzel pasatu)

aburridu: gogaitu, abrozidu

adixu: aditu, begiratu

adorneu: apaindu

afaldu: afaldu, afaria jan

afotu: afotu

agarreu: oratu

"Erosteko bai, ak saldu itten badeu, baya ak saldu esien nondik agarreko tzasu?" - (Erosteko bai, hark saldu egiten badu, baina hark saldu ezean nondik oratuko diozu?)

agertu: agertu

"Gixon bat edo agertu dxakon edo seuser" - (Gizon bat edo agertu zitzaion edo zer edo zer)

aginyu: 1. bidali. 2. agindu. 3. opetsi, eskeini, agindu

"Ara dxoateko aginyu deu" (Hara joateko agindu du)

aguanteu: 1. iraun 2. eutsi

"Ori, e, gatzagas betetu, oridxo botaten dxakon, da an metxa bat imintxen dxakon lusero aguante deidxen" - (Hori, gatzagaz bete, olio botatzen zitzaion, eta han metxa bat ipintzen zitzaion luzero iraun dezan)

aittetu, aitxetu: aiatu, aipatu

"Sapoa estu aittetu ba" - (Zapoa ez dugu aiatu ba)

ARRIETAKO HIZTEGIA

akabeu: akabatu, amaitu

"Lenau usetan siren, asieskero danak esaten esi leis akabeu, sortzi egunien bes! esi lei ori istoridxori akabeu" - (Lehenago usatzen ziren, hasiz gero denak esaten ezin litezke amaitu, zortzi egunean ere ez! ezin liteke istorio hori amaitu)

aklareu: aklaratu

akordeu: 1. gomutatu. 2. -ri bururatu

"Bai akortanas seusegas" - (Bai gomutatzen naiz zer edo zegaz)

"Enas akordetan orregas" - (Ez naiz gomutatzen horregaz)

akostunbreu: ekandu, ohitu

"Nik olan akostunbre dot, uretan barik ba sikuen, imiñi berakatzak eta, sera, gatza da sikuen gidxerrie txorixotako" - (Nik holan usatu dut, uretan barik ba sikuan, ipini berakatzak eta, zera, gatza eta sikuan giharra txorizoetarako)

alargundu: alargundu

alboratu: alboratu

aldendu: aldendu, galdu, desagertu

aldeu: alde egin

alkileu: alokatu

allegeu: heldu, ailegatu

"Ebai itten tzies batzuk, allegeu esteitten" - (Ebaki egiten dizkiote batzuek, ailegatu ez dadin)

alpertu: alpertu

alrebestu: aldrebestu

altzeu: altxatu

"Gu txikitxuek oyen itxi amak, ta dxoate san ta astokada bedarrak ebaitte etorte san etzera, gu altzeu orduko, serratxuegas" - (Gu txikitxoak ohean utzi amak, eta joaten zen eta astokada belarrak ebakita etortzen zen etxera, gu altxatu orduko, zerratxoagaz)

altziketu: altzikatu

"Gure ama pe, amomak asko itxen txusen, samatik imiñi kordela ta, da aridxe be bai itxeuen eta lanie ekarri eta garbitxu lanie, gero altziketu, kardatu, eta orrek danak eitxen txusen nire amomak" - (Gure amak ere, amamak asko egiten zituen, samatik ipini kordela eta, eta haria ere bai egiten zuen eta artilea ekarri eta garbitu artilea, gero altzikatu, gardatu, eta horiek denak egiten zituen nire amamak)

altzietu: altzikatu

"Atxiñe, aitxe, ni akordeta nas, lanie, olan altzietu, eta gero aregas, txabille olan, e, txabille iños entzun dosu? estosu iños entzun? bakixu selakoa dan? aixe buelatara bueltara batu, lanie lenengo altzietu aixe bueltara bueltara batu, eta agas eitxeuen lanie, eta gero ba amak eta nire aistek eta eitxeuen, ba galtzerdidxek" - (Antzina, aita, ni gomutatzen naiz, artilea, holan altzikatu, eta gero haregaz, txabila holan, txabila inoiz entzun duzu? ez duzu inoiz entzun? badakizu zelakoa den? huraxe bueltara-bueltara batu, artilea lehenengo altzikatu huraxe bueltara-bueltara batu, eta hagaz egiten zuen artilea, eta gero ba amak eta nire ahiztek eta egiten zuten, ba galtzerdiak)

amarillotu: beilegitu

amarreu: lotu, amarratu

"Gero ba ebai, eskure, gero txolak eiñ, amarreu txolie ta ba, serak, arek metak eta einye imiñi" - (Gero ba ebaki, eskura, gero txolak egin, amarratu txola eta ba, zerak, meta haiek eta eginda ipini)

amaseu: amasatu, oreka egin

amateu: amatatu

"Bertan bisten, gu geu eskara sarri egon, e? itxi bedxe selan daon ikusi, da amateu argidxe, etorri eskatzera da itxeron, da emetik dxagon, lantzien bueltatxu bet eiñ, etxunde bedxe, ba orduen, e, arrimetan asi" - (Bertan bizitzen, gu geu ez gara sarri egon, e? utzi behia zelan dagoen ikusi, eta amatatu argia, etorri eskatzera eta itxaron, eta hemendik dxagon, lantzean bueltatxo bat egin, etzanda behia, ba orduan, parajetzen hasi)

amenaseu: zemaitu, mehatxatu

amorrotu: amorratu

"Bat, e, amorrotu in sen, txakur amorrotuek aginke iñ, ta amorrotu in sen, Larrabetzuko semie edo, eta, araiñe dxoan sien, a ta estait nor dxoan siren, gero amorrotute dauenak, txakurre ikusi dana, leku gustidxen txakurre ikusi, gero areri esate san lenau, estaitt ser ei utzien" - (Bat, amorratu egin zen, txakur amorratuak haginka egin, eta amorratu egin zen, Larrabetzuko semea edo, eta, haregana joan ziren, hura eta ez dakit nor joan ziren, gero amorratuta dagoenak, txakurra ikusi dena, leku

ARRIETAKO HIZTEGIA

guztian txakurra ikusi, gero hari esaten zen lehenago, ez dakit zer egin zioten)

amostu: amoztu

anbulotu: anbulatu, korapilatu

andittu, andixu: handitu

"Golpiaz ba, andittu itten da eta gero baltzittu itten da" - (Kolpeagaz ba, handitu egiten da eta gero belztu egiten da)

antojeu: antojatu, nazkatu

antzutu: antzutu

aparejeu: aparejatu

apareu: aparatu

aparteu: 1 apartatu. 2 bizi alargundu, dibortziatu

"Orrek, e, dabilela au baserridxe gero, errentadoriek egon siren amen, amen baserridxen, da berak euki seittusen berantzako aparteute, terreno batzuk, aren etzien laguntasunerako" - (Horrek, darabilela baserri hau gero, errentadoreak egon ziren hamen, hamen baserrian, eta berak eduki zituen berarentzat banatuta, sail batzuk, etxe haren laguntasunerako)

aprobetxeu: baliatu, aprobetxatu

"Baya leku beten olan iminye es, espabese, godxen errota bat, da arek botateuen ure urrungoak aprobetxeu" - (Baina leku baten holan ipinita ez, ezpadaze, goian errota bat, eta hark botatzen zuen ura hurrengoak aprobetxatu)

aprobeu: aproba egin

"Neuk estot aprobeu baya bayetz esaten due" - (Nik ez dut aproba egin baina baietz esaten dute)

apunteu: apuntatu

apurtu: apurtu

"Gero, ostabe, ba dxateko falta egote sales, andik eta artaburuko lotzen dana, a lastagana da, a ostabe apurtute san" - (Gero, ostera ere, ba jateko falta egoten zenez gero, handik eta artabururako lotzen dena, hura lastagaina da, hura ostera ere apurtzen zen)

arduretu: arduratu

argaldu: argaldu

argittu: argitu

arieu: areatu

"Igual a, ibiltte nitzen ididxekas, da aitte defuntue beidxekas, da ama igual artoa eraitten bidxekas, eta ididxekas ba

eurreti, arietan edo" - (Beharbada, ibiltzen nintzen idiakaz, eta aita zena behiakaz, eta ama beharbada artoa ereiten biakaz, eta idiakaz ba aurretik, areatzen edo)

arittu, aritxu: haritu

"Aritxute eroaten txuesan gastetan" - (Harituta eroaten zituen gastetan)

"Onek eitten deu lurre sertu, arittu" - (Honek egiten du lurra zertu, haritu)

armeu: armatu

"Len etziek eitteittuesan, len len, e, etziek, gedxenetan egurren ganien lenengo, egurren ganien armetan ttuesan egurregas" - (Lehen etxeak egiten zituzten, lehen-lehen, etxeak gehienetan egurraren gainean lehenengo, egurraren gainean armatzen zituzten egurragaz)

arrakalatu: arrakaldu

"Arrakalatu in ye edo astilletu in ye" - (Arrakalatu egin da edo astilatu egin da)

arrankeu: arrankatu, erautsi

arrapeu: harrapatu

arraskeu: arraskatu

arraspeu: karrankatu

arregleu: konpondu

"Arregletie ori gatxa, nok arregleko deu ba? barridxe in esien" - (Konpontzea hori gaitza, nork konponduko du ba? berria egin ezean)

arroto: harrotu

"Uliek arrotu ba, uliek arrotu olan gorantza, paretan dienien uliek arrotu dxakosak orreri" - (Ileak harrotu ba, ileak harrotu holan gorantz, paratzen direnean ileak harrotu zaizkiok horri)

artega: artega

artestu: arteztu

artu, artun: hartu

"Artun de plater da gusti bentanatik kanpora bota nittusen" - (Hartu eta plater eta guzti leihotik kanpora bota nituen)

asarratu: haserretu

asegureu: aseguratu

aserteu: asmatu

asetu: asetu

asi: 1. hasi.2. hazi

"Batera antzien asikoak gara gu" - (Batera antzean hazikoak gara gu)

askatu: askatu

asmeu: sentitu, asmatu

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Seuser asmetan deuelako ba" - (Zer edo zer asmatzen duelako ba)

aspilyu: azpildu

astilletu: arrakalatu

astotu: astotu, tematu

astrakeu: azterkatu

astu: ahaztu

"Bai esate san seuser, ser esate san? astu dxat orixe" - (Bai esaten zen zer edo zer, zer esaten zen? ahaztu zait horixe)

"Ixenak astu itten dire ta, gero!" - (Izenak ahaztu egiten dira eta, gero!)

atakeu: eraso

"Gero akabuen ba katuek, e, peligrasoak eta, arek atake tzen" - (Gero azkenean ba katuek, arriskutsuak eta, haiek eraso zioten)

atara: atera

"Ure andik atarateuden" - (Ura handik ateratzen zuten)

"Neskak eseuden urtetan, eurek ataraten txuesan" - (Neskek ez zuten irteten, eurek ateratzen zituzten)

atendidu: atenditu

atertu: atertu

"Ia atertu dxok" - (Ea atertu dik)

atondu: atondu

atrapeu: harrapatu

atrebidu: ausartu

atxurtu: atxurtu

atzeratu: atzeratu

"Erridxen bata bat igual ote san, e, segaittik edo agaittik, biarrak atzeratute edo" - (Herrian baten bat igual egoten zen, zergatik edo hargatik, beharrak atzeratuta edo)

aurreratu, eurreratu: aurreratu

"Aurreratute datos, geuse asko, asko" - (Aurreratuta datoz, gauza asko, asko)

bajatu, bajetu, bajeu: jaitsi, bajatu

baloreu: baloratu

baltzittu, baltzixu: belztu, beltzitu

baltzundu: belztu

banandu: banandu

bañeu: bainu hartu

"Bertan, e, dxoate siren, bañetan ta jentie" - (Bertan, joaten ziren, bainu hartzen eta jendea)

bardinyu: berdindu

barristeu, barristu: berriztatu

barrunteu: barruntatu, sentitu

"Arek barrunteuen" - (Hark barruntatu zuen)

bateatu: bataiatu

batu, batun: batu

"Abadientzako san, a batzien sana" - (Abadeentzat zen, hura batzen zena)

"Totoatan ba al dune, totoa esaten dxako, jentie batu te biarra iñ, an serien usetan da, lagunten etortie, a esta kobreu be itten" - (Totoetan ba ahal duguna, totoa esaten zaio, jendea batu eta beharra egin, han zerean usatzen da, laguntzen etortzea, hura ez da kobratu ere egiten)

bautiseu: bataiatu

"Selan esaten dxakon areri elixara dxoaten sienak bautise ta gero?" - (Zelan esaten zitzaion hari elizara joaten zirenak bataiatu eta gero?)

"Olabarrin bautiseta daus" - (Olabarrin bataiatuta dagoz)

begitxu, beittu, beixu: begiratu

"Arpegire iños beseuen begitxuten, beti olantxe bera begire" - (Aurpegira inoiz ere ez zuen begiratzen, beti holantxe behera begira)

"Kalien neskatoa ikusten badeu abadiak alborantza beixu, ya tentasiñoa andrie ikusitxe" - (Kalean neskatoa ikusten badu abadeak alborantza begiratu, ja tentazioa andrea ikusita)

belutu: belutu, berandutu

bentzidu: desorekatu

beratu: beratu

"A narrue beratuten uretan eukitxeuen, ta bigundu itxe san" - (Narru hura beratzen uretan edukitzen zuen, eta bigundu egiten zen)

berdatu: 1. berdetu. 2. haserratu

"Urtenda badau, emen berautik garbittu apur bet lurre, eta koisten dxakon ba oidalako trongue, oidalako sera, esparragoa koiste san, eta goixien goixien sur ibilli eguskidxeuk ukutu orduko, se gero berdatu itten da, eta arittu eitten da asko" - (Urtenda badago, hemen beheragotik garbitu apur bat lurra, eta hartzen zaion ba ohidalako enborra, ohidalako zera, zainzuria hartzen zen, eta goizean-goizean zuhur ibili eguzkiak ikutu orduko, ze gero berdetu egiten da, eta haritu egiten da asko)

ARRIETAKO HIZTEGIA

berinketu: bedeinkatu

"Egun orretan bereinketu serak, aidxe edo, da batzuk eitxen txuesan, e, soloatarako be, gero ara bota" - (Egun horretan bedeinkatu zerak, aiha edo, eta batzuek egiten zituzten, soroetarako ere, gero hara bota)

"Esetu ot nik ori, etorri tte soloak bereinketuten bai" - (Ezagutu dut nik hori, etorri eta soroak bedeinkatzen bai)

"Dana, madxe bereinketu itte san ba, asi orduko" - (Dena, mahaia bedeinkatu egiten zen ba, hasi orduko)

berenotu: pozoitu

berotu: berotu

"Berotu itten deu ganadue" - (Berotu egiten du ganadua)

bertakotu: bertakotu

bertokotu: bertokotu

"Oin ya esaten due batzuk bertokotu dala, esta egidxe, ointxe be emegrasiñokoa da, oin be orrek estaus ya, baya belurarte aguante itten deu dxoan barik" - (Orain ja esaten dute batzuek bertokotu dela, ez da egia, oraintxe ere emigraziokoa da, orain ere horiek ez dagoz, baina belura arte irauan egiten du joan barik)

beskaldu: bazkaldu

beterinadxotu: beterinariotu

betetu, bete: bete

bidxortu: bihurtu

bigundu: bigundu

"Bigunduten sanien eitxen san abarkie" - (Biguntzen zenean egiten zen abarka)

bijileu: sorotsi

bildurtu: bildurtu

biribilyu: biribildu

bisiteu, bisitteu: bisitatu

"Bisittetan etor dxakon" - (Bisitatzen etorri zitzaion)

biskortu: bizkortu

"Denpora ona eiñeskiñon billotza rap! biskortuten da, baya iñetasidxe t'olan badau ardidxe be triste oten da" - (Eguraldi ona eginez gero bildotsa rap! bizkortzen da, baina inetasia eta holan badago ardia ere triste egoten da)

bistu: biztu

bolatu: bolatu, bolak egin artilea

borreu: bihurtu

bota: 1. bota.2.bidali

"Ori ona dala esateuden da botatesan" - (Hori ona dela esaten zuten eta botatzen zen)

broteu: erne

"Esate baterako gorautik ebai eskeiñoan, ba brote itten deu arek, baya berautik dxaten deueles, ak gedxau esteu emoten" - (Esate baterako goragotik ebakiz gero, ba erne egiten da hura, baina beheragotik jaten duenez gero, hark gehiago ez du ematen)

buelatu: buelatu, itzuli

burutu: burutu, burua egin

bustertu: buztartu

"Euren kridxedu lelengo ixenda, ori dudebakoa da, da gero apurke apurke, geur be bustertu apur beten da, urrengo osterabe bidxer edo etzi" - (Euren morroi lehenengo izanda, hori dudabakoa da, eta gero apurka-apurka, gaur ere buztartu apur baten eta, hurrengo osterera ere bihar edo etzi)

busti: busti

damutu: damutu

dardieu: dardartu

dedikeu: dedikatu

"Pastan dana baserriidxen ba, txala padekosus, esnie be saldu biosu, ba laborie be koixu bisu, askotara dediketan sara ta akabuen, fijamentien bateri dedikeu bierrien askotarakoan, estosu atenditan" - (Pasatzen dena baserrian ba, txahalak badauzkazu, esnea ere saldu behar duzu, ba laborea ere hartu behar duzu, askotara dedikatzen zara eta azkenean, finko bati dedikatu beharrean askotarakoan, ez duzu atenditzen)

defendidu: defendatu

deittu, deitxu, geittu: deitu

"Mediku bateri deittuten dxakoles ba, areri deittu itten dxaken" - (Mediku bati deitzen zaionez ba, haiei deitu egiten zitzaien)

dendatu: dendatu

desaparesidu: desagertu

desbieu: desbideratu

deseiñ, desiñ: desegin

"Antxe dau errotie oniño, egon ein siren amen gedxau errotak, deseinye daus amen errotak" - (Hantxe dago errota oraindino, egon egin ziren hamen)

ARRIETAKO HIZTEGIA

gehiago errotak, deseginda dagoz hamen errotak)

deskantzeu: deskantsatu

deskargeu: deskargatu

"Onen ama ixen san, Bilbon mollien ikes deskargetan barkutik ibillikoa, kridxeda egon san Bilbon, gastetan, eta ibil sen mollien iketza deskargetan" - (Honen ama izan zen, Bilbon kaian iketza deskargatzen barkutik ibilikoa, neskame egon zen Bilbon, gaztetan, eta ibili zen kaian iketza deskargatzen)

deskuideu: deskuidatu

desmayeu: zorabiatu, konortea galdu

destenpleu: tenplea galdu

detenidu: atxilotu

dibididu: zatitu, zatiketa egin

dibujeu: marraztu

dirijidu: bideratu, zuzendu

diskutidu: eztabadatu

dobleu: tolestu

domiñeu: menperatu

dutxeu: dutxatu

dxadxo: jaio

dxagi: jaiki

dxagon: jagon

"Tratu ikeran ixeta san ori, esate baterako bei bet saltzen baosu, edo erosi itten baosu, bardiñ, ba tratu itten dosunien akabuko berbie, eskue emon da Sanantoniok dxagon deidxela" - (Tratu egikeran izaten zen hori, esate baterako behi bat saltzen baduzu, edo erosi egiten baduzu, berdin, ba tratu egiten duzunean azkeneko berba, eskua eman eta San Antoniok jagon dezala)

dxagoneu: xaboiztatu

dxakiñ: jakin

"Su orti kanpora saus, bardin tzo, aittek dxakingo deu" - (Zu hortik kanpora zagoz, berdin dio, aita jakingo du)

"Se gure dosu dxakin ba nigandik?" - (Zer gura duzu jakin ba nigandik?)

"Dxakitten dosu no tekon klase ona, tomatie edo" - (Jakiten duzu nork daukan mota ona, tomatea edo)

dxalgi: erion, urustu

"Or itxi dot dxakie ure dxalgitxen" - (Hor utzi dut jaka ura jalgitzen)

dxan: jan

dxantzi: jantzi

"Dxantzitze nitzen, ta eitxen gendun al dana" - (Janzten nintzen, eta egiten genuen ahal dena)

dxatzi: eraitsi

dxaurti: jaurti

dxausi, dxekusi: jausi

"Goixien imintten baosu artes deko beroa ta dxekusi itten da piperra" - (Goizean ipintzen baduzu artez dauka beroa eta jausi egiten da piperra)

dxesarri: jesarri

"Elixara dxoan bierrien barridxo, il yanan etzera etorte siren, da antxe erreseu, andra bat ote san eusokoa, ba, apur bet, berak sertzen deuena ta aixek erresetauen ta danok dxesarri txe aixe erreseu" - (Elizara joan beharrean auzotegia, hil denaren etxera etortzen ziren, eta hantxe errezatu, andre bat egoten zen auzokoa, ba, apur bat, berak zertzen duena eta harexek errezatzen zuen eta denok jesarri eta huraxe errezatu)

dxo: 1. jo. 2. musika jo. 3. txoriek jo. 4. birrindu

dxoan: joan

"Baten ein gendun andik bera dxoan" - (Baten egin genuen handik behera joan)

dxokatu: 1. postura egin. 2. karta jokoan ibili, aritu

dxorratu: jorratu

"Artoartien dauen bedarra, ba atxurreas dxorratu, oiñ, latzien, esan dune landa baten, labretako a ganeko bedarra kendu, an eratzi" - (Arto artean dagoen belarra, ba aitzurragaz jorratu, orain, lantzean, esan duguna landa baten, lantzeko gaineko belar hura kendu, ha eratzi)

"Dxorratu es, bueno, onetan beyetan bedar asko eitten dxako, leku batzutan, a, bedarra eitten dxakon asko, ta leku batzutan dxorratu eitteuen, arek bedar andidxe kendu edo eitteuen, nik neuk estot iños eiñ" - (Jorratu ez, beno, behe hauetan belar asko egiten zaio, leku batzuetan, belarra egiten zitzaion asko, eta leku batzuetan jorratu egiten zuten, belar handi haiek kendu edo egiten zuten, nik neuk ez dut inoiz egin)

dxosi: josi

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Beste batzuk eitten due biges, baya gero dxosi" - (Beste batzuek egiten dute bigaz, baina gero josi)

"Gure gurdidzek beti eukitxe seuen ola dxositxe ya" - (Gure gurdiak beti edukitzen zuen ohola josita ja)

ebai: ebaki, ebagi

"Geurien be iños ebai du" - (Geurean ere inoiz ebaki dugu)

"Lengo bateti ebai espadotze, enas fijeju" - (Lehengo batetik ebaki ez badiote, ez naiz konturatu)

edan: edan

egarritsu: egarritu

egon: egon

"Ara gora dxoateko, oiñ, e, egon estau iñor" - (Hara gora joateko, orain, egon ez dago inor)

egosi: egosi

"Lenau inyabieri sartute dxakon asko, sesiñe, imiñi egun erdi bet eurrerau gasatuten, da inyabias egosi gero, oingo okelie baño gosoaua" - (Lehenago indabari sartzen zitzaion asko, zezina ipini egun erdi bat aurrerago gazatzen, eta indabagaz egosi gero, oraingo okela baino gozoagoa)

egostu: egostu

egurtu: egurtu

eidxo, edxo, idxo: eho

"Eidxote oskun, Fruisko errotari batek, orra etorten giñen" - (Ehotzen zigun, Fruizko errotari batek, horra etortzen ginen)

"Bai artoa ta idxoten deuen, estakixu? Olatxu" - (Bai artoa eta ehotzen dauena, ez dakizu? Olatxu)

eiñ, iñ: egin

"Arrietarrak estu iños be iñ bakidxotarraas" - (Arrietarrak ez dugu inoiz ere egin bakiotarragaz)

"Leku batzuten eitxe san, Arrietan bai eitxeudien ori, baya amen estun eitxen" - (Leku batzuetan egiten zen, Arrietan bai egiten zuten hori, baina hamen ez genuen egiten)

ekarri: ekarri

ekiñ: ekin

ekusi: ikusi

ekutu: ikutu

eldu: 1. heldu, umotu. 2. pertsonak ere bai

"Aunke berandu einye be, onek oniño elduten denporie bi deu, ba es sasoi

berak, edo eldu edo paseu itten deu" - (Berandu eginda ere, honek oraindino heltzen denbora behar du, ba ez sasoi berak, edo heldu edo pasatu egiten du)

elejidu: aukeratu, hautatu

emon: 1. eman. 2. itxura eduki, iruditu

"Orre pe dxaten emon da gero emoteuden produñoa" - (Horiek ere jaten eman eta gero ematen zuten produkzioa)

"Iguar seuser emongo tzien, seuser, etzerako seuserxu edo, baya ostantzien es, eser bes" - (Beharbada zer edo zer emango zioten, zer edo zer, etxerako zer edo zertxo edo, baina osterantzean ez, ezer ere ez)

enamoreu: maitemindu

enboteu: enbotatu

endredeu: endredatu

engañeu: engainatu

"Lurre esta engañetan, gizona bai" - (Lurra ez da engainatzen, gizona bai)

engantxeu: engantxatu

"Arek imintte dxakosan moñotxueri, amen, engantxeute, eskapeu esteidxen, aixiegas edo" - (Haiek ipintzen zitzaizkion moinetari, hamen engantxatuta, eskapa ez dezaten, haizeagaz edo)

enkargeu: enkargatu

"Gero aregas, norberak enkargeu biar ixeteuen, esta?" - (Gero haregaz norberak enkargatu behar izaten zuen, ezta?)

enpageu: enpagatu, antojatu

enpateu: hainbanatu, parra egin

enpatxeu: enpatxatu

entendidu, entenidu: ulertu

"Ori erres entenitan dot nik" - (Hori erraz ulertzen dut nik)

entereu: enteratu

"Onek entere bestires eitxen, saratiegaitxi pe" - (Hauek enteratu ere ez dira egiten, zaratagatik ere)

enterreu: ehortzi

"Nik estakitx enterre itxen basuesan baya, gure gixonak, gure tia batek euki suen olan, dxadxo san, baya dxadxo es, aborto modu antzien edo olan dxadxo san, da onek ekar suen, gure gixonak ekar suen, kanposanture, da an, e, an eurretxuen egon san len ba, sasidzek oin dausen lekuen, antxe enterre suen" - (Nik ez dakit ehortzi egiten bazituen baina, gure

ARRIETAKO HIZTEGIA

gizonak, gure izeko batek eduki zuen holan, jaio zen, baina jaio ez, aborto modu antzean edo holan jaio zen, eta honek ekarri zuen, gure gizonak ekarri zuen, kanposantura, eta han, han aurretxoan egon zen lehen ba, sasiak orain dagozen lekuan, hantxe ehortzi zuen)

entregu: eman

entreneu: entrenatu

entretenu: entretenu

entzun: entzun

"Askori entzun tzat ori" - (Askori entzun diot hori)

eon: egon

epeldu: epeldu

erabilli: erabili

"Nik erabiltten dotena egunien egunien auxe da kendu barik, kutxilloa" - (Nik erabiltzen dudana egunean-egunean hauxe da kendu barik, kutxiloa)

eraiñ, ereiñ: 1. erein. 2. eragin. 3. eragin faktitiboa

"Bueno arik eta bera eraiñekoa galdu arte edo, produziñoa galtzen asi arte" - (Beno harik eta bera ereinekora galdu arte edo, ekoizpena galtzen hasi arte)

"Oin ser pasetan da? oiñ estau sasoirik segaitti se eraiñ esta itten" - (Orain zer pasatzen da? orain ez dago sasoirik zergatik ze erein ez da egiten)

"Eskolan ibilte sienien, bai iños eiñ eraiñ oskun olako, maistriek, telaskotxuek, trapuskotxuek, orre pai" - (Eskolan ibiltzen zirenean, bai inoiz egin eragin zigun holako, maistrak, ehunezkotxoak, trapuzkotxoak, horiek bai)

erakutzi: erakutsi

eran, eroan: eroan

"Au etzie kasu beterako familidxeik es edo, edoser eukitte osu, da bidxok bixi gara, da au familidxek eroa lei baya au bixi bada, bixi dan artien ama edo aitte, arentzako" - (Etxe hau kasu baterako familiarik ez edo, edozer edukitzen duzu, eta biok bizi gara, eta hau familiak eroan lezake baina hau bizi bada, bizi den artean ama edo aita, harentzat)

erantzi: erantzi

erantzun: erantzun

eraso: eraso

"Da beste geuse ba ta, kasureko, ba, eraso eraiñ, suk gure estosune esate baterako neuk eraitten tzut" - (Eta beste gauza bat da, kasurako, ba eraso eragin, zuk gura ez duzuna esate baterako neuk eragiten dizut)

erason: esanerazi

"Mesie erasoten lagundu tzo" - (Meza erasoten lagundu dio)

eratzi: 1. eratzi. 2. eraitsi, jaitsi

"Ba eratzi, eratzi gedxau da, latza, esate baterako las dauen landa baten, areri, lurre kendu atxurreas kentzie, a da eratzi" - (Ba eratzi, eratzi gehiago da, latza, esate baterako latz dagoen landa baten, hari, lurra kendu aitzurragaz kentzea, hura da eratzi)

erbistu: orbiztu

erdibittu: erdibitu

erdu: erdu, erduzie; etortzeko agintera moduan erabiltzen dira

"Erdu ona ba" - (Erdu hona bai)

ereiñ: erein

eretxi: eritzi, iritzi

erne: erne

"Asidxe koixu te edonon etxeta, aidera botata be ernetan da ori" - (Hazia hartu eta edonon botata, aidera botata ere ernetzen da hori)

"Kontraridxo asko dau, pistidxetan kontraridxo asko, beti egon bi de sur, ernekeran ia seuser badabill espadabill, eta ba eskiñetan, e, ori barana edo karakolana ta bota ta etor didxen bera bakarrik, ostantzien bedarra pe asko ataketan tzo, d'arek atara in bitzasus, bera koixu gure bosu te, atentziñoa bi deu, derrigor bi deu seuser gedxau" - (Kontrario asko dago, piztitan kontrario asko, beti egon behar da zuhur, ernekeran ea zer edo zer badabil ez badabil, eta ba eskinetan, bareen hori edo barraskiloena eta bota eta etor dadin bera bakarrik, osterantzean belarrak ere asko erasotzen dio, eta haiek atera egin behar dizkiozu, bera hartu gura baduzu eta, atentzioa behar du, derrigor behar du zer edo zer gehiago)

"Asala ittie da ona, asala itten espotzo, erne be estire itten" - (Azala egitea da ona, azala egiten ez badio, erne ere ez dira egiten)

ARRIETAKO HIZTEGIA

ernegeu: ernegatu

eroan, eran: eroan

erosi: erosi

"Bai egote san, baya erosikoa a be, erosikoa, aolango, ni be esetute nau" - (Bai egoten zen, baina erosikoa hura ere, erosikoa, haolako, ni ere ezagututa nago)

erradureu: perratu

erratu: huts egin

erre: erre

"Surpie deko erreta onek umiek" - (Surpea dauka erreta ume honek)

erregaleu: erregalatu, opaldu

erregeu: ureztatu, ura egin

erreguleu: erregulatu

"Apur bekora bera imintten da lelengo ta gero orrek, e, ba apurtxu bet gora, gedxau gitxiau ba, orregas erreguletan da edxoteko bi dan moduen" - (Apur bat gora behera ipintzen da lehenengo eta gero horiek, ba apurtxu bat gora, gehiago gutxiago ba, horregaz erregulatzen da ehotzeko behar den moduan)

errementeu: lehertu

errepereu: erreparatu

errepertidu: banatu, banandu

errepaseu: errepasatu

errepetidu: errepikatu

erreseu: otoitz egin, erregutu

"Anjelus erresetan san, bai soloan egonda be bardiñ e" - (Anjelus errezatzen zen, bai soroan egonda ere berdin)

"Lenau ba, erate sienien bautisetan, esaten dxakon aitxebitxiri, ondo erreseu kredoa gero e!" - (Lehenago ba, eroaten zirenean bataiatzen, esaten zitzaion aitabitxiri, ondo errezatu kredoa gero, e!)

errespeteu: errespetatu

errestu: erraztu

erresulteu: erresultatu

erretalleu: erretailatu

erretireu: erretiratu

errimeu: errimatu, parajetu

esan: esan

"Orrek esteu eselan be itxen iñon esanik" - (Horrek ez du ezelan ere egiten inoren esanik)

esarri: oiloak habian jesarri

"Oloa ba, txitxek atarateko esarritte esate san, esarritte oloa, eta trugoyek, e, ba, usteldu esteitzien, edo burdiñe satitxu bet

edo askora sati bet aren abidxen aspidxen imiñitte" - (Oiloa ba, txitak ateratzeko ezarrita esaten zen, ezarrita oiloa, eta trumoiek, ba, usteldu ez diezaioten, edo burdina zatitxu bat edo aizkora zati bat habia haren azpian ipinita)

esetu: ezagutu

"Estot esetu ori" - (Ez dut ezagutu hori)

eskapeu: ihes egin

"Pasetan dxakune da, guri oiñ, ariñ eskapentan dosku" - (Pasatzen zaiguna da, guri orain, arin eskapatzen digu)

eskastu: eskastu

eskatu: eskatu

"Arbolie eskatu euen orrek, bakotxak emon deidxela arbola bana" - (Arbola eskatu zuen horrek, bakoitzak eman dezala arbola bana)

eskei: eskegi

"Eskeitte ote san a, ganadu busterridxeri, edari tte igurdi itteko, aparteu itte san a" - (Eskegita egoten zen hura, ganadu buztarriari, hedeei eta igurtzi egiteko, apartatu egiten zen hura)

"Or egote san eskeitxeko, olan, a, orman sartunde, olan a, egur bet, bastante luse antzekoa, olan serien, da antxe eskeitxe" - (Hor egoten zen eskegitzeko, holan, horman sartuta, holan, egur bat, nahiko luze antzekoa, holan zerean, eta hantxe eskegita)

eskojidu: aukeratu

eskondu: ezkondu

"Igual ixte lei andregadxe ixen baya, gero eskondu es bape" - (Beharbada izan liteke andregaiia izan baina, gero ezkondu ez bat ere)

"Ikusi, ordun Arrietako at Busturiko atas selan eskonduko san? Arrietakoak eseuen Arrietarik kanpora urtetan da" - (Ikusi, orduan Arrietako bat Busturiko bategaz zelan ezkonduko zen? Arrietakoek ez zuten Arrietatik kanpora irteten eta)

"Eskondu atzaldietan da esien eitxen len, atzaldietan iñor bes, goixera danak, gedxenak goixeko sortzirek ingeruen edo olan eskontze sien" - (Ezkondu arratsaldeetan eta ez ziren egiten lehen, arratsaldeetan inor ere ez, goizera danak, gehienak goizeko zortziak inguruan edo holan ezkontzen ziren)

ARRIETAKO HIZTEGIA

eskribidu: idatzi

esplikeu: azaldu

"Orduen jentie sur egon san da dana ikesteuen burus, eta eskolara dxoan, eta ogetamar maistriren bueltan olan, da maestriek esplikeu, eta a be burus ikesten gendun esplikasiñoa" - (Orduan jendea zuhur egon zen eta dena ikasten zuen buruz, eta eskolara joan, eta hogeita hamar maistraren bueltan holan, eta maistrak azaldu, eta hura ere buruz ikasten genuen azalpena)

estaldu: estali, izkutatu

"Edosein, bisikletan edo seraas bator be arik eta abadie estaldu artien mogidu bes, geldi" - (Edozein, bizikletan edo zeragaz badator ere harik eta abadea estali arte mugitu ere ez, geldi)

estimeu: preziatu

estimeu: preziatu

estrañeu: estrainatu

estropeseu: eztropezatu

estropeu: hondatu, galdu

"Konsumitan esposu ariñ, bai gero akabureko orduko estropeu itten da" - (Kontsumitzen ez baduzu arin, bai gero amaiera orduko hondatu egiten da)

estudidxeu: estudiatu

etorri: etorri

"Bai baya au etorri txe gero dxoanta" - (Bai baina hau etorri eta gero joanda)

etxeu: bota

etxun, itxun: etzan

"Ardixe itxunde selan dau an ba?" - (Ardia etzanda zelan dago han ba?)

etzeratu: etxeratu

eukiñ, euki: eduki

"Eta orrek eukitteuden ori, urterako igual itxitte" - (Eta horiek edukitzen zuten hori, urterako beharbada utzita)

"Bai danak euki due, baya eneke esango" - (Bai denek eduki dute, baina ez nuke esango)

eurreratu: aurreratu

eusi: hautsi

eutzi, euntzi: eutsi

falleu: huts egin

falteu: faltatu

fermenteu: fermentatu

fijeu: konturatu

"Ni fije nas eskoatara eitten deuelakoa" - (Ni konturatu naiz eskoatara egiten deuelakoa)

finyu: findu

firmeu: sinatu

formeu: formatu

freneu: galgatu

"Senbat eta gogorrau imiñi, freneu obeto" - (Zenbat eta gogorrago ipini galgatu hobeto)

fumeu: erre

"Arto bixarra, a fumetan be esetu ot nik, geu pe txikitten eitten gendun!" - (Arto bizarra, hura erretzen ere ezagutu dut nik, geuk ere txikitan egiten genuen!)

"Ni neuk lenau fumeta neuen" - (Nik neuk lehenago erretzen nuen)

"Fumetako papela bai askok ori itxe seuen" - (Erretzeko papera bai askok hori egiten zuen)

funtzioneu: funtzionatu

galaso, galaraso: galarazo, galazo, debekatu

galbanatu: gogogetu

"Bero larridxeas igual? esta egoten ondo esan gusu? malaganatute nau igual esaten dosu, bero larridxeas galbanatute nau, galbanatute gedxau" - (Bero larriagaz beharbada? ez da egoten ondo esan gura duzu? larrituta nago beharbada esaten duzu, bero larriagaz gogogetuta nago, gogogetuta gehiago)

galdu: 1. galdu. 2. piztiak eta landareak desagertu

galtzietu: galtzairatu

garandu: garandu, aletu

garatu: garatu

garbittu, garbitxu: garbitu

"Garbittu uregas etzien paseta siren" - (Garbitu uragaz etxean pasatzen ziren)

gardostu, galdastu: gardolostu

garrastu: garrastu

gasatu: gezaldu, gazatu

"Bai baya sesiñe gasatu itten da gero, prestatetako gasatu itten da, edo esnetan edo uretan edo, metodo asko daus" - (Bai baina zezina gazatu egiten da gero, prestatzeko gazatu egiten da, edo esnetan edo uretan edo, metodo asko dagoz)

gasitxu: gazitu

gastetu: gaztetu

gasteu: 1. gastatu. 2. higitu

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Amasortzidxen ixen da bete, ta oin gastetan doa" - (Hamazortzian izan da bete, eta orain gastatzen doa)

geittu: deitu

geitxu, geittu: gehitu

geixotu: gaixotu

"Ollootan, bat geixotuten bada, nasteu itxen dire danak, ta konejuetan be bai" - (Oiloetan, bat gaixotzen bada, nahastu egiten dira denak, eta untxietan ere bai)

gitxittu, gitxitxu: gutxitu

gixondu: gizondu

goberneu: gobernatu

gogoittu: gogaitu

gogortu: gogortu

"Orrek bisagrak gogortu in dire" - (Bisagra horiek gogortu egin dira)

goldatu: goldatu

gonbitteu: gonbitatu

gorde: gorde

"Ongo dire gordeta nonon" - (Egongo dira gordeta non edo non)

gorrittu: gorritu

"Piperrak esate baterako, orrek txorixeruek, siketan dus oiñ, gorrittu te gero, orrek orduen ba, txorixotako ta itten dus askatu, eta imiñi beratuten da euren jugoa atarateko, saldie atarateko ta, orduntxe ikeran, arek asidxe aparteu" - (Piperrak esate baterako, txorizeru horiek, sikatzen ditugu orain, gorritu eta gero, horiek orduan ba, txorizoetarako eta egiten ditugu askatu, eta ipini beratzen eta euren ura ateratzeko, saltsa ateratzeko eta, orduantxe egikeran, hazi haiek apartatu)

"Denpora otzien piperra gorrittu itten da" - (Eguraldi hotzean piperra gorritu egiten da)

gortu: gortu

gosatu: gozatu

gosetu: gosetu

grabeu: grabatu

gradueu: graduatu

gusteu: gustatu

"Berari gusteu asko babie, ta itzel dxaten deu, gosoa da" - (Berari gustatu asko baba, eta itzel jaten du, gozoa da)

ibilli: 1. ibili. 2. erabili

"Nire amoma pe ibiltxeuen" - (Nire amamak ere erabiltzen zuen)

ideltzeu: igeltsatu

idi, iri: ireki, zabaldu

idxen, idxon: igan

"Orreaittik klase txarra dana igual eitten dire ondo agarre in bierrien, gora idxon, sildu" - (Horregatik mota txarra dena beharbada egiten dira ondo oratu egin beharrean, gora igon, zildu)

igerri: igarri

"Or akabe notzan ba, seuser igerri esteisten baya eraiñ eskendun eiñ" - (Hor amaitu nion ba, zer edo zer igarri ez diezadan baina erein ez genuen egin)

igertu, iertu: 1. ihartu. 2. xigortu

"A berakoa ya galdute lotzen da igertute" - (Beherako hura ja galduta lotzen da ihartuta)

"Ba badau diferentzidxe, e? artoa ondo igertute badau, edo ondo trateta badau, badau diferentzidxe, edo gitxi einye badau se, orrek beorre pe, gitxi igertute badau, gitxiau bota bi dxako, a edxo in didxen" - (Ba badago desberdintasuna, e? artoa ondo igertuta badago, edo ondo tratatuta badago, badago desberdintasuna, edo gutxi eginda badago ze, horrek berorrek ere, gutxi igertuta badago, gutxiago bota behar zaio, hura eho egin dezan)

igurdi, igurtzi, igusi: igurtzi

ikeratu: ikaratu

"Ni ointxe be ikeratu itxe nas orrekas geusekas" - (Ni oraintxe ere ikaratu egiten naiz gauza horiekaz)

ikesi, ikisi: ikasi

"Erdi beres ikesiko geusie, esan egoten oingo beste" - (Erdi berez ikasiko gauza, ez zen egoten oraingo beste)

"Guk ikesi gendun euskerie, ondo ikesi du, errepublikien denporan, gerraurrien" - (Guk ikasi genuen euskara, ondo ikasi dugu, errepublikaren sasoiaren, gerra aurrean)

iki: eduki

ikoldu: ikoldu

ikusi: ikusi

"Larogeta urtien ikesi lei gedxau, esta? edo ikusi lei gedxau" - (Larogeta urtean ikas liteke gehiago, ezta? edo ikus liteke gehiago)

ikutu, ukutu: ikutu

"Ukutu in barik saltetauen ganetik" - (Ikutu egin barik salto egiten zuen gainetik)

ARRIETAKO HIZTEGIA

ilbandu: ilbaindu

ill: hil

"Bai olan a, guri be iru txikitxu il dxakusen, iru aiste da etzien bautisetan seixxusen ak" - (Bai holan hura, guri ere hiru txikitxo hil zitzaizkigun, hiru ahizta eta etxean bataiatzen zituen hark)

"Patxiko ariñau eskondu sen Kalisto il baño" - (Patxiko arinago ezkondu zen Kalisto hil baino)

illunabartu: ilunabartu

"Illunabartu deu" - (Ilunabartu du)

illundu: ilundu

"Ene Sollube dau illundute, ta in ein bi deu" - (Ene Sollube dago ilunduta, eta egin egin behar du)

imiñi: ipini

"Ardidxek kendu te ganadue imiñi euen" - (Ardiak kendu eta ganadua ipini zuen)

inkeu: inkatu

"Olan inketa badaus begidxek begiko katarroa" - (Holan inkatuta badagoz begiak begiko katarroa)

intereseu: interesatu

inyertu: indartu

iñ: egin

iñusentetu: inuzentetu

iñusi: inausi

"Iñusi de, ba arbola, piñuerei erramak kentzie" - (Inausi da, ba arbola, pinuari erramak kentzea)

irebasi: irabazi

"Dxoko osoa itten basu, ba dxokoa irebasten dosu" - (Joko osoa egiten baduzu, ba jokoa irabazten duzu)

irekatzi, irikatzi: irakatsi

"Ariñaukoak irekatxitxe dekot nik euskerie baya" - (Arinagokoek irakatsita daukat nik euskara)

"Ori esan doten moduen, selako ididxek? biarrien dakidxenak, bai ekar dus baya estakidxena pe ta etzien irekatzi be bai" - (Hori esan dudan moduan, zelako idiak? beharrean dakitenak, bai ekarri ditugu baina ez dakitenak ere eta etxean irakatsi ere bai)

iri: ireki, zabaldu

irikiñ: irakin

"Ure irikiñ, esta? ta gero epelduten danien, ba, garbitxu" - (Ura irakin, ezta? eta gero epeltzen denean ba, garbitu)

irukurtzi: irukurtzi

"Irukurtzi ixu ori katxarroa" - (Irukurtz ezazu katxarro hori)

iruli: irauli

"Iruli gurdidxe? bueno! sarritten, sarritten" - (Irauli gurdia? beno! sarritan, sarritan)

"Asko irulitxe badau a nok altzeu?" - (Asko iraulita badago hura nork altxatu?)

iruntzi: 1 irentsi 2 iruntzi

istutu: estutu

itto: ito

"Geuse estana esteu urtetan imintten baosu ya, lekuen, baya imintten baosu txomin bedarra dauen lekuen ba, berak ittoten dosku erne ta artes, ba esiñ ein ba" - (Gauza eztena ez du irteten ipintzen baduzu ja, lekuan, baina ipintzen baduzu txomin belarra dagoen lekuan ba, berak itotzen digu erne eta artez, ba ezin egin ba)

itxeron, itxaron: itxaron

"Autobusera dxoan biar bada, ba autobusera, an ba autobuseri itxeron, batera dxoan, batera etorri, da bidien batera" - (Autobusera joan behar bada, ba autobusera, han ba autobusari itxaron, batera joan, batera etorri, eta bidean batera)

itxi: utzi

itxun: etzan

itzutu: itsutu

"Tentziñoa euki deuelako itzutu in de" - (Tentsioa eduki deuelako itsutu egin da)

ixarratu, ixerratu: izarratu

ixartu: itxartu

ixen: 1. izan. 2. izan, joan

"Ba eon sana ori, ba on dana ixengo dires, berrotasak urtiak" - (Ba egon zena hori, ba egon dena izango dira, berrogeitazak urteak)

ixenteu: izendatu

ixerdittu, ixerditxu: izerditu

ixerratu: izarratu

ixetu: iziotu, biztu

ixi: itxi

ixildu, ixilyu: isildu

jireu: giratu

jodidu: joditu

"Mogidu itten bada jodidu itten dire" - (Mugitu egiten bada joditu egiten dira)

jubileu: jublatu, erretiratu

junteu: elkartu, batu

kabidu: sartu, eden

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Txepetxak afesiño gustidxes e, segidu itten tzan ataraten eurrera, ta gero atara euenien, e, kabidu besta itten kukue" - (Txepetxak zaletasun guztiagaz, segitu egiten zion ateratzen aurrera, eta gero atera zuenean, sartu ere ez da egiten kukua)

kalkuleu: kalkulatu

kanbidxeu: aldatu

"Geur ya kanbidxeta dau dana" - (Gaur ja aldatuta dago dena)

kanteu: kantatu

"Kurtzie tiren moduen, abadie lotute san aonen lekuten, da kanteu, de erreseu, erresetan dxoate san euridxe etorteko, nosonos eitxeuen, ba beste batzuten es, toketan danien" - (Gurutzea diren moduan, abadea lotzen zen haonen lekutan, eta kantatu, eta errezatu, errezatzen joaten zen euria etortzeko, noiz edo noiz egiten zuen, ba beste batzuetan ez, tokatzen denean)

kantzeu: nekatu

"Gero kantzeu kasu itten ba an be initzen da onetan itxi" - (Gero nekatu kasu egiten ba han ere egin nintzen eta honetan utzi)

kapeu: 1. irendu, kapatu. 2. arbolak kapatu

"Kapeu, nora alderdidxe bota gurosun, diresiñoa emoteko" - (Kapatu norako alderdia bota gura duzun, norabidea emateko)

kardatu: gardatu

kargeu: kargatu

"Eurretik atzerakoa? gurdidxe kargeute imintten sanari? bueno orrek ixen bi badaroas, bat surrune" - (Aurretik atzerako? gurdia kargatuta ipintzen zenari? beno horrek izen bi badaroatza, bat zurruna)

kargutu: kargutu

karutu: garestitu

kastigeu: zigortu

katietu: kateatu

"Edoselan txala txarto, atzes be bardiñ, ya besoak katietute, buelteute be bai, gora adi be bai" - (Edozelan txahala txarto, atzez ere berdin, ja besoak katiratuta, bueltatuta ere bai, gora adi ere bai)

kejeu: kexatu

kendu: kendu

"Sera kendute euki deu? amengoa?" - (Zera kenduta eduki du? hemengoa)

kikildu: kikildu

"Kikildute nau, kikildute, personie ba kikildute eo lei ba, es geixorik sauselako espabese otzitzu nonon ein sarelako ta gero kikildute nau" - (Kikilduta nago, kikilduta, pertsona ba kikilduta egon liteke, ez gaixorik zagozelako ezpadaze hoztu non edo non egin zarelako eta gero kikilduta nago)

kimetu: kimatu, gimatu

"Igual, a, piñue ebai, entresakie eiñ, edo apeak ein yosus de, au piñue kimetu, erramak kimetu, egurre itten basoas, e, errama lodidxeri arek kimek kendu, egur lodidxe itxi" - (Beharbada, pinua ebaki, mehazketa egin, edo apeak egin dituzu eta, pinu hau kimatu, erramak kimatu, egurra egiten bazoaz, errama lodiari kima haiek kendu, egur lodia utzi)

kiñeu: kinatu

kiskoldu: kizkeldu

kobreu: kobratu

"Etxekorik ilye badekosu, ba kandelak ote sien andidxe, ba igual bat edo bi, ta kandela bi badekosu gedxau kobretauen, ta ba padekosu gitxiau" - (Etxekorik hilda badaukazu, ba kandelak egoten ziren handiak, ba beharbada bat edo bi, eta kandela bi badauzkazu gehiago kobratzen zuen, eta bat badaukazu gutxiago)

komonidu: komeni izan

komulgeu: komulgatu

konbideu: gonbidatu

kondeneu: kondenatu

konfeseu: autortu

konfundidu: okertu

"Orrek preguntek eitxen tzos ba sertuteko, olloari, konfundidu deidxen, edo sertu deidxen, da atzekoa lantzien bat ostu itxen tzien" - (Itaun horiek egiten dizkio ba zertzeko, oiloari, oker dadin, edo zer dadin, eta atzekoa lantzean bat ostu egiten zioten)

konpondu: konpondu

konserbeu, kontzerbeu: kontserbatu

konsumidu: kontsumitu

"Esan egoten norberan, edateko ure, norberak konsumiduteko ure bakarrik" - (Ez zen edateko norberaren, edateko ura, norberak kontsumitzeko ura bakarrik)

kontesteu: erantzun

ARRIETAKO HIZTEGIA

konteu: 1. kontatu. 2. zenbatu

"Bai gure amak kontetan seixusen orrek, oneri esaten ote nas ni orrek geusek, eta one tiño inñusentekeridxe, estai pa nik, amak kontetan seixusen" - (Bai gure amak kontatzen zituen horiek, honi esaten egoten naiz gauza horiek, eta honek dino inuzentekeriak, ez dakit ba nik, amak kontatzen zituen)

kontroleu: kontrolatu

konturetu: konturatu

"Klaro baya ikusten dosun momentuen esara konturetuten" - (Jakina baina ikusten duzun momentuan ez zara konturatzen)

kontzegidu: lortu

kontzerbeu, konserbeu: kontserbatu

kordatu, kordeu: kordatu, txortatu

"Bai batzen danién kordatu te gero eskegi ba bidaneko" - (Bai batzen denean kordatu eta gero eskegi ba behar denerako)

korridu: korritu

"Gatxa da gero ori be, korridu itten deu asko korriten deu, e?" - (Gaitza da gero hori ere, korritu egiten du asko korritzen du, e?)

kosteu: kostatu

koxu, kuxu: hartu, koiu

kubikeu: kubikatu

kunplidu: bete, egin

kureu: 1. ondu, heldu. 2. osatu

"Beste ari metxu bet ebaten tzan, serari, txalan narrueri, kureta egote san etzien da, eta a olan ixurtzun, ixurtzun sartuten tzan" - (Beste hari mehetxo bat ebakitzen zion, zerari, txahalan narruari, onduta egoten zen etxean eta, eta hura holan izurtsuan, izurtsuan sartzen zion)

kurtzieu, kurtzeu: gurutzatu

kutxilletu: kutxilatu

"Kutxilletutie bada ba, au dana barridxe imiñi" - (Kutxilatzea bada ba, hau dena berria ipini)

"Kutxilletu esaten dxako, atze eurriek barridxe imiñi" - (Kutxilatu esaten zaio, atze-aurreak berriak ipini)

labandu: labandu

labreu: 1. laiatu, landu. 2. harria landu

"Oin soloa pe lantzar daus iminye, se oiñ esta labretan da" - (Orain soroak ere lantzar dagoz ipinita, ze orain ez da lantzen eta)

"Soloa da, esta? terreno ba teku, labreu bari teku, eta esaten du orixe" - (Soroa da, ezta? terreno bat daukagu, landu barik daukagu, eta esaten dugu horixe)

laburtu: laburtu

lagundu: lagundu

"Len kare bixidxe ta, itte san toto moduen, eusotidxe, esate baterako, bata bestieri lagundute" - (Lehen kare bizia eta, egiten zen toto moduan, auzotegiek, esate baterako, bata besteari lagunduta)

"Satzetan klase bittera be igual, lenau, neskieri etzera laguntie ixete san satzetie" - (Satzetan era bitara ere beharbada, lehenago, neskari etxera laguntzea izaten zen satsetan egitea)

landu: landu

lañotu: lainotu

larritu, larritsu: larritu

laskittu: lardaskatu, laskitu

laurendu, laurundu: laurendu

legidu, leidu: irakurri

leittu: leitu, lei egin

leundu: leundu

"Sulo itzela, amen etzien eurrien emen, oin lisutute dau baya, sulo itzela, sarri aitxek eta nik basotik ekarri, da gurdi bet ekarri txe bota ta orduntxe leundu, kortan be bai, kortan be gurien sulo itzela egon san ni gastie nitzenien gero, oin estau" - (Zulo itzela, hamen etxearen aurrean hemen, orain lisututa dago baina, zulo itzela, sarri aitak eta nik basotik ekarri, eta gurdi bat ekarri eta bota eta orduantxe leundu, kortan ere bai, kortan ere gurean zulo itzela egon zen ni gaztea nintzenean gero, orain ez dago)

libreu: 1. libratu. 2. umea egin

"Bera altue ta morroi andidxe ta beso andidxeakas da, sarri geurien be libre deu ak txala" - (Bera altua eta morroi handia eta beso handiakaz eta, sarri geurean ere libratu du hark txahala)

"Ixen ba teko ya libretako, bera bille doan artien ariñau koisten basuen lengo lekue orduen esateko" - (Izen bat dauka ja libratzeko, bera bila doan artean arinago hartzen bazuen lehengo lekua orduan esateko)

ligortu: lehortu

lisutu: lisutu

lodittu, loditsu: loditu

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Orre tire loditxu esitxeko" - (Horiek dira ez loditzeko)

loguretu: loguretu

loittu: lohitu

lokatu: lokatu

"Bai lokatu te, kasu beterako, ori abixeridxe esaten dxakona ba, an imintte san da gero antxe artzeuen ak beren lekue" - (Bai lokatu eta, kasu baterako, abiasari hori esaten zaiona ba, han ipintzen zen eta gero hantxe hartzen zuen hark beraren lekua)

lorrinyu: lorrindu

"Dana lorrinyute saus" - (Dena lorrinduta zagoz)

lotu, lotun: gelditu, lotu

"Ori etzien gero, baye esaten dxakon a, serien, an paseu de an orrek eraitten deu, urune bera ta sadxe bertan lotu itten da" - (Hori etxean gero, baina esaten zitzaion hura, zerean, han pasatu eta han horrek eragiten du, irina behera eta zahia bertan lotu egiten da)

lotzatu: lotsatu

"Sutunik, onek enbrak olantxe egoten dire, lotzatu edo billurreas" - (Zutunik, andre hauek holantxe egoten dira, lotsatu edo bildurragaz)

"Lotzature gaus onegas, se danari tabako eske dau au te" - (Lotsatuta gagoz honegaz, ze denei tabako eske dago hau eta)

lumetu: lumatu

lurmendu: lurmendu

"Gero urtuten urtuten doanien, lurmendu dxok" - (Gero irteten-irteten doanean, lurmendu dik)

lusetu: luzatu

makaldu: makaldu

makiñetu : makinatu, goldatu

"Lurre ba, ganaduek labreu itteuen, len esan dotzeana makiñetu edo, gero ariek edo len esaten dxakona, arekas sertun de gero garidxe eraiñ, garidxe, garidxe be imintte san, serien, uretan edo, sertzen, da sulfatoa einye, paseute, da gero garidxe eraiñ" - (Lurra ba, ganaduek landu egiten zuten, lehen esan diodana makinatu edo, gero areak edo lehen esaten zitzaiona, haiekaz zertu eta gero garia erein, garia, garia ere ipintzen zen,

zerean, uretan edo, zertzen, eta sulfatoa eginda, pasatuta, eta gero garia erein)

makurtu: makurtu

"Bai makurtute gora idxenda, kukulumixuke pareute bai" - (Bai makurtuta gora igonda, kukulumaixuka paratuta bai)

malaganatu: gogatu, gorputzaldi txarra paratu

malletu: mailetu

mamurtu: mamurtu

manejeu: maneiatu

"Suk esan dosune, aregas manejeta euden" - (Zuk esan duzuna, haregaz maneiatzzen zuten)

"Eurok euretara manejetan dire" - (Eurok euretara maneiatzzen dira)

mantenidu: mantendu

manteu: mantatu

"Bai altzeu erain bi dxako, esaten deude, derrepente derrepente in barik ba, altzeu erain bi dxako, da gero ba, ixeta san kostunbrie, d'oin be bai, ba ardau emon, ori ardaue esaten deude, da manteu, igurdi ganiien bañuas ardaueas" - (Bai altxatu eragin behar zaio, esaten dute, bat-batean bat-batean egin barik ba, altxatu eragin behar zaio, eta gero ba, izaten zen ekandua, eta orain ere bai, ba ardaua eman, ardau hori esaten dute, eta mantatu, igurtzi gainean bainuagaz ardaugaz)

marieu: zorabiatu

markeu: markatu

martxeu: joan, alde egin

matxákeu: birrindu

matxorratu: matxorratu, antzutu

megidu, meidu: neurtu

mendeu: mendatu

"Bustiñegas eitte san, ebai, eta gero itte san astillie, astille bat atara, mendetako an atara astille da beste arbolien, e, serak punttek artun, da asaltxue kendu, amen bustiñe sartzeko, aren tamañuen, da eskiñe banatan bi imintte siren orrek, da gero itte san, ba bustiñe lurras edo pekorotzagas, edo galipotagas, da orrekas eiñ eta ba trapu batas edo tapeu" - (Buztinagaz egiten zen, ebaki, eta gero egiten zen astila, astila bat atera, mendatzeko han atera astila eta beste arbolaren, zerak puntak hartu, eta azaltxoa kendu, hamen buztina sartzeko,

ARRIETAKO HIZTEGIA

haren tamainuan, eta eskina banatan bi ipintzen ziren horiek, eta gero egiten zen, ba buztina lurragaz edo bekorotzagaz, edo galipotagaz, eta horiekaz egin eta ba trapu bategaz edo tapatu)

meresidu: merezitu, merizi izan

merkatu: merketu

metatu: metatu

"Denporie duden dauenien esate baterako, ño estau ondo siketute, ta euridxe in bi deu, baya etzera eroateko oño, estau ondo siku, se in bi du? metatu in bi du, pilloak pilloak eiñ" - (Eguraldia dudan dagoenean esate baterako, ño ez dago ondo sikatuta, eta euria egin behar du, baina etxera eroateko oraindino, ez dago ondo siku, zer egin behar dugu? metatu egin behar dugu, piloak-piloak egin)

metu: mehatu

miestu: mehaztu

"Ene! miestu in dxatzu ulie" - (Ene! mehaztu egin zaizu ilea)

miketu: mikatu

mingostu: mingostu

misketu: mizketu

miskeu: mihizkatu

mobidu, mogidu: mugitu

"Euridxe ta olan mogittan deuenien, ño! geur estau esetarako arorik eta aspidxe ataraten in bigu" - (Euria eta holan mugitzen duenean, ño! gaur ez dago ezertarako arorik eta azpia ateratzen egin behar dugu)

moldeu: moldatu

monteu: montatu

morenatu: beltzarandu

moskortu: mozkortu

mostu: moztu

moteldu: moteldu

mudeu: mudatu

munarritu: munarritu

"Soloak, e, munarrittute len daus" - (Soroak, munarrituta lehen dagoz)

mutilyu: mutildu. 1. ilea ebaki. 2. ardiei ilea eratzi

"Ardidxe mutilyu itxen txu total, sietz itxen deu" - (Ardia mutildu egiten ditu guztiz, zehatz egiten du)

mututu: mututu

narrutu: narrutu

naseitxu, nasitxu, nasittu: nasaitu

nasteu: 1. nahastu. 2. nahastu, kutsatu.

obligeu: behartu

okertu: 1. okertu. 2. okertu, gaiztotu

olgeu: olgatu

on: egon

"Olakoxe geusek on siren lenau" - (Holakoxe gauzak egon ziren lehenago)

ondatu: 1. hondatu. 2. guztiz busti

"Bisagrak ondatu dxakos da ba, sarata itten deu" - (Bisagrak hondatu zaizkio eta ba, zarata egiten du)

ondu: ondu

"Ondo ondute on bi de piperrak imintteko" - (Ondo onduta egon behar da piperrak ipintzeko)

opereu: operatu

oratu: 1. oratu, heldu. 2. oratu, oreka egin

"Emon da emon da emon da esteu sorrosten, euki bi deu, a lastasune, garbi sorrostarridxe, da bai kodañiek agoa garbi, ba oratu didxon" - (Eman eta eman eta eman eta ez du zorrozten, eduki behar du, lastasun hura, garbi zorroztarriak, eta bai kodainak ahoa garbi, ba ora diezaion)

ordeneu: ordenatu, tajutu

organiseu: antolatu

orittu, oritxu: horitu, beilegitu

ornidu: hornitu

orrastu: orraztu

osatu: osatu

ostondu: izkutatu

ostu: 1. ostendu 2. ostu

"Da gero ostu itxe siren nonon, da gu dxoaten giñen aolan, begidxe tapeu seusegas da, tope esiñik aulan aulan da, bai olakoxe geusek" - (Eta gero ostu egiten ziren non edo non, eta gu joaten ginen haolan, begiak tapatu zer edo zegaz eta, topatu ezinik haolan haolan eta, bai holakoxe gauzak)

"Emen bagaus dxagoten ara ostuten, an bagaus dxagoten ona ostuten" - (Hemen bagagoz jagoten hara ostuten, han bagagoz jagoten hona ostuten)

otzittu, otzitzu: hotzitu, hoztu

"A atie ixixu, os dator andik, niri kaderak otzitzu dxates" - (Ate hura itx ezazu, hotz dator handik, niri oinak hoztu zaizkit)

pageu: ordaindu

"Arek pageta euden baya geuk es" - (Haiek ordaintzen zuten baina geuk ez)

pareu: paratu, jarri

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Atzera pare nas lengo moduen" - (Atzera paratu naiz lehengo moduan)

parkatu: parkatu

partidu: banatu

"Partidu batzutan eitte san da beste batzutan erremata ein de bai" - (Banatu batzuetan egiten zen eta beste batzuetan erremata egin eta bai)

paseu: pasatu

"Oin pasetan dxakune guri bakixu ser dan?" - (Orain pasatzen zaiguna guri badakizu zer den?)

"Orrasi sarratue pasetan deuren garbitxuteko" - (Orrazi zerratua pasatzen zuten garbitzeko)

pastidxeu: hondatu

pegeu: itsatsi

penteu: 1. pentsatu. 2. iduritu, eman

pikau: 1. haginka egitea, sugeek, mamarroek, e. abarrek. 2. xehatu, txikitu

"Aregas pikeu ein bi da, da a kendu a orie, derrigorra bada derrigorra espada, ostantzien be libretan da arto igerra bota ta apur bet nasittu, eta esan dotena" - (Haregaz pikatu egin behar da, eta hura kendu ore hura, derrigorra bada derrigorra ez bada, osterantzean ere libratzen da arto igerra bota eta apur bat nasaitu, eta esan dudana)

pilleu: pilotu

"Beroa biar ixeta san, se pilleute ote siren da sabaldu itxeuden goixien, berotu ditxesan, gero oboto urtetako garidxe" - (Beroa behar izaten zen, ze pilotuta egoten ziren eta zabaldu egiten zuten goizean, bero daitezen, gero hobeto irteteko gariak)

pillotu: pilotu

pintxeu: ziztatu

pisau, pixeu: pisatu

"Es errotara eroan da errotan pixeu, bertan pixeta san" - (Ez errotara eroan da errotan pisatu, bertan pisatzen zen)

planteu: 1. plantatu, paratu. 2. landatu

plantxeu: plantxatu, lisatu

plegeu: tolestu

"Ta gero a mantela, abadiak eroaten seixusenien diruek batu, plegeu eta itxi" - (Eta gero zamau hura, abadeak eroaten zituenean diruak batu, tolestu eta utzi)

podeu: inausi

porkeratu: porkeratu

postu: poztu

pregunteu: itaundu

prentzeu: prentzatu

prepareu: prestatu

"Apur bat prepareta on banitzen nik orrek danak memoriz, e, denporiegas memorire ekarten dotas" - (Apur bat prestatuta egon banintzen nik horiek denak buruz, denboragaz gogora ekartzen ditut)

"Lurre bi de suabie, lurre ondo prepareta" - (Lurra behar da suabe, lurra ondo prestatuta)

presenteu: aukeztu

presinteu: prezintatu

"Errasoye estaitt nik ser ixen san baya gobiernuen lege bat san ori, ori guri sarraute oskuesan, presinteta euki gendusen guk errotak, e, ba julioan, ontxe asi, ontxe datorren illien asi, eta setienbrerartien, garirik edxo estidxon, proibidute euki gendun garidxe edxotie" - (Arrazoia ez dakit nik zer izan zen baina gobernuaren lege bat zen hori, hori guri itxi zizkigutena, prezintatuta eduki genituen guk errotak, ba garagarrilean, oraintxe hasi, oraintxe datorren hilean hasi, eta irailera arte, garirik eho ez diezaion, galazota eduki genuen garia ehotzea)

prestatu, presteu: prestatu

prijidu: prijitu, frijitu

probeu: 1. probatu, dastatu. 2. hazi

produsidu: ekoitzi

proibidu: galazo

"Ori itten san, e, au, ba gerraostien ba, garidxe, onetan esuren isten edxoten, onetan errotatan, a, proibidute euki suren" - (Hori egiten zen, hau, ba gerra ostean ba, garia, hauetan ez zuten uzten ehotzen, errota hauetan, galazota eduki zuten)

putzittu: puztu

sabaldu: zabaldu

sakatu: sakatu

sakondu: sakondu

salbeu: salbatu

saldu: saldu

salteu: saltatu

sangreu: odoldu, odolustu

"Gantxoa sartzen dxako lelengo, bakasu te dandarres, lekurartien, da, an il bi deuenak agarretan tzo gantxoagas da

ARRIETAKO HIZTEGIA

bestiek agarretan tze ba kaderatetik, eurretik, bik edo, ta atzetik beste bik edo, madxe ganera bota, sangreu, odola atara, odola atara ta iltten danielen, koixu, imiñi idie aspidxen, lelengo au silloa, traputxu betegas sarratu itten dxako, urten esteidxon odolik deskuidon baten lotu badxako barruen, aprobetxeu itten dxako txarrixeri gero ori gure bada, da gero imintten da bein ganien, e, idien ganien, da gero erre" - (Gantxoia sartzen zaio lehenengo, badakarzu eta dandarrez, lekuraino, eta, han hil behar duenak oratzen dio gantxoagaz eta besteek oratzen diote ba kaderatetik, aurretik, bik edo, eta atzetik beste bik edo, mahai gainera bota, odolustu, odola atera, odola atera eta hiltzen denean, hartu, ipini ira azpian, lehenengo zulo hau, traputxo bategaz itxi egiten zaio, irten ez diezaion odolik ustekabe baten lotu bazaio barruan, aprobetxatu egiten zaio txerriari gero hori gura bada, eta gero ipintzen da behearen gainean, iren gainean eta gero erre)

sapaldu: zapaldu

sarratu, serratu: zarratu

sartu, sartun: sartu

*"Nik geubien kanposantuen estot sartu gure"
- (Nik gauean kanposantuan ez dut sartu gura)*

satitu: zatitu

satzitu: satsitu

segidu: segitu

"Gu eskintzen ixeten beti segidukoak, segidukoak ixeten sien, e, beñakarrak, edo gamistarrak edo fikarrak edo ortikoak, geuse asko dekienak" - (Gu ez ginen izaten beti segitukoak, segitukoak izaten ziren, meñakarrak, edo gamiztarrak edo fikarrak edo hortikoak, gauza asko daukatenak)

sekortu: zekortu

selebreu: ospatu

sentidu: 1. sentitu. 2. txahala egiteko unean behia sentituta egoten da. 3. tristetu

"Bedxe sentidute dau" - (Behia sentituta dago)

separeu: banandu, bereizi

serbidu: zerbitzatu

serratu: 1. zerratu, itxi. 2. zerragaz ebaki

sertu, sertun: zertu

"Seuser uretan edo sertun de ensalada moduen imiñi tte ba dxaten sittuesan" - (Zer edo zer uretan edo zertu eta entsalada moduan ipini eta ba jaten zituzten)

siketu: 1. sikatu. 2. oiloak mikatu

"A narrue in biar ixeta san garbittu, gero siketuten euki, eta gero emon, o, estai ser emoten tzakun gero" - (Narru hura egin behar izaten zen garbitu, gero sikatzen eduki, eta gero eman, ez dakit zer ematen genion gero)

sildu: zildu

"Sille da bai, se ortik urtetan deu serak, sildu itten da" - (Zila da bai, ze hortik irteten du zerak, zildu egiten da)

sillotu: zulatu

"Oñ, salie, ola barridxe iminye daueles an, ordurik ona, baya ostantzien an ikusten dire, e, sera itxeko, tabikie itxeko arek sidxorrak imintxeko, laatroas sillotu, ola bera, eta gero bakixu ebaitxe sera, a itxeko" - (Orain, sala, ohola berria ipinita dagoenez han, ordutik hona, baina osterantzean han ikusten dira, zera egiteko, tabikea egiteko bidur haiek ipintzeko, laratroagaz zulotu, ohola bera, eta gero badakizu ebakita zera, hura egiteko)

simeldu: zimeldu

siñestu: sinestu, sinetsi

sobreu: sobratu

soldu: zoldu

solteu: soltatu

soratu: zoratu

sorrostu: zorroztu

"Kutxilloa sorrosteko, portaleko egalien pentzatot badekola olan kurbie inye" - (Kutxilloa zorrozteko, atariko hegalean pentsatzen dut badaukala holan bihurria eginda)

sortu: sortu

sostenidu: eutsi

sotzasaldu: zotz azaldu, gaineko belarra kentzea lur saila soro bihurtzeko

suabetu: suabetu, leundu

suerteu: suertatu

"Orduen, etze bat erostie, baserri bet erostie suerte san, onek errentadore dausela, an Mungidxen, serera bidien, Larraurire bidien, ta gero arek, arek dxoan siren, emeko errentadoriek ara" - (Orduan, etxe

ARRIETAKO HIZTEGIA

bat erostea, baserri bat erostea suertatu zen, hauek errentadore dagozela, han Mungian, zerera bidean, Larraurira bidean, eta gero haiek, haiek joan ziren, hemengo errentadoreak hara)

sufridu: sufritu

"Espadeko erremedixorik, ainbet ariñen il ditxen sufritan on barik" - (Ez badauka erremediorik, hainbat arinen hil dadin sufritzen egon barik)

sujeteu: eutsi

"Orrek sujetetan deu dana" - (Horrek eusten dio denari)

sulotu: zulatu

sume: batu, batuketa egin

surittu, suritxu: 1. zuritu, azla kendu. 2. zuritu, zuri kolorea eman

"Nik estot eiñ, baya entzun dotziet ariñaukoari, ori eta erañotzan orridxekas, da ori botate san ur beroagas, eta suritxu itxen deuela erropie" - (Nik ez dut egin, baina entzun diet arinagokoei, hori eta ereinotzaren orriakaz, eta hori botatzen zen ur beroagaz, eta zuritu egiten duela arropa)

"A surite sanien ya einye dau" - (Hura zuritzen zenean ja eginda dago)

surtu: zuhurtu

"Baya bakixu denporie dxoan denporie etorri, jentie esta tontoa ta surtu in siren, ba agertu in san" - (Baina badakizu denbora joan denbora etorri, jendea ez da inuzentea eta zuhurtu egin ziren, ba agertu egin zen)

sutundu: zutundu

tapeu: 1. tapatu. 2. ondu

"A ganie kentze dxakon, eta egunetan egote san suten, tapeute, sillo bat eitte dxakon da atzera tapeute" - (Gaina hura kentzen zitzaion, eta egunetan egoten zen sutan, tapatuta, zulo bat egiten zitzaion eta atzera tapatuta)

tardeu: berandutu, belutu

taseu: tasatu

tenpleu: kaldatu

tiretu: 1. tiratu. 2. tiro egin

"Ganadueri be tiretu itten tzo, bedxeri tte olakoari, il be itten dires bedxek eta, iñestuek" - (Ganaduari ere tiratu egiten dio, behiei eta holakoei, hil ere egiten dira, behiak eta, ineztuak)

tokeu: tokatu

topeu: topatu

torneu: torneatu

trabeu: trabatu

trageu: 1. irentsi. 2. tragatu, piztiak hil, tragatu, akabatu

trasplanteu: aldatu

trateu: tratatu

trokeu: trokatu

"Kaderie troke dot" - (Oina trokatu dut)

tropetu: dorpetu

txikertu: txikertu, txikitu

txikittu, txikitxu: txikitu, txikertu

tximurtu: tximurtu

txotxolotu: txotxolotu

txupeu: lamiskatu

ugertu: ugertu

ukusi: ikusi

ukutu: ikutu

ulertu: ulertu

"A olako asuntoatan ulertue da" - (Hura holako gauzetan ulertua da)

"Estun ulertuten guk eser orduen" - (Ez genuen ulertzen guk ezer orduan)

umeldu: umeldu

unteu: 1. gantzutu, koipea eman. 2. bazitan egin

urdinyu: urdindu

urketu: urkatu

urreratu: urreratu

urrutu: urratu

urten: irten

"Da gero bidien, apurtxu bet illundu itxeuen, da irek eta ote sien andidxe pa, da eurretik dxoan bi edo iru, da gero andik urten da ikeratu ta alantxe olgetan etzera" - (Eta gero bidean, apurtxo bat ilundu egiten zuen, eta irak eta egoten ziren handiak ba, eta aurretik joan bi edo hiru, eta gero handik irten eta ikaratu eta halantxe olgatzten etxera)

urtu: urtu

useu: usatu, erabili

"Ori gure denporan gitxik useteuen" - (Hori gure sasoian gutxik usatzen zuten)

"Orduen einparri, barri ixen san ori, danak esuen usetan" - (Orduan eginberri, berri izan zen hori, denek ez zuten usatzen)

usinyu: usaindu

usteldu: usteldu

"Edo usteldu igual, gorriñe eukintte or" - (Edo usteldu beharbada, gorrina edukita hor)

ARRIETAKO HIZTEGIA

utzitu: hustu

"Lenau gatza emoten dxaken, utzitu dana kendu, garunek eta danak aparteu, da gatza emon" - (Lehenago gatza ematen zitzaien, hustu dena kendu, garaunak eta denak apartatu, eta gatza eman)

uxetu: uxatu

23.2. ADITZ KONPOSATUAK

EGIN

aginke iñ, ainke iñ: haginka egin

"Amorrotute dauenak aginke itten tzon noberari be" - (Amorrotuta dagoenak haginka egiten zion norberari ere)

agirika iñ: agirika egin, errietan egin

aitxearen eiñ: aitearena egin

alegiñe iñ: ahaleginak egin

amesetan eiñ: ametsetan egin

apeak eiñ: apeak egin

aprobie iñ: aproba egin

argi iñ: argi egin, argitu

ari iñ: haria egin

arrantza iñ: arrantza egin

"Arrantza itten deu astoak sarri" - (Arrantza egiten du astoak sarri)

arriko iñ: harrikoa egin

"Arriko itxeko ta ointxe bakot nagitxasun bet! orixe itxeko" - (Harrikoa egiteko eta oraintxe badaukat nagitasuna horixe egiteko)

arrosi iñ: aharrausi egin

asala iñ: azala egin

"Eridie inye badau asala in bi dxako" - (Zauria eginda badago azala egin behar zaio)

aska iñ: hazka egin

barre iñ: barre egin

barusi iñ: barausi egin

"Bueno lenau, lelengo itte san ill orduko, barusi esaten dxakona, eusten dabixenari, da, ogidxe, ogidxe ixeta san lenau, ogidxe ebai, da kopie, kopatxu, koñaka edo, lelengo barusi, da gero ill, da gero ostien beste kopatxu bana edo bi tte ba" - (Beno lehenago, lehenengo egiten zen hil orduko, barausi esaten zaiona, eusten dabiltzanei, eta, ogia, ogia izaten zen lehenago, ogia ebaki, eta kopa, kopatxo, koinaka edo, lehenengo barausi,

eta gero hil, eta gero ostean beste kopatxo bana edo bi eta ba) [Txerria hil baino lehen ematen zenaren gainean dabil]

begiskoana eiñ, begisko eiñ: begizko egin

"Begisko eiñ esteidxuen, begi txarra bota esteidxon iñok edo, ba orduen esate san begisko itten dala" - (Begizko egin ez diezaioten, begi txarra bota ez diezaion inork edo, ba orduan esaten zen begizko egiten dela)

beikunie iñ: begirakunea egin

berba iñ: berba egin

"Estosu berba ondo itxen" - (Ez duzu berba ondo egiten)

bero iñ: bero egin

besaka iñ: besaka egin

bete bete iñ: bete-bete egin

biar eiñ: behar egin

bidegintzen iñ: bidegintzan egin

bidxor eiñ: bihurri egin

bijili eiñ: bijilia egin

"Oñ esta itten baya orduen bai, e? orduen bijili itte san" - (Orain ez da egiten baina orduan bai, e? orduan bijilia egiten zen)

bixerra eiñ: bizarra egin

botike iñ: botika egin

buelta iñ: buelta egin

burle iñ: burla egin, txitxekar egin

damistikune iñ: damistiku egin

dxantzan eiñ: dantzan egin

"Geure tia Matea pe ondo eitxeuen dxantzan" - (Gero izeko Mateak ere ondo egiten zuen dantzan)

edurre iñ: elurra egin

egas eiñ: hegaz egin

egune iñ: eguna egin

egurre iñ: egurra egin

elixako iñ, elixakoak eiñ: elizako(ak) egin

enbarasu iñ: enbarazu egin

erdi bana iñ: erdi bana egin

erdi bi iñ: erdi bi egin

erpeka iñ: erpeka egin, txerpaka egin

errekadu iñ: errekadu egin

"Bueno mutil batek neskato bateri errakadu itxie, alkarreas ibilli erremeridxen da olan da nobidxo ixen barik igual, esta? baya errekadu iñ, gero segitako nobidxo" - (Beno mutil batek neskato bati errekadu egitea, elkarregaz ibili erromerian eta holan eta gizongaia izan barik

ARRIETAKO HIZTEGIA

- beharbada, ezta? baina errekadu egin, gero segitzeko gizongai)*
- erremata eiñ:** erremata egin
errematan eiñ: errematan egin
errestan eiñ: errietan egin
erretallie iñ: erreteila egin
errogatibe iñ: errogatiba egin
euri iñ, euridxe iñ: euri egin
eusi iñ: ahausi egin
eusnar eiñ: hausnar egin
eutz eiñ: hauts egin
fabore iñ: mesede egin
falta iñ: falta egin
famelidxe iñ: familia egin
ganes eiñ: gainez egin
garagarrak eiñ: garagarrak egin, astoak eta zaldiak behearen ganean lepoaren ganean bueltak emateari esaten zaio
garbi garbi iñ: garbi-garbi egin
garbikusidxe iñ: garbikuzia egin
gatx eiñ: gaitz egin
gatza iñ: gatza egin
girrintze iñ: zarata atera, girrintza egin
"Girrintze atxiñe gurdidzek eitteuen" - (Girrintza antzina gurdiak egiten zuen)
gora eiñ: gora egin
goruetan eiñ: gorutan egin
juergan eiñ: parrandan egin
kaka iñ: kaka egin
kalte iñ: kalte egin
"Arek, e, gorri antzekotxuek, arek kalte itxen due" - (Haiek, gorri antzekotxoak, haiek kalte egiten dute)
"Basurdek kalte andidzek eitten ttues" - (Basurdeek kalte handiak egiten dituzte)
kare iñ: kare egin
kargu iñ: kargu egin
kasan iñ: ehizan egin
kasu eiñ: kasu egin
kilikilli eiñ: kili-kili egin
klak eiñ: klak egin, hautsi, eten
kontra iñ: kontra egin
kontu eiñ: kontu egin
kordan eiñ: kordan egin
kuku iñ: kuku egin
kukurruku iñ: kukurruku egin
"Aingerue dxoaten sala etzetik, ollarrak kukurruku itxen badeu, aingerue dxoaten sala etzetik (Aingerua joaten zela etxetik, oilarrak kukurruku egiten badu, aingerua joaten zela etxetik)
- kurtze santiaren eiñ:** gurutze santuaren egin
laban eiñ: laban egin
"Laban einye dxeusi sen" - (Laban eginda jausi zen)
labasue iñ: labasua egin
lagun eiñ: lagun egin, laguna izan
laprast eiñ: laprast egin
lausu iñ: lauso egin
"Lausi in dxates begidxe sein ye mareasiño bat" - (Lauso egin zaizkit begiak zein da zorabio bat)
ledxe iñ: leia egin
lo iñ: 1. lo egin. 2. umeen olgetetan azpirako izatea, beherako izatea; kuiken kasu baterako lagunak harrapatu behar dituenak lo egiten du garaikoak ostu artean
"Badakitx ori kantetan dxakona umieri, obaba be lo itxeko" - (Badakit hori kantatzen zaiona umeari, obaba ere lo egiteko)
"Orrek lo asko in bideu" - (Horrek lo asko egin behar du)
mesede iñ: mesede egin
miñ eiñ: min egin
mire iñ: mira egin
murruke iñ: murruka egin
negár iñ: negar egin
on iñ: on egin
ospa iñ: ospa egin
pekatu iñ: pekatu egin
peskan eiñ: arrantzan egin
peusu eiñ: urrats egin
pikeka iñ: mokoka egin
pistikune iñ: damistikua egin
posture iñ: postura egin
promesa iñ: agindu egin
"Emen, e, ori, errebueltako etzien be, ba promesa einye, ba esiren dxoan, kunplidu es, da gero ba, saratie egoten ei sen etzien, eta alan, entradako kaixan tope i sitxuesan esku bi erriek, olan einye, da ixen ei sien purgatoridxoko arimek" - (Hemen, hori, errebueltako etxean ere, ba promesa eginda, ba ez ziren joan, kunplitu ez, eta gero ba, zarata egoten ei zen etxean, eta halan, sarrerako kaxan topatu ei zituzten esku be erreak, holan eginda, eta izan ei ziren purgatorioko arimak)
putz iñ: putz egin

ARRIETAKO HIZTEGIA

salto eiñ: salto egin

santzo iñ: zantzo egin

sarata iñ: zarata egin

sarriñ: zahar egin, zahartu

sasi eskola iñ: sasi eskola egin

"Sasi eskola be itten dun, bai dxoan gure esik eta onen amak dxagoteko ni gure, ta ni sasi eskola itten" - (Sasi eskola ere egiten genuen, bai joan gura ezik eta honen amak jagoteko ni gura, eta ni sasi eskola egiten)

sati iñ: zati egin, zatitu

satsetan eiñ: satsetan egin, neskari laguntzeko egiten zen proposamena satsetan egitekoa izaten ei zen

"Gero ba mutillek lagunduten baeuden, ba satsetan" - (Gero ba mutilek laguntzen bazuten ba satsetan)

"Orixe da satsetan eitxie, neskias dxoatie" - (Horixe da satsetan egitea, neskagaz joatea)

síntz iñ: zintz egin

sisipasa iñ: zizipaza egin

sokan iñ: sokan egin

su eiñ: sua egin

surrut eiñ: zurrut egin

tabaka iñ: tabaka egin

totoa iñ: totoa egin

totoan eiñ: totoan egin

tranpa iñ: tranpa egin

tratue iñ: tratua egin

txala iñ: txahala egin

txapiñe iñ: elkar harrapatzeko jokoa egin

txistue iñ: txistua egin

txixe iñ: txiza egin

"Ori txixe itteko ta ortako ba, aren ure edanda ona ixeta sala esateuden" - (Hori txiza egiteko eta horretarako ba, haren ura edanda ona izaten zela esaten zuten)

txorromorroka eiñ: txorromorroka egin

"Txorromorroka asko in yot nik, Arrietako seledxen, asko!" - (Txorromorroka asko egin dut nik, Arrietako zelaian, asko!)

uger eiñ: igeri egin

ure iñ: ura egin

utz eiñ: huts egin

EGON

albañen egon: albainean egon

argi egon: argi egon

armiñ egon: arbin egon

arra egon: aharra egon

artega egon: artega egon

aterri egon: aterri egon

begire egon: begira egon, zain egon

"Trenien dxoan giñen Madrillera, da gero, areportuen euki gendusen, autobusek begire, trenien estasiñoan euki gendusen begire areporture eroateko" - (Trenean joan ginen Madrilera, eta gero, aireportuan eduki genituen, autobusak begira, trenaren geltokian, eduki genituen begira aireportura eroateko)

billurretan egon: bildurretan egon

dardakadan egon: dardakadan egon

daridxola egon: dariola egon

duden egon: ezbaian egon

enbarasuen egon: enbarazuan egon

"Au sarri egoten da enbarasuen" - (Hau sarri egoten da enbarazuan)

estabaiden egon: eztabaidan egon

esun on: ezagun egon

geldi esiñik on: geldi ezinik egon

ixarra sarratu egon: izarra zerratu egon

konforme egon: konforme egon, ados egon

lantzar egon: lantzar egon

larri egon: larri egon

laski egon: laski egon, desordenatuta egon

lo egon: lo gon

materitten egon: materitan egon

"Etxakosan batu buruen areri bastarra gustidxe, ta aregas geuse onik guk, gure Segundori be bete dxakosan da posora salte seuen, uretara, ta arek esueles burue ondo euki, urten gure es ortik, eta derrigorrien amen beko kuartuen sartu neuen, ekar gendun, da gero kendu gontzasan, da gero astoa euki nik an alboan, da astoan batu te gero astoa txarto, materitten on san, arek pikeko lekuetan, astoa" - (Ez zitzaiozkion batu buruan hari bazterra guztiak, eta haregaz gauza onik guk, gure Segundori ere bete zitzaizkion eta putzura saltatu zuen, uretara, eta hark ez zuenez burua ondo eduki, irten gura ez hortik, eta derrigorrean hamen beheko gelan sartu nuen, ekarri genuen, eta gero kendu genizkion, eta gero astoa eduki nik han alboan, eta astoan batu eta gero astoa txarto, materitan egon zen, haiek pikatuko lekuetan, astoa)

ostatuen egon: ostatuan egon

ARRIETAKO HIZTEGIA

toil egon: apatz egon
toil toil egon: apatz-apatz egon
txangorie egon: txangota egon
umedu egon: heze egon
usinyute egon: usainduta egon

EDUKI

akordue euki: gomuta eduki
"Estekot akordurik, baya urten eitxen suen, ela estakit nik, e, bautisetako ixen san, ela gero sartzeko ixen san" - (Ez daukat gomutarik, baina irten egiten zuen, ala ez dakit nik, bataiatzeko izan zen, ala gero sartzeko izan zen)

akorduen euki: gogoan eduki
"Neuri estost iñok iños eiñ, e? neuk estekot akorduen" - (Neuri ez dit inork inoiz egin, e? neuk ez daukat gogoan)

amarren euki: amarren eduki

artesien euki: artezean eduki

bera euki: behera eduki

berbaltue euki: berbartua eduki

eutzek euki: hautsak eduki, zorte ona eduki
"Eutze tekos orrek umiorrek" - (Hautsak dauzka ume horrek)

familidxe euki: familia eduki

gogoan euki: gogoan eduki
"Oin momentuen gogoan dekotasana orre tire" - (Orain momentuan gogoan dauzkadanak horiek dira)

gora euki: gora eduki

gosamena euki: gozamena eduki

kontu euki: kontu eduki
"Etzera ekarri de emen solte itxi, katuegas badaespadan kontu euki, emon ogi satidxe bien ganién da, plasta-plasta dxate sitxusen, da lagun einye, lagun einye solte ta barrure etorte san" - (Etxera ekarri eta hemen solte utzi, katuagaz badaezpadan kontu eduki, eman ogi zatiak behearen gainean eta, plasta-plasta jaten zituen, eta lagun eginda, lagun eginda solte eta barrura etortzen zen)

magal andidxe euki: magal handia eduki, eroapena eduki

memoridxe euki: gogoan eduki
"San Luis, e, ori nik memoridxen dekot, e, ekarri sana be, b'orren memoridxe dekot, e, selan ekar san, da, Arrietako seretik prosesiñoan dxoan gintzesan ara" - (San

Luis, hori nik gogoan daukat, ekarri zena ere, ba horren gomuta badaukat, zelan ekarri zen, eta, Arrietako zeretik prozesioa joan ginen hara)

memoridxen euki: gogoan eduki
minpekoa euki: mihipekoa eduki
modue euki: modua eduki
ostatue euki: ostatua eduki
sorgiñek euki: sorginak eduki

EMON

aittuten emon: aditzera eman

antoju emon: antojua eman
"Niri natiek antoju emoten dost" - (Niri pikorrek antoju ematen dit)

antza emon: antza eman

arrapalada emon: arrapalada eman, ihes egin

billurre emon: bildurra eman
"Niri katu bals bat etorten dxat eta billurre emoten dost" - (Niri katu beltz bat etortzen zait eta bildurra ematen dit)

bueltie emon: buelta eman

errematan emon: errematan eman

frenu emon: galga eman

gatza emon: gatza eman
"Ori guk, e, estu useu, baya solomoari gatza emoteko ta usetan deu askok, bai pernilleri be" - (Hori guk, ez dugu usatu, baina solomoari gatza emateko eta usatzen du askok, bai pernilari ere)

gosamenien emon: gozamenen eman

inyarra emon: indarra eman

koipie emon: koipea eman
"Sarabandie ba, kasureko gedxen, ba ointxe gure lobiek, sera Aloñak deitxu deu, koipie emoteko ondo esateko oneri itxen tzo, da ori sarabandiori esaten dxako olakoxieri" - (Sarabanda ba, kasurako gehien, ba, oraintxe gure lobak, zera Aloñak deitu du, koipea emateko ondo esateko honi egiten dio, eta hori sarabanda hori esaten zaio holakoxeari)

komoniño emon: komunioa eman

mesie emon: meza eman

mosu emon: mosua eman

onera emon: onera eman

sokie emon: soka eman

sue emon: sue eman

txakurreri mosue emon: txakurrari mosua eman, txakurra putzitu

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Musturre loi dauenien, txakurreri mosue emon tzesu atzien ela?" - (Mutturra lohi dagoenean, txakurrari mosua eman diozu atzean ala?)

untze emon: iltze eman, josi

HARTU

ardurie artu: ardura hartu

arnasa artu: arnasa hartu

barrena artu: barrena hartu, barrena josi

buelta artu, bueltie artu: buelta hartu

gatza artu: gatza hartu

"Gatza artzen deu oboto ilberan iltten danien" - (Gatza hartzen du hobeto ilbehera hiltzen denean)

lierra artu: legarra hartu

loak artu: loak hartu

sue artu(n): sua hartu

txala artu: txahala hartu, ernari lotu

umie artu: umea hartu

ugerrak artu: ugerrak hartu

urek artu: urak hartu

IBILI

abus ibilli: lau txakur

"Olan dabillena eurretik eta, kaderak beyen da, abus dabilela ori umie, oniño abus dabill" - (Holan dabilena aurretik eta, oinak behean eta, lau txakur dabilela ume hori, oraindino lau txakur dabil)

berbotzien ibilli: berbotsan ibili

itturren ibilli: itaurren ibili

selaten ibilli: zelatan ibili

IZAN

al ixen: ahal izan

"Geure estilora obeto da, al ixeneskero" - (Geure erara hobeto da, ahal izanez gero)

"Al dotenien itten dot" - (Ahal dudanean egiten dut)

alperrikoa ixen: alperrikoa izan

ardure ixen: ardura izan

balidxo ixen: balio izan

"Su siñeskera bategas basoas, arexek balidxo deu" - (Zu sineskera bategaz bazoaz, harexek balio du)

"Baya ikusi, aixe diñotzut, elixekoak esteu balidxo iñorako be, juesie in bi due

lelengo ta" - (Baina ikusi, huraxe dinotsut, elizakoak ez du balio inorako ere, epailea egin behar dute lehenengo eta)

balidxokoa ixen: baliokoa izan

bardiñ ixen: berdin izan

"Bateatu barik iltxie, nik esetu, gure aistiek euki suen, enas akordetan, baya bautiseu, beste aldeko andriek, ein seuela, se il bi danien antza edo, txarto dauenien, edoseñek einye be bardiñ ei de" - (Bataiatu barik, nik ezagutu, gure ahiztak eduki zuen, ez naiz gomutatzen, baina bataiatu, beste aldeko andreak, egin zuela, ze hil behar denean antza edo, txarto dagoenean, edozeinek eginda ere berdin ei da)

"Ni baño seuser sarrau de ta, ni eskondu te gero eskondu sen, baya bardin tzo" - (Ni baino zer edo zer zaharragoa da eta, ni ezkondu eta gero ezkondu zen, baina berdin dio)

bat ixen: bat izan

bero ixen: bero izan

bi ixen: bi izan, desberdinak izan

"Gogorra ixen bi deu arek, e?" - (Gogorra izan behar du hark, e?)

biar ixen, bier ixen: behar izan

"Bota a gora, ta a bera datorreneko, imiñi in bier" - (Bota hura gora, eta hura behera datorreneko, ipini egin behar)

billur ixen: bildur izan

bixi ixen: bizi izan

"A bixi ixen basan are pai kontestekotzun ondo ta, are pai dxaki eusen onek geusek, arek!" - (Hura bizi izan bazen hark bai erantzungo zizun ondo eta, hark bai jakin zituen gauza horiek, hark!)

"Gurie ixeta san, buelta etorten gintzesenien, errosaridxoia eitte san elixan sartute, da andik urten, da egote san gero gorantza etorkeran Altxurre ixena dekona, ama bixi euren arek, ama sarra, suri suri dxantzitte ote san" - (Gurea izaten zen, buelta etortzen ginenean, errosarioa egiten zen elizan sartuta, eta handik irten, eta egoten zen gero gorantz etorkeran Altxurre izena daukana, ama bizi zuten haiek, ama zaharra, zuri-zuri jantzita egoten zen)

egarri ixen: egarri izan

elixas ixen: elizaz izan

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Elorridxa Arrieta da, baya elixas serera Frusiera" - (Elorriaga Arrieta da, baina elizaz zerera Fruizera)

erris ixen: herriz izan

"Aorkoa da, Errigoittikoa, Errigoitti de erris" - (Haorkoa da, Errigoitikoa, Errigoiti da herriz)

esiñ ixen: ezin izan

esun ixen: ezagun izan

euridxe ixen: euria izan

eurrerako ixen: aurrerako izan

falta ixen: falta izan

famelidxe ixen: familia izan, familia eduki

gose ixen: gose izan

gurao ixen, gurau ixen: gurago izan

gure ixen, gu ixen: 1. gura izan. 2. maite izan

"Enuen dxoan guixen" - (Ez nuen joan gura izan)

igual ixen: berdin izan

justisis ixen: justiziz, epailez izan

kapas ixen: gai izan

logure ixen: logura izan

parrokis ixen: parrokiz izan

parte ixen: parte izan

"Ainbet biderres ixen nas parte" - (Hainbat biderrez izan naiz parte)

semes ixen: semez izan

"Bai, Arrietakoa da semes eta dana" - (Bai, Arrietakoa da semez eta dena)

"Amen etzie in yeuena Unbekoa da, semes" - (Hamen etxea egin duena Unbekoa da, semez)

sor ixen: zor izan

terrenos ixen: terrenoz izan

"Arrieta erridxe terrenos andidxe da baya baso asko" - (Arrieta herria terrenoz handia da baina baso asko)

uste ixen: uste izan

JO

erropie dxo: arropa jo, arropa garbitu jotzen

gari dxo: gari jo

kanpa dxo: kanpaia jo

piperra dxo: piperra jo

taloa dxo: taloa jo

totoan dxo: totoan jo

trugoi dxo: trumoi jo

JOAN

errondan dxoan: erroldan joan

"Neskaiñe dxoan da aixe errondan" - (Neskengana joan eta huraxe errondan)

ulie dxoan: ilea joan

GAINERAKOAK

afaridxe dxan: afaldu

aidera bota: aidera bota

aidera eraiñ: aidera erein

airien imiñi: aidean ipini

alkar poderoso imiñi: elkar poderoso ipini

alperrik galdu: alperrik galdu

"Ondo siketu esien alperrik galdute sien" - (Ondo sikatu ezean alperrik galtzen ziren)

armosue dxan: armozua jan

arnasie bete: arnasa bete

"Arnasie betetan dxatzu, arin basoas" - (Arnasa betetzen zaizu, arin basoaz)

arridxe landu: harria landu

arta surittu: artoa zuritu

artaburu surittu: artaburu zuritu

arto eraiñ: arto erein

astillie atara: arrakala atera

asurretara eraiñ: hezurretara eragin

batera eraiñ: batera eragin, alde batera eragin

begidxe espeldu, begidxe epeldu: begiak epeldu, loguretu

"Begidxe espeldute saus ya" - (Begiak epelduta zagoz ja)

begi txarra bota: begizkoa egin

beratuten imiñi: beratzen ipini

beskari dxan, beskaridxe dxan: bazkaldu, bazkaria jan

bilbo ikusi: Bilbo ikusi

biosganiien lotu, biotzan ganiien lotu: bihozgainean lotu, janariak kalte egin

bixerra kendu: bizarra kendu

"Bixerra kendu eurretik, e, nik estot esetu ori, eitxe seuen, nik aitxe ikusitxe dekot, bixerra kendu, bixerra kendu, esta? lelengo bakixu, gero kendu labañoieas, eta gero ostien emote seuen ak, arpidxe sertzeko" - (Bizarra kendu aurretik, nik ez dut ezagutu hori, egiten zuen, nik aita ikusita daukat, bizarra kendu, bizarra kendu, ezta? lehenengo badakizu, gero kendu labainagaz, eta gero ostean ematen zuen hark, aurpegia zertzeko)

bueltan etorri: bueltan etorri, itzuli

ARRIETAKO HIZTEGIA

ederra sartu: ederra sartu

enbarasutik kendu: enbarazutik kendu

eperditzik ebai: ipurditik ebaki, landarea zehatz ebaki

"Inyaba asko eukitxen baeuden ebai eperditzik, gurdikadak eta eroan, eta an etzien, e, tejabanan, arek aparteu" - (Indaba asko edukitzen bazuten ebaki ipurditik, gurdikadak eta eroan, eta han etxean, tejabanan, haiek bereizi)

errapera bota: errapera bota

esnie gorde: esnea gorde, behiak bapatean esnea emateari utzi

euridxe atara: euria atera

euridxe ekarri: euria ekarri

euridxe mogidu: euria egiten hasi

eurrerako itxi: aurrerako utzi, piztiaren bat hazteko utzi txikerretan

eusnarra ekarri: hausnarra ekarri

"Eusnarra ekarteko beste alako kotxo antzeko batzuk ote sien ba, ser sien arek?" - (Hausnarra ekartzeko beste halako kotxo antzeko batzuk egoten ziren ba, zer ziren haiek?)

garagarrak irebasi: garagarrak irabazi

"Garagarrak irebastie da, buelta osoa iñ, astoa asten da garagarraka itten, da alboan ganera itten deu te igual, biskarren ganien lotzen da sarritten beti lengo lekuen, da alakoan baten igual eitten deu osoa, da orduen garagarrak irebasi ttu oiñ esaten da" - (Garagarrak irabaztea da, buelta osoa egin, astoa hasten da garagarraka egiten, eta alboaren gainera egiten du eta beharbada, bizkarraren gainean lotzen da sarritan beti lehengo lekuan, eta halakoren baten igual egiten du osoa, eta orduan garagarrak irabazi ditu orain esaten da)

gosiek trageu: goseak tragatu

illedara eraiñ, illadatara eraiñ: ilarara erein

istikulu pareu: iztertolaka paratu

konteixu: kontaizu, beharbada

kontu atara: kontu atera

kontue atara: kontua atera

kredoa erreseu: kresoa errezatu, umeren bat txarto portatzen denean itauntzen da ea zelako kredoa errezatu zaion

"Okerra bada, oneri etzie aitxebitxik eta amabitxik kredoa ondo erreseu" -

(Okerra bada, honi ez diote aitabitxek eta amabitxik kredoa ondo erresatu)

laka erdire meidu: laka erdira neurtu

"Au meidute san, laka erdire, ametik eta ona, onek saltze sienak, e, ebaitte, eskiñe kendu barik, ori meidute san laka erdire, emetik eta ona beti" - (Hau neurtzen zen, laka erdira, hamendik eta hona, hauek saltzen zirenak, ebakita, eskina kendu barik, hori neurtzen zen laka erdira, hemendik eta hona beti)

lepos eroan: lepoz eroan

loak bota: loak bota, loak erre

marro dxantzi: marro jantzi, mozorratu

martxan bota: martxan bota

"Geues, e, ba argireko, geue itten sanien, a argidxe martxan botateuen da, aren ure aprobetxetan san" - (Gaeuz, ba argirako, gaua egiten zenean, argi hura martxan botatzen zuen eta, haren ura aprobetxatzen zen)

martxan imiñi: martxan ipini

mesie atara: meza atera

"Ori be entzuot, entzun, ikusi estot ein baya entzun ein yot, txarto txarto daona, esiñ ill edo, esta? esin sertu, ba diru batu, da mesie atara" - (Hori ere entzun dut, entzun, ikusi ez dut egin baina entzun egin dut, txarto-txarto dagoena, ezin hil edo, ezta? ezin sartu, ba diru batu, eta meza atera)

nagidxek atara: nagiak atera

odola atara: odola atera, odolustu

odola metu: odola mehetu

ondo esan: ondo esan

ondu bayetz!: ondu baietz, idi-probetan esaten da postura egiteko

pipetan fumeu: pipetan erre

salmoatan imiñi: salmoatan ipini

soñien dxantzi: soinean jantzi

sotora eraiñ: sotora erein

sotzasala kendu: zotz azala kendu, gaineko belarra kendu erratura egiteko eta soro bihurtzeko lur sail bat

su te ni trateu: zu eta ni tratatu, tratamendu neutroa erabili

surre libreu: sudurra libratu

talusien ebai: talusean ebaki

tenplien berotu: tenplean berotu

tirora eraiñ: tirora erein

trontzara bota: trontzara ebaki

ARRIETAKO HIZTEGIA

txakurre putzitzu: txakurra putzitu, ezpainak lohi dauzkatenean umeei esaten zaie

"Ori ein baño gurao dot nik txakurrek putzitzu be" - (Hori egin baino gurago dut nik txakurrak puztu ere)

"Txakurrek putzitzu gurao dot nik ori baño" - (Txakurrak puztu gurago dut nik hori baino)

"Soas txakurrek putzitan" - (zoaz txakurrak puzten)

txantxarrak dxan: txatxarrak jan

txitxek atara: txitak atera

ulie arrotu: ilea harrotu

urixik ekarri: huritik ekarri

23.3. PARTIZIPIO DEKLINATUAK

absolutua:

"Orrek erodidzek dires" - (Horiek erodiak dira)

"A olako asuntoatan ulertue da" - (Hura holako gauzetan ulertua da)

datiboa:

"Bikorra esne egosidxeri itten dxako, e? esne gordiñeri ori bai, baya ori esne egosidxeri itten dxako bikorra ganekoa" - (Pikorra esne egosiari egiten zaio, e? esne gordinari hori bai, baina hori esne egosiari egiten zaio pikorra gainekoa)

partitiboa:

"Orrek esteu eselan be itxen iñon esanik" - (Horrek ez du ezelan ere egiten inoren esanik)

eskero:

"Geure estilora obeto da, al ixeneskero" - (Geure erara hobeto da, ahal izanez gero)

"Asieskero danak esaten esi leis akabeu" - (Hasiz gero denak esaten ezin litezke amaitu)

"Arek, e, ori enkarguori emoneskero, iltteuen beran sasoyen, ilberan, semendidxen, ilberan en jeneral" - (Hark, mandatu hori emanez gero, hiltzen zuen

beraren sasoian, ilbeheran zemendian, ilberan gehienetan)

"Seuser emoneskiñon posi taus" - (Zer edo zer emanez gero pozik dagoz)

"A kastor bota eskiñoan danak berantzako" - (Kistor hura botaz gero denak berarentzat)

"Artoa gitxi etorkoa ixeneskeiñoako igual berotu itten da" - (Artoa gutxi etorriko izanez gero berdin berotu egiten da)

leku genitiboa:

"Ba estakixu, seuk eskatukoa bada" - (Ba ez dakizu, zeuk eskatukoa den)

"Arto surtekoa esaten dxako, arto surten eiñekoa" - (Surteko artoa esaten zaio, arto surtean eginekoa)

"Bai egote san, baya erosikoa a be, erosikoa, aolango, ni be esetute nau" - (Bai egoten zen, baina erosikoa hura ere, erosikoa, haolako, ni ere ezagututa nago)

"Bixi alargune apartekoa da" - (Bizi-alarguna banatukoa da)

"A gure eusotidxe bastante inportantie ixenekoa da, arri landuas eiñeko etziek eta" - (Gure auzotegi hura nahiko garrantzitsua izanekoa da, harri landuagaz egineko etxeak eta)

motibatiboa:

"Arrotze fiñek esteu itten, olan, a, sartuaittik, arrotze fiñe esta mogietan" - (Arrautza finak ez du egiten, holan, sartuagatik, arrautza fina ez da mugitzen)

"Esteu bardiñ edxoten errotiek, bardin ibilliaittik" - (Ez du berdin ehotzen errotak, berdin ibiliagatik)

23.4. PARTIZIPIOEN GEHIGARRIAK

arren:

"Baspidxe, nasteu nasteu, nobera garbi on arren beste batzuk nasten dire ta, naste itxe da" - (Bazpia, nahastu nahastu, norbera garbi egon arren beste batzuk nahasten dira, nahastu egiten da)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Nobidxoak ixen arren kuadrillen dana etorten sien" - (Senargaiak izan arren taldean denak etortzen ziren)

"Semendidxen erosieskero estau problemarik, bierrien apur bet dxakiñ es arren, se denporie deko, andik eta martire, etzien irekasteko" - (Zemendian erosiz gero ez dago poblemarik, beharrean apur bat jakin ez arren, ze denbora dauka, handik eta martira, etxean irakasteko)

arte:

"Gero etorte siren Bermioti tte Busturitti, ta San Martin dana pase arte berton, tejabanatan da lastatidxen da lo eta edonon lo, ta baya alegriek ixeta siren San Martiñek orduen, andidxe" - (Gero etortzen ziren Bermeotik eta Busturitik, eta San Martin dena pasatu arte berton, tejabanetan eta lastegian eta lo eta edonon lo, eta baina alaiak izaten ziren San Martinak orduan, handiak)

artien:

"Arik eta abadie estaldu artien mogidu bes, geldi" - (Harik eta abadea estali arte mugitu ere ez, geldi)

baño ariñau:

"Txala in baño ariñau, igual lau bost illebeteko ernaridxe dekonien" - (Txahala egin baino arinago, beharbada lau bost hilabeteko ernaria daukanean)

"Madaridxa barridxa ori Arrietara allege baño apur bet ariñau artuten dana" - (Madaria auzoa hori Arrietara ailegatu baino apur bat arinago hartzen dena)

baño lenau:

"Funerala baño lenau, etzera dxoan da erresaridxa errese? da orrek eitxen siren" - (Hileta baino lehenago, etxera joan eta errosarioa errezatu? eta horiek egiten ziren)

barik:

"Edo ingo da eldu biarrien, ba mamiñe in barik beres, e, siketu se, beren epokie akabe da" - (Edo egingo da heldu beharrean, ba mamia egin barik berez, sikatu ze, bere sasoi amaitu da)

"Ukutu in barik saltetauen ganetik" - (Ikutu egin barik salto egiten zuen gainetik)

bierrien:

"Erropie olan, e, lisu egon bierrien ba ixurre olan artu" - (Arropa holan, lisu egon beharrean ba izurra holan hartu)

"Magala da ba, istue ixen bierrien, buelo andidxe badeko, ba magal asko deko, da magal gitxiges ba istue" - (Magala da ba, estua izan beharrean, zabalera handia badauka, ba magal asko dauka, eta magal gutxigaz ba estua)

"Ares landarak esate baterako ba, bat egon bierrien, badaus arloa, sinttedidxe" - (Haritz landareak, esate baterako ba, bat egon beharrean badagoz arloa, zintudia)

esien:

"Ondo eldu esien garratza da" - (Ondo heldu ezean garratza da)

"Ak saldu esien nondik agarreko tzasu?" - (Hark saldu ezean nondik oratuko diozu?)

"Arregletie ori gatxa, nok arregleko deu ba? barridxe iñ esien" - (Konpontzea hori gaitza, nork konponduko du ba? berria egin ezean)

"Ondo siketu esien alperrik galdute sien" - (Ondo sikatu ezean alperrik galtzen ziren)

esik:

"Ule sapak daridxola eroan esik es baya" - (Ile sapak dariola eroan ezik ez baina)

"Kotxerik euki esik esilitxes dxoan" - (Autorik eduki ezik ez litezke joan)

orduko:

"Dana, madxe bereinketu itte san ba, asi orduko" - (Dena, mahai bedeinkatu egiten zen ba, hasi orduko)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Egosi orduko eukitxen deu bitze, ta gero egosten danien, da natie" - (Egosi orduko edukitzen du bitsa, eta gero egosten denean, da pikorra)

"Gu txikitxuek oyen itxi amak, ta dxoate san ta astokada bedarrak ebaitte etorte san etzera, gu altzeu orduko, serratxuegas" - (Gu txikitxoak ohean utzi amak, eta joaten zen eta astokada belarrak ebakita etortzen zen etxera, gu altxatu orduko, zerratxoagaz)

selan...alan...:

"Kandela pa, segun ba, bat il basan bata ta, da beste ba pe il basan ba beste bat eta, selan akabeu ba alan imintte sien" - (Kandelak ba, segun ba, bat hil bazen bata eta, eta beste bat ere hil bazen ba beste bat eta, zelan amaitu ba halan ipintzen ziren)

ta:

"Asko kendute daus orrek" - (Asko kenduta dagoz horiek)

"Gero ba ebai, eskure, gero txolak eiñ, amarreu txolie ta ba, serak, arek metak eta einye imiñi" - (Gero ba ebaki, eskura, gero txolak egin, amarratu txola eta ba, zerak, meta haiek eta eginda ipini)

"Geur ya kanbidxeta dau dana" - (Gaur ja aldatuta dago dena)

"Aurreratute datos, geuse asko, asko" - (Aurreratuta datoz, gauza asko, asko)

"Laban einye dxeusi sen" - (Labean eginda jausi zen)

"Ur beroa botata andi itte san ori" - (Ur beroa botata handik egiten zen hori)

"Lenau sillek oten siren, euren ixena ta apellidue iminye, amen Dxainkon on siren" - (Lehenago aulkiak egoten ziren, euren izena eta deitura ipinita, hamen Jainkon egon ziren)

"Orrek olgetak danak einye gaus gu" - (Olgeta horiek denak eginda gagoz gu)

ta be:

"Aunke berandu einye be, onek oniño elduten denporie bi deu, ba es sasoi berak, edo eldu edo paseu itten deu" -

(Berandu eginda ere, honek oraindino heltzen denbora behar du, ba ez sasoi berak, edo heldu edo pasatu egiten du)

"Anjelus erreseteta san, bai soloan egonda be bardiñ" - (Angelus errezatzen zen, bai soroan egonda ere berdin)

"Olloa sarrena ixenda be, e, arik eta ill artien eingo deu beran tandatxue arrotzie" - (Oiloa zaharrena izanda ere, harik eta hil arte egingo du beraren tandatxoa arrautza)

ta ariñ:

"Nik neu pe, muskerra ikusi tte ariñ eskapeta neuén, aginke itten deurela ta" - (Nik neuk ere, muskerra ikusi eta arin eskapatzen nuen, haginka egiten dutela eta)

ta artes

"Geuse estana esteu urtetan imintten baosu ya, lekuen, baya imintten baosu txomin bedarra dauen lekuen ba, berak ittoten dosku erne ta artes, ba esiñ ein ba" - (Gauza eztena ez du irteten ipintzen baduzu ja, lekuan, baina ipintzen baduzu txomin belarra dagoen lekuan ba, berak itotzen digu erne eta artez, ba ezin egin ba)

ta gero:

"An suloa ein ye gero sidxe sartun, burdiñe barik sidxegas sartunde daus, lenaukoak" - (Han zuloa egin eta gero ziria sartu, burdina barik ziriagaz sartuta dagoz, lehenagokoak)

"Ni baño seuser sarrau de ta, ni eskondu te gero eskondu sen, baya bardin tzo" - (Ni baino zer edo zer zaharragoa da eta, ni ezkondu eta gero ezkondu zen, baina berdin dio)

ta ostian:

"Gero egote san funeral ein ye ostien beskaridxe" - (Gero egoten zen hileta egin eta ostean bazkaria)

"Orduen, arek dxadzek pase t'ostien, dxoaten gintzesan irebaten" - (Orduan,

ARRIETAKO HIZTEGIA

jai haiek pasatu eta ostean, joaten ginen ira ebakitzen)

23.5. ADITZ IZENAK

-keran:

"Egoskeran, burgullek lotzen dxakos esnieri, da arek gusteu ser!" - (Egoskeran, drunguluak lotzen zaizkio esnari, eta haiek gustatu zer!)

"Errekeran be idiek usintxue, sartenien be igerten dxako aren usintxue" - (Errekeran ere irak usaintxoa, zartaginean ere igartzen zaio haren usaintxoa)

"Da egote san gero gorantza etorkeran Altxurre ixena dekona" - (Eta egoten zen gero gorantz etorkeran Altxurre izena daukana)

"Ni gastie nitzela prosesioa itxe san, elixatik, kurtziperidxoa dau Arrietan, sartukeran, eskoako alderritxik, an etzien, kamiñoan kontrán, santukeran antxe" - (Ni gaztea nitzela prozesioa egiten zen, elizatik, gurtziperioa dago Arrietan, sartukeran, eskoako alderditik, han etxean, kaminoaren kontra, sartukeran hantxe)

-tie:

"Ori esta burue ondo eukitxie" - (Hori ez da burua ondo edukitzea)

"Baserri bet erostie suerte san" - (Baserri bat erostea suertatu zen)

"Arraro itten dxakun, gatzagas dxatie" - (Arraro egiten zitzaigun, gatzagaz jatea)

-tie les

"Ukubilkadie emoten botzut, seinye saplada bat emongo tzut esatie les, ukubilleas" - (Ukubilkada ematen badizut, zein da zaplada bat emango dizut esatea legez, ukabilagaz)

"Asta matza ba matza san ori, sein ye moskatel matza ixetie les, garun andidxekas da serak, mordak orre pe andidxek" - (Asta mahatsa ba mahatsa zen hori, zein da moskatel mahatsa izatea

legez, garau handiakaz eta zerak, mordak horiek ere handiak)

"Larrena esaten tzakun guk serien, e, larrena bai, ortxe larrena ixetie lentxik, aolan leunune bat basoari itxen dxakona, larrena, ortxe larrenien" - (Larraina esaten genion guk zerean, larraina bai, hortxe larraina izatea lez, haolan leunune bat basoari egiten zaiona, larraina, hortxe larrainean)

-terik:

"Emen estu iñ, e, sakuekas olan ekarterik es" - (Hemen ez dugu egin, zakuakaz holan ekartzetik ez)

"Euskera eitxerik esan egon orduen" - (Euskaraz egiterik ez zen egon orduan)

-tieri:

"Gure gaste denporan, guk itxi in tzaku oiñ eroatieri eskapularidxoa, karmengo amabirjiñena" - (Gure gazte sasoián, guk utzi egin diogu orain eroateari eskapularioa, Karmengo Amabirjinarena)

-tiagaitxik:

"Aren umie astiaitxik, mille ogerleko emoten dosties" - (Haren umea hazteagatik, mila ogerleko ematen dizkidate)

-tearren:

"Tardantzie emon, botatearren umie, botatearren noberan ondotik" - (Tardantza eman, botatzearren umea, botatzearren norberaren ondotik)

-tes

"Mukurre, trongoa da ixetes, surterako da, mukurre ba orixe, arapos beteko trongotza bat, baya surterako ona" - (Mukurra, enborra da izatez, surterako da, mukurra ba horixe, lakatzez beteko trokotza bat, baina surterako ona)

"Bueno antzekoak, antzekoa tire ixetes baya estiek, estiek eurek, diferentie tire, txarridxek esteko olako, jangoikoa esaten

ARRIETAKO HIZTEGIA

dxakon olako este andirik, txala pai" - (Beno antzekoak, antzekoak dira izatez baina hesteak, hesteak eurak desberdinak dira, txerriak ez dauka holako, jangoikoa esaten zitzaion holako heste handirik, txahalak bai)

"Gastañe tire ixetes orre tiñona, esta? baya ene gastañe ederra ta amen, da kendute asala, da mingotza esin dxan" - (Gaztainak dira izatez horrek dinoena, ezta? baina ene gaztaina ederra eta hamen, eta kenduta azala, eta mingotsa ezin jan)

-ten:

"A kantetan balientie ixen san a" - (Hura kantatzen trebea izan zen hura)

"Gero kantzeu kasu itten ba an be initzen da onetan itxi" - (Gero nekatu kasu egiten ba han ere egin nintzen eta honetan utzi)

"Gero urtuten urtuten doanien, lurmendu dxok" - (Gero irteten-irteten doanean, lurmendu dik)

"Lenau etzera etorte san abadie, apur bet dxoan esiñik edo badau be etzera, lelengo konfesetan, eta gero komoniñoa ekarten" - (Lehenago etxera etortzen zen abadea, apur bat joan ezinik edo badago ere etxera, lehenengo aitortzen, eta gero komunioa ekartzen)

-teko:

"Gero errotara eroate san ba urune itteko" - (Gero errotara eroaten zen ba irina egiteko)

"Gero es, arik eta ebateko sasoirarte" - (Gero ez, harik eta ebakitzeko sasoirarte)

"Gero landarak imintteko be, piperrak sartzeko, edo asa landarie, dxorraidxe, batzu pa, sakontxu gurosu, igual badoatzu ondatxurregas, sakon sartute asie imintteko, ba gustue taus" - (Gero landareak ipintzeko ere, piperrak sartzeko, edo aza landarea, jorraia, batzuek ba, sakontxo gura duzu, beharbada badoakizu ondaitzurragaz, sakon sartuta aza ipintzeko, ba gustuak dagoz)

"Au in bideu lelengo atzera kargie defendiduteko, ta aldatzien gora badoa, atzien paretan dxako astun kargie" - (Hau egin behar dugu lehenengo atzera karga defenditzeko, eta aldatsean gora badoa, atzean paratzen zaio astun karga)

"Urune egoten da, dxatekoa ixetan da, ba labati pasekoa" - (Irina egoten da, jatekoa izaten da, ba labetik pasatukoa)

-tekoa

"Anabakie, kalabasiakas da txarridxeri emotekoa san" - (Anabaka, kalabazagaz da, txerriei ematekoa zen)

"Len ba, gedxau kanpora ta saltzen sanien, ordun ariñ etortekoa, goixetikoa" - (Lehen ba, gehiago kanpora eta saltzen zenean, orduan arin etortzekoa, goizetikoa)

"Nire denporan, e, nobidxa ixete san gero gixona ixetekoa" - (Nire denboran, gizongaia izaten zen gero gizona izatekoa)

-tekoan:

"Txarto itxekoan bape barik itxi oba ok" - (Txarto egitekoan bat ere barik utzi hobe duk)

24. POSPOSIZIOAK

Atal honetan, daukaten garratzia gogoan erabilia, jaso ditugun posposizioak eta euron erabileren esaldi eredu batzuk ematen ditugu.

alboan: alboan

aldien: aldean

"Nire aitxitxe ibiltxe san kamiñeru Gerniken, Gerniken Lumo aldien" - (Nire aitita ibiltzen zen kamineru Gernikan, Gernikan Lumo aldean)

"Kanbidxeu itten deu te, len sanoau ixen san denporie, asko be oingo aldien" - (Aldatu egiten du eta, lehen sanoagoa izan zen eguraldia, asko ere oraingo aldean)

antza: antza

antzekoa: antzekoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Ori olako, miñen antzeko ser luse bat
ixetan da" - (Hori holako, mihiaren
antzeko zer luze bat izaten da)

"Lenau selemiñe egote san, olako kaja
antzeko bat, anega erdi edo eukitteuen" -
(Lehenago zelemina egoten zen, holako
kaxa antzeko bat, anega erdi edo
edukitzen zuen)

antzera: antzera

"Luki txakurre ba lukidxen estilo antzera
da" - (Luki txakurra ba lukiaren era
antzera da)

antzien: antzean

"Mai bet egote san elispian antzian" -
(Mahai bat egoten zen elizpean antzean)

"Miruen antzian bat koixu itxen tzien serari,
olloari" - (Miruaren antzean bat hartu
egiten zioten zerari, oiloari)

arte: arte

"Gero es, arik eta ebateko sasoirarte" -
(Gero ez, harik eta ebakitzeko sasoirarte)

"Nik estot useu etzian, arik eta, gurdidxe,
burdiñesko, e, seragas, gurrillek eta, au,
sistema barriko gurdidxe useu arte, estot
useu iños galgarik" - (Nik ez dut erabili
etzian, harik eta, gurdia, burdinazko,
zeragaz, gurrilak eta, hau, sistema
berriko gurdia erabili arte, ez dut erabili
inoiz galgarik)

artien: arte, artean

"Lauen artien edo bosten artien txal bat iltte
san" - (Lauren artean edo bosten artean
txahal bat hiltzen zen)

"Nik bederatzi egunien eukitten dot, oin
batzuk arintxuau kentzen due, eutzen
egunerartien be bai" - (Nik bederatzi
egunian edukitzen dut, orain batzuek
arintxoago kentzen dute, hautsen egunera
arte ere bai)

aspidxen: azpian

"Tripen aspidxen eukitteuen ori ba" -
(Triparen azpian edukitzen zuen hori ba)

"Egurre dau guk esaten tzakune, agie, gero
latie, latie esaten dxako areri olari,
tallien aspidxen imintxen dan ola" -
(Egurra dago guk esaten dioguna, hagea,
gero lata, lata esaten zaio hari oholari,
teilaren azpian ipintzen den ohola)

atzien: atzean

"An, a, len frontoyen atzian asko egote san"
- (Han, lehen frontoiaren atzean asko
egoten zen)

baño: 1. gonbaratiboetan berdintasuna
adierazteko erabiltzen da. 2. baizik, baino
"Gurien esan egon iñor bederatzi baño" -
(Gurean ez zen egon inor bederatzi
baino)

"Saratie eraitxen baño eseuen dxakin kasik"
- (Zarata eragiten baino ez zuen jakin
kasik)

"Da bertan paretan giñen beluniko danok,
aulan ene! geuse itzela abadie, oingo
presidentie ta erregie baño geuse itzelaua
abadie" - (Eta bertan paratzen ginen
belauniko denok, haolan ene! gauza
itzela abadea, oraingo lehendakaria eta
erregea baino gauza itzelagoa abadea)

"Koniflora bai baya koniflora baño gedxau
asa oridxo" - (Azalorea bai baina
azalorea baino gehiago aza-olioa)

barik: barik

"Eta badaus, ain bari pe eskus eitteko" -
(Eta badagoz, hain barik ere eskuz
egiteko)

"Bueno ba erremintte barik eskus in biot" -
(Beno ba erreminta barik eskuz egin
behar dut)

"Lelengo komuniñoa, oin berandu itxen da,
baya len, e, saspi urte barik ni neu pe" -
(Lehenengo komunioa, orain berandu
egiten da, baina lehen, zazpi urte barik
nik neuk ere)

barru: barru

"One teko ondo munarri baten barruen
dana" - (Honek dauka ondo munarri
baten barruan dena)

begire: begira

"Begire egoten gintzesen sanantontxu egune
nos ixengo san, se dxoate san gure aitte,
ba ferire ta palu metxu bet ekarte seuen
t'aren punten imiñi besegutxue, eta oñes
etorte sien Mungidxetik" - (Begira egoten
ginen San Antontxo eguna noiz izango
zen, ze joaten zen gure aita, ba azokara
eta makila mehetxo bat ekartzen zuen eta
haren puntan ipini besigutxoa, eta oinez
etortzen ziren Mungiatik)

beste: beste

"Neure beste bestakixu suk" - (Neure beste
ere ez dakizu zuk)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Sugoye padaus, baya lengo beste estie ikusten" - (Sugoiak badagoz, baina lehengo beste ez dira ikusten)

"Geur estau lenau beste trugoi" - (Gaur ez dago lehenago beste trumoi)

bestekoa: bestekoa, gainakoa

bille: bila

"Elixan be dana kandelie ote san orduen ba, andra bat enkargeta san, da dirue espadekosu pagetako, astoas ibiltxe san artagarunen bille" - (Elizan ere dena kandela egoten zen orduan ba, andre bat enkargatzen zen, eta dirua ez badaukazu ordaintzeko, astoagaz ibiltzen zen artagaroren bila)

"Senbat bider amak bota ost ni orren bille" - (Zenbat bider amak bota nau ni horren bila)

bitxartes: bitartez

eske: eske

"Beti dau tabako eske" - (Beti dago tabako eske)

estilokoa: erakoa

"Orrotzak burdiñesko batzuk, onaixartekoak, ser esangot, e? kollaran sera? alakoxe estilokoak, olantxe ingerukoak" - (Orratzak burdinazko batzuk, honaxeinokoak zer esango dut, e? koilararen zera? halakoxe erakoak, holantxe ingurukoak)

"Mustur sorrostxue, sague paño sertzua deko satorran estiloko musturre" - (Mudur zorroztxoa, saguak baino zertxoago dauka satorraren erako muturra)

estilora: erara

"Geure estilora obeto da, al ixeneskero" - (Geure erara hobeto da, ahal izanez gero)

"Onek lorak estosues dxaten, gosoa tires onek, egositte ensaladan imiñitte, seinye koliflora estilora les" - (Lore hauek ez dituzue jaten, gozoak dira hauek, egosita entsaladan ipinita, zein da azalore erara legez)

fabore: fabore

"Olan mutillekas edo beti ibilli, esta? ta aren faborie ta itxen deuena, au da mari mutille!" - (Holan mutilakaz edo beti ibili, ezta? eta haren faborea eta egiten duena, hau da mari-mutila!)

falta: falta

faltan: faltan

"Alkar poderoso, ba neure faltan oneri edo onek neuri" - (Elkar poderoso, ba neure faltan honi edo honek neuri)

faltara: faltara

"Aren faltara, aman faltara urte bi edo iru edo olan, igual iru urte, igual urte bat igual urte bi, a orduntxe arek urtiek, an eukitxe txusen ak antxe etzien" - (Haren faltara, amaren faltara urte bi edo hiru edo holan, beharbada hiru urte, beharbada urte bat, beharbada urte bi, hura orduantxe urte haiek, han edukitzen zituen hark antxe etxean)

faltie: falta

"Ta ser da ta auxe kare faltie da" - (Eta zer da eta hauxe kare falta da)

ganera: gainera

"Orren ganera gero, igual dxeuste san mune bat, bidera, euri andidxek eitten seittusen da a libreu in bi da" - (Horren gainera gero, beharbada jausten zen muna bat, bidera, euri handiak egiten zituen eta hura libratu egin behar da)

"Nebas ganera aren aittebitxi nas ni" - (Nebaz gainera haren aitatebitxi naiz ni)

ganien: gainean

"Sagarrak normalien eitxe siren, e, artoan ganien, imintxen sendusen, seuser imiñi katxarro an, bakixu, aproposko katxarro baten" - (Sagarrak normalean egiten ziren, artoaren gainean, ipintzen zenituen, zer edo zer ipini katxarro han, badakizu, aproposko katxarro baten)

"Atxa tope ta atxan ganien dau ori einye" - (Haitza topatu eta haitzaren gainean dago hori eginda)

klasera: erara

klasekoa: erakoa

"Urten eitten deu siporrien klaseko bedarrak" - (Irten egiten du ziharen erako belarrak)

kontra: kontra

"Estau, gastañien beste erresistentzi denporaldien kontra dekonik" - (Ez dago, gartzainaren beste erresistentzia denboralaren kontra daukanik)

kontran: kontran

"Olan ormien kontran egote san bakixu?" - (Holan hormaren kontra egoten zen badakizu)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"*Neu etor nitzen eurretik eta atzetik astrapala itzela, ididixen kontran, artien ondo etorritte, eta koste in dxaten pasatie*" - (*Neu etorri nintzen aurretik eta atzetik astrapala itzela, idien kontra, artean ondo etorrita, eta kostatu egin zitzaidan pasatzea*)

kontrarakoa: kontrarakoa

konture: lepotik, bizkar

lako: lakoa, langoa

"*Su esara akordetan an beko talletuen, olan, e, osabedarra lako bedarra?*" - (*Zu ez zara gomutatzen han beheko teilatuan, holan, osa belarra lako belarra?*)

"*Sagarra lakoak eitten dxakes ametz aretxari geixo bat ixetie les da a*" - (*Sagarra lakoak egiten zaizkie ametz haritzari gaixo bat izatea lez da hura*)

les: legez, lez

"*Saldidxek astoak les esteu itten, metxuau itten deu saldidxek*" - (*Zaldiak astoak legez ez du egiten, mehetxoago egiten du zaldiak*)

moduen: moduan

"*Millesak! paretan dxako plagie moduen, inyabatan be*" - (*Milazak! paratzen zaio plaga moduan, indabetan ere*)

"*Sasidixen moduen arek arantzak eta sera pe eukitten ttus orrek*" - (*Sasien moduan hark arantzak eta zerak ere edukitzen ditu horrek*)

modukoa: modukoa

"*Pasadoran modukoa da ori*" - (*Iraztontziaren modukoa da hori*)

"*Esiren egon sarri aren moduko ididixek*" - (*Ez ziren egon sarri haien moduko idiak*)

ostien: ostean

"*Aren ostien ote sien orrek geusek*" - (*Haren ostean egoten ziren gauza horiek*)

parien: parean

"*Len egon be in sen Gernike parien gane ganetxun*" - (*Lehen egon ere egin zen Gernika parean gain-gainetxoan*)

porasus: podazuz, poderioz

"*Es soloko geusekas da, baya jenero klasien bai, se len, e, tomatie, sein piperra seiñ, e, sera, beyen serien badaus be arek eldu itten siren, da oiñ, i, botikien porasus, botata be, koste itten da, gorriñe edo*" - (*Ez soroko gauzakaz eta, baina jenero motan bai, ze lehen, tomatea, zein piperra zein, zera, behean zerean*)

badagoz ere haiek heldu egiten ziren, eta orain, botikaren poderioz, botata ere, kostatu egiten da, gorrina edo)

"*Botikien porasus ixen bideu, d'a ta gusti be konserbeu esiñ*" - (*Botikien podazuz izan behar du, eta halan eta guzti ere kontserbatu ezin*)

"*Urtien porasus ibiltte sien*" - (*Urteen poderioz ibiltzen ziren*)

tipokoa: erakoa

"*Olan okertute dauena, sarda seran tipokoa, sardatxurre edo, kortatxurre edo*" - (*Holan okertuta dagoena, sarda zeraren erakoa, sardaitzurra edo, kortaitzurra edo*)

tipora: erara

"*Kukue ba gabilloi tipora, alperra*" - (*Kukua ba gabirai erara, alperra*)

25. HOTS BERBAK

Atal honetan jaso ditugun hots berbak biltzen dira.

blast!: arin egin

blaust!: jausi

da!: bapatekotasuna adierazteko zarata

dak!: zuldarrek lehertzean esaten da

dast: dast, bat-batean

di-da!: kolpe arina

dxak!: ebakiaren zarata

girrin: atearen edo gurdiazen zarata

kii: miruaren zarata

kirri-kirri: ogiaren zarata

klak!: klak, etetearen zarata

kras!: gardatzearen zarata

parra parra: parra-parra

"*Oin diruek Arridxetara parra parra dxatosak*" - (*Orain diruak Arrietara parra-parra zatozek*)

pisti: damistikuaren zarata

plast: bapatean hil

plasta-plasta: plasta-plasta

plis-plas: plis-plas

ra: arin aldatu

rap!: bapatean bizkortu

ras!: lastoa ebakitzean

run-run: garden zarata

tak: ipurditik landare bat ebaki

taka-taka: oinez ibiltzearen irudia

tak-tak: harria pikatzean egiten den zarata

ARRIETAKO HIZTEGIA

tan-tan: labean artoa jotzeko paragaz ematen den kolpearen zarata
tast: kutxiloagaz ebakitzearen zarata
tia: tira
tras-tras: idien zarata astiro ibiltzean, sotoak astiro egitean egiten dena ere bai
tunba!: txahala jo hiltzeko
turruuu: errotan garauak egiten duen zarata jaustean
txirris txirris: txirri-txirriaren zarata
txi-txi-txi: txorien txio-txioa
txut: beroa adierazteko erabiltzen da
txu-txu-txu: ahopean berba egikeran esaten dena
uf: poza adierazteko interjekzioa
ujuju: pozaren zarata

26. ESKLAMAZIOAK

Gure korpusean jaso ditugun esklamazioak eta, hainbat kasutan, euren erabileraren testuinguruak ere batzen ditugu atal honetan.

ala!: hara
ala ba!: hara ba
ara!: hara!
bai orixe!: bai horixe
bai sera!: bai zera
"Bai sera! radixori pes!" - (Bai zera! irratarik ere ez!)
blast! : arin
ene bada!: ene bada!
ene badatxue!: ene badatxue
ene!, enei!: ene!
enei jangoikoa!: ene jangoikoa!
"Nik asko, asko, olako olgetak asko einye nau ni, enei jangoikoa!" - (Nik asko, asko, holako olgetak asko eginda nago ni, ene jangoikoa!)
fijo!: ziur!
gero!: gero!, esaldiaren amaieran ere ipintzen da
ia ba!: ea bada
itzela: itzela
jesus maria: jesus maria
jesus maria santisima!: jesus maria santisima!
jo!: jo!, harridura edo haserrea adierazteko erabiltzen da
ka!: bai zera!

karo!, klaro: jakina!
"Klaro txarto pase gendune!" - (Jakina txarto pasatu genuena!)
"Klaro txarto pasetan sana!" - (Jakina txarto pasatzen zena)
keba!: bai zera!
kitxu!: kito!
lastimie!: lastima!
"Frantzesa, oiñ a galtzen doa ori, lastimie da ori galtzie" - (Frantzesa, orain hura galtzen doa hori, lastima da hori galtzea)
latigo!: latigo!
ño!: ño!
oba!: hobe!
oba es!: hobe ez!
seguru!: ziur!
sentaille!: zentaila!
sikeran!: sikeran!

27. ESAKUNAK

Atal honetan adjektibo eta aditzondo esakunak aurkeztu ostean, jaso ditugun esaldi eginak eta atsotitzak batuko ditugu.

ADJEKTIBO ESAKUNAK

agure sarra: agure zaharra
arroputze: harroputza
begiokerra: betokerra
beikune motza: begirakune motza
bekoki astune: beboki astuna
bekoki illune: bekoki iluna
burugogorra: buru gogorra
eperdi ariñe: ipurdi arina
esan onekoa: esan onekoa
esan txarrekoa: esan txarrekoa
esku sabala: esku zabala
geuse estana ixen: gauza ez dena izan
"Alde andidxe dau, se dxoan igual eraitten klase bat eskatute, klase txarra ta, ya ederra sartu doste honek, ser ba ta, oso osoan ekarri dot klase ona dalakoan eta arbidxe edo geuse estanak urten dost" - (Alde handia dago, ze joan beharbada ereiten mota bat eskatuta, mota txarra eta, ja ederra sartu didate hauek, zer ba eta, oso-osoan ekarri dut mota ona delakoan eta arbia edo gauza eztenak irten dit)
gixon txankille: gizon eskasa

ARRIETAKO HIZTEGIA

koipelustrie: koipelustrea

"Koipelustrie bada aixe len esan dune sarabanda antzekoa, koipelustrie ondo esaten dabillena, seuser kentzeko" - (Koipe-lustrea bada huraxe lehen esan dugune sarabanda antzekoa, koipelustrea ondo esaten dabillena, zer edo zer kentzeko)

kolore berdie ixen: kolore berdea, azalaren kolore iluna

lepo makurre: lepo makurra

lo askokoa: lo askokoa

lo onekoa ixen: lo onekoa izan

lo txarrekoa: lo txarrekoa

"Lo txarrekoa da au" - (Lo txarrekoa da hau)

losurrekoa lo zuhurrekoa izan, lo arinekoa izan

mike antza: luma asko eta mami gutxi

molda motzekoa: molde motzekoa, itxura motzekoa

mosu merkie: mosu merkea

mutil koskorra: mutil kaskotea

nontzebarridxe: nontzeberria

"Nontzebarri antzien edo dxakin gurien, dxakin esiñik bestien kontue, alakoari esaten dxako" - (Nontzebarri antzean edo jakin gurean, jakin ezinik bestearen kontua, halakoari esaten zaio)

ondasun askokoa ixen: ondasun askokoa izan

onien onekoa: onean onekoa

"Amen faldie, palak, eurreko palak, amen kokoteko sera, asurre, eta amen eukitten deu amen, amen berton, amen berton, junte bat, asurren junte bat, eta total delikadue ganaduentzako da, e, se nik, e, bedxe, apur bet lotzagarridxe bada esatie baye, egidxe esateko billurrik esta euki bier, esta? iños, se apur bet jeniño onekoa nas ni, onien onekoa baya txarrien txarrekoa, total, eta, olan apur bet kabreute etorri txe iños suerte dxat, baten baño gedxautan, e? egidxe esateko, olan palue apur bet gogorra bada, dxo, eta bera botateko, e, bedxe, astoa sarritten, auxe gogorra da, esta?" - (Hamen falda, palak, aurreko palak, hamen kokoteko zera, hezurra, eta hamen edukitzen du hamen, hamen berton, hamen berton, junta bat, hezuraren junta bat, eta guztiz delikatuta

ganaduentzat da, ze nik, behia, apur bat lotsagarria bada esatea baina, egia esateko bildurrik es da eduki behar, ezta? inoiz, ze apur bat jenio onekoa naiz ni, onean onekoa baina txarrean txarrekoa, guztiz, eta, holan apur bat haserretuta etorri eta inoiz suertatu zait, baten baino gehiagotan, e? egia esateko, holan makila apur bat gogorra bada, jo, eta behera botatzeko, behia, astoa sarritan, hauxe gogorra da, ezta?)

sakonekoen antza euki: ijitoen antza eduki; Sakone leku bat da, bertan ijitoak eta egoten ziren

saldi suridxe: zaldi zuria, loaren irudia

sisipasie: zizipozoa

"Sisi pasie deko orrek" - (Zizi-paza dauka horrek)

tripeko sorridxe: tripeko zorria, gosearen irudia

txanka lodidxe: txanka lodia

txanka pistola: txanka pistola, txanka mehea

"Txanka pistola meye bada, ene orrek berna meye padekos, ene txanka pistola or dekosue" - (Txanka pistola mehea bada, ene horrek berna meheak badauzka, ene txanka pistola hor daukazue)

txankamie, txankameye: txanka mehea

txarrien txarrekoa: txarrean txarrekoa

ule dxoana: ile joana

ume lupue: ume lupua

"Nire txiki denporan ori sarri entzun de ume lupue, geur ya esta esaten baya lupue bai, berenoa dekola edo esan gure deu orrek, umie, okerra dala" - (Nire txiki sasoian hori sarri entzun da ume lupua, gaur ja ez da esaten baina lupua bai, pozoia daukala edo esan gura du horrek, umea, okerra dela)

ume misketue: ume mizkatua

umemokoa: ume mokoa

ADITZONDO ESAKUNAK

alako baten, alango baten: halako baten

albo alboka: albo-alboka

an or emenetan: han-hor-hemenetan

ankas bera: hankaz behera

ankas gora: hankaz gora

"Ankas gora dekosu dana!" - (Hankaz gora daukazu dena!)

ARRIETAKO HIZTEGIA

apur bekora bera, apur begora bera: apur bat gora behera

"*Iminye eukitten txusen egunek apur bekora berako serak iminye eukitten txusen*" - (*Ipinita edukitzen zituen egunak apur bat gora beherako zerak ipinita edukitzen zituen*)

apurke-apurke: apurka-apurka

are gitxiau: are gutxiago

asken baten: azken baten

askotas obeto: askotaz hobeto

atara kontue: atera kontua, konta ezazu

badaespadan, badaespada: badaezpadan

"*Esate baterako lurre ondo prepareta dekосу te, bueno ba erremintte barik eskus in biot, arlo andiri pesta ta bueno sotora, tras tras suloak eiñ, ba distantzidxe, irurogei sentimetro, eta imintten dosu artoa ta inyabie, ba biñe edo irune bota badaespadan, e, falta estidxen, da gero ba lar badaus, e, sur ibilli atarateko, miestu*" - (*Esate baterako lurra ondo prestatuta daukazu eta, beno ba erreminta barik eskuz egin behar dut, arlo handirik ere ez da eta beno sotora, tras-tras zuloak egin, ba distantzia, hirurogei zentimetro, eta ipintzen duzu artoa eta indaba, ba bina edo hiruna bota badaezpadan, falta ez dadin, eta gero ba lar badagoz, zuhur ibili ateratzeko, mihaztu*)

banaka-banaka: banaka-banaka

banan-banan: banan-banan

barrabas otzien: barrabas hotsean

"*Emon indesiñoa astoari, indesiñoa ta astoa ondo, ta gero, berana pase dxakonien, beran indesiñoan efetoa pase dxakonien, gero astoa barrabas otzien!*" - (*Eman injekzioa astoari, injekzioa eta astoa ondo, eta gero, berarena pasa zaionean, beraren injekzioaren efektoa pasa zaionean, gero astoa barrabas hotsean*)

bastarra pete: bazterrak bete, kantidadea handia

bates be: batez ere

beñi beñ, beñipeñ: behinik-behin

"*Permisoa bisan orduen beñipeñ, ori eukittek, legal eukittek*" - (*Baimena behar zen orduan behinik-behin. hori edukitzeko, legal edukitzeko*)

bera adi: behera adi, behera begira

bidxen bittarte, bidxen bittertien: bien bitarte

"*Ta bakixu gastiek birrien dabis de, bidxen bittertien iñor ilten bada ba esilei ya ba*" - (*Eta badakizu gazteak beharrean dabilta eta, bien bitartean inor hiltzen bada ba ezin liteke ja ba*)

dana dala: dena dela

dana dalako: dena delakoa

edosein moduten be: edozein modutan ere

esan porresan: esateagatik esan

esate baterako, esaterako: esate baterako

"*Igual esate baterako momentuen akorduen estekotena igual dxatort amar minutu barruen burure*" - (*Beharbada esate baterako momentuan gomutan ez daukadana beharbada datorkit hamar minutu barruan burura*)

etxure baten: itxura baten

gedxen partien: gehien bat

"*Gedxen partien suenak, esta Mari?*" - (*Gehien bat zuenak, ezta Mari?*)

geldi on esiñik: geldi egon ezinik

geldi-geldi: geldi-geldi

gitxi gora bera: gutxi gora behera

gora adi: gora adi, gora begira

in porreiñ: egiteagatik egin

justo antzien: justu antzean

kasu beterako: kasu baterako

"*Guk, geure sasoyen, suen sasoye euki gendunien, kasu beterako, a seguru antzen su baño apur bet gastetxuaua ixengo da*" - (*Guk, geure sasoiaren, kasu baterako, hura ziur antzean zu baino apur bat gaztetxoagoa izango da*)

kasue da se: kasua da ze, halandaze

kasureko: kasurako

"*Lantzarretan olan kasureko seretan eitxe san*" - (*Lantzarretan holan kasurako zeretan egiten zen*)

konteixu: konta ezazu

latigo otzen: latigo hotsean

lelengo ta beñ: lehenengo eta behin

nosik nosera: noizik noizera

nosipiñien, noseipiñ: noizean behin

"*A sadxe ba ganaduentzako, ogirik eta ba esales eitten, e, ein bai eitte san, ba noseipiñiñ edo seuser baya, gari urune esaten dxakon ori ba, aren urune, gero arto taloari tte, ba nastuteko, asko gosoau urteteuen*" - (*Zahi hura ba*)

ARRIETAKO HIZTEGIA

ganaduentzat, ogirik eta ba ez zenez egiten, egin bai egiten zen, ba noizean behin edo zer edo zer baina, gari irina esaten zitzaion hori ba, haren irina, gero arto taloari eta, ba nahasteko, asko gozoagoa irteten zuen)

olako baten: holako baten

orretzas aparte: horrezaz aparte

seguru antzen: ziur antzean

seguru antzetik: ziur antzetik

urtien urtien: urtean urtean

"Emen gedxen partien txarridxe iltten gendun urtien urtien" - (Hemen gehienetan txerria hiltzen genuen urtean-urtean)

ESALDIAK

ai se ume ederra! jainkoak

bereinketurik!: umeei esan behar izaten zitzaiena begizkoa ez egiteko

"Ni akordeta nas, neure denporan, ba beti esan bixeta san, ai se ume ederra, jainkoak bereinketurik, ori espasendun esaten, ba ori estatator onien edo" - (Ni gomutatzen naiz, neure sasoian, ba beti esan behar izaten zen, ai ze ume ederra, jainkoak bedeinkaturik, hori ez bazenuen esaten, ba hori ez dator onean edo)

astoan txalmie baño alperraua ixen:
alperrari buruz esaten da

"Astoan txalmie baño alperraua sara su" - (Astoaren txalma baino alperragoa zara zu)

eurra bolie: aurrera bola

fraillien kontue: beti zer edo zer falta duen kontua

gois gorri arratz euri: goiz gorri arrats euri

illuntze gorri bidxer aterri: ilunde gorri bihar aterri

iñusente potente txakurren bustena tente
tente: inuzente potente txakurraren buztana tente tente; inuzentekadaren bat eginda, esaten zena

Jose Mose gitxarra ontza biko bixerra:
Jose Mose gitarra ontza biko bizarra

Jose Mose dxan da beti gose: Jose Mose jan eta beti gose

Morga kokoerridxe: Morgari buruz esaten dena

Mungidxe lapur gustidxen abidxe:
Mungia lapur guztien habia

saldi suridxe etorri: zaldi zuria etorri, loa etorri

"Beste batzuk esaten tze, kasureko, bakixu biar eitxeko gogorik estauenien, jo su tekosu saldi suridxe! galbanie" - (Beste batzuek esaten diote, kasurako, badakizu behar egiteko gogorik ez dagoenean, jo zuk daukazu zaldi zuria! galbana)

Sanantonidxok dxagon daidxela!: San Antoniok jagon dezala, ganadua bedeinkatzeko esaten zena

San Marko artoa eraitteko goix asko, San Isidro Labradorie orduen da sasoi obie santigitu sana urrutu sana beran lekuen sartu: zaintitarua egikeran esaten den esaldia

selangoa sartena alangoa girtena: zelako zartena halako kirtena

sera ta bera: zera eta bera

28. HITZ ERATORRIAK

Atal honetan eratorpen atzizkirik garrantzitsuenak aurkezten ditugu. Era berean, bakoitzeko jaso ditugun adibideak ere emango ditugu.

ADA/KADA

abornie: abornada, ekitaldia

adarkadie: adarkada

aginkedie: haginkada

alboskadie: albozkada

askorakadie: aizkorakada

astokadie: astokada

basukadie: basokada

belunkadie: belaunkada

"Arek, e, oñetza eta belunkadie an daus" - (Haiek, oinetza eta belaunkada han dagoz)

besartakadie: besartakada

betekadie: betekada

bidxorkadie: bihurkada

bultzeskadie: bultzakada

dardakadie: dardakada

denporadie: denboraldia

egastadie: hegatzada

erpekadie: ihesa

estropesadie: estropezada

ARRIETAKO HIZTEGIA

gasteunedie: gastaunada
goraskadie: gorazkada
gurdikadie: gurdikada
kaixadie: kaixada
kamiokadie: kamiokada
kanpakadie: kanpakada
karkaxadie: zantzoa
katillukadie: katilukada
kirriskadie: kirriskada
kollarakadie: koilarakada
korrokadie: gorazkoa
laprastadie: laprastada
mallukadie: mailukada
oñeskadie: oinezkada
"Oñeskada ederrak itxisus" - (Oinezkada ederrak utzi dituzu)
orroskadie: orrazkada
ostikedie: ostikada
pikadie: ziztada
pitxarkadie: platerkada
platerkadie: platerkada
sakakadie: sakakada
saparradie: zaparrada
sapladie: zaplada
senserradie: zentzerrada
sestokadie: zarankada
surrutadie: zurrutada
takarradie, taukadie, taupadie: taupada
tokadie: hil kanpaia
trugonadie: trumonada, ekaitz
txatxamurkadie: txitximarkada
txilipristadie: zipiztada
txorrostadie: txorrotada
ukubilkadie: ikubilkada
umedadie: umedadea
unadie: unada
unekadie: unekada
urrukadie: urratada

ALDE

atzaldie: arratsaldea
atzekaldie: atzekalde
bekaldie: behekalde
elixaldie: elizalde
godxaldie: goialdea
goikaldie: goikalde
goixaldie: goizaldea
kanpokaldie: kanpokalde
mendialdie: mendialdea

ALDI

deskantzaldidxe: deskantsualdia
egotaldidxe: egotaldia
eualdidxe: eguraldia
gisaldidxe: gizaldia, mendea
gorputzaldidxe: gorputzaldia
ibiltxaldidxe: ibiltaldi
lotaldidxe: lotaldi
otzaldidxe: hotzaldia
satzaldidxe: satsaldia

BAKO

ainbakoa: hainbakoa
asalbakoa: azalbakoa
aspilyubakoa: azpildubakoa
bautisebakoa: bateatubakoa
bereinketubakoa: bedeinkatubakoa
"Selakoak ixengo dies, estakiela, iñok kredorik errese bari tausela ta, edo bereinketubakoa tiela ta" - (Zelakoak izango dira, ez dakiela, inork kredorik errezatu barik dagozela eta, edo bedeinkatubakoak direla eta)
bixerbakoa: bizarbakoa
burubakoa: burubakoa
dudebakoa: dudabakoa
einbakoa: eginbakoa
enbarasubakoa: enbarazubakoa
erresebakoa: errezatubakoa
"Kredorik erresebakoa tie" - (Kredorik errezatubakoak dira)
ganorabakoa: ganorabakoa
gasbakoa: gazbakoa
guresobakoa: gurasobakoa
ikesibakoa: ikasibakoa
lotzabakoa: lotsabakoa
lumebakoa: lumabakoa
mangabakoa: mahukabakoa
mendebakoa, mendeubakoa: mendabakoa
pasebakoa: pasatubakoa
pentzebakoa: pentsabakoa
sulobakoa: zulobakoa
takoibakoa: takoibakoa
ulebakoa: ilebakoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

BARRI

altzebarridxe: altxaberria
asibarridxe: hasiberria
dxadxobarridxe, **dxadxoparridxe:**
 jaioberria
einparridxe: eginbarria
eskonparridxe: ezkonbarria
ilbarridxe: hilberria
imiñiparridxe: ipinibarria
urtenbarridxe: irten berria

BIDE

eskabidie: eskabidea
lusepidie: luzapidea

DATE/DADE

borondatie: borondatea
despedidie: agurra
edadie: edatea, adina
"Edade batekoak gara gu bidxok" - (Edade batekoak gara gu biok)
eletrisitatie: elektrizitatea
fasillidadie: erraztasuna
kalidadie: kalidadea
kantidadie, kantidedie: kantidadea
karidadie: karidadea
nobedadie: berrikuntza
propiedadie: propietadea
"Au berana propietade ixen san, an bixi, eta ameko terreno batzuk erabiltten seittusen, se a baserridxe, apur bet eskasa ixen san, bada amenko laguntasun barik an estau biximodurik" - (Hau berarena propietatea izan zen, han bizi, eta hamengo lur batzuk erabiltzen zituen, ze baserri hura, apur bat eskasa izan zen, bada hamengo laguntasun barik han ez dago bizimodurik)
sosiedadie: elkartea
umedadie: umedatea

DI/TI

arestidxe: hariztia
"Onek etziek eukieuen asko ori, arestidxe asko" - (Etxe honek eduki zuen asko hori, hariztiak asko)
artedidxe: artedia

gastañedidxe: gaztainadia
mastidxe: mahastia
piñudidxe: pinudia
sagardidxe: sagardia

DUN

arantzadune: arantzaduna
arrandune: arranduna
astadune: kirtendun
bixerdune: bizarduna
botoidune: botoiduna
brusdune: brusdun
burudune: buruduna
busterridune: buztarriduna
dirudune: diruduna
dxatune: jatuna
dxostune: jostuna
"Nire ama dxostune ixen san" - (Nire ama jostuna izan zen)
edatune: edatuna, edalea
egurdune: egurduna, egur saltzailea
erdeldune: erdalduna
errudune: erruduna
erruedadune: gurpilduna
euskeldune: euskalduna
gafadune: betaurrekodun
ididune: ididuna
karrodune: karroduna
loradune: loraduna
ogaserudune: ohazeruduna
pintxodune: arantzaduna
"Pintxodune dau gastañiena da" - (Arantzaduna dago gaztainarena eta)
pixudune: pisuduna
sakudune: zakuduna
saldune: zalduna
sulodune: zuloduna
takoidune: takoiduna
tapadune: tapaduna
txarridune: txerriduna

ERIA

1
karnaseridxe, karniseridxe: harategia
panaderidxe: okindegia
pelukeridxe: ile apaindegia
peskaderidxe: arraindegia

ARRIETAKO HIZTEGIA

2

beseridxe: bezeria

gasteridxe: gazteria

maketeridxe: maketeria

"Emen e, ori esta gastetan, etxaku gustetan edo baya dxaten du, se kanpotik etorten dan maketeridxe, e, emon doste neuri probarako" - (Hemen, hori ez da gastatzen, ez zaigu gustatzen edo baina jaten dugu, ze kanpotik etortzen den maketeriak, eman dit neuri probarako)

satarreridxe: zatarrerria

ERA

lekua edo instrumentoa adierazteko, erdal -era :

bañerie: bainontzia

esparragerie: esparragoak ereiteko lekua

kabeserie: kabezera

karterie: diru zorroa

kafeterie: kafegailua

mariñerie: marinera

sesterie: zestera

simintterie, siminderie: mintegia

tarterie: tartera

trigerie: galbahea

neurriak edo tamaina adierazteko:

lodidxerie: lodiera

"Oñ onek ormak, a, ikusten dosu selako lodidxera tekiesan onek ormak?" - (Orain horma hauek, ikusten duzu zelako lodierak dauzkaten horma hauek?)

luserie: luzeera

sabalerie: zabalera

sakonerie: sakonera

Agentea adierazteko:

bendejerie: bendeja saltzailea

beserie: bezeria

erregaterie: erre kardaria

fruterie: fruta saltzailea

ilanderie: neska ezpatadantzaria

karterie: postaria

kosiñerie: sikaldaria

parterie: emagina

sardiñerie: sardinera, arrain saltzailea

solterie: ezkonbakoa

ERU

Agentea adierazteko:

abarketerue: abarketerua

armerue: armeroa

barberue: bizargina

basurerue: zaramerua

biajerue: bidaiaria

bonberue: suhiltzailea

erregaterue: erre kardaria

fruterue: fruta saltzailea

galbarerue: galbahe saltzailea

jornalerue: alogerekoa

kamiñerue: kaminerua

kamionerue: kamiolaria

kanpanerue: kanpai jolea

karnaserue, karneserue: harakina

karreterue: itzaina

karterue: postaria

kaserue: ehiztaria

kuranderue: sasi medikua

kurtzerue: kurtze eroalea

letxerue: esneketaria

listerue: listeroa

mielerue: ezti saltzailea

pajerue: galtzu saltzailea

panaderue: oikina

sakerue: zakuegilea

sapaterue: zapatagina

serrerue: zerraria

sesterue: otzaragilea

solterue: ezkonbakoa

tabernerue: tabernaria

telerue: ehungina

traperue: trapu erosle-saltzailea

triperue: tripazalea, jatuna

txatarrerue: txatarrerua

txorixerue: txorizerua

Lekua adierazteko:

basurerue: zakarrontzia

erroperue: erroa armarioa

fruterue: frutontzia

kandelerue: kandelerua

metxerue: metxeroa

morterue: mortairua

txiskerue: metxeroa

ETA

amesetie: ametsa

ARRIETAKO HIZTEGIA

berbetie: berbeta

"Tropie dala esaten deure ba gure berbetie, ligorra dala" - (Dorpea dela esaten dute ba gure berbeta, lehorra dela)

gerratie: gerratea

olgetie: olgeta

siketie: sikatea

GARRI

1

antojagarridxe: antojagarria

baragarridxe: baragarria

entretendidugarridxe: entretenigarria

lotzagarridxe: lotsagarria

negagarridxe, neargarridxe: negargarria

2

altzagarridxe: altzagarria

aspigarridxe: azpigarria

eseungarridxe: ezagungarri

gosagarridxe: gozagarria

sugarridxe:ugarria

GEI

andragedxe: adregaia

errangedxe, errengeedxe, errenkidxe:
erregaia

eskongedxe: ezkongai

gixongedxe: gizongaia

suingedxe, suinkidxe: suhingaia

GIN

argiñe: hargina

"Ba egon siren argiñek, ba gitxi, e? amen, e, argiñ argiñek egon siren batzuk" - (Ba egon ziren harginak, ba gutxi, e? hamen, hargin-harginak egon ziren batzuk)

biargiñe: behargina, langilea

bixergiñe: bizargina

busterrigiñe: buztarrigina

"Busterrigiñe bai, aor beyen Olabarrin egon siren" - (Buztarrigina bai, haor behean Olabarrin egon ziren)

sorgiñe: sorgina

GURE

askurie: hazkurea

dxakingurie: jakingura

logurie: logurea

IK

alperrik: alperrik

bakarrik: bakarrik

baltzik: beltzik

bareurik: baraurik

"Geubeko amabidxetatik gora, egon bi san bareurik" - (Gaueko hamabietatik gora, egon behar zen baraurik)

beterik: beterik

"Onena ei euen, beterik dxoan da utzik etorri" - (Onena egin zuen, beterik joan eta hutsik etorri)

bixirik: bizirik

erkerarik: arkerarik

esiñik: ezinik

geixorik, gaixorik: gaixorik

"Sarri dau geixorik" - (Sarri dago gaixorik)

goixetik: goizetik

gordiñik: gordinik

"Lelengotan, tomatie gordiñik esan dxaten" - (Lehenengotan, tomatea gordinik ez zen jaten)

itzurik: itsurik

ixilik: ixilik

"Ixilik o adi!" - (Ixilik egon hadi!)

kasik: kasik

kojarik: herrenka

kojorik: herrenka

lokarik: lokarik

ortosik: ortozik

osorik: osorik

posik: pozik

sabalik: zabalik

suririk: zuririk

sutunik: zutunik, zutik

utzik: hutsik

"Bai utzik, alkar dxota albo bidxek" - (Bai hutsik, elkar jota albo biak)

KA

adarka: adarka

aginke: haginka

agirika: agirika

ARRIETAKO HIZTEGIA

alaurike: alaurika

albañeka: albaineka

"Albañeka dau ori, arnasoska andidxe dauenien, ganadueaittik esaten da ori" - (Albaineka dago hori, arnasestu handia dagoenean, ganaduaren gainean esaten da hori)

alboska: albozka

apurke: apurka

arrantzaka: arrantzaka, zurrunka

arrike: harrika

arrosike: aharrausika

aska: hazka

"Bedxe aska dabil" - (Behia hazka dabil)

asto astoka: asto-astoka

baibenkadaka: zabuka, albo-alboka

banaka: banaka

barreka: barreka

besaka: besaka

birinboltaka

botxike: botxora

builtaka: bueltaka

"Onek txakurrek geubien, e, oire orduko, txixe ta beren kaxatxuek eta ortxe itxen txus builtaka" - (Txakur honek gauean, ohera orduko, txiza eta beraren kaxatxoak eta hortxe egiten ditu builtaka)

erpeka: erpaka

estulke: eztulka

etxe etzeka: etxe-etzeka

eupedaka: aupadaka

eusike: ahausika

"Etzietara eusike ta, arek esteu ikisko baya, ardidxetara aolan egon bideu sur, orduen ikisten deu arek" - (Etzietara ahausika eta, hark ez du ikasiko baina, ardietara haolan egon behar du zuhur, orduan ikasten du hark)

garagarraka: garagarraka

girrintzeka: girrintzaka

golpeka: kolpeka

istrikuluke: asto gainean edo joatea hankak zabal zabalik

itzu-itzuke: itsu-itsuka

kabraka: itsu-itsuka

karaxaka: karasaka

kuike: kuika, ostaltara

kukurrukuke: kukurruka

"Onek beti daus kukurrukuke" - (Hauek beti dagoz kukurrukuka)

marroka: marroka, elkar harrapatzen

morrosaka: murrizaka

mosuke: mosuka

murruke: murruka

musturke: muturka

orroaka: orroaka

ostike, ostikeka: ostikoka

ostu ostuke: ostu-ostuke

pelotaka: pilotaka

parretilke, parratilke: trukamera

pelotaka: pilotaka

pikeka: mokoka

poperreka: popaerreka

primeska: primika

saltoka: saltoka

sarataka: zarataka

sokorruke: oihuka

sorroka: zorroka

tabaka: tabaka

taukike: taukika

"Taukike saus lo" - (Taukika zagoz lo)

taupadaka, taukadaka, takadaka:
taupadaka

topeka: topeka

tutulunberdike: txirinbuelata

txapelka: txapelka

txatxamurke: txatxamarka

txorromorroka: txorromorroka

urrumeka: urrumadaka, urrumaka

"Urrumeka egon sara" - (Urrumadaka egon zara)

usinke: usainka

KERIA

alperreridxe: alperkeria

andikeridxe: handikeria

arrokeridxe: harrokeria

astokeridxe: astakeria

ikuskeridxe: ikuskeria

iñusentekeridxe: inuzentekeria, lelokeria

kitxanukeridxe: ijitokeria

sorginkeridxe: sorginkeria

trasteridxe: trasteria, okerreria

"Jesus! ordun oin baño ser gedxau itte san, trasteri gedxau itte san" - (Jesus! orduan orain baino zer gehiago egiten zen, trasteria gehiago egiten zen)

txarkeridxe: txarkeria

txutxukeridxe: txakurkeria

ARRIETAKO HIZTEGIA

KERA

allegekerie: heldukera

asartakerie: aparakera

asikerie: hasikera

botakerie: botakera

dxantzikerie: jantziera

dxokerie: jokera

"Dxokerie bai, dxokerie batera sein bestera, plasara ba, Gernikera be asko ta Mungidxera be bai, bidxetara" - (Jokera bai, jokera batera zein bestera, plazara ba, Gernikara ere asko eta Mungiara ere bai, bietara)

ekarkerie: ekarrera

esakerie: esakera

etorkerie: etorkera

ibilkerie: ibelkera

idxekerie: igoera

iminkerie: ipinkera

ixekerie: izakera

siñeskerie: sineskera

"Orre tire siñeskera batzuk" - (Horiek dira sineskera batzuk)

urtekerie: irteera

"Len ba gitxi, gitxiu Mungidxe, baya oin ba urtekerie ba Mungidxera" - (Lehen ba gutxi, gutxiago Mungia, baina orain ba irtekerie ba Mungiara)

KI

andikidxe: handikia

gaixokidxe: gaixokia

koñatakidxe: koinatagaia

koñatukidxe: koinatugaia

sadxeskidxe: saiheskia

saspikidxe: zazpikia

txarrikidxe: txerrikia

KIN

erdikiñe: erdikina

ondakiñe: hondakina

KUNE

beikunie: begikunea

berbaikunie: berbakunea

"Emen bai guk, baya beste batzuk igual beste modu batera esaten dure, se berbaikunek diferentie taus danien" - (Hemen bai guk, baina beste batzuek igual beste modu batera esaten dute, ze berbakuneak desberdinak dagoz denean)
esagunie, esaunie, esakunie: esakunea

KIZUN

etorkisune: etorkizuna

eliskixune: elizkizuna

KUNTZA

asarrakuntzie: haserrakuntza

larrikuntzie: larrikuntza

"Larrikuntzie etor dxatek" - (Larrikuntza etorri zaidak)

LARI

aginttaridxe: agintaria

andaridxe: andaria

bertzolaridxe: bertsolaria

dxantzaridxe: dantzaria

dxokolaridxe: jokalaria

errementaridxe: errementaria

errondaridxe: errondaria

errotaridxe: errotaria

espatadxantzaridxe: ezpatadantzaria

fumalaridxe: erretzailea

gudaridxe: gudaria

pelotaridxe: pilotaria

probalaridxe: probalaria

sonularidxe: soinularia

topekalaridxe: topekalaria

txistularidxe: txistularia

MENDU

añadimentue: eranskina

ernementue: ernamendua

errendimentue: errendimendua

"Sarrak ikus du ya errendimentue emon dule sati bet" - (Zaharrak ikusi dugu ja errendimendua eman dugula zati bat)

funtzionamentue: funtzionamendua

ARRIETAKO HIZTEGIA

medikamentue: medikamentua
mogimentue, mobimentue: mogimentua
pentzamentue: pentsamendua
sentimentue: sentimendua
tratamentue: tratamentua

pikadora: taukia
tenedora: sardeska
tiradora: tiradera
tratora: traktorea
trilladora: txilindroa

NGO

baltzingo: beltzingoa
banangoa: banangoa
bardingo: berdingoa
goringoa: goringoa
suringoa: zuringoa

ORE

enterradorie: lurpetzailea
erradorie: perratzailea
errentadorie: errentadorea
kantorie: kantaria
kobradorie: kobratzailea
pastorie: artzaina
tasadorie: erremandadeko tasatzaile

NTZA

bengantzie: mendekua
komenentzie: komenentzia
konfidxantzie: konfidantza
labrantzie: laborantza
segurantzie: segurantza
sinifikantzie: esangura

OI

abioye: hegazkina
algodoye: algodoia
arrasoye, errasoye: arrazoa
"Arrasoye deko" - (Arrazoa dauka)
balkoye: balkoia
baloye: baloia
bokoye: bokoia
botoye: botoia
busoye: buzoia, postontzia
errasoye: arrazoa
faldoye: faldoia
frontoye: frontoia
garrafoye: garrafoia
jugoye, juboye: jugoia
kajoye: kajoia
kamioye: kamioia
kamisoye: kamisoia
kantoye: kantoia
kapoye: kapoia
katoye: abcedarioa ikasteko erabiltzen zena
koltxoye: koltxoia
kordoye: kordoia
limoye: limoia
listoye: listoia
lodoye: lodoia
mantoye: mantoia
melokotoye: freskua
montoye: piloa
morroye: morroia
patroye: patroia
pulmoye: biria
sankarroye: zankarroia

NTZIA

denuntzidxe: salaketa
diferentzidxe: desberdintasuna
distantzidxe: distantzia
elegantzidxe: dotorezia
erentzidxe: heredentzia
erreferentzidxe: erreferentzia
induljenzidxe: induljenzia
inportantzidxe: inportantzia, garrantzia
"Guk etzaku orreri inportantzidxe sertzen, esta? baya or be klasie bai fijo dausena"
- (Guk ez diogu horri garrantzia zertzen, ezta? baina hor ere mota bai ziur dagozena)
pasentzidxe: eroapena
penitentzidxe: penitentzia
preferentzidxe: preferentzia
sustentzidxe: mamia

ORA

kolgadora: eskegitokia
markadora: markadora
pasadora: iraztontzia

ARRIETAKO HIZTEGIA

sermoye: sermoia
sintturoye: gerriko-uhala
tabloye: oholtzarra
takoye: takoa
tronpoye, tronboye: tronpoia, xiba handia
turroye: turroia

ONE

gallardonie: handia eta ederra (f.)

OR

lodxorra: lohiorra, zikinterraza

OSO

antojosoa: antojagarria, nazkagarria
drogosoa: drogosoa, bihurria
famosoa: ospetsua
"Ori famoso ixen da beti" - (Hori ospetsua izan da beti)
gustosoa: gustosoa, eroso
itxurosoa: itxurosoa
kuriosoa: ordenatua, garbia
moldosoa: moldekoa, itxurosoa
peligrosoa: arriskutsua
"Lenau totoa useta san, totoatan ixete san peligrosoa" - (Lehenago totoa usatzen zen, totoetan izaten zen arriskutsua)

PE

arbolapie: arbolapea
arkupie: arkupea
aterpie: aterpea
besapie: besapea
elispie, elespie: elizpea
errapie: errapea
errotapie: errotapea
eskillerapie: eskailerapea
etzepie: etxepea
"Amen etzepien dekot nik ortutxue dana" - (Hamen etxepean daukat nik ortutxoa dena)
gerispie: gerizpea
gonapie: gonapea
parrapie: parrapea

sankapie: zankapea
surpie: surpea
tellapie, tallepie: teilapea

RENGO

akaburengo: azkena
aspirengo: azpirengo
atzerengo: atzerengo
eurrerengo: aurrerengo
gannerengo: gainerengo
goirengo, gorengo: gorengo
punterengo: puntarengo
untzurenngo: oraintsurengo

RO

astiro: astiro
"Onek bedxonek esteko odolik eta, emon babie da, astiro astiro, babie gitxidxen gitxidxen gitxidxen sartu, da bedxe berotu, odola berotu" - (Behi honek ez dauka odolik eta, eman baba eta, astiro-astiro, baba gutxian-gutxian-gutxian sartu, eta behia berotu, odola berotu)
geldiro: geldiro
lusero: luzero

TAR

baserritarra: baserritarra
beñakarra: meñakarra
bermiotarra: bermeotarra
bilbotarra: bilbotarra
biskaitarra: bizkaitarra
errigoitxarra, errigoitziarra: errigoitziarra
fikarra: fikarra
gamistarra: gamiztarra
gernikarra: gernikarra
kanpotarra: kanpotarra

TASUN

aberastasune: aberastasun
alpertasune: alpertasuna
apartekotasune: apartekotasuna
argittasune: argittasuna
berotasune: berotasuna

ARRIETAKO HIZTEGIA

finttasune: fintasuna
garbittasune: garbitasuna
gastetasune: gaztetasuna, gaztaroa
gorritasune: gorritasuna
illuntasune: iluntasun
istutasune: estutasuna
klimetasune: klimatasuna
laguntasune: laguntasuna
lastasune: lastasuna
loittasune: lohtasuna
nagitxasune: nagitasuna
ondasune: ondasuna
osasune: osasuna
suritxasune: zuritasuna

TEGI

artegidxe: artegia, artalde
euntegidxe: ehuntegia
eusotidxe, eusoteidxe: auzotegia
goitxegidxe: goitegia
lastatidxe, lasteidxe: lastategia
sastaidxe, sasteidxe: sastegia, sats-lekua
sutegidxe: sutegia

TE

axetie: haizetea
gerratie: gerratea
siketie: sikatea

TI

billurtidxe: bildurtia
eskertidxe: ezkertia
*"Eskertidxe ixen san bedarra ebaten bera" -
(Ezkertia izan zen belarra ebakitzen bera)*
gusurtidxe: gezurtia
lotidxe: lotia
lotzatidxe: lotsatia
moskortidxe: mozkortia
negartidxe: negartia

TO/DO

ederto: ederto
obeto, ogoto: hobeto

ondo: ondo
politxo, politto: polito
"Politxo pareta san" - (Polito paratzen zen)
txarto: txarto
"Ondo asertetan basendun an ote san a bueltaka, ta txarto botaten basendun ba bapes" - (Ondo aparatzen bazenuen han egoten zen hura bueltaka, eta txarto botatzen bazenuen ba bat ere ez)

TOKI

ollotokidxe: oilotokia
orrostokidxe: orraztokia
txarritokidxe: txerritokia
umetokidxe: umetokia

TZA

aixetzie: haizetza
basatzie: basatza
bixitzie: bizitza
dxadxotzie: jaiotza
edurtzie: elurtza
eskabidetzie: eskabidetza
eskontzie: ezkontza
esnatzie: esnatza
euritzie: esnatza
illuntzie: iluntza
ixertzie: izertza
konbidutzie: gonbidadutza
leitzie: leitza
lupetzie: lupetza
soldadutzie: soldadutza

TZAILE

galtzallie: galtzailea
kanpa dxotzallie: kanpai jotzailea
sur lantzallie: zur lantzailea

TZU

aldrapetzue: aldastsua, aldapatsua
armintzue: armintsua
arritzue: harritsua
asaltzue: azaltsua
asurtzue: hezurtsua

ARRIETAKO HIZTEGIA

axetzue: haizetsua
barretzue: barretsua
barritzue: berritsua
dirutzue: dirutsua
euritzue: euritsua
gosatzue: gozatsua
intzebaitzue: intzebakitsua
inyartzue, inyertzue: indartsua
irripetzue: erripatsua
ixurtzue: izurtzu
koipetzue: koipetsua
mamintzue: mamintsua
okelatzue: okelatsua
pixutzue: pisutsua
saldatzue: saldatsua
saratatzue: zaratatsua
uletzue: uletsua
urtetzue: urtetsua
urtzue: urtsua
uruntzue: irintsua

UNE

aterrunie: aterrunea
baltzunie: beltzunea
erdiunie: erdiunea
esaunie: esakuna
eskutunie: ezkutunea
gorriunie: gorriunea
istuunie: estuunea
leununie: leununea
lisunie: zeharrunea
sabalunie: zabalunea
sakonunie: sakonunea
searrunie: zeharrunea
siporraunie: ziporrunea
suriunie: zuriunea
tontorrunie: tontorrunea

ZALE

andrasalie: andrezalea
ardausalie: ardauzalea
"Emen eusoak batzuk, e, ardausaletxuek sienak, e, selako pitxarkada edan baya!"
- (Hemen auzoak batzuk, ardausaletxoak zirenek, zelako pitxarkada edan baina!)
elixasalie: elizazalea
esnesalie: esnezalea
gososalie: gozozalea

letxugesalie: letxugazalea
mutilsalie: mutilzalea
neskasalie: neskazalea

ZINO/INO

afesiñoa, apesiñoa: zaletasuna
atentziñoa: adimena
bakasiñoak: oporrak
bariasiñoa: bariazioa
bereinkesiñoa: bedeinkazioa
deboşiñoa: debozioa, fedea
demoniñoa: diabrua, demonioa, txerrena
diputasiñoa: ahaldundia
"Diputasiñoak leku batzuten eitteittus orrek oin be, guri estosku asko eñ, e?" - (Aldundiak leku batzuetan egiten ditu horiek orain ere, guri ez digu asko egin, e?)

diresiñoa: norabidea
diskusiñoa: eztabada
durasiñoa: iraupena
edukasiñoa: heziketa
emigrasiñoa: emigrazioa
endesinoa, indesiñoa: injekzioa
erlijinoa: erlijioa
erreuniñoa: batzarra, bilkura
esplikasiñoa: azalpena
estasiñoa: geltokia
fermentasiñoa: fermentazioa
formasiñoa: formakuntza
fundisiñoa: fundizioa
funtziñoa: funtzioa
ilusiñoa: ilusioa
indenisasiñoa: indemnizazioa
indesiñoa: idizioa
infesiñoa: infekzioa, zoldura
intentziñoa: intentzinoa
jubilasiñoa: jubilazioa

"Oin guretzako ser? oin guretzako ya jubilasiñoa, besterik estau guretzako" - (Orain guretzat zer? orain guretzat ja jubilazioa, besterik ez dago guretzat)

kantzasiñoa: nekea, nekadura
"Kantzasiñoa dekot" - (Nekea daukat)
kantziñoa: kanta
komisiñoa: batzordea
komuniñoa, komoniñoa: komuninoa
"Lenau etzera etorte san abadie, apur bet dxoan esiñik edo badau be etzera, lelengo konfesetan, eta gero komoniñoa ekarten"

ARRIETAKO HIZTEGIA

- (*Lehenago etxera etortzen zen abadea, apur bat joan ezinik edo badago ere etxera, lehenengo aitortzen, eta gero komunioa ekartzen*)

konbertzasiñoa: elkarrizketa

kondesinoa: baldintza

konfesiñoa: konfesioa, aitortza

konparasiñoa: gonbarazioa

konplikasiñoa: konplikazioa

kontaminasiñoa: kutsadura

kontestasiñoa: erantzuna

kritikasiñoa: kritika

laguntziñoa: laguntasuna, laguntza

lesiñoa: ikasgaia

maldesinoa: madarikazioa

"Geurera be bai, maldesiñoa tekusela ta, ekarrixue abadie, bereinketuteko, seuser maldesiñoa tekosues nonon eta" - (Geurera ere bai, madarikazioak dauzkagula eta, ekar ezazue abadea, bedeinkatzeko, zer edo zer madarikazoak daukazue non edo non eta)

mareasiñoa: zorabioa

matrimoniñoa: andre-gizonak

medisiñoa: neurketa

misiñoa: misioa

modifikasiñoa: aldaketa

obligasiñoa: beharizana

okasiñoa: abagunea

operasiñoa: ebakuntza

orasiñoa: erredua, orazioa, otoitza

orientasiñoa: orientazioa

plantasiñoa: landaketa

plegasiñoa: fregazioa, igurtzialdia

presiñoa: presioa

produsiñoa: ekoizpena

prosesiñoa: prozesioa

solusiñoa: konponbidea

tasasiñoa: tasazioa

telebisiñoa: telebista aparailua

tentasiñoa: tentazioa

tentziñoa: tentsioa

tradisiñoa: tradizioa

umedasiñoa: hezetasuna

uniñoa: batasuna, batza

andraskoa: andrazkoa

ariskoa: harizkoa

arriskoa: harrizkoa

"Bai, ixte lei postie arriskoa, edo ixte lei postie egurrezkoa" - (Bai, izan liteke postea harrizkoa, edo izan liteke postea egurrezkoa)

bereskoa: berezkoa

brontzeskoa: brontzezkoa

burdiñeskoa: burdinazkoa

derrigorreskoa: derrigorrezkoa

egiskoa: egiazkoa

eguneskoa: egunezkoa

egurrezkoa: egurrezkoa

enbraskoa: andrazkoa

erderaskoa: erdarazkoa

euskeraskoa: euskarazkoa

gixoneskoa: gizonezkoa

gomaskoa: gomazkoa

intxurrezkoa: intxaurrezkoa

itzeleskoa: itzelezkoa

kiruskoa: kirruzkoa

kobreskoa: kobrezkoa

kristeleskoa: kristalezkoa

lanaskoa: artilezkoa

lurrezkoa: lurrezkoa

metaleskoa: metalezkoa

molleskoa: moilezkoa

narruskoa: larruzkoa

oleateskoa: latazkoa

oleskoa: oholezkoa

patxadaskoa: patxadazkoa

pintxoskoa: arantzazkoa

saraskoa: sarezkoa

sementoskoa: zementozkoa

sidxorreskoa: bidurrezkoa

siñeskoa: zinezkoa

sureskoa: zurezkoa

telaskoa: ehunezkoa

trapuskoa: trapuzkoa

urregorriskoa: urregorritzkoa, urrezkoa

urreskoa: urrezkoa

urresuriskoa: urrezurizkoa, zilarrezkoa

uruneskoa: irinezkoa

ZTO/DO

sapastoa: zapaztoa

sorrystoa: zorritztoa

ugerdo: ugerdo

ZKO

aiskoa: aihazkoa

algodoiskoa: algodoizkoa

altzeskoa: haltzezkoa

ARRIETAKO HIZTEGIA

29. JUNTAGAILUAK

Atal honetan jaso ditugun juntagailuen zerrendagaz batera, euron erabileraren adibidetzat agertzen izan zaizkigun esaldi eredu batzuk ere emango ditugu.

aittik:

"Gure soloa or, sera da, bustidxe, freskoa, da aittik laborie emoten deu ona" - (Gure soroa hor, zera da, bustia, freskoa, eta hargatik laborea ematen du ona)

ain.... (se):

"Ta ser da ta auxe kare faltie da, baya, ain pare da karu esate baterako ori ekartie se esta oin ya kare bixidxe olan doberatan, dxoan karabire ta oiñ estu olakorik usetan" - (Eta zer da eta hauxe kare falta da, baina hain paratu da garesti esate baterako hori ekartzea ze ez da orain ja kare bizia holan doberetan, joan karabira eta orain ez dugu holakorik usatzen)

"Oiñ orrek geusek ain gitxi itten dire, astu itten dxakus" - (Orain gauza horiek hain gutxi egiten dira, ahaztu egiten zaizkigu)

alderdi batetik... bestetik

"Alderdi bateti imintten dxakon sartuteko lekue, esta? aren busterridxen ganera, eta besteti, ba engantxetako, emoten dxakon olako, ba narru sati bet eta gero engantxe bat, solteu te amarreu itteko" - (Alderdi batetik ipintzen zitzaion sartzeko lekua, ezta? buztarri haren gainera, eta bestetik, ba engantxatzeko, ematen zitzaion holako, ba narru zati bat eta gero engantxe bat, soltatu eta amarratu egiteko)

alan da be:

"Dana lotze san sujeteute, d'alan da be bai iruliskero, arek katiek esin kendu ba" - (Dena lotzen zen eutsita, eta hala ere bai irauliz gero, katea haiiek ezin kendu ba)

alandase

"Labrantzarako ganadurik, eta derrigorres bier baosus, biarrien be artu biosu, alandase segun selako labrantzie, onek esture idirik bier, onek ididxe parik maneje dire, tratora ekarri arte, beidxekas edo" - (Lanketarako ganadurik, eta derrigorrez behar badituzu, beharrean ere hartu behar duzu, halandaze segun zelako lanketa, hauek ez dute idirik behar, hauek idiak barik maneiatu dira, tratora ekarri arte, behiakaz edo)

asiske

"Emen eusotidxen bedeatzi besino ixen siren, da euki euden ba, bat ayuntamentuek nonbreta euen kabo barrio, asiske arek eitte seittuen errekaduek, da an bidie txarto dau, a bidie arregletako ak abisetan badeu dxoan in bixeta san" - (Hemen auzotegian bederatzi auzo izan ziren, eta eduki zuten ba, bat udalak izendatzen zuen kabo barrio, halandaze hark egiten zituen mandatuak, eta han bidea txarto dago, bide hura konpontzeko hark abisatzen badu joan egin behar izaten zen)

bata... bestie:

"Bata ba arin datorrena, esate baterako, naboia ariñ etorten da, edo bestie nekesau, txikidxau, eskasau" - (Bata ba arin datorrena, esate baterako, arbia arin etortzen da, edo bestea nekezago, txikiagoa, eskasagoa)

"Batek artun txusen, e, talle satitxuek, da bestiek arri satidxe, kolore diferentiek artzeko" - (Batek hartu zituen, teila zatitxoak, eta besteak harri zatiak, kolore desberdinak hartzeko)

"Batek beti emoten dost, da bestiek baten bes, sekule esteu emoten" - (Batek beti eman dit, eta besteak baten ere ez, sekula ez du ematen)

"Igual ikusten dosu, inyaba baltza esate baterako, ta estosu igerten asidxe bata dan edo bestie dan, baya da bata gorakoa eta bestie berakoa ta igual

ARRIETAKO HIZTEGIA

iguala tires" - (Beharbada ikusten duzu, indaba beltza esate baterako, eta ez duzu igartzen hazia bata den edo bestea den, baina da bata gorakoa eta bestea beherakoa eta berdin-berdinak dira)

bateko... besteko...

"Amen, or goiko elixera, ba gure aitte defuntuek makiñe bat biar eitteuen, bateko abadetzi en erretallie, besteko elixen erretallie" - (Hamen, hor goiko elizara, ba gure aita zenak makina bat behar egiten zuen, bateko abadetxearen erreteila, besteko elizaren erreteila)

baya:

"Bai baya estakitx selan esaten dan" - (Bai baina ez dakit zelan esaten den)

"Arek pageta euden baya geuk es" - (Haiek ordaintzen zuten baina geuk ez)

"Baya kodañie, diferentie laburrau lusiau baya kodañie beti use du guk" - (Baina kodaina, desberdina laburragoa luzeagoa baina kodaina beti usatu dugu guk)

"Beste batzuk eitten due biges, baya gero dxosi" - (Beste batzuek egiten dute bigaz, baina gero josi)

Juntagailu hau esaldi osoaren amaieran kokatuta ere erabiltzen da:

"Katoye esate dxakon, gero bai, gero liburue bai, baya guk gitxi, liburu gitxi gure denporan, on sien, e? baya" - (Katoia esaten zitzaion, gero bai, gero liburua bai, baina guk gutxi, liburu gutxi gure sasoi an, egon ziren, e? baina)

"Lei baltzak dana erretan deu, patatie edo erneta badau be dana erretan deu, gero barridxen urtetan deu baya" - (Lei beltzak dena erretzen du, patata edo erneta badago ere dena erretzen du, gero berriro irteten du baina)

"Lengo orrek gausek esaten apur bet gogoan ixetan ibil gara baya" - (Lehengo gauza horiek esaten apur bat gogoan izaten ibili gara baina)

be:

"Mendi lurrek badire are lurrek, orrek goikoa pe badire" - (Mendi lurrak badira hare-lurrak, goiko horiek ere badira)

"Nire amoma pe ibiltxeuen" - (Nire amamak ere erabiltzen zuen)

"Eta gero aridxe be berak eitxeuen" - (Eta gero haria ere berak egiten zuen)

"Andramaridzek ixeten siren ba setienbrien, e, sortzidxen, d'ondiño ondo eldu barik ote san matza be" - (Andramariak izaten ziren ba irailaren, zortzian, eta oraindino ondo heldu barik egoten zen mahatsa ere)

be bai:

"Arrietako alderdikoa pe bai, dire toska lurrek esan dun moduen" - (Arrietako alderdikoa ere bai, dira toska lurrak esaten dugun moduan)

"Angillie ba, errekie utzittute, sertunde be bai eitte san" - (Angira ba, erreka hustuta, zertuta ere bai egiten zen)

"Amue be bai angilletan da olan bai" - (Amua ere bai angiratan eta holan bai)

"Arrosana beti ixen da, ointxe be bada arrosana, eta ori len be bai" - (Arrozarena beti izan da, oraintxe ere bada arrozarena, eta hori lehen ere bai)

be es:

"Bera pe estau mereke ta itxi in tzo" - (Berak ere ez dago merke eta utzi egin dio)

"Kabidu besta itten kukue" - (Sartu ere ez da egiten kukua)

"Ladrillurik onek etze sarrak bate pesteko" - (Adreilurik etxe zahar hauek batek ere ez dauka)

"Len onek beresko onek dana da bete beterik, oiñ e, arexe pe esteu emoten lengo antzien bes" - (Lehen berezko hauek dena eta bete beterik, orain, harexek ere ez du ematen)

"Amen iñor bestot esetu nik txakoliñe itxen" - (Hamen inor ere ez dut ezagutu nik txakolina egiten)

baitte/baitxe... be:

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Baitxe ementxe be badau oniño, orma bat"
- (Baita hementxe ere badago oraindino, horma bat)

"Erpes bete bete beterik olan! ataraten deu lurre, lurre dana, baitte siminyue be agarretan badeu erpietan" - (Erpez bete-bete-beterik holan! ateratzen du lurra, lurra dena, baita porlana ere hartzen badu erpeetan)

"Ubela usetasan, edo baitte alanbrie be usetaeuden baten batzuk" - (Uhala usatzen zen, edo baita alanbrea ere, usatzen zuten baten batzuek)

bai... bai...

"Andik ekarten du bai naboa ta bai inyabie be bai" - (Handik ekartzen dugu bai arbia eta bai indaba ere bai)

"Andixi toana da nardidxe katiari inketako bai soloan makiñetan, edo bai idi probatan edo" - (Handixik doana da nardaia kateari inkatzeko bai soroan makinatzen, edo bai idi probetan edo)

"Ortxe be, lurre, bai eskatzien bai kuartuetan, da danien lurre egon san" - (Hortxe ere, lurra, bai eskatzean bai geletan, eta denean lurra egon zen)

base

"Gero pentzetan base, oin se edangopa? txakoliñe, jo txakoliñe gogor" - (Gero pentsatzen baze, orain zer edango dut ba? txakolina, jo txakolina gogor)

"Ba esate san base, da neu pe iños asme dot orren usiñe, e?" - (Ba esaten zen baze, eta neuk ere inoiz asmatu dut horren usaina, e?)

"Da diñosku base, neuk esanotzan, da arek an ser dabile an biarrien?" - (Eta dinosku baze, neuk esan nion, eta haiek han zer darabilte han beharrean?)

"An tabernan kafie artzen gausela, esa oskun base, bueno neuk eroango tzut ointxe saku baten" - (Han tabernan kafea hartzen gagozela, esan zigun baze, beno neuk eroango dizut oraintxe zaku baten)

barres:

"Neuri gedxen gustetan dxaten frutie orixe da barres, kerixie" - (Neuri gehien gustatzen zaidan fruitua horixe da berriz, gerezia)

"Kandelaridxo egune, len dxai andidxe ixeta san ori, danak kandelieas beluko mesara Arrietara, gu be, da gure guresoak, barres, ene gure ama!" - (Kandelario eguna, lehen jai handia izaten zen hori, denak kandelagaz beluko mezara Arrietara, gu ere, eta gure gurasoak, barrez, ene gure ama!)

edo:

"Estaitx selako agintaridxe edo ser eon sien erridxen" - (Ez dakit zelako agintariak edo zer egon ziren herrian)

"Lenau etzera etorte san abadie, apur bet dxoan esiñik edo badau be etzera, lelengo konfesetan, eta gero komoniñoa ekarten" - (Lehenago etxera etortzen zen abadea, apur bat joan ezinik edo badago ere etxera, lehenengo aitortzen, eta gero komunioa ekartzen)

"Ordu erdi ariñao ya preparentako edo olan dxote san" - (Ordu erdi arinago ja prestatzeko edo holan jotzen zen)

Esaldi osoaren amaieran kokatzen denean zalantza adierazteko erabiltzen da:

"Aprille erdidxen asten bada frantzes a ebaten, ya mayetz erdireko ya txortie einye edo" - (Apiril erdian hasten bada frantzes a ebakitzen, ja maiatz erdirako ja txorta eginda edo)

"As bat edo bi kendu, edo as bat edo bi lusetu edo" - (Hatz bat edo bi kendu, edo hatz bat edo bi luzatu edo)

"Batzuk eukitten deurie ba ganadueri orridxe gedxau aprobetxetako emoteko dxaten, edo txarri edo konejue edo olan dekonari edo" - (Batzuek edukitzen dute ba ganaduari orria gehiago aprobetxatzeko emateko jaten, edo txerri edo konejua edo holan daukanari edo)

edo ... edo

"Bai baya sesiñe gasatu itten da gero, prestatetako gasatu itten da, edo esnetan edo uretan edo, metodo asko daus" - (Bai

ARRIETAKO HIZTEGIA

baina zezina gazatu egiten da gero, prestatzeko gazatu egiten da, edo esnetan edo uretan edo, metodo asko dagoz)

"Orridxe gedxau aprobetxeta emoteko dxaten, edo txarri edo koneju edo olan dekonari edo" - (Orria gehiago aprobetxatuta emateko jaten, edo txerri edo koneju edo holan daukanari edo)

ela:

"Sekorra ela bigie da?" - (Zekorra ala begia da?)

"Da etor dxaten estai pa se sasoitten, agostuen ela nos ei ostan esatitt" - (Eta etorri zitzaidan ez dakit ba ze sasoitán, abuztuan ala noiz egin zidan ez dakit)

"Estekot akordurik, baya urten eitxen suen, ela estakit nik, e, bautisetako ixen san, ela gero sartzeko ixen san" - (Ez daukat gomutarik, baina irten egiten zuen, ala ez dakit nik, bataiatzeko izan zen, ala gero sartzeko izan zen)

"Zer ein bidxok orrek tapetako, pekorotza ela ser? ela basie ela bustiñe edo ser?" - (Zer egin behar duk horiek tapatzeko, bekorotza ala zer? ala basa ala buztina edo zer?)

Galdera batzuen amaieran ere agertzen da:

"Musturre loi dauenien, txakurreri mosue emon tzesu atzien ela?" - (Mutturra lohi dagoenean, txakurreri mosua eman diozu atzean ala?)

"Baya orra badekosu kordela ela?" - (Baina horra badaukazu kordela ala?)

es... es...:

"Godxen esta egon kuarturik es esebe, olaas dxositxe besterik esebe" - (Goian ez da egon gelarik ez ezer ere, oholagaz josita besterik ezer ere ez)

"Akar urrusie da es arra es emie, bidxetarikoa" - (Akar urrusea da ez arra ez emea, bietarikoa)

espabe:

"Armosue esaten dxakon ba, kafie, edo ogidxeas da sopak einye dxan aixe, da

espabe ba taloa ta esnie, lenaukoa ixeta san" - (Armozua esaten zitzaión ba, kafea, edo ogiagaz eta zopak eginda jan huraxe, eta ezpabere ba taloa eta esnea, lehenagokoa izaten zen)

"Eta gero labie berotu dala igerten danien, ba ure, posotxu bet alboan espabe balda baten eroan, irek ekarten gontzesan, guri aginyute oskun irek eroateko, da palu baten irek amarreu puntan, da gero arek irek sartu uretan, da labie garbitxu, da gero arto labakoak an imiñi, gosoa labako artoa" - (Eta gero labea berotu dela igartzen denean, ba ura, putzutxo bat alboan ezpabere balde baten eroan, irak ekartzen genizkion, guri agintzen zigun irak eroateko, eta makila baten irak amarratu puntan, eta gero ira haiek sartu uretan, eta labea garbitu, eta gero arto labekoak han ipini, gozoa labeko artoa)

espabese:

"Kikildute nau, kikildute, personie ba kikildute eo lei ba, es geixorik sauselako espabese otzitxu nonon ein sarelako ta gero kikildute nau" - (Kikilduta nago, kikilduta, pertsona ba kikilduta egon liteke, ez gaixorik zagozelako ezpadaze hoztu non edo non egin zarelako eta gero kikilduta nago)

"Arridxe, eta bitxartien darue, estarue sementorik, eser, espabese lurre, lurre darue asko, igual arritxik, sera erdidxe, arri txikerra sartun de gero lurre" - (Harria, eta bitartean daroate, ez daroate porlanik, ezer, ezpadaze lurra, lurra daroate asko, beharbada harritik, zera erdia, harri txikerra sartu eta gero lurra)

eta:

1. kopulatiboa:

"Dxantzitxe nitzen, ta eitxen gendun al dana" - (Janzten nintzen, eta egiten genuen ahal dena)

"Eskillerak eoten sien kamarara da eskillera buruen dau" - (Eskailerak egoten ziren kamarara eta eskailera buruan dago)

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Txaramela nik esetu dot eta gero giltze" -
(Txaramela nik ezagutu dut eta gero
giltza)

"Mondxorra ixete san, da makalloa dxate
san" - (Teila-boda izaten zen, eta
makailoa jaten zen)

2. kausala:

"A lanperatue da, laborie emoten deu te" -
(Hura lanberatua da, laborea ematen du
eta)

"Geldiro dxoan punbala ingosu te" -
(Geldiro joan jausi egingo zara eta)

"Sapoa atrapeueskero, gure aittek esateuen,
sapoari es segidu gero, sapoak txixe
botaten deu te itzutu itten da ta" - (Zapoa
harrapatuz gero, gure aitak esaten zuen,
zapoari ez segitu gero, zapoak txiza
botatzen du eta itsutu egite da eta)

"Esta ona, se emon bi dxako, kantidade
andidxe gatza, umedadie dau te, eta gero
gasi urteten deu" - (Ez da ona, ze eman
behar zaio, kantitate handia gatza,
umeltasuna dago eta, eta gero gazi
irteten du)

"Bai garidxe, geu pe eraitten ixen du te" -
(Bai garia, geuk ere ereiten izan dugu
eta)

"Erreketan, len seuser ikuste san baya oiñ,
e, estau, uri pestau te" - (Erreketan, lehen
zer edo zer ikusten zen baina orain, ez
dago, urik ere ez dago eta)

nei:

"Ortureko, kinpulie nei porruie nei olakoa
pe, plantasiñoa da, asko obie ilberan" -
(Orturako, kinpula nahi porrua nahi
holakoak ere, landaketa eta, asko hobea
ilbeheran)

ostien:

"Ixillien ein bisus eskriturek ostien arexe
teko deretxoa, erositxeko, guri pase
dxakun aunas etziegas" - (Isilean egin
behar dituzu eskriturak ostean harexek
dauka eskubidea, erosteko, gure pasatu
zitzaigun haonegaz etxeagaz)

"Guk erosi gendunien au etzie, ba pase bier
ixen gendusin, gedxau pageu, eta illebeta

edo olan barruen, ixillien eskriturek,
ostien orrek erosten dure, guri pase
dxakun" - (Guk erosi genuenean etxe
hau, ba pasatu behar izan genituen,
gehiago ordaindu, eta hilabete edo holan
barruan, isilean eskriturak, ostean horiek
erosten dute, guri pasatu zitzaigun)

"Akabuen berdie dxan bixetan gendun de
berdetan garrastxue san, ba a goso
ostien" - (Azkenean berdea jan behar
izaten genuen eta berdetan garrastxoa
zen, ba hura gozo ostean)

"Garagarra emen, e, esta, au sonie esta
garagarrekoa, iños batzuk igual
puebarako eraingo suen baya ostien es" -
(Garagarra hemen, ez da, alderdi hau ez
da garagarrekoa, inoiz batzuek
beharbada probarako ereingo zuten
baina ostean ez)

ostantzien:

"Ardidxe be esun oten da, geldi geldi oten
die ta, ostantzien badoas ortik gora, da
or pillo pilloan badaus, de geldi badaus,
denporalie seguru dau, egun bet edo bi
barru denporalie seguru dau" - (Ardia
ere ezagun egoten da, geldi-geldi egoten
dira eta, osterantzian badoaz hortik
gora, eta hor pilo-piloan badagoz, eta
geldi badagoz, denborala ziur dago, egun
bat edo bi barru denborala ziur dago)

"Lanaskoa eukitxeuen gure amak koltxoye ta
arek lanak dxo itxe sien, ostantzien
bolatu itxen siren" - (Artilezkoa edukitzen
zuen gure amak koltxoia eta artile haiek
jo egiten ziren, osterantzian bolatu
egiten ziren)

"Lasto serrie da bestie lastoa txikertakoa,
ostantzien lastoa orreas esta itten ondo,
eiñ eitten da baya gatx, inyar asko bi
deu" - (Lasto-zerra da bestea lastoa
txikertzekoa, osterantzian lastoa
horregaz ez da egiten ondo, egin egiten
da baina gaitz, indar asko behar du)

"Katasie, a garbittu in bi dxako arridxe
emoteko, ostantzien, loittuten dxako bera
arridxe, eta esteu sorrosten, se itten tzo
katasa moduen, laban laban laban" -
(Lohitasuna, hura garbitu egin behar
zaio harria emateko, osterantzian,
lohitzin zaio bera harria, eta ez du

ARRIETAKO HIZTEGIA

zorrozten, ze egiten dio lohitasuna moduan, laban-laban-laban)

ostera:

"Lur baltza gitxi usetan da, lur baltza gitxi dau amen, osterá bustiñe lurre" - (Lur beltza gutxi usatzen da, lur beltza gutxi dago hamen, osterá buztina lurra)

"Dxoan askoriegas eta ebateko, gogor, eta osterá gastañe arek, e, berdetan edo, ondoan ganién dausenien, total bigun da, total bigune!" - (Joan aizkoragaz eta ebakitzeko, gogor, eta osterá gaztaina haiek, berdetan edo, ondoaren gainean dagozenez, guztiz bigun da, guztiz biguna!)

se:

"Estidxe asko se, etzien euki gendusen guk erliek, da estidxe asko dxaten gendun" - (Eztia asko ze, etxean eduki genituen guk erleak, eta eztia asko jaten genuen)

"Gorostokidxe total gitxi, se botatie be galarasota dau" - (Gorostia guztiz gutxi, ze botatzea ere galarazota dago)

"Gu asiko gintxesan, e, sei urte edo olan, asiko gintzesan, se diputasiñoak ein yoskun an eskolie" - (Gu hasiko ginen, sei urte edo holan, hasiko ginen, ze aldundiak egin zigun han eskola)

"Koixu itten du baya, jeneralmentien kanpokoa ekarten du se kanbidxokoa beti de, obeto" - (Hartu egiten dugu baina, gehienetan kanpokoa ekartzen dugu ze aldaketakoa beti da, hobeto)

"Nonon badau seuser erretan, se errien kanpa taus dxoten" - (Non edo non badago zer edo zer erretzen, ze errearen kanpaiak dagoz jotzen)

se... eta:

"Nosonos emongo tzos, se esaten egon san da" - (Noiz edo noiz emango dizkio, ze esaten egon zen eta)

"Oin soloa pe lantzar daus iminye, se oiñ esta labretan da" - (Orain soroak ere lantzar dagoz ipinita, ze orain ez da lantzen eta)

"Bai esaten da, ba saspikidxe ixen da ori umie edo, esteko denporarik, se bederatzi estekos da" - (Bai esaten da, ba zazpikia izan da ume hori edo, ez dauka denborarik, ze bederatzi ez dauzka eta)

segaitti se:

"Oin ser pasetan da? oiñ estau sasoirik segaitti se eraiñ esta itten" - (Orain zer pasatzen da? orain ez dago sasoirik zergatik ze erein ez da egiten)

sein:

"Es soloko geusekas da, baya jenero klasien bai, se len, e, tomatie, sein piperra seiñ, e, sera, beyen serien badaus be arek eldu itten siren, da oiñ, i, botikien porasus, botata be, koste itten da, gorriñe edo" - (Ez soroko gauzakaz eta, baina jenero motan bai, ze lehen, tomateá, zein piperra zein, zera, behean zerean badagoz ere haiek heldu egiten ziren, eta orain, botikaren poderioz, botata ere, kostatu egiten da, gorrina edo)

"Guk eroaten gendun aspigarri, bedarra seiñ irie, nastie, bastante anditxue ixete san orduen" - (Guk eroaten genuen azpigarri, belarra zein ira, nahastea, nahiko handitxoa izaten zen orduan)

ya ke:

"Ya ke etor sarién, ba esango tzut non dekosuen alfafie" - (Etorri zaretenez gero, ba esango dizuet non daukazuen alfalfa)

30. MENPERAGAILUAK

Atal honetan erabiltzen diren menperagailuak batzen ditugu. Menpeko esaldi guztiak BA, LA eta N menperagailuetan oinarritzen direnez gero, menperagailu hauen arabera, sailkatu eta bakoitzaren erabileraren esaldi ereduak emango ditugu.

30.1. BA-

ARRIETAKO HIZTEGIA

baldintza erreala oraina:

"Andrie bada estona ta badona, ta gixona bada estok eta badok" - (Andrea bada eztona eta badona, eta gizona bada eztok eta badok)

"Geldi badaus, denporalie seguru dau, egun bet edo bi barru denporalie seguru dau" - (Geldi badagoz, denborala ziur dago, egun bat edo bi barru denborala ziur dago)

"Kolare argidxe bada ori loyorra da" - (Kolare argia bada hori lohiorra da)

"Otza badau, iru mantoi tx e iminye ariñ elixera bautisetan" - (Hotza badago, hiru mantoi eta ipinita arin elizara bataiatzen)

baldintza erreala iragana:

"Apur bat prepareta on banitzen nik orrek danak memoriz, e, denporiegas memorire ekarten dotas" - (Apur bat prestatuta egon banintzen nik horiek denak buruz, denboragaz gogora ekartzen ditut)

"Saspi neska ixen giñen gu, aixe matrakak saspirok bixi ixen bagiñen" - (Zazpi neska izan ginen gu, haiexek matrakak zazpiok bizi izan baginen)

"A bixi ixen basan are pai kontestekotzun ondo ta, are pai dxaki eusen onek geusek, arek!" - (Hura bizi izan bazen hark bai erantzungo zizun ondo eta, hark bai jakin zituen gauza horiek, hark!)

baldintza irrealak:

"Dxoteko aro iñ arte eukitten gendun metak einye, euridxe ingo baleu beyen ganién" - (Jotzeko aro egin arte edukitzen genuen metak eginda, euria egingo balu behearen gainean)

zehar galdera:

"Ba estakixu, seuk eskatukoa bada" - (Ba ez dakizu, zeuk eskatukoa den)

"Erramak bajetako, normalien eitxen sana, emen parajien, e, eiñ egurrezko kako at, areas kakoas bajetu, te aber askorieas allegetan bada" - (Abarrak bajatzeko, normalean egiten zena, hemen inguruan, egin egurrezko kako bat, haregaz

kakoagaz bajatu, eta ea aizkoragaz ailegatzen den)

"Begire egoten gintzesen sanantontxu egune nos ixengo san, se dxoate san gure aitte, ba ferire ta palu metxu bet ekarte seuen t'aren puntén imiñi besegutxue, eta oñes etorte sien Mungidxetik" - (Begira egoten ginen San Antontxo eguna noiz izango zen, ze joaten zen gure aita, ba azokara eta makila mehetxo bat ekartzen zuen eta haren puntan ipini besigutxoa, eta oinez etortzen ziren Mungiatik)

"Ia arek badeko" - (Ea hark daukan)

ba...be:

"Are lurre bi deu, lur ariñe bi deu, da emen gurien ba, toskariñe badeko pe, es solo danatan baya lantzien uneda baten, da toskariñe dan lekuen" - (Hare-lurra behar du, lur arina behar du, eta hemen gurean ba, toska arina badaukat ere, ez soro denetan baina lantzean unada baten, eta toska arina den lekuan)

"Soloak beti leku beten klase ba padau be, esteu errendimenturik emoten" - (Soroak beti leku baten mota bat badago ere, ez du errendimendurik ematen)

30.2. -LA

konpletiboa:

"Ure baño obie dala esateuden" - (Ura baino hobea dela esaten zuten)

"Senalle ona estala esaten due txakurre alaurike ta badabill" - (Seinale ona ez dela esaten dute txakurra alaurika eta badabil)

"Pu, noberak esateko, sue daola, pu, umieri pu esaten dxako" - (Pu, norberak esateko, sua dagoela, pu, umeari pu esaten zaio)

"San Justo, nik an dekot entzunde, an Bisko ondoan, e, dxeusi sala erreminttie ta San Justo an egon sala" - (San Justo, nik han daukat entzunda, han Bisko ondoan, jausi zela baseliza eta San Justo han egon zela)

"Otie pentzetan dot libre ixeta sala" - (Otea pentsatzen dut libre izaten zela)

"Kutxilloa sorrosteko, portaleko egalien pentzatot badekola olan kurbie inye" -

ARRIETAKO HIZTEGIA

(Kutxiloa zorrozteko, atariko hegalean pentsatzen dut badaukala holan bihurria eginda)

subjuntiboagaz batera:

"Arbolie eskatu euen orrek, bakotxak emon deidxela arbola bana" - (Arbola eskatu zuen horrek, bakoitzak eman dezala arbola bana)

"Tratu ikeran ixeta san ori, esate baterako bei bet saltzen baosu, edo erosi itten baosu, bardiñ, ba tratu itten dosunien akabuko berbie, eskue emon da Sanantoniok dxagon deidxela" - (Tratu egikeran izaten zen hori, esate baterako behi bat saltzen baduzu, edo erosi egiten baduzu, berdin, ba tratu egiten duzunean azkeneko berba, eskua eman eta San Antoniok jagon dezala)

gerundiala:

"Nik estot esetu dabillega baya berak esateuen" - (Nik ez dut ezagutu dabilela baina berak esaten zuen)

"Ser dan estakixuela" - (Zer den ez dakizula)

"Ya anditten doasela? lastagana, batzuk lelengo garie kentzen tzie da gero lastagana bestie" - (Ja handitzen doazela? lastagaina, batzuk lehenengo gara kentzen diote eta gero lastagaina bestea)

"Orduen, etze bat erostie, baserri bet erostie suerte san, onek errentadore dausela, an Mungidxen, serera bidien, Larraurire bidien, ta gero arek, arek dxoan siren, emeko errentadoriek ara" - (Orduan, etxe bat erostea, baserri bat erostea suertatu zen, hauek errentadore dagozela, han Mungian, zerera bidean, Larraurira bidean, eta gero haiek, haiek joan ziren, hemengo errentadoreak hara)

-lako:

"Tentziñoa euki deuelako itzutu in de" - (Tentsioa eduki deuelako itsutu egin da)

"Ardidxe iñusentie dalako garbidxe, ardidxek estaki, euntzek, e, orro itzelak" - (Ardia inuzentea delako garbia, ardiak ez daki, ahuntzak, orro itzelak)

"Pentzu ona dalako ixengo da ori, artoa pe asko berotu itten deuela esaten deude" - (Pentsu ona delako izango da hori, artoak ere asko berotu egiten deuela esaten dute)

-lako:

"Urtxakurre badau te lur txakurre be bai, bidxe tauselakoa dekot" - (Urtxakurra badago eta lur txakurra ere bai, biak dagozelakoa daukat)

"Mai bet egote san elispian antzien, d'antxe seuselakoa ataaten tzuelakoa dekot nik se, an nik ikusi dot eta, an atzien, elixien atzien, elispian, antxe itxi, da elixakoa iñ, artun atzera da gero oñes, kanposanture" - (Mahai bat egoten zen elizpean antzean, eta hantxe zer edo zelakoa ateratzen dizutelakoa daukat nik ze, han nik ikusi dut eta, han atzean, elizaren atzean, elizpean, hantxe utzi, eta elizakoa egin, hartu atzera eta gero oinez, kanposantura)

"Mamukidxea animalidxeri edo lenau emoten tzuelakoa dekot" - (Mamukioa animaliei edo lehenago ematen zitelakoa daukat)

"Otza kalenturie dalakoa dekot" - (Hotza kalentura dalakoa daukat)

"Ni fije nas eskoatara eitten deuelakoa" - (Ni konturatu naiz eskoatara egiten deuelakoa)

-lakoan:

"Alde andidxe dau, se dxoan igual eraitten klase bat eskatute, klase txarra ta, ya ederra sartu doste honek, ser ba ta, oso osoan ekarri dot klase ona dalakoan eta arbidxe edo geuse estanak urten dost" - (Alde handia dago, ze joan beharbada ereiten mota bat eskatuta, mota txarra eta, ja ederra sartu didate hauek, zer ba eta, oso-osoa ekarri dut mota ona delakoan eta arbia edo gauza eztenak irten dit)

-la ta:

"Anisen ure dala ta, aixe anisen ure, eta, tripetako miñe pasetako" - (Anisen ura

ARRIETAKO HIZTEGIA

dela eta, huraxe anisen ura, eta, tripetako mina pasatzeko)

"Lengusu bet or bixi sen len, oin Mungidxen bixi de baya, eta eskonparri gausela ta, solteruten be bai, arek eta nik eitten gendun alkarregas" - (Lehengusu bat hor bizi zen lehen, orain Mungian bizi da baina, eta ezkonbarri gagozela eta, ezkongaietan ere bai, hark eta nik egiten genuen elkarregaz)

"Baya abadiiek esan dosten amalau urte estekotesela ta esetz" - (Baina abadeak esan zidan hamalau urte ez dauzkadala eta ezetz)

"Selakoak ixengo dies, estakiela, iñok kredorik errese bari tausela ta, edo bereinketubakoa tiela ta" - (Zelakoak izango dira, ez dakiela, inork kredorik errezatu barik dagozela eta, edo bedeinkatubakoak direla eta)

30.3. -N

erlatibozkoa:

"Angerue, bautiseta iltxen danari angerue" - (Aingerua, bataiatuta hiltzen denari aingerua)

"Apala ya adarrak beras dekosena da, adar apala" - (Apala ja adarrak beherantz dauzkana da, adar apala)

"Selan esaten dxakon areri elixara dxoaten sienak bautise ta gero?" - (Zelan esaten zitzaion hari elizara joaten zirenak bataiatu eta gero?)

"Pasetan dxakune da, guri oiñ, ariñ eskapentan dosku" - (Pasatzen zaiguna da, guri orain, arin eskapatzen digu)

"A eutze egosten dan lekure botate siren erañotza erramak eta, erañotza ta, ta arek an egosi, tte gero arek bota itte siren" - (Hauts hura egosten den lekura botatzen ziren ereinotza erramak eta, ereinotza eta, eta haiek han egosi, eta gero haiek bota egiten ziren)

"Ba eratzi, eratzi gedxau da, latza, esate baterako las dauen landa baten, areri, lurre kendu atxurreas kentzie, a da eratzi" - (Ba eratzi, eratzi gehiago da, latza, esate baterako latz dagoen landa baten, hari, lurra kendu aitzurragaz kentzea, hura da eratzi)

"Gatzarridxe estxako esaten ganadueri emoten dxakon, e, arridxeri ela?" - (Gatz-harria ez zaio esaten ganaduari ematen zaion, harriari ala?)

subjuntiboagaz batera:

"Talleture bota, a agiñe talleture bota, urten didxon barridxek" - (Teilatura bota, hagin hura teilatura bota, irten diezaion berriak)

"Ollo sarra bai emoten dxakon, ollo saldie edo in didxen ba, famelidxe euki deuen andrieri" - (Oilo zaharra bai ematen zitzaion, oilo salda edo egin dezan ba, familia eduki duen andreari)

"Edo garidxe be igual eitten da nastien, da euki didxen sutunik" - (Edo garia ere beharbada egiten da nahastean, eta eduki dezan zutunik)

"Beroa biar ixeta san, se pilleute ote siren da sabaldu itxeuden goixien, berotu ditxesan, gero oboto urtetako garidxek" - (Beroa behar izaten zen, ze pilotuta egoten ziren eta zabaldu egiten zuten goizean, bero daitezen, gero hobeto irteteko gariak)

"Ortako ba, adartxuek, e, gorantza erain gure badxako, beti gasteta san, beti gasteu apurtxu bet, asala gasteu, goiko asalak gorantza inyar ein deidxon" - (Horretarako ba, adartxoak, gorantza eragin gura bazaio, behetik gastatzen zen, behetik gastatu apurtxo bat, azala gastatu, goiko azalak gorantz indar egin diezaion)

"ze" subjuntiboagaz batera:

"Eta gero txarameltxue, arek falle sedidxen" - (Eta gero txarameltxoa, hark huts egin ze dezan)

"Karie be bai, ori ixeta san, a koipie berak ekarteuen koipie, sertu sedidxen, alperrik galdu sedidxen" - (Karea ere bai, hori izaten zen, koipe hura berak ekartzen zuen koipea, zertu ze dadin, alperrik gal ze dadin)

zehir galdera:

ARRIETAKO HIZTEGIA

"Probeixu au etzien, da ikuskosu se ugeridxe dan ta se gosoa dan" - (Proba ezazu hau etxean, eta ikusiko duzu ze ugaria den eta ze gozoa den)

"Estai pa senbat a, selemiñe eukitten sittusen anegiek, amabi selemiñe edo, estaipa ser ixen san, oiñ astute nau orre paya" - (Ez dakit ba zenbat hura, zelemín edukitzen zituen anegak, hamabi zelemín edo, ez dakit ba zer izan zen, orain ahaztuta nago horiek baina)

"Estaitt senba tiren fijo" - (Ez dakit zenbat diren ziur)

"Oin pasetan dxakune guri bakixu ser dan?" - (Orain pasatzen zaiguna guri badakizu zer den?)

-na:

"Bakit nik ortara itten dana" - (Badakit nik horretara egiten dena)

"Estok egidxe etor diena" - (Ez duk egia etorri direna)

"Enok konturetu etorri asena" - (Ez nauk konturatu etorri haizena)

Esklamazioetan ere erabiltzen da:

"Klaro txarto pase gendune!" - (Jakina txarto pasatu genuena)

"Klaro diena! alde itzela dau, geurien geurien dau alde itzela ta" - (Jakina direna! alde itzela dago, geurean-geurean dago alde itzela eta)

"Karo euki dune geu pe!" - (Jakina eduki duguna)

-n artien:

"Ixen ba teko ya libretako, bera bille doan artien ariñau koisten basuen lengo lekue orduen esateko" - (Izen bat dauka ja libratzeko, bera bila doan artean arinago hartzen bazuen lehengo lekua orduan esateko)

"Aiste bat euki gendun or soltera, gero eskondu sen belu baya, eta arentzat, eskatza esaten du gu pa, ba oneri, an eta kuartu bet eukitxeko lekue, bixi den artien, ori be eskribidute, bai bai, orrek geusek on siren lenau oiñ estau olan" - (Ahizta bat eduki genuen hor

ezkonbakoa, gero ezkondu zen belu baina, eta harentzat, eskatza esaten dugu guk ba, ba honi, han eta gela bat edukitzeko lekua, bixi den artean, hori ere idatzita, bai bai, gauza horiek egon ziren lehenago orain ez dago holan)

"Nire nebiek erosi otzan beran etze partie, eta aparte sitxusen bera bixi den artien, solo bat eta beran etzien lekue, eta nire nebiek emoteko, esnie falta deuen, eta egurre su itxeko" - (Nire nebak erosi zion beraren etxe parte, eta apartatu zituen bera bixi den artean, soro bat eta beraren etxean lekua, eta nire nebak emateko, esnea falta duena, eta egurra su egiteko)

"Auxe ixen san eurek bixi sien lekue, auxe etzie" - (Hauxe izan zen eurek bixi ziren lekua, etxe hauxe)

-nien:

"A surite sanien ya einye dau" - (Hura zuritzen zenean ja eginda dago)

"Andittuten danien begidxe? txotorra edo ori" - (Handitzen denean begia? txotorra edo hori)

"Ba esate san lenau, e, edurre edo itxeuenien, ixerak sabaldute itxusen, d'ikusi itxen ei sien estaitx nondik, e, ba ori sen Anbotoko Señoríe, orixe famie euki euen ak" - (Ba esaten zen lehenago, elurra edo egiten zuenean, izarak zabaltzen zituen, eta ikusi egiten ei ziren ez dakit nondik, ba hori zen Anbotoko andrea, horixe ospea eduki zuen hark)

"Gero labasuek eitxe seitxusenien ogidxe itxen gendun etzien" - (Gero labasuak egiten zituztenean ogia egiten genuen etxean)

"Geubon geubien ogidxe aste sanien, ogidxen puntie be, gorde itte san" - (Gabon gauean ogia hasten zenean, ogiaren punta ere, gorde egiten zen)

-neko:

"Bota a gora, ta a bera datorreneko, imiñi in bier" - (Bota hura gora, eta hura behera datorreneko, ipini egin behar)

"Bai batzen danien kordatu te gero eskegi ba bidaneko" - (Bai batzen denean

ARRIETAKO HIZTEGIA

kordatu eta gero eskegi ba behar denerako)

"Ba geue itten asten daneko baya, ordu bet eukitte suen amarittekook dxote suenak" - (Ba gaua egiten hasten deneko baina, ordu bat edukitzen zuen abemarietakoak jotzen zuenak)

-nik:

"Iños estot entzun emon tzenik areri" - (Inoiz ez dut entzun eman diotenenik hari)

"Eneuen dxakiñ ilye dauenik, bestiek ondoan on siren da, da agotik, bitze" - (Ez nuen jakin hilda dagoenik, bestiek ondoan egon ziren eta, eta ahotik, bitsa)

"Nik estot iños entzun, iñori in tzonik eser" - (Nik ez dut inoiz entzun, inori egin dionik ezer)

-n moduen:

"Abonoa ta berak esa osten moduen, illedan bota bisu abonoa ondo, lurre inyertu didxen" - (Ongarria eta berak esan zidan moduan, ilaran bota behar duzu ongarria ondo, lurra indar dadin)

"Aproposko sera euki dun ba, makiñie txikitakoa, prentzie, bi dan moduen orrek bierrak eittekoa, da gero ba barriker pe garbittu ondo, da sufrieas metxie imiñi erre" - (Aproposko zera eduki genuen ba, makina txikitzekoa, prentsa, behar den moduan horiek beharrak egitekoa, eta gero ba barrikak ere garbitu ondo, eta sufreagaz metxa ipini erre)

"Arto sotoak, satora itten bada, edo ostantzien, illedara, edo eixias ba kalera itten dan moduen, edo markadoraas markeute eraitten da kaletara" - (Arto sotoak, satora egiten bada, edo osterantzean, ilarara, edo exagaz ba kalera egiten den moduan, edo markadoragaz markatuta ereiten da kaletara)

"Egur bet ixetan san, esta? suk esan dosun moduen, eurretik atzera, gurdidxe kargeute, gero atzien amarreu sokie ta itten sana, erramala sokie, soka laburregas, baya guk usetan gendusen bidxek batera" - (Egur bat izaten zen, ezta? zuk esan duzun moduan, aurretik

atzera, gurdia kargatuta, gero atzean amarratu soka eta egiten zena, erramala soka, soka laburragaz, baina guk usatzen genituen biak batera)

"Es gorakoa ta berakoa, gorakoa da, ba, sera itten danien, garatu itten dan moduen artoa, idxoten deu, ba, kasu beterako klase txarra bada, kinpuliak gora idxoten deu klase txarra danien, ikusten da igual, e, ba inyertzu kinpule, ta ño! orra ta ra! asireko formasiñoa iñ" - (Ez gorakoa eta beherakoa, gorakoa da, ba, zera egiten denean, garatu egiten den moduan artoa, igotzen du, ba, kasu baterako mota txarra denean, ikusten da igual, ba idartsu kinpula, eta ño! horra eta ra! hazirako zila egin)

-n les:

"Piñue edo sera ta gerispie daueles erreketan da be, eguskidxe gure deu arrañe pera pe sertzeko, errekan egoteko" - (Pinua edo zera eta gereizpea dagoen lez erreketan eta ere, eguzkia gura du arrainak berak ere zertzeko, errekan egoteko)

"Ba ordun gastiek esireles tabernara dxoaten ba neskan etzietara ta etorten sien eusoatako mutil gastiek" - (Ba orduan gazteak ez ziren lez tabernara joaten ba nesken etxeetara eta etortzen ziren auzoetako mutil gazteak)

"Esate baterako gorautik ebai eskeiñoan, ba brote itten deu arek, baya berautik dxaten deueles, ak gedxau esteu emoten" - (Esate baterako goragotik ebakiz gero, ba erne egiten da hura, baina beheragotik jaten duen lez, hark gehiago ez du ematen)

"Mediku bateri deittuten dxakoles ba, areri deittu itten dxaken" - (Mediku bati deitzen zaion lez ba, haiei deitu egiten zitzaien)

segun...-n:

"Egunien birriten biarbada, segun siketie selan datorren" - (Egunean birritan beharbada, segun sikatea zelan datorren)

"Entierrue goixetan eitte san, eta ixeta san iru klase, segun famelidxe selakoa dan

ARRIETAKO HIZTEGIA

alan" - (Entierroa goizetan egiten zen, eta izaten zen hiru mota, segun familia zelakoa den halan)

"Estok eta badok eitxe san, da oin be itxen da igual, baya gitxiau oiñ asko be, baya segun nor dan antza, nik estok eta badok, o, biri edo iruri itxen ixen tzet" - (Hika egiten zen, eta orain ere egiten da berdin, baina gutxiago orain asko ere, baina segun nor den antza, nik hika, biri edo hiruri egiten izan diet)

"Gatza artzeko, egun batzutan itxi in bi dxako bertan, da gero a gatza artzen deuenien ataraten dosu te garbi garbi iñ, siketute imiñi tte piper sikue emon edo piper barik segun selan akostunbretan dan" - (Gatza hartzeko, egun batzuetan utzi egin behar zaio bertan, eta gero gatz hura hartzen duenean ateratzen duzu eta garbi-garbi egin, sikatuta ipini eta piper sikua eman edo piper barik segun zelan usatzen den)

"Letxerue dator ointxe ta, igual arintxu, esta? segun selako kargie dekon aldien lepoak" - (Esneketaria dator oraintxe eta, igual arintxo, ezta? segun zelako karga daukan aldean lepoak)

selan...-n:

"Ori apatxetako bat, inportantie da, apatxak egala deko, ertza deko emen, esta? da kanpoan ibillieskero, a ertza solteu itten da, idi itten dxako, ertza idi itten da, da gero selan ibiltten dan kanpoan, a iditten dana lurreas edo basiegas edo bete itten da, da a sakatuten, sakatuten idi itten dxako, da ebai in bi dxako a, guk garbittu, da erradurie imiñi ba kureu, olantxe in bi da" - (Hori apatxetako bat, garrantzitsua da, apatxak hegala dauka, ertza dauka hemen, ezta? eta kanpoan ibiliz gero, ertz hura soltatu egiten da, ireki egiten zaio, ertza ireki egiten da, eta gero zelan ibiltzen den kanpoan, hura irekitzen dena lurragaz edo basagaz edo bete egiten da, eta hura sakatzen, sakatzen ireki egiten zaio, eta ebaki egin behar zaio hura, guk garbitu, eta perra ipini ba osatu, holantxe egin behar da)

"Aitteri sarritten entzun, sugoye sertun, de isterrien batunde, bedxeri selan edaten

tzan esnie" - (Aitari sarritan entzun, sugoia zertu, eta izterrean batuta, behiari zelan edaten zion esnea)

sebet eta... -n:

"An emoteuen, senbat sakonau dekosun emoteuen esparragoa lusiaua" - (Han ematen zuen, zenbat sakonago daukazun ematen zuen zainzuria luzeagoa)

"Senbat eta aixe gedxau, eguski gedxau artzen deuen, asko da fiñaua" - (Zenbat eta haize gehiago, eguzki gehiago hartzen duen, asko da finagoa)

sein ye:

"Sanbedarra pai, orre pe ba useta siren, sein ye enplastu edo einye, edo serak, eridek edo olako seratan" - (Zainbelarrak bai, horiek ere ba usatzen ziren, zein da enplasto edo eginda, edo zerak, zauriak edo holako zeretan)

"Gero freskue be bai, frenkue pe daus, e, sein ye onek, oiñ etorten dien onek" - (Gero freskoa ere bai, freskoak ere dagoz, zein da hauek, orain etortzen diren hauek)

"Lausi in dxates begidxek sein ye mareasiño bat" - (Lauso egin zaizkit begiak zein da zorabio bat)

"Mareasiño ordureko begidxek lausi in dostie, sein ye desaparesidu in dxatzun moduen, sera edo, bistie be" - (Zorabio ordurako begiek lauso egin didate, zein da desagertu egin zaizun moduan, zera edo, ikusmena ere)

"Ondo konserbetarren ba, imiñi gero punten, e, sein ye sera aspigarri metie eitten dan moduen, imiñi ure sartu estidxen punten, e, orretara, gero denpora ona danien sabal sabal sabal eguskidxe emon, da gero etzeratu te gero, arrilosak imiñi, totoan edo dxoten da olan eitte san gari dxoten" - (Ondo kontserbatzearren ba, ipini gero puntan, zein da zera azpigarri meta egiten den moduan, ipini ura sar ez dadin puntan, horretara, gero denbora ona denean zabal-zabal-zabal eguzkia eman, eta gero etxeratu eta gero, harlauzak ipini, totoan

ARRIETAKO HIZTEGIA

*edo jotzen da holan egiten zen gari
jotzen)*

*"Sein ye anpolla batek urtetan deuen
moduen emen?" - (Zein da urbatu batek
irteten duen moduan hemen?)*

*"Bai sadxe be bai, sein ye enplastu moduen
eitteuden sadxegas" - (Bai zahia ere bai,
zein da enplasto moduan egiten zuen
zahiagaz)*